OROIMENAREN HITZA

Ikastolen historia 1960-1975

Idoia Fernandez



udako euskal unibertsitatea

Bizkaiko Foru Aldundia
Kultura Saila

Diputación Foral de Bizkaia
Departamento de Cultura

OROIMENAREN HITZA

Ikastolen historia 1960-1975

Idoia Fernandez

udako euskal unibertsitatea

Bizkaiko Foru Aldundiko Kultura Sailaren babespean

© Idoia Fernandez
© Udako Euskal Unibertsitatea

ISBN: 84-86967-62-7
Lege-gordailua: BI-2441-94

Inprimategia: BOAN, S.A. Padre Larramendi 2. BILBO

Azaleko argazkia: Sopelanako Ikastolako lehen taldea.

Banatzaileak: UEU. General Concha 25, 6. BILBO
Zabaltzen: Igerabide, 88 DONOSTIA

AURKIBIDEA

AURKIBIDEA ..... *V*

AITZINSOLASA ..... *IX*

SARRERA *1*

***I. ATALA:* HIZKUNTZA ETA HEZKUNTZA EUSKAL HERRIAN. GERRAURREKO PLANTEAMENDUAK** 9
1.1. MOYANO LEGEA ETA EUSKALDUNGOAREN AUZIA 11
1.2. KULTUR MAILAKO ERANTZUNA ETA EUSKAL PIZKUNDEA 16
1.3. EUSKO IKASKUNTZAREN BATZARRAK ETA EUSKALDUNEN ESKOLATZEA. ELEBITASUNAREN PLANTEAMENDUA 18
1.3.1. Eskola sistema ofizialaren bidetik 19
1.3.2. Eskola sistema ofizialetik at, edo sare paraleloaren hastapenak 20
1.3.2.1. Aurrekariak. Bilbo eta Donostiako Ikastetxeak 21
1.3.2.2. Eusko Ikaskuntza eta euskal eskolaren formulazioak 22
1.3.2.3. Euskal eskolaren formulazio nazionaleruntz. Euzko Ikastola Batza 24
1.4. EUSKAL ESKOLARAKO HEZKUNTZA EREDU BATEN BILA: GERRAURREKO BERRIKUNTZA PEDAGOGIKOA 28
1.5. EUSKAL HEZKUNTZAN EMAKUMEEK JOKATUTAKO PAPERA 33

***II. ATALA:* GERRAURREKO EUSKAL ESKOLAREN EREDUA BERRESKURATUZ: DONOSTIAKO ETXE ESKOLAK (1946-1969)** 41
2.1. TOTALITARISMOA ETA NAZIONAL-KATOLIZISMOA EUSKAL HERRIAN 44
2.1.1. Nazional-katolizismoaren eragina euskal hizkuntz eta hezkuntzan . 49
2.1.2. 1945.eko "Ley de Educación Primaria" 53
2.2. FRANKISMOA ETA EUSKAL ESKOLA SAIO BAT: DONOSTIAKO ETXE ESKOLAK (1946-1969) 55
2.2.1. Elbira Zipitriaren ohar biografiko batzu 57
2.2.2. Donostiako etxe eskolen sorrera eta eraketa 62
2.2.3. Donostiako etxe eskolen ezaugarriak 65

2.2.3.1. Eraketa 65
2.2.3.2. Ikasleak 66
2.2.3.3. Irakasleak 67
2.2.3.4. Ikas zikloen antolaketa 71
2.2.3.5. Eredu pedagogikoa 73
2.2.4. Donostiako etxe eskolen esanahiaz eta bilakaeraz zenbait gogoeta. 77
2.2.4.1. Emakume sareak eta hezkuntza funtzioa 78
2.2.4.2. Etxe eskolak eta belaunaldi berria 82
2.3. ELBIRA ZIPITRIAREN EKARPENARI BURUZKO HAUSNARKETA 84
2.3.1. Irakaslegoaren formazioa 86
2.3.2. Zipitriaren praktika pedagogiko eta metodologikoa 87
2.4. EUSKAL HEZIKETAREN BARRUAN BURUTUTAKO BESTE EKIMEN GARRANTZITSUAK 91
2.4.1. "Umeen Deia"..... 92
2.4.2. Baionako "Journées Pédagogiques pour l´enseignement du basque" eta IKAS elkartea 95

***III. ATALA:* ETXE ESKOLA KONTZEPTUAREN DINAMIZAZIOA: IKASTOLEN MUGIMENDUA** 99
3.1. IKASTOLAREN KOKAPENA: KOORDENADA POLITIKO ETA KULTURALEN AZTERKETA 102
3.2. ETXE ESKOLA ETA IKASTOLAREN ARTEKO ETENA 111
3.2.1. Maila politikoan 112
3.2.2. Hezkuntza ideologia mailan 113
3.2.3. Antolakuntza mailan 118
3.3. IKASTOLA: EUSKAL ESKOLAREN BERRIKUNTZA 121
3.3.1. Ikastolak sortzeko motibazioak 124
3.3.2. Ikastolak beren hastapenetan 128
3.3.3. Ikastolen mugimenduaren historiaren epealdietaz gogoeta batzu .. 132
3.4. IKASTOLEN MUGIMENDUAREN ERAKETA 137
3.4.1. Ikastolen arteko mugimenduaren sorrera: elkarlanerako bidean ... 138
3.4.2. Ikastoletako partaideen papera: gurasoak, andereñoak eta laguntzaileak 143
3.4.3. Hezkuntza Proiektua eraikiz: Andereñoen Erresidentzia 147
3.4.4. Gelaren lau hormez bestalde doan hezkuntza: arlo ez formalaren garrantzia 152
3.5. IRAKASLEEN MUGIMENDUA AZTERGAI 157
3.5.1. Emakumea eta hezkuntza 157
3.5.2. Andereñoen mugimendua eta prozesu baten bi aldeak: etengabeko formazioa eta eredu pedagogikoaren eraikuntza 161
3.5.3. Irakasleen mugimenduaren jorraketa pedagogikoa 167

3.5.4. Gordailu eta euskal pedagogia 172
3.5.4.1. Gordailuren ekarpena 176
3.5.4.2. Arazo nagusiak eta jarraibideak 182
3.6. IKASTOLA GIZARTEAREN ISPILUAN 185
3.6.1. GAUR Informea 189
3.6.2. Ikastolen mugimendua zenbakitan 195

***IV. ATALA:* IKASTOLAK ETA INSTITUZIONALTZE PROZESUAK** 205
4.1. IKASTOLEN LEGEZ KANPOKO IZAERA ETA LEGEZTATZEAREN ARAZOA 212
4.2. GIPUZKOAKO IKASTOLEN FEDERAZIOAREN SORRERA 221
4.3. 1970.EKO "LEY GENERAL DE EDUCACION" ETA ESKOLA SISTEMAREN FINKAKETA 224
4.3.1. 1970.eko Legearen eraginak ikastolen mugimenduan 229
4.3.1.1. Azpiegitura 230
4.3.1.2. Irakaslegoa 231
4.4. IKASTOLAK ETA GATAZKA IDEOLOGIKOA 233
4.4.1. Ikastolen borroka eremu nagusia: Estatuarekiko gatazka 234
4.4.2. Ikastolen barruko gatazka 237
4.4.2.1. Ikastolak eta erlijioaren arazoa 240
4.4.2.2. Euskara batua eta euskalkiak: "h"aren gerra 245
4.4.2.3. Euskal giroko, apolitiko eta demokratikoak 248
4.4.2.4. Ikastolak burgesak? 254

ONDORIOAK 261
I. EUSKAL ESKOLA ETA IDEOLOGIA NAGUSIAK 261
II. EUSKAL HEZKUNTZA ETA MODERNITATEA 263
III. IKASTOLEN MUGIMENDUAREN SORRERA ETA LEHENENGO ZABALKUNDEA 265
IV. EMAKUMEA ETA EUSKAL HEZKUNTZA 271
V. INSTITUZIONALTZE PROZESUAK 274

BIBLIOGRAFIA 277

ERANSKINAK 297

AITZINSOLASA

Telefonoa, Idoia Fernandezek bere bisita iragarriz. Lehendanik ezaguna dudan andere gaztea, izan ere elkarrizketa bat eginik baitzidan duela urtebete eta gehiago. Aitortu behar dut, nire aldetik aski aldapa-gora izan zen susmoa daukadala harreman hura. Norberak ustez gainditurik duen arazo bat, ikastolen mugimendua kasu honetan, eta, oroitzapenen mundura bidalita nuenez, aski nekagarri gertatzen zitzaidan berriro arakatzen hasi beharra.

Ororen buru, gai hori oinarritzat, tesi doktorala egin asmotan zebilen eta asmoa ere bestetik ez zen mespretxupean hartzekoa. Gainera, Ikastola Mugimenduaren "lehen historia" zekarren egitekotzat eskuartean. Egia esan lotsa apur bat sentiarazi zidan momentu hartan, baina aukera polita zekarkidan baita kontzientziaren deskargurako. Esango dut zergatik. Delako historia horretan, besteak beste, lekuko zuzena izan nintzelako, eta neuk burutu beharreko eginkizuna izanik, bertan behera egiteke utzia, ez zen batere harritzeko gauza lotsa eta besterik sentitzea.

Orain, aldiz, aurreko bere lana laburbilduz-edo argitaratzekotan den liburuari hitzaurrea behar diodala egin. Hauxe duk hauxe...! Galtzak bete lan ipini ez badit emakume prestu horrek, esan diot neure buruari, eta besterik gabe, baietz berari, egingo dudala zirriborro bat. Agindu errazago egin diodala uste dut, hala ere.

Jakina bada. Baina gauza bat dut garbi. Duela hogeita hamar urte inguru, eta gero, itzelezko burruka burutu zela ikastolak oinarri-oinarritik hartu eta herri mugimendu baten gurpil gainean abian ipintzeko, klandestinitatean jokatuz, gerora tolerantzia-egoera batera heldu baginen ere. Eta gerokoak gero. Burruka esan dut, baina denetarik izan zen egoera hartan: tirabira, tentsio, iskanbila.... eta ororen buru, ordurik gabeko lana eta esfortzua, militantzia deituko genukeena, eta zentzu kolektibo handi batekin burutua. Berdin zen andereño izan, guraso izan edo laguntzaile izan. Bagenekien zertara gindoazen eta elkarrekin jokatzen genuen. Lehenengo eta behin euskara genuen helburu, eta euskara "salbatzea" zen, beste arloetan ziharduen jendea gutxietsi gabe, gure konpromezua, lehen orduetan trena hartu genuenontzat bederen. Besterik zen baina, geroko orduetan azaldu zirenen jarrera, urtean joan ahala denborak erakutsi duenez.

Herritasuna zen, abertzaletasuna, guretzat euskarri eta ezaugarri. Ahopeka nahiz ozenki gure bilkuretan Ikastola/Eskola Nazionala errealitate bion arteko kontrajartzearen aurrean maiz esan edo entzungo genuen: "Hi, ikastolak dituk nazionalak eta ez besteak, e"? eta horrelakorik. Esan gabe doa, ikastolak goizetik gauera hedatu zirela han hemenka Euskal Herri osora, Nafarroa eta Iparraldea barne. Mugikortasun handia zegoen geure artean, eta harremanak egiteko erraztasuna genuen. Honekin besterik ere esan nahi dut, ikastolak gure herrialdean gaindi perretxikuak bezala zabaldu baziren, ez zela kasualitatea izan. Gehienik ere esan daitekeena zera da, lurra landurik zegoela, ez zen gutxi, eta giroa ere ona hazia ereiteko, horra. Baina, inoren bereizketarik gabe, denon buruan zegoen hedadura nazionala izan behar zutela ikastolek eta horretara bideratu behar zirela ahalegin guztiak. Bakoitzarentzat bere herria zen lehenik, herriko lanak eta herriko zeregina, eskualdea gero, herrialdea azkenik, nola andereño hala guraso eta beste edonorentzat. Hiru maila hauetako harremanak ziren ikastola mugimenduari herri-lotura ematen ziotenak.

Hona zeintzuk ziren gure orduko planteamenduaren terminoak:

. Ikastola etxetik atera eta eskolara eramatea.
. Eskola euskaraz burutzea.
. Eskola ona gauzatzea.
. Eskola "nazionala" egitea.

Begibistan dago lehenengo bi atalen edukina zein zen. Alegia, Bilbo nahiz Donostian han-hemenka etxeetan funtzionatzen zuten ikastolak, haurtzaindegi areago egun, eskolaren bilakabidean sartzea. Nire ustetan ez da inoiz behar hainbat errepikatuko zer nolako garrantzia izan zuten ikastola-nukleo haiek bai euskararen aldetik bai eta pedagogiaren aldetik ikastolen mugimenduan, zinez hauek baitziren ikastolen eredu eta ernamuin.

Pedagogia aipatu dugunez, hirugarren atalean sartzen gara. Eskola ona egiteak, dudarik gabe, gaiak euskaraz lantzea zekarren berekin, eta ez hori bakarrik, nahikoa garrantzi handiko tresna zen horretarako erabili behar zen pedagogia bera, orduan ekintza-pedagogia edo pedagogia aktiboa deitzen genuena. Arazo honen kariaz esango dudana ez da sinplezia bat eta gutxiagorik ere. Ikastolek erakutsi duten dinamikaren elementu nagusienetariko bat, euskara eta naziotasunaz aparte, pedagogia izan zela. Are gehiago esango dut. Horrek eragin ziela porrota aurrez aurre genituen eta ozta-ozta programa kunplituz eskola egiten ari ziren maisu-maistra funtzionariei. Bederen porrota psikologikoa.

Herri eskolaren arazoa ere, gure eskola "nazionala" alegia, hein batetan aipaturik dugu. Utopiazko gure mundu, harreman eta giro hartan, hasiera

hasieratik planteaturik genuen helburua da. Agian urte luzeak baino lehen gure herriak hori lortuko zuen esperantzaz ari ginen lanean. Guk amesten genuen ikastolaren errealitatea, gorpuzten, hazten, handitzen edo nagusitzen zihoan heinean berez bezala joan zitekeen gure ustetan bideratzen, eta "ikastola-eskola nazionala" binomio hori hausten, bi errealitateak bat bera bilakatzeraino. Batetik bestera iragan ahal izateko zubia egitearen hastapenak ere aski goiztiarrak izan ziren. Bidenabar esan dezadan ez zirela hain ugari izan pribatuekiko harremanak. Gero bateko afera zela ikusten genuelako agian zeregin hau.

Hura hala eta gero hau! Udaberri hark ez al zuen uzta hobea merezi bada? hauxe da neure buruari behin eta berriro galdegiten diodana. Ni ez naiz sobera gauza gaur egungo nahasmendua ulertzeko, interpretatzeko, eta are, erradiografia txukun bat ateratzeko, baina beldur naiz euskararen etorkizunak ez ote dirauen inoiz baino areago kenka larrian eta irakaskuntza ez ote den zulo ilun batetan aurkitzen. Ikusi besterik A eredua oraino nagusi edo eztabaidagarri izatea edota unibertsitarien egunotako kexu egoera hori. Uste genuen baina nere iritziz uste hori beste behin ustel gertatu da.

Uste genuen egun batean herria bere erakundeak izatera helduko zela. Uste genuen erakundeok herri mugimendu oro bereganatzen jakingo zutela. Uste genuen mugimendu hauen dinamika, oztopatzen ez baina, eragin berri batez jazteko bidea egingo zutela. Uste genuen... uste genuen...

Hala ere eta ororen buru ez nago etsipenak jan behar gaituen ustetan, ezta gutxiagorik ere. Inoiz bada eta, gaitzeko erronka baten aurrean aurkitzen garela pentsatzen dut. Alabaina gazte jendea barra barra ikusten dut euskaraz mintzatzen. Euskaldunok inoiz ez bezala prestaturik eta prestatzen dihardugu hizkuntzaren eta jakintzaren arlo guztietan. Jakingo al dugu kikildurik atzera jo gabe gogor egiten eta etorkizunerantz urrats berriak markatzen. Jakingo al dugu, horretarako, euskarak eta... naziotasunak (irakur bedi eraikintza nazionala) batu behar gaituela, une oro indarrak bilduz.

Jazinto F. Setien

SARRERA

Ikastolen mugimenduaren azterketa egitea erabaki nuenean, ezin dut esan gaiaren ezjakinetik abiatzen nintzenik. Nere oroimenaren atzerako mugetara itzuli eta haurtzaroko pasadizuetan egunerokotasunaren osagaietan aurkitzen baitut. Ni bezala 60. eta 70. hamarkadetan jaiotako hainbat eta hainbat ume. Ez dakit oso ondo nola defini daitekeen frankismoaren garaiko ikastola batetako ikaslearen esperientzia, baina eskola era konkretu batez bizitu izan zela ziur nago. Elkarlana, taldean babestu beharra, haundiaren aurrean txikiak harrotasunez kanporatzen duen ausardia ... guraso eta andereñoen artean joan etortzen ziren egoera, jarrera eta sentimendu hauek ez ziren inolaz ere ikasleengandik aldendu, eta sinkronia behar zuen komunikazio zirkuito malgu eta erraldoi baten gisa gure aldetik bete beharrekoak ere zuzentzen zizkiguten: "hemen helduei entzuten diezuna ezin zaio inori ere konta!", "euskara maite eta defendatu behar dugu, besteek ez ulertu arren"... eta ondo jositako abar luze bat. Era honetara gure ikasgela etxe batetako sukaldea edo arrantzaleen auzoko sakristia izatea, edo monjenaren moduko patiorik ez izatea, edo euskarazko ipuin liburu gutxi izatea, beste eskoletara zihoazen gure lagunen jakinminaren aurrean ohorezko gaiak bihurtu zitzaizkigun, sekulan ez lotsatzekoak. Zeren gureak ere bazituen bere alde onak eta, Lekeitio edo Markina bezalako izen mitikoetarako urteko ibilaldiak, edota Olentzeroa eta Agate Deuna kantatu osteko jaiak, edo andereñoek gurekin zeuzkaten maitasun eta adiskidetasunak ez baitzuten umeontzat inongo parerik.

Euskal Herriko Unibertsitateko Hezkuntzaren Teoria eta Historia Sailean ikergai bat planteatu behar izan nuen unean, ikastolei buruz ikerketa haundirik ez egoteak eta goian aipatzen dudanak erabateko eraginkortasuna izan zuten. Errealitate eta teorizazioaren artean egon ohi den banaketa berriro errepikatzen zela pentsatu nuen, hau da, kaleko edozein euskaldunek ikastoletaz hainbat eta hainbat esperientzia eta eritzi eman ahal dizkizun bitartean, "paperetan" ez da isladatzen, ez da pisuzko dokumentu idatzietan jasotzen.

Baina ez nintzen eskola esperientzia aberats bat jaso behar gorri soilez arindu, baizik eta azterketa historikoaren ekarpenak oraina ulertzeko errezten digun funtsezko argibidearen kontzientziagatik ere. Izan ere, gaur egun euskal eskola publikoaren gaia hain pil-pilean egon denean erreferente historikoak ahazteak sortzen dituen nahasketak eta erabilera ideologiko interesatuak eztabaidaren desitxuraketa ekarri eta galbidean jartzeko arriskua ere soma

daiteke. Horrek euskal eskolaren diskurtso historikoa behar bezala ez dela zehaztu eta kolektibizatu pentsa erazten digu, nolabait ikastola kontzientzia egon badagoela (hortan banakako askoren parte hartzea egon baita) baina ez memoria kolektiboaren eraikuntza landurik. Euskal eskola alternatibo oso bat gauzatu egin zen eta bere bitartez milaka ume euskaraz eskolaratu, baina errealitate horretatik horri dagokion diskurtso historikoa eraikitzera ez gara igaro.

Frankismoaren garaiko eskolen diskurtso historikoa ez eraikitzeak ondorio tamalgarri batzu ekartzen dizkigu: a) Partaide zuzenen heriotzarekin, batez ere gai honi buruzko dokumentazio idatziaren eskasia dela eta, esperientzia hori galbidean sartzen dela (euskal eskolaren kasuan Elbira Zipitria edo Maritxu Barriola ezin elkarrizketatzea lanerako oztopo eta urritasun haundia da, zer esanik ikerketa hau hogei urte barrura arte ez balitz planteaituko). b) Diskurtso historikoa ez bada eraikitzen, memoria historikoa kolektibizatzeko aukera galtzen da eta bananakoen oroitzapen isolatuen mailan geratzen gara. Hau da, ikastola bezalako proiektuan jende askok lan egin du, baina horren historia ez bada idazten, ez dago ekintza kolektibo horren itzulketarik, banakakoak ez baitu inoiz eskuratzen ekintza kolektibo horren adierazpen formalik, edo historiarik. d) Hirugarren ondorioa aurrekoarekin estu lotuta dator, alegia, memoria historikoa ez bada kolektibizatzen, gizataldeek identitate kolektiboa eraikitzeko aukera ere galtzen dute. Gizatalde batek edo herri batek bere ekintzen diskurtsoa jasotzen duenean, partaideei identifikatzeko aukera ematen die taldekidetasun sentimentuak finkatuz; kontrako kasuan, maila psikologikoan zein sozialean hain garrantzitsua den identifikazioa nola burutuko ote den galde diezaiokegu gure buruari. e) Hausnarketa azkenengo puntura eraman ezkero, diskurtso historikoa ez eraikitzeak beste diskurtso historiko batzu nagusitzearen arriskua ekartzen digu, asimilazioa eta "historiarik gabekoen" zerrenda luzean sartuz. Unibertsitatean puntu hau erabat kezkagarria dela uste dut, batez ere euskara eta euskal kulturarekin lotutako gaiak ez direla gehiegi bultzatzen eta, oro har, unibertsitateko "zirkuito akademiko komertzialetatik" kanpo gelditzen direla.

Kezka guzti hauekin, batez ere ikastolaren historia bere partaideei itzuli behar bizi batek eraginda, fenomeno horren azterketa egitea erabaki nuen. Gainera, gaiaren esanahi historikoa eta gaurkotasunaz aparte, maila pertsonalean neukan eskola esperientzia honek ikerketa egin orduko motibazio berezi batzu gehitzen zizkidan, baita aurreko ezagutza eta abantail piloa ere. Kasu gehienetan ikertzeak gai batetan hutsetik abiatu eta ezagutza eskuratzea suposatzen badu ere, nire abiapuntua erabat desberdina izanik, ikerketaren esperientzia ere honek eraginda suertatu da. Berrirakurketa izan dela esango nuke, haur eta nerabezaroko egunerokotasunaren berrirakurketa, berreskuratze bat beste ikuspuntu batetatik. Elkarrizketetan gordeta baina ulertu gabe nituen hainbat

puntutaz hausnartzeko aukera aurkitu dut, baita gaiaren arlo berri asko ezagutzeko ere.

Arrazoi hauekin abiatuta, frankismoaren garaiko ikastolen mugimenduaren historia aztertzea izan zen jarri genuen helburua. Ikastolak maila nazionalean 1969.era arte hedatzen ez ziren arren, frankismoan agertu zen lehenengo euskal eskola saioa 40.eko hamarkadan kokatu behar genuen eta hogeitamabost urte inguruko tarte zabal horrek euskal eskolaren bilakatzearen ikusmira interesgarria emango zigula pentsatu genuen. Frankismoan sortutako euskal hezkuntza praktikak jaso eta ikastolaren sorrera eta garapenaren perfila egin ahal izatea gure bilaketaren eskenatoki orokorra bihurtu zen, gai nagusiak motibazioak, martxan jartzeko mekanismoak, irakaslegoa eta urte hauetako eratze prozesuak izan zirelarik.

Ez gara ikastola konkretu baten azterketara mugatu, zeren gure helburua ezaugarriketa orokorrean ezarri baikenuen. Izan ere, ikastola nortasun osoko esperientzia gisa sortu eta garatu egin zen neurrian, herrialde desberdinetan amankomunak izan ziren seinaleak ikuskatuz profil nagusia irudikatzen saiatu gara. Beraz, frankismoan zirauten ikastola guztien erretratua izaten ahalegindu gara, horrek arazo haundiak zituela jakin arren. Planteamendu honekin ez dugu esan nahi herrialde guztietako ikastolak berdinak direnik edota bere prozesua berdina izan denik, baizik eta badaudela egon mugimenduaren definigarriak izan ziren hezkuntza praktikak eta eraketa moduak ere. Gogoratu bestela andereñoen formazio paraleloa, hezkuntza edukiak (kantak, ipuinak..), eredu metodologikoak, umeen erakustaldiak, jaunartze eta herri kultur ospakizunak... eta abar luze bat, oro har, ikastola kontzientzia korapilatzen duten hainbat elementu.

Ikastolen mugimenduaren gaineko fokapen global honek gertakariaren batasuna argitu digu, erakundetu gabeko praktika ez formaletatik erditu ziren batasun eta bateratasuna. Honek mugimendu sozial baten karakterizaziora eraman gaitu, alegia, boteretik zaintzen ez zen arlo bati erantzunez egitura ofizialetik kanpoko antolamendu bezala hartzera. 60.eko hamarkadan ofizialtasun orotik at eraikitzen den eskola errealitate horren zutabeak euskal eskolaren behar sentitu batean eta partaidetza horizontal eta demokratikoan zehaztu beharko genituzke, non informazioaren kontrola eta erabaki guneak partaide guztien eskubidea eta ardura ziren. Hasierako funtzionaketa hau, noski, egoerak aldatu ahala eta instituzionaltze epean sartzerakoan mutatuz joan dira, eta forma berriak ezagutzeko transizioaz geroztiko azterketa zehatza egin beharko litzateke. Dena den, epe honetan aztertutakoa ikastolak euskal hezkuntzaren historian egon den adierazpen sustraitu eta hedatuena izan direla esateko nahikoa izan da, baita euskal eskola modernoaren eredu propio bakarra osatzen dutela ere.

Ikerketa burutzeko erabilitako metodologiaz ere zertxobait esan nahi genuke sarrera lerro hauetan. Ikastola, euskara ikas hizkuntza erabiltzen duen eskola den neurrian, hizkuntzak jasaten zituen oztopo berdinak pairatu behar izan ditu. Batetik errepresioa, eta bestetik euskararen ahozkotasun mailaren eragina ere. 1968.ean Aranzazun euskara batuari buruzko erabakiak hartu zirenean ematen zaio ofizialki euskarari alfabetatze tresna izateko aukera, eta momentu horretatik aurrera euskaraz idazteko eta testuak ekoizteko oinarrizko lanabesa badugula esango genuke. Hala ere, gizartea euskal alfabetatze prozesuetan sartzea ez da epe laburreko zeregina, urte asko eta adierazpen desberdinak biltzen dituen saiakera baizik, eta gure kasuan, aipatutako egoera hauek direla medio, ikastolei buruzko dokumentazio idatzi eta zuzenik jasotzea oso zaila bihurtu zitzaigun. Noski, hemen dokumentuak aipatzen ditugunean, historiografia tradizionalean erabilitako zentzuan ari gara, alegia, historia idazteko erabili ohi diren dokumentu "publikoak"(erakunde desberdinetako artxibategietako agiri mota desberdinak, prentsa idatzikoak eta abar.). Beraz, ez dugu esan nahi inongo dokumentu idatzirik ez zegoenik baizik eta eskura zitezkeenak ez zirela nahikoak ikerketa historikoa burutzeko.

Dokumentu idatzien bitartezko ikerketa egitea eragozten ziguten elementu berdinek testimonioen bidezkoa burutzea erreforzatzen zuten. Izan ere, euskaldunek euskaraz zirkuito alfabetatu eta idatzizkoetan aritzeko behar bezalako garapenik ez bazuten eskuratu, ahozkotasunaren esparruetan sartu behar! Gainera, frankismoa errepresio garaia izan zela kontutan hartzen badugu, ikastolako gorabeheraz idaztea arriskutsua izango zen eta ondorioz ez zen asko idatziko; beraz, ikastolen barruko komunikazioa ahozko mekanismoen bidez burutu behar izan zela pentsatu genuen. Ahozkotasunaren burutazio hauek lekutasunaren erabilerara bultzatu gintuzten, eta Ahozko Historia[1] eskema metodologiko gisa erabiltzea erabaki genuen.

Ikerketa burutu ondoren, aukera metodologiko hau erabat zuzena izan zela uste dugu. Egindako bakarkako hamasei eta taldeko bost elkarrizketetik ikastolen mugimenduari buruzko informazio ugari eta aberatsa jaso dugula esan beharrik ez dago, baina harrigarriena dokumentuetan isladatutakoarekin konparatzerakoan antzeman dugun alde ikaragarria izan da. Elkarrizketak hasi aurreko dokumen-

---

1 Oso luzea izango litzateke hautaketa metodologiko honi buruz azalpena egitea. Hala ere erabili izan ditugun ondoko materialeei funtsezko deritzegu: THOMPSON, P. (1988). **La voz del pasado. La historia oral.** Valencia: Edicions Alfons el Magnànim. THOMPSON, P. (1984). *La historia oral y el historiador*. **Debats** (10). JOUTARD, P. (1986). **Esas voces que nos llegan del pasado.** Mexico: Fondo de cultura económica. JOUTARD, P. (1984). *El tratamiento del documento oral*. **Debats** (10). HAMMER, D., & WILDAVSKY, A. (1990). *La entrevista semi-estructurada de final abierto*. **Historia y Fuente Oral** (4). VANSINA, J. (1967). **La tradición oral.** Bartzelona: Nueva Colección Labor. VILANOVA, M. (biltz.). (1986). **El poder en la sociedad.** Bartzelona: Bosch.

tuen azterketa egitean hipotesi gisa erabiltzeko hainbat datu eskuratu genuen, baina elkarrizketak egiterakoan sarri askotan beste datu berri, baita kontrajarriak ere topatu ditugu. Honek kontrastazioak gehitzera bultzatu gaituela esan behar dugu, eta neurri batetan errepresio garai batean ekoiztutako dokumentuak erretizentzia txiki batez begiratzera ere.

Elkarrizketatutakoekiko harremana, salbuespenak salbu, memoria kolektibo bizi eta dinamiko batetara hurbildu gaitu, eta itzulketaren beharraz ohartarazi eta baieztatu digu. Egindakoa ahaztu egiten dela eta belaunaldi berriei igorri beharra behin eta berriro aipatu digute, sarritan frustrazio kutsu txiki batekin. Informatzaile hauen aldetik etxeak zabalik eta esperientzia kontatzeko prestasuna sentitu dugu, nahiz eta arlo batzutan, egon litezkeen ondorioetaz oharturik, kontakizunari muga batzu jarri.

Eskutartean duzun lanaren egituraketari dagokionez, lau ataletan sailkatuta dagoela ikus daiteke eta honetaz azalpen txikia eman nahiko genuke. Ikerketa planteatu genuenean gure abiapuntu nagusia Elbira Zipitriaren esperientzian sakontzea izan zenez, gerraurreko euskal eskola saio desberdinen ikusketa orokorra egitea derrigorrezkoa iruditu zitzaigun, eta garai horretatik, frankismoan gertatuko zena interpretatu ahal izateko, Euzko Ikastola Batza eta Emakume Abertzale Batzaren azterketa gako bi izan direla azpimarratu behar dugu. Honexek, hain zuzen, eman zion forma lehenengo atalari. Alegia, E. Gallastegi buru zelako aberkideen eskola proposamenak, sare paraleloa bere osotasunean aurkeztean, ikastolan agertuko ziren hainbat elementuren iragarpena iruditu zitzaigun momentu batzutan. Era berean, prozesu horretan jenero analisia eta E.A.B.-k (hots, Emakume Abertzale Batza) nazionalismoaren barruan eta konkretuki hezkuntza arloan, jokatutako paperaz ohartzea, andereñoen mugimenduaren bilakaera soziala ulertzeko oso lagungarria izan zaizkigu. Gerraurreko euskal eskolarako hurbilketa honek gainera Elbira Zipitriaren biografia, pentsamoldea eta eskola praktikak argitu dizkigu, batez ere emakume honi buruzko informazioa -bere nortasun berezia dela medio- jasotzea oso lan konplikatua bihurtzen zela kontutan hartzen badugu.

Bigarren atala Donostiako "etxe eskolei" dedikatu diegu. Harrigarri gerta dakioke baten bati etxe eskolaz hitz egitea, eta egia esan azalpen bat eman beharra dagoela uste dugu. Ikerketa planteatzerakoan Zipitria hartu genuen lehenengo ikastolako irakasle bezala, horrelaxe agertzen baitzen eskutartean geneukan dokumentazioan. Sakonketak, baina, bestelako azalpenak eman beharra derrigortu zizkigun zeren Donostiako eskolen ezaugarriak integratzean ikastolarenetatik bereizten zirela ikusten baikenuen, eta antzekotasun haundiagoa aurkezten zuten gerraurreko saioekin frankismoan hedatu zen ikastolarekin baino. Honek gaiaren beste planteamendu berri batetara eraman gintuen eta

bereizketa dokumentatu, finkatu eta kontzeptualizatu genuen; hortik ba etxe eskola eta ikastolaren arteko desberdinketa.

Bigarren atala, orduan, Zipitriaren itzalean eratutako etxe eskolen esperientzia aztertzera abiatzen da, bai maila ideologikoan, zein eraketa eta pedagogian. Zipitriaren biografiaren datuetan ondo argi azaltzen zaigu 60.eko hamarkadan euskal gizartean suertatzen hasi zen eraldaketa. Etxe eskola gerraurreko eskolaren adierazpen ahuldu gisa interpretatzen badugu, honen ekarpenarekin elikatuz baina inguru sozialak eskatutako egoera berriei egokituz sortutako ikastola indarra hartzen joan eta euskal eskola eredu hedakorra bilakatu zen. Bi ereduok, baina, kontrako joera eraman arren, denbora tarte batetan koinziditu zutela esan beharra dago, baina beti bide desberdinak daramatzatela eta euren arteko etendura oso nabaria izaki. Atal honetan etxe eskolen prozesua eta berezitasunak azaldu ditugu, batez ere aurretik aipatu ditugun jeneroaren analisiak eta diskurtso pedagogikoak lagundurik.

Hirugarren atalean ikastolen mugimenduaren gaian sartzen gara bete betean. Etxe eskoletatik zetozen harreman sareei jarraiki, erizpide kronologikoari jarraitu genion mugimenduaren eraketaren hezurdurara heltzeko. Hedapenaren ibilbide zehatzera sartu ez garen arren, lehenen agertu ziren ikastoletako partaide batzurekin elkarrizketatu ginen, geroago beste herrialdeetako esperientziara igaroz. Honek gure lanari muga garrantzitsu bat jarri diola ukatzerik ez dago, hau da, frankismora mugatzen ginen neurrian Gipuzkoa eta gainontzeko herrialdeetako hiriburuetara zuzendu garela, hauek izan baitziren garai honetan gehien finkatu ziren ikastolak. Gure ustez, lan honetan egiten den profil orokorra egin ondoren, herrialde bakoitzeko ikastolen historia aztertu beharko litzateke, berezitasunak eta bilakaera espezifikoak zehaztuz eta aztertuz.

Ikastolen mugimenduaren epeketa proposatzerakoan, epe nagusi bi (mugimenduaren sorrera eta lehenego hedapena –1960-1975–, eta instituzionaltze prozesuak –1975...– hain zuzen) bereizten baditugu ere, lehenengo epean baino ez gara sartzen. Frankismoan ikastolek garatu zituzten eredu pedagogikoa eta eraketa gizarte egoera bati zegozkion, baina 1970.etik aurrera ikastolen barnean eztanda egiten duen krisialdia beste epe baten iragarpena baino ez dela pentsatzen dugu. Ikastolek, mugimendu nortasunaz jabetu ziren heinean, proiektuaren biziraupenerako tresna desberdinak ekoiztu zituzten, eta lanabes horiek egoera eta errealitate konkretu batetarako egokiak izan ziren. 1970.etik aurrera, Estatutik mende honetako hezkuntza erreformarik erraldoiena gauzatzen hasten denean, ikastolen mugimenduaren hedakortasunak beronen biziraupen mekanismoak ito eta gainditu egiten dituenean, eta euskal gizartea sozio-politikoki frankismoaren bukaerarako prestatzen hasi zenean, ikastolen mugimenduari jauzi kualitatibo bat

inposatu zitzaion. Euskal eskola ereduaren birformulatze hau ez zen lasaia izan eta gatazkaren formaz agertzen zaigu.

Ikastolen barruko gatazka da, hain zuzen, azken atalaren gakoa, zeren lehenengo hedapenaren epeari bukaera eman eta instituzionaltze prozesuei atea zabaltzen baitie. Lanean aipatzen dugun bezala, ez da gure asmoa barruko gatazka honetan gehiegi fokalizatzea eta ikastolen benetako gatazka, hau da Estatuarekiko gatazka, izkutatzea, ez horixe. Ikastolak, definizioz, gatazka nagusi baten ondorioz sortu eta mantentzen dira, baina garai konkretu horretan ematen den istiluak gerraurreko ereduarekiko erabateko etena eta norabide berria ulertzea errezten digu. Hala ere ez da gai erreza. Informatzaileen artean errezolozko gaia izateaz gain, gatazkaren esperientziak leku batetik bestera eta ikastolaren partaideen konposaketa sozio-politikoaren arabera oso desberdinak izan direla gaineratu behar dugu, eta, adibidez, herri batetan bat ere arazorik sortu ez zuen euskara batuak beste ikastola batetan andereño batzuen despidoa probokatu zuen. Honexegatik, laugarren atal honetarako erabili izan ditugun iturriak, nagusiki, aldizkarietan azaldutako artikuluak izan dira (honek gaia nahi genukeen sakonta-sunez aztertzeko baliogarria ez dela jakinda ere), zeren, testimonioak erabili nahi izan ezkero, konfliktoaren gune nagusien diagnosia eta trataera espezifikoaren diseinua egin beharko bailirateke. Dena den, Euskal Herriko historia biziaren hainbat arlotan bezala, oraindik isilpean gordeko den gai baten aurrean gaudela susmatzen dugu.

Oro har, ikerketa honen ekarpena etxe eskola eta ikastolen mugimenduaren lehenengo epearen azterketan datza. Planteamentu guztia gidatu duena ikuspegi pedagogikoa izan da, eta horrexegatik irakaslegoaren formazio, interesgune eta praktikei emaniko luzeera. Epeen arteko desberdinketa, emakumea eta hezkuntzaren arteko harremanak, motibazioak, kode ideologikoen aldaketak (batez ere hizkuntzaren kontserbatze eta berreskuratze funtzioen bereizketa), euskal erresistentzi kulturalean jokatutako papera, dira, besteak beste, hausnartzera ekartzen ditugun ondorioak.

Horrelakoetan ohizkoa den bezala, ezin diot hitzaurre honi bukaerarik eman lan hau burutzen lagundu didaten hainbati eskerrak eman gabe. Eskertu baina eskerron honek formula hutsaren itxura hartzerik ez nuke inolaz ere nahi, berorren zinezkotasuna norainokoa den adierazteko gai sentitzen ez naizen arren.

Ikerketa, elkarrizketek inposatzen duten dinamikaren eraginez, pertsona desberdinen topaleku eta eztabaidagunea izan dela uste dugu, ikastolen mugimendua bera bezala auzolana, elkarlana. Guk pertsona horien abots isilduak transkribatu baino ez dugu egin, zeren euskal hezkuntza errealitatea eraikitzeaz gain eurenak ere baitira hemen erabili izan ditugu hainbat hitz esanguratsu, hainbat

kontzeptu zehatz. Eskerrik asko, beraz, Walter Benjaminen hitzetan "denbora neurtzen ez zen garaia igaroa" denean kafesne bero baten aurrean kontakizunerako denbora eskeini didaten guztiei. Eskerrak ere, lan neketsu honen atzean, itzalean, zuzendari paralelo baten papera bete duen Jaxinto F. Setieni, ezeren trukez ezinbesteko laguntza etengabea emateagatik. Baita ikerketaren zuzendaria izan den Pauli Davilari ere, sortutako zalantza, kezka eta irtenbide gabeko guztiei erantzunak ematen jakiteagatik, baita diskurtsoari emandako mila buelta horiek pazientziaz entzun eta diskutitzeagatik ere. Hain gustokoa dugun gaztetxe horretan keinu konplizea luzatu didaten Lore Erriondo, Ana Eizagirre, Iñaki Zabaletari eta hemen aipa ezinezko lankide zerrenda luzeari. Eta egunerokotasunaren abiadan ibilkide ezin maitagarriagoa den Josu Amezagari. Esker anitz.

I. ATALA

HIZKUNTZA ETA HEZKUNTZA EUSKAL HERRIAN. GERRAURREKO PLANTEAMENDUAK

Ikastol eta eliz askotan
atea didate itxi;
atzerritarrak ta seme askok
lapur bat antzo ezetsi!
Nere izena apaldu arte
iñoiz ezin dute etsi...
Zer egin diet etsai bezala
ainbat nazaten gaitzetsi?!

Izkuntz arrotzak dira nagusi
mendi, enparantz, kalean...
irrati eta aldizkariak
datoz erdera elean.
Euskera ortxe baso, sukalde,
txoko apalki batean...
Mamur ta mintzul, ezin besterik
ke, negar, zotin artean!

Azken gudate ondorenengo
ogei ta sei urteetan
erderak arro dabiltz, erronka,
zazpi Euskal-errietan.
Ni berriz emen, sorterri bertan,
bizi-arnas azkenetan...,
sukal-txokoan negar eginaz
aiton-amon mingaiñetan!

e. mendizabal "txikia" (1967)
"Ama txukatu malkoak"

I. ATALA

HIZKUNTZA ETA HEZKUNTZA EUSKAL HERRIAN. GERRAURREKO PLANTEAMENDUAK

Lan honek duen aztergaia frankismoaren garaiko ikastoletan ondo zehaztuta daukagun arren, gertakari honek dituen aurrekariak eta sustraiak ondo ulertzeari derrigorrezkoa deritzogu. Ezin baita ikastola ulertu Euskal Eskolaren prozesu historikoa ulertu gabe; ezin baita aztertu Euskararen ibilbide eta garapenaz hausnartu gabe.

Atal honetan gerra zibilak suposatu zuen etenaren aurreko egoerak aztertuko ditugu, gehien batez eskola sare paraleloaren nolakotasunean murgilduko garelarik. Arrazoiak begi bistakoak dira, zeren, ikastolen mugimendua sare paraleloaren adierazpen bat baino ez izanik, gerraurreko sare paraleloak frankismoan sortutakoaren inguruan argi asko eman ahal baitigu. Ez dira esperientzia isolatuak, besterik gabe. Prozesu historikoak berak ematen duen jarraikortasunaz gain, eman ziren komunikazio zuzenak ere aztertzeko parada izango dugu, baita ildo ideologikoan eman ziren eta ematen diren konstanteak ere.

1.1. MOYANO LEGEA ETA EUSKALDUNGOAREN AUZIA

Euskal eskolaren fenomenoa historikoki zehaztu behar izatekotan XIX. mendetik aurrera sortutako hezkuntza praktiketen azterketara bideratu beharko genuke, etengabe inposaketaren kontra erreakzionatzen duen hizkuntza eta kulturaren defentsa mugarria azaltzen zaigularik[2]. Euskal eskola dei genezakeen

---

2 Euskal eskolagintzaren beharraz guk aukeratutako data baino lehenagotik saiakerak dauden arren, Estatutik datorren Moyano Legea hartu dugu mugarri, eskolatzearen ikuspuntutik guztiz erabakikorra bihurtuko baitzen. Euskal eskolaren historia bere zabaltasunean hartzen dituzten lanen artean ondoko hauek aipa ditzakegu: LASA, J. I. (1968). **Sobre la enseñanza primaria en el País Vasco.** Donostia, Auñamendi. ZALBIDE, M. (1990). *"Euskal eskola, asmo zahar bide berri."* **Euskal Eskola Publikoaren Lehen Kongresua,** Gasteiz, 212-271. orri.

gertakari horren mugapenak, gainera, bi eztabaidagai ezartzen dizkigu arazoari historikoki so egin ezkero: "Alde batetik, estatuko instantzien aurrean eskola eredu baten inposaketaren aurka egindako autoktonoa den projektu baten defentsa; eta, bestalde, Euskal Herrian bertan sortutako heziketa alorreko proiektuen eskakizuna, errebindikazioa eta burutzapenak. Bai bata eta bai bestea ere euskalduna den eta lurraldetasuna ardatz funtsezkotzat hartuko duen eskola baten sortzearen ahalbideaz definitzen dira"[3]. Beraz, euskal eskola eta hezkuntzaren aldeko saiakera hauek ulertu ahal izateko, gizartean ematen ari ziren aldaketa guztiak aparte (industrializazioa, nazionalismo politikoaren sorrera..), Estatu Espainoletik zetorren hezkuntza legislazioa, eta, euskaldungoaren eskolatze prozesua aztertzea derrigorrezkoa zaizkigu.

Estatuan orokorki XIX. mendean zehar aurkitzen dugun hezkuntza antolamendua nahiko murritza eta osatugabea dela esan dezakegu. Alfabetatze mailari begiratu ezkero eta Europako beste estatuekiko konparaketa dela medio, Estatu Espainolak zuen ezaugarririk nabariena ezalfabetatze indize altua izan zela azpimarratu behar dugu, Viñao Fragok ateratzen duen ondorioak dioenari jarraiki: "en lineas generales se trata de un modelo de alfabetización gradual (a partir de mediados del siglo XIX, no antes), lenta y dilatada, dependiente de factores económico-comercial-productivos, así como del éxodo rural e incorporación laboral asalariada de la fuerza de trabajo femenina"[4]. Autore desberdinek ezalfabetatze maila hau eskolatze prozesuaren eznahikotasunari leporatzen diote.

Halere Estatu Espainolean ematen ari ziren alfabetatze prozesuek ez zeukaten erritmo eta garapen maila berdinik, eta gure kasuari gagozkiola, gaztelerazko alfabetatzea Estatuko beste herrialdeetan baino zabalduago zegoela gaineratu behar dugu. Arrazoiak ez datoz beti garapen ekonomikoarekin hain estuki lotuta, eta Euskal Herrian Estatutik ezarri nahi zen eredu liberalaren joera homogeneizatzailearekin erlazionatu beharra dugu, batez ere gaztelerazko alfabetatze prozesu hauek hizkuntz egoera diferentzial baten kontrako tresna ideologiko indartsua zela ohartzen bagara: "El hecho de que las tres Provincias Vascongadas y Navarra figuren entre los primeros lugares respecto al resto del Estado en lo que se refiere al nivel de alfabetización en castellano, nos parece sintomático para detectar el grado de penetración en las escuelas del modelo liberal uniformador del sistema de enseñanza, y la progresiva pérdida del euskera como vehículo de una cultura alfabetizada, manteniéndose en su oralidad. De esta manera se diferencian dos ámbitos culturales asociados a lenguas distintas: el

---

3 DAVILA, P. eta ZABALETA, I. (1990): *Euskal eskolaren lehen urratsak*. **Tantak**, 4. Bilbo, 21. orri.

4 VIÑAO FRAGO, A. (1984): *Del analfabetismo a la alfabetización. Análisis de una mutación antropológica e historiográfica"*. **Historia de la Educación**, 3. Salamanca. 221. orri.

euskera quedará relegado al ámbito de la familia y la religión en tanto que el castellano será mediador en las entidades públicas"[5].

Beraz, alfabetatze eta eskolatzearen lehenengo formalizazio eta sistematizazio ahalegina Estatutik etorri zen, 1857.ean ebaztutako Moyano Legea gailurra izan zelarik. Estatu Espainolak, Estatu Frantziarrak eraiki zuen eskola eta hezkuntza sistema ereduari jarraiki, lege zentralista eta homogeneizatzailea agindu zuen, ordura arteko tokiz tokiko funtzionamendu autonomo osoa (gehien bat Udaletxe eta Aldundiei zegokiena) ezabatuz. Lege honek Estatu Espainoleko hezkuntza administrazioa antolatzeko eta finkatzeko izan zituen garrantzia eta eraginkortasuna oso nabariak izan ziren: "Estatuak hainbat instituzio eta erakunde burokratiko sortu zuen haien ezaugarriak geroz eta zentralista eta uniformatzailegoak zirelarik. Ezaugarri hauek, hain zuzen gaur egun ezagutzen dugun heziketa sistemari aurre irudia ematen joango direnak, zera suposatuko zuten: araudi, agindu eta legetaz baliatuz udal eta foru aldundiengan eskusartze eraginkorra, gobernu organoak, irakatsi behar ziren gaiak, gaztelaniaren inposaketa, inspekzioa, eskolen kopurua, irakaslegoaren prestakuntza eta abar, arautuz, guzti honekin era askotako menpekotasun sarea sortzen zelarik"[6].

Lege honek oso erantzun gogorrak jaso zituen Aldundien aldetik, berauek foru kontrako jotzen baitzuten. Estatuaren legeak egiten zuen Foruen mugetan ebaztutako hezkuntza lege eta ordenuen bortxaketa hau gogor salatua izan zen Aldundietako euskal diputatuen aldetik, 1857.ean eta 1868.ean Erregeari bialdutako izkribuetan agertzen zen bezala: “el objeto y fín del Gobierno es, al parecer, introducir insensible y paulatinamente en estas provincias cuantas reformas cree conducentes para que desaparezca su sistema peculiar administrativo, nivelandolas con las demás del Reyno”[7].

Moyano Legeak, Foru Aldundiekiko makina bat tirabiraren hasiera suposatu izan bazuen ere, hezkuntza sisteman behinbetiko baldintza bat utzi zuen, hots, irakaslegoaren izendapena. Neurri honen bitartez maisu maistren

---

5 DAVILA, P. eta ZABALETA, I. (1990): *Euskal eskolaren lehen urratsak*. **Tantak**, 4. Bilbo, 11. orri. XIX. mendean zegoen egoeraz ondoko lanak kontsulta daitezke: BENITO, J. (1990): **La enseñanza de las primeras letras en Guipuzcoa durante el primer tercio del siglo XIX**. Zaragozako Unibertsitatea (argitaratu gabeko tesi doktorala). ; LETAMENDIA, R. (1988): **Educación y sociedad en Alava en el siglo XIX (1833-1868)**. Oviedoko Unibertsitatea (argitaratu gabeko tesi doktorala) eta HOURMAT, P. (1973): **L´enseignement primaire dans les Basses-Pyrénées au temps de la Monarchie Constitutionnelle 1815-1848**. I.P.S.O. Anglet.

6 DAVILA, P. eta ZABALETA, I. (1990): *Euskal eskolaren lehen urratsak*. **Tantak**, 4. Bilbo, 22. orri.

7 A.C.J.G.: *Expediente relativo a la ley de Instrucción Pública de 9 de setiembre de 1857*. Reg. 7, leg. 5. ARRIEN, G. (1987): **"Educación y escuelas de barriada en Bizkaia"**. Bizkaiko Foru Aldundia. 36. orrialdea.

izendapena Estatuari zegokion, bertoko erakundeen eskubideak gutxituz, eta, urteetan zehar indarrean guztiz eta zeharo jartzen lortu ez bazuten ere hizkuntzarekiko eta euskal eskola posible batekiko lehenengo mugaren ezarpena ekarri zuen. Arrienek, aipatutako dokumentuari jarraituz, zera azaltzen digu: "suprimida del círculo de la administración foral la preciosa atribución de nombrar los maestros, las escuelas se verán ocupadas por profesores extraños a la lengua y a las costumbres especiales de este país, surgiendo después de aquí el resfriamiento de los pueblos, el abandono de la educación pública, la propagación de malas ideas y la inmoralidad e indisciplina, de cuyas plagas se ha visto hasta ahora libre"[8].

Honetaz aparte irakasleen izendapenarekin batera eskolaren kontrol ideologikoa herstuki lotu zuen beste osagai bat azpimarratu nahiko genuke, alegia, inspekzioaren kontrol funtzioa. Zentzu honetan, politika liberalak eskoletan gazteleraren erabilera ziurtatzeko eta normaltzeko erabili izan zituen inspektoreak, 1859.etik 1876.era Gipuzkoa eta Arabako inspektorea izan zen Juan Maria Egurenen jarrera euskararen kontrako neurri administratiboaren beste adibide adierazgarria izan zelarik[9].

1857.ean Moyano Legea martxan jarri eta 1876.ean Foruen indargabetzea suertatu arte egon zen tartean, batez ere II. Gerra Karlistan zehar (1873-1876) Bizkaian eta Gipuzkoan euskararen aldeko eta hezkuntza politika propioa gauzatzeko ahaleginak aipagarriak izan ziren arren, politika liberala eta zentralismoaren pisua nagusitu ziren eta hezkuntza politika estatalista finkatzeko lehenengo urrats eraginkorrak ematen hasi ziren. Era honetara, legeari egiten zitzaizkion kritikak urte batzuren buruan ikusi ziren eskoletan. "Eskola Bakarra" egiteko Moyano Legearen bidezko saioak ondorio zakarrak izan zituen alde euskaldunetan; Estatu mailako izendapen horrek sarritan maisuarentzat guztiz ezezaguna zen inguru batetara joan beharra suposatu zuen, ezagutzen ez zuen herri, kultur eta hizkuntz batetan murgildu beharra oso eskasak ziren soldata batzuen truke. Iruñako Eusko Ikaskuntzaren Kongresuan Maria de Maeztuk horrela adierazi zuen: "Nombrados los maestros por el sistema de oposiciones, son distribuídos al azar, según el número de su promoción, como los demás funcionarios públicos, los jueces, los militares, por ejemplo, sin que la mayor parte de las veces tengan el menor punto de contacto sentimental con el pueblo en el que van a realizar sus tareas. El andaluz, el extremeño, el castellano, que en

---

8 ARRIEN, G. Aipatutako lanean dokumentu berdina.

9 Inspekzioa eta maisu maistren egoerari buruzko datuak ezagutzeko ikus: DAVILA, P. (1992): **Política educativa y enseñanza en el Pais Vasco**. Promociones y Publicaciones Universitarias. Bartzelona.

virtud de su legítimo derecho viene a posesionarse de su cargo, tiene que enfrentarse con un medio que le es hostil y una realidad que desconoce"[10].

Ikasleentzat ere egoera ez zen hobea: "..los niños tienen que pasar todos los días seis horas en un recinto mal oliente, sin aire, sin luz, atentos a un libro cuya letra y cuyo espíritu les es extraño, oyendo del maesro unas palabras cuyo significado no entienden; sin un resquicio abierto por donde pueda entrar una chispa de emoción, ni un átomo de vida intelectual. En estas escuelas, maestros y alumnos se ignoran; hace años que conviven, pero no se han puesto todavía en comunicación"[11]. Testu labur honek ondo zehazten du arazoaren muina, hizkuntzagatik elkar ulertzearen ezintasuna alegia. Ikasleak euskaldun elebakarrak, irakasleak gazteleradunak eta artean hizkuntz biren harreman gatazkatsua agertzen zaigu, zeren gatazkatsua, istilutsua eta zapaltzailea bihurtzen baitzen hizkuntz harremana, eta ondorioz hezkuntza harremana ere.

Ikasle euskaldunekin gazteleraz hitz eragiteko zigor kasuak ugariak ziren; agian, ezagunena "eraztuna" izenekoa, Europako herri desberdinetan (hain zuzen hizkuntz borroka ematen zen tokietan) eta Euskal Herrian XVIII. menderako jadanik erabilitakoa[12] . Iparraldean ere praktikatzen omen zen:

> "La persécution linguistique a commencé à l´école. L´enfant qui avait le malheur de prononcer un mot de la langue maternelle, était puni comme s´il avait proféré un juron immonde. On lui imposait *la buchette*, morceau de bois appelé encore *l´anti*, à savoir *l´anti-basque*.
>
> Devenu espion, l´enfant se glissait derrière ses camarades, et passait *l´anti* au premier coupable du délit de langue basque, dépisté par lui. *L´anti* glissait de menotte en menotte. Le malheureux qui en était affligé è la fin de la récréation était sévèrement puni"[13].

Zigor honen erabilera guztiz zabalduta zegoen eskoletan, eta euskal umeengan izugarrizko beldurrak eta beste ikaskideekiko mesfidantza sortarazten zituen[14]. Tamalez, zigorraren presentzia eskoletan egunerokoa zen, ohizkoa, eta

---

10 MAEZTU, M. (1920): *Enseñanza Primaria. Conferencia general*. **Eusko Ikaskuntzaren II. Biltzarra**, Eusko Ikaskuntza, Iruñea, 41. orrialdea.

11 Lan bera, 40. orrialdea.

12 LASA, J. I. (1968): **Sobre la enseñanza primaria en el País Vasco.** Auñamendi. Donostia. 29-30. orrialdeak. Gai honi buruz ere: GARATE, J. (1975): *El anillo escolar en la proscripción del euskara*. **BIAEV**, XXVI.: 137-151. orrialdeak.

13 SALABERRY, E. (1967): *L´alienation basque*. **Gure Herria**,: 266. orrialdea. Honetaz aparte eta Iparraldeko egoera zehatzaz ikus: HOURMAT, P. (1973): **L´enseignement primaire dans les Basses-Pyrénées au temps de la Monarchie Constitutionnelle 1815-1848**. I.P.S.O. Anglet.

14 UGALDE, M. d. (1974): **Hablando con los vascos**. Ariel. Bartzelona. 19.orrialdea; "Este anillo pasaba de alumno en alumno según iban produciéndose las faltas, lo que provocaba en nosotros un miedo muy grande y el recelo de acercarnos al compañero que lo tenía en el bolsillo, porque éste podía provocar la falta dirigiéndose en euskara a cualquiera de nosotros para pasarnos el infame anillo; todos escapábamos de él; así el anillo cumplía su doble

ikasle euskaldunengan zuen eragina guztiz esanguratsua: beldurra nagusitu aparte eta ikasketak burutzeko oinarrizko tresnaren faltan, aukera bi baino ez zen ematen, ikasle euskaldunen "eskola porrota" eta, ondorioz, ikasketetarako ezintasuna (honek sozialki zekarren guztiarekin), edo ama hizkuntza alde batera utzita bigarren hizkuntzaz jabetu eta gazteleraren bidetik jarraitu. Beste era batez esanda, hizkuntzaren araberako promozio soziala eta akulturazioa, egoera diglosikoa errotuz eta finkatuz.

Hainbeste familiatan eskolaren esperientzia ezkor honetatik abiatuta eta mende hasieran zabaltzen eta gorpuzten hasi zen nazionalismo politikoak salatuta, maisuaren irudi soziala txarragotu egin zen, berari hizkuntzaren atzerakadan eragiten zuen aldagai garrantzitsuenetako bat izatea leporatzen baitzitzaion. Hizkuntzarekiko kezka hedatu ahala euskararen galeraren erantzunkizunak maisuarengan gero eta finkatuago gelditzen joan ziren.

1.2. KULTUR MAILAKO ERANTZUNA ETA EUSKAL PIZKUNDEA

Aipatu dugun Moyano Legea, beste testuinguru politiko-legislatibo orokorrago baten osagaia izan zela esan genezake; Foruen galerak euskal gizartearen erantzun bat, urteetan zehar sendotzen zihoan erantzun bat ekarri zuen, eta kulturaren alorrean nabarmenki somatu zen: "La supresión de los Fueros (1876), *el brutal despojo* según Campión, parece ha servido de revulsivo y de acicate a la tendencia fuerista y autonomista (...). Paralelamente se siente un creciente interés por la historia y la cultura de la tierra y por la lengua. Hay, pues, una generalización del cultivo literario y consecuentemente una mayor secularización. Se trata aún de minorías, pero la tendencia es irreversible"[15].

Euskal kulturaren defentsa honek islada desberdinak izan zituen, hala nola, Iruñeko "Asociación Euskara de Navarra"(1877) eta bere "Euskara" aldizkaria (1878-1883), Gasteizko "Revista de las Provincias Euskaras" (1878-1879), Donostian Jose Manterolak hasitako mugimenduaren ondorio izan ziren "Consistorio de los juegos florales euskaros" eta "Euskal-Erria" aldizkaria (1880-1918), eta, kronologikoki beranduago Bilbon R.M. Azkuek eta S. Aranak suposatu zuten kultur ekarpena.

---

objetivo: le hacía a uno sentirse sólo, evitado por sus compañeros de clase, y le quedaba el temor a los palos que recibía, puesto quien lo tenía a fín de semana era castigado" On Joxe Migel Barandiaran zenak kontatutakoa. Elkarrizketa honetan egiten dituen eskolari buruzko aitorpenak garai hartako esperientzia honen garratza bere izan zabal osoan adierazten du.

15 TORREALDAI, J. M. (1977): Euskal idazleak gaur. Historia social de la lengua y literatura vascas. Jakin. Oñati. 244. orrialdea.

Baina lehenengo momentu hauetan sortu zen berrindartze honek XX. mendearen lehenengo hiru hamarkadetan ezagutuko zuen benetako disdira eta euskal kulturaren pizkundetzat hartua izatera heldu zen. Pizkunde honetan, euskarak benetako loraldia ezagutu zuen bai Iparraldean ("Gure Herria" aldizkaria -1921-, eta hizkuntzaren lanketa eta babeserako "Euskaltzaleen Biltzarra"-1901-), baita Hegoaldean ere, non zalantzarik gabe garapenik haundiena izango baitzuen. Hizkuntzaren pizkunde hau alor desberdinetan bereiz dezakegu, literaturan, aldizkarigintzan eta kultur zabalkunderako kanpainetan[16], hau da, euskara herriratzeko eta bultzatzeko aritu ziren "Euskal Esnalea", "Euskaltzaleak", "Euskaltzaindia" eta "Eusko Ikaskuntza" bezalako erakundeek burututako lanak.

Kultur alorreko pizkunde honek, gainera, Aldundietan zeuden indar nazionalisten bultzada ere jaso zuen euskararen aldeko neurri ugari hartu zirelarik. Honela, Administraritza bere langileak (mikeleteak, medikuak, notariak...) kontratatzeko euskararen ezagupenaren baldintza jartzen hasi zen; institutoetan eta eskoletan euskarazko katedrak sortzea bultzatu zen, kaleen izenak eta bandoak euskaratu ziren eta euskal liburugintzaren aldeko politika indartu egin zen[17].

Eskola politikan ere garai karlistan abiaturiko aurrera pausu batzu eman zirela ikus dezakegu. Hala hola Foruak galdu baino lehentxoago, Bizkaian zein Gipuzkoan eskoletan euskararen ikaskuntza eta irakaskuntza eginkizun seinalatu ziren eta Gipuzkoako "Junta de Instrucción Primaria" deritzonak herrialde horretako eskoletan irakurketa lehenen euskaraz eta geroago gazteleraz egitea agindu zuen. Agindu hau bete ahal izateko eta lehenengo irakurketarako libururik ez zegoenez, Gipuzkoako Junta honek horretarako propio egindako "Iracurtzaren asierac" izeneko liburua argitaratu eta eskoletako testu liburu ofizial gisa salgai jarri zuen[18]. Neurri hauen eragina gerra egoeragatik oso txikia izan bazen ere, berebiziko garrantzia dutela uste dugu zeren eskola mailan eman ziren lehenengo urratsak izan baitziren.

Gainetik aipatu ditugun gertakari hauek euskararen inguruko ardura gero eta haundiago zela frogatzeko balio badigute, zer esanik ez hezkuntzaren arloan

---

16 J.M. TORREALDAIk, adierazitako lanean, kanpaina hauen bereziko merezimendua Jose Aristimuño "Aitzol"engan ezartzen du. 262 eta 280. orrialdeetan.

17 Ikus: EUSKALTZAINDIA (1978): **Euskararen Liburu Zuria**. Euskaltzaindia. Bilbo.

18 Gipuzkoako Juntak eginiko arategi honetaz ikus: ARANA, J. I. (1875): *Reglamento provisional de las escuelas de instrucción primaria de la M.N. y M.L. Provincia de Guipuzcoa*. Azpeitia. Arautegi honen zein euskarazko testu liburuen prestaketaren ardura Jose Ignazio Arana aita jesuitarena izan omen zen, Bonifazio Echegarayren "Vehículo lingüístico utilizado para la enseñanza en el País Vasco" izeneko hitzaldian adierazten den bezala, in EUSKALZALEAK (1935): **Lucha de idiomas en Euzkadi y Europa**. Euskaltzaleak. Donostia.

ere kezka hori goruntz joango zela; are gehiago, hezkuntza eta hizkuntza binomioa eztabaida haundi eta aberats baten gunea bihurtu zen, Eusko Ikaskuntzaren Kongresu desberdinek adierazten diguten bezala.

1.3. EUSKO IKASKUNTZAREN BATZARRAK ETA EUSKALDUNEN ESKOLATZEA: ELEBITASUNAREN PLANTEAMENTUA

1918.ean Oñatin burutu zen Eusko Ikaskuntzaren lehenengo Batzarrean eskolak euskararekiko eta euskaldungoarekiko suposatzen zuen zama argi asko azalduta gelditu zen. Eduardo Landetak eta Luis Eleizaldek[19] agertu zituzten ekarpenetan euskaldun elabakarra zen populazioak Estatuak jarritako eredu erdaldun horren bidez jasaten zituen diskriminazioa eta kultur zapalkuntza aztertu zituzten.

Batzar honetan hezkuntza sistema guztia kritikatua suertatu zen, baita Estatuak arazo honen aurrean zuen sentsibilitate falta ere. Ondorioak neurri konkretu batzuren eskaeretan zehazturik agertu ziren: "lengua vasca obligatoria, "por razón de derecho" en los niños; enseñanza en vascuence a los niños vascófonos aprendiendo luego castellano o francés; en castellano a los castellanoparlantes, enseñándoles luego euskara; facultad de los municipios a elegir sus maestros (...); creación de ikastolas; denuncia del anillo escolar; autonomía de la instrucción primaria.."[20].

Batzar guztietan, eta geroago eskola saio guztietan ikusten dugun pentsakera era honetara gelditu zen planteatuta: ikasleek ama hizkuntzaz ikasteko eskubidea eta beharra zuten geroago bigarren hizkuntza ikasiko zutelarik, beraz, ume euskaldunek lehenbizi euskaraz ikasiko zuten geroago gazteleraren ikaskuntza ahalbideratuko zelarik[21]. Izan ere, arazoa banakakoen eskubideetan

---

19 ELEIZALDE, L. "El problema de la enseñanza en el País Vasco". LANDETA, E. "Estado actual de la escuela en el País Vasco: sus remedios inmediatos y organización de la escuela vasca de conformidad con las condiciones locales".

20 ESTORNES, I. (1983): **La Sociedad de Estudios Vascos. Aportación de Eusko Ikaskuntza a la cultura vasca, 1918-1936**. Eusko Ikaskuntza. Donostia. 192. orrialdea.

21 Gogoratu dezagun elebitasunaren inguruan egiten den proposamenik inportanteena Landetak eginikoa izan zela, Europan zebiltzan pentsakerekin bat etorriz. Autore honek "Proyecto de Escuela Primaria Elemental" deritzonean, hizkuntzaren atalari honako araudia eransten zion:
"Art. 1. La Lengua en la Escuela del País Vasco y durante todos los años de la enseñanza, será la lengua vasca, cuando la lengua de la mayoría de los alumnos sea la vasca.
Art. 2. La enseñanza de la segunda lengua, o sea, la lengua castellana, no comenzará a darse antes del grado medio del ciclo escolar.
Art. 3. La lengua en la Escuela del País Vasco y durante todos los años de la enseñanza, será la lengua castellana, cuando la lengua materna de la mayoría de los alumnos sea la castellana.

argudiatuta gelditu zen, euskaldunek euskaraz ikasteko zuten beharrean eta eskubidean, eta, ikuspegi teoriko batetatik begiratuta, psikopedagogiak ematen zituen elebitasunari buruzko ekarpenetan oinarritzen zen. Estatuaren erantzuna, berriz, ez zen hizkuntz eta hezkuntza eskubide hauek errespetatzearen aldekoa, guztiz kontrakoa baizik. Arrazoi psikopedagogiko guztien gainetik beste arrazoi indartsuago bat, Estatuaren kohesioaren arrazoia hain zuzen, jabetzen zen, erantzun guztiz logikoa, bestetik, Estatuaren helburua bere egitura politiko eta administratiboa behingoz errotzea zela kontutan hartzen badugu.

Beraz, elebitasunaren kontzepzio honetatik abiatuta, eta zerbait egin behar horretatik, euskal eskola saiakera desberdinak egin ziren; psikopedagogikoki euskaldunei bere hizkuntz beharrei egokitutako hezkuntza eredu baten beharra argi argudiatuta zegoen, baina helburu hau egitura eskolar eta administratibo batetan nola gauzatu eman beharreko bigarren urrats bat zen, inplikazio politiko--ideologikoak zekartzan urratsa alegia.

Giro eta garai honetan burutu ziren eskola saiakera guztiak nahiko heterogeneoak izan ziren; jarraitzeko eredurik ez, elebitasunaren praktikan esperientziarik ez, euskara bera ahozko tradizioari lotuta eta idatzizko ohitura zabaletan aritu gabea... Sailkatzearen beharrez, gure aburuz arazoari bide emateko egin ziren entsaioak multzo bitan bana daitezke:

1. Eskola sistema ofizialaren bidetik eginiko saiakera: Auzo Eskolak eta Nekazal Eskolak.

2. Eskola sistema ofizialetik at edo, sare paraleloaren hastapenak: Euskal Ikastetxeak, Euskal Eskolak eta Ikastolak.

1.3.1. Eskola sistema ofizialaren bidetik

Landetaren eta Elizalderen eskutik etorri ziren saiakera hauek, Bizkaiko Aldundiaren plangintza baten bitartez nekazaldeei egokitutako eskola eraikuntzari ekin ziotelarik. Bertan, alde euskaldunetan euskaraz ikasteko bideak errazten ziren maisu euskaldunak bialduz eta ama hizkuntza babestuz.

Art. 4. La enseñanza de la segunda lengua, o sea la vasca, no comenzará a darse antes del grado medio del ciclo escolar.
Art. 5. Las minorías lingüísticas serán objeto de una sección especial dentro de la misma Escuela, cuando no sean suficientemente numerosas para constituir Escuela aparte, dentro de los recursos económicos de cada localidad.
Art. 6. Los textos que se empleen en estas escuelas, serán todos ellos euskéricos o castellanos según corresponda la Escuela a la índole que señala en el art. 1º y en el art. 3º; e igualmente se exigirá el uso de los textos correspondientes para el cumplimiento de los estipulado en los artículos 2º y 5º de este Reglamento". BSEV, 17. zbkia, 1923, 19-20. orri.

Eskola saio hau pentsamendu autonomista baten barruan sartu behar dugu, Estatua eta periferiaren arteko harremanak era konkretu batez ulerturik. Era honetara Landetaren izkribuak eta pentsamendua hola laburtzen dizkigu gaia sakonki aztertu duen Arrienek: “Sus trabajos (...) tratan de la afirmación de la nacionalidad vasca dentro de la unidad española, a condición de que sea efectivamente reconocida y respetada dicha nacionalidad. De ahí su doble conclusión de que debe evitarse, por un lado, la tentación del separatismo de parte del nacionalismo, y por otro lado que se tome en consideración de parte del Gobierno el problema nacionalista”[22]. Bere plateamenduen iparra Europako ereduetan kokatu zuen eta estatu eta erakunde periferikoen elkar osaketan oinarritzen zen.

Bizkaiko Auzo Eskolen esperientzia honek, 1919tik 1938ra iraun zuen arren lehenengo momentuetatik Estatuaren aldeko eta euskararen kontrako apostua egiten zuten indar politikoen helburu bihurtu zela esan dezakegu; era honetara, adibide gisa, "Liga Monarquica"-k: “se había llegado a gastar el dinero de todos de forma injusta e inmoral para desespañolizar el país”[23] salatzen zuen. 1921.erako euskarazko irakaskuntza debekatu zen euskara gaztelaniazko irakaskuntzarako trena bihurtuz; eta 1925.ean gaztelera hutsezko irakaskuntza agindu zen.

Gipuzkoan ere 1930.ean horrelako zenbait esperientzia hasi ziren: “Liburuak erderazkoak ziran. Etzan euskera erakusten, noski, auzo-eskoletan. Euskera bide zala, erdera baizik. Baiño behintzat Euskalerriko gaiak maiz erabiltzen ziran. (...).Gipuzkoan, 27 o 30 bat Auzo-Ikastolak sortuak baziran. Azkenerako, 1937. urtean, “Concierto Económico” kendu zutenean, eta beste eragozpen batzu sortu zirelako, bertan bukatu ziran gure Auzo-Ikastolak”[24]. Beste herrialdeetan ere egon omen ziren antzeko esperientziak baina Gipuzkoaren kasuan bezalaxe.

Beraz, Landetaren asmo instituzional honek porrot egin zuen ia hasi orduko indar estatalistek ez baitzuten onartu, eta urte batzu pasa ondoren, nekaturik, sare paraleloaren eredura hurbildu zen.

1.3.2. Eskola sistema ofizialetik at, edo, sare paraleloaren hastapenak

Kasu honetan diru iturri pribatuetaz baliaturik egindako euskal eskolaz ari gara; esperientziak heterogeneoagoak dira eta hiru multzo bereizten dugu:

---

22 ARRIEN, G. (1987): **Educación y escuelas de barriada en Bizkaia**. Bizkaiko Foru Aldundia. Bilbo. 89. orrialdean.

23 ARRIEN, G. (1987): **Educación y escuelas de barriada en Bizkaia**. Bizkaiko Foru Aldundia. Bilbo. 142. orrialdean.

24 ERREZOLA, M. (1972): *1937 aurreko ikastolen edestirako jakingarriak.* in JAKIN (arg.): **Gure Ikastola**. Jakin Sorta, 6. Oñati. 263. orrialdean.

1.3.2.1. Aurrekariak: Bilbo eta Donostiako Ikastetxeak

Lehen aipatu dugun bezala, euskararekiko kezka zabaldu ahala eskolarekikoa ere piztu zen; era honetara euskal eskolaren berri kultur pizkundearekin bat eginda datorkigu. 1884.eko maiatzean "El Diario Vasco de San Sebastian" egunkarian agertu zen iragarki batetan Don Jose Gaspar de Oregik fundatutako euskarazko heziketako lehen mailako eskolaren berri eman zen jakitera, bestelako erreferentzirik ez ditugun arren[25].

Bigarren aztarna R.M. Azkueren eskutik etorri zen; K. Mitxelenak "bere bizitza guztian zehar, euskal hizkuntzarekin lotutako ikaskuntza ororen gunea" definitutako lekeitiar honek ere euskal ikastetxe bat zabaldu zuen Bilbon 1896.ean, zeren berak argudiatzen zuen bezala "el elemento oficial está en este caso, como en otros muchos puntos, completamente divorciado del verdadero pueblo euskaldun; siendo por consiguiente preciso que sean particulares las iniciativas para la creación de nuestra escuela"[26].

Azkueren Ikastetxeak ez zuen iraupen luzerik izango, 1899-rako, beste erlijioso batzuen eskuetan utzirik, ezinezkoa izan baitzen euskarazko heziketa hura. Hala ere, 1908.ean Plaza Barriko euskal eskolak (Ntra. Sra. de Itziar) eta 1914.ean Colon de Larreategikoak jarri ziren martxan Euzko Gaztediaren eskutik, baina Primo de Riveraren Diktadurak eta diru iturri ezak desagertarazi zituzten.

Hasiera hauek nahiko ezlotuak eta txikiak izan ziren arren, ekite honek izan zuen berebiziko garrantzia azpimarratu nahi genuke, euskara eta hezkuntzaren lehenbiziko uztarketa eta gizarteraketa suposatu zuen heinean.

Aurrekari hauen eta 1918.tik aurrerako saiakeren artean zubia eta lokarria izan zen Donostiako Migel Muñoa Jaunaren esperientzia dugu. Gerraurrean eman zirenen artean, denbora luzeen (1914-1936) iraun zuen ikastetxe hau egoera desberdinetatik igaro zen; dauden datu gutxien arabera, Migel Muñoa Jaunak euskal ikastetxea kristau ikasbidea eta dotrina euskaraz irakasteko ihardueretatik abiatuta gorpuztu zuen: "Donostia zaarrean euskaldun aur sail bat bazala ta katekesia ez ezik ikastola bat bear zutela"[27] ikustean. Handik aurrera eta 1920.tik aurrera, klaretiarrekin ituna eginda, Euskal Ikastetxea Mariaren Biotz

---

25 GARMENDIA, M. C. (1985): **Les ikastolas en Pays Basque D´Espagne. La question du bilinguisme scolaire**. Argitaratu gabeko tesia. Estrasburgo. 91. orrialdean. Egileak bestetik, Oregi jaunak Euskal-Erria aldizkariko noizbehinkako kolaboratzailea izan zela gaineratzen du.

26 ARRIEN, G. (1987): **Educación y escuelas de barriada en Bizkaia**. Bizkaiko Foru Aldundia. Bilbo. A. Irigoyen: *Del epistolario de Azkue*, in **EUSKERA**, 1957, 271. orrialdean.

27 LABAYEN, A. M. (1971): *Euskal ikastetxe eta ikastolak*. **Aranzazu**. 120. orrialdean.

Semeen aretoetan haziko da (300 ikasle edukitzera heldu omen ziren), 1924.ean, hauengandik apartatu ondoren, Koruko Andra Mariaren Ikastetxea bihurtu arte.

Koruko Andra Mariaren Ikastetxeak oso ezaugarria bereziak bildu zituen bere baitan: euskara hutsezko eskola zen; dohainekoa (Migel Muñoaren kontura zihoazen gastu guztiak, "mezenas" bezala desbriba genezakeelarik); euskara jostaketan eta aisian sartzeari garrantzi haundia eman zioten (honen froga Tolaretxe izeneko etxea erosi zuen, non haurrak igandeetan jolastera joaten baitziren); gau-eskolak antolatu zituzten langile eta nekazarien ikas beharrei egokiturik; eskola hiztegigintzaz arduraturik Nomenklator Tekniko bat osatzeari ekin zioten, ekarpenak eta zalantzak Euskaltzaindiarekin kontrastatuz; irakasle laguntzaile bat ere bazuten...[28].

Honetaz aparte, eta Antonio M. Labayenek ematen duen datu baten arabera[29], Migel Muñoaren ikastetxea eratu orduko bazegoen Donostian beste "ikastolatxo" bat, Elena Gametxo Goikoetxearen ardurapean; etxe eskola hauetan maistra batek hartzen zituen umeak bere etxean, bederatzi urtera arte han eskolaraturik zeudelarik. Antolamendu hau sarriagotan agertzen zaigu gerraurreko euskal eskola tipologia zabal honetan, baina bere garrantziak gerraostean E. Zipitriak hartuko zuen eredua izatean datza.

1.3.2.2. Eusko Ikaskuntza eta euskal eskolaren formulazioak

I. eta II. Kongresuen ondorioz, euskara irakaskuntzan kontutan hartuta izan zedin eta Landetak proposatutako eredu linguistikoari jarrai zekion Eusko Ikaskuntzak egin zituen deiak hutsean gelditu ziren Primo de Riveraren Diktaduraren etorrerarekin (1923). Ordutik Errepublika etorri bitartean, Estatuaren kontrola, inspekzioaren bidez, estutu egingo zen euskararen presentzia eskoletatik deseuztatzeko.

Hala eta guztiz ere, 1920-1930 hamarkada zail honetan Tolosako ikastolaren sorrera (1922) lehenengo ekimenei jarraipen bat osatzea suposatu zuen, antolakuntzaz Muñoaren ikastetxearen modukoa zen euskal eskola zehaztuz[30]. Euskal arloan, Donostiako Muñoa eta Tolosako ikastola izan ziren euskaraz era sakonago eta finkoago batez burutu ziren proiektuak, zeren beste

---

28 ERREZOLA, M. (1972): *1937 aurreko ikastolen edestirako jakingarriak.* in JAKIN (arg.): **Gure Ikastola**. Jakin Sorta, 6. Oñati. 264-268 orrialdeetan

29 LABAYEN, A. M. (1971): *Euskal ikastetxe eta ikastolak.* **Aranzazu**. 120. orrialdean.

30 Tolosako ikastolaz ikus: LABAYEN, A. M. (1971): *Euskal ikastetxe eta ikastolak.* **Aranzazu**.; GOIKOETXEA, B. eta DRABASA, I. (1985): *Tolosa: gerra aurreko ikastola (1922-1936)*. **Eusko Ikaskuntza. Cuadernos de Sección: Educación**, 1. Donostia. 13-22 orrialdeak.

kasuetan (Andoain, Oñati, Segura, Irun..) euskararen erabilera gaztelera ikasteko tresna izatera mugatzen baitzen.

Eskola hauek oztopo haundiak topa zituzten bere bidean, gehien bat Estatuaren funtzionarien aldetik: "Es el caso de la escuelas de Guipúzcoa, aún las relativamente antiguas, en que, de alguna manera, se emplea el euskera, están cerradas o a punto de cerrarse. Los inspectores han desterrado, de hecho, el empleo de todo libro escrito en euskara, aún del catecismo, diciéndo que si los padres quieren que se enseñe éste a sus hijos pongan para ello una clase particular. !Cómo si las escuelas de que se trata no lo fueran!"[31].

Errepublikaren etorrerarekin eta Kataluniako Elebitasun Dekretuarekin batera (1931/4/29), autonomia eta elebitasunaren aldeko kanpaina zabalak eratu ziren Euskal Herri osoan. Eusko Ikaskuntzak "Elebitasunaren Kongresua" antolatu eta bertan parte hartzeko deialdia egin ondoren, Bilbo eta Donostiaren artean 600 bat maisu maistren partaidetzarekin burutu zen. Elebitasuna martxan jartzeko deialdiak udaletxeetara ere luzatu ziren eta marko honetan euskarak bere lekua zuen euskal eskola gehiago antolatu ziren: Errenderi, Plasentzia, Arrasate, Iruña, Lizarra, Elizondo, Gasteiz...

Orokorrean, eta ikusi ahal izan dugun bezala, Oñatiko Kongresutik aurrera topa ditzakegun eskola saiakerak nahiko heterogeneoak dira, bai hizkuntzaren erabileraren aldetik (euskara hutsezko irakaskuntza, euskara eta gaztelerazko irakaskuntza eta euskara bide duen gaztelerazko irakaskuntza), bai antolakuntza aldetik (ikastetxeak, etxe-eskolak, auzo-eskola antzekoak beste batzutan, udal--eskolak), baita pedagogikoki ere. Alde amankomunak, agian, euskaldungoarekin soilik aritzea (Landetaren proiektuan erdaldunak ere euskara ikastea helburua bazuen ere honetaz ez da berri zehatzik agertzen), eta euskararekiko nolabaiteko kezka eta erlijiotasuna (aztertu ditugun kasu guztietan kristau-ikasbidea kontutan hartzen baita).

Bide honetatik, hain zuzen, etorriko da euskal eskolaren formulaziorako azkenengo baldintzaketa. Orduko mugimenduaren zutabe ideologikoak zenbatu nahi izan ezkeroz, bi aipatuko genituzke. Batetik abertzaletasuna (hizkuntza eta kultura euskaldunak) eta bestetik erlijiotasuna; Errepublikatik, hizkuntzarekiko balizko konponbide bat (katalanen moduko elebitasunaren dekretu baten bidez) etor bazitekeen, erlijioaren aldetik kontrakoa etorri zen 1931.eko "Circular de la Dirección General de Enseñanza Primaria"-k laizismo politika baten lehenengo urratsa ezarri zuenean.

---

31 "Carta de Apraiz a Zaragüeta del 21 de diciembre de 1928, ASEV" in ESTORNES, I. (1983): **La Sociedad de Estudios Vascos. Aportación de Eusko Ikaskuntza a la cultura vasca, 1918-1936**. Eusko Ikaskuntza. Donostia.

1.3.2.3. Euskal eskolaren formulazio nazionaleruntz: Euzko Ikastola Batza

Errepublikak indarrean jarri zuen 1931.eko Konstituzioaren 25. artikuluan Elizaren erakundeei irakaskuntz eskubidea kendu zitzaienetik, Euskal Herrian erreakzioak hasi eta ugarituz joan ziren. Arrazoiak, euskal jendearen sinismen erlijiosoetan aparte, hemengo Elizak 31.eko Lizarrako Estatutoari eman zion laguntzan edota Euskal Herrian Elizak ez zuela Estatuan zuen posizio sozioekonomikoan eta herriarekiko komunikazioan oinarritu daitezke[32].

Hau ere izan zen Euzko Ikastola Batza eratzeko arrazoia, edo behintzat, eragile puntuala. Orain arte egin dugun hausnarketa honetan, euskal eskolarekin batera indar haundiago edo txikiagorekin autonomiaren auzia agertu zaigu; ezin dugu ulertu eskola inguruko pentsamendua eta asmoa, hauek atzean daramaten eredu sozio-politikoa ulertu gabe. Autonomia eta elebitasunaren izenean eginiko saioak Estatuarekiko oreka eta elkar ulertze bat eskatzen zuen, nolabaiteko harreman armoniko bat (gogora dezagun Landetaren pentsamendua) non Estatuaren batasuna ukatu gabe periferiari, separatismoari muzin egitearen truke, oinarrizko eskubide batzu onartzen baitzitzaizkion. Saiakera hauen islada auzo-eskolak edo aztertu ditugun esperientzia isolatu hauek izan ziren.

Laizismoari erantzunez euskal eskolaren beste esperientzia bat azaleratuko da, baina honek bere hezurdura proposamen autonomistez osatu beharrean, proposamen finkoago batez, Euskal Herria nazio bat bezala mamitzen duen pentsakeraz hornituta agertuko da. Hau ez zen berria gerraurreko nazionalismoaren baitan; 1931.ean PNV bakar bat zegoen arren, aurreko urtetako diferentziak mantendu egiten ziren eta Elias Gallastegi eta "aberkideak" izenekoetan argi eta garbi bereiz ditzakegu.

Tamalez, eta agian historiaren interpretazio interesatuegi batengatik, Elias Gallastegiren pentsamendua ez da behar bezain sakon aztertu eta zabaldu[33]. Berak, Irlandako erakundeen ezagutzari esker, "Juventud Vasca"-ren lehendakaritzatik eta beste erakunde sektorialekin batera Mendigoizaleak, Emakume Abertzale Batza, Euzko Ikastola Batza eta abar bultzatu zituen,

---

32 SAGUES, M. (1977): *El euskara y la enseñanza en los estatutos de autonomía*. **Saioak**, 1. 56. orrialdean. Sagüesek dio: "De hecho nos consta que sólo las órdenes religiosas tenían registradas a su nombre 12.000 fincas rústicas, siendo esta cifra un mínimo ya que muchas órdenes, sobre todo las más poderosas, habían camuflado la titularidad de sus posesiones desde 1917". "Sin embargo,- jarraitzen du-, también en el País Vasco cabía distinguir entre la jerarquía eclesiástica y el clero no jerárquico". Argitasun hauek oso kontutan hartu behar ditugu gerraosteko euskal Elizaren jarrerak ulertzeko.

33 Aipagarria da agertu berri den LORENZO ESPINOSA, J. M. (1992): **Gudari, una pasión útil: vida y obra de Elias Gallastegi (1892-1974)**. Txalaparta. Tafalla, non nazionalista honen teorizazio eta ekarpenen berri ematen bait da.

nazionalismoa partidu bat bezala baino mugimendu zabal bat bezala kontzeptualizatuz. Erakunde hauek euskal nazionalismoaren aparailu ideologiko bezala funtzionatzen zuten, gazteriari eta umeei abertzaletasuna helerazteko soka bailiren[34].

Nazionalismoaren barruan hazten zihoan ideologia eta mugimendu honek, hezkuntzaren kasuan bere garapenerako aldekoa zen egoera orokor batekin egin zuen topo. Hezkuntza sistema ofizialean euskara suspertzeko egin ziren ahaleginen porrota, Estatutuen bidetik euskarari eta euskal irakaskuntzari gero eta konpetentzia eta leku gutxiago gelditzen zitzaiola ikustea[35] eta legearen bidezko laizismoaren zabalkundea izan ziren, gure ustez, euskal eskola berri honen sorrerari lagundu zioten koiunturak.

Abiapuntua aski deskribatu dugu; antolatzaile zuzenak Euzko Gaztedia (hauek izan ziren Plaza Barriko eta Colon de Larreategiko ikastetxeetako erantzuleak) eta Emakume Abertzale Batza izan ziren, eta ideologoak Elias Gallastegi eta, era zuzen batez, bere lagunmina zen Jose de Villalonga.

Esperientzia oso laburra izan zen, 1932tik 1936era baino ez zuen iraun, eta dagoen informazioa ere ez da batere zabala. Dudarik gabe dokumenturik interesgarriena Villalongak idatzi omen zuen "Informe de la gestión del primer ejercicio, presentado por la Junta de Gobierno del Euzko Ikastola Batza; 1932-33" izeneko txostena da[36].

Euren analisian, euskal umeek dituzten beharrei erantzun nahiean hezkuntzaren zutabe bi aipatzen dute; batetik erlijiotasuna eta bestetik hezkuntza nazionala:

---

34 "La proliferación de actividades esbozada hasta setiembre de 1923 se convertirá ahora, con Juventud Vasca como foco de irradiación, en un entramado que sirve decisivamente a la implantación creciente del nacionalismo en la sociedad vasca. Con fechas simbólicas como los Días de la Patria, que resumen y concentran la capacidad de movilización del partido, es esa red de organizaciones (de mujeres, de escuelas vascas, de adolescentes y niños) lo que convierte al P.N.V. en un cauce esencial de socialización de la colectividad vasca, respondiendo a la composición interclasista y a la expansión electoral que reflejan especialmente las consultas de 1933. Así, y por encima de los porcentajes electorales, el P.N.V. instrumenta una serie de organizaciones como aparatos ideológicos que sirven a su autodesignación como germen de la sociedad euskeldun futura" ELORZA, A. (1978): **Ideologías del nacionalismo vasco**. L. Haranburu. Donostia. 434. orri. Historiagile honek Gallastegiren ekarpenaren azterketa interesgarri eta funtsezko bat aurkezten digu bere lan honetan.

35 SAGUES, M. (1977): *El euskara y la enseñanza en los estatutos de autonomía*. **Saioak**, 1, aipatutako lanean, euskararekiko eta hezkuntzarekiko hiru estatutuen ezaugarriak aztertzen ditu, batetik bestera euskaldunen eskubideak gero eta murritzagoak direla azpimarratuz.

36 E.I.B. (1933): *Informe de la gestión del primer ejercicio presentado por la Junta de Gobierno del Euzko Ikastola Batza. 1932-33*. Bizkaiko Foru Aldundiko Liburutegia. Argitaratu gabeko dokumentua da. 38 orrialde ditu, eta, era zehatz batez, ideario eta eredu pedagogiko zein didaktikoaren berri ematen du.

> "VI. En la enseñanza primaria ha de darse preponderancia a la labor educativa o de formación espiritual, inspirada en los fundamentos del punto primero y en los principios de la Religión Católica. La enseñanza será, por tanto, *íntegramente cristiana*.
>
> II. La enseñanza será *íntegramente vasca*[37], entendiéndo únicamente por tal aquella que resulte del cultivo y ejemplaridad de las particularidades o valores naturales del pueblo vasco, y que tenga por fín, el mantenimiento de la integridad y perfeccionamiento de su personalidad.
>
> III. La designación de "vasca" en la educación, no ha de ser un término ambigüo susceptible de interpretaciones, ni tiene justificación, sino como la concreción del ideal nacional. No basta, por consiguiente la enseñanza del idioma, de la geografía, etc., para considerarla como enseñanza vasca, sino que es preciso hacer de todas y cada una de sus actividades docentes o instrucción un medio enderezado al logro de las aspiraciones señaladas en el punto anterior." (10. orri.).

Abiapuntua, beraz, ez da hizkuntza soilik, euskal nortasuna deitzen dutena baizik, errealitate globalago batetatik abiatzen dira eta kritika gogorrak jaurtitzen dizkiote "naziotasunez hustutako eskolari", autonomisten saiakerari alegia. Ideario honen harian hizkuntzak berebiziko tokia du, baina beti neutraltasunetik ihesi[38]:

> "Una de las consecuencias que se derivan de los fundamentos apuntados es el uso del euzkera, en cuanto sea posible, se extienda a toda la obra educativa e instructiva de la escuela vasca, adoptando, por lo demás, normas de enseñanza bilingüe." (10. orri.)
>
> "..como principio primordial se establece el propósito de generalizar el conocimiento y uso del euzkera, y de alcanzar su absoluta suficiencia". (15. orri.).

Hizkuntzaren ikaskuntzari dagokionez, beste eskoletan bezalaxe, elebitasunaren proposamena izango da aurrera eramaten dena, hots, hiztungoaren ezaugarrien arabera ama hizkuntza (euskara zein gaztelera) abiapuntu hartu eta honen finkapena eginda dagoenean, bigarren hizkuntzaren ikaskuntzari ekin. Hauxe izan zen Landetaren proposamena eta Europan zehar zeuden elebitasunaren teoriak; dena den, Informean agertzen den filosofian eta aholku praktikoetan zera ikusten dugu, erdaldungoa, nahiz eta bere ama hizkuntza ikas hizkuntza bezala hartu, egoera ezformaletan[39] euskara erabiltzera estimulatu eta bultzatu egiten dela hasieratik, gazteleradun umeen artean ere euskal giro bat zabaldu nahiean (ez dugu ahantzi behar egoera linguistikoak derrigortzen dituen praktikak aparte helburua euskaltasunean zehaztuta dagoela).

---

37 Kurtsibaz idatzitakoa jatorrizko testuaren ñabardurak dira.

38 Neutraltasuna, kasu honetan, euskara edo euskalgairen bat irakasten duen eskolari leporatzen dio, azken finez ez duelako naziotasuna edo euskal sena lantzen.

39 ARRIEN, G. (1983): **La generación del exilio. Génesis de las escuelas vascas y las colonias escolares**. Onura. Bilbo. ".. en las escuelas erdéricas, a su vez, la enseñanza se daría en castellano, reservando al euskara una hora diaria de estudio. Además de ésto, en estas escuelas erdéricas, se pretendía que el euskara pudiese llegar a la vida misma y al ambiente escolar, de ahí que, se recomendara usar el vascuence en los saludos, instrucciones, rezos, juegos y cantos." (98. orri.).

Azkenez, Euzko Ikastola Batzaren izaera ideologiko hau guztiz ezaugarritzeko bi aipamen gehiago egitea egokia iruditzen zaigu; batetik hezkuntzaren ardura gurasoengan zehazten dela, botere publikoaren eskusartzea gaitzetsiz, eta bestetik, klase sozial guztientzako eskola izatearen bokazioa duela horretarako kontu berezia ezarriko duelarik. Beraz, asmotan bakarrik ez bada ere, euskal eskola nazional, kristau, "pribatu" eta "guztientzakoa" da eredu honek eraiki nahi duen proiektua.

E.I.B.ren eskutik etorri zen eskola eredu hau, orain arte deskribatu egin duguna, "Enseñanza Primaria" izenekoaren markoan martxan jarri bazen ere, ez ziren asmoak ikasketa maila honetara bakarrik mugatu. Aberkideek hezkuntza sistema osoa, aipatutako ezaugarriak biltzen zituen hezkuntza sistema osoa antolatzea zuten helburu, eta gerrak esperientzia hau errotik moztu bazuen ere "Colegio Vasco" izenekoaren berri aurki dezakegu 1933.eko Euzkadi egunkarian: "Ya tenemos la enseñanza primaria vasca en pleno desarrollo en las escuelas de Euzko Ikastola Batza; vamos ahora a asentar la segunda enseñanza sobre iguales principios, aunque no con la libertad de movimientos con que puede edificarse intelectualmente en la enseñanza primaria, puesto que hemos de atenernos a un plan de estudios que no depende de nosotros... y después de ésto podría venir y, como he dicho, sólo por este camino, la Universidad Vasca de veras"[40]. Ildo beretik Villalongaren eskutik egindako "Proyecto para la creación de un colegio vasco. Orientaciones generales" izeneko txostena Arrienek aipatzen du bere lanean[41].

Beraz, hezkuntza sistema oso bat proposatzen da, nazionala, kristaua, "pribatua" eta "guztientzakoa" izatearen ezaugarriak biltzen dituena; oinarriak oinarri baina xede hauek nola gauzatu ziren, maila operatiboago batera joz zeintzu urrats jorratu ziren izango lirateke gaineratuko genituzkeen galderak. Villalongak hezkuntza nazionala eta kristaua ondo argudiatu ostean, euskal eskolaren lanketari eutsi zion eta nahiz eta saio gisa planteatu (euskal hezkuntza hau lantzerakoan ia ezerezetik abiatzen dela eta proposamenak etengabe entsaiatu, zuzendu eta birmoldatu behar direla esaten du sarri) eta emaitzak ezin neurtu, ikusiko dugun bezala pedagogikoki ordura arte egin zen ekarpenik garrantzitsuena izan zela baiezta dezakegu.

---

40 IZENIK-GABE (1933/9/27): *Los primeros colegios vascos*. **Euzkadi**, 1933/9/27.

41 ARRIEN, G. (1983): **La generación del exilio. Génesis de las escuelas vascas y las colonias escolares**. Onura. Bilbo. 86. orri.

1.4. EUSKAL ESKOLARAKO HEZKUNTZA EREDU BATEN BILA: GERRAURREKO BERRIKUNTZA PEDAGOGIKOA

Errepublikaren etorrera maila guztietan baikortasun haundiz hartua izan zen, eta heziketaren mundua ez zen salbuespenik izan. Estatu Espainolean pedagogiak, Institución Libre de Enseñanza bezalako erakundeen lanen bitartez, eskuratuta zeukan maila gorena isladatzeko aukera politikoa gauzatzeak eskolarako perspektiba berri eta interesgariak zabaldu zituen dudarik gabe: "La República representaba, por una parte, un intento de revolución burguesa que había venido aplazándose a lo largo del siglo XIX, y por otra, la participación a nivel de gobierno de representantes del movimiento obrero que había adquirido en la lucha su madurez política. Consecuentemente con en estas dos tendencias surgen las primeras disposiciones republicanas. Libertad de expresión en el decreto de bilingüísmo. Libertad de conciencia en el de libertad religiosa. Y ambos conceptos teóricos vinculados con necesidades sociales, de las distintas regiones de usar y aprender sin cortapisas su lengua vernácula; de los niños, para que no les sean impuestos de forma dogmática ningún tipo de creencias"[42].

Elebitasun Dekretuaren hitzaurrean Kataluniari egokitzen zitzaion ama hizkuntzarekiko eskubidea ("Respetar la lengua materna, sea ella cual fuere, es respetar el alma del alumno y favorecer la acción del maestro permitiendo que ella se cumpla en toda su amplitud") beste hizkuntzetan ere aplikatzeko aukera aipatzen zen ("Ello quiere decir que aunque fijada la atención en Cataluña, porque el problema en ella es más evidente, el agravio más ostensible, no se circunscribe la solución al respeto al catalán como lengua materna, sino que se extiende a las otras y se las juzga con idéntico derecho"). Errepublikaren dekretu hau Euskal Herrian aplikatzekotan ama hizkuntzaren defentsarako perspektiba erakargarriak zabaltzen zituen bitartean, hezkuntza mailan eman zen erlijio askatasunaren neurria guztiz erreaktiboa suertatu zen. Behinbehineko Gobernuaren Hirugarren Dekretuak ordura arte estatuaren zentru guztietan derrigorrezkoa zen erlijioaren irakaskuntzaren araua indagabetu eta erlijio askatasuna aldarrikatu zuen, eskoletan laikotasuna ezarriz. Neurri honekin Estatuan sortutako sekulartze prozesuarekin bat egiten zen, baina Euskal Herrian Elizaren izaera eta egoera erabat desberdina zen heinean erantzuna piztu zuen.

Erantzun hau, ordea, ez zen nagusiki joango Estatuaren kontrako aurrez aurreko borroka baten bitartez, baizik eta historikoki forma hartzen joan zen sare paraleloaren indarketaz. Nazionalismoari zerion eskolarekiko estrategiaren aldaketa batez ari gara: "Orain Euskal Herrian zabaltzen joan den Estatuak inposaturiko eskola sistemaren aurkako defentsarekin jarraitzeak baino, foru

---

42 PEREZ GALAN, M. (1977): **La enseñanza en la Segunda República Española**. Cuadernos para el diálogo. Madrid. 37. orri.

aldundi, udal edota pribatuak diren bazkunentzat alternatiboak izango diren erakundeak sortzeak garrantzi haundiagoa izango du"[43].

Aldaketa hau ulertu ahal izateko, prozesu historikoan agertutako zenbait osagairen gakoaz ohartu beharrean gaude, autoreek azaltzen diguten bezala: "Politika honen garapenean kultur eta giza inguru desberdinetan kokatzen diren elementu batzutaz ohar gintezke. Alde batetik foruen aldeko mugimenduak euskal kultura eta euskararen nolabaiteko suspertzea lortuko du; bestalde, hizkuntz eta kultur arlo horretan ezagutza zientifikoak izugarrizko bultzada izango du, Arana, Azkue, Urkijo edota Campion bezalako pertsonaiek garrantzi aparta izan zutelarik; eta batipat euskal nazionalismoaren sorrerak eta honek irakasle *maketo*en eskuetan zegoen gaztelaniazko irakaskuntzari egindako kritika zorrotza"[44]. Beraz, testuinguru honetan kokatu behar dugu E.I.B.ren esperientzia hau.


Euzko Ikastola Batzaren lanak duen baliorik haundiena eskola baterako eraketari eta pedagogiazko ereduari dagokienean azpimarratu nahi dugu. Ez diogu honekin esperientzia berari inongo garrantzirik kendu nahi; aski adierazgarriak dira, besteak beste, lau urtetan lortu zuten ikasle eta zentru kopurua (802 ikasle 9 eskolatan banatuta), irakasleen formazioari emandako bultzada (20 bat irakasle formatu zuten proiektua aurrera ateratzeko) edota gerra bitartean esperientzia honek atzerriko euskal kolonietan izan zuen garrantzia.

Baina ereduari dagokionean, E.I.B.ren informeak euskal hezkuntza sistema oso bat antolatzeko oinarri teoriko eta praktikoak ahalbideratzen ditu, eta nola edo hala gerraondoko ikastolen mugimenduaren egituraketan eredu honekiko antzekotasun nabariak soma ditzakegu. Eraketari dagokionez, eskola hauek tresna administratibo bi erabiltzen dute, batetik eskola bakoitzaren Batzordea, eta bestetik Euzko Ikastolen Batza (Federación de Escuelas Vascas), hau da, Batzordeen gaineko egitura edo erakundea. E.I.B.tik Batzorde guztien arteko lana eramango da, bateragile ideologiko eta pedagogiko gisa jokatzen duelarik; herri bakoitzaren Batzordeak, bestetik, zentruaren kudeaketaren ardura izango du, era autonomoaz aritzen delarik.

---

43 DAVILA, P. eta ZABALETA, I. (1990): *Euskal eskolaren lehen urratsak*. **Tantak**, 4. Bilbo, 23. orri.

44 Lan bera, 23. orri.



Euzko Ikastola Batzaren barne eraketa

Eraketa, beraz, maila batetan funtzionaketa autonomo bati jarraituz eta beste maila batetan bat eginik antolatzen da; baina zein eredu pedagogiko hautatzen da? Batasunez jokatzen duten arlo pedagogiko hori nolakoa da?

Galdera honi erantzuteko aipatutako "Informe de la gestión del primer ejercicio, presentado por la Junta de Gobierno del Euzko Ikastola Batza: 1932-33" txostena erabili izan dugu eta, egia esan, ugariak dira atal honen inguruko zehazkizunak. E.I.B.-k lan honi ekiteko garai hartako pedagogo eta espezialista batzuengana jo zuen galdesorta bati erantzun ziezaioten eta han emandako aholkuz borobildu zen lehenengo saikera hau; erantzun zutenak, besteak beste, Julene de Azpeitia[45], Aita Migel Alzo, E. Etxeberria, Pauline Ramos eta Bilboko "Asociación de Maestros" deritzon taldea[46] izan ziren, eta, gai guztietan adostasuna egon ez zen arren, garai hartako eritzirik aurreratuenak eta osatuenak isladatu zirela esan genezake.

---

45 Euskal pedagoga honetaz ikus ELKARLANEAN (1988): **Julene Azpeitia, ehun urte mugan (1888-1988)**. Zumaiako Udala.

46 ARRIEN, G. (1983): **La generación del exilio. Génesis de las escuelas vascas y las colonias escolares**. Onura. Bilbo. 79. orri.

Hau oso datu interesgarria dela iruditzen zaigu. Euskal eskolaren inguruan egin ziren esperientzia guztiak, tamaina txikikoak izanda ere Eusko Ikaskuntzaren Batzarrekin lotuta agertu ziren, nolabait berauek izan baitziren euskal hezkuntzaren eztabaidagunea, bilgunea. Partaideek han izaten zuten esperientzien berri, han azaltzen ziren eskolari buruzko hausnarketak, problematikak, kritikak eta proposamen berriak, eta eztabaida guztien "pertsonaiak" izan ziren geroago esperientzia konkretuekin lotuta agertu ziren berdinak[47]. Horregatik euskal hezkuntzaren teoriak eta praktikak, Eusko Ikaskuntza zela medio, ideia desberdinetako ondorioak eta emaitzak ebaluatzeko eta birformulatzeko komunikazio sare estu bat zutela esan dezakegu. Arrazoi honengatik, eta ideologiari baino, eredu pedagogikoari dagokionez Informean agertzen dena pertsonaia hauen urteetako esperientzien emaitza izan zela uste dugu, batez ere eraikitzen duen proposamenak osagai desberdin asko biltzen baititu eta oso elaborazio maila sakona eta heldua suposatzen baitu.

Esperientzia eta teorizazio guztietatik ikasi eta hezkuntza sistema bat garatu ahal izateko suertatu zen komunikazio sare bat egoteak, garai haietan hezkuntzaren inguruan mugitzen ziren teorikoek EIBren proiektuan bere ekarpenen bitartez parte hartzeak eta saiakera hau gerraurreko azkena izateak aparteko garrantzia ematen diote dokumentu honi. Baina badago beste aspektu bat, gaur egun neurtu eta kontrolatu ezina zaigun arren, erreflexio txiki bat eskatzen diguna, hala nola eskola saio honen zabalkundea eta eragina herriarengan eta irakaskuntzaren profesionalengan norainokoa izan zen. Noraino eragin zuen euskal gizartean administratiboki eta ideologikoki sare paralelo baten formaz egituratutako euskal eskola eraiki beharrak? Nola zabaldu zen sare paraleloaren ideia eta komenigarritasuna? Zein paper jokatu zuten sare paraleloaren finkapenean eta birsorkuntzan euskal hezkuntza sistema osoan sakabanatuta zeuden emakumeek? Zeintzu dira sare pareleloaren gerraosteko birsorkuntza esplikatzen duten aldagaiak? Galdera guzti hauei erantzuteak sare paraleloaren prozesu historikoaren azterketa sakona eskatzen digu baina gerraosteko errepresio garaietako ikastolak forma berdin hau hartzea kasualitate soil bat ez dela pentsatzeko elementu nahiko dugula uste dugu.

---

47 Adibideak asko dira. Landeta eta Eleizalde Eusko Ikaskuntzaren batzarretako ponenteak eta partaideak izan ziren eta era berean Bizkaiko Auzo-Eskoletako bultzatzaileak. Auzo-eskoletako maistra garrantzitsu bat Julene de Azpeitia izan zen baita EIB-k bere proiekturako kontsultatu zuen espezialistetako bat eta eskola hauetarako irakurketa liburu bat idatzi zuena ere. Liburu honen hitzaurreko egilea, Jose Villalonga, Eusko Ikaskuntzako "Enseñanzas Especiales" eta "Sección de Enseñanza Primaria" batzordeetako kidea izan zen baita EIBko sortzaileetako bat ere. Aita Migel Alzo, EIB-k kontsultatutako beste espezialista bat, Eusko Ikaskuntzaren Elebitasunaren formulazioan paper haundia jokatu zuen kaputxinoa Nafarroako Lekarozeko kolegiokoa zen.

Ekin diezaiogun irakaskuntzaren antolamenduaren azterketari. Honetarako hemen egingo dugun azalpenaz gain, E.I.B.ren aipatu txostenatik ateratako ezaugarri koadroa aurkezten dugu, laburpen honek gerraosteko praktika pedagogikoekiko konparaketa erreztea ahalbideratzen digu eta. Heziketaren baitan hiru maila desberdin bereizten dute, alegia, maila formatiboa, instruktiboa eta fisikoa, eta haien nolakotasuna horrela laburtzen dute:

> "I. La Federación de Escuelas Vascas dará preponderancia a la labor educativa o de formación espiritual en un ambiente de libertad, espontaneidad, responsabilidad y respeto mutuo. Simultáneamente, extendera su acción instructiva hasta el grado de desarrollo que requieran las necesidades inmediatas de los alumnos, sobre los principios y prácticas acreditadas en cada momento como más perfectas y destacadas, ajustándolas al medio ambiente en que ha de desenvolverse. Asímismo, atenderá al mejoramiento físico dirigiendo ejercicios, juegos y prácticas al aire libre." (10. orri.)

Heziketa honek helburu orokor batzu izango ditu:

> "... el desarrollo del sentido religioso, e instrucciones y prácticas de Religión; la caracterización del espíritu nacional vasco; la orientación del gusto y formación de la personalidad individual; ejercicio gramatical y de expresión; desarrollo del sentido matemático y ejercicios aritméticos." (22. orri.).

Euskal eskoletan ematen diren gaiak programa ofizialetan eskatzen ziren berdinak izan ziren, zeren batxillergoan sartu aurretik gai hauen "ingreso" azterketa egin behar zuten. Baina honetaz aparte kurrikulumean beste gai berezi batzu ere gaineratu zituzten, Euskara, Erlijioa, Euskal Geografia eta Historia hain zuzen. Berezitasuna gai hauen antolamenduan zetzan, gaika egin beharrean era globalizatu batez irakasten zuten eta.

Metodoa era globalizatu batez eta interesguneen arabera antolatu zuten, ikas sekuentzia "ulertu-landu-berikusi-idatzi-buruz ikasi" ekintzekin labur dezakegu-larik. Metodo honekin Eskola Berriaren ekarpenak argi eta garbi jasota gelditzen dira Eskola Tradizionaleko memorismoa sustraitik kendu nahi delarik. Testu libururik ez egotea honekin bat datorren argudioa dugu:

> "El *libro de texto* no lo implantamos; 1º porque el estudio a esa edad, por falta de expresión, se reduce a la memorización mecánica, sin *ejercicio intelectual* ni *expresivo*; 2º por evitar la tendencia natural a descansar la labor docente en el señalamiento y repetición de lecciones escritas; 3º para que las enseñanzas se deduzcan y desarrollen de acuerdo con la mentalidad y con la afición o disposición de cada alumno; y 4º porque el desarrollo de un *tema de interés* en forma apropiada -que es rodeando de ambiente el asunto y sacando partido de todas las incidencias y circunstancias- no pueden ajustarse a un libro de texto" (23. orri.).

Gaien araberako sailkapena ez egitean, denboraren banaketa ere globalizazioaren funtsean ezarri zen; 20´-40´ tarteko ikastaldiak egiten ziren eta saio

bakoitzaren ostean 20´tako ekintza ludikoak egiten zituzten (herri kantak, jokoak, dantza, antzezpenak, erritmo ariketak..). Azpimarragarria da eskola hauetan musikak eta erritmoak izan zuten garrantzia, Aita Donostiaren eskutik ekarria[48].

Umeari ematen zitzaion arreta berezi honi erantzunez ere, espazioaren antolamenduak aipamen bat merezi duela uste dugu; ikasgelen orientazio egoki eta osasuntsua behar dela seinalatzeaz gain, EIBren ikasgeletako altzarietaz zera esaten dute:

> "Hemos considerado que agrupar a los escolares en torno a una mesa de tipo familiar o doméstico, con sillas que -aparte de recordar un modelo corriente de nuestros caseríos-, permitan a los alumnos la movilidad e independencia que requieren, tanto el recomendable trato individual del alumno como el cultivo del sentido personal.." (22. orri.).

Ez dugu azalpen honetan gehiago luzatu nahi, esandakoarekin dagoenekoz eskola saiakera honek euskal pedagogiaren alorrean benetako ekarpen garrantzitsua suposatu zuela nahiko adierazita gelditu dela uste baitugu. Are gehiago, euskal curriculum posible baten aurrean ez ote gauden galde geniezaioken geure buruari, zeren, legeak agintzen zituen gaiak bete betean tratazen zirela egia bada ere, heziketaren enfokea hizkuntza eta lurraldetasuna hartzen zituen planteamentu baten aurrean gaudela argi baitago. Ez da, kokapen ezaz horniturik, Estatuaren definizioa erreforzatzen zuen planteamentua, Euskal Herriaren herri identitatea elikatzen eta eraikitzen duen hezkuntza propasamena baizik.

Laburbilduz, Informean perfilatzen den euskal eskolak, urteetako bertako esperientzien emaitza eta Eskola Berriaren proposamen aurrerakoiak osagai zituela, Euskal Herriko berrikuntza pedagogikoaren zutabea eta euskal hezkuntza eredua gauzatu zituen. Tamalez, gerraren etorrerak jaio berriko gertakizun hau zerraldo utzi eta ehortzi zuen, gerra ondorengo belaunaldi berriek nortasun osoa zuen ikastola eraiki zuten arte.

1.5. EUSKAL HEZKUNTZAN EMAKUMEEK JOKATUTAKO PAPERA

Ez genioke atal honi bukaerarik eman nahi, euskal nazionalismoaren birsorkuntzan eta euskal hezkuntzan emakumeak jokatu zuen funtsezko paperaz aipamen bat egin gabe. Emakumeen partaidetzak, XX. mendearen lehenengo epe honetan, egitura formalak (euskal eskolak), ezformalak (poxpolin eta dantzari taldeak, antzerki taldeak, euskal kulturaren inguruko lehiaketak...) eta forma gabekoak (familiaren barruko ideologia nazionalistaren birsorkuntza) biltzen eta

---

48 ARRIEN, G. (1983): **La generación del exilio. Génesis de las escuelas vascas y las colonias escolares**. Onura. Bilbo. 102-105. orri.

nahasten zituen heziketa lan erraldoia antolatu, gorpuztu eta burutu zuela esan dezakegu.

Emakumearen mugimenduaren azterketak ez dira, zorigaitzez, oso ugariak, eta, zenbait datu historiko aparte, gerraurreko agitazio, propaganda, hezkuntza, mobilizazio eta lan sozio-politiko honek belaunaldi berrietan nolako eragina izan zuen erantzun gabeko itauna dugu oraindio.

Nazionalismo tradizionalak emakumeari atxikitzen dion eginbeharra esparru familiarrean koka dezakegu, bera baita arrazaren gordeleku eta familiaren ardatza Aranaren ideologiari jarraiki[49]: "La familia vasca tradicional asentada en el caserío, eje de las relaciones sociales y del funcionamiento económico y político de la sociedad pre-industrial, se convirtió para el nacionalismo en el referente simbólico que contenía en toda su pureza las principales señas de la identidad cultural vasca amenazada, tal como había sido formulada por Sabino Arana: la raza, la lengua, la religiosidad, las costumbres y las leyes tradicionales"[50]. Kokapen honek ez dio, baina, kontraesaten ikuspegi tradizional honexetan emakumeari ezartzen zaion beste funtzio garrantzitsuari, alegia, kultura eta hizkuntzaren zabalbide delarik emakume lanak arlo kulturalean izan ditzakeen pisua eta eragina. Emakumeak, beraz, funtsezkotzat hartuak izango dira arlo familiarrean, baita neurri batetan plano politikoan ere, baina partaidetza politiko hau hierarkia konkretu batetan geldituko da zehaztuta, gizonezkoak muina diren hierarkia batetako osagaiak direlarik. Ariztimuñok honela azaltzen du: “Juzgamos que la mujer, por la función excelsa que está llamada a desempeñar en la sociedad, no es conveniente intervenga en las luchas políticas mediante el uso del sufragio, sin que ésto indique que no pueda y, más aún, deba desarrollar una actividad patriótica intensa”[51].

Emakumeen papera bigarren mailako eta gizonezkoaren funtzioa izatearen ideologia honek, nazionalismoaren baitan urte askotan irauten duen arren, aldaketa nabariak jasango ditu emakumearen partaidetza gauzatu, eta, garapen eta nortasun haundiagoa eskuratuz doan heinean.

---

49 Sabino Aranaren emakumeari buruzko ideologiaz ikus: UGALDE, M. (1993). **Mujeres y nacionalimo vasco. Genesis y desarrollo del Emakume Abertzale Batza (1906-1936).** Euskal Herriko Unibertsitateko argitarapen zerbitzua. Bilbo. 32-50. orri.
Antropologiaren ikuspegitik eginiko azterketak ere ondorio berberetara heltzen da: "... la mujer se considera un elemento fundamental como perpetuadora de la raza, transmisora de la lengua y mantenedora de la familia", in VALLE, T. d. (1985). **Mujer vasca, imagen y realidad.** Anthropos. Bartzelona. 229. orri.

50 UGALDE, M. (1992): *Identidad femenina y nacionalismo vasco*. **ISSEIren III. Konferentzia**, Dinamarka. 2. orri.

51 Jose de Ariztimuño, Aitzol, "La democracia en Euzkadi” lanaren aipamena Antonio ELORZAk egina. ELORZA, A. (1978): *La mujer en el nacionalismo vasco*. **Tiempo de Historia**, 38. 6. orri.

Esparru publikoarekiko lehenengo ukipena prentsaren bitartez gauzatu zen, 1906.ean "Aberri" aldizkarian emakumeek euren idazkiekin bertan parte hartzeko deialdia egin zuenean. Eta esan behar dugu hasiera hauek zailak izan zirela, nazionalismoaren zenbait sektoretan agerpen xume hori txarto ikusia izan zen eta. Mertxe Ugaldek, deialdiaren ondorioz prentsan azaldutako ekarpenak aztertuz, emakumeek nazionalismoan parte hartzearen aurrean hiru jarrera desberdin bereizten ditu. Batetik Maria Barbier "Mirentxu", familiaren barrutiko ekarpen tradizionalaren aldekoa dugu. Bestetik, Raquel de Alda "Kataliñ"ek eginiko *Asociación Femenina Nacionalista Vasca* izenekoa antolatzearen aldeko proposamena dugu, zeinaz M. Ugaldek dioskun: "Le parecía completamente insufuciente la labor individual y minoritaria de propaganda que habían comenzado a realizar las mujeres nacionalistas a través de la prensa, y pretendía que salieran de sus hogares para reunirse y llevar a cabo una actuación colectiva con objetivos mucho más amplios de colaboración con los varones"[52].

"Kataliñ"en asmoa ausartegia omen zen eta bere proposamena ezertan gauzatuko ez bazen ere, beste emakume batek, "Libe"k, harekin ados egonda ere, errealitateari hobetoki egokitzen zitzaion bidea markatu zuen, hain zuzen ere aukakotasun eta errezelorik sortuko ez zuen benefizentziaren bidea.

Beraz, emakumeak, nazionalismoari euren ohizko ekarpen familiarretik kanpora zerbait egin nahiez baina, era berean, ideologia tradizionalak mugatuta, ongiegiteari edo benefizentziari dedikatu zirela esan dezakegu, 20. hamarkadarekin aldaketa etorri zen arte. Emakumeak euskal gizartean izan behar zuen paperaren eraikuntzan lehenengo salto kualitatiboa nazionalismoaren barruan lehian zeuden joera biren arteko markoan eman zen; “Comunión Nacionalista Vasca”-k ordezkatzen zuen pentsamendu autonomistak eta “Juventud Vasca”-k ordezkatzen zuen belaunaldi independentzizale gazteak emakumearen auzian ere beronen paper sozialari buruzko kontzepzio desberdinak gordetzen zituzten, batetik aipatu dugun kontzepzio tradizionala eta bestetik Irlandako Sinn Féin mugimenduko Cumann nan Ban emakume erakundetik[53] hartuko dena. Irlandako ereduarekin emakumearen esparrua zabaldu egin zen, familiatik plazara, kalera, gizonezkoak heltzen ez ziren mundu

---

52 UGALDE, M. (1993). **Mujeres y nacionalimo vasco. Genesis y desarrollo del Emakume Abertzale Batza (1906-1936).** Euskal Herriko Unibertsitateko argitarapen zerbitzua. Bilbo. 59. orri.

53 Irlandako nazionalismo independentistarekiko harremana Elias Gallastegiren bitartez bereganatu zen, eta emakumearen gaiaren abiapuntua Bilbon, 1922.ean Ambrose V. O´Dalyk 1916.eko Dublingo Basko Odoltsuan bertako emakumeek gizonen parean jokatu zuten paper militanteaz emandako hitzaldi bat izan zen. Hantxe bertan antolatu zen Emakume Abertzale Batza, eraberritutako emakume mugimenduaren hazia.

Irlandako nazionalismoan emakumeek izan zuten partaidetzaren historiaz ikus: WARD, M. (1983). **Unmanageable revolutionaires. Women and Irish Nationalism.** Pluto Press, London.

politikora: "..hasta entonces la mujer nacionalista había quedado confinada al papel de símbolo (Madre Vasca) en el orden privilegiado de la familia. Apoyándose en el ejemplo irlandés, los jóvenes del Aberri intentarán dinamizar el símbolo, aún sin renunciar a sus características tradicionales"[54].

Aldaketa nabaria da. Lehenengo sozializaziorako, familia sozializazio egile izatetik bigarren sozializazioan eskusartzera pasatzen da, umeak eta gazteak mobilizatu eta hezitzearen ardura emango zaiolarik. Era honetan etxeko hormak gaindituz kaleko lanari ekiten dio, esparru pribatutik publikora pasatzen da "mundu politikoa gizonezkoen mundua dela" mitoa apurtzen hasiz. Honekin, baina, aldaketa gabetik goizera suertatutako jauzi ikaragarria izatearen itxura ez dugu eman nahi, ez eta askoz gutxiago ere. Emakumeak euren etxeetatik familia nazionalista haundiaren espaziora[55] igaro ziren, nolabait publikoa eta kolektiboa zen espaziora. Dudarik gabe, hortik politika eta poterearen mundura badago aldea, baina urrats garrantzitsua izan zela aitortu beharra dago.

Umeen eta gazteen bigarren sozializazio honetan emakumeen heziketa lana oso zabala izango da. Emakume Abertzale Batzak (E.A.B.) bere Manifiestoan hiru helburu aipatzen ditu espreski: euskal nazionalismoaren esana zabaltzea (arlo honetan agitazio eta propaganda lanak sartuko lirateke, hots, iharduerarik eta politikoenak dei genitzakeenak), ongiegite eta benefizentzia lanak garatzea eta kultur mailako ekintzak burutzea. Azken honetaz zera esaten dute:

> "Esta institución se propone cultivar, con todo cariño, la educación cultural del pueblo, estableciendo cuantos organismos sean precisos, para que nuestros hermanos, y especialmente los niños, desarrollen sus facultades en su preparación para el porvenir, dentro de un ambiente patriótico.
>
> A este efecto creará clases y fundará escuelas para niños, fomentará su literatura apropiada con cuentos, narraciones, lecciones, etc.; iniciará el treatro infantil; cultivará su inteligencia con clases de solfeo y piano; ordenará sus aficiones con grupos de hilanderas, ezpatadantzaris y juegos propios; creará el amor a su lengua, estableciendo clases de euzkera, y preparará a la mujer patriótica con enseñanzas prácticas, labores domésticas etc"[56].

Euskal kulturaren eta euskararen irakaspenetan berebiziko arreta jartzen du emakumeen araudiak, bai familian baita gizartean ere, eta azpimarratu nahi genituzke "irakatsi" eta "instrukzio" formalaz egiten dituen aipamenak:

---

54 ELORZA, A. (1978): **Ideologías del nacionalismo vasco**. L. Haranburu. Donostia. 388. orri.

55 Nazionalismoaren espazioei buruzko hausnarketa batetarako: VALLE, T. d. (1985). **Mujer vasca, imagen y realidad.** Anthropos. Bartzelona. 241. orrialdetik aurrera.

56 LARRAÑAGA, P. d. (1978): **Emakume Abertzale Batza**. **I.** Auñamendi. Donostia. 47. orri.

> "Debe tener un concepto verdadero e instruir en él a sus familiares, sobre todo a sus hijos, en las nociones de Patria, en la historia de Euzkadi, de sus características, de su derecho, de sus aspiraciones nacionales (...).
>
> Que sus hijos conserven, fomenten, aprendan el euzkera. Esta es la actuación más directa e inmediata y de más fruto en definitiva (...).
>
> Si sabe el euzkera, fomentarlo, no hablar en erdera sino por necesidad. Hacer ambiente euzkeldun (...).
>
> Hacerse profesora, a cada momento, del euzkera, procurando difundirlo"[57].

Manifiesto honetan agertzen diren eginbehar guztiak ez ziren indarrez azaleratuko Errepublikaren etorrera arte, Primo de Riveraren Diktadura bitartean Emakume Abertzale Batza legez kanpo egon baitzen. Baina 1931.tik aurrera emakumeen erakundeak izugarrizko hazkundea ezagutu zuen, egoera politikoak ahalbideratuta eta Errepublikak ezarri zituen Elizaren kontrako neurrien aurreko erreakzioaren ondorioz.

Policarpo de Larrañagak ematen dituen datuen arabera Hego Euskal Herrian 28.500 emakume bazkide egon ziren (Bizkaian 15.000, Gipuzkoan 10.000, Araban 1.500 eta Nafarroan 2.000), eta orotara ziren 550 udalerrietatik 205etan bazeuden emakume taldeak, eta 113 talde gehiago eratu bidean zeuden[58]. Azken datu hauek oso garrantzitsuak direla uste dugu, azken batez Bizkaia eta Gipuzkoako herri ia guztietan emakume taldeak zeudela adierazten baitigute, eta, Araba eta Nafarroako antolakuntza maila baxuagoa izan arren antolatzen hasiak zirela ohar baikaitezke.

Policarpo de Larrañagaren lanak emakume talde ugari hauek burutu zuten lanaren berri ematen digu era zehatz batez, baina hezkuntza lanekin lotura zuzenagoa daukatela zerak aipatuko ditugu:

a) Hezkuntza Formalaren eta Arautuaren arloan: lehenago ikusi dugun bezela, Euzko Ikastola Batza Emakume Abertzale Batzak eta Juventud Vascak antolatuak izan ziren. Ikastoletako maistra guztiak EABko afiliatuak ziren (orotara 35 maistra). Baina honetaz aparte, auzo eskoletan eta bestelako eskoletan lan egiten zuten hainbat maistra ere EABko partaideak ziren (200etik 150 baino

---

57 LARRAÑAGA, P. d. (1978): **Emakume Abertzale Batza**. **I.** Auñamendi. Donostia. 49-54. orri.

58 LARRAÑAGA, P. d. (1978): **Emakume Abertzale Batza**. **I.** Auñamendi. Donostia. 58. orri. Ikus ere: ZABALETA, I. (1990): *Mujer, educación y nacionalismo vasco: E.A.B."*. **Mujer y Educación en España 1868-1975**, VI Coloquio de Historia de la Educación. Universidad de Santiago. Kontutan har dezagun orduko populazioa ere gaur egunekoa baino askoz ere txikiagoa zela: autore honen datuen arabera 1.280.493 biztanle zeuden Hego Euskal Herrian, hoietatik esan bezala 28.500 zeuden EABn afiliatuta. Aipagarria ere emakumeen afiliazio kopuru hau EABkoa dela soilik; horrela 1933.ean Bizkaian PNVn afiliatutako 276 emakume baino ez zeuden (haietatik 100 herri bakarrekoak, Zaratamokoak, zirelarik): ELORZA, A. (1978): *La mujer en el nacionalismo vasco*. **Tiempo de Historia**, 38. 16. orri.

gehiago auzo eskoletan; zehaztu gabeko kopuruan udal eskoletan). Larrañagak zera gaineratzen du "Las que ejercían en las escuelas vascas de Donostia, Tolosa y otras, eran todas Emakumes"; orotara 500 maistra eta 25.000 umeren gaineko eragina[59].

b) Hezkuntza Ez-Formalaren arloan: lehen aipatu dugun bigarren sozializazioa burutzeko ume eta gazteei zuzendutako ekintzen antolaketako motorra dira emakumeak (Donostiako poxpolinak eta Labordaren pedagogia musikala, euskal eskoletara joaten ez ziren umeentzako dantza, kanta, antzerki, ibilaldi, festa eta bestelako ekintzen antolaketa, Gaztetxoen Batzaren sorrera eta garapena..)[60].

d) Emakumearen Formazioa: maistrak eta erizainak formatzeko eskolak, heziketa orokorreko saioak (erlijioa, nazionalismoa, propaganda, euskal historia, euskara, folklorea...), sukaldaritza, josketa, neskameentzako klase desberdinak... etab.

Esperientzia honetatik ondorio batzu atera ditzakegu. Batetik, Euskal Herriko historian emakumearen antolakuntzaren lehenbiziko saio hau guztiz zabala, herri asko eta askotan hedatua, nazionalismoarentzako funtsezkoa, eta emakumeentzat subjektu sozial bezala guztiz berria eta esanguratsua izan zela esan dezakegu. Bestetik, eta euskal hezkuntzari ari gatzaizkiola, emakumea gauzatu ziren heziketa maila guztietako hezle eta eragile agertzen zaigu, nazionalismoaren birsorkuntzarako ezinbesteko katemaila. Azkenik, emakumeek, egitura sozio politiko batetan zeuden heinean eta eginbehar amankomun batek lotzen zituen neurrian, euren arteko komunikazio sare estu bat eho zutela buka dezakegu.

Kasu honetan, gerrak eta gerraosteak suposatu zuten apurketak emakumeek betetzen zuten funtzio hezitzaile horretan, euskal nazionalismorako sozializazioa helburua zuen funtzio hezitzaile horretan, norainoko eragina izan zuen galde genezake. Agian, emakumeek gerragatik jasan zuten errepresioa "bigunagoa" izan zenez ez zen nahikoa izan birsorkuntza ideologikoa mozteko: "Cabe pensar que todo ello, si sirvió para acompañar la extinción legal del movimiento femenino abertzale, no tuvo la menor eficacia a la hora de borrar las convicciones ideológicas de las vencidas. Nuestra hipótesis, ciertamente por contrastar, es que la actuación de la mujer nacionalista en la formación de las nuevas generaciones, con el concurso de la politización anterior a la guerra, constituye uno de los

---

59 LARRAÑAGA, P. d. (1978): **Emakume Abertzale Batza**. **II.** Auñamendi. Donostia. 66-70. orri.

60 LARRAÑAGA, P. d. (1978): **Emakume Abertzale Batza**. **II.** Auñamendi. Donostia. 28-37. orri.

factores principales a la hora de explicar las formas de resurgimiento nacionalista en Euskal Herria en la década de los cincuenta”[61].

Ildo honetatik, 50. hamarkadan Donostian sortzen den euskal eskola saioak Errepublika garaiko emakumeen komunikazio sarearen berragerketa eta orduntxeko eskola antolamendu eta ideologiaren azalpena ekarri zituen, hurrengo orrialdeetan ikusiko dugun bezala.

61 ELORZA, A. (1978): *La mujer en el nacionalismo vasco*. **Tiempo de Historia**, 38. 17. orri.

HEZKUNTZ XEDEAK	KURRIKULUM-EDUKIAK	METODOA	DIDAKTIKA BEREZIAK	DENBORA	ESKOLA MATERIALEAK	ALTZARIAK
Gizakiaren heziketa zeretan gauzatzen da: **a) Maila formatiboa,** edo izpirituaren formazioa – ASKATASUNEAN – BAPATEKOTASUNEAN – ARDURATASUNEAN – ELKARREN ERRESPETOAN **b) Maila instruktiboa:** – HEZKUNTZ BEHARREI EGOKITUA – INGURUARI EGOKITUA **c) Maila fisikoa:** – ARIKETETAN – JOLAS-JOKOETAN – NATURAN PRAKTIKATURIK	Legearen araberakoa: 1 2 3 – Religión y Moral – Educación Moral y Cívica – Lengua Materna – Dibujo – Figuras Geométricas y Dibujo Geométrico – Segunda Lengua – Nociones Agricultura (mutilak) – Nociones Economía Doméstica (neskak) – Lectura-Escritura – Geografía – Historia – Calculo – Sistema Métrico – Algebra	– **Globalizatua**: ez da antolatzen asignaturen arabera – **Aldez aurretik prestaturiko intesresguneen arabera**: gaien lanketa, berrikusketa, idazketaren bidez edukiak koadernoetara pasatu, eta azkenez buruz ikasi ("Ulertu-landu-berrikusi-idatzi-buruz ikasi")	– **Euskara**: Jarduketa (metodo zuzena) – **Musika, kantak eta soinketa**: Aita Donostiaren Pedagogia Musikala – **Erlijioa**: deduktiboa (ikus Arrien) – **Geografia eta Historia**: zuzenean ikasi (kanpora joan, e.a.; esperimentazioa) – **Lojika Matematikoa**: garrantzi haundia	– **Kurtsoa**: 3 hiruhilabeteko -S. Miguel -Enkarnazioa -Pentekostes (S. Inazio egunean, kurtsoaren bukaera) – **Ordutegia**: 5 ordu (3 goizez, 2 arratsaldez) -Ikastaldiak: 20'-40'; bakoitza bukatutakoan 20 minututako atsedenaldiak jolasak, kantak, eta abarrekoak egiteko	– Testuliburik ez – Irakurketa eta kontsulta liburuak	– Ondo orientaturiko lokalak, ahal izanez gero – Mahai haundi bat (baserritakoak bezalakoak) eta aulkiak: - Umeak behar duen mugimendua ez oztopatzeko - Ume bakoitzak behar duen banakako arreta bideratu ahal izateko

Oinarri ideologikoak: KRISTAUTASUNA / NAZIOTASUNA

Eusko Ikastola Batzaren eredu pedagogikoa ("Informe de la Gestión del Primer Ejercicio presentado por la Junta de Gobierno del EIB")

II. ATALA

GERRAURREKO EUSKAL ESKOLAREN EREDUA BERREZKURATUZ: DONOSTIAKO ETXE-ESKOLAK (1946-1969)

Eskolako ate zahar haietan
zenbat negar eta karraxi
eskolara joan beharrak bazun
neretzat nahiko desgrazi
nik erderarik bat´e ez nekien
bakar bakarrik no ta si
ta gero ere kara sol besteik
ezer ez nuan ikasi

j. m. areitio

II. ATALA

GERRAURREKO EUSKAL ESKOLAREN EREDUA BERRESKURATUZ: DONOSTIAKO ETXE-ESKOLAK (1946-1969)

Gerraosteak gerraurreko euskal mugimendu politiko eta kulturalen suntsidura ekarri izan zuen neurrian, euskal eskola saioak ere ez ziren salbuespena izan. Erregimen berriak, legez eta indarrez inposatutako egoeran, bere ideologiaren sorkuntza zehatzera plegatutako hezkuntza sistema[62] eraiki zuen, euskal eskola ahalegin posibleetarako lekurik utzi ez zelarik.

Marko honetan, Donostian sortzen den euskal eskola saioa ideologiaz zein egituraz gerraurreko nazionalismoaren parametroetan zehaztu beharra dago. Beraren sortzailea izan zen Elbira Zipitria gerraurreko nazionalismoaren militante kualifikatua izateaz gain, Muñoaren eskoletako andereñoa izan zen; erbestetik etortzean Donostiako Emakume Abertzale Batzaren aztarnen giroan berrantolatu zuen euskal eskola ahalegin berria. Zipitriaren esperientziaren azterketak bere planteamentuen ezaugarriak perfilatzea bideratu digu, baita 60.eko hamarkadan sortu zen ikastolarekin izan zituen diferentzia nabarietaz ohartarazi ere. Euskal eskola eredu biak konparatzeak kontzeptualizazio desberdinak egitera bultzatu gaitu, berriro ere Euskal Eskolaren eraikuntza prozesuak izan zuen eta duen aberastasuna azaldu zaigularik.

60.eko hamarkadan Euskal Herri osoan zehar sortu zen eskola fenomenotik, hau da, guztiek ezaguna den ikastolatik bereizteko, Zipitriaren esperientziari *etxe eskola* deitu diogu. Ikastolak etxe eskolaren eredutik hainbat ekarpen eskuratu bazuen ere, nazionalismoa berriaren eta modernizatzearen parametroetan ulertu behar dela uste dugu, etxe eskola nazionalismo tradizionalari zegokion hezkuntza eredua zen bitartean.

---

62 Frankismoak ezarritako hezkuntza politikari buruz ikus: CAMARA, G. (1984): **Nacional--Catolicismo y Escuela. La socialización política franquista**. Hesperia; GERVILLA, E. (1990): **La escuela del Nacional-Catolicismo. Ideología y educación religiosa**. Impredisur; NAVARRO, R. (1990): **La enseñanza primaria durante el franquismo (1936-1975)**. PPU. Bartzelona; eta PUELLES, M. (1980): **Educación e ideología en la España contemporánea (1767-1975)**. Labor.

Etxe eskola deitzearen arrazoia zera dugu, etxe partikularretan, sarri askotan, andereñoaren etxean bertan eratzen ziren eskola txikiak izan zirela. Eskola eredu honen baitan zegoen ideologia "familiaren ideologia" zen, nazionalismo tradizionalari jarraiki, eta, horretan, emakumearen ama funtzioa, hizkuntza eta tradizioaren kontserbatze funtzioa eta elebitasunezko planteamentuak gorpuzten ziren. Etxe eskolak Donostiara mugatu zirela esango genuke, eta Elbira Zipitriaren irakaspenekin oso lotuta egon ziren. 60.eko hamarkadan gizartean aldaketa ekonomiko zein sozio-politiko eta ideologikoak ematen hasi ziren neurrian, etxe eskolaren eredua gainditu eta beste euskal eskola zabal eta egokituago sortzeko beharra inposatu zen: ikastola.

Donostiako etxe eskolen esperientzia helduen alfabetatzearen ikuspegitik euskararen erabilera gutxiagotuak eta nazionalismo ahulduak ezaugarritzen duten alfabetatze murriztuaren epealdiarekin koinziditzen du[63], lehenengo alfabetatzearen helburua zuen etxe eskoletako eskolaratze hau ere hizkuntzaren erabilera eta kode ideologiko hauetan txerta genezakeelarik.

2.1. TOTALITARISMOA ETA NAZIONAL-KATOLIZISMOA EUSKAL HERRIAN

Estatu Espainolean 1936.tik 1939.era iraun zuen gerrak, oso ondorio garratzak izan zituen Euskal Herrian. Erregimen berriak, behin gatazka militarra amaitu ondoren, garaile-garaituen arteko kontraesanean sakondu eta azken hauen desagertze politika baten aldeko apostua egin zuen; ideologia eta erregimen berriaren finkapenerako Errepublikan garatutako guztia desagertu egin behar omen zen, eta horrekin batera Hego Euskal Herrian sortutako guztia, alegia, euskalduntasunarekin lotutako guztia: “De este modo, el nuevo régimen político que nace con la victoria practicará hasta su muerte una política de exclusión de los elementos disidentes: el viejo concepto democrático de la oposición será formal y materialmente expulsado del ámbito del nuevo sistema político”[64]. Eusko Jaurlaritzak gerra garaian hartutako Errepublikaren aldeko jarrera eta frankismoarentzat nazionalismo periferikoek Estatuaren “batasun sakratu”aren kontra suposatzen zuten arriskua izan ziren gerraoste odoltsu eta bortitza gauzatu zuten argudioak.

---

63 DAVILA, P., EIZAGIRRE, A. eta FERNANDEZ, I. (1992): *Elementos para la elaboración de un modelo de alfabetización vasco*. **X Congreso Nacional de Pedagogia**, Salamanca; ARREGI, P. (biltz.) (1992): **Euskal Alfabetatzearen azterketarako lehen urratsak. 1960-1990**. argit. gabe; DAVILA, P., EIZAGIRRE, A. eta FERNANDEZ, I. (1992): *Los procesos de alfabetización y escolarización en Euskal Herria, 1860-1990*. Euskal Herriko Unibertsitateak finantziatutako ikerketa. Argitaratu gabe.

64 PUELLES, M. (1980): **Educación e ideología en la España contemporánea (1767-1975)**. Labor. Bartzelona. 361. orri.

Erregimen berriak Estatu Espainolean lehian zeuden tradizionalismo eta liberalismoaren arteko borrokaren bukaera ekarri zuen, lehenengoari garaipena egokitu zitzaiolarik; honexegatik, balore tradizionalen zabalkundea eta sustraiketa izan ziren liberalismoaren arrastorik txikiena ere deseustatzeko erabili ziren ekinbideak. Erregimenak lehenengo momentu hauetan ideia honekin lotutako ezaugarri batzu hartu zituen: "La exaltación del Estado, tan similar a la fórmula italiana "nada sin el Estado, nada fuera del Estado y nada contra el Estado"; el antiparlamentarismo y el antiliberalismo en su acepción más estricta; la proclamación de una verdad oficial del Estado que no es posible discutir; el intento de configurar un partido único a través del Decreto de Unificación de 1937; la exaltación carismática del Jefe en quien se concentran todos los poderes; la potenciación de una élite política que constituye la linea de mando; el control, en fín, de los medios de comunicación y socialización (entre estos últimos la educación) nos indican que el totalitarismo del nuevo Estado fué una aspiración y un intento que, solo en 1945, sería definitivamente descartado"[65]. Data honetatik aurrera erregimenaren barruan botere edota eragin zuzenagoa eskuratzeko borrokatik (Falangearen proposamen totalitariak eta Eliza Hierarkikoaren alor batzuetarako nahi monopolistak) eta nazioarteko egoeratik aldaketa batzu etorri baziren ere, 50.eko hamarkadaren erdira arte autarkia epe batetan gaudela esan dezakegu, eta euskararekiko eta hezkuntzarekiko Estatuaren ideologiaren, hau da, nazional-katolizismoaren erizpide orokorrak mantendu egin ziren.

Erregimenaren eragina Euskal Herrian, aski ezaguna da. Errepresio zuzenak milaka hildako, preso eta erbesteratu ekarri zuen lehenengo momentuetan; beranduago, "euskalduna" zen eta zitekeen guztiaren desagerketa etorri zen.

Nazionalismo politikoak bere historiaren beste epealdi luze bat ezagutu zuen. Gerra hasi zenerako PNVko buruzagi gehienak gartzelan zeudenez, Hego Euskal Herriaren barruko erresistentzia antolatzea izan zen lehenengo helburuetakoa. Zeregin honetan "Araba Sarea" deiturikoaren lana funtsezkoa izan zen, espetxe eta atzerriaren arteko komunikazio zubia eta, ondorioz, nolabaiteko antolamendua gauzatzea lortu zuen eta[66]. Guri ez dagokigun gaia ez bada ere, Araba Sarearen iturburuan eta funtzionamenduan emakumezkoak zeudela azpimarratu nahi genuke, J.A. Agirre Lehendakariaren Pariseko Bulegoan aurkitutako "Servicio Interior"(1939-3-15) izeneko txostenak baieztatzen zuen legez[67].

---

65 PUELLES, M. (1980): **Educación e ideología en la España contemporánea (1767-1975)**. Labor. Bartzelona. 362. orri.

66 IZTUETA, P. (1993). **Orixe eta bere garaia**. V. Liburukia. Etor. Donostia. Lan honetan frankismoaren ezarpenaren azterketa sakon eta zehatza aurki daiteke, baita Araba Sarearen bilakaerari buruzkoa ere. 757-787. orri.

67 Oso interesgarria deritzogu Josu Txueka historialari nafartarrak Araba Sarearen sorreran eta sostenguan Bittori Etxeberria baztandarraren eskuhartzeaz egiten duen azterketari. Bertan

Baina barruko erresistentziaren antolamenduaz gain, Erbesteko Gobernuaren atzerri politika izango zen ekinbidearen beste zutabe nagusia. Paulo Iztuetak lau epe bereizten ditu arlo honetan:

a) Aro frantsesa (1938-1940). Emigrazio garaia, non errefuxiatuei begirako asistentzia eta elkartasun ekintzak burutu ziren. Epe hau naziak Estatu Frantsesean sartu arte luzatuko zen.

b) Aro britaniarra (1940-1942). J.A. Agirre Lehendakaria ihesi zebilen bitartean, Manuel Irujok Londonen martxan jarritako "Consejo Nacional Vasco" izeneko ordezkaritzak iraun zuen tartea dugu.

d) Aro amerikarra (1942-1945), zeinean Agirre Lehendakariak Estatu Batuetatik euskal politikaren zuzendaritza berreskuratu baitzuen. Aliatuen garapena gauzatzen ari zen neurrian, euskal askatasunaren eguna hurbilago ikusten zen. Beraz, euforia nagusi eta frankismoa epe oso laburrean eroriko zelakoan jokatzen zen.

e) Aro neo-frantsesa (1945-1960), zeinean baikortasunetik erabateko ezkortasunera igaro zen, Gerra Hotzaren ondorioz sortutako nazioarteko politika berria zela medio[68].

Prozesua nahiko argia da. Erbestearen lehenengo urteetan euskal nazionalismoak gobernu errepublikarra berrezartzeko estrategia diseinatzea lortu zuen; honetarako baliabide batzu erabili zituen, alegia, aliatuen aldeko politika eta honek zekarkion prestigioa, euskal indar politiko guztien batasunaren finkaketa (1945.eko Baionako Hitzarmena), eta, momentuari ez zegokiolakoan, beste borroka mota batzuren bazterketa (masa borroka eta borroka armatua).

Estrategia honek esperantzak piztu zituen euskaldunengan, Eusko Gobernuaren hitz baikorretan isladatzen zen moduan: ".. la realidad ha demostrado que el camino seguido ha sido el más eficaz, hasta ser hoy el problema de España un asunto internacional que necesita solución"[69] edo

---

plazaratzen duen ondorioak zera dio: "La antigua organización de las emakumes se había convertido en emakumes que habían llevado mucho más lejos los planteamientos de un trabajo poítico marginal y subsidiario para ocupar el primer lugar en la resistencia antifranquista". Eta ez da gutxiagorako, kontutan hartzen bada aritu ziren urte bitan espetxetik kanpora interes politiko-sozial eta militarreko 1242 dokumentu atera zirela. Ikus: TXUEKA, J. (1991). Mujeres antifranquistas en la retaguardia nacional. El caso de Navarra. in ELKARLANEAN **Las mujeres y la Guerra Civil Española**. Madrid, Ministerio de Cultura. 224-228.

68 Guzti honetaz ikus: IZTUETA, P. (1993). **Orixe eta bere garaia**. V. Liburukia. Etor. Donostia 770. orrialdetik aurrera.

69 EUSKO JAURLARITZA: Baiona, 1946/VIII/26, in TORREALDAI, J. M. (1981): *JAKINen historiaurrea: abertzaletasuna eta euskara*. **Jakin**, 21.

1946.ean Agirre Lehendakariak Gaboneko mezuan azaltzen zuenez: "La sola persistencia de este régimen causa tal repugnancia en el mundo que los acuerdos adoptados por la reciente Asamblea de las Naciones Unidas no significan otra cosa sino la condena definitiva de un régimen irresponsable e hipócrita, que además de ser un ejemplo de corrupción resulta un anacronismo en estos tiempos. El regimen tiránico de España va a caer y pronto"[70].

Hitz hauek jendearengan eragingo zuten konfidantza nazioarte mailan kateatzen hasi ziren gertakariek deseginda gelditu zen. Alde batetik Francok "Fuero de los Españoles" (1945) eta "Ley de Sucesión" (1947) legeen bitartez, bere erregimenaren legitimazioa bereganatzen ahalegintzen hasi zen. Bestetik, Koreako gerra hasi zen, ENBren aholkuz Europako enbaxadoreak Madrilera joaten hasi ziren, Estatu Espainola Unescon onartua izan zen (1952), Estatu Espainolak eta EEBBek elkarren laguntzarako hitzarmenak sinatu zituzten (1953), Vaticanoarekiko Konkordatoa gauzatu zen (1953), eta, azkenez Estatu Espainola ENBen onartua izan zen. Aldaketa guzti hauen sakonetariko arrazoia Gerra Hotzak sortutako komunismoaren kontrako batasunaren komenigarritasunean zetzan, eta Francok horretan Europako bloke antikomunistaren interesak betetzen zituen.

Nazioarteko politikaren egoera honek, Francoren erregimenaren legitimazioa laguntzen zuen heinean, Eusko Gobernuaren kontrako kolpeak ekarri zituen: Gobernu Frantziarrak Pariseko egoitzatik bota (1951) eta Miterrandek Mugerreko Euzkadi Irratia itxi zuen.

Joan-etorri politiko guzti honek mugaren alde bietako euskal nazionalismo eta erresistentziarentzat oso ondorio kaltegarriak ekarri zituen. Etorkizunarekiko sinisgabekeri eta etsipenezko epea zabaldu zen. Erorketa erabatekoa zen, erbesteak bere esanahia galdu egin zuen hegoaldeko egoera ekonomiko, sozio-politiko eta kulturala egunez egun larritzen zen bitartean.

Etsipen honez gain, oligarkiak jokatu zuen papera, etorkinen erabilera herri nortasuna galdu eta akulturazioa burutzeko, eskolaren bidezko espainolizazioa eta hizkuntz eskubideen ukazioa dira, besteak beste, eskenatoki honetan agertzen zaizkigun datuak: "El pragmatismo de la burguesía y el patrón dominante marcado por la oligarquía bilbaina, especialmente su enfrentamiento con el incipiente nacionalismo, junto a la alteración estructural producida por la industrialización, van a cuestionar la cultura euskaldun; todo ello en correlación con la mayor presión política, administrativa y cultural del Estado central. En el momento en que la industrialización tenga uno de sus puntos neurálgicos en el

70 BELTZA (1977): **El nacionalismo vasco en el exilio (1937-1960)**. Txertoa. Donostia. Documentos, 121. orri.

País Vasco (en Bizkaia y áreas de Gipuzkoa), el propio proceso de transformación pasará muy directamente por estas provincias: su oligarquía será parte significativa de la élite del poder a nivel de Estado; el territorio y la "etnia" quedarán alterados por la inmigración y la urbanización. Los centros educativos de élite y las escuelas de masas trabajadoras –cada una en su específica significación– perderán el referente cultural euskaldun"[71].

Egoera guzti honen zamaz erantzuteko giro soziala sortzen hasi zen. PNVren estrategiak porrot egin ondoren, gerra jasan ez zuten belaunaldi berriak barrutiko erantzun bat gorpuzten hasi ziren. 50.eko hamarkadaren hasieran EKIN[72] jaio zen, zeinek, izenak adierazten duen bezala, PNVri ikusten zioten geldotasunari ekin nahi zion.

Maila politikoan aipatutako guzti hau gertatu bitartean, maila kulturalean eta hizkuntzarenean gertatutakoa ere azaldu beharra dagoela uste dugu. Gerraosteak ondorio latzak ekarri zizkion euskalgintzari, nonbait "Euskararen Diaspora" bezala definituriko hamarkada (1939-1949) suertatu zelarik. Tarte honetan, literatura gai erlijiosoan oinarrituko zen eta Iparraldeari egokituko zitzaion Hegoaldean egin ezin zenari eustea; horra hor, "Gure Herria" eta "Herria" aldizkariak lekuko. Baina euskararen diasporak Euskal Gobernuaren atzerri politikaren urte sutsuekin denboran bat egin arren, beronen gainbehera euskal kulturaren goraldiarekin agertuko zaigu.

"Euskal nazionalismoan krisialdiaren ezkilak ozenki jotzen duen unerik larrienean hasten da zuzperraldia. Berrikuntzaren lehen zantzuak sumatzen direneko data sinbolikoa izan daiteke 1950. urtea. Esan dugunez, 1937-1949 epealdian esperantzak larregi ezarriak zeuden nazioarteko politikan, barruko erresistentzia ahaztuxe utzita. Atzerritik etsipena besterik ez datorren unean ematen zaio berriro protagonismoa herriari eta, hain zuzen orduantxe hasten da indartzen kultur mugimendua. Zentzu honetan, krisi politikoak kulturgintzaren piztea dakar, modu askotara nabaritzen dena"[73]. P. Iztuetak iragartzen digun zuzperraldiaren lehenengo emaitzak liburu eta aldizkarigintzan eman ziren. Besteak beste, Buenos Aireseko "Ekin" eta Zarautzeko "Itxaropena" argitaletxeak (1946), baita aldizkaria sorta ere: "Egan" (1948), Guatemalan argitaratutako "Euzko Gogoa" (1950), "Anaitasuna" (1950), "Zeruko Argia" (1954), "Othoizlari"

---

71 ARPAL, J., ASUA, B. eta DAVILA, P. (1982): **Educación y sociedad en al País Vasco**. Txertoa. Donostia. 43. orri.

72 EKINnen sorrera eta ETA eragingo zuen geroko eraldaketaz ikus: JAUREGI, G. (1981): I**deología y estrategia política de ETA**. Siglo XXI. Madrid. ORTZI (1975): **Historia de Euskadi: el nacionalismo vasco y ETA**. Ruedo Ibérico. Paris. IBARZABAL, E. (1979): *Así nació ETA*. **Muga**, 1. IBARZABAL, E. (1980): *En torno al nacimiento de ETA*. **Muga**, 2.

73 IZTUETA, P. (1993). **Orixe eta bere garaia**. V. Liburukia. Etor. Donostia 799. orri.

(1954)[74]. Honela, urratsez urrats eta prentsa idatziaren fruituak han hemenka loratzen joan ahala, 1956. urte mugarrira heltzen gara, hain zuzen ere, Pariseko Munduko Euskal Batzar Nagusiaren, Arantzazuko Euskaltzaindiaren Biltzarrearen eta Jakin aldizkariaren agerpen urtera. Ordutik aurrera euskal politikagintza eta kulturgintza prozesu berri orokor batean sartuko ziren, ordura arte egondako adierazpen guztiak irauliko zirelarik.

2.1.1. Nazional-katolizismoaren eragina euskal hizkuntz eta hezkuntzan

Maila politikoan sortutako aldaketa guzti hauetaz gain, frankismoak hizkuntz eta hezkuntza politikan ere bere neurriak inposatuko zituen. Francoren garaipenarekin Hego Euskal Herriak, eta periferia guztiak[75] orokorrean, Estatu Espainiarraren konsolidaziorako beste fase bat ezagutu zuela esana dugu, ideologikoki zein politiko-administratiboki ezaugarri kontserbadore eta totalitarioez jabetuko zen erregimen baten bitartez. Era labur batez esanda, erregimen berriak, "gurutzada santua"ren izenean egindako gerra irabazi ondoren, Errepublikak ezarritako osagai liberal guztiak bihurtzera abiatu eta haren trukez errealitatea ezaugarri kontserbadoreez eraikitzen hasi zen.

Hego Euskal Herrian, batez ere Bizkaiak eta Gipuzkoak gerra garaian jokatu zuten papera dela medio (gogoratu dezagun urteetan zehar "provincias traidoras" izenpean bizi izan zirela), konkistaren ideia eta Espainiako Inperioaren eraikuntza ezarri nahia somatzen da. Jose Maria Areilzak 1937.eko uztailean Bilbon esandako hitzetan: "Que quede esto bien claro: *Bilbao conquistada por las armas*. Nada de pactos y agradecimientos mutuos. Ley de guerra, dura, viril, inexorable. Ha habido, ¡vaya si ha habido!, vencedores y vencidos. Ha triunfado la España, una, grande y libre; es decir, la de Falange Tradicionalista. Ha caído vencida para siempre esa horrible pesadilla siniestra y atroz que se llama Euzkadi y que era una resultante del socialismo prietista, de un lado, y de la imbecilidad vizcaitarra por otro"[76].

---

74 TORREALDAI, J. M. (1981). *JAKINen historiaurrea: abertzaletasuna eta euskara*. **Jakin** 21. "Euzko Gogoa" eta "Egan" aldizkarien azterketa sakonerako, ikus: IZTUETA, P. (1993). **Orixe eta bere garaia**. V. Liburukia. Etor. Donostia 800. orrialdetik aurrera.

75 Frankismoak periferiaren kontra zabaldutako erasoan Euskal Herriko kasuaz gain Kataluniakoa ere oso interesgarria iruditzen zaigu, ikus: BENET, J. (1979): **Cataluña bajo el régimen franquista. Informe sobre la persecución de la lengua y la cultura catalana por el régimen de Franco**. Bartzelona; FERRER i GIRONES, J. (1985): **La persecusió política de la llengua catalana**. Edicions 62. Bartzelona; eta MONES i PUJOL-BUSQUETS, J. (1981): **L´escola a Catalunya sota el franquisme**. Rosa Sensat Edicions. Bartzelona.

76 Correo Español: 1937/7/8, Torrealdaik aipatua. Gerraostearen ondorioak hizkuntzarekiko: TORREALDAI, J. J. (1982): *Euskararen zapalkuntza (1936-1939)*. **Jakin**, 24.

Ez dugu ahaztu behar, katolizismo eta totalitarismo gogo nabariekin batera, separatismoarekiko jarrera ere (Inperio Espainiarraren eraikuntzarako oztopo serio bat izan zen heinean) frankistak ezaugarritzen zituen beste datu bat izan zela, eta egoera berrian tinko gainditzen saiatu ziren errealitatea. Ildo honetatik guztiz ezagun izan zen Calvo Sotelok Urumea Pilotalekuan esandakoa: "Yo digo: entre una España roja y una España rota, prefiero la primera, que sería una fase pasajera, mientras que la segunda seguiría rota a perpetuidad"[77].

Diskurtso ideologikoaren ardatza bertan dugula esan dezakegu, baina operatibizatzeko eta osatzeko hizkuntzaren errekurtsoa erabiliko zuten, alegia, Espainia bat bakar hori eraikitzeko hizkuntza bat bakarra finkatu beharra zuten eta horretarako neurri desberdinak jarri zituzten martxan. "Hablad en español", "Habla en el idioma del Imperio" esaldiak behin eta berriro agertu ziren Estatuari nazio nortasuna eman nahiean eta periferiaren naziotasuna ukatuz. Ninyolesek deituriko "nacionalismo lingüístico de signo imperialista" honek hizkuntza periferikoen desagerpena behartu zuen, debekua maila guztietan.

Torrealdaik egiten duen analisiari jarraiki, frankismoak eratu zuen hizkuntz politika aztertzeko atal bitan oinarrituko gara: alde batetik euskararen erabileraren esparruetan, eta, beste alde batetik, gaztelera inposatzeko tresna instituzionaletan.

Lehenengoari dagokionez, euskara familiaren eremu zehatz zehatzetara baztertzen dela nabaria da. Legeen bitartez eta hauen praktika ez betetzeak suposatzen zuen zigorren bitartez, euskara bizitza mota desberdinetatik kanporatuta gelditu zen: bizitza publikotik (pertsonen euskal izenak, dendetakoak, hoteletakoak.. debekatuta zeuden), bizitza ofizialetik (erregistro zibila..), elizatik (mezak eta doktrina..), kaleko erabileratik (ezin zen euskaraz hitz egin autobusean edo kalean edo merkatuan..)[78]. Legez eta indarrez euskararen erabilpena eremu murritzetara kondenatuta gelditu zen estigmatizazio prozesu orokor eta bortitz bati hasiera emanez.

Euskararen presentzia desagertzeaz gain hizkuntz zapalkuntzarako tresna instituzionalak jarri ziren martxan, hau da, gazteleraren inposaketarako kontrol ideologikorako erremintak ere sortu ziren. Tresna instituzional hauek administrazioa, komunikabideak (irratia, prentsa idatzia, liburuak...) eta eskola izan ziren.

Eskolan ere euskararen erabilpena kontrolatu eta zigortu zen, lehenenengo momentutik akulturatze eta espainolizatzeko tresnarik eraginkorrenetakoa

---

77 TORREALDAI, J. J. (1982): *Euskararen zapalkuntza (1936-1939)*. **Jakin**, 24. 17. orri.

78 EUSKALTZAINDIA (1978): **Euskararen Liburu Zuria**. Euskaltzaindia. Bilbo. Lan honetan "Euskararen prozesu historikoari eragiten dioten faktore juridiko-legalak" izenekoan, debeku desberdinen zehaztasun gehiago topa daitezke: 397. orri.

bihurtuz. Kasu honetan ere hezkuntza sistema ez da salbuespena izango eta gerrara arte egindako guztia txikitua izan zen.

Neurri desberdinak hartu zituzten. Lehenengo eta behin, 1936.eko abenduan "Comisiones Depuradoras de Instrucción Pública" izenekoak eratu ziren aurreko gobernuarekin harremanen bat izan zuten maisu maistrak lanetik apartatzeko: "Todos los autores mencionan la *caza de curas* por parte de los republicanos y la equiparan con la *caza de maestros* en el otro lado. Maestros y ferroviarios preferentemente; los segundos, por su alto grado de afiliación a sindicatos "rojos", y los primeros, por su fuerte identificación con el régimen republicano, cuya política de creación de escuelas y dignificación económica y social del Magisterio no tiene parangón en ninguna época pasada. Se consideraba a todo maestro, por el mero hecho de serlo, como republicano-rojo-candidato al paredón"[79]. Batzorde hauen inkisidore lana garbiketatzat har dezakegu, eta Hego Euskal Herrian eragin haundia izan zuten (gogora dezagun zenbat maistra ziren EABko militanteak, edo ingurukoak, zeren batzorde hauetan militanteak zein susmagarriak "depuratzen" baitziren); maistrak fitxatu eta markatu zituzten aurrerago klaserik eman ezin izateko: "Eskola kendu zidaten, kendu, castigo, sancionada, fitxa edo zer esango dizut: *religiosidad poca y mala, moralidad ninguna, prensa Euzkadi*, eta gero ez dakit jartzen zuen *separatista* edo *nacionalista que deja mucho que desear*. Hori izan zen nere fitxa."[80]

Irakasle hauen ordezkoak aukeratzeko agindu batzu ebatzi ziren: "En consecuencia, en octubre de 1940 (orden del 17 de octubre) se disponía la convocatoria de cuatro mil plazas a cubrir entre oficiales provisionales de complemento, ex-combatientes, ex-cautivos, miembros de la extinguida Corporación del Magisterio, huérfanos de guerra e hijos de asesinados, Cruzados de la enseñanza.."[81]. Era berean, Ejerzitoko ofizialak sartzeko bideak ere jarriak ziren ondoko argudioekin: "importa al Estado injertar este probado espíritu juvenil en su propia vida administrativa y política, pero de modo singular en la educación, donde la ejemplaridad del patriotismo, las dotes morales y el estilo ágil y renovador son condiciones indispensables en los formadores de la niñez, que ha

---

79 NAVARRO, R. (1990): **La enseñanza primaria durante el franquismo (1936-1975)**. PPU. Bartzelona, 124. orri.

80 1. elkarrizketa. Hemendik aurrera elkarrizketen aipamenak agertuko dira, informazio iturri nagusi gisa erabili izan baita. Elkarrizketatu bakoitzaren profila eranskinetan topa daiteke.
Euskal maisu maistren kontrako errepresioaz ikus: OSTOLAZA, M. A. (1992): *La depuración del magisterio vasco. Estudio del proceso depurador en Guipuzcoa y Vizcaya (1936-1945)*. **Lizentziaturarako tesina. Madrilgo Unibertsitate Autonomoa**; eta PASCUAL BONIS, A. (1988): *La represión del Magisterio navarro durante la guerra civil (1936-1939)*. **II. Euskal Munduko Biltzarra**, Donostia.

81 CAMARA, G. (1984): **Nacional-Catolicismo y Escuela. La socialización política franquista**. Hesperia. 255. orri.

de ser, como fecunda juventud del mañana, base fundamental del futuro de España"[82].

Neurri hauen ondorioz, Hego Euskal Herriko eskoletan arituko zen irakaslegoa ehuneko altu batez kanpotarra, erdalduna eta nazional-katolizismoarekiko lotura zuzenekoak izan ziren, eta, hautaketarako bideek erakusten digutenaren arauera, formazio pedagogikorik ez zeukatenak.

Hartu ziren beste neurriren ildotik, zentralak ez ziren egitura administratiboen (Diputazioak, Udaletxeak..) kudeaketa Estatuaren ardura izatera pasatu zen, honek hezkuntza sistemaren kontrol zentralista gorpuztu zuelarik: "La trayectoria del nuevo Estado es en el sentido de absorver total, absolutamente, todas las escuelas municipales, en especial las de las provincias vancongadas y catalanas (...) por la sencilla razón, y vosotros bien lo sabéis, que fue precisamente en las escuelas de estas regiones donde más daño se ha hecho a la unidad de la Patria.."[83].

Separatismoaren edo euskararen arrastorik ere ez utzi aparte, erregimen berriak bere birsorkuntzarako Nazional-Katolizismoa izeneko ideologia osatu zuen. Guztiok ezaguna da Estatu Espainolean Elizaren Hierarkiak, Errepublikak ezarritako ondasunen desamortizazioari eta laizismo eskolarrari erreakzionatuz, Francoren aldeko jarrera hartu zuela altxamendua legitimatuz eta "gurutzada santua"-ren esanahia ezarriz. Errepublikaren etorrera arte hezkuntza sistemaren monopolioa Eliza Katolikoari zegokionez, bere eskuetatik belaunaldi guztien sozializazioa pasatzen zen, eta, hain zuzen ere, hauxe izan zen Francoren erregimenarekin berreskuratu nahi izan zutena.

1936.era arte bultzatu zen bizitza publikoaren sekularizazioa oztopatu nahiean, konfesionaltasuna izango zen hezkuntza egoera berriaren motorra: "De ahí que, en el ámbito específico de la educación, persiguieran la implantación de la enseñanza confesional basada en tres principios fundamentales: enseñanza de acuerdo con la moral y dogma católicos, enseñanza de la religión en todas las escuelas –públicas y privadas– y derecho de la Iglesia a la inspección de la enseñanza en todos los centros docentes"[84].

---

82 CAMARA, G. (1984): **Nacional-Catolicismo y Escuela. La socialización política franquista**. Hesperia. 256. orri.

83 R. Toledok, "Enseñanza Primaria"ko Zuzendari Orokorrak, 1945.ean Korteen aurrean eginiko hitzaldia. TORREALDAI, J. J. (1982): *Euskararen zapalkuntza (1936-1939)*. **Jakin**, 24. 46. orri.

84 PUELLES, M. (1980): **Educación e ideología en la España contemporánea (1767-1975)**. Labor. Bartzelona. 364. orri.

Hezkuntza konfesionalarekin batera nazional-katolizismoaren beste zutabea hezkuntzaren politizazioa izan zen. Era honetara erlijio katolikoaren balorerik tradizionalenak Estatu Berriaren balore ultranazionalista espainolekin identifikatu egiten ziren: "..dentro de un ambiente triunfalista y retórico llevado hasta el paroxismo, del que participa el episcopado español salvo nobles y exiguas excepciones."[85]

Ideia hauek Euskal Herrira ekartzen ditugunean kontraesantsu agertzen zaizkigu, zeren, ikusi dugun bezala, euskal nazionalismoa erlijiozalea baitzen eta Errepublikarekin izan zuen istilurik nagusienetako bat laizismo eskolarra izan baitzen. Hala ere, gerraostean erregimenaren zama bortitz guztia jasan zuten euskaldunek. Hau ulertzeko argitasun batzu Sagüesek ematen dizkigu: "En el País Vasco la posición socio-económica de la Iglesia, en términos generales, no fué tan radical: más cercano al pueblo, el clero sintonizaba mejor con sus problemas (...).Sin embargo, también en el País Vasco cabría distinguir entre la jerarquía eclesiástica y el clero no jerárquico."[86]

Euskal apaiz askok euskararen alde jokatu zuten paper garrantzitsua ukaezinezkoa da (gogora dezagun besteak beste Gasteizko Seminarioko J.M. Barandiaran, M. Lekuona..., edo Lekarozeko kaputxinoen lana) eta arrazoi honengatik persegitu eta errepresaliatuak izan ziren: "Para siempre (todo hay que decirlo) desaparecerá tambien de nuestra tierra ese clérigo secular, o regular, que daba durante los últimos años el lamentable espectáculo de la traición a la Patria desde las gradas sacrosantas del altar o desde las alturas doctorales del púlpito. La gran vergüenza del clero separatista, ésa también se acabó para siempre"[87]. Izan ere, nahiz eta Euskal Herrian erlijiotasunak garrantzi haundia izan, ez da erregimen berriaren asmoetan ondo sartuko eta, horren ondorioz, Elizaren barruko jarrera biak bertan haziko dira, urteetan bere kontraesan guztian agertuko direlarik[88].

2.1.2. 1945.eko "Ley de Educación Primaria"

Nazional-katolizismoan oinarrituta, Eliza Hierarkikoaren eskutik eta Errepublikatik etor zitezkeen kutsaketa guztiak "garbitu" (irakaslegoa, elebitasuna,

---

85 PUELLES, M. (1980): **Educación e ideología en la España contemporánea (1767-1975)**. Labor. Bartzelona. 365. orri.

86 SAGUES, M. (1977): *El euskara y la enseñanza en los estatutos de autonomía*. **Saioak**, 1. 56. orri.

87 AREILZA, J.M.ren diskurtsoa, El Correo Español (1937/7/8), in TORREALDAI, J. J. (1982): *Euskararen zapalkuntza (1936-1939)*. **Jakin**, 24. 24. orri.

88 Euskal apaizgoaren jokaeraz ikus: IZTUETA, P. (1981). **Sociología del fenómeno contestatario del clero vasco. 1940-1975**. Zarautz: Elkar; SAGUES, M. (1977). *El euskara y la enseñanza en los estatutos de autonomía*. Saioak/(1).

testu liburuak, ikasgaiak...) ondoren, hezkuntza sistemaren birformulaketari ekin zitzaion, Lehenengo Ikaskuntzari zegokiona 1945.eko "Ley de Educación Primaria" zeritzona izan zelarik.

Lege honi darion lehenengo datu adierazgarria zera da, erregimenak eskolari leporatzen dion haren sostengurako eta egonkortasun sozialerako erantzunkizun sozializatzaile borobila. Honen arabera eskolak ideologiaren eramale eta birsortzaile lana bete behar du, instrukzio funtzioaren kaltez, nahiz eta bi alderdi hauek praktikan bereiztea nahiko zaila den. Legeak bere 6. artikuluan argi aski adierazten du: "Es misión de la educación primaria, mediante una disciplina rigurosa, conseguir un espíritu nacional fuerte y unido e instalar en el alma de las futuras generaciones la alegría y el orgullo de la Patria, de acuerdo con las normas del Movimiento y de sus organismos".

Planteamendu hauen azpian zetozen iturri teoriko pedagogikoek pentsamendu katolikora bueltatzea suposatu zuten, *Institución Libre de Enseñanza*ren ekarpenetatik eta pedagogia aurrerakoitik urrunduz: "Para imprimir esta dirección ideológica a la escuela, en el terreno pedagógico se proponía el retorno a la tradición española del pensamiento pedagógico católico integrista, y se reprimían todas aquellas tradiciones educativas *heterodoxas* consideradas *materialistas y desnacionalizantes*"[89].

Iturri pedagogikoen islada hau nabaria da bai kurrikulumetan baita metodologian ere. Lehenengoari dagokionez, erlijioaren erritual eta pertsonaien gorespen sutsu eta errepikagarria (honek adin hauetako umeengan duen eragin psikologikoarekin) eta praktika erlijiosoa dira aipagarrienak[90]. Metodologiaz pedagogia tradizionalerako itzulera dela esan dezakegu: ".. el *dogmatismo autoritario*, encarnado en la autoridad indiscutida del maestro; el *memorismo*, difusor fiel de tal *patrimonio doctrinal inmutable*, basado fundamentalmente en la utilización del libro de texto esquematizador de rígidos contenidos; y el *individualismo* anulador de toda iniciativa de trabajo participante y colectivo, reflejo ideológico del pretendido innatismo de las capacidades intelectuales y legitimador de las desigualdades sociales"[91].

Atal ideologiko honez gain, lege honek, ezartzen zuen ikasketen sailkapenaren bitartez, ikaslegoaren selekzio hertsia burutzen zuen, batxillergora promozio-

---

89 CAMARA, G. (1984): N**acional-Catolicismo y Escuela. La socialización política franquista**. Hesperia. 252. orri.

90 Gregorio CAMARAk aipatutako lanean testu liburuetan zabaltzen den ideologiaren azterketa sakona egiten du. Ikus VI. kapitulua "La ideología del nacional-catolicismo a través de los libros de texto", CAMARA, G. (1984): **Nacional-Catolicismo y Escuela. La socialización política franquista**. Hesperia. 293-396 orri.

91 Lan bera, 252. orri.

natuak izango zen ikasle kopuru txikia eta eskulanaren mundura, ikasketetara ia bueltaezinezko bidetik, bultzatua zen ikasle kopuru haundia. Kasu honetan ere, sistema sozial orok bezala, hezkuntza sistemak merkatuaren beharrei erantzuten zien, eta gizartearen garapenak, industriatzeaurrekoa zen heinean, xurgatu behar zuen lan indarraren nolakotasuna ez zen kualifikatua: "un sistema acorde con un país subdesarrollado de estructura preindustrial, donde no se necesita aún una clase trabajadora cualificada, siendo suficiente la posesión de unos conocimientos elementales para ingresar en el mundo laboral"[92]. Honen ondorioz, eskolak "ekoizten" zuena lan mundura bideratzen zen, nazional-katolizismoaren ideologian sozializatu ondoren.

Joera hauek 50.eko hamarkadaren erdira arte ez zuten aldaketa haundirik ezagutuko, baina momentu honetatik aurrera erregimen frankistarekiko nazioarteko blokeoaren bukaera, kanpoko kapitalaren sarrera eta gobernuan Opus Deiko zenbait ministroren sartzearekin, ekonomikoki eredu teknokratikorako urratsa burutu zen, baita berarekin batera zetorren "garapena"ren ideologia ere.

Hezkuntza politikan ere aldaketak etorri ziren; eskolak, berriro ere ekonomiari erantzunez, tekniko kualifikatuak sortu behar zituen hazkunde ekonomikoari aurre egiteko. Honen adierazgarri 1956.ean ebatzi zen legea, non bost urtetako epean 25.000 eskoletako eraikuntzarako 2.500 milioitako zor publikoaren emanaldia ebazten zen. Politika hauek Estatuak sofritzen zuen eskolatze maila baxuari aurre egin nahiean bideratu ziren, eta ondorioak ez ziren edonolakoak izan: "...en 1962, un año más tarde de los previsto, el Plan se dá por terminado y se han construído o están a punto de terminarse un total de 23.000 aulas (recordemos que el Plan era de 25.000). Ello significaba 920.000 puestos escolares, a 40 por aula"[93].

2.2. FRANKISMOA ETA EUSKAL ESKOLA SAIOA: DONOSTIAKO ETXE-ESKOLAK (1946-1969)

1936.era arte euskal eskolaren eraikuntzarako egin ziren ahalegin guztiak bertan bera gelditu ziren gerraren etorrerarekin. Lehenengo momentu batetan, gerrak sortutako egoera zailari erantzunez, umeen ebakuazioak eta kolonia eskolarrak antolatu zituen Euzko Jaurlaritzak[94], baina esperientzia honek izan

---

92 PUELLES, M. (1980): **Educación e ideología en la España contemporánea (1767-1975)**. Labor. Bartzelona. 383. orri.

93 NAVARRO, R. (1990): **La enseñanza primaria durante el franquismo (1936-1975)**. PPU. Bartzelona, 170. orri.

94 ARRIEN, G. (1983): **La generación del exilio. Génesis de las escuelas vascas y las colonias escolares**. Onura. Bilbo. Lan hau atal bitan dago banatuta; alde batetik

zuen garrantzia ukatu gabe ezin izango genuke euskal eskolaren historia honetan aintzakotzat hartu, "hezkuntza eta hizkuntza" bikote hau baino asistentzia sozialaren helburua argiago somatzen baita.

Bai dira, ordea, gure aburuz, aipatzekoak diren datu bi: batetik, orain arte deskribatu ditugun euskal eskola saio desberdinetako maisu-maistra kopuru haundi batek kolonia eskolar hauetan[95] lan egin zuela, aurreko urteetan egiten zen hezkuntza lanaren jarraipena helburu bezala azaltzen zelarik. Eta, bestetik, kolonia hauetan gerraurreko garaian deitzen genuen pedagogia musikalari jarraiki folklorea (euskal kantak eta dantzak) modu berezi batez garatu zela, umearen heziketaren oinarri bezala hartuta eta era berean helburu propagandistikoekin[96].

Gerra Zibila bukatzerakoan eta Europako Gerra Haundiaren atarian kolonia hauetan zeuden ume errefuxiatuak euren etxeetara, ahal izan zen neurrian behintzat, bueltatuak izan ziren, eta Frantzian zeuden maistrak eta laguntzaileak, alemanen mehatxua oso gertua izan zenean, Hegoaldera bueltatzen hasi ziren (1940.etik aurrera).

Data honetan benetako etendura eta euskal eskoletako partaideen sakabanaketa suertatu zela esan dezakegu. Ordura arte euskal hezkuntzaren izenean eginiko ekarpen teoriko eta praktiko guztia jarraipenik gabe eta erabat etenduta gelditu zen; frankismoaren urte ilunak ziren, errepresioa eta euskal kutsuko guztia txikitzearen garaiak. Hizkuntza, euskara, familiaren eremura mugatuta gelditu zen; hartatik kanpo ez zegoen euskal adierazpen edota hitz egiterik, ezta, noski, euskal eskolaren susmo txikirik ere. Erregimena hezkuntza sistema bere birsorkuntzarako eta kontrol sozial eta politiko zehatz zehatzerako erabiltzen hasi zen. Horrela igaroko ziren urte batzu, Donostian Elbira Zipitriaren eskutik mendearen lehenengo herenean metatutako euskal eskolaren esperientzia guztia, etxe-eskola baten itxurarekin gauzatzen hasi zen arte.

EIBren esperientziari dagokiona, eta bestetik gerraren eraginez Euzko Jaurlaritzak antolatu zituen kolonia eskolarrei dagokiena. Bigarren atal honetan umeen ebakuazioen antolaketa eta kolonia eskolarren bizimodua zehatz aztertzen da.

95 Kolonietarako maistra edo laguntzailea izateko Euzko Jaurlaritzako Justizia eta Kultur Sailak eginiko dei publiko baten bitartez jakin erazi izan zen (**Euzkadi** 1937-5-11). Honetaz aparte Ikastolen Batzako maistrei Federazioak berak egin zien dei (**Euzkadi** 1937.eko maiatzean). Erantzuna oso zabala izan zela aipatzen du Arrienek: "había maestras de Escuelas Nacionales, de Escuelas Vascas, de Escuelas de Euskadi, de Escuelas de Barriada".ARRIEN, G. (1983): **La generación del exilio. Génesis de las escuelas vascas y las colonias escolares**. Onura. Bilbo. 176. orr.

96 Europan zehar "Eresoinka" eta "Elai-Alai" taldeek ospe haundia lortu zuten, euskal arazoaren zabalkundean arrakasta haundia lortuz. Horrelako esperientziekin lotuta, Hegoaldean ere Dindirri taldea egon zen, Ikus: GUEZALA, L. (1991): **Dindirri: Resistencia cultural durante el franquismo**. Sabino Arana Kultur Elkargoa. Bilbo.

2.2.1 Elbira Zipitriaren ohar biografiko batzu

Eskolari dagokiola, gerraurreko eta gerraosteko garaien arteko zubia nola ezarri zen jakiteko, epe bietan partaide eta egile izan zen Elbira Zipitriaren bizitzaren eta hezkuntza lanaren azterketa da daukagun tresnarik egokiena.

Beraren biografiari buruz X. Aranburuk argitaratu berri duen artikuluaren arabera[97], Zipitria 1906.ean Zumaiako herrian jaio eta oso gazte zela Donostiara bizitzera joan zen. Hiri honetako Maisutza Eskolan ikasi eta 1926.ean "Maestra de Primera Enseñanza" agiria eskuratu zuen, berehalaxe Muñoa Jaunaren Ikastetxean 6 urtera arteko neska-mutilekin eskolak ematen hasi zelarik[98].

Gerra Zibila hasi zenean, 1936.ean, erbesteratu egin zen Pilar Sansinenea bere lagun-minaren familiarekin batera, eta, 1942.ean Donostiara bueltatu arte, Antonio M. Labayenen semeei klaseak ematen jardun zuen: "Erbesteko urte hauek ez dute Elbira geldi erazten. Irakaskintza lanean jarraitzen du, Ramon eta Martin Labayen gazteei klaseak emanez. Gainera, Saran erbesteraturik aurkitzen zen Don Ramon Urkia, Leaburuko apaizarekin eta Pilar Sansinenearekin batera, koro edo abesbatza bat antolatu zuen eta herriko neskatoekin poxpolinen talde bat eratu"[99].

1942.etik 1946.era arte Donostiako famili desberdinen seme-alabei euren etxeetan klaseak ematera dedikatu zen, batzutan banaka eta besteetan talde txikietan. Azkenez, Fermin Calbeton kalean ezarri zuen bere etxe eskola, gerraurrean Antonio M. Labayenek[100] berri ematen digun Elena Gametxo Goikoetxea Andrearen etxe eskolaren antzera eta orduko hezkuntza legeak bederatzi urtera arteko eskolatze arauek ahalbideratzen zutenarekin jokatuz.

1969.era arte mantendu zuen Zipitriak bere etxe eskola, eta urte horretan halabeharrez aldatu ere, zeren Gipuzkoako Gobernu Zibilak zabaldutako etxe eskolen debekua eta legalizatu beharra izan arte ez baitzuen bere iharduera hori eten. 1969.ean, etxe eskolak erabat desagertzen direla esan dezakegu, ez bakarrik aginte politikoen erabakiaren eraginez, baizik eta gizartean sortu zen euskal eskola eredu berria, ikastola izenez guztiok ezaguna den hori, erabat zabaldu eta finko sustraitu zelako ere.

---

97 ARANBURU, X. (1991): *Hezkuntzaren historia Euskal Herrian: Ikastola. Elbira Zipitriaren biografiarako jakingaiak: Ikastola Donostian 1942-1969 urte bitartean*. **Eusko Ikaskuntza. Cuadernos de Sección: Educación**, 4. Donostia.

98 ARANBURU, X. (1991): *Hezkuntzaren historia Euskal Herrian: Ikastola. Elbira Zipitriaren biografiarako jakingaiak: Ikastola Donostian 1942-1969 urte bitartean*. **Eusko Ikaskuntza. Cuadernos de Sección: Educación**, 4. Donostia. 13-14. orrialdeetan.

99 Lan bera, 14. orrialdean, Ramon M. Labayenek kontatutakoaren arabera.

100 LABAYEN, A. M. (1971): *Euskal ikastetxe eta ikastolak*. **Aranzazu**: 120. orrialdean.

Gure lan honetan, Elbira Zipitriak martxan jartzen zuen gerraosteko lehenengo etxe eskola honen nolakotasuna, asmoa, helburua eta bere inguruan sortu zen sarea ikertzea izan dugu xedea, gure ustez, esperientzia honek gerraurreko belaunaldiaren ekarpena eta 60. eko hamarkadan eratu zen ikastolen mugimendua kontaktuan jarri baitzituen, euskal eskolaren proiektua bere osotasunean eta jarraipen historiko batetan ahalbideratuz. Zipitriak gorpuztu zuen bi epe desberdinen arteko lotura; bera izan zen zubia, eta, gerraurrea ezagutu ez zuen belaunaldiari euskal hezkuntzan eginiko lanaren emaitzak, emaitza pedagogikoak eta, neurri batetan, ideologikoak eskeini zizkion.

Gure ustez, Zipitria bere garaiko emakumea zen, euskal pizkundea gertatzen hasi zenean jaiotako eta nazionalismoaren urterik emankorrenetan gazte izan zen emakumea, ideia eta mugimendu desberdinen arragoa alegia. Bere ekarpenaren muina ulertzeko hurrengo hiru puntu hauek aztertzeari derrigorrezko deritzogu haren ideologiaren osagai nagusitzat jotzen baititugu, hain zuzen, Muñoa Jaunaren ikastetxeko irakaslea izateari, euskararen munduko loturari eta Emakume Abertzale Batzako militantziari.

Esan dugun bezala, 1926.ean hasi zen lanean Zipitria Muñoaren ikastetxean. Muñoa Jaunak eratu zuen eskola euskal irakaskuntzako lehenengo saio jarrai eta sendoa izan zela esan behar dugu, eta euskara hutsez irakastea, gaztelera ikasgai hartzea, aisiari garrantzi berezia ematea eta nagusientzako gau-eskolak antolatzea izan ziren ikastetxe honetako ezaugarri azpimarragarri batzu. Honetaz aparte aipatu behar dugu Muñoak euskal irakaskuntzarako zeukan grina ez zela bere ikastetxera mugatzen; Euzko Ikastolen Batzaren proiektuaren diseinuan[101] eta Eusko Ikaskuntzaren lanetan parte hartu izan zuen, baita adibidez 1931.ean Donostian ospatu zen "Elebitasunaren Kongresua"-n bere ikasleen erakustaldi baten bidez ere: "Las pruebas públicas del alumnado de Muñoa de San Sebastian, ante varios cientos de enseñantes, resultarán decisivas"[102]. Beraz, eta laburki deskribatu dugun honen bidez, Zipitria euskal hezkuntzaren esperientzia berezi eta aberats batetan erabat murgilduta egon zela ikus dezakegu, hamar urtetako epean gainera.

Muñoaren ikastetxeko iharduera hau, noski, ez zen esperientzia isolaturik izan. Zipitriak, gazte gaztetatik Gipuzkoako euskararen aldeko mugimenduarekin oso harreman zuzenak izan zituen. Manuel Lekuonak, euskara garbiaren kontuan,

---

101 GARMENDIA, M. C. (1972): *Ikastola*. in ESTORNES LASA, B. (arg.): **Enciclopedia General Ilustrada del País Vasco. XIX. tomoa**. Auñamendi. Donostia.

102 ESTORNES, I. (1983): **La Sociedad de Estudios Vascos. Aportación de Eusko Ikaskuntza a la cultura vasca, 1918-1936**. Eusko Ikaskuntza. Donostia. 197. orrialdean. E. Zipitria ere bere ikasleen horrelako erakustaldietan ibili omen zen, BSEV aldizkarian argitaratutako artikuluan ikus dezakegunez: BSEV (1932): *Exhibiciones de la escuela de Muñoa*. **BSEV**, 55.

Elbira Zipitria "proselitista"tzat jotzen du, herrietara abertzaletasuna erakustera zetorrelarik:"Olako proselitismo-saioak eratzeko oitura andia zan orduan: Kapitaletatik erri txikietara; Andereñoak eta mutil abertzaleak Donostia´tik eta Bilbao´tik baserrietara, abertzaletasuna erakustera"[103]; Tolosa eta Oiartzun aldeko lagunekin batera Argia aldizkarirako artikuluak idazten zituen, eta giro berberaren bitartez Tolosako ikastolako sortzaile eta andereñoekin harremanduta zegoela ikusi ahal dugu, baita Aitzol, Lekuona, Labayen eta euskal munduko izen ospetsu batzurekin ere[104].

Euskararekiko kezka hauek Zipitriaren "Euskaltzaleak" erakundeko kidetzan gelditzen dira, laburbilduz, zeharo isladatuta. Jakina denez, nazionalismoaren barruan kultur politika aberkideaz aparte, bazegoen "Euskaltzaleak" erakundea, etiketa politikoetatik ihesi, euskara eta euskal kulturaren pizkundea aldarrikatzen eta bultzatzen zuena. Bere adierazlerik garrantzitsuenak José de Ariztimuño "Aitzol" eta José M. De Agirre "Lizardi" izan ziren eta Eusko Ikaskuntzarekin erlazio estuak zituztelarik "Euskararen Eguna", euskal antzerkia, poesia, elaberria eta abarrak[105] antolatu zituzten: "Era, pues, una agrupación que intentaba conjugar la promoción de minorías, fundamentalmente en el campo de la creación literaria, y la enseñanza popular, con especial acento sobre la educación en euskara de la infancia"[106]. Nazionalismoak, kasu honetan, beraren alderdirik kulturalistena abiapuntua hartuta, euskal kultura eta hizkuntzaren zabalkundeari ekin zion populazioarengan aldeko jarrerak sortzeko asmotan (planteamendu honen beste muturrean, aberkideenean hain zuzen, nazionalis-moaren zabalkundean naziotasunaren kontzeptua sartuko litzateke, euskal kultura eta hizkuntza hutsezko planteamentuen "neutraltasuna" ez nahikotzat jotzen zutelarik).

"Euskaltzaleak" erakundea zela medio Gipuzkoako toki askotara hedatu zen kultur politika honek helburu bikoitza betetzen zuen. Alde batetik, nazionalismoaren barruari begira, "kanpotik zetozen ohitura exotikoen eragina"

---

103 LEKUONA, M. (1985): *Elbira Zipitria*. in Euskarazaintza (arg.): **Zipitria´tar Elbire Andereñoa. Omenaldia**. Lopez Mendizabal. Tolosa. 101. orri.

104 Horrelako datuak ondoko artikuluetan aurki daitezke: LEKUONA, M. (1985): *Elbira Zipitria*. in Euskarazaintza (arg.): **Zipitria´tar Elbire Andereñoa. Omenaldia**. Lopez Mendizabal. Tolosa. 99-107 orri.; GARATE, J. (1985): *Elbira Zipitria Irastorza.* in Euskerazaintza (arg.): **Zipitria´tar Elbire Andereñoa**. Lopez Mendizabal. Tolosa. 109-114 orri. Eta GOIKOETXEA, B. eta DRABASA, I. (1985): *Tolosa: gerra aurreko ikastola (1922-1936)*. **Eusko Ikaskuntza. Cuadernos de Sección: Educación**, 1. Donostia.

105 Talde honek zuen asmoa zera zen, Eusko Ikaskuntzak lantzen zuen Goi-Kultura aurrean, Herri-Kultura lantzen hastea. Honetarako ekinbide batzu jorratu zituzten. Honetaz Ikus: ELKARLANEAN (1927): *Euskeraren aldezko Bazkunen Batasuna*. **BSEV**, 36. ELKARLANEAN (1928): *La Federación de Acción Popular Vasca*. **BSEV**, 39. AITZOL (1930): *Eusko Ikaskuntza eta Euskaltzaleak*. **BSEV**, 45.

106 ELORZA, A. (1978): **Ideologías del nacionalismo vasco**. L. Haranburu. Donostia. 439. orri.

uxatuz umeak eta gazteak euskal forma eta kutsuzko balore eta ohituretan sozializatu (euskal kultura eta hizkuntza birsortuz)[107]. Eta, bestaldetik, eta nazionalismotik kanpora begira, lan proselitista burutu, nazionalismoa politikoki errefuxatu edo gertakari urrun bezala ikusi egiten zutenak ume eta gazteen ekintza publikoek ikusleengan sortarazten zuten afektu edo sentimentuen bitartez nazionalismora erakarri: "La calle, en realidad, era desfavorable al nacionalismo. Era menester conquistar el ambiente de otra manera (...). Surgió inmediatamente la otra táctica. La de multiplicar las actividades patrióticas aquí y allá de forma que de cualquier manera el gesto trascendiera de alguna manera al ambiente (...). Hacerse notar, bullir. Hacer que el reacio o el indiferente se encuentre con el nacionalismo y sus correrías a la vuelta de cada esquina, de forma que les sea dificil reaccionar contra él (...). Saturar el ambiente. Hacer que si no es el Abesbatza sea la emisión euskérica, o que si no son las poxpolinas sea la sesión teatral euskérica"[108].

Donostian, E.A.B. berriro legeztatu aurretik, bazeuden kultur zabalkunderako poxpolinen eta dantzari taldeak orain arte deskribatu dugun kultur politikarako erakunde desberdinek bultzatuta, baina emakumeen antolamenduarekin ekintza hauek finkatu eta sustraitu egin ziren. Emakumeekin batera, euskal kulturan eta erlijioan umeak eta gazteak hezi nahi zituen mugimendu honetan, berebiziko papera jokatu zuena Ramon Laborda apaiza zen, Katalunian Llonguerasek umeen jolasak katalanizatu nahiaren ideiari jarraiki euskal errealidadeari egokitu ziolarik[109].

EABren legalizazioarekin, ekintza guzti hauek indartu eta maila haundia lortu zuten; hala hola Artetxek esaten duenaren arabera Kursaalen lau eta

---

107 "Gero, "Eusko Ikaskuntza"-barreneko "Irakaskitz-Batzordea" kenduta, ala beso zarreko zati dirauelarik, "Erri-lan" ekoan "Aur Euskalduna"ren adarra sortuko genuke.
Adar horren eginbeharra: Euskelerri´ko aurengan euskerari eutsi, ta, eutsiaz bat, pitinka orraztu, gaiagotu: bide batez, ta beraxeagoko malan, aurrok eusko-abesti, jolas ta dantzen zale biur.
Orretarako, urrengo bi elburu auei ekingo lieke asteko: Euskalerri´ko ikastola-ikastetxetan (errienak ez beste guztietan) euskel-ikastaldi labur bat sartu-eraztea; al-litzaken tokirik geienetan (uri azi-samarretan batez-ere) aur txikientzako Euskel-Ikastolak jartzea". ELKARLANEAN (1927): *Euskeraren aldezko Bazkunen Batasuna*. **BSEV**, 36. 15. orri.

108 ARTETXE, J. d. (1933): *Nacionalismo Donostiarra*. **Euzkadi**, 1933/12/1.

109 LARRAÑAGA, P. d. (1978): **Emakume Abertzale Batza**. **II.** Auñamendi. Donostia. 29-30. orri.: "Antes de fundarse emakume, había ya en Donostia grupos de dantzaris de poxpolinas, creadas por el Centro Vasco, Juventud Vasca y Escuelas Vascas. Las emakumes se encargaron de unirlas, unificándolas y dándolas una organización propia, fijándose especialmente en las niñas."
Eta Labordari buruz zera dio: "En los amplios sótanos del Kurssal, que las emakumes habían adquirido para este objeto, y en su lindo teatro, reunía diariamente y por turnos, a centenares de niñas, que iban ensayando los cantos, los bailes, las gimnasias, los movimientos. En esta labor era ayudado, naturalmente por jóvenes emakumes, que en aras del bien que se hacía a las niñas -muchas de ellas hijas de socialistas y comunistas- y de la patria, difundiendo sus danzas, canciones y manifestaciones folklóricas, hacían un verdadero sacrificio"

hamalau urte bitarteko mila zazpirehun neska-mutil biltzen omen ziren eta Larrañarenarenean 1932.an zazpirehun ume joaten omen ziren euskal kantak ikastera.

Zipitria ez omen zebilen Donostiako gertakari guzti hauetatik urrun, bere pedagogian poxpolinen esperientziaren eta Aita Donostiaren eragin nabariek erakusten diguten bezalaxe. Baina honetaz aparte, euskal ikastetxea eta "Euskaltzaleak"-en bidezko eraginak aparte, Zipitria EABko militante bezala datorkigun informazioaz ere hausnartzea gustatuko litzaiguke, erakunde honek emakumearen partaidetza sozialerako jokatu zuen paper garrantzitsuagatik eta politizazio honek gerraosteko gertakarietan izan lezakeen pisuagatik.

Asko dira Zipitriaren EABko militantziaren berri ematen diguten lekukoak. Dudarik gabe, erakunde honek Zipitria ezaugarritzen zituen hainbat aspektu bereganatzen zituen, besteak beste euskararekiko eta erlijioarekiko kezka, heziketa lana (bai eskolakoa, bai eskolatik kanpokoa ere) eta nazionalismoaren zabalkundea. Zipitria ez zen izan EABko edonolako militantea, militante kualifikatua baizik, arlo politiko eta publikoan, propaganda eta emakume hizlarien puntako markoan aritzen zen militantea. Honen berri Larrañagaren lanetan topa dezakegu; autore honen datuen arabera Zipitriak, 1931.eko abenduan Debako EABren eraketa saioko mitinean partaide agertzen zaigu, Mercedes de Kareaga hizlari famatuarekin batera[110], baina agian esanguratsuagoa da 1932.eko apirilean Donostiako EABko eraketa saioaz esaten diguna: "..y el formidable mitin en el Frontón Urumea sin precedentes en Donostia, con una asistencia calculada en 25.000 personas, a cargo de los brillantes oradores patriotas Mercedes de Kareaga, Elvira Zipitria, José Antonio Aguirre"[111].

Gerraurreko esperientzia eta iharduera hauen bitartez, Zipitria nazionalismoaren harreman sareetan guztiz txertatuta eta kokatuta zegoela esan dezakegu; lagun harremanak eta politika, hizkuntza, hezkuntza eta erlijioaren bidezkoak gurutzatu, elkar osatu eta oinarri bihurtzen dira bere bizitzaren azterketa guztiaren zehar. Gauzak horrela, gerrara arte zituen lagunekin erbesteratu, erbestea eurekin igaro eta berriro herriratu egin zenean harreman zirkulu berdinean ikusten dugu.

Harreman sare berberean ere eman zen Donostiako etxe eskolaren saioa, abiapuntua aurrean aipatu ditugun esperientzien bidezko formazio pedagogiko, linguistiko eta politiko sendo eta sustraitua zuelarik.

---

110 LARRAÑAGA, P. d. (1978): **Emakume Abertzale Batza**. **I.** Auñamendi. Donostia. 79. orri.

111 Lan bera, 103. orri.

2.2.2 Donostiako etxe eskolen sorrera eta eraketa

Zipitria erbestetik etorri zenetik guk etxe eskola izendatzen duguna finkatu arte urte batzu igaro ziren, eta, dudarik gabe, gerra ondoko egoera latz bati egokitze urteak izango zirela uste dugu. Honetaz dauden datuak X. Aranburuk[112] emanikoak dira, eta adierazgarri bezala, Zipitriak klaseak ematen dizkien umeen gurasoak bere harreman zirkuluetako kideak zirela.

Hala ere, ez gara horretan sartuko, gehiago interesatzen baitzaigu Zipitriak Fermin Calbeton kalean bere eskola ezarri zuenetik aurrerakoa. Honen inguruan ezartzen den data 1946. urtea dugu. Urte horretan Zipitriak, hau da, maistra tituludun batek bere eskola zabaldu zuen[113]. Orduko kasuan, pertsona horrek, bere etxean edo propio horretarako prestatzen zuen toki batetan, bederatzi urtera arteko umeak bildu eta hezitu egiten zituen. Bederatzi urteak betetzean, ume horrek legeak ezartzen zituen edukien ezagupena "Ingreso" azterketa batetan frogatu behar zuen hezkuntza arautu eta formalean jarraitu ahal izateko. Etxe eskola hauetako zuzendaria eta erantzulea irakaslea bera zen, eta gurasoek ordaintzen ziotenarekin finantziatzen ziren eskolako gastuak.

Horrela funtzionatzen zuten eskolak gerraurrean aurkitzen ditugu, baita edukiak euskaraz emanez ere. Beraz, funtzionaketa eredua ez zen berria, are gehiago, legeak agindutakoaren erizpideei jarraituz (edo hezkuntza sistemak zituen ez nahitasunek uzten zituzten lotugabeko bideei jarraituz) antolatu ziren etxe eskolak. Berrikuntza, dudarik gabe, egoera sozio politikoaren eskutik etorri zen; euskara eta euskal kulturaren arrastorik txikiena guztiz galerazita zegoen momentu batetan, euskara bide zelako eskola antolatu eta martxan jartzea izan zen esperientzia hau bereziki ezaugarritzen zuena.

1946.ean hau egitea abentura arrikutsua zela ukatzerik ez dago; arrikutsua eta etorkizuna oso kolonkan zuen saioa, hain zuzen. Eta, baldintza hauetan ume batzu biltzea eta euskal etxe eskola proiektu txiki horri urte zail hauetan jarraipena ematea nola izan zen posible ulertzeko, eskola hauen osagaietaz arduratu beharko dugu.

---

112 ARANBURU, X. (1991): *Hezkuntzaren historia Euskal Herrian: Ikastola. Elbira Zipitriaren biografiarako jakingaiak: Ikastola Donostian 1942-1969 urte bitartean.* **Eusko Ikaskuntza. Cuadernos de Sección: Educación**, 4. Donostia. 14-15. orri.

113 1945.eko Uztailaren 15.eko Legean (B.O.E. 1945/7/18), 27. artikuluan oinarrizko heziketarako eskolak, besteak beste, pribatuak izan daitezkeela adierazten zen. Honetarako Erregimenaren idearioa betetzeko baldintzaz gain, titularrak magisterio titulua izatea derrigortzen zen. Legearen testua ikus: MAYORDOMO, A. (biltz.). (1990): **Historia de la Educación en España. Nacional Catolicismo y Educación en la posguerra**. Brevarios de Educación. M.E.C. Madrid.

Harreman sareei heldu behar diegu berriro: "Adiskidetasunagatik hasiera batetan, baina jendeak ezagutzen zuen, giro euskalduneko jendeak bazekien Elbira nor zen eta ikastola lanetan aritzen zela. Demanda edo eskaera asko zeukan eta ezin zituen ikasle guztiak hartu, ikasleak beti soberan zituen.(...). Alde horretatik ez zuen inongo arazorik, ikasle potentzial asko zuen. Esan dudan bezala, hau, bera oso ezaguna zelako gertatzen zen; guda aurretik ezaguna zen andereño bezala eta idazle bezala eta guda ondoan ikastola ireki zuenean ezagunagoa euskal giroetan"[114]. Dirudienez, motibazioak harreman zirkulu horietan sortu ziren: Zipitria oso andereño ospetsua zelako, gerraurrean metatutako esperientziak, ahal zen bitartean behintzat, zerbait egitera bultzatuta sentitzen zirelako, eta umeak euskal kulturan hezi beharra ikusten zelako izan daitezke jokoan zeuden arrazoiak. Motibazio guzti hauek lagunduta, egoera hobetu bitartean zegoenari eutsi behar ziztaion: "nik behin ere ez nuen hitz egin harekin (honetaz) baina ikusten nuen, han zegoen nolabait geroko eskolaren katakunbetako pasadizu bat, osea, *garai hobeak iritsi bitartean eutsi diezaiogun honi*"[115]. Baina ez dugu, geroago bilakatu den ikastolen mugimenduagatik lehenengo momentu hau desitxuratu behar, han ez baitzen susmatzen geroago zer etor zitekeen. Bai berriz, bitarte horretan ezer egin gabe ezin zela egon: "Niri iruditzen zait, abertzale zen eta abertzale, Donostiako abertzale sendiek bazekiten zein zen Elbira eta Elbirak ezagutzen zituen banan banan abertzale gehienak, batez ere buru egiten zutenak. Neretzako sendi hauek beharra zuten irakasle batena euskaraz egiteko, ez ikastola izenarekin, baizikan Elbira, eta Elbira etorri da iada honera eta guk, bakoitzak emango diogu hainbeste eta bizibidea izango du eta kitto. Niretzako hori izan zen haren etorrera. Agian ez ofizial alderdiak, baino alderdikideak, familiak etorri edo gelditu zirenak eta hemen zirenak, eta haurrak zetozela aurrera eta euskara lo zegoela, han ez zegoela inor eta ekarri zuten. Nire eritzia hori da eta ez dut uste oker naizenik horretan"[116].

Aipamen hauetan sendi nazionalistetaz hitz egiten den arren, piskat sakonago jo ezkero zehaztasun berri bat aurkitzen dugu, alegia, antolakuntza honen subjektuak emakumeak direla. Amale Artzelusek ere, Elbira Zipitriari buruzko emanaldi batetan honelakoa esaten du: "Garai bateko ixilpeko lanean ere etzan atzean gelditzekoa, ez!. Besteak beste, *Emakume Abertzaleak* bildu, eta aal zanean jarri gintuan, bere zainpean ekiñean jarri ere. Orduko lan haundienetakoa espetxeetan ziranentzat, jakiak, jantziak, bear ziran guztiak

---

114 ARANBURU, X. (1991): *Hezkuntzaren historia Euskal Herrian: Ikastola. Elbira Zipitriaren biografiarako jakingaiak: Ikastola Donostian 1942-1969 urte bitartean.* **Eusko Ikaskuntza. Cuadernos de Sección: Educación**, 4. Donostia. Amale Arzelusen elkarrizketan, 36. orri.

115 2. elkarrizketa.

116 1. elkarrizketa.

bialtzeko, dirua naiz gaiak biltzea izaten zan”[117]. Emakumeei berriro antolatu beharra nondik etorri zitzaien ez dakigu, baina gerra ondorengo urteek hala eskatuta, eta aurreko urteetako politizazioak lagunduta, preso eta errepresaliatuen laguntza iharduerетan aritu ziren (baita politikoki ardura haundiago zekarren lanetan ere: presoekiko informazio ekar-emale, erbestearekiko lotura, mugalari lana[118]) eta, agian, sarritan euren familietan bertan edota inguruan zuten egoera larri honek eraginda, gerraurreko erakundetzeak ahalbideratu zizkien sareak erabiltzera bultzatuta sentitu ziren.

Gure ustez, baina, garrantzitsuena zera da, arrazoi bategatik edo beste bategatik emakumeak taldeka ari zirela, egoerari egokitutako taldeak ari zirela zenbait lanetan. Donostiako kasuan, emakumeak nolabait antolatuta, Elbira erbestetik etorrita eta umeekin euskal sozializazio eta eskolatze horretan zerbait egin beharra dira agertzen zaizkigun aldagaiak, euskal etxe eskola saio honen egituraketa lagundu zuten egoerak. “Orduan, ba, klaro, berarekin hizketan eta harreman horietan emakumeekin eta, jakin nuen nik Elbira gerraondotik, gerraondoren bai, Saratik etorri zenean emakume hauek organizatuta zeudela, nere ustez, nik konklusio hauek ateratzen ditut e? (...) Eta ordun emakumeen seme alaba horiek hartu zituen piskat pribatu moduan, klasetxo bat emateko, ta, ta, baina gauza piskat antolatu nahiean ere”[119].

Hala ere, euskal neska-mutilen eskolatze hau ez zen bakarrik etorri, emakumeen ekintzen marko zabalago batetan eman baitzen; neurri txikiagoan, baina gerraurreko euskal sozializaziorako saioak gogora etortzen zaizkigun giro batean, hain zuzen. Izan ere, 50.hamarkadaren hasierarako (ez dakigu zehatz zein datatan hasten diren orain azalduko ditugun ekitaldi hauek), Elbirak helduentzako alfabetatze klaseak ematen zituen, Kursaaleko azpian umeentzako Gabon Jaia antolatzen zen, neska-mutil soil batzurekin euskaraz hitz egiteko ibilalditxoak eta meriendak egin ohi ziren, baita euskarazko liturgiak eta jaunartzeak, eta, beranduxeago euskarazko liburuen ezkutuko argitaraketa eta banaketa ere: “egiten zen gero jaialdi bat, baita ere Donostian Elbiraren ikastolatik aparte eskoletara joaten ziren haurrak baina euskaraz zekitenak; orduan emakume batzu, hor, bazeuden, noski, emakume horiek ziren PNVkoak, osea ezkutuan zeuden emakumeak, orduan haiek egiten zuten lista, zerrenda bat ezta? eta halako, halako, halakoenak ere euskaraz badaki; eta orduan biltzen ziren

---

117 ARZELUS, A. (1985): *Ira´ren omenez*. in Euskerazaintza (arg.): **Zipitria´tar Elbire Andereñoa. Omenaldia**. Lopez Mendizabal. Tolosa. 145-149. orri.

118 IBARZABAL, E. (1978): **50 años de Nacionalismo Vasco. 1928-1978**. Ediciones Vascas. Donostia. Liburu honetan emakumeek (Itziar Mujika, Delia Lauroba..) iharduera hauetan egin zuten lana azaltzen da. Ikus ere: TXUEKA, J. (1991). Mujeres antifranquistas en la retaguardia nacional. El caso de Navarra.in ELKARLANEAN **Las mujeres y la Guerra Civil Española.** Madrid, Ministerio de Cultura. 224-228.

119 2. elkarrizketa.

haur multzo bat Kursaaleko azpi batetan Gabonetan eta hor irten zen ba jaialditxo bat, merienda eta zozketa, soinua, filarmonika eta kantari eta korruan eta hori ere euskaraz egiten zen"[120].

Ekitaldi guzti hauen finantziaketa eta antolaketa (merienda eta oparitxoetarako dirua lortu, lokalen eskaera, deiak..) emakumeei zegokien: "Eta gero festetarako eta Egu-Berrirako edo meriendak edo opariak edo Emakumeen poltsatik ateratzen zen, emakume organizatuak"[121]. Kursaaleko festa honen tamaina ere ez zen txikia, lekukoen arabera hirurogeitamarreko zenbakia aipatzen da eta orduko garaietarako kontutan hartzekoa dela uste dugu.

Beraz, eta laburbilduz, Donostian 1946.etik aurrera martxan jartzen den eskola saioak gerraurretik izandako esperientziarekin antzekotasun haundia azaltzen du bai eredu aldetik (etxe-eskola) zein egileen aldetik (andereñoa-amak). Esperientzia hau, EABko emakumeek zuten sare eta ideologiatik abiatu eta harreman zirkulu zehatz horietan ahalbideratu zen.

2.2.3 Donostiako etxe eskolen ezaugarriak.

1946.tik aurrera, Donostian sortu ziren etxe eskolek bi osagai nagusi izan zutela esan dezakegu. Batetik, antolakuntza formari dagokionez, gerraurreko etxe eskolen oinarrizko ezaugarriak berenganatu zituen; bestetik, egoera sozio-politikoaren eraginez, eta, era berezian, Elbira Zipitriaren praktika pedagogiko sendo eta landuaren ondorioz, etxe eskola hauek funtzionamendu eta hezkuntza planteamentuzko ezaugarri berriak ere hartu zituen.

Nolanahi ere, Zipitriaren bitartez gerraurreko pedagogia eta eskola eredua finkatu eta sistematizatu egin zela ikusten dugu, formaz zein edukiz lanketa sakona burutu zen eta. Donostiako etxe eskolen ezaugarri orokorrak, behin eta berriro agertzen dira elkarrizketetan, baita egin diren zenbait lanetan ere[122]. Ondokoak dira esanguratsuenak:

2.2.3.1. Eraketa

Etxe eskola zein motatako eskola zen eta nola antolatzen zen dira erantzun nahi genituzkeen galderak. Etxe eskolen antolaketa maistra izango zenaren eskutik etorri ohi zen; pertsona horrek, normalean maisuntza titulua zuelarik, etxebizitza batetako gela batetan eratzen zuen bere eskola. Ikasleen gurasoek

---

120 3. elkarrizketa.
121 2. elkarrizketa.
122 GARMENDIA, M. C. (1985): **Les ikastolas en Pays Basque D´Espagne. La question du bilinguisme scolaire**. Argitaratu gabeko tesia. Estrasburgo. 95-105. orri.

irakasleari ordaintzen zioten diruarekin finantziatzen ziren gastuak, eta eskola guztiaren erantzunkizuna irakaslearengan gelditzen zen finkatuta.

Gure aurrean, hezitzeko hitzarmenik sinpleena dugula esan dezakegu; eskola, kasu honetan, ikasle batzu eta irakasle baten arteko ikas-irakaste harreman batetan zehazten da, eta harremana erakundetu gabe dago. Irakasleak ume batzu hezitzen ditu, eta lan honen truke gurasoek ordaindu egiten diote irakasleari.

Hau da etxe eskola baten funtsa. Donostiako kasuan hauxe bera ikusten dugu, azalez behintzat. Baina eskola hauen antolaketa ez da heziketa eskeintza-eskaera soil batetan oinarritzen; profesionala ez zaio zuzentzen edozein eskeintza egin daitekeen gizarte bati, baizik eta eremu publikoetako adierazpenak murriztuta dituen gizarte bati, euskarari buruzko eskaerak eta eskeintzak egiteko askatasun minimoa ere ez duen gizarte bati. Honexegatik, sektore sozial batek, heziketaren planteamentu diferentzial bat (bai hizkuntzagatik, bai kulturagatik, baita pedagogiagatik ere) egin nahiarekin abiatu eta egoerari hobekien plegatzen zaion tresna hartzen du, etxe eskola hain zuzen.

Azaldu dugun bezala, Donostiako kasuan Zipitria izan zen gerraondoren lehenengo etxe eskola jarri zuen maistra eta antolaketarako bazuen azpiegitura, ez horretarako espreski sortutako azpiegitura, baizik eta nolabait nortasuna eta historia zituen egituratutako harreman sare bat.

2.2.3.2. Ikasleak

Ikasle guztien lehenengo ezaugarria hizkuntza zen, denak euskaldunak baitziren, euskal hiztunak (gazteleradunak euskal eskoletan sartzearen prozesua beranduagokoa da).

Etxe eskoletako ikasleek, Zipitriak 1946.era arte zituen ikasleekin zerikusi haundia zutela esan dezakegu; eurak beraiek kasu batzutan, eta beroien anai-arrebak edo “senideak”, edo, era orokorrago batez esanda, Emakumeek zerabilten harreman zirkuluetatik irtendako ikasleak baitziren. Etxe eskolak finkotasuna eta sistematizazioa hartu zituen neurrian eta urteak aurrera zihoazen ahala, eskaera ere ugaldu egin zen, gero eta ikasle gehiago zegoen eta harreman zirkuluen barruko hautaketa zabalduz joan zen (garai honetako zabalkunde txiki hori geroago aztertuko dugu).

Beraz, ikasle euskaldunak eta giro sozio-kultural konkretu batetakoak ziren lehenengo ikasle hauek. Euren jatorri soziala aztertu nahi izango bagenu, oztopo batzu topatuko genituzke; alegia, 1950.eko hamarkadan han mugitzen ziren ikasleak oso gutxi ziren eta sektore guztiak ordezkatuta egon bazitezkeen ere

maila ekonomiko baxukoak ez zirela esan dezakegu. M.C. Garmendiak hirugarren sektorean kokatzen du gurasoen gehiengoa, baina besteetakoak ere bazeudela azpimarratuz[123]. Ahozko dokumentuetan ere ideia hau berragertzen zaigu; "Donostiako familien" aipamena maiz agertzen da, eta elitetzat jotzen ez badugu ere, ezaugarri kultural, politiko, ideologiko eta ekonomiko konkretu batzu oso markatuta azaltzen zaizkigula uste dugu: "..ni ez nintzen haiekin joaten, nire gurasoak ez ziren ezagunak, ni herri txiki batetatik etorri nintzen Donostiara bizitzera .... gu euskaldunak ginen baino jende horren tartean ez ginen ezagunak; horiek ziren ezagunak ba donostiarrak eta Donostiako betiko familiak eta"[124].

Guztiz laburbilduta: "Denak familia euskaldunekoak, eta etxean nolabait euskara mantentzen zutenak, etxe barruan bai, bai, horregatik esaten dizut PNVkoaz gain ba, bai, eta estatu sozial hortatik gehien gehienak; bueno, bazen R. bat harotza zala aita, baino haroztegiko jabea zen bera nahiz eta harotza izan, bueno esan nahi dizut ez zela oso jende herrikoia eta oso..., bueno, beharbada egokitu ez zelako edo beharbada jende herrikoiak beldur zuelako (...); ez dizut esan nahi horrekin berak (Zipitriak) klase zera egiten zuenik baino txiripas bezala mentalitate bateko jendea zala, hori azpimarratu nahi dut, mentalitate bateko jendea"[125].

Ikasle kopurua ez da etxe eskola guztietan fijo mantentzen den erizpidea. Zipitriak oso eskola antolamendu zehatza (hamar ikasle, eguneko ordu bi...) gauzatu zuen arren, ezin dugu esan hamarreko kopuru hau etxe eskola guztien ezaugarria denik; bere jarraitzalerik eta hurbilenek bai mantendu zuten, ez berriz beste batzuk (Goia, Esnal eta Forkada).

2.2.3.3. Irakasleak

Zipitria izan zen garai honetako lehenego irakaslea, eta bere formazio eta ideologiaz hitz egin dugu iadanik. Zipitriak talde bakoitzean hamar ikasle baino ez zuen hartzen, eta eskaera poliki poliki haundituz joan zenean beste talderen bat gehiago eratu beharra sortu zen. "Faustina Karril eta Itziar Artzelusek, bakoitzak bere egoitzean, 3-5 urteen arteko gazteei ematen zieten klasea eta gero Elbira Zipitriarengana pasatzen ziren. Orduan hasi zen horrelako lotura bat;

---

123 "Nous ne disposons d´acune stadistique nous montrant la distribution soci-professionnelle des familles de cette époque de 1943-1960, mais en prenant comme base les informations d´institutrices et parents, nous pouvons affirmer que la plus grande partie des parents provenait du secteur tertiaire". GARMENDIA, M. C. (1985): **Les ikastolas en Pays Basque D´Espagne. La question du bilinguisme scolaire**. Argitaratu gabeko tesia. Estrasburgo. 100. orri.

124 3. elkarrizketa.

125 2. elkarrizketa.

Faustinarengandik eta Itziarrengandik Elbirarengana jotzen zuten eta Elbirak ez zuen ikasleak bilatzen zertan egon beharrik. Jendeak bazekien, Faustina edo Itziarren ikasketak amaitu eta gero, Elbirarengana jo behar zela"[126].

Talde berriak antolatzeko, eta etxe eskola eredu batetan gaudela ahaztu gabe, irakasleak bilatzea funtsezko lana zen; honetarako bide desberdin bi bereizten dugu, kronologikoki bata bestearen atzetik doazenak eta euskal gizartean agertzen hasi ziren aldaketekin guztiz lotuta daudenak.

Lehenengo momentu batetan irakasle berrien hautaketa Emakumeen harreman zirkuluetan koka dezakegu. Era honetara Zipitriak, bere hezi lana osatu beharra ikusi zuenean, Arzelus familiarengana jo zuela ikusten dugu : "Nik Elbira txikitatik, gogoratzen naizenetik ezagutzen dut. Gure aita, *Luzear*[127] idazlea zena, Elbiraren laguna zen eta gure sendiak berarekin tratu haundia zuen"[128]. Familia honetako alaba bik Zipitriaren iniziatibari jarraituz eta berarekin nolabait koordinatuta etxe eskola bana jarri zuten martxan, familiako beste partaide batekiko ahalegina hutsean gelditu zelarik[129]. Lagun harreman hau aparte, Amale Arzelusek berak EABren inguruko lotura adierazten du[130].

Faustina Karril ere Zipitriaren "ezaguna" ere omen zen, Donostiako portukoa zelako... Eta irakasle hautaketa bide honetan, hau da, Emakumeen bidezko etxe eskolen, eta, ondorioz irakasleen amaraun honetan, kasurik eta bitxiena agertzen zaigu, M. Dolores Goiaren etxe eskola hain zuzen. Etxe eskola hau 1951.tik 1975.era arte egon zen martxan Donostiako Gros auzoan. M.

---

126 ARANBURU, X. (1991): *Hezkuntzaren historia Euskal Herrian: Ikastola. Elbira Zipitriaren biografiarako jakingaiak: Ikastola Donostian 1942-1969 urte bitartean.* **Eusko Ikaskuntza. Cuadernos de Sección: Educación**, 4. Donostia. 32. orri.

127 Esan dezagun *Luzear* Agustin Arzelus dela, gerraurreko euskal kultur mugimenduan parte hartu zuen pertsonai ezaguna, hala hola Argia aldizkarian, eta "Euskeraren aldeko Bazkunen Batasuna"ren proposamena egin zutenetakoa; Ikus: ELKARLANEAN (1927): *Euskeraren aldezko Bazkunen Batasuna*. **BSEV**, 36.

128 ARANBURU, X. (1991): *Hezkuntzaren historia Euskal Herrian: Ikastola. Elbira Zipitriaren biografiarako jakingaiak: Ikastola Donostian 1942-1969 urte bitartean.* **Eusko Ikaskuntza. Cuadernos de Sección: Educación**, 4. Donostia. Amale Arzelusi eginiko elkarrizketa.

129 Lan bera, 15. orri. " Urtebete beranduago, 1950.ean Bitorene Arzelusekin jartzen da harremanetan Elbira. Bitorene, Amaleren izeba, gerraurreko andereñoa zen, Donostiako Etxaide kaleko "Aranzazuko Ama Birjiniaren Ikastolan" lan egindakoa. Honi, berak Fermin Calbetoneko ikastolan erabiltzen zuen irakaskintza metodoa ikus eta ikas zezan proposatu zion, gero 3 eta 4 urtetako ikasleak har zitzan. Horrela Elbira, 5-9 urtetakoetaz arduratzera igaroko litzateke. Bitorrenek baietza eman zuen, baina ikastaro berria hasteko zegoela, ideia utzi eta monja joatea erabaki zuen. Orduan Zipitriak Itziar Arzelusen laguntza eskatzen du. Bitoreneren iloba eta Amaleren ahizpa den Itziarri".

130 ARZELUS, A. (1985): *Ira´ren omenez*. in Euskerazaintza (arg.): **Zipitria´tar Elbire Andereñoa. Omenaldia**. Lopez Mendizabal. Tolosa: 145-149 orr. Ikusten denez, lagun harremanak eta EABren bidezkoak guztiz gurutzatuta eta nahastuta agetzen zaizkigu.

Dolores Goiak gerraurreko PNV-ren ikastola batetatik esperientzia zuela zabaldu zuen bere etxe eskola, eta zabaltzeko orduan "animatzaile" gisa EABkoa izandakoa eta Zipitriaren etxe eskolara bere semea eraman zuen emakume bat agertzen zaigu: "Ideia nire amak (M.Dolores Goiaz ari da) izan zuen, baina ikastola irekitzeko Elisabete Maiztegik asko animatu zuen; Elisabete Maiztegi, Garayalde medikuaren alarguna da; bera ere maestra zen. Berak animatu zuen gehien ikastola irekitzeko. Noski nere amak ere bazituen gogoak ikastola bat zabaltzeko, bestela istilu horretan ez zen sartuko"[131]. Hala ere, Goiaren etxe eskola izan zen urte ilun hauetan martxan jarri baina Zipitriarekin zerikusirik izan ez zuen esperientzia bakarra; are gehiago, oso gutxi ezagutzen den esperientzia. "Grosen bazegoen bat, baina hori zen gerraurreko andereño bat, Goia (...), horrek jarraitzen zuen Grosen baina ez genuen harremanik berarekin (...) berak bere ikastola zeukan eta bere kasa egiten zuen baina harremana, horrela, ez genuen berarekin izaten"[132].

Hau dena, irakasle hautaketarako lehenengo bideari buruz; bigarren bidea, euskal gizartean sortzen hasi zen beste inguru politiko batetatik etorri zen, EKINen bidetik hain zuzen. Bilbon jaio zen ikasle talde honetan hasieratik euskararekiko eta euskal kulturarekiko kezka eta egin nahi haundi bat (izenak berak adierazten digun bezala) ikusten da[133]. Gerra jasan ez duen belaunaldiaren lehenengo agerpen honen hastapenetatik eskolarekiko kezka azalerazten da eta Zipitriaren esperientziara hurbiltzea izan zen lehenengo urratsa: "Orduan, bueno, nik karrera bukatu nuen 50ean; orduan, bistan da, giroa ez zen gaurkoa, orduan

---

131 ARANBURU, X. (1990): *Hezkuntzaren historia Euskal Herrian: Ikastola. Maria Dolores Goya (Groseko ikastola)*. **Eusko Ikaskuntza. Cuadernos de Sección: Educación**, 3. Donostia. 201. orr.

132 3.elkarrizketa.

133 EKIN nazionalismo tradizionalak kanporatzen zuen mugimendu ezari erantzun saiatzen den ikasle talde bat izan zen bere hasieran. Gerrak euskaltasunaren transmizioan sortutako etena gainditu asmoz, formazioari (Europako abangoardia mugimenduen azterketa, eta, euskal historiaren analisia) eutsi zioten: "La actividad principal de EKIN es cultural y se concreta en la recuperación de la lengua, historia y cultura vascas en general, porque entienden que redescubriendo las características objetivas e incorporándolas a su movimiento recuperan el capital simbólico y la conciencia diferencial vasca."GURRUTXAGA, A. (1985): **El código nacionalista vasco durante el franquismo**. Anthropos. Bartzelona. 209. orri.
EKINen sorrera ez da identifikatzen, behintzat bere hasi hasieran, PNVrekiko etendura ideologiko bat bezala, etendura estrategiko bezala baizik (mugikortasun ezari erantzutea, esaten genuen), eta egoera honek EGIrekin batera aritzea erreztu zuen (1956.eko Munduko Euskal Biltzarraren ostean). Hala ere, EGIk partiduarekiko zeukan menpekotasunak urrundu egin zituen bi taldeak geroxeago; "(el PNV) cuenta con todos los elementos necesarios, pero sigue mirando al pasado. El estigma del derrotado; el fracaso de su estrategia política internacional; el cansancio y el alejamiento de las vicisitudes de la sociedad del silencio, le genera una incapacidad para crear una dinámica que sintonice con las nuevas generaciones. El fruto de la concepción activista y modernizadora de la política vasca será asumido por la nueva generación que, procedente de EKIN fundará en 1959 ETA." GURRUTXAGA, A. (1985): **El código nacionalista vasco durante el franquismo**. Anthropos. Bartzelona. 208. orri.

eskola normalean ez zen euskararik egiten bat ere ez, ez genekien euskaldunik zegoen ere, ez nekien, inork ez zekien, ez baitzen ttintik ere esaten. Eta ni rollo horretan sartu nintzen, EKIN; EKIN da ikasle talde bat Bilbon sortutakoa, lehenego ingenieri eskolan eta gero handik atera zena, eta harekin kontaktu bat izatean esan zidaten : bueno, zu magisterio bukatzen ari zara, bazekiten ni euskalduna nintzela eta orduan erakutsi zidaten posible izango litzatekeela E. Zipitriarengana joatea, eta harek egiten zuen lana ikusi eta interesatzen bazitzaidan eskola publikoan sartu beharrean ba mugimendu hartan sartzea"[134].

EKINeko militante hau, Zipitriaren eta Emakumeen esperientziara hurbildu eta bi belaunaldien arteko lehenego kontaktua ematen dela esan dezakegu, eta hangoa jaso ondoren bere etxe eskola zabaltzeari ekin zion, noski. Baita hurrengo urtean beste maistra tituludun bat gehiago ekarri ere: "Orduan 51tik 59ra oso gauza interesantea gertatu zen hor, eta hori izan zen beharbada gu gazteak ginelako, EKINeko gazteak, hori da pre-ETA; Jose Luis (Txillardegi) ere tartean zegoen, eta Iñaki Gerizarain eta jende asko, eta horiek iada pentsatu zuten "bueno, bueno, horri martxa eman behar diogu"; orduan esan zidaten "zuk begiratu ezazu irakasle eskolan ea zein ari den karrera bukatzen" (...). Esan dizut lehen zein giro zegoen, euskaldun guztiak genbiltzan lurpean, ttintik ere euskaraz esan gabe, orduan esan zidaten bilatzeko, bilatzeko behintzat hurrengo urterako bat; eta orduan ni batekin eta bestearekin, eta familiaz ezagutzen nuen Esnal izeneko bat (...) eta hitz egin nion eta hurrengo urtean bera joan zen Elbirarengana, osea ia kate bat sortu genuen"[135]. EKINekin loturak zituzten andereño berri hauen agerpenarekin euskal munduan sortzen ari zen aldaketaren lehenengo izpia dakusagu. Politikan EKINek PNVri mugikortasun eza leporatzen zion bitartean, "ekiteari" eusten zion, etxe eskola horretarako esparru konkretua izan zelarik. Dudarik gabe, Zipitriaren esperientzia euskal munduari "astindua" eman nahi zion talde honentzat ekarpen interesgaria zen, baita hedatu beharreko jarraibidea ere.

Era honetara, etxe eskolen hezurduran gerraurretik antolatuta zeuden emakumeak eta EKIN talde berriaren militanteak topatu egin ziren, belaunaldien arteko trukaketa gauzatuz. Urte batzu igaro ondoren, egoera sozio-politikoak eta nazionalismoaren barruko aldaketak eraginda, Donostiako etxe eskolen esperientzian bat eginda egon ziren belaunaldi hauek elkarrengandik urrundu eta bide desberdinetatik jarraitu zuten.

---

134 2. elkarrizketa.
135 2. elkarrizketa.

2.2.3.4. Ikas zikloen antolaketa

Etxe eskola, maistra batek bere etxean martxan jartzen zuen eskola izatean, adin desberdinetako umeak hartzen zituen eskola bihurtzen zen, beraz, etxe eskolak bateratu[136] bezala antolatu ziren.

3-9 bitarteko adina atenditzen zuten etxe eskoletan eta ziklo bitako mailaketa baten arabera antolatu ziren (hau Zipitriak jarritako kriterio bat izan zen, eta Goiaren eskolan ez zen betetzen):

- 3 urtetatik 5 urtetara: hau eskolaurretzat hartzen zen; Zipitriak irakasleen prestakuntzari oso garrantzi haundia ematen zion arren, ez zuen maila honetarako iraskasle titulurik derrigorrezko jotzen (Faustina Karril, adibidez, ez zen maistra tituluduna). 3-5 urtetako maila honi egokitzen zitzaion eskola lanak, gerraurreko poxpolin taldeetan egiten zenarekin antzekotasun haundia duela dudarik ez dago: kantatzea, Gaztelu inguruko ibilalditxoak, margotu... "Bera ez zen maistra, baina euskal abestiak irakasten zizkien, margotzen, paseoak egiten zituzten, dena euskal giro batetan"[137].

- 5 urtetik 9 urtetara: adin hauetan hasten zen eskolatze formala, hau da, kurtso formalak eduki konkretu eta mailakatuekin. Kasu honetan, Zipitriak irakasleei tituludunak izatea eskatzen zien, ezinbesteko baldintza izanik: "Bera maistra zen karreraz, eta berarekin bere metodoa ikastera joaten zirenek magisteritzako karrera egina eduki behar zuten; berak magisteritza gabeko pertsonarik ez zuen onartzen. Magisteritza karrera ez zuenari beste eginkizunak bialtzen zizkion, adibidez eskola bukatu eta gero abestiak landu edota paseoak egin eta abar, baina eskola lanetan aritzeko magisteritzan titulodunak nahi zituen"[138].

Adin tarte honetan, esan bezala, heziketa formalari ekiten zioten, kurtsoz kurtso programatuta zegoen eduki lanketa formalari, zeren ikasleek bederatzi urte betetzen zutenean legeak agintzen zuen bide ofizialetik sartu eta, "Ingreso" kurtsoa egin ondoren, izen berdineko azterketa gainditu behar eta batxillergoan sartu behar baitziren.

---

136 Eskola bateratuaren kontrakoa eskola mailakatua izango litzateke.

137 ARANBURU, X. (1991): *Hezkuntzaren historia Euskal Herrian: Ikastola. Elbira Zipitriaren biografiarako jakingaiak: Ikastola Donostian 1942-1969 urte bitartean.* **Eusko Ikaskuntza. Cuadernos de Sección: Educación**, 4. Donostia. Karmen Esnalekiko elkarrizketan, 30. orri.

138 Lan bera, 31. orri.

Sarbide honek, eskola ofizialetan azterketa egin beharreko momentuak, garrantzi haundia zuen etxe eskoletako arduradunentzat, neurri haundi batetan bertako euskal hezkuntza prozesuari bere osotasunean egiten zitzaion ebaluaketa bezala ikusten baitzen. Miren Egaña Goiak horrela laburtzen digu: "Ingresoa kurtso oso bat zen, eta 9-10 urterekin egiten zen. Guk ikastolan ez genuen kurtso hau irakasten, gure ikasleek fraile eta monjetako eskoletan betetzen zuten. Ikasturte hau igaro eta gero, azterketa bat egiten zuten Batxillergoko ikasketara igarotzeko. Baina gure ikasleek beste azterketa bat zeukaten: erdal ikastetxeetan onartuak izateko azterketa. Beraz, ikastoletako umeek zera egin behar zuten: erdal eskolek onartzeko jartzen zieten azterketa, Ingresoko kurtsoa eta azkenik Ingresoko azterketa Ballitxergora igarotzeko"[139].

Azterketa eta sarbide froga guzti hauek gaztelera zuten bere atzean. Etxe eskoletako ikasleak euskaldunak ziren, eta euren ama hizkuntzan eskolarizatuta zeuden. Beraz, programa ofizialetan agertzen ziren eduki guztietaz jabetuta egon arren, ikasitakoa gaztelerazko azterketa baten bitartez frogatu beharra apostu haundia zen, Batxillergora sartu ala ez arriskuan jartzen zuen apostua. Honegatik etxe eskolek, hau da, proiektu diferentzial eta korronte kontrako horrek, hezkuntza sistemaren aurrean bere lanaren kalitate gorena demostratu behar zuten, euren ikasleek egin behar zituzten azterketen emaitzen bitartez: "Hau kezka haundia zen Elbirarentzat, erdal ikastetxeetara joateko haurrak ondo prestatzea. Neska-mutilek erdal eskoletan arazorik edukiko balute, euskarari errua botatzea oso erreza izango zen eta Elbirak horrelakorik ez zuen nahi. Horregatik gai guztiak oso ondo prestatzen zituen, baita gaztelania ere"[140].

Gauzak horrela, etxe eskoletako ikasleak euskaraz alfabetatzen ziren, azkenengo kurtsoan era trinko batez gazteleraren gaietan sartzen zirelarik. Kalitatearekiko kezka etengabekoa da etxe eskoletan, eta fruitu ezin hobeak ateratzen zituztela behin eta berriz agertzen den datua da. "Orduan, urte bete aurretik edo, batzu joaten ziren ingreso egitera eta, desde luego, matematikak eta gorena ateratzen zuten, e? Hizkuntzan beharbada txikilin txankalan dana espainolez zegoelako, eta klaro hori bazen problema bat, haurrak etxean euskaraz, ikastolan euskaraz, baino Elbirak ez zuen espainolez txintik ere esaten, hor konpon esaten zuen eta hor konpon oso ondo konpontzen ziren"[141] Gainera, kontutan hartu behar dugu ikasle hauek, gehien gehienetan, kolegio pribatuetara

---

139 ARANBURU, X. (1990): *Hezkuntzaren historia Euskal Herrian: Ikastola. Maria Dolores Goya (Groseko ikastola)*. **Eusko Ikaskuntza. Cuadernos de Sección: Educación**, 3. Donostia. 208. orri.

140 ARANBURU, X. (1991): *Hezkuntzaren historia Euskal Herrian: Ikastola. Elbira Zipitriaren biografiarako jakingaiak: Ikastola Donostian 1942-1969 urte bitartean.* **Eusko Ikaskuntza. Cuadernos de Sección: Educación**, 4. Donostia. Elisabete Maiztegirekiko elkarrizketan, 40. orri.

141 2. elkarrizketa.

bideratzen zirela, San Bartolome eta Jesuiten kolegioetara oro har, eta horrelakoetan ikasleen hautaketa oso zehatza zela.

Beraz, euskal eskola saio hau hezkuntza sistema osoari aurre egin eta kalitatea eskeintzera behartuta zegoen, erdal eskoletan egiten zen froga batetan neurtzen zen kalitatea. Ikasleek, behin azterketa hori gainditu ezkero, erdal eskolatzearen bidean sartzen ziren, euskaraz egin zitekeen guztia bukatutzat ematen zelarik[142].

2.2.3.5. Eredu pedagogikoa

Etxe eskoletako eredu pedagogikoan erabateko homogeneitaterik ez zegoen arren, eskola estatalarekin eta Maisutza Eskoletan irakasten zenarekin konparatuta ezaugarri aurrerakoiak aurkezten zirela agerian dago. Ezaugarri hauek, nahiz eta irakas metodologia desberdin eraman, etxe eskola guztietan amankomunak direla ikusten dugu, Donostian sortu ziren etxe eskola guztiak ezaugarritzen zituzten erizpideak dira.

a) Idearioa.- Etxe eskoletako idearioa ez da inon era formal batez azaltzen, ez dago zutabe ideologikoak adierazten dituen dokumentu idatzirik. Hala ere badago ideologia, era gorde batez eta inplizitoki gerraurreko zutabe ideologikoak identifikatu ahal ditugu, alegia, nazio arazoa eta erlijioa.

Nazio arazoa aipatzen dugunean, hizkuntza eta euskal kulturaz ari gara; hain zuzen, herri bati, Euskal Herriari, ukatzen zitzaion herri eskubidearen ukapenak euskal eskola saio baten bidezko nazio baieztapen ahalegina ekarri zuen. Nazionalismo orok diferentziaren defentsa du bere oinarria, eta kasu honetan, hezkuntza planteamentu diferentzial honen bitartez, Estatua ukatzen eta desegiten saiatzen zen hizkuntz eta kultura baieztatu egiten ziren. Euskal eskola martxan jarri orduko plazaratzen diren motibazioak ildo honetatik datoz: “Euskara eta euskaraz irakastea eta zapaldua zegoen Herri honengatik zerbait egitea”[143], “.. helburua zen guk euskaldunak egitea eta helduko zen ikastolen oinarria jartzea”[144].

---

142 Era formaletaz ari gara. Etxe eskoletako ikasleek, bederatzi urte betetzean nahiz eta erdal eskoletan sartu ez zuten euskal eskolarekiko harremana galtzen. Alde batetik, etxe eskoletako ikasleen hautaketa familiaren bidez egiten zen neurrian, irtetzen zen ikasleak sarri edukitzen zuen beste anai arrebaren bat etxe eskolan; eta beste alde batetik, ikasle ohiekin astean behin saio berezi bat antolatzen zen etxe eskoletan. Ikusten den bezala, taldekidetasuna beti agertzen zaigu babestuta eta zainduta, nahiz eta eskolatzearen eragin zuzena etenda egon.

143 ARANBURU, X. (1990): *Hezkuntzaren historia Euskal Herrian: Ikastola. Maria Dolores Goya (Groseko ikastola)*. **Eusko Ikaskuntza. Cuadernos de Sección: Educación**, 3. Donostia. 201. orri.

144 2. elkarrizketa.

Euskara eta euskal kulturarekiko kezka eta iraun beharrarekin batera, etxe eskolen ideologiaren ezaugarritzat jo ahal dugun erlijoa agertzen zaigu. Etxe eskoletan erlijiotasuna eta erlijiozko ohiturak mantentzen ziren eta kasu batzutan esanahi berezi bat hartu ere; egunero otoitzak egiten ziren: "Baina ikasle denekin, txikiekin ere, egunero zera egiten genuen: ikasleak ikastolara iristen zirenean, ordu erdi ematen genuen otoitzak egiten"[145]. Euskarazko doktrina ematen zen (hau da, andereñoa eta era berean katekista izatea): "Aipatu nahi dut, ez ziela Mandamentuak eta otoitzak bakarrik irakasten, esplikazioak ere ematen zizkiela, Jaunartzea zer zen eta zer esan nahi zuen azalduaz"[146], eta euskarazko Jaunartzeak eta Sendotzak prestatu ziren. Honetaz aparte, Zipitriaren pedagogiaren azterketan ikusiko dugunez, erlijio sentimentua gaien lanketarekin nahastuta agertuko zaigu, erlijio esperientzia umeei hurbildu eta sentiaraziz.

Etxe eskolen zutabe ideologiko hauetatik, azken hau, erlijioa, izan zen belaunaldi gaztea poliki poliki baztertzen joan zena. Honekin mozketarik egon zenik ez dugu esan nahi. Etxe eskoletan eta beranduago ikastoletan ere erlijiotasun hau kurrikulumean isladatuko da, baina ez Zipitrairen kasuan zuen funtsezkotasunarekin: "..gauza batzuri berak (Zipitriak) emango zien garrantzi izugarria, nik hasi hasieran bai baina gero... kristau ikasbidean, ba kristau ikasbidean azkenean misterioak, agurtza, jesus! iruditu zitzaidan hori gehiegi zela ezta?, orduan ez nuen horrenbeste ematen"[147].

b) Hezikidetasuna.- Etxe eskoletan, bestelako eskoletan gertatzen zena ez bezala, neska eta mutilak elkarrekin hezituak ziren eta ez zen sexuaren araberako hezkuntza bereizketarik egiten.

d) Globalizazioa eta Decrolyren interesguneen proposamena.- Etxe eskoletan erabili ohi zen ikas metodologian, Zipitriak sartu ahal izan zituen berezitasun guztiak aparte, oinarrizko abiapuntu amankomun bat nabaritzen da: globalizazioaren erabilera.

Eskola estataletan, gerraurrean egondako mugimendu pedagogiko aurrerakoiak burututako lan guztiak errefusatu eta irakaskuntz sistema tradizionalera bueltatzen zen bitartean, etxe eskolek orduko garaiko berrikuntza pedagogikoa eta Eskola Berriaren ekarpena biziki mantendu zituzten.

---

145 ARANBURU, X. (1990): *Hezkuntzaren historia Euskal Herrian: Ikastola. Maria Dolores Goya (Groseko ikastola)*. **Eusko Ikaskuntza. Cuadernos de Sección: Educación**, 3. Donostia. 213. orri.

146 Lan bera, 216. orri.

147 3. elkarrizketa.

Berrikuntzaren zama guztia Zipitriaren lanari atxiki ohi zaio neurri haundiko pedagogo baten ondorio soila bailitzan, baina emakume honen meritua inolaz ere zalantzan jarri gabe, gerraurrean pedagogiak izan zuen garapen eta zabalkundeak irakaslegoaren kalitatezko formazioa erreztu zuela kontutan hartu beharreko datua dela uste dugu. Euskal Herriari gagozkiola, euskal maistrei zuzendutako ikastaroak, Eusko Ikaskuntzen kongresuen emaitzak eta, orokorrean, hizkuntza eta hezkuntzaren inguruan eman zen eztabaida soziala ez zen hutsean gelditu, eta maistra hauei gerraondoan etxe eskolari ekin ziotenean pedagogia aurrerakoi honen aztarna errez antzeman dakieke.

Ikus dezagun, adibide gisa, M. Dolores Goiari buruz (Zipitriarekin harremanduta ez zegoen baina formazioz gerraurreko metaketa zeukan maistra) bere alabak dioena:

> "Astean behin eskulanak egiten genituen, denekin, haundiekin eta txikiekin. Adibidez, eskulan bat jostea zen, eta ikastolan mutilek eta neskek josten zuten. Paperezko lorak ere egiten genituen. Ihauteri inguruan Iturengo Tunturroek eramaten dituzten txapera edo kapela hoien antzekoak egiten genituen eta abar. Ekintza hauetaz gain, larunbata goizetan ni helduenetxoekin ikastolatik kanpo joaten nintzen eta Uliara edo Gaztelura edo Lurdes Txikira eramaten nituen, edota okindegi bat ikustera eta lana bertan nola egiten zen ikastera, edo lantegi bat ikustera edo kaiara itsasontziak ikustera eta bokarta ekartzea eta puja ikustera eta abar. Kontutan eduki behar da amak egin zuen plana Errepublika garaikoa zela, Errepublikan egin zuela. Orduan berak oinarri bezala *Centros de Interés* deitzen zirenak erabiltzen zituen, eta *Centro de Interés* baten inguruan gai asko mugitzen zituen. *Centro de Interés* bat, etxe baten eraikitzea izan daiteke: adibidez, "gaur etxe bat aztertuko dugu"; etxe bat nola egiten den, zein langintza dauden, materialeak zeintzu diren eta nondik ateratzen diren materiale horiek..."[148].

Decrolyren interesguneen metodoa Eskola Berriaren Mugimenduaren barruan kokatuta zegoen, eta Eskola Tradizionalean ez bezala, ikas-irakastearen ardatza ikaslea zuen, hau da, magistozentrismotik paidozentrismora erakarri zuten pedagogiaren muina. Honetaz aparte, Decrolyk beste ekarpen batzu erantsi zizkion paidozentrismo honi. Batetik umearengan, pentsamenduaren funtzioak *globalizazioa*ren erizpideei jarraiki funtzionatzen dutela, eta, bestetik, umearen garapena eta bere ezagupenaren eskuraketa *giro naturalean* eta dituen *interesen* arabera suertatzen direla. Umearen beharrak ezagutzeak bere interesak zeintzu diren jakitea ahalbideratuko liguke, eta behin interes hauek planteatu ezkero umearengan ikusmiratzeko eta ikasteko joera sortuko dira, aprendizaia, umearen adinari dagokion bezala, globalitatean emango delarik.

---

148 ARANBURU, X. (1990): *Hezkuntzaren historia Euskal Herrian: Ikastola. Maria Dolores Goya (Groseko ikastola)*. **Eusko Ikaskuntza. Cuadernos de Sección: Educación**, 3. Donostia. 214. orri.

Decrolyren interesgune bakoitzean hiru momentu desberdin ematen dira: a)*Miaketa:* ariketa guztien oinarria, etengabea eta giro naturalean egingo da; b) *Asoziazio*a: ikusitakoa leku, denbora eta zergatia ondorioarekin lotu egingo da; d) *Adierazpena*: aurreko bien ondorioa da eta, ikusi eta arrazoitutakoa, idazketa, marrazketa, antzerkia edo abarren bitartez adierazten da.

Decrolyren ohar hauek kontutan hartuta, errez samar ulertzen ditugu etxe eskoletan azaltzen zaizkigun beste ezaugarriak: naturarekiko harremana (ibilaldiak bai hirian zehar, baita hiritik kanpora ere); testu liburua (Xabiertxo) planteamentu globalerako erabiltzen zen; blokak (koaderno haundi eta marragabekoak) interesen adierazpen eta sarritan testu liburu bihurtu ziren; eskulanek eta manipulazioak garrantzi berezia hartzen zuen.

Hala ere Zipitriak beraren lan pedagogikoaren oharrik edo idatzirik ez zuen utzi eta gelditzen zaigun informazioak hiru iturri nagusi ditu: bere liburutegiko materialeak[149], praktiketako andereñoen apunteak eta berorien oroitzapenak. Zaila da, ordea, elkarrizketen bidez Zipitriaren "programa" definitzea. Hurbilpen txikia egin dezakegu Arantza Mendizabalek bere praktiketan Zipitriaren lanaren jasoketaz (1. Eranskina). Bertan egunez egun, hilabetez hilabete, Zipitriak bere klaseetan burutzen zituen ikas ekintzen berri ematen zaigu. Koadroaren azterketatik honako puntuak dira azpimarragarriak:

a) Praktiketako andereñoak ikusten zuenaren arabera, Zipitriak gelan zerabiltzan ikas arloak hauexek dira: aberriko gauzak, zenbaki lanak, erlijioa, "lecciones de cosas", gramatika, abesti zuzenduak, denbora pasa eta irakurketa--idazketa. Haien artean batzu eskola guztietako ohizkoak direnak zenbaki lanak, gramatika eta irakurketa-idazketa ditugu; besteak ordea, bere lan pedagogikoa ezaugarritzeko baliogarriak direla uste dugu: aberriko gauzak, "lecciones de cosas" (gizarte eta natur edo esperientzia arloak?), abesti zuzenduak, denbora pasa (adierazpen arloa?) eta azkenez erlijioa. Honetaz aparte, astean behin egiten zen ibilaldia ere isladatuta ikusten dugu.

Beraz, Zipitriaren kurrikulumak funtsezko arloak eskuratzen zituen, baita bere garaiko eskolan oso ohizkoak ez zirenak baina gerraurreko eskolarekin lotuta zeudenak ere (ibilaldiak, musika...).

b) Gai hauen lanketa gainera, ez zen denbora mugatu, egonkor eta finkatuetan burutzen. Egunero egunero arlo gehienak lantzen diren arren, ikas ekintzen ordena eta iraupena desberdina dela ikusten da. Beraz, programa malgua, dinamikoa eta anitza zutela baiezta dezakegu.

---

149 Ikus: ARRONDO, A. eta ZUBIZARRETA, M. D. (1984): **Elbira Zipitriaren bizitza eta lanari buruzko ikerketa**. Argitaratu gabe. Donostia.

Atal honekin bukatzeko etxe eskola guztietan agertzen zaigun datua ez dugu adierazi gabe utzi nahi, hots, Frantzialdean zegoen berrikuntza pedagogikoarekiko harremana. Gerraurrean izan zenaren ondorioz lehenen, eta gerra bitartean erbestean sortu zitekenaren ondorioz beranduago, etxe eskoletako maistrek Baionan erosi ohi zituzten klaseetarako materialeak, liburuak eta aldizkariak, eta kultura frantsesarekin harremana izan zuten:"3 urtetako neska--mutil hauek guk Baionatik ekartzen genituen joko didaktikoekin ere asko jolasten zuten. Joko didaktiko hauek gaur egun oso ezagunak dira eta edozein etxeetan daude baina garai hartan ez ziren salgai eta guk Baionatik ekartzen genituen; laukiak eta kuboak batak bestearen barruan sartzeko, edo pilak egiteko edo puzzle haundi samarrak. Baionatik ere behatzekin margozteko pinturak ekarri genituen, toxikoak ez ziren margoak, eta txikiak horiekin margozten primeran ibiltzen ziren"[150]. Zipitriaren kasuan Frantzialdeko kulturarekiko harreman hau bide desberdinetatik ematen zen (Marsellako ahizparen bitartez, Baionako Bourneug kaleko liburudenda edo aldizkarien bitartez): "Baionara joaten ginen, etxe bat zegoen eskulanetarako eta horrela, Baionako zubi zaharra, zubia pasata, Bourgneng kalean; berak erakutsi zidan non erosi gauzak"[151]. Pedagogiarekiko interes haundi hori, Europatik zetozen aire berriekiko interes hori euskal eskolen konstantea izango da historian zehar, geroago ikastolen mugimenduan berriro ikusiko dugun bezala.

2.2.4. Donostiako etxe eskolen esanahiaz eta bilakaeraz zenbait gogoeta

Etxe eskolen prozesuan momentu desberdinak daudela nabaria da. Gizartean 50.eko hamarkadan aldaketa garrantzitsuak ematen ari zirela eta, hasierako egoera sozio-politikoa erabat eraldatu zuten gaiak azaldu ziren eta etxe eskolen gertakari honetan isladatuta gelditu ziren. Ezin dugu ulertu eskola errealitate hau, sostengatzen zuen inguru ideologikoa nola aldatzen ari zen ulertu gabe; erregimen frankista autarkiatik desarrollismora igarotzen ari zela, eta Europan garapen ekonomiko izugarria ematen ari zela, nazionalismoaren barruko prozesuak belaunaldi diferente bi sortu zituen, bilakaera honen islada politikan zein planteamentu literario eta linguistikoetan, kulturan zein hezkuntzan ere azaldu egin zelarik.

Euskal munduan ematen hasi ziren aldaketa ideologiko hauek gure gaian aztertzea nahiko zaila da. Etxe eskolak, ikusi ahal izan dugun bezala, oso gertakari murriztua zen, bertan parte hartu zuten andereñoak eta ikasleak errez

---

150 Lan bera, 212. orri.

151 3. elkarrizketa. Frantziako kulturarekin izan zuen harremanaren beste adierazlea Arantxa Arrondok eta M. Dolores Zubizarretak bere ikerketan aipatzen duten liburu eta aldizkari zerrenda interesgarria dugu. Ikus:ARRONDO, A. eta ZUBIZARRETA, M. D. (1984): **Elbira Zipitriaren bizitza eta lanari buruzko ikerketa**. Argitaratu gabe. Donostia.

konta daitezkeelarik; gainera, pertsonarik esanguratsuenak, Zipitriak alegia, ez du bere esperientziaren berri idatzirik utzi eta bera ondo ezagutu zutenek erreferentzia fidagarriak emateko zailtasunak adierazten dituzte (beraren bakardadea, nortasun berezia eta abarrak azpimarratuta agertzen dira behin eta berriz). Zailtasun hauek oso kontutan izanda, inguru sozio-politikoak eta nazionalismoari buruzko beste azterketa batzuk lagundurik etxe eskolen esanahia eta bilakaerari hurbilketa bat egiten ahaleginduko gara.

2.2.4.1. Emakume sareak eta hezkuntza funtzioa

Etxe eskolen gerraosteko sorreran Donostiako emakume nazionalista batzuren erreferentea azaltzen zaigu lehenbiziz, EABrekin harremanduta egondako emakume batzu, hain zuzen. Hauen ideologiaz eta nazionalismoaren barruan jokatutako paperaz, M. Ugalderen lanak jenero analisiak gaineratzen duen ekarpena luzatzen digu: "El estudio de estas últimas relaciones (de género) permite poner al descubierto uno de los rasgos característicos del colectivo nacionalista: su configuración como una gran familia, cuyo referente simbólico era la familia vasca tradicional asentada en el caserío (...). Esta gran familia, extensión de la que cada nacionalista integraba individualmente, y tan entrañable como ella, se mantenía unida por lazos afectivos e incluso biológicos y estaba regida por el mismo sistema de relaciones de género, en el que la primacía era masculina. De acuerdo con este sistema, la dirección política, sindical y cultural, así como la elaboración ideológica estaba en manos de los hombres. Las mujeres desempeñaban la función de madres de la comunidad, en sus manos estaba la transmisión de la raza, la lengua, las costumbres y la ideología nacionalista; ellas eran también las encargadas de elaborar el tejido afectivo que trababa el marco de relaciones y actividades de todos sus miembros, uniéndolos por un irrompible entramado emocional. Esta trama afectiva era el elemento de cohesión del colectivo nacionalista, y en ella se basaba la existencia de la Comunidad Nacionalista como tal comunidad"[152].

Beraz, emakumeen zeregina arraza, hizkuntza, ohitura eta ideologia nazionalistaren birsorkuntza ziurtatzea izan zen. Beste atal batetan ikusi dugun bezala, zeregin hau familiaren eremua gainditu eta eremu publikoan ere egitera zabaldu ziren emakumeak, egoera desberdin batzuk bultzatuta. Honela, familia eremuko funtzio hezitzailea bigarren sozializaziora zabaldu zen, eskola edo hezkuntza formalago baten eremuetara sartzera behartuz. Emakumeek hezkuntzan jokatu zuten papera ama funtzio tradizionalaren luzapena bezala interpreta dezakegu, zeinean emakumeak (amak) norberaren seme-alaben lehenengo sozializazioa ziurtatzetik Familia Nazionalistaren hezkuntza funtzio

---

152 UGALDE, M. (1992): *El movimiento de las mujeres en la Comunidad Nacionalista Vasca hasta la guerra civil*. **I. Congreso de Historia Contemporánea**, Salamanca, 2-3. orri.

orokorraren kargua ere hartzera igarotzen ziren. Teresa del Vallek eta bere taldeak honelaxe laburbiltzen digute: "En EAB se da una transposición a la vida social de los fines y roles asignados a la mujer en la familia" (22.orri.), "En el primer nacionalismo la mujer ocupará aquellos espacios que tradicionalmente se le han atribuído. Sus actividades se centraban en la casa, prolongada socialmente (...). Las mujeres podían introducirse fácilmente en las casas de otras mujeres, ya que hay un espacio, la casa, que les es común, que comparten y en el que se sienten seguras. Es esta cercanía, esta complicidad lo que permite un conocimiento profundo de los pensamientos y preocupaciones de otras mujeres y a través de ellas de los miembros de cada familia"[153].

Eremu publikoan eratzen hasi ziren hezkuntza lanek, bai lan formalak (euskal eskolak) baita ezformalak ere (poxpolinak, gaztetxuak..), nahiz eta emakumeari arlo pribatu eta afektibo zehatzetatik ateratzeko balio izan, familian betetzen zuen ama funtzio berbera egitea zuten helburu, eta, jeneroen banaketa finkatzeko balio izan zuten.

Donostiako etxe eskolak sortu zirenean ideologia honekin zerikusi haundia zuten emakume batzurekin egiten dugu topo; familiakoaz gain[154] nazionalismoaren birsorkuntzarako hezkuntza formalaren garrantziaren kontzientzia daukaten, eta horren erantzunkizuna bere egiten duten emakumeak. Baina motibazioen oinarria den diskurtso ideologikoaz aparte, eskolarik txikienak ere nolabaiteko azpiegituraren beharra du, topaguneak eta elkarren komunikaziorako gutxienezko esparru bat (are gehiago frankismoak ezarri zuen egoera errepresiboa kontutan hartzen badugu).

Azpiegitura honetaz, berriemaleek *emakumeen* erreferentzia erabiltzen duten arren, ñabardura batzu egin nahi genituzke. Ez dakigu norainoko antolakuntza berreskuratu zuten emakumeek gerra bukatutakoan, zeregin batzutan bazebiltzanaren berri dugun arren; ez dakigu gerraurreko egitura hauek non, zenbat denboratan, zertarako eta nola mantendu ziren, ezta mantendu ziren ala ez.... honek ikerketa sakon eta berezi bat mereziko lukeela dudarik ez dugu. EAB-ren gerraosteko garapenari buruzko informazio hutsune salbaezin hau

---

153 VALLE, T. d. (1985). **Mujer vasca, imagen y realidad.** Anthropos. Bartzelona. 241-242. orri.

154 Gure ustez, gerrak nazionalismoak aurrera eraman nahi zuen heziketa orokor hura neurri batetan moztu bazuen ere, emakumeek familia barruan seme-alaben euskal sozializazioa burutzen jarraitu zuten ideologia nazionalistaren biziraupena ahalbideratuz. Bigarren sozializazioa burutzeko, berriz, beharrezkoak ziren azpiegitura eskolar eta esparru publioaren erabilera debekatuta zeudenez, zailtasun haundiak agertzen ziren eta Donostiako kasuan bakarrik (agian han aldeko baldintza batzu suertatzeagatik) egin zen.
Emakumeek bere familietan nazionalismoaren birsorkuntzarako erabili zituzten mekanismoak nolakoak izan ziren, eta, orokorrean “forma gabeko heziketa” honen nolakotasuna zein izan zen, euskal hezkuntzaren historiak eta soziologiak duten hutsune nabari bat dela uste dugu.

aparte, beste berezitasun batzu ere aipatu beharra dago; alegia, emakumeek bultzatu zuten etxe eskola saio hau leku bakar batetan ematen dela, Donostian, eta ez beste inon (nahiz eta EABren hedapena Bizkaian eta Gipuzkoan ia erabatekoa izan zen), eta bestaldetik, Donostiako emakume taldearen harremanak aztertzerakoan, egitura politikoak eman ziezaiekeenaz gain, beste era batetako harremanak ere topa ditugu, EAB bera antolatu aurreko lagun eta senitarte harremanak hain zuzen.

Honexegatik, eta emakume hauek EABren bidezko politizazioaren balizko eragina gaitzetsi gabe, honen inguruan planteatzen dugun hipotesia, Elizabeth Bottek eskuratzen digun "sare sozial"[155] kontzeptuan zehaztu nahi genuke.

Botten ikerketak familia barruko errolen banaketaren azterketa du abiapuntu; euskal familietan seme-alaben sozializazioaren ardura emakumeengan zehazten zen, gizonezkoak beste iharduera publiko eta politiko batzuetara dedikatzen ziren bitartean (hau, ikerlari honi jarraituz, "bikotearen errolen banaketaren gradu" desberdinekin adieraziko litzateke, eta kasu honetan bikotearen errolak oso banatuta daudela esango genuke). Bottek familiaren errolen banaketa azaltzeko, familien inguruaren azterketari ekin zion eta hauek sortzen zituzten harreman sarearen "dentsidade" edo "konektibitatea"rekin lotu zuen: "..el grado de separación en el rol relacional de marido y mujer está directamente relacionado con la mayor o menor conectividad de la red social de la familia"[156].

Gure gaiari jarraituz, emakumeek ama errola garatzeko emakume sare estuak eraiki zituztela uste dugu, handik, nekazal gizartean bezala, heziketarako arauak eta elkarren laguntza eta segurtasuna lortzeko, hezkuntza ibilbidearen *feed-back* osoa gorpuztuz. Sare hauen gaiak, senitarteak eta lagunak ziren, eta euren tartean mikrogizartearen zutabe afektibo eta hezitzailea ezarri zela uste dugu.

Donostiako etxe eskolen harira, horrelako harreman sare baten aurrean gaudela uste dugu, Zipitria bera sare horretako korapilo bat zelarik. Berarengan harreman multzoa batzen zen, eta sarearen partaide ziren emakumeek seme-alaben hezkuntza beharrei egoki erantzun ahal zien pertsona ikusten zuten: "Hark ematen zien ezagunen haurrei, bere lagunen haurrei, dozena erdi, sei , zortzi gelan, besterik ez, hori zen Elbiraren ikastola hasieran"[157].

---

155 BOTT, E. (1990): **Familia y Red Social**. Taurus. Madrid. "Se define la red como todas o alguna de las unidades sociales (individuos o grupos) con las que un individuo, o grupo concreto, está en contacto" 365. orri.

156 Lan bera, 99. orri.

157 1. elkarrizketa.

Etxe eskoletako Itziar eta Amale Artzelus, Faustina Karril eta Zipitria emakume sare berberekoak zirela esan dezakegu (M. Doloren Goiak ez omen zuen harreman zuzenik Zipitriarekin, baina sarearekin E. Maiztegiren bitartez lotuta ikusten dugu), eta Aranaren nazionalismoak ezarri zuen jenero erlazioaren diskurtsoan murgilduta zeuden.

Etxe eskola hauen kutsua familia kutsua zen, Familia Nazionalistaren birsorkuntza garatzeko gunea: “Han, borobilean... gainera, noski, etxeetako gelak ziren, bazutela halako familiaridade bat, ez dakit, gauza bitxi asko ere bai, bildutako fruituak, orduantxe ekarritako ostoak, saskitxoak, kanikak, txotxak; orduan eskolako material hotz hura, eskola guztietan berdinak, eskola guztiak berdinak, mahaiak, aulkiak errenkadan eta mapak...., eta hemen intxaurrak, txotxak, saskitxoak, lurrean... eta etxeko hizkuntza, guk etxerako bakarrik ezagutzen genuen hizkuntza hura, hartan oinarritutako eskola..”[158]. Euskal Ikastolen Batzaren informean aipatzen den baserrietako mahaiaren erabilerak ere familia kutsu hori azpimarratzen du, eta, datu bitxi bezala, etxe eskoletako andereñoen ahotan errepikatuta agertzen zaigu. Informeak honela zioen bitartean: "Hemos considerado que agrupar a los escolares en torno a una mesa de tipo familiar o doméstico, con sillas que, –aparte de recordar un modelo corriente en nuestros caseríos–, permitan a los alumnos la movilidad e independencia que requieren, tanto el recomendable trato individual del alumno como el cultivo del sentimiento personal en el mismo, es uno de tantos detalles, al parecer indiferentes pero cuya influencia y ventajas han de contribuir a la caracterizacion del resultado educativo en nuestras escuelas"[159], eta M. C. Mitxelenak, Zipitriaren etxe eskolaren altzariaz mintzo denean honela dio: "Baserrietan bezala hormaren kontra gordetzen diren mahai horietako bat bazuen, idazketa lanak egin behar zituztenean erabiltzen zutena..."[160]. Ez dugu uste, erreferentzi hauen arteko antzekotasuna kasualitatea denik, euskal eskolaren esanahiaren adierazle garrantzitsu bat baizik, alegia, ideologia nazionalistaren ildo nagusienetakoen zertzeladak (familia, baserri giroa eta taldekidetasuna) eskolaren muinetan nola isladatzen diren.

Agian, esandako guztia ez da nahikoa etxe eskolen sorrera, eta batez ere iraupena ulertzeko. Gobernadore Zibilaren debekurik edo errepresio zuzenik

---

158 4. elkarrizketa.

159 E.I.B. (1933): *Informe de la gestión del primer ejercicio presentado por la Junta de Gobierno del Euzko Ikastola Batza. 1932-33*. 24. orri.

160 ARANBURU, X. (1991): *Hezkuntzaren historia Euskal Herrian: Ikastola. Elbira Zipitriaren biografiarako jakingaiak: Ikastola Donostian 1942-1969 urte bitartean.* **Eusko Ikaskuntza. Cuadernos de Sección: Educación**, 4. Donostia. M.C. Mitxelenari eginiko elkarrizketa, 43. orri.

zergatik ez zen egon ez da errez esplikatzen[161]. Batzuk esperientziaren tamaina txikia aipatzen dute, hamarkako ikasle batzu baino ez ziren, gertakari diskretua, itxuraz garrantzibakoa; beste batzuk, berriz, han mugitzen ziren umeen familiek agintarien aurrean nolabaiteko errespetua ezartzen zutela adierazten dute... Erantzuteko galdera zaila, batez ere honen antzeko esperientzia batek agintariengandik jasan zuena gogora ekartzen badugu; Bilbon 1957.ean (Zipitria baino hamaika urte beranduago) lehenengo saioa egin zenean Elizak berak eginiko salaketa jasan zuten eta, bi urte beranduago, indar polizialen beraien erasoa jasan ere[162].

2.2.4.2. Etxe eskolak eta belaunaldi berria

Etxe eskola hauen esperientzian elementu berrien sarrera, sarekoak ez ziren andereñoak, Jone Forkada eta Karmen Esnal, dira hausnarketara ekarri behar dugun beste datu bat. Sarrera hau oso interesgarria dela uste dugu, eta aztertzeko ikuspegi desberdinak erabil daitezke. Maila politiko-ideologiko batetatik, eta Beltzak[163] egiten duen nazionalismoaren epealdietatik, nazionalismo tradizionaletik kanpo sortu zen lehenengo taldearen ingurukoak ziren eta asmo "ekintzaileekin" murgildu ziren gizartean. Ingurugiroaz zuten ikuspegia horrelaxe laburtzen du Txillardegik: "El ambiente de la época era realmente triste desde el punto de vista vasco. La gente había perdido la esperanza.(...) Y así surgió un pequeño grupo de estudiantes, que se dedicaba fundamentalmente a dos cosas: al estudio de los movimientos intelectuales de vanguardia (el existencialismo en aquel momento); y al análisis de la historia vasca, y del Fuero vasco en especial. Mis dos novelas de aquellos años ("Leturia" y "Peru Leartzako"), centradas en la angustia existencial, son una ilustración de nuestras preocupaciones; que eran las de Europa, cosa que no comprendía Orixe, por ejemplo"[164].

Etsipen hau nabaria zen eta zenbait gazterengan zerbait egin beharra sortu zuen; egin behar izan honek etxe eskolen esperientziara hurbiltzera bultzatu zituen eta Zipitriarengana abiatu ziren ikastera eta euren etxe eskolak zabaltzera. EKINek, orokorrean eta honetan, jokatutako paperaz eztabaida haundi bat sortu

---

161 Etxe eskolen epe honi "klandestinoa" deitu ohi zaion arren (ikus: GARMENDIA, M. C. (1972): *Ikastola*. in ESTORNES LASA, B. (arg.): **Enciclopedia General Ilustrada del País Vasco. XIX. tomoa**. Auñamendi. Donostia.), hitz honek txarto ulertzeak ekartzen dituela pentsatzen dugu. Agintari frankistek zein inspektoreek etxe eskolak ezagutzen zituzten, bazuten haien berri, beraz, klandestinoak ez ziren nahiz eta izaera ofizialik ez eduki. Zuzenagoa deritzogu "toleratuak" zirela esateari, erregimenak nolabait ezagutzen zituela adierazten baitigu.

162 ARRIEN, G. (1993). *Las ikastolas de Bizkaia, 1957-1972*. **Eusko Ikaskuntza. Cuadernos de Sección: Educación** (6): 85. orri.

163 BELTZA (1977): El nacionalismo vasco en el exilio (1937-1960). Txertoa. Donostia.

164 GARAIA (1976): *Jose Luis Alvarez Enparanza, Txillardegi*. Garaia, 1.

zen aldizkari batzutan duela urte batzu[165], baina, egia esan, garai hartan izan zuen eraginaz ez da oraindio sakon ikertu. Etxe eskolei gagozkiola zera esango genuke: gazte talde honek euskal munduaz eta euskararekiko zuen kezkak eraginda Zipitriaren esperientziara hurbildu zirela; emakumeen sareetatik, gerraurreko EABtik eta nazionalismo tradizionaletik kanpotik etorri ziren lehenegoak izan zirela, eta, esperientzia hura bultzatu eta haunditu beharra ikusi eta ekin ziotela, Donostiako Normalean kandidato berriak bereganatuz eta etxe eskola gutxi batzu zabalduz (ez dezagun ahaz esperientzia honen tamaina txiki txikiaren mugetan ari garela beti).

1956.eko Pariseko Euskal Biltzarrean EKINek euskal gazteriak jokatu behar zuen paperaz esaten zuenak, denborak ematen digun distantziatik, berebiziko garrantzia hartzen du: "La guerra civil ha dejado marca profunda. Las minorías de la nueva generación son casi en un cien por cien antifranquistas. Esta generación habrá de jugar un papel decisivo en el derrocamiento del régimen"[166].

Etxe eskoletan sartu ziren gazteek, gizartean somatzen hasten ziren aldaketetan murgilduta eta euren gogo hedakorrak bultzatuta, Zipitriaren asmo itxia eta kontrolatua baztertu eta lanari zabaltasuna emateko grina azaldu zuten: "Ordun klaro, gerraondoa zen eta oraindik haiek hastapenetan zeuden eta oraindik ez zuten gehiegi ikusten, klaro emakumeen artean gazterik ez zegoen, danak ziren gerraurrekoak, nahiz eta ezkonduta gazteak bai, baino gerraurrekoak denak, orduan oraindik ez zegoen hori, belaun berri hori"[167]; "... eraberritu zen emakumeen zirkulu txiki hori edo haundi hori, zirkulu hori EKINgo irakasleak hasi zirenean; bueno hemen ikastolari nolabaiteko bultzada eman behar zaio, indarra bildu eta abar. Eta Elbira oso ondo dago baina hemen jende berria behar da, jende gaztea..."[168]. Gazte hauen artean etxe eskolak bultzatzeko eta zabaltzeko gogoa oso nabaria da, hura jende gehiagorentzako esperientzia zelakoan, eta ahalik eta gehienari eskeini behar zitzaiolakoan. Eskola saio hori emakumeen sareetatik kanpora *kaleratu* behar honek Zipitriak ezartzen zituen baldintza batzu bermoldatzea derrigortzen zuenez, horri ekin zioten.

Goiaren kasua aparte, Esnal eta Forkada dira, Zipitriak bezala, sei urtetik aurrerako umeak hartzen zituztenak, eskola adineko umeen ardura zutenak. Hasi

---

165 IBARZABAL, E. (1979): *Así nació ETA*. Muga, 1.: 77-89. orri. ; VALLE, B. d. eta AGIRRE (1979): *ETA: historia e historias*. Punto y Hora, 134.: 44. orri. IBARZABAL, E. (1980): *En torno al nacimiento de ETA*. Muga, 2.: 4-6. orri. ELKARLANEAN (1980): *En torno al nacimiento de ETA*. Muga, 3.

166 EKIN (1956): *Informe acerca de la situación de la juventud vasca*. **Congreso Mundial Vasco**, Paris, 353. orri.

167 2. elkarrizketa.

168 2. elkarrizketa.

eta berehala eskola antolakuntzan aldaketa batzu sartzen hasi ziren; batetik eskola ordutegia bi ordutakoa izatetik goiz eta arratsaldez izatera pasatu ziren, batez ere gurasoen eskaerari erantzunez:“Baina haunditzen zihoazen bezela iruditzen zitzaidan oso denbora gutxi zela ikastolan egoteko, eta gainera pertsona bat behar zuten haur horiek atenditzeko”[169]; “..eta gainera nik ulertu nuen, pues klaro, zazpi, zortzi eta aurreko haur bat bi ordu klasean, eta, gainerakoan etxean moldatu zaitezte!”[170] Beste alde batetik talde bakoitzean Zipitriak jartzen zuen hamarreko kopurua gainditu eta ume gehiago hartzen zuten:“..Eta Karmen Esnalek, ausartago eta ez dakit zer, hartu zituen hamalau haur (...) eta Buen Pastor ere jardin aldera ba errezago umeekin ateratzeko, eta despistatuago bezala. Harek ere eman zion irekiago bezala”[171].

Agian hemen dugu hitz giltza, irekitasuna, hedakortasun xumea sare estu horietan, hamarreko kopurua bete arte aukeratutako ume eta euren neba-arrebak soilik hartu beharrean, andereño hauek etxe eskola zabaltzerakoan ume gehiago sartzeko aukera gauzatu zuten, eta kopurua haundiago zen heinean, finkoagoa eta kaleratuagoa agertzen zen euskal eskola.

Etxe eskolen esperientzia hedatu nahi honek Zipitriaren funtzionaketa ereduari beste aldaketa batzu ekarriko lizkioke (batez ere euskal hezkuntzaren esperientzia herrietara zabaldu beharra sortu zenetik aurrera), eta egoera politikoan ari ziren gorabeherekin batera, etxe eskoletan zeuden Zipitria eta emakumeen sarea batetik, eta gazteak bestetik, gero eta bereiziago azaltzen zaizkigu. Apurketa ere etorri zen; diferentziak, hurrengo kapituluan ikusiko dugun bezala, ETAk plazaratutako nazionalismo politikoaren diskurtsoaren eraikuntza desberdinaren bidez, eta emakumeak gizartean jokatzen hasi ziren paperak erangindako jeneroaren diskurtso berriaren bidez azaldu ziren.

60.eko hamarkadan, etxe eskolatik gero eta bereiziago agertzen zaigun euskal hezkuntzaren zabalkunderako joerak, gaur egun ikastola kontzeptuaren azpian ezagutzen duguna eraginduko du, euskal kultura eta politikaren maila guztietan garatzen ari zen modernatze eta hiritartze joerarekin batera.

2.3. ELBIRA ZIPITRIAREN EKARPENARI BURUZKO HAUSNARKETA

Ikastolen munduan, Zipitriaren irakas metodologiari buruz asko hitz egin da; bai artikuluetan baita elkarrizketetan ere behin eta berriz agertzen zaigun erreferentzia izanik, gai honetan gehiago sakontzea interesgarria iruditu zaigu.

169 3. elkarrizketa.
170 2. elkarrizketa.
171 2. elkarrizketan eta 3. elkarrizketan.

Beraren bitartez, gerraurreko mugimendu pedagogikoa ezagutzeko aukera izan ez zuten maistra gazteei eskolari buruzko kontzepzio eta praktika landu eta finko bat ikasteko bidea zabaldu zen, inongo dudarik gabe.

Aipatu nahi genuke hemen oso deigarria iruditu zaigun datua, alegia, gerrak maila guztietan eta euskal hezkuntzaren esperientziaren historian suposatu zuen eten ikaragarria, zeren 50.eko hamarkada honetatik aurrera euskal hezkuntza saioetan sartzen ziren gazteek ez baitzuten inondik inora aurreko urteetako metaketa pedagogiko teoriko praktikoa ezagutzen. Gerrak esperientzien komunikazioan eta prozesu historikoan amildegia sortu zuen, non alde batetan "gerraurrekoak" eta bestean "gerraondokoak" gelditzen ziren eta, salbuespenak salbu, biren artean topagunerik aurkitzen ez zen. Gure ustez gaurdaino mantentzen den komunikazio hutsune hau oso kasu berezietan salbatu zen, eta Donostiako etxe eskolen esperientzia horietako bat dela iruditzen zaigu[172].

Zipitriak (beste euskal maistra gehienei ez bezala), emakume sareak ahalbideratzen zuenari esker, euskal eskola saio txikia birsortzeko aukera izan zuen, eta, erantzunak bilatzen zeuden gazteei frankismoak ukatu zien beste esperientzia aberasgarri horren ezagutza eman zien. Zipitriak lan hau maisuki burutu zuela baiezta dezakegu, batez ere formazioaz azaldu zuen kezka dela medio hurbildu ziren maistra gazteei berarekin urte beteko praktikak behartzeagatik. Honexegatik beraren pedagogiaren hausnarketa honetan, irakaslegoaren formazioari eman zion garrantzia batetik, eta, eredu pedagogiko eta metodologikoa bestetik aztertuko ditugu.

---

172 Honen inguruan galdera asko erantzunik gabe gelditzen zaizkigu. Zergatik birsortzen da gerraurreko hezkuntza esperientzia Donostian eta ez beste inon? (ikerketa honetan zehar aztertu ditugun ikastolen sortze momentuetan, Donostiakoaz aparte, ez da ematen gerraurrearekin erlazio zuzenik duen eskola saiorik; ikastolen esperientziara bultzatzen edo laguntzeko asmoz hurbiltzen diren gerraurreko pertsonak badira, baina beti gizartean sortzen ari den dinamikan sartuta, belaunaldi gaztearekin batera). Gure ustez, Donostiako kasuari erantzuna bi zentzutan bilatu behar zaio; batetik gerrak euskal eskolen partaide horiengan nolako eragina izan zuen aztertu beharko genuke (errepresio zuzena, esilioa edo barruko migrazioak, maila profesionala baztertu eta familiara dedikatu, beste partaideekiko komunikazio/inkomunikazio maila, eta batez ere Errepublika garaian zehar etxearen mugetatik eskolara lanera irtetera ausartu ziren emakume hauek nola ikusi duten euren burua egile sozial bezala, nola eraiki duten euren diskurtso eta eskuhartze sozial hori, eta porrotak edo gerra galtze horrek zelan eragin dien); eta erantzunaren bigarren zentzua, datu diferentzial baten bidetik datorkigu, hau da, Donostian emakumeen artean, beste lekuetan ez bezala, sare sozial hau mantendu egin zela (agian elkarren arteko loturak, politiko ideologikoaz gain, beste maila batetakoak ere bazirelako), eta, gerraurrean eginikoa birsortzeko tresna bihurtuz ekintza desberdin batzu antolatu zirela (beti ere "emakume lan" esparru horretan).

2.3.1. Irakaslegoaren formazioa

Zipitriak, gerra baino lehenago zegoen joerari jarraituz, irakaslegoaren formazioari garrantzi haundia eman zion, eta 50.eko hamarkadaren hasieran maistra gazteak etorri zitzaizkionean, berarekin urtebeteko praktikak egitea eskatu zien. Etxe eskola zabaltzeko, maisutza titulua ezinbesteko lehenengo baldintza zen eta bere metodologian urtebetez aritzea derrigortu zuen, azken batez, andereño gaiek zeukaten formazioak ez baitzuen Villalongak deitutako naziotasun kontzeptu hori bere baitan. Batzuk "malas maestras españolas" deitzen ziela aipatzen dute[173], eta EIBren txoztenaren pasarte batzu etortzen zaizkigu gogora: "¿ Cabe esperar de la preparación que reciben en las escuelas de magisterio españolas que los maestros se encuentren en condiciones de practicar la enseñanza según las bases que aquí se preveen? (...). Ha sido gracias a su disposición de ánimo y a su propósito patriótico, que han empezado a encajar su trabajo en la orientación pedagógica que de ellas esperábamos, luchando por una parte, como hemos dicho, con su formación profesional de tipo español, y por otra, con la inercia y los perjuicios de la calle...."[174].

Maistra hauek, praktiketako urte horretan, goiz eta arratsaldeko ikastaldietara joan eta, etxera itzultzean, dena apuntatu eta jasotzen zuten: "..Eseritzen zinen eta ikusi nola egiten zuen lana, eta pasatzen zitzaizun ohartu ere egin gabe denbora! (...). Beste ikasle bat bezela, lurrean eserita eta hantxe, dena berri-berria zen, niretzako izan zen dena berri-berria, osea, Normaletik atera anormala bezala eta orduan hara joan eta ikusi..."[175]; "...praktikak egin ondoren, gero Elbiraren eskolara joan eta hura zen beste mundu bat, nahiz eta gaur, klaro, urte asko pasa dira eta bere akatsak agertzen zaizkizu, baina hala ere beste mundu bat zen, guztiz, gauzak hobeak, guztiz ona"[176]; "Orduan zen noski, horrela, lurrean, kanikakin, baino zein matematika zen hura!, inork ez zekiena, kolegiorik eta sonatsuenetan ere inork ez zekien bezalakoa. Izugarria, izugarria, hori niretzat izan zen (...) Pentsa! urtebete pasatzen genuen hori ikusten, eta agian ez zen nahikoa, eta magisterio osoa egina genuen, eta hiru urtez magisterion praktikak egiten genituen e? Gero oposaketak ere prestatu genituen eta hala ere zeharo gauza berri bat, ba nik uste ezagutu genuenoi sekula ahaztuko ez zaiguna"[177].

Praktikak egitea, beraz, andereño gazte guzti hauentzako esperientzia aberasgarria bihurtu zen eta eskola ematen baino lehen ezinbesteko baldintzatzat

---

173 MARIEZKURRENA, M. (1985): *Zipitria´tar Elbire andereñoaren irakasbidea.* in Euskerazaintza (arg.): **Zipitria´tar Elbire Andereñoa. Omenaldia**. Lopez Mendizabal. Tolosa.

174 E.I.B. (1933): *Informe de la gestión del primer ejercicio presentado por la Junta de Gobierno del Euzko Ikastola Batza. 1932-33*. 17. eta 20. orrialdeak.

175 3. elkarrizketa.

176 2. elkarrizketa.

177 4. elkarrizketa.

jotzen hasi ziren; ordutik aurrera, etxe eskola zein beranduago ikastoletara joango ziren andereñoek denbora luze batetan esperientziadun andereño batekin ibiltzea arau bihurtu zen euskal hezkuntzan. Hau, datu interesgarria dela uste dugu; kontutan har dezagun praktiken arau hau euskal saio hauetako metodo zein edukiak homogenotasun haundi batez igortzeko mekanismoa izan zela, sistematizazio eta muga batzuren barruan mugitzeko eta euskal hezkuntzari identidade propioa emateko balio izan zuena.

Andereñoen praktikak urte luzez mantendu izan ziren, euskal hezkuntzaren nortasun bereiztua ziurtatzeko beste ekintza pedagogiko bateraturik egiteko beste biderik ez zegoen garaian (ez zegoen testu libururik, ez bestelako euskal materiale pedagogikorik ere). Edukiak, zer esanik ez, halabeharrez aldatuz joan ziren baina formazio mekanismo honek luze iraun zuen.

Formazioaren beste atal bat euskaraz alfabetatzea izan zen. Zipitriak helduentzako alfabetatze klaseak ere ematen zituen. Praktiketako andereñoak ere sarritan alfabetatu ziren saio hauetan, zeren garai honetan euskaldunak gazteleraren bitartez alfabetatzen baitziren eta euskara idatzia Elizaren bidez bereganatu ohi baitzuten. Hala eta guztiz ere, helduen euskal alfabetatzea bide askotatik burutu dela esan dezakegu; saio formalak gaitzetsi gabe, beste bide ez ohizko batzu ere oso garrantzizkoak izan direla aipatuko genuke, izan ere, gartzelan burututako alfabetatze prozesuak eta irakaskuntzaren bitartez era "sasinatural" batez garatutakoak[178].

2.3.2. Zipitriaren praktika pedagogiko eta metodologikoa

Andereño gazte hauek Zipitriaren pedagogia ikustean mundu desberdinaren aurrean zeudela pentsatzea ez da harritzeko gauza, batez ere Eskola Berria edo Ekintzailea guztiz kanporatuta zegoela kontutan hartzen badugu. Dena den Euskal Herrian formatzen ari zen jendearentzat berria izateak ez du inondik inora pedagogia mailan berrikuntzarik suposatu zuenik esan nahi.

Jaso ahal izan ditugun datu ugariek Zipitriak Frantziako kulturarekin izan zituen harremanak adierazi dizkiguten arren, ez dugu datu zehatzagorik lortzerik izan; Marseillen bere ahizpa batek atzeratuentzako instituzio batetan lan egiten zuela eta, hari bisita eginez, bertako pedagogia ezagutzen zuela, edo, Parisera

178 Andereño askori, euskara idatziarekiko harremana ikastolan umeen alfabetakuntzan ibili beharretik etorri zaie eta gazteleraz alfabetatuak zirenez, euskara idatzia umeekiko alfabetatze harremanean finkatu dute. Euskalduntzen ari zirenekin antzeko gauza bat gertatu ohi da, alegia, oinarrizko euskara maila bereganatu eta irakaskuntzan arituz mintzaira eta euskara idatzia finkatu.

joaten zela, edo, liburu asko ibiltzen zuela[179]... Honelako adierazpen franko, bestelako zehaztasunik gabe; bestalde berak, nahiz eta nazionalismoaren inguruan Zeruko Argian edo Agur aldizkarietan artikuluak idatzi, ez zuen pedagogiaz ezer ere utzi: "Ez, pedagogian ez, pedagogia bakarrik bera bere etxe zuloan, eta piskat *sekretaria* zen bere pedagogia kontuetan, *sekretoa*, niretzako bai"[180]. Beraz, Europako pedagogiaren eragina jaso baldin bazuen datu biografikoek adierazten dizkiguten bideetatik eta lan autodidaktiko baten fruitu izatearen hipotesia baino ez zaigu gelditzen.

Oso interesgarria iruditzen zaigun datua zera dugu, urteetan zehar Migel Mari Egiarekin egindako bakarkako heziketa lana. Down Sindromea omen zuen mutil honekin eguneroko lan jarraitua egin zuen Zipitriak, eta, iharduera honetan, irakaskuntzaz eta aprendizaiaz izan zituen interesa eta joera aurrerakoia aski argituta gelditzen direla uste dugu: "...atzeratua zen, horregatik esaten zidan neri horrek: atzeratuen formulak direla izugarriak zentzudunentzako, aldi bakarra zegoela, atzeratuak sei hilabete behar du eta besteak bi hilabetetan ikasten du"[181]. Ikas behar bereziak dituzten pertsonetaz aritua den edozeinek berrets dezake gaur egun Zipitriak esaten zuen horixe, eta Migel Mari Egiarekiko lanetik irakas-ikas estrategia ugari garatuko zuela uste dugu.

Etxe eskolan egiten zuen lan pedagogikoari buruz ñabardura batzu egin nahi genituzke. Lehenengo, esperientziak ezartzen zituen muga estuak ongi gainditu beharra, hau da, Zipitriak etxe eskola antolatu zuenean desafioaren aurrean ezarri zen: elkarrizketa batetan esaten denez "ez zuen inondik ere momentu hartan zegoen eskolaren kalkoa izan nahi", baina Legeak Ingresorako eskatzen zituen edukien azterketaren frogan besteek baino emaitza hobeak atera beharrean zegoen, kontrakoak euskarari errua leporatzea ekarriko baitzukeen.

Honetarako lau urtetako iraupena zuen euskaldunentzako programa bat zehaztu zuen, non bukaeran elebitasuna eta Legeak ezarritako ikas helburuak betetzen ziren. Talde bakoitzeko hamar ikasle eta egun bakoitzean ordu bi klase, baina etxera gurasoek lagunduta beste ordu bitarako lana zeramatelarik. Zazpi urtetik aurrera eskolan eta etxean eginiko lan orduei frantsesezko eskola ere gehitu behar zaio: "Ordu beteko frantsesa ematen zuten eta oso polit ikasten zuten; baita ere metodologia zen marrazkien bidez. (...) Orduan ikasten zuten frantsesa eta euskara, euskararen bidez frantsesa."[182]

---

179 Elkarrizketetan "Fernand Nathan"en aipamena jaso ahal izan dugu, eta A. Arrondo eta M.D. Zubizarretaren lanean datu hau baieztatuta agertzen zaigu.

180 1. elkarrizketa.

181 1. elkarrizketa.

182 3. elkarrizketa.

Talde txiki hauetan lan egiteari esker ikasle bakoitzaren jarraipen pertsonalizatua egiten zuen, Manuel Lekuonak zioen bezala "ikasle bakoitzaren neurriko", haur bakoitzaren aprendizaia prozesu osoa egunez egun kontrolatu eta zuzentzen zuelarik. Era honetara ez zegoen ebaluaketa puntualak egin edo notak eman beharrik zeren ikasle bakoitzaren aprendizaian etengabe eragiten baitzuen.

Metodologiari dagokionez, deskribatu dugun etxe eskolen metodologia global edo Decrolyren erizpideekin lan egiten zuen, hots, haurraren esperientzietatik abiatuta ulermena eta esperientzia oinarritu abstrakziora igaro baino lehen. Maritxu Mariezkurrenak "logika" deitzen dio, Mertxe Jauregik "eskola bizia"[183] ... izen asko eman ahal zaizkio, baina gure ustez Decrolyren teorietan oso sustraitua dagoela esan daiteke. Lan globalizatuaren motorra "Xabiertxo" liburuaren irakurgai bat izan zitekeen, eta hori era arin eta natural batez naturarekiko esperientziekin, kantekin, poemekin, marrazkiekin bizi erazi egiten zien haurrei. Lanketa guzti hauek oso zuzenduta zeuden, nahiz eta haurrari ozenki pentsa erazi, ez zion sormenari bide egiten, zuzendua zen: "…haurraren kontrola ere gogorra zuen, irakurketa, idazketa, eta abarretan egindako hankasartzerik txikienak ere zuzenduaz. Asko esijitzen zion haurrari. Haurra ez zuen libre uzten."[184]

Irakurketa-idazketarako"txotxak"[185] erabiltzen zituen, hizkiak maiuskulaz ikasten zituztelarik. Metodo honekin manipulazioa eta adierazpen idatzia baino lehenago espaziala lantzen zen arren beste desabantail batzu zituen, eta ez zuen jarraipen haundirik eduki. Logika matematikoa lantzeko metodoari buruzko eritziak, berriz, aho batekoak izan dira eta eragiketa matematikoen abstrakzioa oso era egokiz lantzea lortzen zuela seinalatzen dute. Kasu honetan gaiak "pottokak" ziren, balio desberdina zuten bolatxoak, eta manipulazioa eta elkar trukaketarekin haurrak eragiketa matematikoetara hurbiltzen ziren.

Zipitriaren pedagogiaren atal honetan ezin baztertu berarentzat eskolaren zutabeak ziren abertzaletasuna eta erlijiotasuna, nolabaiteko batasun batetan gurutzatzen diren kontzeptuak. Zipitriak bere klaseetan metodologia global honetan txertatuta erlijioaren esperientzia ere sartzen zuen. Otoitzak, urtearen banaketa jai erlijiosoaren zikloaren arabera, jaunartze eta sendotzarako prestakuntzak eta erritoak..., ideia eta forma erlijiosoak bizi erazten zizkien haurrei,

---

183 ARANBURU, X. (1991): *Hezkuntzaren historia Euskal Herrian: Ikastola. Elbira Zipitriaren biografiarako jakingaiak: Ikastola Donostian 1942-1969 urte bitartean.* **Eusko Ikaskuntza. Cuadernos de Sección: Educación**, 4. Donostia, 45-51. eta 59-65. orri.

184 ZUBELDIA, J. A. (1983): *Elbira Zipitria itzali zaigu, baina....* **Isilik**, 2. 45. orri.

185 MARIEZKURRENA, P. (1985): *Txotxak erabiltzea, Elbire´ren irakasbidean.* in Euskerazaintza (arg.): **Zipitria´tar Elbire Andereñoa. Omenaldia**. Lopez Mendizabal. Tolosa: 73-76. orri.

errealitatearen derrigorrezko osagaia izango bailitzan. Arantza Mendizabalek bere apunteetan jasota duen adibide hau argigarria da: “Uf! hotz naiz (*keinua, hotzikara antzeztuz*), hotz hotz naiz, Josu bezala, berak sofritzen zuenarekin...”; umeen esperientziatik zuzentzen zuen ikasbidea, umeengandik gertu zeuden gauzetatik eta benetako trebetasuna omen zuen hau egiteko, gaiak elkartzeko, forma emateko, bizi erazteko, aparteko errekurtsoak globaltasun horretan murgiltzeko eta trebeki lantzeko.

Erlijioaren eta orduko euskaltasunaren baloreak “Xabiertxo”[186] irakurketa liburuan ere ikusten ditugu. Lehenengo irakurketak “Jaungoikoa” du izena, eta bera “gauza guztien egilea dela eta onak izan gaitezen egin gaituela” aldarrikatu ondoren orrialdez orrialde zabaltzen dira Xabiertxo eta Iziartxo zintzoen eginbeharrak: gurasoekiko eta Jaungoikoarekiko maitasuna, gezurrik esan ez, lagun gaiztoei kasurik egin ez, irakurri egin behar dela, ogirik ez dela behin ere bota behar... Honetaz aparte, irakurketa liburu honetan agertzen diren gaiak naturarekin lotuta daude, eta bereziki baserri giroko elementuekin (baserria, abereak, piztiek, urtaroak, nekazaritza...), nazionalismo tradizionaleko nekazal giroko erromantizismoa azpimarratuz.

Orohar eta ondorio orokor batzu ateratzeko, Zipitriaren lanean bai antolakuntzari dagokionean hezkuntza funtzioa burutzeko emakume sareak erabiltzean, bai eskolaren ideologiari dagokionean gerraurreko oinarri erlijioso eta abertzalearen birsorkuntzan, bai irakaslegoaren karakterizazioan emakumezkoen ama funtzioaren betebeharraren jenero diskurtso klasikoan, eta baita metodologian agertzen diren zenbait elementutan (bere eskolaren ideologiaren islada direnak, gehien bat) ere, Aranaren nazionalismoaren osagaitzat har ditzakegun ezaugarriak aurkitzen ditugula baiezten dugu.

Hala ere frankismoak, gerraurreko nazionalismoaren ekarpena ezagutzea eta, II. Gerra Haundiaren ondorioz, Europan eman ziren eraldaketa estruktural eta ideologikoen edukia eskuratzea guztiz eragotzi zituenez, Zipitriak eginiko saioak diskurtso pedagogiko ofizialetik kanpoko beste esperientzia bat ezagutaraztea lortzearen garrantzi ukaezina duela uste dugu. Berak ekoiztutako irakasbidea euskararen eta euskal kulturaren nolakotasunari egokitutakoa izanik, sortuko ziren ikastoleek hornidura pedagogiko aberatsaz jazteko aukera izan zuten: “Elbira izan ez balitz nik uste dut sortuko zirela ikastolak, baina Elbirak sortu zuen halako gauza serioa (...). Lokalik ez zenuen, hain gauza zera, materialik ere ez zenuen, lurrean, eta hala ere hain gauza kontu eginaz, hain gauza pentsatua, hain gauza elaboratua, hain gauza..., hori benetan fenomeno arraro bat zen. Sortuko ziren orduan ezagutzen genuen eskolaren imitazioa euskaraz, holako

---

186 LOPEZ MENDIZABAL, I. (1932): **Xabiertxo. Umiei euskeraz irakurtzen erakusteko idaztia**. Lopez Mendizabal. Tolosa. (1.arg.:1925).

itzulpen txar bat, ziur nago egingo zela (...). Bai, bera gabe nik uste ikastolen hasiera, desberdina, askoz ere "bulgarragoa" izango zen, dudarik gabe"[187].

Ikuspegi pedagogiko eta metodologiko batetatik, Zipitria aragoa eta zubia izan zen; aragoa, Eskola Berria, euskara eta euskal kultura (behintzat kulturaren atalen bat), eta gerraurreko euskal eskolaren artean ume euskaldunak hezitzeko eredu zehatza gauzatu baitzuen; zubia, bere lanaren fruitu hori egoera sozio--politiko itxi batetan hazitako zenbait maistra gazteri zabaltzeko ahalmena izan baitzuen.

Dena den, eta honek suposatu zuen aurrerapausua oso kontutan hartuta ere, Europan zein Euskal Herrian 50.eko hamarkadan eman ziren aldaketa ekonomiko arinek marko sozio-poltitiko eta ideologiko eraldatuari bidea zabaldu zioten eta eskolaren formulazioa ere eraginda gertatu zen. Honengatik, Zipitriak hain zehatz helerazitako eskola eredua berritua eta egoerari berregokituta izan zen behin eta berriro, andereño zaharrarekiko tirabirak sortaraziz eta 60.eko hamarkadako ikastolari forma emanez. Euskal eskola herri osoari zabaldu beharrak Zipitriaren ereduari baldintza berriak ezarri zizkion eta etxe eskolen barruan zeuden andereño gutxi horiek bereizten hasi ziren; batzu sortzen hasten zen mugimendu dinamiko eta indartsuan murgildu ziren, beste batzuk Zipitriaren inguruan jarraitu egiten zuten etxe eskolaren eskema eta ideologiari tinko helduta 1969.ean Gobernadore Zibilaren aginduz euskal eskola guztiak legalizatu behar izan ziren arte: "Elbirak jarraitzen zuen bere hamar umetxoekin eta beti berdin jarraitzen zuen; nik neuzkan hirurogeitamabost, eta ehun eta ez dakit zenbat.."[188]. Ordurako ikastolen mugimendua maila nazionalean hedatuta zegoen eta milaka haur euskaldun zein erdaldun euskaraz hezitzen ari ziren.

2.4. EUSKAL HEZIKETAREN BARRUAN BURUTUTAKO BESTE EKIMEN GARRANTZITSUAK

1959.erako Donostiako etxe eskolen esperientziak nolabaiteko gorputza (zazpi ziren orduan zeuden etxe eskolak) hartu bazuen, egia da ere euskal hezkuntzaren inguruko kezka ez zela horretara bakarrik mugatu. Honetaz, gure lan honen xedea ez bada ere, erreferentzia batzu egin nahi genituzke, izan ere, euskal eskola formalaren itxura hartu gabe ume euskaldunen egoera eta aprendizaiari buruzko ardura adierazten diguten ekimenak. Bi izango dira aztertzera ekarriko ditugunak, Nafarroatik bultzatutako "Umeen Deia" eta Baionan IKAS erakundea sortuko zuten ihardunaldi pedagogikoak.

---

187 4. elkarrizketa.
188 3. elkarrizketa.

2.4.1. "Umeen Deia"

"Umeen Deia" Nafarroan argitara ematen hasi zen umeentzako aldizkaritxoa izan zen. 1957. eko abendutik aurrera Nafarroako Foru Aldundiak "Institución Principe de Viana" delakoaren barruan Euskararen aldeko Saila antolatu eta Nafarroan zegoen euskararen egoera aztertu eta bultzatzeko ekintza batzu antolatzen hasi ziren. Era honetara euskal jaiak, bertsolari txapelketak eta umeen artean euskara erabiltzeko sariketak eratu ziren herri desberdinetan[189]. Giro honetan, Aita Felipe Murieta Kaputxinoak, hizkuntzarekiko kezka horrek bultzatuta, "Umeen Deia" egiteari ekin zion; "onela, nere ustez joka bear zan erriaren biotza ikutzeko. Aundien arreta iristeko, aurrak lenbizi gureganatzea zan biderik egokiena"[190].

1897.ean jaiotako kaputxino honek, euskara ama hizkuntza ez zuen arren, berarekiko gogoa eta interesa goiztiarra izan omen zuen eta gazte zela euskara sakon ikasi omen zuen. Ameriketatik ibili ondoren, osasun arazoek jota 1936.ean Lekarotzeko kolegiora bueltatu zen baina berehala desterrura bialdua izan zen: "Bihotz aundi aien artean baziren gizon zittel eta exkaxak ere. Euskaltzale sutua zen eta etzuen estaltzen. Baño nunbait, giza jakintzan aberastasun arrigarria den Euskera, gure errege batek zion "Linguae Navarrorum" ederra jakitea eta maitatzea gaistakeri beltza bezala jotzen zuten garai hartan. Hortik sortu zitzaizkion, beste anai askori bezala, aztapu eta traba aundienak"[191]. 1939.etik aurrera Lekarotz eta Zangotzan bolada batetan egon ondoren Iruñea eta Altsasuko konbentuetan bizi izan zen.

Kaputxino honek euskarari buruz zituen ideiek hizkuntzak jasaten zuen zapalkuntzaren ezagutza eta erreakzionatu beharra adierazten digute. Areilzak esandako ondoko honi: "La fé profunda de nuestra tierra.. se formula también desde la cuna.. Mientras las etxekoandres enseñen a sus hijos a rezar en vascuence, el euskera no morirá", horrela erantzuten zuen Murietak: "Prácticamente tratándose de la conservación del euskera, el aprender en casa a rezar el euskera no sirve de nada, pues sabido es de todos que después, en el colegio, aun tratándose de colegios dirigidos por personal religioso se les prohíbe, e induce, generalmente a rezar en erdera, con las consecuencias que de ello emanan"[192]. Erlijiosoek zuten euskararekiko joera negatiboaren ildotik "Euskera eta monjak" artikuluan monja-ikastetxeetan kolonialismo kulturala

---

189 TORRES, I. (1971): **Umeen Deia**. Claret. Bilbo. Lan honetan "Umearen Deia" aldizkariaren bilduma egin aparte, bere V. atalean "Nafarroako Diputazioaren euskera zabaltzeko lanak: bertsolarien txapelketak eta umeen sariketak" izenekoan egin ziren saio ugarien berri topa daiteke.

190 CLAVERIA, C. (1964): *Umeen Deiaren sortzailea izketan gurekin*. **Zeruko Argia**, 71.

191 TORRES, I. (1971): **Umeen Deia**. Claret. Bilbo. 13. orri.

192 TORRES, I. (1971): **Umeen Deia**. Claret. Bilbo. 30. orri.

gogor salatzen du Murietak, Juan XXXIII-k "Pacem in Terris" entziklikan esaten zuenarekin argudiatuz[193].

Orduan, herrietan desagertzear zegoen euskararen erabilera ziurtatzeko Murietak "Umeen Deia" sortu zuen. 1959.ean hasi zenetik 1966.era, Murieta bera hil zen arte, lau orrialde xumez eginiko 65 ale argitaratu ziren, orotara 1500 idazlan inguru jaso zirelarik. Urte batzu beranduago, 1963.ean "Gu Batxiller Euskaldunok" ere jarri zuen martxan, estudianteen idazlanak argitaratzeko, baina bi zenbaki baino ez ziren egin. Aldizkaritxoak arrakasta haundia izan zuela esan dezakegu. Lehenengo urtearen balantzea (1960.ean) egiterakoan ondoko datuak ematen ziren: "Pasan de 350 el número de trabajos publicados en esta hoja, en su primer año de publicación. De ellos el 55% corresponden a Navarra, el 38% a Guipuzcoa, un 4% Vizcaya y Alava, y el resto a naciones americanas"[194].

Aldizkariaren itxura sinplearen aurrean, lan honek zuen esanahiaz pentsatu behar dugu, hau da, euskara gutxitzen zen garai eta lekuetan umeak, nahiz eta gazteleraz eskolarizatuta egon, euren ama hizkuntzan idazten hasi ziren, eta fruituak hor ditugu idazlan guzti horietan. "Umeen Deia"-k ahalbideratu izan zuen euskal irakurketa-idazketa hau, euskarazko lehenengo alfabetatze prozesu oso baten barruan txertatu behar dugula uste dugu, alegia, ume hauek aldizkarirako idazteak euskararekiko motibazioa zutela demostratu aparte, kasu askotan euskarazko alfabetatze saio ezformal desberdinen partaideak izatearen seinalea dela uste dugu.

Hau frogatu nahiean, umeek idazlanetan ematen diguten informaziora jo dugu, eta ondorio batzu atera ditzakegu. Batetik, 1959-1966 urte hauetan Euskal Herriko herri askotan kristau ikasbidearen bitartez eskolan gazteleraz alfabetatzen ari ziren umeak euskaraz ere alfabetatu zirela ikusten dugu, hau da, alfabetatze prozesu bikoitza bide formal eta ezformaletik. Umeek doktrinari buruz egiten dituzten aipamenak ugari dira, baita bertan aldizkaritxoa hartu edo eman dietela eta idaztera animatu direla (adibidez Lezon: "Ikastola bat daukagu, Kristau--Ikasbidea, eta irakurtzen, idazten eta kontuak erakusten diguna euskeraz"[195] edo Motrikun: "Egunero eskolara joaten naiz; andik irten da Parrokiara, Kristau ikasbide ikastera.."[196]). Beste kasu batzutan, alfabetatze hau, kristau ikasbidetik egin beharrean, eskolatik irten ondoko euskarazko klaseetan egiten da. Hau Elgoibarren (120 ume zituztela agertzen dute informe batetan) edo Ondarrun (40 ume) gertatzen zen, besteak beste, eta "Umeen Deia"ra sarritan bialtzen zituzten

193 Lan bera, 79-82. orri.
194 Lan bera, 47. orri.
195 Lan bera, 215. orri. Sei urtetako ume bik idatzitakoa da. Esaten dutenaz ondoko oharra egin nahi dugu: *ikastola* hitza erabiltzen dutenean eskola esan nahi du, zeren euskal eskolaren esanahia beranduago orokortu baitzen.
196 TORRES, I. (1971): **Umeen Deia**. Claret. Bilbo. 225. orri.

idazlanak. Bereiztu dugun azkenengo kasua eskolan bertan ematen dena da, hau da, nahiz eta gaztelerazko eskolak izan ume euskaldunen euskal alfabetatzea bultzatzen da eta idazlantxoak ere egiten dira: adibide gisa Eibarko "Sagrado Corazón" izeneko kolegioan, edo Betelun: "Gaur ikastetxetik oso alai etorri naiz: maistrak agindu digu Umeen Deia´ra zerbait bialtzeko. Oraindik ere ez dakit zer esan, nik ekarri deten pozakin.."[197], edo Albisturren ume desberdin bik idatzitako bi pasadizuak: "Maistra eta eskola berriak ditugu orain, eta pozik joaten gera eskolara. Maistra euskalduna, ona eta elizkoia daukagu..."; "Orain ez daukagu ikastolara joaterik; lengo maistra toki berrira aldatu zaigulako, eta berriaren zai gaudelako. Ikastola ere berria egiten asi zaizkigu, ta maistra berria euskalduna izango bagendu, poztuko ginateke euskeraz ikasteko"[198].

Hiru bide hauetatik etorritako alfabetatze "ezformalak", kristau-ikasbidean, euskarazko klaseetan eta maistra euskaldunekin eskola normaletan, euskal hezkuntzarekiko lotura bat mantentzeko balio izan zuten eta aldizkariak, kasu honetan, dinamizatzeko eta ume euskaldunak elkarren komunikazioa gauzatzeko oso baliogarria izan zela uste dugu, besteren ezean ere balio omen baitzuen: hona hemen Arrua-Goiako 13 urtetako neskato baten mezu itogarria: "Zerbait bear genduan umetxo euskaldunak euskeraz ez aztutzeko. Bildur naiz neskatxoak galduko ote degun gure errian euskera maitea. Maistrak erderaz lenbailen ikasi dezagun edo euskeraz itz egitea galerazi digu; ta eskolan ez ezik, kalean ere erdera darabilkigu. Jarraitu Umeen Deia guri bidaltzen euskeraz leitzen ta eskribatzen ikasteko"[199].

Esperientzia alfabetizatzaile honek hedapen berezia izan zuen Nafarroan eta Gipuzkoan, eta herriz herriko ikastaldi eta aldizkariaren lanaz aparte, umeei euskarazko azterketak egitea eta saritzea zekarren. Umeen sariketak deitzen ziren horietan etortzen zirenei froga batzu egin eta opariak eman edo ibilalditxoak egitearekin saritzen zituzten: "Azterketa biatrikoa zan; aozkoa eta idatzia. Lehenego, idazlanari ekin zioten: buruz ikasitako ipuin bat idatzi, diktadu labur bat eta antxe bertan emondako iru itaunei erantzuna asmatu. Aozko jarduna ondoren: otoi bat eta abesti edo bertsoren bat esan, ataltxo bat irakurri eta abar"[200]. Nafarroako kasuan, umeentzako saio hauek euskal festetan bertsolarien bidez zabaltzen eta bultzatzen ziren, euskal giroko ekinbide oso bat bezala.

"Umeen Deia" desagertu baino piska bat lehenago eta legeak ezartzen zituen erizpideei egokitzeko, Murietak "Euskal Kontuak" izenekoa sortu behar izan zuen eta iragartzeko honako hau esaten zuen: "Euskal Kontuak. Boletin

---

197 Lan bera, 277. orri.
198 Lan bera, 129. eta 134. orri.
199 Lan bera,147. orri.
200 TORRES, I. (1971): **Umeen Deia**. Claret. Bilbo. 454. orri.

escolar de las Ikastolas del País"[201], eta jarraian, euskararekiko izan zen aldaketa azpimarratuz ikastolen zerbitzura jartzearen proposamena luzatu zuen. Alfabetatzea ikastoletan kokatu zen heinean argitarapen hau ere bertan kokatu beharra ikusi omen zuen. Heriotza, proposamen hau bete baino lehen heldu zitzaion Murietari, baina bide horretatik eta funtsezko eredu berdinarekin jarraitu zuen geroko "Kili-Kili" kanpainak.

Bukatzeko, "Umeen Deia"-k euskal hezkuntzaz luzatzen digun informazioa sortzear zegoen ikastola mugimenduarekin kodifikatu behar dela uste dugu, bere baitan Euskal Herri osoan zehar zegoen euskaraz idazteko eta irakurtzeko behar eta praktika sentitu eta zabal bat adierazten baitizkigu, eta, hauek euskal eskola izango zenaren ezinbesteko oinarriak bihurtu baitziren.

2.4.2. Baionako "Journées Pédagogiques pour l´enseignement du basque" eta IKAS elkartea

1959.eko abuztuan "Euskaltzaleen Biltzarra" eta "Eskual Kulturaren Alde" erakundeek euskararen irakaskuntzari buruzko ihardunaldi batzu antolatu zituzten Baionan, "Journées Pédagogiques pour l´enseignement du basque" hain zuzen.

Ekimen honen abiapuntua, euskarak Ipar Euskal Herriko eskoletan jasaten zuen mesprezu eta bazterkeriagatiko kezka izan zuten, eta, Europan eta Unescok emaniko elebitasunari buruzko erizpideekin bat eginik, irtenbide posible eta armonikoagoak aurkitzea izan zuten helburu. Honelaxe adierazten zuen Louis Dassancek, Ihardunaldi hauetako aurkezpenean: "Malheureusement, bien loin de chercher à utiliser cette dernière (le francais) pour mieux faire pénétrer l´instruction dans les masses rurales, la méthode employée trop souvent pour implanter l´usage de la langue francaise a consisté à livrer una lutte sévère à la langue maternelle, en en prohibant et méme sanctionnant l´usage (souvenez-vous

---

201 Testu osoa jartzea interesgarria delakoan hona hemen:
"BOLETIN ESCOLAR DE LAS IKASTOLAS DEL PAIS.
Desde mediados de 1959, estas "hojas sueltas" de Umeen Deia han realizado 67 vuelos por los aires de nuestra geografia, llevando a infinidad de hogares la fragancia de las flores de nuestro jardín literario, queremos decir, los escritos de los niños de habla vasca, tan espontáneos, tan ingenuos, tan encantadores.
Ello ha podido realizarse merced a la generosidad de algunos mecenas y al esfuerzo constante de nuestros colaboradores, que han servido de mentores a nuestros pequeños redactores. A todos ellos nuestro más profundo agradecimiento.
El camino recorrido no ha sido corto.
Hoy, instituciones públicas y entidades privadas compiten en la estima y fomento del euskera; las emisoras de radio le dan cabida en sus programas, las publicaciones en lengua vernácula se multiplican, surgen ikastolas por doquier. (..)
Umeen Deia se pone a disposición de las ikastolas; envíenos para su publicación los ejercicios de redacción de los alumnos, pídannos los ejemplares que necesiten..."

du signe, délateur, quón appelait aussi chez nous l´anti-basque ou l´anti... et prenai parfois la forme d´un bátonnet: ziria), en la déconsidérant enfin au nom du progrès et de la civilisation, jusqu´à faire naitre chez ceux que continuaient à s´en servir un véritable sentiment de leur infériorité"[202].

Estatu Frantsesean, errealitate berbera hau jasaten zuten beste herri batzuek harrezkero "Mouvement Laique des Cultures Régionales"[203] izenekoa eratuta zeukaten. Ekinbideen artean, ondoko eskaerak azpimarra genitzake: hizkuntz zapalkuntzak zuen eragin negatibo eta kaltegarria azpimarratzea, Europako herrialde batzuek hizkuntz gutxieztuekiko zeukaten jokaera positiboa eredu hartzeko eskatzea eta Unescok "La langue maternelle est pour chacun un moyen naturel d´expression, et que l´un des premiers besoins de l´individu est de développer pleinement sa capacité d´expression" zioen aldarrikapena betetzea. Ildo hauetatik, beraz, lanean hasiak ziren.

Ipar euskaldun hauek, Frantzian eta Europa osoan ari ziren bertoko hizkuntz eta kulturaren defentsa mugimenduekin bat eginda, eta, elebitasunaren beharraz arduraturik, euskal maistra eta maisuengana heldu nahi izan zuten ama hizkuntza errespetatzen zuen hezkuntza praktika burutu nahiean. Ihardunaldiak helburu hau gauzatzeko tresna egokia ziren, zalantzarik gabe.

Ihardunaldi hauetan aurkeztu ziren lanek, hezkuntza elebidunean zenbait esperientziaren bat eginda zeudela adierazten digute (M.Malharin eta S. Narbaits irakasleek gauzatua), baita ikus-entzutekoen bidezko esperientzia bat eta euskal historia eta geografia ikasteko beste bat ere[204].

Ihardunaldi hauetan bildu ziren berrehun bat irakasle guztien artean, gaurdaino iritsi den IKAS izeneko elkartea antolatzea erabaki zen, eta hiru helburu zehaztu zuten sortze momentu honetan, alegia:

"- provoquer, d´encourager, d´aider matériellement et moralement toutes initiatives ayant pour but l´enseignement du basque à l´école et l´enseignement par le basque à l´école;
- fournir à tous établissements d´enseignement public ou privé, les moyens de mettre en practique l´enseignement de la langue basque, son utilisation pour l´étude des disciplines

202 DASSANCE, L. (1959): *Journées Pédagogiques de Bayonne. Avant-propos et programme*. **Gure Herria**. 131. orri.

203 Ihardunaldi hauetan aurkezten den lan batetan gai honi buruzko informazio sakona ematen da: NARBAITS, S. (1959): *L´enseignement du basque à l´école*. **Gure Herria**. 176-186 orri.

204 Ihardunaldi hauetan aurkeztutako hitzaldiak hauexek izan ziren; HAN ZENA (Lafitte); "L´enseignement des langues régionales face à la législation". JAUREGUIBERRY, Mme. "Le disque au service de l´enseignement du basque". GOYHENECHE, E. "L´enseignement de l´histoire et de la géographie locales". LABEGUERIE, M. "De l´intérét psychopédagogique du bilinguisme". MALHARIN, J.M. "Une expérience de bilinguisme à l´école primaire". NARBAITS, S. "L´enseignement du basque à l´école"

traditionnelles, l´enseignement de tout ce qui trait à la culture populaire au Pays Basque (théatre, musique, danse, folklore, histoire, géographie..)
- d´une manière générale, de mettre les enseignants en mesure d´utiliser à l´école la langue basque et tous les éléments de la culture basque"[205].

Beraz, Iparraldean ere hizkuntza eta hezkuntza bikotea ekimen desberdinak egiteko abiapuntua bihurtu zen. Ez dakigu euskara eskoletara hurbiltzeko ahalegin hauek zein alfabetatze motatan itzuli ziren, ez dugu datu kuantitatiborik ere, baina IKASek bere asmo horretan jarraitu zuen[206] eta argitarapen batzu ere kaleratu zituen.

Azaldu ditugun ekimen hauen ondorio gisa zera esan nahi genuke, Euskal Herri osoan zehar 60.eko hamarkadan hain indartsu sortu zen ikastolen mugimendua baino lehenago euskal hezkuntzaren barruan neurri haundiago edo txikiagoan saio desberdinak egiten ari zirela, euskal gizartean zegoen euskararekiko kezkaren seinale borobila zirela, eta hauek, esperientzia ezlotu, isolatu eta desberdin hauek euskal eskola saio berri eta sustraitu bat izateko markoa ezarri zutela. Ekimen hauek, gure aburuz, Donostiako etxe eskolaz gain, maistra euskaldun askok eskola estataletan, era batera edo bestera, umeen euskara errespetatu eta batzutan landu zuten saioak ziren; edota euskal apaizek kristau ikasbidearen bitartez egin zuten umeekiko heziketa lana; edo, era antolatu batez umeen euskal alfabetatzerako prestatu ziren eskolatik kanpoko klaseak.

Saio hauek, ordea, ez zeukaten oraindio euskal eskola izateko behar heineko indar eta nortasunik, baina heziketan euskarazko ahalegin bat egiteko behar sozialaren adierazgarriak dira. Ume euskaldunekin lehenengo alfabetatzea burutzeko beharra, Umeen Deiak erakusten dizkigun praktika desberdinetan edota Donostiako etxe eskolen lanetan antzeman dezakegu, ama hizkuntza errespetatzearen eta elebitasunezko marko orokor horretan. Esperientziak sakabanaturik zeuden, ez zeukaten euren arteko koordinaziorik eta batasunik; egoera sozio politiko zapaltzaile batetan hizkuntz eta kultur nortasuna gordetzeko sortu eta bakoitza bere inguruan bizirauten saiatzen zen, ez besterik.

60.eko hamarkadako ikastolen mugimenduak, ordea, hizkuntzaren kontserbatze funtzio horretatik berreskuratze funtzio batetara eramango zuen eskola; euskaldunak eta gazteleradunak euskaraz alfabetatzera abiatuko zen, hizkuntzaren errebindikazio soziala diskurtso osoaren ardatza bihurtuz. Funtzio aldatze honek kontserbatze funtzioaren murriztapenak gainditzea ahalbideratu zuen, eta murriztapenak esan dugu zeren ahaleginok euskaldunei bakarrik zuzentzen baitzitzaizkien. Ikastolen bitartez, ordea, ume erdaldunen

---

205 IKAS (1959): *Création de l´Association IKAS*. **Gure Herria**. 187-192. orri.

206 VILLASANTE, L. (1961): *Euskal eskola nola ematen dedan*. **Gure Herria**. MALHARIN, J. M. (1961): *Eskuara eskoletan*. **Gure Herria**.

euskalduntzea bultzatzen hasi zenean, oso eragin desberdinak zituen fenomenoaz ari gara: berreskuratzeak kontserbatze funtzioak eraginda ez zeuden sektore sozial berriak bereganatzea suposatzen zuen, beraz, zabalkunde lana. Baina helburua hori izaki, elkarlan amankomun eta hedatua inposatzen zen eta, horretarako, elkarren arteko koordinaketa funtsezko bihurtu zen.


Ikastolek, etxe eskolak ez bezala, mugimendua osatu zuten zeren hastapenetatik "proiektua zabaltzeari" ekin behar ziotelarik elkarlanean hasi baitziren, egitura ez formalez osatuta baina eraginkorra zen elkarlana. Mekanismo hauek oso hasieratik zehaztu ziren eta F. Basurkok deitzen duen *ikastola konzientzia*[207] sortzeko eta birsortzeko eraginkorrak izan ziren.

---

207 BASURKO, F. (1989): *La normalización de la ikastola: breve historia y estado de la cuestión de la escuela pública vasca*. **Historia de la Educación**, 8. Salamanca.

III. ATALA

ETXE ESKOLA KONTZEPTUAREN DINAMIZAZIOA: IKASTOLEN MUGIMENDUA



Amorotoko maisuak ume bati agindutako zigorra.
Zeruko Argia, 377. zbk. 1970

III. ATALA

ETXE ESKOLA KONTZEPTUAREN DINAMIZAZIOA: IKASTOLEN MUGIMENDUA

60.eko hamarkadan Euskal Herri osoan jaiotzen den gertakizun eskolar berria ulertzeko gizartean jokatzen ari ziren koordenada politikoak eta kulturak aztertzea derrigorrezko zaigu. Garai honetan, beretzat Ikastola[208] izena hartu zuen euskal eskola saio hau gizarte dinamikan guztiz txertatu zela esan dezakegu, euskalduntasunaren eraldaketa modernizatzailearen aldagai garrantzitsu horietako bat bihurtu zelarik. Ikastolak, bere baitan, ideologi desberdinetako jendeak bildu zituen eta euskararen aldeko defentsa eta berreskuraketa prozesu orokorrago batetara isuri zituen, nonbait erresistentzi mugimendua deitu ohi den horretara. Ikastola nortasun osoko talde eragile bezala azaltzen zaigu euskal gizartean, dinamikoa, dinamizatzaile eta berritzailea den hezkuntza saiakera: "Los centros de enseñanza en lengua vasca (ikastolas) se presentan, desde una perspectiva socioantropológica, como un fenómeno singular, que se ha convertido en institución clave de la cultura euskaldun contemporánea, con lo que ello supone de: grupo específico (de interacciones y relaciones sociales diferenciadas), norma (de pautas y "patterns" reconocidas colectivamente), referente culturalmente identificado (de codificación de todo un sistema de valores-pautas)"[209].

Sortzen den ikastola gainera, etxe eskola ez bezala, proiektu koordinatu gisa eratuko da. Ikastolak inongo planifikaziori erantzuten ez dioten arren, elkarren artean komunikatzeko eta koordinatzeko joera goiztiarra azaltzen dute, eta elkarlan honen bitartez izaera amankomun eta bateratua eskuratzen dute.

---

208 60. hamarkadako euskal eskola mota hau sortu arte, “ikastola” hitz hau esanahi desberdinekin erabili izan da, gehien bat euskarazko ikas-saioak izendatzeko, edo, euskaraz mintzatzen ari denean “kolegio” hitza adieraztzeko. Aztertu dugun Umeen Deiaren idaztietan argi ikusten da hitz honek ordura arte zuen erabilera zabala.
60. hamarkadan suertatutako euskal eskola saio honek hitzaren esanahia murriztu egingo du, eta orain aztertuko dugun eskola beroni emango zaio soilik. Era honetara, errealitate eskolarra izendatzeko hitz espezifiko eta zehatzen erabilera (eskola, ikastetxea...) finkatzen da, ikastola hitza hemen aztertuko dugun fenomenoari bakarrik ezartzen zaiolarik.

209 ARPAL, J., ASUA, B. eta DAVILA, P. (1982): **Educación y sociedad en el País Vasco**. Txertoa. Donostia. 44. orri.

Biziraupena bera ziurtatzen dien elkarlan honek, denborarekin egitura formalagoaren itxura hartzen duen neurrian, gizartean bloke bezala agertzea suposatzen du, beste dinamikek aberasturik eta era berean beste dinamika sozial batzu bultzatzen dituen blokea. Ezaguna da, ildo honetan, ikastolek gau eskolen sorrerarekin izan zuten lotura estua, baita euskal kantagintza berria beraren bultzadan, edota euskal liburugintzaren sustapenean ere. Arrazoi honengatik ikastolen *mugimenduaz* hitz egiten dugu, funtzionaketaz herri bakoitzak bere autonomia osoa izanik ere maila nazionalean batasunez agertzen den fenomenoa baita, euskarazko heziketa gorpuzten duen mugimendu alternatiboa.

3.1. IKASTOLAREN KOKAPENA: KOORDENADA POLITIKO ETA KULTURALEN AZTERKETA

60.eko hamarkada maila desberdinetako aldaketek markatua jaio zela esango genuke. Hego Euskal Herrian zein Estatuan gerraosteko lehengo epe baten bukaera, eta ezaugarri berriak hartzen dituen beste epe bat zabaltzen da.

Estatuari dagokionez, frankismoaren lehengo momentua autarkia epea zela esan badugu, gerra hotzaren hasierak eta Europako estatuen aldetik etorri zen erregimenaren desblokeo eta onespenak ekonomiaren abiatzea ekarri zutela azpimarratu beharko genuke, epe teknokratikoari hasiera emanez. Desarrollismoaren ideologiak eta eredu teknokratikoak Estatuaren modernatzera bideratu zituzten ahalegin guztiak, entrepresa pribatuaren printzipioak (arrazionaltasuna eta eraginkortasuna) sektore publikora ekarriz eta askatasun politikoaren erantzunkizunak askatasun ekonomikoekin trukatuz: "Se perfila así una nueva ideología que oculta su nombre pero que, en cambio, defiende nuevos valores que a la larga impregnan el ambiente: la exaltación del consumo de bienes y servicios, el desplazamiento del "político" por el "técnico" o el "experto", la formación de una amplia clase media que sirve de "colchón" entre las clases tradicionales de caracter histórico, el crecimiento del nivel de renta como elemento del sistema productivo, etc."[210].

Makroegituraren aldaketa guzti hauek hezkuntza sistemaren antolakuntzan ere nabaritu ziren, zeren ordura arte heziketa "kontsumo" bezala ulertu izan bazen ere, hazkunde ekonomiko hau ematen hasi zenetik aurrera "inbertsio" bezala ikusten hasi baitzen[211]. Era honetara, eta ekonomiaren halabeharrez, garapen

---

210 PUELLES, M. (1980): **Educación e ideología en la España contemporánea (1767-1975)**. Labor. Bartzelona. 399. orri.

211 Europan 60. hamarkadan, hezkuntzari printzipio ekonomikoak aplikatzearen ondorioz suertatu zen hezkuntza planifikazioaren hastapenak, garapena eta ondorioetaz ikus:

planeei egokitutako eskola eraikuntza planak eta hezkuntzaren zabalkundea plazaratu ziren, eskolatzearen orokortzera abiatuz. Eskolatze honek, erregimenaren ideologiaren egokipen batzu ekarri zituen, eta Europa eta EEBBetako giro intelektual eta pedagogiko batzutan zerabiltzaten positibismo eta funtzionalismoa nagusitu ziren, batez ere Estatuaren gune ideologikoak ez zituelako ikutzen eta garapen ekonomikorako lagungarriak zirelako: "En el orden estrictamente pedagógico, los aparatos empleados por la Administración para modernizar la escuela mostraron una enorme sensibilidad para asumir los patrones de innovación tipicamente neopositivistas: especial atención a las ciencias empíricas y a las tecnologías relacionadas con los procesos de producción, enfoques sociológicos de corte funcionalista, renovación metodológica fundamentada en psicología conductista y en los planteamientos derivados del activismo, la enseñanza programada o los medios audiovisuales, racionalización de los sistemas organizativos siguiendo criterios técnicos y económicos..."[212].

Eredu teknokratiko hau, hezkuntzaren munduaz gain, hizkuntz politiketan ere isladatu egin zen, hizkuntz nazional guztiak erabat zapuztu eta ukatzetik, errealitate periferikoetatik ekoizten ari ziren gertakizun kultural eta eskolarrak (batez ere Hego Euskal Herrian eta Katalunian) asimilatzerako joerak agertzera pasatuz. Boteretik zetozen joera hauek, hizkuntz nazionalak "Espainiak zuen altxor kulturalaren adibide" testimonial gisa hartzera zihoazen, ez inolaz ere beroien defentsa edo laguntzera, eta, bere testuinguru horretan ulerturik, Estatuak artez gainditu ezin zituen errealitate periferikoak zeharka moztera zuzentzen zela nabarmen dezakegu. Ninyolesek horrela laburtzen zuen: "Como ya he dicho, es a mediados de los cincuenta cuando empieza a abrirse una nueva política lingüística de signo tecnocrático, en la que comienzan a tolerarse ciertas formas de expresión cultural en las lenguas no oficiales. Superado en parte el periodo de represión de la postguerra, en el que el hecho lingüístico es negado y combatido abiertamente, adviene una nueva etapa de minimización e intento de integración jerárquica. Este nuevo periodo va cristalizando lentamente hasta comienzos de la década de los sesenta –convencionalmente, con la mayor liberalización del ministerio de Fraga en 1962–, para presenciar en esta década y en la siguiente un enorme resurgimiento de la actividad cultural periférica"[213]. Hala ere, Hego Euskal Herrian, eredu teknokratikoaren irekidura txiki hau hutsaren hurrengo gelditu

---

HALLAK, J. (1990): *El planeamiento de la educación: algunas reflexiones retrospectivas y perspectivas.* in (arg.): **Prospectiva, reformas y planificación de la educación. Documentos de un debate**. Santillana. Madrid; GARCIA GARRIDO, J. L. (1990): *Las políticas educativas en transición.* in (arg.): **Prospectiva, reformas y planificación de la educación. Documentos de un debate**. Santillana. Madrid.

212 ESCOLANO, A. (1989): Discurso pedagógico, modernización técnica y pedagogía crítica durante el franquismo. **Historia de la Educación**, 8. Salamanca. 14. orri.

213 NINYOLES, R. **Cuatro idiomas para un Estado**, Cambio 16, 1977 in TORREALDAI, J. J. (1982): Euskararen zapalkuntza (1936-1939). **Jakin**, 24.

izan zen behin eta berriro, ekintza kulturalak hartu zuen esanahi politikoagatik, eta ikusiko dugun bezala, sarritan errepresio polizialak kolpatua gertatu zen.

Baina Estatuaren egitura ekonomikoaren aldaketa hauek suertatzen ari ziren bitartean, baziren Euskal Herriari zehazki zegozkion beste aldaketa garrantzitsu batzu ere, zeintzuen arabera, eta beti ere maila ekonomikokoekin harremanduta, euskal gizartearen modernatze prozesua martxan jarri baitzen. Aldaketa espezifiko hauek, azterketari begira, bi mailatan bana genitzake, maila politiko ideologikoan eta maila kulturalean, baina errealitatean mailok oso nahasirik eta etengabeko harremanean sarturik ulertu behar ditugularik. Are gehiago, bata bestearen baldintza dela esango genuke, banaezinezkoak bailiren: "..faktore hertsiki kulturalak bezain eraginkor, edo eraginkorrago, sozio-politikoak dira. Eta zentzu honetan, nazionalismo iraultzaileak, kultura politizatzean, dinamika berri batean sartzen du euskararen gizarte-mobilizazioa. Mugimendu politiko honek ahalbideratzen du, funtsean, euskararen berreskurapen soziala"[214].

Euskal Herrian hasi ziren maila politiko ideologikoko aldaketak, nazionalismo berriaren sorrerarekin lotutakoak izan ziren. Aurreko kapituluan EKINen agerpenaz aritu izan gara, baita nazionalismo historikoarekin izan zituzten gorabehera eta tirabiretaz. Hauekiko erabateko apurketa gauzatu zenean, euskal historia modernoa ezaugarritzen duen ETA erakundea eratu zen. Erakunde politiko honen sorrerak, Aranak ezarritako pentsamendu nazionalistaren birformulaketa ekarri zuen, lehenengo garaian arrazak betetzen zuen tokia etniak eta hizkuntzak bereganatu zutelarik. Era honetara hizkuntzak oinarritu egiten du nazioa, eta hizkuntzaren ikuspegitik abiatzen da nazioaren eraikuntza. Txillardegik, ETAren sortzaileetako eta hizkuntzaren funtsezkotasuna oinarritu zuenetakoa, horrela adierazten zuen 1966.ean "Horiek horrela hau esan dugu: euskerak hortaratu duela Euskal Herriaren oiñarrizko izakera edo nazio-jite berezia. Baiña hau, asko izanagatik ere, ez da dana. Ondoko lerroetan agertuko dan bezala, hizkuntzak ematen baitu ere herritasun-giroa, herritar-kontzientzia, ahaidetasun-ustea, herri-kidetasuna, edo aberkide-anaitasunik iraunkorrena"[215]. Kontzeptu dinamiko honetatik, euskalgintza eta nazio eraikuntza bat eginda agertuko zaizkigu, herri nortasuna eta hizkuntz nortasuna bana ezinezko errealitate gisa, eta bidenabar euskalduntzea, edo euskararen ikaskuntza-irakaskuntza, ekintza politikoaren oinarrizko tresna.

Nazioaren muinaren lekualdatze honek, arrazatik hizkuntzara, berebiziko garrantzia du, zeren nazionalismo tradizionalean euskalduna izatez eta odolez (*euskaldun jaio*) baitzen, formulazio berrian euskalduntasuna eskuratu daitekeen

---

214 ARREGI, P. (biltz.). (1992): **Euskal Alfabetatzearen azterketarako lehen urratsak. 1960-1990**. argit. gabe. 56. orri.

215 TXILLARDEGI (1966): *Hizkuntza eta Herri-kidetasuna*. Branka, 2.

bitartean (*euskaldundu*): "Cabe añadir que la sustitución del concepto de raza por el de etnia establece un desplazamiento de las coordenadas biológicas, genético--hereditarias, en favor de las coordenadas lingüístico-culturales. En resumen, se produce una sustitución de la idea de grupo social, que mantiene particularidades físicas hereditarias homogéneas, por el de grupo social, cuyos miembros participan en la misma cultura. La homogeneidad de las particularidades físicas es sustituída por la homogeneidad cultural, cuyo pilar básico es la lengua"[216]. Hau funtsezkoa da ikastolen mugimendua ulertu ahal izateko, alegia, ikastola ez da soilik euskaraz egiten den eskola, baizik eta herri nortasuna eta nazioa oinarritzeko eta finkatzeko sortu egiten den baliabide bat; ikastolan parte hartzea, euskal eraikuntzan aritzearen sinonimoa da, eta argi daude honek dituen inplikazio politikoak.

ETAk, ekarpen ideologiko hau aparte, beste bereizitasun batzu ere ekarri zituen. P. Iztuetak[217], hizkuntzarekin batera, ETAren beste bereizgarri zerak seinalatzen ditu: borroka armatuaren erabilera (1965.etik aurrera indartu eta 1970.eko Burgoseko Auzian gailurrera heldu zelarik), sozialismoaren hautapena (honek, nazionalismo tradizionalak ez bezala, langileen interesak eta etorkinak nazio borrokan kontutan hartzea suposatu zuelarik) eta "euskal lurralde osoaren askatasun nazionala helburutzat" harturik independentziaren aldarrikapen berria.

ETA, Euskal Herriko maila politiko ideologikoko berrikuntza bezala hartu badugu, badugu ere koordenada kulturalaren azterketa egin beharra, 60.eko hamarkada hau ezaugarritu ahal izateko. Bi koordenada hauek bereiztea zaila izaten da batzutan, goian esan dugun guztiagatik, eta muga zehatzak analisietan bakarrik ezarri ahal izango ditugu.

Koordenada kulturalari dagokionez, 1956. urtea giltzarritzat hartua izan da, orduan Pariseko Munduko Euskal Biltzarrea[218] eta Arantzazuko Bilera ospatu baitziren. Lehenengoan, PNVren erbesteko estrategiaren porrotaren ondoren, belaunaldi gazteak, beste ahots batzurekin batera, euskal instituzioek euskararekiko zeukaten axolakabekeria salatu zuten, urte batzu beranduago Krutwigek "Vasconia" (1962) liburuan idatziko zuen bezalaxe: "han llegado los seguidores del nacionalismo a convertirse en los más abominables enemigos de la

---

216 JAUREGI, G. (1981): **Ideología y estrategia política de ETA**. Siglo XXI. Madrid. 160. orri.

217 ARREGI, P. (biltz.). (1992): **Euskal Alfabetatzearen azterketarako lehen urratsak. 1960-1990**. argit. gabe. 42-58. orri.

218 PNV-k Parisen 1956. urtean eratutako "Congreso Mundial Vasco" deritzonari buruz ikus: BELTZA (1977): **El nacionalismo vasco en el exilio (1937-1960)**. Txertoa. Donostia. 80. orri. (ikuspegi politikotik), eta, TORREALDAI, J. M. (1981): *JAKINen historiaurrea: abertzaletasuna eta euskara*. **Jakin**, 21. 42-50. orri. (hizkuntza eta kulturaren ikuspegitik).

lengua vasca"[219]. Arantzazuko Bileran, ehun bat euskaltzale bilduta, euskara batuaren beharraz eta hizkuntz normalkuntza euskara zaharrean oinarritu beharraz eztabaidatu eta erabaki izan zen, hizkuntz batasunaren bidean funtsezko erabakiaren aurrekari gisa.

Batasun hau, berriz, ez zen erreza izan, zeren bertan proposamen kontrajarri bi azaldu baitziren: batetik, joera garbizalea aldarrikatzen zuena, eta bestetik, erdera eta erro greko-latinotik hitzak hartzearen aldekoa zena. Bi jarrerok konponezin bilakatu ziren, baita kulturaren beste maila guztietara hedatu eta konponezinak sortarazi ere. Errotiko diferentzia ez zen huskeria, ez horixe, zeren bata zein bestea nazionalismo tradizionala eta berriaren ispiluak baitziren, eztabaidetan munduaren ikuspegi erabat desberdinak nahasten zirelarik. Txillardegiren esanetan: "Arantzazun nabaritu ziren *bi joerak*, gero eta nabarmenago agertu zirenez, Euskal Herriari buruzko *bi ideia* desberdin zeramaten hondoan: *Batuaren* aldekoa bata, *euskalkien* aldekoa bestea; *gaurko gizartean* euskara sartzearen aldekoa bata, euskara "garbi" hura *antzineko gizarte* "garbiari"(?) lotuta uztearen aldekoa bestea; *aurrerazalea* bata, *atzerazalea* bestea. Nahiz 25 urte hauetan, puntuzko bat edo beste "bandoz" aldatu bada ere"[220].

Literatura berrian ere iskanbila honen susmoak agertu ziren, literatura, hizkuntza, politikagintza eta diferentzia pertsonal zein belaunaldikoak bertaratzen zaizkigula: "Euskal literatura berria hasi zenean, nobelan eta poesian batez ere (Txillardegi eta Arestiren inguruan), euskal kulturaren "establishment" guztia, Orixe buru, kontra jarri zen: "erri baten erikeriak" aurkitu ziren nobela berrien ideietan, edo, Orixe-ren hitzak gogoratzeko: "Barrenak ez dit agintzen ixillik egotea, liburu onek ("Peru Leartzako"-z ari da) gazte-jendearen artean egin dezaken kaltearengatik". Ondoren etorri ziren idazleek harrera bera izan zuten. Eta Euskara Batuaren aldeko prozesua bera, "komunisten" jokoa izan delakoan (eta joko horretan extremistenek Aita Villasante bera salatu dutelarik!), gaizki hartua izan zen"[221]. Euskal hezkuntzaren barruan, gertakari sozial bezala oso murritza izanda ere, Zipitria eta andereño gazteen artean egongo zen etena Txillardegik aipatzen digun marko berdinean kokatu beharra dugu, diferentziek

---

219 TXILLARDEGI (1984): **Euskal kulturaren zapalketa. 1956-1981**. Elkar-AEK. 41. orri. Krutwigek ETArekin izan zuen harremana kontatzen duen elkarrizketa luze bat aurki dezakegu Muga aldizkarian (MUGA (1979): *Reportaje. Federico Krutwig.* **Muga**, 2.). "Vasconia"n egiten duen ekarpen teorikoak ezinbesteko lotura atxekitzen dio borroka armatuari: "Nadie puede negar el papel realizado por ETA. Es más, si hoy se habla euskara en este país, yo pienso que es gracias a ETA. La gente tan sólo habla la lengua de los vencedores, no acepta los símbolos de los vencidos. ETA, si bien no ha ganado, ha demostrado lo que era preciso demostrar: que este pueblo no está muerto y que quiere vivir, y esto ha dado una enorme moral al pueblo vasco" (66. orri.).

220 TXILLARDEGI (1984): **Euskal kulturaren zapalketa. 1956-1981**. Elkar-AEK. 45. orri.

221 Lan bera, 47. orri.

eskola eta hezkuntza bi ikusmolde desberdinetan (etxe-eskola eta ikastola) gauzatzearen ondorioa ekarri zutelarik.

Euskara batua aipatzen dugunean, proposamen honek zituen inplikazio guztietaz ondo ohartzea ondo litzateke, zeren euskara idatzia eliteen ezagutza eta ekoizpena baino ez baitzen, eta hizkuntzei atxiki ohi zaien "kultur-hizkuntza" izeneko statusa, ez baitzegokion euskarari. Izan ere, euskara ahozkotasunean ainguratuta zegoen, eta normaldutako beste hizkuntzen pareko izateko, alfabetatzeari ekin behar zitzaion, honek goi kulturan eta zientzian behar zen maila eskuratzea ahalbideratuko zitzaion eta[222]. Euskararen modernatze behar honetaz, Rikardo Arregiren ekarpena funtsezkoa izan zen. Gazte belaunaldikoa izaki, beraren izkribu, hitzaldi eta ideiak errez onartuak izan ziren sektore euskaltzaleen artean, batez ere aurrekoarekin apurtu eta euskal gizartea berritu beharra sentitzen zutenen artean.

Rikardo Arregik, euskal kulturaren historia aipatzerakoan, 1960. urtea hartzen du mugarri, batetik Estatuko aldaketa ekonomikoak direla medio (Plan de Estabilización y Plan de Desarrollo[223]), eta bestetik belaunaldi berriaren ekarpenagatik: "Eta ez da kasualitate hutsa gizartean horrelako aldakuntzak gertatzea, eta euskal kulturara –hau da, euskal literaturara, euskal pinturara, euskal abestira, euskal antzerkira etab.– belaunaldi berri bat iristea"[224]. Euskal gizartea eta kultura azterturik, kritika zorrotza egiten zien gizarte industrializatu batetan proposamen erromantiko eta "ruralistekin" jarraitu nahi zutenei. Izan ere, hain sonatua izan zen *Euskaltzaleen Jainkoa hil behar dugu* artikuluan, Arregik nazionalismo tradizionalean mamitzen zen "Jaungoikoa eta Lege Zarrak" gogor salatzen zuen, Jainko hori faltsua zela eta hil egin behar zela argudiatuz:

---

222 Testuinguru honetan Estatu Espainolean Gobernua gaztelerazko alfabetatze kanpaina garrantzitsu bat bultzatzen ari zela gogoratu behar da. Honela, 1963.eko irailan eta Munduko Bankuak langile ezjakinen masak langile espezializatuak bihurtzeko aholkua eman ostean, 5.500 helduen eskola sortu ziren alfabetatzeko helburuarekin: "Se forzó a los analfabetos a alistarse en las escuelas de adultos con coacciones fuertes: el Certificado de Estudios Primarios era indispensable para formalizar contratos laborales, para cualquier cargo en todo tipo de administraciones (barrendero de un pueblo, por ejemplo), para ejercer el derecho a voto, para disfrutar de campamentos, albergues o residencias oficiales, obtener pasaportes o licencias de caza o pesca, percibir prestaciones económicas de la Seguridad Social o hacerse cargo de parcelas concedidas por el Instituto Nacional de Colonización... Los gobernantes podían imponer multas de 50 a 500 pesetas a los analfabetos recalcitrantes y de varios miles a los empresarios que no cumplieran con sus obligaciones". NAVARRO, R. (1990): **La enseñanza primaria durante el franquismo (1936-1975)**. PPU. Bartzelona, 228. orri.

223 Zehaztasunetan sartu gabe, politika ekonomiko honek Estatuaren abiada ekarri bazuen ere, Euskal Herriko ekonomiarako ondorio kaltegarriak izan zituela aipatu behar dugu. Adibide gisa, Foessa Informearen datuen arabera, 1955-1967 tartean "errenta per capita"ren bilakaeraren datu batzu: *Pais Vasco (-57), Navarra (+7) Madrid (-7), Barcelona (-12), Baleares (+22), Murcia (+10)*.

224 ARREGI, R. (1972): *Euskal Kultura.* in TORREALDAI, J. M. (arg.): **Herriaren lekuko**. Jakin Liburu Sorta, 6. 219. orri.

"Euskaltzaletasunean, beraz, euskaldunen eta baserritarren arteko identifikazioa gisa bat izango da. Eta errealidade guzti hortan bildua Jainkoa? Zein Jainko ordea?.
Benetako euskal izaera ta gizartea nekazaritzan edo igarotako garaietan dagoela usteko da. Garai horiek erabat idealizatuak izango dira noski. Gizarte hori horrelakoa izatea Jainko batek nahi izandakoa dela. Jainko hori izango da gizarte hori horrela izatearen esplikazioa. Gizarte era honen kontra joatea Jainkoaren kontra joatea. Eta aldrebesean berdin. Euskeraren eta erlijioaren burruka berdinak. Euskararen atzera joatea erlijioaren atzera egitea. Gauza berriak pekatagarriak. Lotuan dantza egitea, soinu berrietan dantzatzea, pekatu. Maketoen gauzak, esango da, maketo hitzarekin adierazi nahi den desprezio guztiarekin. Gure ohitura, "garbiak". Kanpotik datozenak, sortzen ari diren berriak, lizunkeriz beteak eta zikinak. "Gure ohitura garbiak" izango da idazle ta hizlarien esanetan ugariena azalduko direnak. Euskaldunak zergatik geran galdetzerakoan, Jainkoak horrela nahi izandu duelako erantzungo da. Ta Jainkoaren nahi hori betetzea besterik ez zaigu tokatzen (...).
Postura honek ez du batere sentidurik gaurko euskal gazteriarentzat. Lehenago esan den bezala hau erabat industriatutako gizartean bizi da ta honelakoetan izaten den mentalitatearen kide da"[225].

Honi aurre egiteko kontzientzia berri bat sortu beharra azaltzen du Arregik: "Euskaltzale berria gizon erreboltatua izango da. Euskaldungoa ber-asmatu beharko da. Euskaldunaren gizongintza ez da izango lehengo gizartearen gisara moldatzea, sortu eta izateratu beharko dena baizik"[226]. Kontzientzia sortu eta erreboltatu, gure baitan egon behar duen amorrazioak bultzatuta borrokatu: "Gu, ostera, Euskal Herria noski, Herri erreboltatu bat gara. Bizi garen kondizioetan Herri erreboltatu bat izateko ahalmenik ez badadukagu, gureak egin du. Gure arrazoiak, gizatiarrak direnez eta ez makinarenak, arrazoi beroak dira. Amorrazio bizian bizi beharko genuke. Horretxek bakarrik eman lezaiguke, egin behar dugun borrokarentzat derrigorreko dugun ausardia eta zaletasuna (...). Lotsarik gabe azaldu behar da, amorrazioan bizi garela. Gure arrabioak ez digula sosegurik ematen. Eta arrabio horren berotasuenan egiten dugula borroka, berotasun horregaz jaso nahi dugula mundu berri bat. Horregaz Euskal Herria berregin nahi dugula"[227].

Berrikuntzarako ahalegin hau, ordea, ez zen debaldekoa, zeren ematen ari zen momentuan euskal kultura eta hizkuntzaren biziraupena bera kolonkan baitzegoen. Dilema "berritu ala hil" hitzetan laburtu daiteke. Berritze horretako zutabeak alfabetatzean eta argitalgintzan zehaztu zituela, euskal kultura bere osotasunean hartzen zuen aldakuntza orokorrari emango zitzaion hasiera: literatura, hizkuntzaren batasuna, pintura, eskultura, kantagintza... eta hezkuntza bera ere, zeren Arregik aldarrikatzen zuen berritze horretan ulertu behar baititugu

---

225 ARREGI, R. (1971): *Euskaltzaleen Jainkoa hil behar dugu.* in TORREALDAI, J. M. (arg.): **Rikardo Arregi**. Jakin Sorta, 3. 123-124 orri.

226 Lan bera, 124. orri.

227 ARREGI, R. (1972): *Amorrazioa.* in TORREALDAI, J. M. (arg.): **Herriaren lekuko**. Jakin Liburu Sorta, 6. 233-234 orri.

60.eko hamarkadan sortzen diren ikastolak eta eskola ideologia berria. Berak, alfabetatzearen bultzatzailea izan zen heinean, harreman estuak izan zituen ikastolen mugimenduarekin, eta bere pentsamenduaren eragina oso nabaria izan zela azpimarratu behar dugu, elkarrizketatuek esan diguten bezala.

Hala hola, 60.eko hamarkada honetan euskalgintzan eskolak jokatzen duen paper garrantzitsua gizarteratzen da (Gipuzkoan eta Bizkaian batez ere). Garrantzia herri dinamikan zein idatzitako artikuluetan aurkiturik, teorizazioa eta praktika batera dialektikoki ari zirela pentsatzera eramaten gaitu: "Eskola da lehenego urratsa. Eskola, eta eskolaren ondoren daudenak. Eskola esatean, betebehar gaitz dugula esan behar da. Euskaltzale batzuk, dirudienez, oso lasai gelditzen dira; eta eskolaren eginkizun hau teknika hutsaren xehetasun ttipi batzuen gorabehera dalakoan, pentsatu ere ez dute egiten gure hizkuntzaren altxatzea guztion arazo ZAIL bat dala (...). Baina bete beharra ez da erreza, ez dugu tradiziño bat, gure intelektualek aspaldidanik utzi zuten euskara alde batera, eta gure administrazioa ez da sekulan ere izan euskaraz. Gure literatura eta gure herriaren ahotan bizi dan hizkera, aztertu egin behar da: hau oraindik egiten ez duen euskaltzaleak ez du euskaltzale izena merezi"[228].

Hamarkada honen azterketari ezin genioke bukaerarik eman, euskal gizartean sortu zen beste gertakari berritzaileaz zerbait esan gabe, alegia, frankismoaren garaiko euskal apaizgoaren nortasuna eta eragin sozio-politikoa. Aurreko kapituluan, Elizaren sektore batek euskaltasunaz izan zuen kezka eta herriarekiko harreman estua azpimarratzen genuen. Frankismoan ezaugarri hau, ez bakarrik mantendu baizik eta eraberritu egin zela esango genuke, sarri askotan Estatuaren eta Eliza beraren gaitzespena eta zigorra jasoz. Euskal apaizgoaren erantzun protestaria, 1950.ean "Egiz" aldizkariarekin hasi zen arren, 1960.ean Donostia, Bilbo, Gasteiz eta Iruñeko Gotzaiei igorritako *339 Apaizen Idatzia*rekin bizkortu zen, pulpitotik eginiko salaketa praktikak ondorio bezala ekarriz: "Si se mira al contexto en que nació el documento, se comprueba que, desde 1960, la réplica de los sacerdotes inagura una nueva etapa: la de denuncia *profética* utilizando al efecto el púlpito. Es una de las características de este periodo, método de contestación ampliamente usado en Vizcaya y Guipúzcoa"[229]. Euskal apaizgoak, Euskal Herriak jasaten zuen zapalkuntza politiko eta kulturalaren salatariak bihurtu eta orain arte deskribatu dugun euskalgintzan ere biziki hartu zuen parte (honen islada, besteak beste, "Jakin" aldizkarigintzan, Lazkaoko Benediktiarren eragina alfabetatzean edo ikastolagintzan, euskal katekesiak edota ekintza politikoetan), atzeko marko orokorrago batetan Juan XXIII Aita Santuak

228 TXILLARDEGI (1967): *Gure eginkizunaz*. **Jakin**, 24. 5. orri.

229 IZTUETA, P. (1981): **Sociología del fenómeno contestatario del clero vasco. 1940-1975**. Elkar. Donostia. 150. orri.

Concilio Vaticano II-aren bitarteko aire berriak zituztelarik[230]. Apaizen erantzuna gero eta indartsuago bilakatu zen, dinamika soziala eta politikoa gora zihoan batera (Txabi Etxebarrietaren hilketa, Manzanas poliziaren kontrako ekintza armatua, Gipuzkoan ezarritako salbuespen egoera, apaizen gartzelaraketak..), adierazpenik kementsuena Derion 1968.ean 60 apaizek hilabete oso batean buruturiko Seminarioaren itxialdia izanik.

ETXE ESKOLA	IKASTOLA
Euskalduna	Euskalduna
Nekazal giroaren defentsa	Hiritartzea eta modernatzea
Hizkuntzaren kontserbatze funtzioa	Hizkuntzaren kontserbatze eta berreskuratze funtzioak
Baserriko hizkera	Euskara batua
Arraza, erlijioa, ohiturak eta hizkuntza ## Nazioa	Hizkuntza ## Nazioa
Erlijiotasuna	Sekulartutakoa
Emakume sareak	Mixtotze prozesuak
Andereñoa ## Ama funtzioa	Andereñoa ## Eragile soziala. Emakume berria
Eskola ## Familiaren luzapena	Eskola ## herrigintza

Etxe eskola eta ikastolaren arteko konparaketa koadroa

Orain arte aipatu ditugun aldagai guztiek eragin zuten ikastolaren sorrera eta bilakabidean. Ikastola etengabe aritu zen kulturaren beste arloekin elkar trukaketan, nahiz eta berau lehenen azalerazi, gehien indartu, eta euskal kultur berriaren proiekturako efektu biderkatzaile ugarien ekoiztu zuena izan. Hamarkada osoan zehar, gero eta ugariago eta esparru zabalagoan hedatuko ziren, euskal gizartea maila ekonomikoan, politikoan, kulturalean eta ideologikoan dinamika bizia ari zen bitartean. Prozesu zabal honek, maila politikoarekin oso lotuta zihoan neurrian, goia jo zuen Burgoseko epaiketarekin,

230 Juan XXIII.aren eskutik euskal apaizen artean oso eraginkorrak izan ziren entziklika bi aipatu behar ditugu: arazo sozialetaz hausnartzen zuen “Mater et Magistra” (1961) eta bakeaz eta nazioarteko harremanetaz ziharduen "Pacem in Terris" (1963).

ikastolen hazkundearen ondoriozko egoerak tentsioak eta egokitze berriak inposatzen zituen bitartean. Bertatik, ikastolen instituzionaltze prozesua hasten dela esango genuke, beti ere herrialdez herrialde desberdintasun sakonak daudela azpimarratuz. Dena den, euskal kulturaren modernatzea martxan zegoen eta Satrustegik esaten duen bezala ".. munduan nagusitu den aize boladak oiñarri emanez, arnas berri sendi da gure artean. Herriaren oinazeak iñoiz bezain garbi abesten dira. Geure egoeraz jabetuz goaz eta asko esnatu gera. "Pernando Amezketarra" beste irakurgairik etzuen Eskual-Herriaren denborak joan dira"[231].

3.2. ETXE ESKOLA ETA IKASTOLAREN ARTEKO ETENA

Azkenengo boladan Zipitria ikastolen mugimenduaren sortzaile gisa agertzen duen artikuluren bat argitaratu[232] bada ere, gai honi buruzko zenbait erreferentziak eta azterketak eskeini diguten informazioak bestelako argibideak eta interpretapenak egitea eskatzen digu.

Zipitria ikastolen mugimenduaren sortzaile bezala agertzea, euskal hezkuntzaren garapen historikoak eskeintzen digun ereduen aniztasuna ukatzea dela uste dugu, zeren, beraien artean loturak eman ziren arren, etxe eskola eta ikastola euskal eskolaren eredu desberdin biren ordezkariak baitira. Gure eginbeharra, kasu honetan, historiak eskeintzen dizkigun gertakarien arteko batasun eta berezitasunak eskuratzea litzateke, ez, ordea, sinplekerietara jotzea.

Donostiako etxe eskolen bilakaerak berak, bereizketaren baieztapen hauek egiteko bidea ematen digu, zeren etxe eskolak, nahiz eta urteak aurrera joan, aurreko atalean deskribatu ditugun funtzionamendu mota, hedapen murriztu, ideologia eta ezaugarriekin mantendu izan baitziren, ikastolen mugimendua eredu berri batekin Euskal Herri osoan milaka ume euskaraz eskolaratzen ari zen bitartean. Zipitria buru eta bihotz zutelako Donostiako etxe eskolen planteamentuak ikastolen proposamen aurrerakoi eta dinamikoek gaindituta gelditu zirela esan dezakegu, azken hauek egoera sozio-politikoari eta hizkuntzaren egoerari ausartiago eta egokiago erantzun baitzieten.

Etxe eskoletan eta ikastolen sorreran parte hartutako pertsonen elkarrizketetan argi azaltzen da aipatu ditugun bi hezkuntza ereduen nolakotasuna eta, era berean, denbora igaro ahalako elkarrengandiko urrunketa. Andereño gazteek, Zipitriaren ereduaz euskal hezkuntzaren abenturan sartzeko baliatu ziren arren, beste eredu baten eraikuntzari ekin zioten, mugimendu

---

231 TORREALDAI, J. M. (1969): *Euskal pentsamenduaz inkesta bat*. **Jakin**, 34. 16. orri.

232 ARANBURU, X. (1991): *Hezkuntzaren historia Euskal Herrian: Ikastola. Elbira Zipitriaren biografiarako jakingaiak: Ikastola Donostian 1942-1969 urte bitartean*. **Eusko Ikaskuntza. Cuadernos de Sección: Educación**, 4. Donostia.

sozialtzat jo genezakeen erizpideetan barrena. Zipitriak, berriz, ez zuen horretan parte hartu, berak jarritako eremu zehatz zehatzetatik aldentzen zena urruntzeko jarrera hartu baitzuen, bere burua ikastolen mugimendutik erabat isolatuz. Hala ere, gure analisia ez doa portaera hau gizabanako baten mailatik aztertzera, helburua ez baita berak egindakoa edo ez egindakoa epaitzea, baizik eta elkarrizketen bitartez hartu dugun Zipitriarekiko tirabiren informazioa euskal hezkuntzaren ideologian eta nazionalismoan suertatzen ari ziren aldaketen islada bezala interpretatzea, eta euskal hezkuntza diskurtsoaren logika, batasuna eta berezitasuna azaltzea.

60.eko hamarkada honetan, esan bezala, euskal eskolaren inguruko aldaketa batzu ematen hasten direnean (Santo Tomas Lizeoa, herrietako ikastolak), Donostiako etxe eskolen eremu murriztua gainditzeko asmo nabaria ikusten da, alegia, Zipitriaren eskolaren azpiegitura ziren famili eta emakume sare estu hura gainditu beharra proiekzio zabalago bati begira. Gogo hauek errealitatean zenbat eta gehiago gauzatzen joan, etxe eskolak bere baitan hainbat eta sartuago gertatu ziren, nolabaiteko joera endogamikoa hartuz: "Elbirak jarraitzen zuen bere etxean, Elbirak jarraitzen zuen bere hamar umetxoekin eta beti berdin jarraitzen zuen"[233], "Donostiakoak zeragoak ziren, beraiek eta bere unibertsoa eta kitto"[234].

Zipitriarekiko, eta azken finean berak ordezkatzen zuen gerraurreko ideologiarekiko ezadostasunak, maila desberdinetan gauzatzen direla esan genezake, maila politikoan, hezkuntza ideologia mailan eta antolakuntza mailan hain zuzen ere. Bakoitzak duen garrantzia ukaezina delakoan, banan banan aztertuko ditugu diferentziok.

3.2.1. Maila politikoan

Esan bezala, ikastolak errealitate sozio-politikoarekin harreman zuzenak dituen errealitatea dugu. Ikuspegi nazional batetatik aztertu ezkero ikastola euskaltzaletasunean oinarrituta jaio zela esan behar badugu ere, Gipuzkoako saio hauek nazionalismo politikoan txertatu behar ditugu. Aztertu dugun bezala eta parametro politikoak kontutan hartzen baditugu, EAB eta EKINekin harremandutako pertsonak aurkitzen ditugu, ideologia nazionalistarekin lotuta eta giro nazionalistetan hazitako gertakaria izan zela esan genezakeelarik. Gauzak horrela, ETAren sorrerak ezin zuen eragin txikirik izan, batez ere PNV eta EKINeko istiluen ondorioz Gipuzkoako EGIko militantzia gehiena ETAra pasatu zela kontutan hartzen badugu[235].

---

233 3. elkarrizketa.
234 4. elkarrizketa.
235 IBARZABAL, E. (1979): *Así nació ETA*. **Muga**, 1. 88. orri.

Etxe eskoletako partaideen artean ere nazionalismoaren barruan gauzatzen ari zen kontraesan haundi honen ondoriak ikus ditzakegu: "Ba, berarengana joaten nintzen zalantza bat baldin banuen eta nik berarekin harreman haundiak izan nituen, mendira asko joaten ginen, udaran ere bai, oso ondo konpondu ginen. Gero badakizu, izan zen ETA sortu zala ez zala, orduan ni gazteekin joan nintzen. Esan nahi dizut oso oso adiskideak ginen eta gero iada zeharo haserre, haserretu ginen eta bukatu genuen nahiko txarto. (...) Beretzako, beretzako ba bai, eta zer esango dizut, bera oso aurrerakoia zen eta klaseetan hitz egiten zuen. Begira, denbora haietan azaldu ziren Frantzian apaiz langileak eta horiek danak hitz egiten zien haurrei ba, aizu bizi egiten zutela apaiz langileak eta, gero, errezatu Arjeliako askatasunaren alde eta hori dena. Eta gero hemen hasi zirenean horrela aurka, eta nik esaten nion: *aizu ni zure klaseetan harrituta gelditu naiz nola hitz egiten zenuen arjeliarren alde, eta orain hasi direnean hemen*... Orduan ikusten nuen hemengoa gogorregia iruditzen zitzaiola, eta hangoa, berriz, onartzen zuen"[236].

ETAren sorrerarekin batera etorri zen kultur birformulazioak ere eragina izan zuen atzeraka zihoan nazionalismo tradizionalaren eta aurreratzen ari zen nazionalismo berriaren txandakaketa honetan: euskal kantagintzan gitarra jotzea edo, kontraz, gitarra Espainiako musika tresna zela[237], edo erlijioaren tratamentua edo emakumearen paperaren izana: "...eta klaro, ez ginen elizkoiak, eta ia hemen zer? Eta gu ba pintatzen ginan, gaur oso progrea da ez pintatzea baino garai hartan las emakumes danak zihoazela aurpegia garbi eta hola, gu "unas tías que nos pintabámos" belarriak eta begiak, dana, eta gainera loreakin eta ....jo! un choque! badakizu, un choque generacional.."[238].

Dudarik gabe ETAren sorrerak talde politiko soil baten sorrera baino askoz gehiago suposatu zuen, momentu hartan PNV ordezkatzen zuen komunitate nazionalista osoaren lehenengo bereizketa izan baitzen, eta, nolabait, nazioaren arazoa eta gerraurreko nazionalismoak frenatu nahi zuen modernizazioa batzen saiatzen hasi baitzen, talde berriaren bitartez arrotzatzat hartu ohi ziren baloreak eta ideiak nazioaren birformulaketa batetan integratzen hasi zirelarik.

3.2.2. Hezkuntza ideologia mailan

Zipitriaren hezkuntza ideologia aztertzerakoan, nazionalismo tradizionalaren ildoa ageri zaigu. Kasu honetan, eta euskal eskola nazionalismoaren zutabeak ziren erlijiotasuna eta naziotasuna birsortzeko mekanismotzat hartuta, hezkuntza funtzioaren betekizunak emakumeari ezartzen zitzaizkion, familia mailako

236 3. elkarrizketa.
237 3. elkarrizketa.
238 2. elkarrizketa.

lehenengo sozializazioaz gain bigarrengoaz arduratzea ere zegokiolarik. Helburu eta mekanismo hauek eskola eta hezkuntza formala familiaren luzapena bihurtu zituzten, andereñoak ama etxean hasten zen lanari jarraipena ematen zion bitartean.

Baina, gerraosteko egoerak emakumearen papera eraberritu eta, bestaldetik, industrialtze eta hiritartze prozesuak orokortu edo itzulezinezkoak bihurtu ziren neurrian, hezkuntza mekanismoak ere aldatu beharra agertu zen jeneroaren[239] analisiak ematen dizkigun argibideei jarraiki, industrializazioak eta ideologia berriek (protestantismoa, liberalismoa eta sozialismoa) jeneroaren funtzio sozialen eraldaketarako baldintzak jarri zituzten, emakumeei mugimendu feministak eratzeko zutabe ideologikoak emanez: "De esta manera, el contenido dado al género, así como las bases sobre las que se apoyaba hasta entonces su identidad como mujeres, pudieron evolucionar integrando la realización de otros contenidos además de los familiares"[240].

Gerraurreko euskal emakumeek, jenero harremanen aldaketak bereganatu bazituzten ere, nazionalismoak eskatzen zuen funtzio familiarraren errefortzuaren bidez burutu zuten, komunitate nazionalista osoa familia bat bezala kontzeptuatuz: "A lo largo del primer tercio del siglo XX las mujeres nacionalistas se movilizaron y se incorporaron en la práctica al cambio que el contenido de los géneros estaba experimentando en los paises industrializados. Pero tal incorporación estuvo condicionada por los problemas de identidad que tal cambio

---

239 SCOTT, J. (1990): *El género: una categoría útil para el análisis histórico*. in AMELANG, J. eta NASH, M. (arg.): **Historia y género. Las mujeres en la Europa Moderna y Contemporánea**. Alfons el Magnanim. Valencia. Scottek bere artikuluan historia jeneroaren ikuspegitik aztertzeak ekartzen dizkigun informazio berriak azpimarratzen ditu. Horren arabera, jeneroa *harremana* kontzeptuari dagokio, ez baita posible emakumearen papera era isolatu batez aztertzea gizonezkoekin harremanduta ez bada. Natalie Zemon Davis aipatuz zera dio "Nuestro propósito es comprender el significado de los sexos, de los grupos de género, en el pasado histórico. Nuestro propósito es descubrir el alcance de los roles sexuales y del simbolismo sexual en las diferentes sociedades y periodos, para encontrar qué significado tuvieron y cómo funcionaron para mantener el orden social o para promover su cambio" (25. orri.).
Mercedes Ugaldek ere emakumea eta euskal nazionalismoa aztertzerakoan analisi gai hau erabiltzen du honela deskribatuz: "El sexo-género se entendería en este ámbito como la construcción cultural basada en el sexo que añadiría a la diferenciación sexual entre los individuos otros elementos de diferenciación no biológicos. Estos elementos serían: una distribución de roles y espacios sociales, una valoración diferente y una normativa asimismo distinta. Este diferenciación, a la que habría que añadir, además, las peculiaridades psicológicas derivadas tanto de las diferencias biológicas como de las culturales, sería la base sobre la que está construído un sistema de relaciones entre mujeres y hombres, de caracter jerárquico cuya supremacía correspondería a éstos últimos."UGALDE, M. (1992): *El movimiento de las mujeres en la Comunidad Nacionalista Vasca hasta la guerra civil*. **I. Congreso de Historia Contemporánea**, Salamanca, 13. orri.

240 UGALDE, M. (1992): *Identidad femenina y nacionalismo vasco*. **ISSEIren III. Konferentzia**, Dinamarka, 1992.eko abuztua.

desencadenaba en ellas. Sus señas de identidad como mujeres, basadas en su función como madres y esposas, eran a la vez parte de la identidad cultural vasca que el nacionalismo decía defender, y en su ideología no encontraron puntos de apoyo desde los que desarrollar una nueva identidad como individuos más amplia que la que les ofrecía su función familiar. Al contrario, el nacionalismo reforzaba su adhesión a esta función y su exclusividad, idealizándola y valorándola como fundamento mismo de la nación que pretendía construir"[241]. Tene Mugikak 1935.ean zioen bezela "senide arteak dagin sendi txikitik at, abendak dagin sendi aundi barruan ere". Beraz, itxuraz kontraesantsua den egoera baten aurrean gaude, gerraurreko emakumeak jeneroaren eraikuntza kultural berrian (*familia txikitik haundira*, edo bestera esanda, euskal esparru pribatutik publikora) aritu arren ama funtzio tradizionalaren forma eta ekintzak izan ziren eraikuntzaren osagaiak eta motorrak.

Jeneroaren analisia eta eman zitzaion edukia euskal hezkuntzaren esparrura eramaten dugunean, etxe eskoletan birsortzen ari zen eredua aurkitzen dugu, kontraesan eta ezaugarri berdintsuekin. Zipitriaren hezkuntza ideologia familia haundi honen eremuan txertatu behar dugu, eta euskalduntasuna modernizatzetik defendatu behar sakon batetatik familia haundi horren seme alabak ideologia horren baloreetan sozializatu eta hezitzera abiatzen zen. Azken batez eraldaketa sozial izugarri batetatik arraza, hizkuntza, erlijioa eta "lege zarrak" kontserbatu beharra da guzti honen gida.

Aipatu ditugu beste inon bere pedagogiaren ezaugarriak eta ez ditugu hemen errepikatuko, baina etxe eskolen kurrikulumean agertzen diren helburu ageriak aparte, emakume izateari eta komunitatea/familia identifikazio honi zegokion ezaugarri esanguratsua kontutan hartu behar dugu: afektibotibotasunaren presentzia. Etxe eskoletan "irakasten" ziren eduki desberdin guztiak familia giroko taldetasunak eta afektibotasunak zeharkatuta agertzen dira, gainera nortasunaren biziraupena ziurtatzeko "angustian" murgildurik[242]. Biziraupen honetarako jatorrizko euskaldunek bere "familia mehatxatu" horretan itxi behar batera jo zuten, oso kontrol eta egituraketa zehatzak eta eraginkorrak ezarriz. Zeregin hau bere gain hartu zuena emakumea izan zen, eta emakume sareak deskribatu dugun edukia duen hezkuntza funtzioa betetzeko erabili izan ziren, beti ere emakumeak suposatzen zuen zama afektibo guztiarekin. Beraz, mehatxupean biziki sentitzen zen euskaldun taldea bizirauteko eraikitako sare afektibo eta hezitzailea dugu Zipitriaren mundua.

---

241 UGALDE, M. (1992): *Identidad femenina y nacionalismo vasco*. **ISSEIren III. Konferentzia**, Dinamarka, 1992.eko abuztua.

242 Antonio Elorza historiagileak Aranismoan “sentimiento agónico”a deitzen duena aipatzen du, nolabait industrializazio bortitzak ekarri zuen eraldaketak galeraren sentimentua orokortu omen zuen. Sabino Aranaren “esto se va” esaldia sentimentu honen adierazlea izango litzateke.

Lerro berdinean, Zipitriaz hitz egiterakoan oso ugariak izan dira sentitzen zuen beldurraren aipamenak (poliziaren beldur, deskubritzearen beldur, euskal eskolak hedatzearen beldur...). Gure ustez, eta beste daturik ezean, beldur hauek (bestelako oinarria izan zezaken arren) nazionalismoan hain sustraitutako galtze sentimentu honekin lotuta egon zitezkeen, berarentzat euskalduntasunaren funtsa ziren erlijioa, arraza, hizkuntza eta tradizioak guztiz arriskupean baitzeuden.

Donostiako etxe eskoletan, emakume sareak aparte, Zipitriak ezarri zuen "andereño ideala"ren irudia ere agertzen zaigu, irakasten zuen emakumea ezaugarrituz. Andereñoak, amatasuna eta erlijiotasuna bilduz, hezkuntza lanari era sasimistiko batez dedikatu beharreko emakumeak ziren; hola aipatzen dizkigu Aita Garatek Elbiraren esana: "Alako batean, argazki bat ere erakutsi zidan –iru lagun min– esanez: *Emen Jaunaren iru grazi-deiak: Arantxa, monjetara; Pilartxo, ezkontzara; Elbira, andereñotara*"[243]. Euskal irakaskuntzak, Zipitriaren arabera, bizitza osoa eta inongo salbuespenik gabe ematea eskatzen zuen. Honexegatik andereñoek, pintatzen ez zirenak, ezkontzen ez zirenak[244], klaseetan erlijio formak eta sentimentuen sustraiketa ziurtutatu behar zutenak eta euskarari guztiz emanak ziren emakumeak izan behar zuten. Irudi hau deskribatu dugun eremuan kokatu beharra dagoela argi dago, eta gure ustez, bat egiten du nazionalismoak eraikitako jeneroaren diskurtsoarekin eta hezkuntza ideologiarekin.

1960.etik aurrerako ikastoletako partaideek Zipitriaren eskola eredua ezagutzean, elementu batzuren onarpena eta beste batzuren errefuxa eman zen. Planteamentu pedagogikoak izan ziren errezen hartu zirenak, beti ere forma erlijiosoak bigunduz, baina jeneroaren eraikuntza kulturalean zein andereñoaren irudian ezadostasunak eman ziren. Dudarik gabe, gerraostean jaiotako eta ikastolan andereño sartzen diren emakume gazte hauek nazionalismo berriaren

---

243 GARATE, J. (1985): *Elbira Zipitria Irastorza.* in Euskerazaintza (arg.): **Zipitria´tar Elbire Andereñoa**. Lopez Mendizabal. Tolosa: 110. orri.

244 Zipitriak zeukan andereñoak ez ezkontzearen sinismen horren iturburua, nazionalismo tradizionalak emakumeari ezarritako ideologian aurkitu behar dugu. Honen arabera emakumeak ama izan behar zuen, eta honetara erabat emana egon behar zuen, bestelako iharduerak ezinezko bihurtzen zirelarik. Baina andereñoen lana ere beharrezkoa bilakatu zen neurrian, horretara ere erabat emana egotea derrigortzen zen. Honen atzean, erlijioak ezarritako sakrifizio eta bizi-senaren eskaintzaren eredua aurkitzen dugu.
Ezkondu eta ez ezkondu honen inguruan beste erreferentzi esanguratsua Zipitriarengandik hain gertu zegoen Orixerengan aurki daiteke. Honen arabera, emakumeak ezkondu behar ziren baina ez, ordea, lan intelektualera dedikatu nahi izan ezkero. Marie Hélène Gastigard, Orixeren ikaslea izandakoak, honela laburtzen du elkarrizketa batetan:
"Esaten zuen ez zuela nahi emakumeak ezkontzea. Oro har, nahi zuen emaztekiak ezkontzea, baina ez emazte intelektualak. Badakit, konkretuki neri dagokidanez, ez zuela nahi. Bazekien pixka bat Jesus ezagutzen nuela. Eta uff!, ez zuen fitxik entzun nahi. Eta esaten zidan beti: *Ez ezazula honelako zozokeriarik egin. Emakumeak ez du ezkondu behar, zerbait egin ahal izateko estudioan, munduan. Zeren emakume bat ezkontzen bada galdua da. Orduan ez du intelektualik egin ahal izango*". IZTUETA, P. (1993). **Orixe eta bere garaia.** V Liburukia. Etor. Donostia. 171. orri.

partaidetzaz aparte, jeneroaren beste kontzepzio bat dute. Europan zeuden liberalismoak, sozialismoak eta feminismoak beste giro sozial bat sortarazi eta jeneroaren formulaketa berritzale bat zabaldu zuten, eta euskal sektore hauetan eragin ere. 60.eko hamarkadako andereñoak ez ziren iadanik Emakume Abertzale Batzako pardaide, ezta testigu ere. Beraientzat emakumearen paper soziala beste ezaugarri batzurekin osatzen ari zen, eta abiapuntua sekularizazioa eta jeneroaren eraikuntza berrietatik gertuago zegoela uste dugu.

Horren ondorioz, Zipitriak ezarri eta hurbiletik kontrolatu nahi zuen hezkuntza ereduarekin diferentziak ematen hasi ziren, denbora igaro ahala sakonduz joan eta erabateko etena probokatuko zutenak. Elkarrizketa batetako pasarte batzu guztiz adierazgarriak direlakoan luzatuko ditugu: "... behin esan nion: *aizu Elbira, nik ez dut esango ez naizenik ezkonduko, agian ez naiz ezkonduko zeren helburu bat daukat eta iruditzen zait oso lan ona egiten ari naizela, baino horregatik ez dut esango momentu batetan...*, aizu eta oso gogorra da pertsona bati esatea eskola, eskola, eskolan bakarrik egingo al duzu lana? horretara dedikatu zure bizitza"[245]; "... zer esango dizut, ordura arte andereño guztiak ginan... lehengo batek esan zidan: *zuek izan zarete euskararen misionera batzu bezela*, nik beti esaten dut serorak (...) ba beraiek ohituta zeuden ikustera ba halako neskak, arropa serio serioekin, eta andereñoak izan behar zuen, ba zer esango dizut, ba erdi monja bat, esplikatzeko hala izan behar da. Neri Oiartzungo juntako bat etorri zitzaidan eta: *etorriko zinateke Oiartzunera?*, eta benga, eta esan nion: *hik, hik zer uste, ezkontzeko ez nauk behar ezta? ezkontzeko behar dek pintamona bat, eta orain hire seme alabak hezitzeko ni bezelako serora bat*. A! pues noski, emakumeak aizak ez dira tontoak eta orduan esaten dute nola? serora bat bezala ibiltzen banaiz inork ez dit kasorik egiten, serora batzu bezala ibili garenok ikastolatik gabeko bederatzietan atera eta etxera umez kargatuta beti, bat Hernani kalean utzi, bestea Pasaira... batek esan zidan bezala: *a tí nunca se te puede acompañar, siempre vas cargada de niños*"[246].

Jeneroaren eraikuntza kulturala, argi denez, ez zen bide honetatik eraikitzen. Ikastolek ez zuten Zipitriak gorpuztu zuen andereñoaren irudi hau eskuratu, azken finean, andereño gisa bertan lanean hasi ziren emakumeek euren jeneroarekiko beste proiekzio bat baitzeukaten. Honez gain, gizarte osoan zabaltzen ari zen sekulartzeak eta erlijioaren bazterketak, eskolan zenbait praktika erlijioso egin beharraren zalantza ere gaineratu zuten. Ikastolek erlijioa kanporatu ez bazuten ere, ez zuten erlijiotasuna bere ideologiaren zutabe derrigorrezkotzat jo errito erlijioso batzu mantendu arren (jaunartzeak...).

245 3. elkarrizketa.
246 3. elkarrizketa.

Ideologia mailan eman ziren aldaketez, laburbilduz, ikastolek aurreko euskal etxe eskoletatik planteamentu pedagogikoa eta nolabaiteko euskalduntasuna bereganatu zituztela esan dezakegu, emakumea eta erlijiotasunaren ideiak eraberrituz eta gizartearen eskaera berriei plegatuz. Hala ere, irakaslegoarengan berrikuntza hauek erraz eskuratu ziren arren, ikastolen mugimenduaren kontrolarako borroka eman zenean gurasoen zenbait sektoreren aldetik berriro agertuko zaizkigun argudioak dira, aurrerago ikusiko dugun bezala.

3.2.3. Antolakuntza mailan

Maila politiko eta ideologikoko desberdintasun hauek antolakuntza mailan ere azaldu ziren. Ikastola bezalako proiektu batek etxe eskolen antolakuntza neurtu eta kontrolatua gainditu eta forma berriak bilatzea behartu zuen, aurreko ereduari aldaketa nabariak eraginez, eta horren ondorioz, tentsioak sortaraziz.

Ikastolak, esan dugun bezala, ekimena zabaltzearen asmoaren menpean jaiotzen dira, nonbait orokortu beharreko proiektutzat hartua izan zen sektore desberdinetatik. Etxe eskolaren eredua eta hedapenerako joera hau elkartzerakoan lehenengo eragozpenak azaltzen zaizkigu, zeren Zipitria eskola kontrolatu baten erizpideetan, nazionalismoaren birsorkuntz zehatz eta ziur bat gauzatzen zuen ereduan, mugitzen baitzen, eta zabalkundearekin kontrol hori ezabatzen baitzen.

Ikastolak martxan jartzerakoan gainditu zen lehenengo ezaugarria ikasleen aukeratzeko mekanismoak izan ziren; emakumeen sareetan eta senide lotura baten araberako aukeratze modu horrek ez zuen bat egiten zabaltzeko joerarekin: "Elbirak hartzen zituen senideak eta senideak eta horrela, orduan pixka bat besteak gelditzen ziren: *jo! ba guk ez degu seniderik oraindik!* Orduan guk hartzen genituen beste danak"[247]. Emakume sareen zirkulu hauek gainditzean, ez zen antolakuntza modu bat soilik baztertzen, ez zen izan era batez edo beste batez antolatzea soilik; senide tarteko mekanismo hauek baztertzerakoan, nazionalismo tradizionalaren familiaren ideia ere ikutua gelditu zen, eskola familiaren luzapena izatetik edozein gurasok aukeratzen zuen eskaintza eskolarra izatera igaro baitzen. Zipitriaren eskolaren familia giroa momentu honetan hasi zen galtzen, behintzat besteentzako eredu gisa.

Senitarte eta emakume sareen antolakuntza honetaz gain, beste fenomeno batek izango zuen berebiziko garrantzia, herrietako ikastolen sorrera hain zuzen. Etxe eskolaren eredua herrietara eramaterakoan, haren kopia zehatza egiteko lehenego oztopoak hasi ziren. Euskal eskola herriratzean, "eskola normal" bezala agertzea izan zen abiapuntua, egun osokoa, talde haundiagokoa, agerikoa (ez

247 3. elkarrizketa.

izkutukoa, azken batez herri batetan ezin baitzitekeen ezer izkutuan gorde) eta nahi zuen edozein gurasorentzat eskeinia (zentzu honetan irekia). Zipitriak herrietarako zuen asmoa, berriz, desberdina zen, ez baitzuen eskolatze saio bezala hartzen, hezkuntza ezformaleko iharduera bezala baizik: "gero, herrietan berak ikusten zuen joan zitezela eskolara, herrietako eskoletara eta gero ba berak *poxpolin lana* deitzen zion, halako dantza, kantu eta euskal kultura piska bat sartzeko orduz kanpo.."[248]. Erreferentzia ezin argiagoa dela uste dugu. Informatzaileak, *poxpolin lana* aipatzen duenean, Zipitriak erabiltzen zuen kontzeptua gogoratzen du, baina berak, Zipitriaren bitartez izan ezik, ez du esanahiaz beste ezer ezagutzen. Noski, hona dakarkigun poxpolin lan horrek Donostiako gerraurreko "Saski Naski Poxpolin" izeneko taldea du aurretik, EAB-k umeentzat antolatzen zituen saio ezformalak hain zuen. Herrietan, ikastolak antolatzen hasi zirenean, ume txikien eskolatzearekin hasi zenez, Zipitriak ezarri nahi zuen hezkuntza ezformal edo *poxpolin lan* honek bazuen bere zentzua eta horrela onartua zen; honetarako ez zen maistra tituludunik behar, neska "sorginen" bat eta andereño zaharrarekiko praktika batzu baino ez.

Hala ere, ikastoletako sortzaile eta bultzatzaileen asmoak aurrera jarraitzekoak izan ziren. Eta Zipitriaren eredua gero eta zaharkituago geratzen zen: "Eta gero, nik Pasaian berehala ikusi nuen ez zegoela horrela jarraitzerik, hori zela Donostian, hamar ume etorri zitezen, hamar ume oso guraso abertzaleak zituztenak... Baino bueno, hori, ordu gehiago jarri behar zirela, eta jarri nuen egun osoan. Eta etorri zen, Errezildik Pasai Donibanera bizitzera, etorri zen famili bateko neska, laguntzaile bezala. Eta horrela, horrela, Elizak uzten zizkigun lokalak (...) herri gehienetan halatxua izan zen"[249]. "...Elbira oso urduri jarri zen. Bera, alde batetik, haunditzera zihoala asuntua eta nik uste dut beldurra ematen ziola, inspektorearekiko eta poliziarekiko. Eta gehiago, ez dakit, bera oso eskola selektiboa egiten ari zen eta berak oso selektiboa izaten jarraitu nahi zuen eta noski, pittinka pittinka, ttanttoka, herrietan. Herrietan nik uste dut ez zuela argi ikusten, herrietan, egia esan, berak jartzen zituen baldintzak, esijentziak, ez ziren nolanahi onartzekoak,..."[250].

Ikastolek, pittin bat zabaltzen hasi ziren momentu beretik, izan zuten zailtasunik haundiena irakasle tituludun euskaldunak aurkitzea izan zen. 60.eko hamarkada honetan euskal maistrarik ez zegoela esan dezakegu, eta ikastolek, beharraren arabera, prestakuntza paraleloari ekin zioten, andereño laguntzaileak edo enpirikoak formatuz. Zipitriak ez zuen horrelakorik onartzen, poxpolin lanetarako ez zuen titulua derrigortzen, bai ordea sei urtetik gorako umeak hezitzeko: "...gero bera praktikak egitera joan ziren neska batzuri pues titulurik ez

248 4. elkarrizketa.
249 4. elkarrizketa.
250 4. elkarrizketa.

zutela eta orduan ez ziela praktikak egiten erakutsiko. Ba nik baietz, aizu, bost urte bitartera oso neska finak ziren, oso jatorrak. Orduan herrietan nola zabalduko zituzten ba ikastolak?, orduan Donostian bakarrik edukiko ditugu ikastolak eta herrietan ezin izango dira zabaldu. (...) Elbirarengana joan eta ezezkoa eman. Eta orduan bazekiten ni oso, ez dakit, etorri ziren ea egingo nuen joko, eta baietz, osea beharbada ausarta izan nintzen edo ez dakit zer baino neri Elbirak erakutsi didan bezala zergatik nik ez diet beste batzuei erakutsiko? Ni egin nintzen bezala zergatik ez dira egingo beste batzu?"[251]

Ikastolak zabaltzeak, irakasleak sortzearen beharra areagotu zuen neurrian, erantzun egokiagoak ematea behartu zuen eta kokapen honetan, hain zuzen, zertu behar dugu andereño enpirikoaren fenomenoa. Formazioari Zipitriak ematen zion heineko garrantziaren ideia mantenduz, tituluaren derrigortasuna kendu eta formaziorako "Andereñoen Erresidentzia" eratu zen. Erresidentzia izan zen Zipitriarekin agertuko zen azkenengo ezadostasuna eta behinbetikoa: "... eta hasi ginen berarekin eta moztu behar izan genuen (...), nik ez dakit berari joan zitzaion zerbait ikusten zuen edo, oso urduri, oso alteratua izan zen hori zela eta, eta noski, gu joaten ginen Erresidentzia hartatik eta gurekin negar egiten zuen eta ezinezkoa zen harreman hura mantentzea e? Gero pena haundia izan zuela esan omen zuen, moztu genuelako, baina noski, berari horrek, egoera horrek sortu zion urduritasuna gugan izurtzen zuen ezta? eta gu erdian."[252].

Berriemale guztiek egiten dute Zipitriaren beldurraren aipamena, ikastolak agerian agertzeak suposa lezakeenagatik (errepresioa...) edo bere munduari zegokion eredua galtzeagatik. Gure ustez, azken honetan datza benetazko funtsa; Zipitriak, nazionalismoaren baloreak ziurtatzen zituen etxe eskola hori eraldatzen ikustean, modernitzearen arrakasta ikusten zuen, bere kosmoikusketan euskal sena bizirauteko zeuzkaten tresnen apurketa eta desagerketa. "Nik uste dut beldur zela, ikastolek ez zutela egingo behar zen lana, edo berari iruditzen zitzaion lana zela onena, ez dakit zergatik. Askotan, noizbehinka nik esaten dut, niretzako, ikastola berriak etsai bezela hartzen zituen, kontrinkante bezela, oso oso kaxkarra da irudimen hau baino ez baitiot bilatzen beste arrazoirikan, oso andereño gutxirekin gorde zituen harremanak... (...) pentsatzen det, bildur zela, beretzako bere ikastola idea hura zen onenetakoa, eleiza eta aberria eta euskera, eta ikastola zerbait holan aldentzen baziren, etsaiak (...). Ez dakit, ez dut garbi ideian, ez dakit, baino bitxia zela bai"[253].

Aztertu ditugun ezadostasun guzti hauek, euskal eskolaren eraikuntzan ematen ari zen eraldaketa haundia aski isladatzen dutela uste dugu. Nazionalis-

---

251 3. elkarrizketa.
252 4. elkarrizketa.
253 1. elkarrizketan.

moak eta bere erakundeek sortu zituzten industriatze eta hiritartzearen kontrako erreakziozko hezkuntza ideologia eta eskola eredua, 60.eko hamarkadako euskal gizartean txertatzean, dinamika historikoak batuketa eta bereizketa prozesu kontraesantsuak piztu zituela esango genuke, ondorioz eraikuntza berria ekoiztuz. Euskal hezkuntzaren prozesu historikoak, naziotasunaren parametroetan eginiko eskola saioa modernizatzearen kontzeptuaren barruan ezartzerakoan, ikastola den fruitua ematen duela esan genezake, aurreko saioetako osagai batzu bere eginez eta beste batzu dinamizatu eta eraldatuz.

Zipitriak etxe eskolaren bitartez topagunea gauzatu zuen, baita gerraurreko hezkuntza ideologia eta eredua ezagutzeko bidea ere. Baina euskaltasunak frankismoaren garai hauetan bizirauteko ez zuen etxe eskola hauekin nahikoa, hilzori horretan modernizatze dinamikatik defendatu baino bertan murgiltzeko jarrera nagusitu zen, hizkuntza eta kulturaren kontserbatze hutsetik berreskurapenera bideratuz. Aldaketa hauek, baina, ez ziren azalezkoak eta nazionalismo tradizionalean krisi sakona sortarazi zuten, baita erreakzio bortitza ere. Zipitriarengan ikusten ditugun beldur, haserre eta gazteekiko mesfidantza hori euskal munduko aldaketa ideologiko haundi baten "itzulpen pertsonala" zela esango genuke, historiaren islada bera pertsona baten biografian. Eta esaten dugun hau anekdota ez dela azpimarratu nahiko genuke, zeren Zipitriarengan ikusten dugun euskal modernatzearen aurreako erreakzioa belaunaldi oso baten berdina izan baitzen, ikastolen barruko gatazkan azalduko diren argudio eta eztabaidan ikusi ahal izango dugun bezala.

3.3. IKASTOLA: EUSKAL ESKOLAREN BERRIKUNTZA

1956.etik aurrera euskal kulturaren inguruan ematen hasi zen modernatze joerak bat egin zuen aldaketa sozio-ekonomiko eta politikoekin. Giro honetan jaio zen ETA erakundeak erradikalismo kutsua eman zion errealitateari: "Estos años se caracterizan, por lo demás, por una radicalización a la luz del día del "hecho diferencial", una politización militante de nuevo tipo"[254].

Kultura herriratu zen, kulturaren eraikuntzak herritasunaren ezaugarria hartu eta Joxe Azurmendik deitutako herrigintzari ekin zitzaion: "Izan ere, zer ez da lan eta zer da erraz Euskal Herrian... Ez gara, orain, idazleak lantuan hasiko. Fabriketan ez da errazago. Gaixozaintzek, baserritarrek, irakasleek eta andereñoek, kamioizaleek, etxekoandreek, arrantzaleek, ez dute lan errazagoa. Herrisketako apezak, tabernetako zerbitzariak, neskameak, ikastoletako haurrak, ez dira errazago ari. Horiek ere herrigintzan ari dira. Eta ez da erraza politikan

---

254 TORREALDAI, J. M. (1977): **Euskal idazleak gaur. Historia social de la lengua y literatura vascas**. Jakin. 314. orri.

lan egitea. Herrigintzan ari zaizkigu horiek ere. Horiek batez ere. Eta ordaindu, heriotzez, espetxez eta herbestez, ordaindu zaie. Batzuei, beren bizi guztirako kaltez. Lan zaila eta gogor pagatua"[255]. Prozesu honek estu lotzen diren azpiprozesuak batzen ditu bere baitan: euskararen batasuna eta kultur idatzirako oinarriketa, liburugintza, literaturgintza, alfabetatze desberdinak.... testuinguru berdinean sortu eta elkarri osatzen diotela esan genezakeelarik. Euskal kulturarako honek suposatu zuen berpizkundearen esanahiaz, Azurmendik ez du zalantza izpirik: "Ni se trata de un fenómeno específicamente vasco, ni de un fenómeno primordialmente cultural. Se trata, en Euskadi, como en Catalunya y en Galicia y en todas la minorías oprimidas, de un fenómeno radicalmente político, reflejado en el campo cultural. Renacimiento cultural que responde al renacimiento nacional."[256]

Ideologia berrian, arrazaren kontzeptua desagertu eta hizkuntza bihurtzen da nazio nortasunaren ardatza eta bere eraikuntzarako tresna, horren barruan ikastolak etorkizunari begira garrantzi bereziaz jabetu zirelarik: "Está muy dicho y comentado que la ikastola es uno de los más claros exponentes del planteamiento abertzale de cara al futuro. Es seguro que responde a una necesidad objetiva y a unas coordenadas politico-culturales indiscutidas, ya que su difusión ha sido la de una onda expansiva. La ikastola tiene todas las características de un movimiento popular. En su génesis y promoción intervienen no sólo los profesores y alumnos, sino los padres y de una u otra manera el pueblo entero: participando en cotizaciones, festivales, rifas, etc. Pero sin lugar a dudas el protagonismo corre a cargo de los padres e irakasles"[257].

Dinamismo horren barruan ulertu behar dira ikastolak, euskal nazioa eraikitzeko ahalegin kolektibo eta elkarlankidetza zabal eta politikoa. Ordura arte hizkuntzaren gordetze funtzioa, hau da, euskal hiztungoak bere ama hizkuntza gal ez zezanerako iharduera guztiak (elebitasunezko saiakerak), beste dimentsio batetara igarotzen da, hizkuntzaren berreskuratze funtzioa nagusituz. Euskararen aldarrikapena orokortzen da, nazioaren oinarria zen neurrian, eta berreskurapena indartuz joaten da; honela euskaraz, berdin zein den ama hizkuntza, hezitzeko joera sortzen da, euskalduntze prozesuari hasiera emanez. Ikastola, etxe eskola ez bezala, nahiz eta hasiera batean ume euskaldunak euskaraz hezitzen hasi, ume erdaldunak ere eskolarizatuko ditu, elebitasunezko planteamentu estuak gaindituz.

---

255 AZURMENDI, J. (1977): *"Euskaldunari"*. in TORREALDAI, J. M. (arg.): **Euskal idazleak gaur. Historia social de la lengua y literatua vascas**. Jakin.

256 Lan bera, 60. orri.

257 TORREALDAI, J. M. (1977): **Euskal idazleak gaur. Historia social de la lengua y literatura vascas**. Jakin. 464. orri.

Beraz, euskal eskola eraikitzeko prozesu luze honetan ikastolak hizkuntza berreskuratzeko mugarria bihurtu zirela, saio modernatzaile eta gaurkotua suposatzen zutela esan dezakegu, non herritasuna eta euskalduntasuna biltzen ziren.

Nazio eraikuntza eta hizkuntzaren berreskuratze honetan ikastolek mugimendu sozialaren izaera hartu zutela esango genuke, Torrealdairekin batera. Mugimendu sozialetaz, azkenenego garaietan asko hitz egin bada ere, ezin genezake definizio zehatzik eman zeren mugimendu sozial bakoitzak ezaugarri bereziak hartzen baititu testuinguruaren arauera. Orokorrean eragile sozialek beraiek esan beharko lukete zer den bere mugimendua, eta nola eraiki duten. Hala ere, saiatuko gara kontzeptu honen inguruan hurbilpen batzu egiten.

Ikastolek mugimendu soziala osatzen dutela esaten dugunean ideia batzu azpimarratu nahiko genituzke. Lehenego eta behin gizarte zibilean eratzen den fenomenoa dugu, non sistematik ezarri nahi den zerbaiti (eskola ereduari) erantzuna ematen zaion; ez dago, beraz, gizartearen instituzioetan kokatuta eta, ondorioz, bide ofiziletik kanpo eratzen da. Eskuhartze soziala arautzen duten instituzioetatik kanpo, edo sistematik at, ibiltzean, helburuaren eginkizuna eragile sozialengan ezarrita gelditzen da, partaide guztien ekarpena eta elkarlana dinamikaren gakoa bihurtuz.

Ikastolaren hastapenetan, ikusiko dugun bezalaxe, komunitate eskolarra osatzen duten estamentu guztien partaidetza ekintzailea dugu, guraso, irakasle, ikasle eta laguntzaileena. Erakundetu gabeko egoera partehartzaile honetan, non aldaketa eta eraiketarako joerak ekintza sozialaren norabide bihurtzen diren, eskolaren behar guztiei erantzunak ematen hasi ziren ikastolak. Horrela, finantzia-bideak eta azpiegiturak jorratu, irakaslego berria formatu, ideologia oso bat eraiki, pedagogiaz hausnartu eta proeiktuaren gizarteraketa eta legitimazioa burutu ziren.

"Ikastolagintza" honek eskola ideia bera irauli zuela esatea derrigorrezkoa da, kuantitatiboki zein kualitatiboki eskola berrituz eta portaera herrikoiak eta partehartzaileak eskuratuz. Honetaz aparte, eta gizartearen ikuspegitik begiratuta, ikastolen mugimenduak bestelako mugimendu sozialak ere eragin zituen (ez erantzun soil bezala ulertuta baizik eta nahasturiko erreakzio sozialen zentzuan) 60.eko hamarkadako mobilizazio orokorraren markoan garrantzi berezia hartuz.

Ikastolak, nahiz eta gizarte kapitalistaren eskola ereduak mugatuta agertu, "identidade kolektiboaren enkodapen kulturalean" esanahi garrantzitsua duela esaten digu ikuspegi soziologikoak, "ezberditasuna" ekoizteko baliogarria izan zen neurrian[258]. Ikastolak, nahiz eta eskolaren esparruan bakarrik erabaki, gizar-

[258] Lan bera, 465. orri.

tearen beste maila askotan ere isladatzen da, etengabe elkar elikatuz: "En la densa vida social del País Vasco, la ikastola y sus miembros son un centro referencial, donde los sectores nacionalistas acuden o miran, e incluso las organizaciones políticas captan algunos de sus militantes. Es un signo de afirmación, frente a la agresión a los símbolos vascos, y un enlace para la comunicación de experiencias e información socialmente significativa sólo para *Nosotros* ". (...) Si la lengua es simbólicamente la base de la nacionalidad vasca y la ikastola la institución que trata de salvaguardar la lengua y, por tanto, la cultura, parece lógico que ésta se transforme en el eje vertebrador de la recuperación cultural."[259]

Dena den, eta berriz ere ikuspegi diakronikoari lot gatzaizkiola, ikastolaren esanahi sozial hau intentsitate desberdinekin azaltzen da bai denboraren arabera baita lekuarenean ere. Interpretapen honek Gipuzkoako eta Bizkaiko kasuetan ongi deskribatzen duen arren, Euskal Herriko beste herrialdeetan agian, nazionalismoa beste era batez garatu zen edo ez zen neurrian, bestela funtzionatuko ez ote zuen galdetzen diogu geure buruari. Honi erantzuteko tokiz tokizko azterketak egin beharko lirateke, ikastolaren sorreraren sareak eta ideologia aztertuz, baita zabalkundea eta ugalketaren distribuzioa ere.

3.3.1. Ikastolak sortzeko motibazioak

Ikastolen sorrera ezerezatik abiatu zen ekimen txiki batzu bezala ikus daiteke. Han hemenka eta bere hastapenetan inongo koordinaziorik gabe, ume txikientzako euskal eskolatxoak bezala eman zioten hasiera. Gure lehenengo ikergunea motibazioei egokitu genien, hau da, zeintzu argudio, zeintzu egoera izan ziren horrelako ekimenen aurrekariak, eragile sozialek zein ikuspegi zeukaten eta zeintzu beharri erantzuten zieten.

Motibazioei buruz argudio garrantzitsu bi aipatu dira elkarrizketetan, oro har euskal hezkuntzaren historia laburrean behin eta berriro agertzen zaizkigunak. Batetik, euskararen hondamenaren kontzientzia, euskara herri euskaldunenetan ere atzera zihoala eta galtzen ari zelako kontzientzia. Herri batzutan gainera etorkinen fenomenoa oso present zegoen, eta gaztelera euskararen kaltez nagusitzen ari zela ohartuta zeuden: "Errenderian euskara ia galduta zan, gu hasi ginenean, galduta osorik galduta ez, baziren nahiko jende euskaldun amorratuak zirenak baina kalean eta, ez zen gauza nabaritzen, ez zen nabaritzen euskara"[260]

---

259 GURRUTXAGA, A. (1985): **El código nacionalista vasco durante el franquismo**. Anthropos: 260. orri. Gai honetaz ere ikus: PEREZ-AGOTE, A. (1984): **La reproducción del nacionalismo. El caso vasco**. C.I.S. Madrid.

260 5. elkarrizketa.

Frankismoaren garaiotan hizkuntza, esan dugun bezala, legeak eta erregimenaren praktikak ukatua zenez, familia eremu mugatuetara gorde behar izan zen, bertan bizirauteko oinarrizko baldintzak aurkituz. Familia eremu horiek, nekazal gizartean hizkuntza bizirauteko balio izan bazuten ere, ez zen berdina gertatzen industrializatutako gizarte honetan, non eskola bezalako gertakizunek gero eta garrantzi haundiagoa hartuz gazteleraren ezarpena eta sustraiketa ahalbideratzen zuten. Eskola akulturatze tresna gisa erabili eta fruituak ematen hasia zen: "...momentu horretan han genbiltzan, batzuen semeak ere eskola nazionalean hasi ziren, bost urte bete eta etorri ziren etxera "padre nuestro que estás en los cielos" esaten ezta? Eta orduan eman zigun kristoren kalanbrea ezta?"[261]. Nagusitzen hasi zen erdal giro hau etorkinen kopuru haundiarekin ere erreforzatua zen, eta ondorioz, ez zen euskaraz hitz egiten, debekatuta baitzegoen eta gero eta gazteleradun gehiago baitzegoen. Euskararen hil ala biziko momentu zail horretatik piztuko zen erreakzioa.

Galera honen erantzuleak aipatzerakoan, aldagai desberdin batzu agertzen zaizkigu. Orduko idatziek, besteak beste, umeen heziketan (eskolan zein Elizaren bitarteko hezkuntza ezformalean) ari zirenak seinalatzen zituzten, hala hola maisuak, apaizak, fraideak eta monjak, azken hauek euskararen kontrako amorratuenetakoak izaki: "Euskararen etsai bildurgarrienak monjatxoak ditugu. Monjatxo horien eskuetan erortzen diren umeak ez dute euskerazko itz bat entzungo, naiz euskaldunak izan: otoitz guztiak erderaz, kantu guztiak erderaz. Alperrik aginduko du Elizak erlijioa bakoitzari bere izkuntzan erakutsi bear zaiola: gauza ori monjatxo baten buruan sartuko duanik ez da oraindik sortu (...). Uste dute Jainkoa ez dutela bear bezala maita umetxoen biotzetik euskal "kultura" guzia zearo kendu arte"[262].

Baina badago beste aldagai funtsezko bat euskararen galera horretan, eta hori zenbait gurasoren jarrera da. Euskararen galtze eta gazteleraren jabetze prozesu horiek euskaldunen artean ere izan zuten eragin haundia, batzutan familia barruko hizkuntz portaera beraiek eraldatuz: "Maiz gertatzen da gurasoak euskara beste izkuntzarik ez jakitea eta seme-alabak ez itzik asmatzea gure mintzairan. Izan al-diteke zorigaitz aundiagorik fameli batean gurasoak eta aurrak ez alkar ulertzea baiño izkuntza diferentetan mintzatzen direlako? Zergatik gertatzen da au? Badira euskaldun asko beren izkuntzak ezertarako balio ez duela uste dutenak eta ernegatzen dute beren euskal izateaz. Pentsakera gorrotagarri au nabarmen egiten da, guraso euskaldunak saiatzen diranean beren semeei euskera

---

261 6. elkarrizketa.

262 AYERBE (1965): *Euskeraren alde zer egingo zenduke bost milloi bazenitu?*. **Zeruko Argia**, 100. Gogora dezagun, monjek euskararekiko zuten kontrako jarrera Aita Murieta nafartarrak ere “Euskera eta monjak” artikuluan salatzen zuela, beste batzuren artean. Agian monjen eskutiko hezkuntzak euskal emakumeari leporatu ohi zaion hizkuntz joera erdeldunean norainoko eragina ez ote duen izan aztertzea gako interesgarria litzateke.

ez erakusten. Alaxe bidaltzen dituzte ikastetxe eta eskoletara eta beroien asmoetan egon oi da ikasleei azteko alegiñak egitea eta batzuetan bereganako gorrotoa sortaraztea ere"[263]. Diglosia dugu aztergai honen gakoa, alegia, sozialki prestijiatzen den hizkuntzak ohizko erabilekoari bere esparrua kendu eta erabat jabetzen da, ezin baita bi hizkuntzetarako espazio bakarra kontzeptualizatu euren arteko harremana gatazka terminoetan ulertuz baino. Egoera hau alde euskaldunetan nabarmentzen hasia zen, gehien bat baserritarren artean. Hauek, kasu askotan, euskaldunak izateak eman zien zama astuna zela medio, gaztelera ikasteko joera haundiagoa kanporatzen zuten, prestijiozko hizkuntza bezala baloratzen baitzuten: "Gogorra izan zen, oso gogorra, alde batetik ikara, bestetik, bueno asko ematen zen baserritar tartean ba, baserritar askorentzako euskara ez zen oso ona, nolabait lotsatzekoa, eta bueno ni gogoratzen naiz baserriko iloba (ikastolara) sartzeko baserrira jo behar izan nuen nik egun batetan, zergatik osaba, bera hilko zen 82 urterekin eta erdera oso gaizki egiten zuen, eta berak esaten zidan nola pasa zizkin erdera ondo ez jakiteagatik, eta klaro ez zuen nahi inorentzako hori"[264].

Beraz, euskaldungoaren aldetik hizkuntzaren galeraren aurrean erantzun desberdin bi sailka genezake, batetik ama hizkuntza gaitzetsiz gaztelera baloratzen duena, eta bestetik gazteleraren zabalkunde mehatxugarriaren aurrean ama hizkuntza bizirauteko erreakzionatu egiten duena. Azken honi, noski, lotzen zaizkio ikastolak eta euskararen kontserbatzerako motibazioak.

Haatik, ikastolak eratzeko bigarren motibazio mota orokorra ere aurkitzen dugu: indarrean zegoen hezkuntza sistema beraren izaera. Euskararen galeraren eragileak aipatzerakoan, irakaskuntzaren esparrura sartu gara nabarmenki, zeren gazteleraren eramaleak, besteak beste, maixuak baitziren. Baina maixuek, gaztelera irakatsi aparte, euskal umeekiko hezkuntza harreman inposatzaile eta bortitza ezartzen zuten. Eskola zigor tokia zen, hizkuntz ezezagun batekin topo egin eta derrigorrez ikasi behar horrek istilu eta sofrimenduak zekazkien euskal ikasleei. Egoera hau ez da berria, lehenego kapituluan eskola zigorrari buruz mintzatu garenean ikusi ahal izan dugun eran, baina frankismoko eskola honek zigor hauek finkatu eta legitimatu nahi zituen, hain zuzen ere eskolaratzearen balore soziala goruntz zihoan garai batetan. Kontraesana oso agerikoa da, zeren, nahiz eta gurasoek seme alabentzat eskola balio desiragarri eta derrigorrekotzat hartu,

---

263 ZABALA, F. (1963): *Euskeraren galera*. **Zeruko Argia**, 23. J.M. Sanchez Carrion, "Txepetx"-ek, hizkuntzen funtzioak aztertzerakoan, euskara gaur egun "función local"-etik "función nacional"-era igaro beharrean dagoela azpimarratzen du, baina lerro hauek idatzi zirenean euskara "función de identidad-función familiar" izeneko oinarrizko mailetan kokatu beharko litzateke. Ikus: "Un futuro para nuestro pueblo" Elkar, 1987, 79. orri. Autore honek, Fergussonek 1952.ean plazaratutako "diglosia" kontzeptuaz ere hausnartu egiten du 343-372. orrialdeetan, eta kasu honetan ere gradu desberdinak bereiztea proposatzen du.

264 5. elkarrizketa.

gizarteak eskeintzen zien eskola euren nortasun kultural eta linguistikoaren ukapenean oinarritzen baitzen: "Maixua, eskuarki –jeneralian–, ez dakite euskararik. Errealitate hau berez arriskugarri da, baiñan batzuetan arrisku hau aundiagotzen da, maixuok beren agintaritzaz baliaturik aurrei euskaraz egiten galerazten dienean. Ba ote diteke adimen gabekeri aundiagorik?"[265].

Federiko Zabalak azaltzen duen egoeraren adibide franko dago zoko guztietan. Hona oso adierazgarria deritzogun bat dakargu, Amorotoko maixuarena. 1970.ean, beraz ez hain luze, Zeruko Argia aldizkariko lehenengo orrialdean haur batek eginiko idatz zigor baten argazkia zetorren, bertan maixuaren portaera kritikatzen zelarik: "Amorotoko maixua –erdalduna jakina–errira etorri, erritarren izerditik jaten eta erritarren irakasgarri billakatzen datorrenak, geure ta mundutar ororen eskubideak zapaltzen diardu. Umeak, ikastola-barruan edo jolas-aldian edo jan-tokian euskeraz egin ezkero, bosteun bider "No se habla en vasco" idazteko agintzen dautsue zigortzat"[266].

Hala ere, aztertu ditugun bi aldagai motibatzaile hauek, euskararen galeraren kontzientzia eta eskolaren izaera bortitza, ez dira beti batera ematen baina orokorrenak direnez maizago agertzen direnak dira. Alditan, ikastolen sorrera esplikatzeko beste era batetako arrazoiak agertzen zaizkigu, batez ere ikastolak "abertzaletasunagatik" egin zirela aipatzen denean. Honi buruz ohar bat egin nahi genuke. Hitz honen esanahiaren azpian oso eduki desberdinak daudela ohartu gara eta gauza gutxi esplikatzeko balio du, gure aburuz. Abertzaletasuna nazionalismoarekin lotatutako gaia izanik, zenbait jenderengan zegoen motibazioa[267] izango zela ukatzerik ez dago, herrialde batzuen motibazioak ongi deskribatzen dituen aldagaia gainera. Baina kontzeptu honek ez du zabalkunde eta garapen historiko berdina Euskal Herri osoan zehar, Nafarroaren kasuak adierazten digun bezala[268]. Ikastolak giro abertzaletan sortu zirela esateak ez du

---

265 ZABALA, F. (1963): *Euskeraren galera*. **Zeruko Argia**, 23.
Honi buruzko datua emateagatik esan dezagun, Gipuzkoari dagokionez, 1968.ean maixumaistren %53a ez zela Euskal Herrikoa eta %70ak ez zekiela euskararik. AGIRRE ELUSTONDO, J. A. (1969): **Así está la enseñanza primaria. Hablan los maestros**. GAUR, s.c.i. Donostia. 11. orri.

266 ETXEBARRIA, J. A. (1970): *Euskalerrian euskera debekatua! Esanak ederrak eta eginak pobreak*. **Zeruko Argia**, 377. Artikulu hau dela, erantzuna eta kontraerantzuna ere eman ziren: SANTIAGO, H. (1970): *Amorotoko maixua*. **Zeruko Argia**, 380.; ETXEBARRIA, J. A. (1970): *Amoroto´ko maixua*. **Zeruko Argia**, 382.; GERRIKAGOITIA, E. (1970): *Amorotokoari jarraituz*. **Zeruko Argia**, 382.

267 Etxe eskolen kasuan, adibidez, "abertzaletasuna" dei dezakeguna argi agertzen dela uste dugu, nazionalismo politikoarekin lotutako motibazioa.

268 Nafarroa da, kasu honetan, gehien desberdintzen den herrialdea, historikoki karlismoak izan zuen pisu eta bilakaeragatik. Ikus: LARRION, P. eta ZUBIRIA, P. (1992): *Patxi Zabaleta. Elkarrizketa*. **Larrun**, 12. Patxi Zabaletak gai honetaz horrela dio: "Ikastolak Iruñean eta Nafarroan sortzen zirenean EAJko jenderen batzuk han ziren, baina jenderik gehiena ez zen EAJkoa eta ondoren ere berezitasun horrek iraun du. Ni Iruñeko zinegotzia izan nintzen

fenomenoaren sorrera bere zabaltasun osoan definitzen, behintzat ikastolari ikuspegi nazional batetatik ari bagagozkio; leku batzutan bai, beste batzutan ez. Ikastola, Euskal Herri osoan ezaugarri amankomun batzurekin hedatzen den gertakari anitza dela onartzen badugu, motibazioen alorrean ere aniztasun hau berpizten zaigu. Eta Gipuzkoako eta Bizkaiko kasuetan ikastolak eratzeko motibazioen oinarrian nazio eta herri konzientzia soma baditzakegu ere, Nafarroan karlismoarekin edota beste joera batzuekin lotutako motibazio ideologikoak aurki daitezkeela esango genuke. Kasu hauetan, hizkuntza eta euskal kulturarekin kezka agertzen zaizkigu, ez ordea, euskal nazioa eraikitzeko erabakia.

Gauzak horrela, ikuspegi nazional batetatik ikastolen sorrera azaltzen duen kontzeptua "euskaltzaletasuna" dela uste dugu, zeren bere orokortasunean fenomenoaren funtsezko bereiztasuna batzen baitu. Euskaltzaletasuna ere ez da kontzeptu homogeneoa, bere baitan jasotzen dira postura kulturalistak zein abertzaletasun politikoarenak, baina ikastolen mugimenduaren sorreran euskararekiko zaletasuna zuten ideologia desberdinetako pertsonak bildu ziren, eta arrazoia hizkuntzarekin lotu behar dugula uste dugu[269].

Deskribatu dugun giro sozialean azaleratutako ikastolak sortzeko motibazio hauek, baina, hasiera batetan nahiko difusoak edo formagabekoak izan baziren ere eraldatzen eta ideia bakar batetan gorputza hartzen joan ziren, hots, "herriaren etorkizuna hizkuntzan datza", ordutik aurrera ideia honek euskal mugimenduaren bateragile eta motor bezala funtzionatu zuelarik. "No conocíamos nada, solo teníamos la inquietud que considerábamos, y seguimos considerando, que la cosa más importante para Euskadi es el euskara. Basados en ese tema fué por donde desarrollamos esa idea, que Euskadi sin euskara no existe, no existe Euskadi si no tiene euskara"[270].

3.3.2. Ikastolak beren hastapenetan

Motibazioei gagozkielarik, 60.eko hamarkadaren hasieran euren seme-alabak eskolara bialtzeko sasoia zuten gurasoen artean hezkuntzarekiko kezka

---

lehendabiziko legealdian UPNko zinegotzi batek umeak ikastolara bidaltzen zituen, UCD eta PSOEko banak ere bai -bazen PNVko bat bialtzen ez zituena eta horrek esan nahi du euskararekiko jarrera ez zela hain kontrakoa beste alderdi horietara joan ziren jendeengan. Euskararen kontra zeuden eta daude eskuindar asko, baina ez guztiak: euskararen alde zegoenik ere bazen eta orain ere bai."(7. orri.).

269 Euskararekiko jarrera positibo hauek gainera hedatu eta gorunzko joera hartuko dute urteak pasa ahala. 60.eko hamarkadaren hasieran euskaltzaletasun hau sektore jakin batzutan soilik aurkitu arren, bukaeran populazio hein zabal batek bere egin duela ikusten dugu. Horren lekuko Gero Informean jasotako euskararen irakaskuntzaren inguruko eritziak ditugu, lan honen 3.6. atalean aztertzen den bezala.

270 10. elkarrizketa.

azaltzen zaigula ikusi dugu, hain zuzen ere egoera sozio politiko eta kulturala eraldatzen ari den momentu batetan. Bestaldetik, Zipitriaren eredu pedagogikoa hezkuntza ekinbide berri bati heltzeko materia izan zitekeela ere argi dago. Nola sortu zen orduan ikastola, izan daiteke erantzun beharreko hurrengo itauna, zeintzu urrats eman ziren eta zeintzu aldaketa.

Euskal hezkuntzaren garapen historikoari so egin ezkero, Donostiako etxe eskolen lehenego hedapena gauzatzen ari zen bitartean, euskal alfabetatzearen inguruko saio xume batzu ere ematen ari zirela ikusten dugu, alegia "Umeen Deia"ren inguruan eta Iparraldean IKAS elkartearen eraketan somatu ahal dugun bezala. Saio hauek, oso txikiak izan ziren arren, euskal herri askotako praktika hezitzaileak, eta horretan Elizaren maila desberdineko partaidetza, adierazten dizkigute, baita irakaslego euskaldunaren sektore batzutan ume euskaldunen ama hizkuntzaren bidezko alfabetatze ezformala ere.

Datu garrantzitsu hau aparte, euskal hezkuntzaren errealitatean elementu berri batzuren sarrera aipatu beharko genuke. Era honetara, Bilbon 1957.ean sortu zen esperientzia euskal hezkuntzaren ibilbide honetako beste urratstzat jo behar dugu. Kasu honetan Xabier Peña euskaltzaleak, Zipitriaren etxe eskola ezaguturik, guraso batzu bultzatu zituen antzeko esperientzia eratu nahiean. Bilboko San Nikolas Elizako lokaletan eta M. Angeles Garai andereño zutela ekin zioten lanari. Arrakasta haundia izan zela dudarik ez dago zeren lehenengo ikastaroan 27 ume eta hurregoan 48 ume eta lau andereño bildu baitzituzten. Ez zuen luze iraungo, baina, inspektoreak salatu, auziperatu eta ikastola itxi egin baitzuten, etxez etxeko funtzionaketa moduetara itzuliz[271].

Bestaldetik, Donostiako etxe eskoletan seme alabak izan zituzten guraso batzuk, euskal alfabetatzeari soilik erantzuten zion bederatzi urterainoko eskolarizazioa gaindituz ingresotik aurrerako kurtsoak ere euskaraz egitea ahalbideratuko zukeen asmoari ekin zioten, Santo Tomas Lizeoa horren fruitu dugularik. "Lizeoa sortu zen 61.ean. Hor, ikastolatik ateratako haurrak ikusten ziren, kolegioetara joaten zirela, orduan bederatzi urtera arte bakarrik euskara landu zutela, orduan ikusi zuten hor, adibidez Jose Miel Zumalabek, bere semeak, Koldo Mitxelenak, Don Karlos Santamariak eta horiek zituzten iada adin horretako haurrak, (...). Orduan pentsatu zuten zergatik ez zerbait antolatu, kolegioetara joan beharrean akademia gisa edo horrela, ingreso egiten hasi..., eta horrela ingreso, noski, erderazko liburuak eta horrela, baina beti euskara lantzen euskarazko klaseak"[272].

---

271 ARRIEN, G. (1987): *La ikastola Azkue, la primera en ser legalizada en Vizcaya en 1966*. **Eusko Ikaskuntza. Cuadernos de Sección: Educación**, 2. Donostia. 7-17. orri. ARRIEN, G. (1993). *Bizkaiko ikastolak, 1957-1972. Beren hasiera era antolaketa.* **Eusko Ikaskuntza. Cuadernos de Sección: Educación**, 6. Donostia.

272 3. elkarrizketa.

Santo Tomas Lizeoak, Jose de Villalongak proposatutako gerraurreko "colegio vasco" izenekoen lehenengo hurbilketa suposatu zuen, euskal eskolarizazioari alfabetakuntzaz gain hezkuntza sistema ez-unibertsitariorako bidea zabalduz eta, lehenbizikoz, euskal heziketa bere osotasunean hartuz.

Santo Tomas Lizeoarekin, Donostiako etxe eskoletan euskaraz alfabetatu baina bederatzi urterekin erdal kolejioetan eskolarizatzen ziren ikasleei euskaraz eskolarizaturik jarraitzeko aukera eskeini zitzaien, eta atzean zeuden antolatzaileak (Santamaria, Zumalabe, Mitxelena...) euskal eskola saioak burutu nahi zituzten herrietako gurasoentzat erreferentzia bihurtu ziren. Lizeoa, bere asmoekin jarraitu ahal izateko eta legeak behartzen zuenagatik, 1963.ean lortu zuen bere lehenego legeztapena, kolejio pribatuaren itxura harturik. Proiektu honek harrera ona izan zuen gurasoen artean, zeren 1962-63 ikastaldian 60 ikasle baitzituzten, eta hurrengo kurtsoan 100 bat ikasle[273].

Hirugarren elementu garrantzitsua herrietako ikastolak dira. 1960.etik aurrera Pasaian, Errenderian, Hernanin, Elgoibarren, Irunen, Andoainen hasi ziren antolatzen. Hasiera hauek oso tokiz tokikoak izan ziren, herri bakoitzean baliabide desberdinak erabili zirelarik. Hala ere kasu gehienetan ezaugarri amankomuna eman zela esan dezakegu, hots, herrietan ikastolaren ekimena gauzatu aurretik euskararen edota euskal kulturaren inguruko ekintzak burutzen hasiak zirela. Ekintza hauek era desberdinetakoak izan ziren, bai aipatu ditugun alfabetatze ezformaleko ahaleginak, edo antzerkia, euskal jaiak, dantzak edo txistua, mendirako ibilaldiak..., hau da, euskal girotze txikia agian ez oso agerikoa baina bai "euskaltzale" batzu harremanetan jartzeko heinekoa. Honetaz aparte, harreman hauetako partaide batzuek seme-alabak eskolaratzeko adinetan edukitzea izan zen eman zen beste baldintza[274], oinarrizko motibazioekin lotutako baldintza.

Herrietako ikastola hauek (lehenengo hiru lau urteetan sortutakoak) ezloturik jaio ziren. Motibazioak agerian eta pertsona batzu prest bildu zirenean herri bakoitzak bere bidea jorratu zuela esan dezakegu. Era honetara, Pasaiako kasuan Kontxita Beitia Zipitriaren ikaslea izan zen eta etxe eskola modura zabaldu zuen ikastola, baina gurasoen sareak nortasun osoa zuelarik. Beste batzu

---

273 PERURENA, J. M. (1963): *Liceo Santo Tomas de Aquino ikastolako zuzendariarekin elkarrizketa*. **Zeruko Argia**, 21.

274 Hau begi bistako datua da, baina aipatu egiten dugu arrazoi batengatik, alegia, Donostiako etxe eskolen kasuan ikusi dugun bezala, proiektuaren osagaiak EABrekin harremanduta egondako emakumeak izan ziren, nazionalismo tradizionalean emakumeari zegokion hezkuntza funtzioa bete zutenak. 1960.etik aurrera ikastolak sortzen direnean, ordea, emakumeen eskurik ez da antzematen, ez da emakume sarerik sortzen. Hau, gure ustez, hezkuntza funtzioa betetzearen behar konkretuetan zehaztu behar dugu. Gerraurreko emakumeek, garai hauetarako ez zeukaten seme alabak hezitu beharrik, harrezkero hazita zeudelako. Beraz oinarrizko motibazioa falta da, eta proiektuan ez dira zuzenean inplikatzen.

Santo Tomas Lizeoko taldera hurbildu ziren, batez ere Santamaria oso pertsona ezaguna zelako: "...ordurako hemen Elgoibarren pixka bat inkietudea bai sozial aldetik. Ba Santamaria irakurtzen genuen, Aspectos idazten zuen orduan; Aspectos, gordeta daukat nik ordukoa. Eta hantxe animatzen ginen pixka bat eta"[275]. Beste batzu Zipitriaren esperientzia ezagututa herrian, besterik gabe, zerbait egiten hasten ziren. Iñaki Aizpuruak idazten zuen bezala, "herrietako jendea hasia zen ohartzen ikastolez gutxi edo gehiago. Arestian aipatu dugunez, ikastolak sortzea minoria baten lana izan bazen ere, ez zen hain minoria ikastolen ezagupidea zuena. Hala nola, iloba bat bazuen zenbaitek Donostiako edo Bilboko ikastolaren batetan, edo-ta bertzenaz ere biziki hedatzen zihoan ikastolarekiko giro ona"[276]. Hala ere, denek bilatu zuten erreferentziaren bat (Zipitriarekin zuzenean edota Santamaria-ren bidez Karmele Esnalenekin) eta elkarren berri izaten ahalegindu ziren. Era honetara, itxuraz nahiko bapatekoa eta "planifikatze bateragilerik gabe" baina sakonean motibazio eta aldaketa berdintsuen zama korapilatsua zutelarik, herri batzutan ume txikientzako ikastolatxoak eratzen hasi ziren.

Herrietako ikastola hauek, ordea, etxe eskolengandik bereizten zituzten ezaugarri batzu hartuko zituzten bere hastapenetatik. Ezaugarri hauek maila diferenteetan somatzen dira (antolakuntzan, hizkuntzaren tratamenduan, pedagogian, ideologian) eta urteak igaro ahala gero eta nabariagoak izan ziren, esperientzia biren arteko erabateko etena sortzeko muturreraino. Ikastolek, etxe eskolak ez bezala, eskolaren moldea hartu zuten eratu ziren momentutik: ezin zitekeen jarrai ume kopuru txikiko eta ordu pare batez emandako saioekin, eta eskolaren itxura osoa hartu zuten (ikasgela normala, talde haundiagoak, goiz eta arratsaldez).

Honetaz aparte badira beste ezaugarri batzu. Alde batetik ikastolak zabaldu ahal izateko, antolatzaileak, irakaslegorik ez zegoela ikusirik, bide paralelo batetatik gertatzera abiatu ziren, praktiken bitartez formatutako andereño enpiriko edo "andereño laguntzaileak" sortaraziz. Bestaldetik ikastolek, iraun ahal izateko, bere baitan herriaren partaidetza integratu behar izan zuten eta agerian azaldu ziren (ez zen izkutuko gertakari bat ezta gehiegi nabarmentzen zena ere, baina bistakoa zen): "Herrietako ikastolak gizarte base zabalago zuten bere inguruan: guti gora behera, herri bat osatzen duten gizarte maila orotarik eta batikpat horien arteko indarrik bizienak. Ohar besterik guraso, sozio-laguntzaile, gazte eta elizgizonek bere zer-nola parte hartu zuten ikastolaren organizatzen. Herri giroan integratzen ziren ikastolak, gizarte maila bakar baten molde hertsietatik at"[277].

---

275 6. elkarrizketa.

276 AIZPURUA, I. (1972): *Ikastolen historiarako ikusbide bat (1960-1972)*. in (arg.): **Gure Ikastola**. Jakin Sorta, 6. 17. orri.

277 Lan bera, 19. orr.

Ikaslegoaren hautatze mekanismoetan ere beste desberdintasun bat aurki genezake, alegia, etxe eskoletan ikasleak emakume sareen bitartez aukeratzen baziren, ikastoletan hurbiltzen zen edozeini luzatzen zitzaion matrikulatzeko aukera (nahiz eta eskaria eskeintza baino haundiago izateagatik guztiei beti ez erantzun). Azkenengo puntu honetan nazionalismo tradizionalaren familiaren bitarteko harremanaren oinarria berriro urratzen zela ikusten dugu, zeren Zipitriak bere eskolan ikasleak aukeratzeko emakume sareak eta "senidea" izatearen kriterioa erabiltzen bazuen, ikastoletan kriterio hau desagertzen baita eta nahi duen edozeini luzatzen baitzitzaion eskeintza[278].

Honela, ezaugarri hauek oinarritzat hartuta (eskolaren ohizko moldea, herri bakoitzeko sektore sozial desberdinen partaidetza, gurasoen inplikazioa, agerpen publikoa, praktikan hezitako irakaslego enpirikoa eta bide ofizialetatik at) abiatu ziren ikastolak, etxe eskolekiko irekitasunean eta hedapen mailan bereiztuz.

3.3.3 Ikastolen mugimenduaren historiaren epealdietaz gogoeta batzu

Ikastolen historiaz egin diren zenbait azterketetan gertakizun honen epe desberdinak markatu izan dira, alegia, M. C. Garmendiak[279] bere tesian honelako epeak bereizten ditu: "1) Les ikastolas depuis leur création jusqu´à la guerre civil espagnole (1896-1936). 2) Résurrection des ikastolas dans l´aprés-guerre (1943-1960). 3) Expansion des ikastolas (1960-1976). 4) Vers la plaine reconnaissance des ikastolas (1976-1982)". Honetaz aparte, autore berak[280] beste autore askok bere egin duten beste epealdiketa ere erabiltzen du: "1) Clandestinidad (1943-60); 2) Expansión y Legalización (1960-76); 3) Normalización jurídica y equiparación pública (1978-88)".

Guk, epeketaren arazoari ekin diogunean zehaztasun batzu egin beharra ikusi dugu. Gure aburuz, lehenengo epeketa horretan ikastola oso esanahi zabalean hartua izan da, hau da, ikastola edozein euskal eskola mota bezala kontzeptualizatu da; ikastolaren historiaz baino euskal eskolaren historiaz ari dela

---

278 Zipitriaren eredua familiaren ideologiaren ikuspegitik aztertu ezkero, agertzen zaizkigun ezaugarri guztiek elkar osatzen dutela ikusten dugu. Kontserbatze funtzioa burutzeko tresna familia zenez, etxe eskoletan ere familiaren logika mantenduko da: eskolak etxearen kutsua izan behar zuen, andereñoak bigarren ama bezalakoa, eskola barruko harremanak familia barrukoak bezalakoak... eta ikasleak aukeratzeko mekanismoetan familia nazionalistaren emakume sareak eta eskola bakoitzean neba-arrebaren bat, edo "senideren" bat izatearen kriterioa.

279 GARMENDIA, M. C. (1985): **Les ikastolas en Pays Basque D´Espagne. La question du bilinguisme scolaire**. Argitaratu gabeko tesia. Estrasburgo.

280 GARMENDIA, M. C. (1972): *Ikastola.* in ESTORNES LASA, B. (arg.): **Enciclopedia General Ilustrada del País Vasco. XIX. tomoa**. Auñamendi. Donostia. ARPAL, J., ASUA, B. eta DAVILA, P. (1982): **Educación y sociedad en al País Vasco**. Txertoa. Donostia.

uste dugu (nola hartu bestela ikastolatzat auzo eskola, zein EIBko ikastolak, zein Muñoaren Ikastetxea, zein gaurko ikastolak?).

Gure ustez gauza bat da euskal eskolaren (zentzu jenerikoan) azterketa historikoa egitea, eta beste bat ikastolaren historia (nahiz eta ikuspegi semantiko batetik begiratuta, ikastola hitza ordukoa zela kontutan hartu). Ikastola hitza, 60.ean aztertzen ari garen fenomenoa agertu arte, esanahi anitzekoa zen, baina aniztasun hau esanahi bakarduna bihurtzen da azken garai honetan. Aipamen hauek egiterakoan gure helburua ez da hitz hau edo hori, honi edo hari eman edo ukatzeko gogoa, baizik eta kontzeptuak argitzea eta elkar ulertzea. Gure proposamena ildo honetatik dator eta, ikastola esatean, gaur egun zabalduta dagoen euskal eskola eredua burura datorkigun neurrian, honelaxe deituko genioke. Hortaz, euskal eskolaren historiak eskola eredu desberdin asko eman ditu, ikastola eredu bat izaki.

Bigarren sailkapenaz antzeko zerbait esan beharko genuke lehenbiziz. Lan honetan demostratzen saiatu garen bezala, Zipitriaren saioa gerraurreko eskola ereduan errotuta zegoen (bai ideologian, bai antolakuntzan, baita pedagogian ere), eta ikastolarekin garapen historikoak ematen duen jarraipen eta batasuna baino ez diogu aurkitu, ez beste antzik. Horregatik etxe eskola deitu diogu, beti kontzeptua argitzeko desio horrekin.

Ikastolak, euskal kulturaren modernatze prozesuaren emaitza dira, eta testuinguru honetan kokatu behar ditugu; Zipitriaren esperientzia ez dugu hartzen ikastolen klandestinitate garaia bezala, ikastola kontzeptu berria sortzeke baitzegoen. Bestaldetik, "Expansión y legalización" "Normalización jurídica y equiparación pública" izeneko epeak sailkatzean, Euskal Autonomi Elkartearen kriterioa jarraitu dela uste dugu, eta ikastola, gertakari nazionala den heinean, ez du balio errealitatea bere osotasunean taxutzeko.

Epeketa hauek kritikatzerakoan, ikastolen mugimendua denboran banatzeak dakarzkigun zailtasunen berri eman digu, eta beste ahalegin bat egiteko bidea ere. Gauzak honela, ikastola, aurreko euskal eskola saio guztiekin nolabaiteko antzekotasuna eta lotura onartu arren, 60.etik aurrerako gertakari bezala hartuko dugu, eta, ikastolaren historiaz ari bagara, Euskal Herri osoari dagokion zerbaitetaz ari garela onartu behar dugu, beraz, epeketak herrialde desberdinen errealitatea isladatu beharko luke.

Azken hau, ikastola gertakari nazional bezala aztertzea, zailtasun gehien ematen digun baldintza da, arrazoi desberdinengatik. Batetik ikastolak ez dira sortzen momentu berean, ezta indar berarekin ere. Bestetik hazkundea[281] Gipuz-

[281] Datu kuantitatibo zehatzak ezagutzeko, ikus lan honen 3.6 atala.

koan eta Bizkaian oso goiztiarra eta haundia izan zen bitartean, beste herrialdeetan beranduago eta era pausatuago batez eman da, lehenengo bi horien kopurutik oraindik oso urrun daudelarik. Hau kontutan hartuta, ikastolen mugimenduan antzekotasun eta praktika amankomun asko ematen diren arren, garapen erritmo desberdinak daudela esan dezakegu. Honi, herrialde bakoitzaren izaera administratibo-politikoa, legezkoa, linguistikoa eta sozio-historikoa gehitzen badizkiogu, ikastolaren konplexutasun eta aberastasun guztia somatzen has gaitezke.

Ez dugu ahantzi behar, ikastola nazioaren eraikuntzaren markoan sortu bazen ere, nazioa artikulatzen duen tresna politiko administratiborik ez duela Euskal Herriak, eta honek ikastola bezalako proiektuari oztopoak baino ez dizkio jartzen.

Ikastolen mugimendua, mugimendu sozial guztiak bezela, boterearekiko harremanaren nolakotasunaren arabera aztertu behar dugu. Ikastola sortzen den momentuan, boterearekiko inongo harremanik ez egotetik, plazaratzen duen proposamena gizartean eta boterean ere onartuagoa izatera pasatzen da, normalkuntza haundia sortuz. Frankismoa bitartean, ikastolek boterearekiko tentsioa partaidetza haundiaren oinarrian mantentzen dute, euskal hezkuntza ofizialtasunetik at iraun eraziz. Transizio garaian, proposamena bide normalduago batetatik abiatzen diren heinean, partaidetza ere behera doa eta ikastolek beraiek sortzen dituzten egituren bitartez funtzionatzeko joera haundiagoa somatzen da. Honi jarraiki zera ikusten dugu, Euskal Herriari ezarri zaion banaketa politiko, administratibo eta legalen ondorioz, botere publiko desberdinekiko harremanetan aniztasuna eta proposamenaren onarpen maila desberdinak aurkitzen ditugula, tokiz tokiko beharren arabera ikastolen partaidetza eta egituraketa maila gradu desberdinak eskuratuz. Euskal Komunitate Elkartean euskal hezkuntzaren inguruan lortu den onarpen maila sare publikoan ezarri diren hizkuntz ereduetan isladatu dela esan genezake, oro har, proiektuaren nolabaiteko normalkuntza orokortuz; Nafarroan eta Iparraldean, ordea, botere publikoek beste jarrera bat azaldu dutenez, mugimenduan dagoen partaidetza maila altu batetan mantentzen da. Beraz, normalkuntza maila desberdinak aurkitzen ditugu.

Dena den, eta epeketari berriro lotuz, frankismoaren garaian badago ikastolen mugimendua orokorrean ezaugarritzen duen gertakaria: gatazka. Frankismoaren bukaera garaian ikastolak, gizartean sustatu eta hazi egiten direnean, mugimenduaren definizioaren inguruko eztabaiden eta istiluen abagunea bihurtzen dira, krisi honetatik ikastolen mugimenduak funtzionaketa eredua eta ideologia umatuko dituelarik.

Gatazka hau orokorra da (Iparraldean izan ezik, hain justu orduantxe ari baitziren sortzen bertan) eta mugimenduaren kontrola eskuratzeko borroka bezala interpreta genezake; krisialdi honen ostean barea dator (ikastolen munduan baretasuna inoiz egon bada) normalkuntzarako bideari hasiera emanez. Haatik, behin eta berriz azpimarratu nahi genuke normalkuntza hau erritmo desberdinekoa izango dela, hortaz, herrialde bakoitzak izango duen partaidetza eta egituraketa maila ere desberdina izango dela.

Orain arte frankismoan garatutako euskal heziketari buruzko osagai batzu eskuratu ditugula esango genuke. Batetik etxe eskola eta ikastolaren arteko bereizketa, eta beste aldetik, ikastolen barruan erlazio inbertsoan dauden partaidetza eta egituraketa maila, eta ikastolen gatazka. Horren arabera, frankismoaren garaiko epeketari dagokionez honako proposamena egin genezake.

1.- Donostiako etxe eskolak (1946-1969). Lehenengo eta behin frankismoan Euskal Herrian ondo bereizitako eskola saio desberdin bi agertzen zaizkigu, bata bestea baino goizago agertzen delarik. Etxe eskola deitu dugun Donostian Zipitriaren inguruan sortutako esperientziek lehenengo epea betetzen dutela uste dugu, 1946.etik 1969.era zabaltzen den epea. Hasiera Zipitriak bere etxe eskola irekitzen duen urtearekin koinziditzen du, 1969.ean Gipuzkoako Gobernadore Zibilaren agindurekin bukatuz.

Esperientzia hau euskal alfabetatzeaz[282] egiten den analisi orokorretik begiratu ezkero, eta eskola mota orok lehenengo alfabetatzearen funtzioa betetzen duela kontutan hartuta, "Alfabetatze Murriztua"ren karakterizazioan txertatuko genuke. Egileek, Alfabetatze Murriztua 1940tik 1969ra arteko epean kokatzen dute: "Epealdi honetako alfabetatze moduari buruzko ezaugarri nagusienak, parte hartzen duten taldeen tipologia eta alfabetatze murriztuaren euskararen erabilerak dira, non euskararen alderdi literarioa azpimarratzen den, ikasketa aurreko textuetan oinarrituta egiten den eta Euskaltzaindiak "euskara literarioa"ren inguruko proposamenak egiten dituen. Murriztasunaren ezaugarria bat dator era berean, gehien batean euskaldunak diren alfabetatu daitezkeen kopuru murritzarekin"[283]. Euskal alfabetatzearen epeketa erabiltzen diren hiru erizpideei (alfabetatze mo-duak, euskararen erabilera eta kode ideologikoa) jarraiki, Alfabetatze Murriztua "...alfabetatze modu literarioa, euskararen erabilera

---

282 ARREGI, P. (biltz.). (1992): **Euskal Alfabetatzearen azterketarako lehen urratsak. 1960-1990**. Argit. gabe. DAVILA, P., EIZAGIRRE, A. eta FERNANDEZ, I. (1992): *Elementos para la elaboración de un modelo de alfabetización vasco*. **X Congreso Nacional de Pedagogia**, Salamanca.

283 ARREGI, P. (biltz.). (1992): **Euskal Alfabetatzearen azterketarako lehen urratsak. 1960-1990**. Argit. gabe. 6. orri.

gutxiagotua eta nazionalismo ahuldua..."[284] ezaugarriekin hornituta agertzen zaigu.

2. Ikastolen Mugimenduaren Sorrera eta Lehenengo Hedapena (1960-1975). Ikastola, lan honetan zehar kontzeptualizatu dugun bezala, etxe eskolaren muga estuak gainditu eta herrietan euskal eskola saioak gauzatzean jaio dela esango genuke. Donostiatik herrietara igarotzean, eskolarako baldintzak aldatu ziren, gizartean orokorrean baldintzak aldatzen ari ziren era berean. 1960. urte honetatik aurrera, Donostiako etxe eskolek funtzionatzen zuten arren, adierazpen ahuldu gisa ikusten ditugu jorunzko joerak ikastola aupatzen zuen bitartean.

Hamabost urte hauetan ikastolak euskaldunen alfabetatze funtzio hori gainditu eta umeen euskalduntze prozesuari zabaltzen dio atea; eskolarizazio maila guztiei erantzuten zaie; irakaslegoa era espezifiko batez formatzen da (ez titulu ofizialen arabera); ikuspegi pedagogiko kritiko batetatik egiten da lan; elkarlanerako mekanismoak antolatzen dira; partaidetza oso zabala da, eta ikastolak euskararen gune "enblematikoak" bihurtzen dira. Ezaugarri guzti hauek zehatzago aztertuko ditugu, baina etxe eskolarekiko diferentzia aski nabaria dela uste dugu.

Euskal alfabetatzearen ikuspuntu orokorrari so egin ezkero, 1968-1980 tartean "Alfabetatze Hedakorra" aurkitzen dugu, eta ezaugarriak "... alfabetatze modu kritikoa, euskararen erabilera aurrerakorra eta birdefinizio nazionalista..."[285] ditugu. Kasu honetan, ezaugarriek lehenengo alfabetatzearekin karakterizazioa zehatza ematen badigute ere, denboran koinziditzen ez dutela ikusten dugu. Gure aburuz, honen arrazoia nahiko argia da, zeren ikastolen hedapena helduen alfabetatze mugimenduarena baino lehenegokoa izan baitzen, eta ez dakigu noraino ez ote den zuzena izango ikastolen mugimenduak helduen alfabetatze eta euskalduntze prozesuak bultzatu eta elikatu zituela baieztatzea. Ikastolak, garai honetako euskal kulturaren gertakari sozial bezala, goizen agertu zena da eta beraren garapena euskal munduaren adierazpenen eraginkor bihurtu zela uste dugu.

Dena den, epe honetako ikastolen ezaugarriak ez dira mantentzen. 70.eko hamarkadaren hasieran elementu berri batzuen agerpenarekin eta, batez ere, mugimenduak hartu zuen tamaina itzelarekin, hasierako ezaugarriak eraldatzen eta egoera berriei egokitzen joaten dira. Frankismoaren bukaeraren perspektiba, gizartearen mobilizazio egoera ia etengabea, euskal kulturaren birformulatze orokorra eta hezkuntza lege berria dira, besteak beste, ikastolen inguruan dauden

---

284 Lan bera, 8. orri.

285 ARREGI, P. (biltz.). (1992): **Euskal Alfabetatzearen azterketarako lehen urratsak. 1960-1990**. Argit. gabe. 9. orri.

elementuak. 70. urtetik aurrera beste epe desberdin baten hasieraren urratsak antzeman ditzakegu. Batetik, Gipuzkoako Federazioak ekarri zuen egituraketa formala (funtzioen banaketa, informazioaren konpartimentalizazioa, hierarkizazioa...), bestaldetik botereak derrigortu zituen legeztatze prozesuak, eta azkenez Estatu mailan hezkuntza sisteman ezartzen ari zen formalizazio eta finkapenari aurre egiteko neurriak eta politika. Dudarik gabe, elementuok oso lotuta daude eta haien arteko mugaketa egitea ezinezkoa da, baina guretzat interesgarriena zera da, aldagaiok ikastolen mugimenduaren bilakaeran izan zituzten eraginak, ordura arteko dinamikan sortu zuten etena eta ezarri zuten eraldaketa.

Horren adierazle zuzena ikastolen barruko gatazka dugu, nolabait ideologia kritiko eta tradizionalaren arteko txokearen ondorioa dena. Bertan, boterearekiko loturak inposatzen dituzten kontraesanak ikusten ditugu, baita instituzionaltze horrek ekarri zituen ordain altuak ere.

3. Ikastolen instituzionaltze prozesuak (1975...). Gatazkaren ondoriozko tentsioak leuntzean eta nolabait krisialdia gainditutzat jo dezakegunean eman behar dugu bukatutzat ikastolen mugimenduaren lehenengo epea. Hurrengoak, hemen aztertu ez ditugun ezaugarri berriak hartu zituen eta instituzionaltze epe bezala defini daitekeela uste dugu. Ez da, lehen aipatzen genuen bezala, instituzionaltze homogeneo eta bateratua, zeren kasu honetan errealitatean administrazioa interlokutore garrantzitsua bihurtu baita, honek mugimenduari dakarzkion ondorio guztiekin.

Gure lan honen bukaera konfliktoan zehaztu dugu, zeren gure ustez krisialdiak ondo adierazten baitu aurreko epearen ekarpenak eta hurrengoarenaren jarraibideak. Instituzionaltze prozesuak azterketa dibertsifikatu beharra azaltzen du, eta aldez aldeko hausnarketarik gabe oso azalezkoa izango litzateke orokortasunaren izenean hitz egin nahi duen azterketa. Horra hor bada beste aztergai interesgarria.

3.4. IKASTOLEN MUGIMENDUAREN ERAKETA

Beste atal batetan ikusi dugun legez, 60.eko hamarkadaren hasieran euskal hezkuntzaren testuinguru horretan fenomeno berri eta erabakikor batzu azaltzen zaizkigu, zeinen bitartez hezkuntza saioak etxe eskolaren mugaz bestaldera abiatzen baitira. Lekualdatze honetatik ikastolagintza hasten dela esan dezakegu, hasieran ezaugarri definigarri berezirik ez bazuen ere.

Ikastola hauek oso data goiztiarretatik sortzen dira, normalean erabiltzen diren azterketa estadistikoetan zenbatuta agertzen ez diren arren. Ale batzu baino

ez dira, duda gabe, baina berebiziko garrantzia dute piskat beranduago finkatzen diren zentruen zentzua ulertu ahal izateko.

3.4.1. Ikastolen arteko mugimenduaren sorrera: elkarlanerako bidean

60.eko hamarkadaren hasieran, leku batzutan ikastola txiki batzu hasten dira martxan, hala nola, Bilbo (1958); Hernani, Pasaia, Andoain eta Santo Tomas Lizeoa (1961); Elgoibar, Irun, Deustu (1962); Orereta, Lazkao, Algorta, Gasteiz (1963). Honetaz aparte, 1962.ean Iruñean lehenengo ikastola saioa egin eta segituan poliziak itxia izan zen 1964.ean berriro sortuz.

Ikastola hauek, indar bateragilerik gabe sortzen direla aipatu dugu; tokiz tokiko errealitateari egokituz, eta era desberdineko bultzatzaileekin abiatu ziren, egunez eguneko oztopoei aurre eginez. Batzuk Zipitriaren erreferentea zuten eta etxe eskolaren itxura haundiagoa hartu zuten (Gasteiz, Pasaia), beste batzu gerraurreko esperientziaren batekin lotuta egon zitezkeela pentsa daiteke (Iruñea) eta besteei denetarik apur bat zutela antzeman diezaiekegu. Halere, nahiz eta kopuruz oso gutxi izan, ikastolen esperientzia jendearen artean zuen ezagupideari azpimarragarri deritzogu, senide, auzoko edo erreferentzia desberdinen eraginez ikastolak ezagunak zirelarik.

Hala izan behar omen zen, zeren ikastola guztiek zabaldu eta berehalaxe matrikulatzeko eskaera haundia zutela agertzen baitzaigu, sarritan erantzun ezinezko bihurtuz. Datu bat emateagatik, 1957.ean Bilboko ikastolari hamairu umerekin eman zitzaion hasiera, kurtsoan zehar kopurua hogeitazazpikoa izaki, eta, hurrengo kurtsoan, –1958-59.ean– berrogeitazortzi ume zituzten, lau andereñorekin[286]. Herrietako ikastoletan arazo berdina azaltzen da: "Azkar, azkar, Elgoibarren nik esango nuke berehala, berehala haunditu dela, nik esango nuke, nik ez dakit, maiatzean hasi zen andereño bat, hurrengo otsailean bigarrena, eta urte hartan hasiko ziren beste bi, lau, lau neska egongo ziren hurrengo urterako, gutxi gorabehera. (...) Bueno gauzak ondo zihoazen eta berehala topo egin genuen lehenbiziko problemarekin, guk genituen postuak baino askoz ere eskaera haundiagoa genuela, baino askoz haundiagoa. Problema bat izan zen, jo! ez dakizu!, euskara lantzeko nahiean, laguntzeko nahiean eta haurrak utzi behar hartu gabe"[287].

---

286 ARRIEN, G. (1987): *La ikastola Azkue, la primera en ser legalizada en Vizcaya en 1966*. **Eusko Ikaskuntza. Cuadernos de Sección: Educación**, 2. Donostia. 12. orri.
ARENAZA, J. (1975): *Bilbo´ko ikastolak*. **Agur**, 171. Artikulu honetan antzerako datuak ematen dira; baita 1965-66ean ia 120 ikasle zirela, eta 1975.erako Bilbon zortzi ikastola zeudela 3000 ikasle ingururekin (Lauron: 830; Santutxun: 660; Deustuan: 290; Begoñazpin: 435; Aixerrotan: 160; San Adrianen: 30; Karmenen: 200; Elkanon: 58.

287 6. eta 5. elkarrizketak.

Gizartearen aldetiko harrera on honekin batera elkartu beharra ere plazaratu zen: "Eta gauza jakina, ikastola berriak han hemenka sortu ahala, hasi zirela elkarren berri jakin, elkar babestu eta koordinatzeko herri bakoitzeko ordezkarien bilkurak antolatzen"[288]. Egin zen lehenengo bilera Bidanian ospatu zen 1963. urtean. Orduko ikastolen ibilbidea eta sostengua oso neketsua eta oztopotsua izanik, elkarren berri izateak arnasketa txikia suposatu zuen partaideentzat, proiektuari gerta ziezaiokenaren beldurrak uxatzeko eta globaltasun batetatik baikortasun haundiagoz ikusteko: "Gurasoak, herri guztietakoak, baziren ikastoletakoak biltzen hasi (...), eta zenbat ikastola ziren Gipuzkoan? ba zortzi, ba zuk badakizu zein inportantea zen juntatzea?, gero haunditzen joan zen eran bailaraka antolatzen ziren, baina, zu hor herri bateko gurasoak anima daitezen egokiena aldameneko gurasoak dira"[289].

Funtzionaketarako mekanismoak ere ezarri ziren era sinple eta eroso batez. Herri mailan "gurasoen juntak" eratu ziren: "Batzorde hau, bada, arduratzen, beste gurasoen izenean, nahiz andereñoaz, nahiz lekuaz edo behar zen dirua sortu eta ikastolaren organizatzeko"[290], eta honi buruzko informazioak ikastolen arteko bilkuretara informazio gisa eramaten zen. Ikastola guztien amankomunak ziren beste gai batzu, berriz, bileretan bertan debatitu eta aztertzen ziren. Hala hola koordinaketa hauetatik ikastolak beste herrietara zabaltzearen helburuak zehaztu ziren, eta lanari ekin zioten eskualdearen kriterioari jarraiki. Horrela herri bakoitzekoak ondoko herrietara joaten ziren, han lagunen batekin hitz egin, edo, abertzaleak edo euskaltzaleak omen ziren pertsona batzu elkartu eta ikastola egiteko proiektua proposatu eta egitera animatu. Eskualdeka eratzen zen zabalkunde honek erantzuna lortu ahala, bailarako batzordeak eta eskualdekoak sortu ziren, herri bakoitzeko juntako ordezkari eta andereñoen ordezkariekin ere osatuta. Ondorioz, partaidetza haundia ahalbideratzen zuen funtzionamendua eraiki zela esan dezakegu, "behetik gorako lana egin zen... oso behetik gorakoa"[291].

Era honetako antolamentua eta koordinaketa leku guztietan eman zen. Gipuzkoan Bidanian hasitako biltzeari, Lazkao, Urretxu eta Loilakoek emango zioten jarraipena urte batzutan zehar. Bizkaian ere, Bilboko esperientziak ahalbideratu zuen ezagupidearen bitartez eta Julia Berrojalbizek herrialde honetako ikastolen zabalkundeari eman zion bultzada aipagarriaren laguntzaz, herri desberdinetako ikastolak antolatu ziren, eta koordinatu ere 1967.eko "Eubako Taldea"ren eraketak demostratzen zuen bezala: "Eta gero Euba, Bizkai

---

288 SETIEN, J. F. (1979): *Gordailu eta euskal pedagogia*. **Jakin**, 11. 106. orri.

289 4. elkarrizketa.

290 AIZPURUA, I. (1972): *Ikastolen historiarako ikusbide bat (1960-1972).* in JAKIN (arg.): **Gure Ikastola**. Jakin Sorta, 6. Oñati. 20. orri.

291 4. elkarrizketa.

osoan egon ziren errepresentanteak, ikastola bakoitzeko bat zonaka ibiltzen ginen, ikastola bakoitzeko bat, eta zonan igual bost edo sei pertsona, segun eta zenbat ikastola; hortik bat edo bi aukeratu genuen, eta bi horiek, zonatik joaten ziren burura, eta buruan egon ziren, Eubako burua deitzen dena, deitzen genuena.."[292]. Arabakoak eta Nafarroakoak ere Gipuzkoakoekin bildu ziren, baina, egia esan, sortzen zihoazen ikastolen arteko komunikazioak ez zuen inondik inora bide bakarrik edo zehatz-zehatzik jarraitu. Andereñoen eta gurasoen mugikortasunak esperientzia guztiak elkar komunikatzea erreztu zuen, soziologikoki harreman sozialak oso trinkoak ziren sektore batzutan, eta beti ere esperantzaz beteta zegoen giro hartan.

Ikastoletako lehenego urte hauetan, esperientziaren biziraupena bera kolonkan egon arren, oso urte emankorrak eta bertan parte hartu zutenentzat zoriontsuak izan zirela ikusi ahal da elkarrizketa guztietan. Ikastolagintza herri elkartasun uhina zen eta partaide guztiak bertan murgilduta agertzen zaizkigu, euren arteko identifikazio sakon batekin eta hierarkizatu gabeko antolamentuan. Euskaldunen aldeko atxekimendua erabatekoa izan zen eta handik ekoiztu zen elkartasuna pareka ezina: "Nik ez dakit edukiko dugun beste momentu batetan halako alkartasuna, orduan izan genuen bezala, mota guztietako jendea, halako espiritua. Diot, euskaldun guztiok momentu hartan espainolen kontra, eta euskaldun guztiok alkartuta"[293]. "Hura abentura ikaragarria izan zen. Guraso batzuk etorri ziren niregana, euskal eskola bat sortu nahi zutela esanez eta maistra bat behar zutela. *Neu joango naiz*, esan nien itsumustuan eta horrelaxe hasi ginen. Nik orduan 56 urte nituen eta eszedentziarekin erretiratua nengoen maistra nazional bezala. Egia esan, ez nekien zertan sartzen nintzen, baina itsu-itsuan baietz esan nien eta lanean hasi nintzen jo eta su. Jakina, eskola ematen esperientzia luzea neukan, baina ez euskaraz irakasten. Guk orduan ez genuen ikastola hitza ere ezagutzen"[294]. Honi buruzko aipamenak asko izan daitezke, bai irakaslegoaren aldetik baita gurasoen aldetik ere, elkarrizketetan ikusi ahal izan dugun bezala.

Ander Gurrutxaga soziologoak ikastolagintzan sortzen den eraikuntza honetaz zera laburbiltzen du: "Claro está que estas determinaciones se producen en medios sociales muy densos, donde las posturas políticas, ideológicas y su proyección en pedagogía y metodologías se entremezclan con relaciones sociales y humanas en momentos históricos, en los cuales la lengua está sobredimensionalizada, con fuerte carga simbólica y donde la expresión de todo símbolo vasco (lengua, ikurriña) supone un signo de transgresión por la

---

292 11. elkarrizketa.
293 5. elkarrizketa.
294 E.H.I.K. (1988): **Txingudi ikastola**. Euskal Herriko Ikastolen Konfederazioa. Testimonioa Joxepi Etxebarriak Irungo ikastolako lehenego andereñoak eginikoa da.

prohibición expresa del poder dominante. La consecuencia es que la ikastola trasciende su función de socialización y de transmisora de conocimientos y adquiere aspectos comunitarios de fuerte sentido social"[295] .

Helburua, haatik, ez zen batere erreza. Herri mugimenduek izan ohi dituzten eskaera puntualak baino askoz ere gehiago eskatzen baitzen ikastola bezalako proposamenarekin, alegia, hezkuntza sistema paralelo oso bat eraikitzea. Honek ezaugarri bereziak hartzen dituela ukatzerik ez dago. Batetik jokoan zegoena gizartean gero eta baloratuago agertzen zen seme alaben eskolarizazioa bera baitzen, eta honek gurasoen artean beldurrak sortarazten zituen. Bestetik, legez kanpoko eskolaratze honek eskola legala bezalako azpiegitura eta oinarrizko baldintzak eskuratu behar zituen (lokalak, irakasleak, euskarazko materialeak, dirua...). Dudarik gabe, apostu arriskutsua izan zen, eta inguruko giro sozialak eta proiektuak pizten zituen motibazioek zeresan haundia zuten honetan, eta horren poderioz posible omen zenaren gainean ausarki jokatu zuten ikastoletako partaideek: "Beitu, nik askotan diskutitzen dudanean nire garaiko lagunekin, PNVkoak, eta komentatzen egoten ginen: *es que sois unos radicales, hay que luchar con posibilismo* , les digo: *ya!, posibilismo puede ser una palabra que puede querer decir cosas tales como cobardía, falta de imaginación, puede querer decir muchas cosas porque si nosotros creemos en ese posibilismo de que vosotros hablais las ikastolas no nacen...*"[296]

Puntu honetara ailegatuta, eta motibazioak eta laguntzen zuen giro soziala sortzen ari zirela kontutan hartuta, eraketa bera nola bideratu zen galde genezake, nola egin posible herri bakoitzean horrelako guraso taldea bildu eta ikastolari ekin. Elkarrizketen bitartez, lehenego ikastoletako partaideen ezaugarri garrantzitsua agertzen zaigu, alegia, hasierako koordinaketa haietan azaldutako "ikastolak zabaldu behar" hura mobilizazio haundi batetan gauzatu zela. Ikastolen lehenengo zabalkunde honetan mugikortasuna eta horrek zekartzan informazio metaketa, harreman sareen ugalketa eta dinamizazioa agertzen zaizkigu.

Partaideen inplikazioa erabatekoa zen, eta leku batetik eta bestetik ahoz ahoko menanismoak erabili zituzten; lagunekin hitz egin, edo euskaltzale edo abertzale ikurren bat zutenekin (abizenak eta euskal izenak, euskal kulturaren ihardueraren batetan ibilitakoak...), edo erreferentziaz ezagutzen zen jendearekin: "Fuimos de casa en casa (...) que creíamos que era nacionalista (...). Sabíamos que no nos iba a negar ya, unos negaron no?, pero no, la gente cumplió, pero piso por piso se fué a casas que sabíamos que eran abertzales y eso, que íbamos a hacer una ikastola y más dijeron que sí que que no"; "Gero pentsatzen ari naiz zein nolako

---

295 GURRUTXAGA, A. (1985): **El código nacionalista vasco durante el franquismo**. Anthropos. Bartzelona. 264. orri.

296 5. elkarrizketa.

palizak ematen genizkien laguneei! (...) ba nolabait hasten gera gure edadeko lagunekin hitz egiten ez? ea zer egin behar duten haurrekin eta abar, oso normala zen, –nola dabilen tuperbarak eta holakoak saltzen? ba igual–. Ezkonberriak lagunak eta: *aizu, zuen etxera joango naiz bihar*, eta bai, *bai, etorri*, eta badakizu zein poza ez? ezkonberriak, eta hitz egiten hasi haurrak, hizkuntza, euskara, eta bueno hala hasi ginen"[297].

Ahoz ahoko mekanismo honek maila altuak hartzen ditu lehenengo momentu hauetan, bai guraso gehiago lortzeko, baita andereñoak lortzeko ere. Lortzen zen heinean sareak biderkatzen joan ziren, funtzioa bera soinu uhina bezala biderkatuz.

Honetaz aparte, kasu askotan apaizei eskatzen zitzaien laguntza, bai lokalak lortzeko, baita guraso edo andereño posibleri buruzko informazioa eskuratzeko. Elizak era instituzional batez lagundu ez zuen arren, bazeuden apaizak euskararen aldeko jarrera nabaria mantentzen jarraitzen zutenak, bai euskal ikasbidean bai euskararen inguruan laguntza ematen: "Bai, bai, beti apaizarengana jotzen genuen e?: *zuk jakingo duzu, eta zuk ezagutuko duzu, eta zuk esango diozu*, eta piskanaka (...). Euskaldunak, euskaldunak izan ezkero primerakoak, eta laguntzeko prest denak, jesus! herri txikietara joan ezkero eta ikastolarako nahi dugula eta, bai, ahaleginak egiten zituen..."[298]. Orduko aldizkarietan ere euskararen animatzaileak ziren apaizen izkribuak agertzen ziren ikastolan parte hartzeko animatuz eta bultzatuz[299] .

Sakristietan eta etxe askotako sutondoetan josi zen ahoz ahoko sare hau aparte, zabalkunderako espreski sortutako edo lagundu zuten beste ekintza batzu ere antolatu ziren, kasu askotan gerraurreko proselitismo lanekin antzekotasun haundiak zituztenak. Alde batetik, ikastoletan benetan ikasten zela demostratu beharra zegoen, nolabait leku askotatik zebilen zurrumurruari aurre egiteko; izan ere, hastapenetan ikastolek zeukaten azpiegitura falta dela, edo ele bi ikasteak umeari ekar liezaizkiokeen kalteak direla, edo antzeko argudioen aurrean, ikastoletan eskolaratutako umeen demostrazioak egiten ziren herriz herri, praktika orokorra bihurtuz (honetaz elkarriketatu gehienek egiten dute aipamena). Euskara ikasten ari ziren umeen erakustaldi hauek lehenagoko praktika da, alegia, Zipitriak Iruñean eginiko horrelako baten berri ematen da "Boletín de la Sociedad

297 10. eta 5. elkarrizketak.

298 9. elkarrizketa.

299 Asko dira Zeruko Argian eta halako aldizkarietan agertutakoak; data goiztiarretan ETXANIZ, N. (1964): *Euskal eskolak*. **Zeruko Argia**, 84.; ETXANIZ, N. (1964): *Kristau ikasbidea bertsotan*. **Zeruko Argia**, 85. Honetaz aparte, Aita Murietaren aipamena ere egitea derrigorrezkoa dugu.

de Estudios Vascos" aldizkarian 1932.ean, edo, Nafarroako umeen sariketak[300]. Bestaldetik, neurri txikian eta era apal batez bazen ere, ikastolaren presentzia kaleratzen hasi zen umeen erakustaldiek zuten kutsu kultural eta afektiboa bilduz; hala nola, jaunartzeak, euskal jaiak, Santa Ageda eguneko kanta, Olentzeroa eta tokiz tokiko ekintza desberdinak: "Inguruetako herri guztietako umeak etortzen ziren, Elgoibarko Izarra izaten zen antolatzaile eta bilatzen zituen etxeak umeei jaten emateko, euskal jai hori zenean etxeetara bialtzen zituen umeak, guk ere hartu izan genituen, bi edo hiru ume familia bakoitzean hartzen ziren eta janaria ematen zitzaien, eta gero dantzak eta egiten zituzten, batez ere dantzak. Gero egin izan dira bertsoak eta kantuak ere bai, eta Donostiatik etorritako andereñoak umeei egindako galderak baina publikoki, publikoki eta bai, jaialdiak prestatzen ziren, eta esaten dizudan bezala galdera erantzunak, eta abestiak eta horrelako gauzak"[301].

Era honetara, eta mobilizazio orokor baten antza hartzen zuen ekinbide gisa, zabaldu ziren ikastolak, jendearen artean onarpen eta arrakasta bizia sortuz eta historian lehenbiziz Euskal Herri osoan euskal eskola proiektu amankomun bat ezarriz.

3.4.2. Ikastoletako partaideen papera: gurasoak, andereñoak eta laguntzaileak

Eskolaz ari garela, ez da ohizkoa izaten eskola eta gizartearen artean harreman zuzenak izatea, ezta eskola eta gurasoen artean ere. Eskola, tamalez, eta beraren eginkizun sozialaren kontra doan arren, errealitatean beraren ingurune sozialetik nahiko urrunduta bilakatzen dela esan genezake. Eskola gutxi txertatzen da dinamika sozialetan zuzenki, eta txertaketa hori kasu isolatu eta ezohizkoetan gertatu ohi da. Ikastolak, salbuespen honen adibide bitxia izan dira.

Ikastolak, sorreran zuten aipatutako ahuleziari aurre egiteko, antolakuntza bereziaz hornitu behar izan ziren, eskola partaideen arteko loturak eta funtzionamendu konkretuak zehaztuz. Ikastolak, ezagutzen ditugun eskola ereduetan ez bezala, gurasoen erabateko partaidetzarekin eraiki ziren, proiektuaren motorra eta sostengu bihurtu zirelarik. Hau nola gorpuztu zen jakin ahal izateko, dinamika sozialak argitzen dizkigun motibazioen gakoak ez dira esplikaziorako nahikoak. Badaude, duda gabe, hastapen hauetan ikastolak euskal gizartean suposa zezaketenaz ohartu ziren pertsona batzu, momentuko erantzuna baino urrutiago ikusi eta besteei bultzada eta konfidantza sortzeko grina izan zutenak; horien artean Jazinto F. Setien dugu.

---

300 BSEV (1932): *Exhibiciones de la escuela de Muñoa*. **BSEV**, 55.; eta umeen sariketak: ikus lan honen bigarren kapituluan.

301 7. elkarrizketa.

J. Setienek, Zipitriaren eskola ezagutu ondoren, esperientzia txiki eta xume harek euskal eskolari egiten zion mesedeaz ohartu eta zabaldu beharra ikusi zuen. Bitartean, lehenengo ikastolak sortzen hasi eta koordinatu beharraz eta gurasoen partaidetza norainoko garrantzia zuen konturatuz lan horri ekin zion. "Jazintoren klaribidentzia izugarria izan zen, alde horretatik. Horretaz gain Jazinto F. Setienek oso argi ikusi zuen ikastolak herrietan zabaltzeko beharra. Mentalki berak eman zuen pausu hori, euskara eta ikastola ez zela gelditu behar esperientzia txiki hartan, baizik eta eredu berri bat sortzen ari zela"[302].

Baina mekanismo konkretuak behar ziren asmo hori gauzatzeko. Gurasoek hezkuntzan jokatu behar zuten paperean eta andereñoekin nolako harremanak zehaztu behar zituzten izan zen honen gakoa: "Ikastolak guraso eskolak ziren eta orduan ez zegoen beste guraso eskolarik horrela, hortan nik uste berak, beragatik izan zela, asko eta asko, eta hori oso inportantea zen ezta?, gurasoak hain sartuak egotea (...), gurasoak sartuak ere bertan, aizu obrak eta nola egiten ziren ba?, baino berak bazuen ba holako, ba gainean egon behar zutela, sartuak, orduan dena zen zuk garbitu behar zenuen eskola eta gurasoek bazekiten pedagogiaz"[303]. Setienen ustez eskuhartze hau ez da gurasoen koordinazio eta partaidetzara mugatzen; ikastoletan andereño berriak sartzeko animatu eta, beste batzurekin batera, atal honetan ere bultzada onartzen diote andereñoek zein gurasoek.

Honela, antropologian ikertzen den "auzolan"-aren antzeko zerbait sortzen da ikastolen munduan. Partaide guztien inplikazio finkoa eta funtzio guztiak, neurri batetan, era amankomun batez bete beharra. Nahiz eta eskolako partaide desberdinek betebehar batzu eduki, funtzionaketan ez zegoen konpartimentazio edota espezializaziorik, oztopoak eta problemak denen elkarlanean aztertu eta konpontzeko joera nagusitu baitzen. Honen ondorioz, partizipazioa berrindartuta suertatzen zen partaide guztiekak, proiektua aurrera atera ahala, protagonistak sentitzen baitziren, nolabaiteko esperientzia autogestionarioa gauzatuz. Funtzionaketarako lan amankomun honek hierarkia eza ekarri zuen, berdintasuna eta elkartasunean oinarrituz. Andereñoak irakaskuntzaren ardura aparte, ikastola bakoitzaren problematikaren partaidea ziren bitartean, gurasoak ere proiektu pedagogikoaren partaide bilakatu ziren. "Urte batzutan eman ziren halako egoera ideal batzu... gurasoak ere oso, oso konbentzituak, oso, oso sinistuak pedagogia hartaz, klaro zeren zeharo desberdina zen eta sartu egon behar zen kolpetik halako eskola diferentea ez? (...) ofizialtasunik ez zeukana, eta diru laguntzarik ez zeukana, eta hor nik uste egon zirela pertsona batzu bista haundia eduki zutenak, eta noski, jendearen abertzaletasuna ere kontatu zen bestela..., baina ez zen izan

---

302 BASTERRA, J. (1989/12/15): *Andereñoen Erresidentzia, eredu pedagogiko berri baten iturburua*. **EGIN**. Paki Arregik esandako hitzak.

303 4. elkarrizketa.

abertzaletasuna bakarrik, izan ziren pedagogia aldetik halako sensibilizatzen bat e? (...), orain berriz ez dago, baina benetan guraso eskolak ziren"[304].

Itxuraz ahula eta umila zen eskola hura kalitatez hoberena izatea, eta hortan gurasoak inplikatzea eta sinistea, bere helburua lortu zuen apostua izan zen, guraso beraien hitzek adierazi bezala. Hauek bere egin zuten pedagogiari buruzko ardura hori, eta andereñoekin batera eredu berri horretan parte hartzen zuten. "Orduan harremanak guraso eta irakasleen artean oso onak ziren, izugarri onak ziren, oso, oso onak. Niretzako izan zen ikastoletako ba, zer esango dizut?, garai jatorrena, gratifikanteena, lan asko zen baina nolabait oso lan aberatsa, geroago gauzak okertu egin ziren e? (...). Orduan bueno, gure artean esan genuen: txikito, guk nahi badugu mugimendu hau ondo atera dedin ez zaigu bakarrik euskara on bat ematea, behar dugu nahi eta nahi ez kalitate bat, irakaskintza aldetik edo pedagogia aldetik"[305].

Ikuspegi pedagogiko batetatik ere, andereñoek bultzatutako eredua aurrera-zalea eta jendearen artean arraroa zen. Eskola tradizionalaren arauak nolabait apurtzen zituen eskola saio horrek beldurrak eta errefuxa sor ziezaizkiekeen gurasoei, baina irakaslegoaren ilusioak eta gurasoekiko giro komunikatzaileak erreztu zuten berrikuntza pedagogikoa. Ikastoletako lehenengo guraso eta andereño multzo hauen lanaren emaitzak proiektuaren ospea ahalbideratu zuen, eta marko sozio politiko hartan mugilduta, gero eta ohiartzun haundiagoa lortzen joan zen: "...toki guztietan gertatu zen berdin. Zergatik? Bueno, alde batetik nik uste dut prestijio hori jaio zela nolabait ikusten zuten ilusioarengatik; gero, gurasoekin alkarrizketak maiz egiten ziren, igual astean behin eta hola gurasoekin, irakaskintza etxeetara sartu zen, ordura arte irakaskintza ez zen behin ere etxean egondu, irakaskintza zen irakaslegoaren gaia eta etxean ez zen hitz egiten behin ere; etxean hitz egingo zen zein nolako notak zeuden, onak ziren ala txarrak ziren baina bitartean ez, eta andereñoen bitartez hasi ginen irakaskintza etxeetara eramaten, klaro gurasoek ez zuten ulertzen ba igual bost urteko haur batek ez zekiela batuketak egiten ez? orduan danak zeuden akojonatuak: *zu, haur honek ez dakiela batuketak egiten!, ba horrek ez duela garrantzirik, nola ez duela garrantzirik?* Eta nolabait harreman horien bitartez irakaskintza etxeetara sartzen zen, irakaskintza preokupazioa eta abar, eta orduan gurasoak oso, asko sartzen ziren eta nolabait ere hori gratifikantea zen, zergatik zure haurraren askoz ondorago zeunden ez? askoz gertuago"[306].

Hitzok aski adierazgarriak izan direlakoan gaude. Ikastola bakoitzaren barruan partaideen artean isuritzen zen dinamika honen izpiak ez ziren lau horma

304 4. elkarrizketa.
305 5. elkarrizketa.
306 5. elkarrizketa.

tartean gelditu, herri mailan berehala kaleratu eta proiektuan zuzen parte hartu gabe baina laguntzera hurbiltzen zen jendearengana iritsi zen. Hizkuntza herri nortasunaren ikur bezala zenbat eta konsolidatuago egon, ikastolak gizartean hainbat eta onartuago izan ziren. Maila ofizialetik eta publikotik ukatuak ziren arren, ikastolak herri bakoitzaren euskal guneak bilakatzen joan ziren, sektore askoren oneritzia eta elkartasuna bereganatuz.

Antolaketa mailan, eta ikastolaren inguruan egin behar zen lana haundia zela kontutan hartzen badugu, laguntzaileen irudia zehazten da. Laguntzaileak, batzutan ikastolen babeserako legeztatu ziren elkarte kultural zenbaiten bazkideak izan ziren, beste batzutan ikastolari era informal batez mesedeak egiten zizkiotenak (lokala utzi, kontaktuak bilatu, informazio desberdinak emon...), beste batzutan diruz laguntzen zutenak ziren. Oro har, ez dago honetan formula bakarra, baina bai esan genezake ikastolek herriaren laguntza jasotzen zutela oso era desberdinez. Elkarrizketetan horrelako pasadizu asko agertzen dira, batez ere, laguntza ekonomikoen inguruan (herentziak, Ameriketako Euskal Zentruetako laguntzak...), eta azpiegitura mailekoak. Legearen aldetiko oztopoak gainditzeko laguntzak ere jaso ziren, batez ere "Eskola Kartilak" eskatzen hasi eta ikastolek eskuratzeko nortasunik ez zutenean: "Cuando en las ikastolas todo era ilegal, no dando nombres ni número de niños por miedo al cierre y cuando había pueblos en los que los maestros nacionales se encargaban de alertar a la inspección de nuestra presencia, la escuela nacional de Pasajes, que tenía un gran prestigio, nos dió todo su apoyo (...). A veces los mismos maestros, cuando los niños iban a matricularse alentaban a los padres para que les llevasen a la ikastola"[307].

Atal honen hasieran ikasleak aipatu izan ditut partaidetzaren osagai bezala. Ez dugu, gure lan honetan, ikasleen testimoniorik jaso, agian hau bezalako gaietan duten garrantziaz ez baikinen ohartu. Bai, ordea, lanaren lanez euretako askorekin ikastolan izandako esperientziaz hitz egin. Honen inguruan aipamen txikia baino ez dugu egin nahi. Lehenengo ikastoletan, behintzat, ibilitako haurrak arrunta ez zen giro batetan hezitzen ari zirela ohartzen ziren, errekurtsoz urria baino balioz oso baliotsua zen eskola batetan ari zirela. Gurasoek egin zuten apostuaren esanahiaz jabetu ezin baziren ere, haiekiko konplizitate kutsurik ez ote zegoen galde genezake, motibazioetan eta eskola emaitzetan eragina izan zezakeen gurasoekiko "elkartasun" mota bat, andereñoekikoa ere. Haur hauek izan zuten eskolaren esperientziak ezaugarri bereziak zituela dudarik ez dugu. Tamalez, aztertzeke gelditzen zaigun beste gai interesgarri bat.

---

307 ABANDA, G. (1990/12/2): *Nekane Azurmendi: "La experiencia de la primera colonia en el monasterio de Barria es irrepetible"*. **Diario Vasco**.
Antzeko testigantzak topa ditzakegu Araban (9. elkarrizketa), Gipuzkoan (7. elkarrizketan) edo Nafarroan (12. elkarrizketa).

Laburbilduz, ikastolen mugimenduaren lehenengo momentu hauek guraso eta andereñoen arteko elkarlanean oinarritzen direla esango genuke, elkarlana non autogestioa, hierarkia eza eta funtzioen banaketa amankomuna ematen diren. Giro honetatik sortzen den dinamismoaren eraginez, beti ere testuinguru sozio politiko konkretu hartan, sektore sozial gehiagoren onarpena lortzen dute eragin biderkatzaileez ospea eta zabalkundea gorpuztuz eta gauzatuz.

3.4.3. Hezkuntza Proiektua eraikiz: Andereñoen Erresidentzia

Ikastolagintzak bere ibilbidean oztopo ugari aurkitu zituen, haietatik garrantzitsuenetako bat irakasle falta izan zelarik. Gerraurreari buruz hitz egiterakoan, Euskal Herrian maisu maistrek zuten irudi txarrari buruzko aipamena egin dugu, gehien bat maisuak erdaldunak izatean akulturazio eta erdalduntze prozesuaren ikurra bihurtu baitziren. Frankismoaren garaian, erregimenak hezkuntza sistemaren kontrolerako ezarri zuen irakaslegoaren garbiketa eta "aukeraketa" zela medio, irudia txarragotu, eta orokorrean gizartearen aldetik oneritzirik ez zuen lanbidea zela esan genezake. Maisuaren irudi negatiboa hau (espainola, frankista eta antieuskalduna), ekonomikoki txarto ordaindutako lanbidea izatearekin batera, gizartearen aldetiko erantzun negatiboa jasotzearen arrazoiak ziren, ideologia eta ekonomiaren partetik errefuxatuta gertatuz.

Egoera honek, ekonomikoki abiatzen ari zen inguru batetan ezartzen badugu, euskal jendeak maisuntza ikasketetan ez matrikulatzearen ondorioa dakarkigu, eta azken batez, ikastolarako irakasleak aurkitzearen zailtasuna. Hastapenetan ikastolak praktikak egiten zituzten titulugabeko andereñoekin martxan jarri baziren ere, berehalaxe irakasleak lortu eta sortu beharra nabarmendu zen. Honez gain, ikastoletan hezkuntzaren kalitateaz zegoen kezka ere kontutan hartu behar dugu, alegia, nola egin posible kalitatezko euskal hezkuntza proiektua irakaslerik gabe?

Baina arazoa ez zen ikastoletan tituludun irakaslerik ez egotea soilik, baizik eta irakaslegoa nahiz eta maisuntza titulua eduki, euskal hezkuntzarako prestatuta ez egotearen konzientzia argia ere. Euskal hezkuntzarako irakasleak formatu behar hau aintzinetik agertzen zaigu euskal eskolaren historiari so egin ezkero. Jose de Villalongak eta gerraurreko Eusko Ikastola Batzaren asmoak argi utzi zuten puntu hau, eta andereñoen prestakuntzarako formazioa eratu eta maila batetan sistematizatu zuten. Asmo honen jarraipenik nabariena Zipitriarengan aurkitzen dugu, berarekin praktiketan izan ziren andereñoek sarri errepikatzen duten eta 1933.eko EIBren Informean iadanik agertzen zen maistra espainolen erreferentzia azaltzen zaigunean: "Una de las primeras frases que le oí comentar refiriéndose a nosotras fué la siguiente: *estas chicas que vienen de la Normal,*

malas caricaturas de vulgares maestras españolas"[308]. Mugimendu berriaren partaideek formazioaren konzientzia hau nabariki jaso zuten, ez baitzegoen Estatutik ezartzen ziren moldeetatik euskal eskola egiterik: "Heziketaren aurrera-bidean prestaketak zer-ikusi haundia du. Karrera bat ikasi duen jendeak, urte sail bat ikasten igaro badu ere, guziok dakigu ikasketa horiek ez direla gure herriko irakaskintzari erantzuteko eratuak edo moldatuak izan"[309].

Egoeraren diagnostikoa zuzena zela ukatzerik ez dago, zeren maisuntza eskoletan orduan ematen zen formazioak ez baitzuen benetan zerikusi haundirik ikastolagintzan egin nahi zenarekin. Gure ustez, irakaslegoaren formazioaren puntu honetan ikastolari bizitasuna eta ekarpen kreatzailea eman zizkion klabeetako bat dugu. Beraz, eskola euskaldun berri horrekin batera irakasle euskaldun berria hezi beharra nagusitu zen, eta mugimenduaren dinamikak eta giro zabalak arau eta ohituraz kanpoko erantzuna eragin ere. Arantxa Allurrek horrela laburtzen zuen 1972.ean: "Hainbeste ikastola berri sortzean, irakasle eza zen arazo haundienetarikoa. Ez baitzen behar hainbat maixtra euskaldun, baina arazoa nolabait konpondu behar zen eta ikastolagintzarako zenbait gaitasun edo prestaketa harturik prezixo titulurik izan gabe ere lan hau egin zitekeela eta lanari ekin zitzaion"[310].

Era honetara, herri bakoitzeko gurasoek ikastolako andereñoa izan zitekeen pertsona (tituludun zein titulugabea) aurkitu ezkero euskal hezkuntzarako errezi-klaia proposatzen zitzaion, andereño aritu batekiko praktiken bitartez. Mekanismo hauetan, lehenengo etxe eskoletako andereño gazteek Zipitriarekin izan zuten urte beteko praktiketako oinazea ikusten dugu, zeren berarekin harreman zuzen guztiak hautsi ziren arren bere pedagogia eta formazioari buruz zituen erizpideak bai hartu baitziren oso kontutan.

Irakaslegoaren formazio berezi eta desberdin hau honako honetan argudiatzen zen: "Ikastola ez da programa baten arabera ordu jakin batzuk igarotzen diren lekua; ez da hain modan dagoen pedagogia berriaren izenean teknika batzuk erabiliaz jendea oso pozik edukitzea; ez da haurra hain ttipia denean eta beste ikastetxera joan bitartean, euskaraz jolastuz denbora igaroko duen lekua; ez eta ere etxekoak arduratu gabe erlijio formula batzuk emanen zaizkion eskola. Bai ordea, kidetasun, askatasun, zuzentasun eta maitasun giroan heziaz nor izaten lagunduko dion bizitza eskola". Asmo pedagogiko berritzaile honi aurre egiteko, praktikak aparte beste formazio tresna batez jabetu ziren

---

308 ABANDA, G. (1990/12/2): Nekane Azurmendi: "La experiencia de la primera colonia en el monasterio de Barria es irrepetible". **Diario Vasco**.

309 ALLUR, A. (1972): Ikastolak eta irakasleak. in Jakin (arg.): **Gure Ikastola**. Jakin Sorta, 6. Oñati. 49. orri.

310 Lan bera, 48. orri.

ikastoletako kideak: "Joanes Etxeberri Hezitzaileen Eskola" edo ezagunago izan ohi den "Andereñoen Erresidentzia".

1964.ean, irakaslegoari dagokionean bi egoera interesgarri eman ziren. Batetik Donostiako Normalean, neska euskaldun talde bat ikasten zegoen, nolabait maisuntza ikasketa ofizialetan euskararen ardura zuen lehenenego ikasle taldea, eta herrietako eskoletan ume euskaldunei beraiek jasotako euskaragatiko estigmatizazioa arintzea zuten gogoan: "Orduan, nik uste guk hori, bai genuena herri txiki batetara joateko gogoa, eta euskara gure ikasleentzat ez zedila izan guretzat izan zena, baina noski, erderaz irakasteko asmoa genuen, erderaz erakutsi euskara despreziatu gabe, eta euskarari ere bere tokitxoa, baino gehiago ez genuen zera!, eta herri txikietako eskolan lan egitea zen gainera gure ilusioa, agian herri txikietan guk sofritu egin genuelako ezta? eta besterik gabe"[311]. Euskararen aldeko horrelako motibazioak zituzten ikasleak ez ziren oharkabean igaro ikastoletako bultzatzaileentzat. Jazinto F. Setien izan zen irakaslegai gazte hauekin kontaktuan jarri eta ikastoletarako animatzen ihardun zuena: "Bueno, gu ikastolara etortzeko hortan Jazintok eragin haundia izan zuen, Jazinto apaiza zen Lazkaon orduan, eta han Beasainen inbitatu gintuen arratsalde batetan, oso arraro egin zitzaigun, hiru edo lau joan ginen (...) hitz egin genuen eta abar, eta bueno, gizon harek hola jendeari horrelakoetaz konbentzitzeko, jendea konbentzitzeko eta holako, oso aurre ikusten zuen gizona zen (...) bueno, bai urrutira ikusten zuen gure aldean behintzat, eta gero ezer ez zegoen tokian ere zerbait bazegoela sinistarazten ere bazekien..."[312].

Beste urrats inportantea Andereñoen Erresidentzia sortzearen ideia izan zen. Proiektu honen aintzindariak Joxemi Zumalabe, Carlos Santamaria eta gehien bat Jazinto F. Setien bera izan ziren. Irakaslegoa ongi prestatu behar zela, formazio hori eskola ofizialetik ez zela ikasten, eta andereñoei formazio hori eskeini behar zitzaielakoan ekin zioten lanari. Noski, Donostiako Normalean zeuden ikasle gazte haiek izan ziren Erresidentziara sartuko ziren lehenengo taldekideak.

Andereñoen Erresidentziak, ikastoletan sartu aurretik egin beharreko andereño arituekiko praktikak egin bitartean, egoitza eta formazio osagarria eskeintzen zizkien irakaslegaiei. Asmo honekin 1964.ean Paki Arregiren zuzendaritzapean zortzi ikasle hasi ziren: M. C. Garmendia, Lourdes Estensoro, Nerea Aranburu, Amaia Lasa, Feli Etxeberria, Nekane Auzmendi, Nekane Iturbe eta Libe Goñi. 1974.ean, esperientzia bukatutakoan 45 ikasle zeuden, eta bederatzi urte horietan ikastolaren eredu pedagogikoa eraiki zuten irakasle asko eta asko bertatik pasatu zirela esan dezakegu, beste era batez egin ezin zatekeen prestakuntza errealitate bihurtuz: "C´est grace à cette institution que les ikastolas

311 4. elkarrizketa.
312 4. elkarrizketa.

purent compter sur des institutrices qui, au moins, avaient recu une certaine préparation qu´il aurait été imposible d´obtenir d´une autre facon"[313].

Baina zein izan zen han zeuden irakaslegai hauek hartu zuten formazioa? Dudarik gabe, hasiera hauetan euskal hezkuntzaren inguruan mugitzen zen eskola eredua, pedagogikoki, Zipitriarena zen. Zipitriak ospe haundia zuen irakasle gazte guzti hauen artean, baita berarengandik ikasteko gogoa eta jarrera ona ere. Harekiko haustura erabatekoa izan zen arren, berarekin ikasitako andereño batzu irakaslegaiei haren metodoa erakusteaz arduratu ziren. Kriterio zabalagoekin jokatuz, herrietako ikastoletarako formatu behar ziren neskekin praktikak egin, materialeak erreztu eta laguntza haundia eman zieten andereño hauek, tartean Karmele Esnal eta Kontxita Beitia aipa genitzakeelarik. Era honetara, metodoa ikasten zuenak zetorren berriarekin praktikak egiten zituen katearen beste maila bat gauzatuz, eta, amaraun gisara, andereño enpirikoen formazioa poliki poliki zabaldutako fenomenoa bihurtu zen.

Beraz, praktiken bidez Zipitriaren ereduan ikusitako planteamentu pedagogiko zein metodologikoa ikasten zituzten andereñogaiek. Honetaz aparte, lau gune nagusitan sailkatu daiteke Erresidentzian landutako gaiak: euskara eta literatura (alfabetatu beharra ikastoletara irakastera zihoan edozein pertsonaren lehenengo hutsunea baitzen), herriaren ezagupidea (historia, geografia, antropologia...), eskolari buruzkoa, eta azkenez, haurra eta bere ingurukoa (pedagogia eta metodologia). Han ibilitako irakasleak eta hizlariak ere ugari izan dira (J.M. Barandiaran, Federiko Zabala, Manuel Lekuona, Karmele Esnal, Jesus Altuna, Gurutz Ansola, Joxe Artola, Anton Artamendi eta abar)[314].

Andereñoen formazio honek herrialde guztietako andereñoentzat erreferentzia izan zen, bai bertan formatzeagatik baita bilgune garrantzitsua izateagatik ere. Hala ere, ikastoletako irakaslegoaren formazioa bere osotasunean aztertzeko Erresidentziaren esperientzia lehenengo urrats bat baino ez zen, irakaslegoaren mugimendua ikertzen dugunean ikusiko dugun bezala.

Ez diogu atal honi amaierarik eman nahi, irakaslego guztia emakumezkoak izatearen inguruan erreflexio txikia egin gabe. Sarritan aipatua da etxe eskola zein 60.eko hamarkadaren hasieran ikastoletako irakaslegoa emakumez soilik osatua egon zela, sekularizazioaren eraginez Seminarioak hustu eta bertokoak ikastolan irakasten hasi ziren arte[315]. Baina zergatik emakumezkoak? Gure ustez

---

313 GARMENDIA, M. C. (1985): **Les ikastolas en Pays Basque D´Espagne. La question du bilinguisme scolaire**. Argitaratu gabeko tesia. Estrasburgo. 160. orri.

314 BASTERRA, J. (1989/12/15): Andereñoen Erresidentzia, eredu pedagogiko berri baten iturburua. **EGIN**.

315 Ikus, lan honen 3.6 atalean aurkeztutako "Gipuzkoako ikastoletako O.H.O.ko irakaslegoaren bilakaera" izeneko grafikoa.

arrazoi desberdinak plazara daitezke: arrazoi legalak, arrazoi sozio-ekonomikoak, ideologikoak eta historikoak. Legeari dagokionez, 1945.eko Uztailaren 17ko Ley de Enseñanza Primariak bere 19. artikuluan oinarrizko irakaskuntzako irakaslegoa emakumezkoa izango zela agintzen zuen. Baina honetaz aparte, arrazoi sozio-ekonomikoek pisu nabaria zutela uste dugu, alegia, hamarkada honetan euskal gizartean garapen ekonomiko fase batetan sartzearen ondorioz ikasketa teknikoen gorakada haundia izan zen, eta hauexetara abiatzen ziren goimailako ikasketak egiteko aukera zituztenak. Maisutza ikasketak lan merkatuan gutxi baloratu eta ordainduak ziren, eta gizonezkoek bestelako ikasketak aukeratzeko joera haundiagoa azaltzen zuten. Historikoki behin eta berriro gertatu izan den bezalaxe, emakumezkoak gizonezkoek "libre" uzten zituzten lan esparru horiek betetzen hasi ziren, irakaskuntza arrakasta ekonomiko eta soziala suposatzen ez zuen neurrian emakumeei egokituz. "A cette époque lá, les garcon suivaient rarement des études à L´Ecole Normale, ils suivaient de préference des études techniques, en particulier les privilégiés qui pouvaient le faire. De plus on avait l´opinion que les enfants les plus jeunes étaient mieux soignés par des mains fémenines, et parmi nous, il a été assez courant de penser que la profession d´institutice était mieux adaptée aux femmes qu´aux hommes"[316].

Garmendiak aipatzen digun irakaskuntzarako emakumeen "egokitasuna"ren uste honek azpiko ideologiko nabaria du. Emakumeari tradizionalki egokitu zaion errola seme-alaben zaintzearekin egon da, eta eskola lan hau (batez ere lehenenego adinetan zela kontutan hartzen badugu) ama funtzioaren luzapena bezala baino ezin dugu hartu. Euskal nazionalismoan ere antzeko zerbait gertatzen zela ikusi dugu, emakumea arraza eta kulturaren ziurtatzaileak bezala seme alaben heziketa burutzearen bitartez. Beraz, andereño lanak emakume lana izan behar zuen, ikuspegi ideologiko batetatik.

Arrazoi historikoek osatzen digute arrazoi ideologikoaren muina. Ikusi dugun bezala, hezkuntza Euskal Herrian emakume lana izan da Emakume Abertzale Batzaren printzipioak eta herriz herri burutu zituzten ekintzak kontutan hartzen baditugu (poxpolinak, dantzariak, euskarazko klaseak, euskal eskolak, antzerkiak....). Gainera, eta aurreko kapitulu batetan esandakoa aintzakotzat hartu ezkero, hezkuntza lan hauek emakume sareak zituzten bere egituran, emakumezkoa erabat bilakatuz. Ildo beretik, hezkuntza formalari so egin ezkero, Euskal Herriko eskoletan zihartuten irakasleetatik 500 EABkoak izateak nazionalismoa eta hezkuntza nolako harreman estuak zituzten berretsi ahal dugu.

316 GARMENDIA, M. C. (1985): **Les ikastolas en Pays Basque D´Espagne. La question du bilinguisme scolaire**. Argitaratu gabeko tesia. Estrasburgo. 100. orri.

Ikastolek historiak eta euskal nazionalismoaren ideologiak utzitako ordain hauek jasotzen dituzte, dudarik gabe, eta ikastoletan emakume sena agertzea historiarekin bat egiten duen datua dugu. Haatik, bat egite honek ez du esan nahi emakumeek betetzen duten funtzio hau gerraurrean bezala betetzen denik; euskal hezkuntzaren funtzioak Zipitriaren etxe eskoletan eginiko saioan, nahiz eta gerraondoan ageri, emakume sareak mantentzen ditu bere baitan, ikastoletan ez bezala. Ikastolek bere hastapenetan bai dute emakumeez soilik osatutako irakaslegoa, baina egituran, emakume sareen ordez, gizon zein emakumeez osatutako egitura agertzen zaigu (gurasoak, herriko jendea...), hau da, gizartean, jenero harremanak aldatzen joan ziren heinean familiaren barruko errolen banaketa ere "bigundu" egin zen seme alaben heziketa emakume eta ama lana izatetik guraso lana izatera igaroz. Gurasoak familia barruko errolen banaketa estua apurtu eta seme alaben heziketan inplikatu ziren (agian, honek garai haietan esanahi politiko nabaria baitzuen –hipotesia da–), euskal eskolaren emakume izaera tinkoan lehenengo urraketa eginez. Urte batzu beranduago, seminarioetatiko gizonezkoak ikastoletan sartzeak (kasu honetan ere arrazoi politikoaren poderioz, zeren ikastolan irakasle izatea militantziaren seinale bezala hartuta baita), euskal hezkuntzaren "emakume epea"ren behin betiko bukaera suposatuko zuen, ordura arte andereño ziren horiengan hezkuntza lan eta giroaren apurketa sentimentu sakon bat sortuz eta euren bizikeren historietan ikastolaren "garai gozoa"ri amaiera puntua ezarriz.

3.4.4. Gelaren lau hormez bestalde doan hezkuntza: arlo ez formalaren garrantzia

Ikastoletan sortuko zen eredu pedagogikoa zehatzago aztertuko dugun arren, mugimendu honen eraketaren ezaugarri nagusiak ematerakoan, hezkuntza ez formalaren aipamena egiteari derrigorrekoa deritzogu.

70.eko hamarkadaren hasieran, pedagogia alorrean ordura arte hezkuntza bakarra hartua zenari buruz zehaztasun batzu kaleratzen hasi ziren, "hezkuntza ez formala" eta "forma gabeko heziketa"ren izenpean. Bereizketa honen gakoa, hezkuntza eskolan ez ezik eskolaz kanpo ere ekoizten zela izan zen, maila formal desberdinak sailka genitzakeelarik. Honela, egoera erabat ezkontrolatu eta natural batetan sortzen den aprendizaia forma gabeko heziketari legokioke, eta, eskolaz kanpo sistematizazio maila batez helburu pedagogiko batzu lortzeko eratzen denari hezkuntza ez formala deituko genioke. Dudarik gabe, teorizazio eta kontzeptualizazio hauek hezkuntza munduan gertatzen ari ziren gertakari batzu izendatzeko sortuak izan ziren neurrian, praktikak berriro ere teorioari aurre hartu ziola adierazten digute, eta horrelako praktikek ikastoletan adierazpen eremu zabala izan zutela uste dugu.

Hezkuntza formala, ez formala eta forma gabeko heziketa bereizketa hau egiten dugunean, ez gara, haatik, erabat mugatuta leudeken hezkuntza alorretaz ari, bai ordea elkar osatzen duten errealitateetaz. Era honetara, T. J. La Bellek egiten duen kontzeptualizazioari atxikiko gintzaizkioke, hezkuntza forma desberdinen artean "hezkuntza modu nagusi" edo "enfasi moduak" daudela argudiatuz: "Es decir, una situación educativa puede tener como modo predominante a uno de los tres tipos de educación, acogiendo secundariamente procedimientos y procesos propios de los dos restantes (...). Así la escuela quedaría situada en el modo formal de la educación, aun cuando en ella pueden darse simultáneamente caraterísticas no formales (actividades extracurriculares) y también informales (las relaciones entre iguales)"[317].

Egia esan, ikastoletan hezkuntza ez formalaren errealitatea agertzea bere partaideen harremanen derrigorrezko ondorioa baino ez dela uste dugu. Ikusi dugun bezala, ikastoletako andereñoek "militantzia" kontzientzia zorrotz batekin egiten zuten bat proiektuarekin. Gurasoek, bestaldetik, euskal hezkuntzarekiko motibazioak eta kezka azalduz proiektuaren alde apostu arriskutsua egin zuten, eta, azkenez, herriak euskal nortasunaren gunea eta ardatz bezala hartu zuen ikastola. Euren artean elkarlangintza eta eskola eraikuntza burutu zen. Beraz, ez litzateke posible izango lau hormetan itxitako eskola bat sortzea, kanpokoari begirakoa baizik.

Ikastolak herriari begirako eskola mota bezala eraiki ziren, espazio zabaletako eta partaide ugarikoak izanik. Ikastea, ez zen liburuen aurrean egiten zena, baizik eta ume bakoitzak ekintzan sortzen zuena. Kreatibitatea, askatasuna, naturarekiko harremana eta proiektu globala dira joan-etortzen diren ideiak eta printzipioak. Ikastolaren barruan eratzen den arlo ez formala oso aberatsa da, tokiz tokiko ezaugarriak azaltzen ditu eta bere oinarrietan bi zutabe dituela esango genuke, herrikoitasuna eta euskalduntasuna.

Euskalduntasuna, euskaraz egitea eta hizkuntza birpiztea gizartean gero eta zabalduago zegoen asmoa zen, euskararen aldarrikapen sozialaren eta berreskurapenaren markoa gero eta definituago zegoelarik. Herrikoitasuna ere beste ezaugarri nagusia zen, ez baitzen elite eskola egin nahi, Euskal Herriak behar zuen eskola baizik, hau da, modernatze eta erabat mobilizatuta zegoen euskal sektorearen behar kultural eta linguistikoei erantzuten saiatzen zen eskola. Herriarekin bat egiteak eskola tradizionalaren muga zehatzak gainditzea derrigortzen zuen, azken honek ez baitzion euskal herriari erantzuten; herri

317 TRILLA, J. *La educación no formal*. in Petrus, A. (arg.): **Introducción a la Pedagogia**. Barcanova. Bartzelona. 339. orri. Honetaz aparte, T.J. La Belle: “Educación no formal y cambio social en América Latina” (Trillak aipatua).

dinamikak hezkuntza esparruen mugaketa berria ekarri zuen, arlo ez formalari bide emanez.

Hezkuntza ez formalaren adierazpenak asko izan daitezke eta oso orokorrak diren batzu baino ez ditugu aztertuko, sailkatzearen ahalegin txikiaz lagundurik:

a) Lehenengo urratsa eskolaren espazio fisikoa bera gainditzean datza. Zipitriaren ereduan eta gerraurreko pedagogia ekintzailean agerturiko ezaugarria dugu, batez ere aprendizaiaren printzipio ekintzailea formulatzen den unetik. Honen arabera, aprendizaia eta heziketa ez dira era pasiboz eta gelaren eremu hertsian hobeto burutzen, norberaren esperientzia ikas prozesu ororen motorra izanik ondo aukeratutako tokia gela bera baino egokia izan baitaiteke. Oinarri horiek ikastoletara ere zabalduko ziren, eta gelaz kanpoko ekintzak ugariak izan ziren: astean behin irteera egin (Donostian Zipitriaren antzera Gaztelura, edo Lourdes Txikira...), mendira edo inguruko tokietara joan (naturarekiko harremana landuz)... Guzti honek duen garrantzia ulertzeko bere testuinguruan kokatu behar dugu, hau da, eskola tradizionalaren diskurtsoaren arabera "ikastea" liburu eta disziplinarekin zerikusia zuen zerbait zen eta jendeak horixe espero zuen eskolatik, ez besterik. Medio xume xumeekin, lurrean eserita, euskaraz hitz eginez eta sarritan kanpora irteten ziren ikastoletako umeen irudia eskola tradizionalaren topikoak apurtzen zituen zerbait zen, eta dudarik gabe kontraesanak sortu ere. Horretan dago benetako koxka, eskolaren hormatik kanpo irtetea ez baitzegoen ondo ikusia.

b) Hezkuntzarako espazioak ugaritu aparte, ikastolen inguruan makina bat ikas saio antolatu ohi ziren klase orduz kanpo. Sarritan, "sociedad cultural recreativa" lege izaerak ahalbideraturik eta lagundurik, ikastolen lokaletan kultur ekintzak burutzeko tokiak bihurtu ziren, hala nola euskal dantzak, txistua, bertsolaritza, kantak, gurasoentzako edota ikastolara ez zihoazen umeentzako euskarazko klaseak, mendi taldeak... Herri bakoitzak bazuen bere antolakuntza berezia euskal kulturgintza honetan eta ikastolarekin sustraiki lotuta zegoen. Honela gaur egun aisia deituko genukeena eratzen zen, euskal hezkuntza arlo ez formal horrietan garatuz.

d) Herriarekiko komunikazioa eta lotura bideratzen dituzten ekintza hezitzaileak ere topa ditzakegu; batzutan dirua ateratzearen helburuarekin (Ikastolaren Gabonetako Jaialdia, Kantaldiak...), beste batzutan agerpen publiko gisa (jaunartzeak...), beste batzutan ohitura zaharrak berreskuratzearen helburuarekin (Olentzeroa, Santa Agedaren koruak, herriko ohiturak...), kalean eragina zuten ekintzak izan ziren eta ikastolaren ikuspegitik asmo hezitzaileen barne sartzen zen.

e) Beste arlo zabal eta arrakastatsua udalekuak izan ziren. Hauek martxan jartzeko kezka nagusia, guztiz erdalduna zen giro hartan euskara eskolatik kanpoko harremanetan lantzea izan zen. Lehenego udalekuaren berri Bizkaian kokatu behar dugu. M. Estibaliz L. de Gereño andereñoak ikastolen historiarako 1989.eko urtarrilean idatzitako informean horrelaxe adierazten du: "En el verano de 1960 (tengo fotos de esa fecha), por mediación de Xabier Peña, fuimos el verano a un caserio de Arrazola, yo, con mi amiga Bakarne Ares y unos niños a pasar unos días como una colonia pequeñita vasca para hablar allí todo en euskara. Eran nueve niños los que estuvieron. El resultado fué maravilloso, y luego, viendo esto siguieron haciendo más veces lo mismo, lo que actualmente ya, son colonias vascas preciosas bien organizadas. Pero lo nuestro fué sencillo, familiar y con riesgo por ser la época franquista"[318] .

Gipuzkoako ikastolen aldetik sortuko zen bigarren saiakera; Nekane Auzmendiren proposamenaz gogor arituko ziren berau, Jazinto F. Setien eta Juanito Goia 1965.ean Barriako Monastegian eratutako udalekua bultzatzen. Kasu honetan ere, ikastoletan zeuden andereñoen kezka zela eta, umeentzako euskarazko udako esperientzia bat eratu beharra ikusi eta ekin zioten: "Guk orduan inola ere, besterik ez zegoelako ere, oso, oso eskolaren luzagarria ikusten genuen, klaro, eskola hain hain jantzi gabea, edo ez jantzi gabea baino errekurtsoz hain eskas genbilenez ikusten genuen denboraldi horri ere etekina atera beharra, eta orduan noski, irakasleak gutxi baginen irakasleak aparte zein jende zegoen prestaturik?"[319].

Ordutik aurrera udalekuak gero eta ugariagoak izan ziren, beti ere ikastolen inguruan sortzen zen elkarlangintza honen giroan: "...pero aquella primera de Barria fué como un gran *auzolan*, un trabajo comunitario que se aunó en la buena voluntad de unas gentes que asumieron un compromiso en momentos sumamente difíciles"[320].

Udaleku hauetan gerraurreko pertsona batzuren partaidetza azpimarratuko genuke, batez ere Maritxu Barriolarena. EABko militantea, gerra garaian Manuel Intxaustik antolatutako "Lurdes euskal aur etxea" izenekoan zuzendari aritu zen Maritxu urte zail haietan. Ikastolen mugimenduaren hastapenetan ere bere laguntza eman zuen emakumea dugu, zeren berari zor baitzaio, ez bakarrik

---

318 Informe hau Lauro ikastolaren historiarako idatzia izan zen, eta Julia Berrojalbizi esker ezagutu ahal izan dugu.

319 4. elkarrizketa.

320 ABANDA, G. (1990/12/2): *Nekane Azurmendi: "La experiencia de la primera colonia en el monasterio de Barria es irrepetible"*. **Diario Vasco.**
Honetaz aparte, AGIRRE, J. (1990): *La primera colonia clandestina de las ikastolas vuelve a Barria*. **EGIN**, 1990/11/22.

udalekuetan egin zuen lana, baizik eta errepresioaren garai ilunetan "Martin Txilibitu" eta "Xabiertxo" liburuen argitarapen klandestinoa ere"[321].

Udalekuek bazuten, noski, pedagogiaren ikuspuntutik esanahi haundi bat, heziketa beraren planteamentu orokor bat: "Umearen bizitzan, une konkretu batzu bereiz litezke: ikastola, oporrak, senide arteko bizitza, kaleko taldea, eta abar. Elkar osatzen duten une hauek ondo zuzenduak izanez gero, umeen heziketa oso bat lortzeko bide izan litezke"[322]. Bertan, oporraldiari dagokion ekintzen ildotik, jolasak, abestiak eta naturarekiko harremana landuz umeak dituen beharrizan fisiologiko, psikologiko eta sozialei erantzuten zaie "umearen hezi girotik hurbil" eta "euskal giro oso batean".

Barria, Antzin, Abaigar, Iratxe, Beire[323] dira, besteak beste, udalekuetako egoitza desberdinak, non udaro eta hogei egunez milaka euskal ume oporretan egoten ziren. Urtean pasatzean udalekuen antolaketaren ardura instituzionaldu eta Gobernu eta Foru Aldundietatik gurasoei eta eskolei eskeintzen zaien zerbitzua da, jatorrian herri mugimenduak martxan jarri zuen arren.

f) Udalekuak bezelaxe, garai batetan instituzioen aldetik eskeinia eta ikastolen eskutik egin ohi den beste ekintza ez formala baserrietan burututakoa dugu. Udalekuen izpiritu berean, baina ikastolan zeuden erdal umeen herriko euskaran murgiltzeko asmotan, baserrietan oporrak igarotzeko saioak ere burutu izan dira Euskal Herrian zehar. Kasu honetan ere gurasoen eta andereñoen mobilizazioa ahoz ahoko lanean oinarritzen zen, alegia, eskualde euskaldun batetara heldu eta ezagunen baten bitartez edota apaizaren bitartez baserrietan euskara ikasteko umea hartzeko prest zeuden baserritarrak bilatu eta eurekin tratua egin[324]. Helduen alfabetakuntzaren gorakadarekin batera, baserrietara euskara ikastera joateko saioak ere agertzen zaizkigu, oro har nahiko praktika hedatua izan delarik[325].

Ikusi ahal izan dugun bezala, ikastolen mugimenduan hezkuntza ez formalaren presentzia eta garrantzia aipagarriak dira, batez ere hezkuntzaren kontzeptu zabalago eta aberatsagoa baitzekarren bere baitan, heziketa eskolan ezezik beste

---

321 MUTIOZABAL (1975): *Maritxu Barriola*. **Zeruko Argia**, 630-31. 1975.

322 ARANTZA (1971): *Udalekuak, ume heziketaren jarraipen*. **Anaitasuna**, 208.

323 Udalekuak, sakabanaketa haundia ezagutu zuen gertakizuna izan zen. Barriako hazi hartatik esku desberdinek bultzatutako esperientziak eratu ziren, bai ikastoletako umeentzat, baita euskaldunak baina erdal eskoletan eskolarizatutako umeentzat ere. Honetaz informazio gehiago, ikus: ERRIALDE (1974): *Euskal udalekuak. Izerdi askoren uzta*. **Zeruko Argia**, 598-99.; HERRIALDE (1976): *Euskal udalekuak*. **Zeruko Argia**, 691.

324 10. elkarrizketan, Santurtziko ikastolako kideak 1967.ean umeak baserrietara eraman zituztela agertzen zaigu (Lea-Artibai aldera hain zuzen).

325 AGIRRE, J. (1974): *Baserria, euskara eta euskaldun berriak*. **Zeruko Argia**, 615; LETAMENDIA, J. A. (1974): *Euskaldun berria baserrian*. **Zeruko Argia**, 615.

toki eta era askotan burutzen zela, azken batez bizitzea etengabeko aprendizaitzat hartuta izan baitzen.

3.5. IRAKASLEEN MUGIMENDUA AZTERGAI

Ikastolagintzan partaide guztiek bere maila pertsonaletik motibazioa, dirua eta euskararekiko grina ekarri zituztela oso kontutan hartuta ere, andereñoak maila pertsonaletik zein elkarlangintza sakon batetik ikastolen mugimendua elikatzen zuen kolektiboa izan zela uste dugu, era berean hizkuntzaren sostengu, modernatze eta normaltze prozesuetan ezinbesteko zimentarriak izanik.


Andereñoak ez dira inoiz izan banakakoak, ikastolen hastapen hastapenetatik identidade osoko taldekideak baizik. Euren funtzioa ez da inoiz irakaskuntza soila izan, hezkuntza sistema tradizionalaren iraultzaile eta berriaren sortzaile eta finkatzaile baizik. Euren eskutik teorizazio zein praktika burutu da, irakaskuntza zein hezkuntza, formazioa zein kreazioa; eta, gure uste apalez, beraien gogo militante hori gabe ezin zatekeen proiektua aurrera eraman. Agian, euskal gizartean azalerazten ari zen diskurtso kulturalaren eta sozio-politikoaren epizentroa bihurtu izanak, ikastolen lehenengo garai honetako esanahi aberats eta emankorra gauzatzea ahalbideratu zuen, baita eraldakuntzaren lehenengo lerroan joatearen zerga mingotsa ordaintzea ere, zeren sortze eta eraikitze lan guzti hura azkenez boteretik ezartzen zen intituzionalizatze bide batzutatik derrigor sartu behar izan baitzen, honek zentzu guztietan ekarri zituen ondorioekin. Arrazoi guzti honengatik irakasleen mugimenduaren azterketari ekiten diogu orain.

3.5.1. Emakumea eta hezkuntza

Gerraurreko euskal eskolan zein Donostiako etxe eskoletan emakumeek jokatzen zuten papera eta azpian zekarren ideologia pixkanaka aldatuz joan zen ikastolen mugimenduan. Aldaketa hauen mamian emakumearen askapen mugimenduek eta munduan heziketak jasaten zuen gorunzko joerak familiaren ideologia desplazatu zutela soma dezakegu. Eraldaketa hau errotikoa dela uste dugu, eta, gizarte tradizionaletik modernura, heziketa funtzio maternalaren luzapen soil batetatik funtzio sozio ekonomikoa betetzera, nola igarotzen den ulertzeko balio digulakoan gaude.

Aztertutako euskal hezkuntzaren garapenean emakumearen paperak aldaketa batzu izan ditu. Batetik ikastolen mugimenduaren hasieran andereñoak baino ez ziren ibiltzen irakasten, geroxeago gizonezkoak sartu zirelarik. Eta, bestetik, gerraurreko hezkuntzan nazionalismoak emakumeari ezartzen zion arraza, hizkuntza eta ohituraren biziraupenerako funtzioa aztertu dugu.

Zipitriaren etxe eskola gerraurreko eskolaren adierazpen ahuldu gisa hartzen badugu, emakumeak hezkuntzan izan duen eskuhartzearen momentu desberdinen karakterizazioa egin dezakegulakoan gaude. Izan ere, hezkuntzari, sozializazioaren prozesuen bidez, "arrazaren bitartez lotuta dagoen familia"ren edukiak gordetzearen funtzioa bete beharra ezartzen zaionean, eragile gisara agertzen zaizkigunak emakumeak dira (amak familia txikiko lehenengo sozializazioa zainduz, andereñoak bigarrenean eta emakumeen erakundea umeen eta gaztetxoen hezkuntza ez formalaren lanaren karguan). Datuen arabera, eta nazionalismoaren ideologiak hala aginduta, emakumeek hezkuntza funtzioaren ia zama osoa zeramatela esan genezake, bai arlo formalean baita arlo ez formalean ere, gizonezkoen funtzioak beste arlo batzutara bideratzen ziren bitartean. Zipitriaren ereduan, hezkuntza funtzioa betetzen duen emakume komunitatearen nortasuna oso nabaria da; emakumeek ("las emakumes") osatzen dute Zipitriaren lanaren azpiegitura, eta eurak arduratzen dira eskolaren egoitzaz, kuotetaz, jaiak antolatzeaz, ordaindu ezin dutenei begira elkartasun kutxaz etab. Honi, emakume sarea deitu diogu, eta familiaren barruko errolen banaketa haundiaren ondorio gisa interpretatu dugu E. Botten ikerketen argitan. Lehengo momentu honetan ere, oso nabaria da "familia"ren kontzeptua eta ikasleen hautaketa erizpide horiekin bideratzen dela soma daiteke.



Euskal Nazioa eta Eskolaren osagaiak.

Ikastolen sorrerarekin hezkuntzaren ardura osoa daraman emakume komunitatearen lehenengo aldaketak etortzen dira, zeren nazionalismoaren ikurra arraza eta ohituretatik hizkuntzara desplazatzen denean, hezkuntzak bete behar zuen gordetze (kontserbatze) funtzio horretatik beste funtzio zabalagoa betetzera igarotzen baita. Begi bistakoa da arraza ezin dela eskuratu, gorde baizik; hizkuntza, berriz, gorde eta berreskuratu daiteke, horretan herri lanak pisu berezia hartzen duelarik. Ikastolak hizkuntza eskuratze horretan sartzen direnean, familaren barruan, jenero harremanen aldaketak eraginda, hezkuntza funtzioaren ardura ez emakumeari bakarrik baizik eta gurasoei dagokiela somatzen hasten da, hezkuntzarako ordura arteko emakume tradizioa "mixtoagoa" bihurtzen delako ondorioarekin.

Hala ere, irakaskuntzan aritzen zirenak andereñoak ziren, agian lehen esan dugun bezala legeak horrela agintzen zuelako, agian euskal hezkuntzaren historiak eta ideologiak ere horrela bideratzen zutelako, baina ikastolagintza gizartean esanahi sozio-politikoa hartzen joan zen heinean eta sekulartze prozesuarekin topo egitean, gizonezkoak ere ikastoletako irakasle sartzen hasi ziren: "Un aspect à signaler c´est l´incorporation progressive du personnel masculin, trés peu nombreux au début des années soixante et qui en 1975 représente dans la province de Guipuzcoa un tiers du total. Cette augmentation a été assez influencées par le fait que la jeunesse basque accepta l´ikastola comme un engagement de militance, et aussi par la crise qie affecta la vie des Séminaires Diocésains à partir des années soixante. Au Pays Basque, un pays où il y avait beaucoup de vocations religieuses, la plupart des séminaristes qui abandonnèrent les études ecclésiastiques choisirent de se vouer professionnellement à l´enseignement dans les ikastolas"[326]. Sekulartze hau oso tamaina haundikoa izan zen; Paulo Iztuetak[327] ematen dituen datuen arabera, 1959-60.ean Gipuzkoan 198 apaizgai zeuden ("seminaristas mayores") eta Bizkaian 185 zeuden bitartean, 1973-74.ean 14 eta 74 zeuden batean eta bestean. Datu hau eta Garmendiak esandakoa kontutan hartzen badugu, ikastolen hazkundea indizerik haundienean zegoenean irakaslegoaren iturri garrantzitsuenetako bat apaizgai hauek izan zirela ikusten dugu.

Aldaketa hauekin batera, tradizionalki hezkuntza funtzioaren eragilea zen emakume komunitatea zeharo urtuta[328] geratu zela esan beharrik ez dago.

---

326 GARMENDIA, M. C. (1985): **Les ikastolas en Pays Basque D´Espagne. La question du bilinguisme scolaire**. Argitaratu gabeko tesia. Estrasburgo. 115. orri.

327 IZTUETA, P. (1981): Sociología del fenómeno contestatario del clero vasco. 1940-1975. Elkar. 240. orri.

328 Cristina Borderias, historilari katalandarrarenak dira hemen erabiltzen ditugun kontzeptu hauek, “comunidad femenina diluida” eta “mixtización”. Ikertzaile honek, emakume etorkinen prozesuak aztertzerakoan, etortze-bidea pausuz pausu ikertu eta nekazal giroko emakumeen antolamenduak aztertu ditu. Hiriratzean, berriz, komunitate hauek urte batzu pasatuta erabat

Arrazaren lekua hizkuntzak hartzean, familiarena herriak hartzen du, eta azken honetan hezkuntza, hizkuntzaren eskuratze prozesuaren zutabea denez, herriaren betebeharra bihurtzen da, emakume komunitatea zena herri mugimendua bilakatuz, eta, C. Borderiasen esanetara, komunitatea "mixtizatu"z. Elkarrizketetan aldaketa hau pisuzko bezala antzeman dezakegu zeren honi buruzko komentarioak ez baitira falta izan: "Bueno, gerotxuago etorri zen seminarioetako boom hura, apurtze hura. Seminarioetan zegoen orduan ikasle mordoa eta iada apaiz egiteko atera orduan, eta bapatean hustu egin zen eta klaro eurek ez zekiten lanean, ez zuten lanik egiten. Orduan ikastoletan sartu ziren, batzuk konbalidatu zituzten euren ikasketak magisterioarekin edo kurtsillo batzu Valladoliden edo eta tituloak lortzen zituzten. Gero momentu batetan egon zen irakasle nahiko tituloduna, momentu bat egon zen, ez dakit noiz izan zen, 70.ean edo, irakasle nahikoa, batez ere gizonezkoak, eta guk ez genuen sekula ezagutu ikastola mailan gizonezkorik eta orduan gizonezko mordoa zegoen eta, batean eta bestean beti bilatzen zen"[329].

Sekulartutako gizonezko hauek ikastoletan sartzerakoan praktika pedagogikoaren desitxuraketa ekarri zuten, zeren andereñoen formazio pedagogiko enpiriko eta paraleloa unibertsitateko goi mailako tituluen aurrez aurre jartzea probokatu baitzuen. Irakaslegoaren mixtotzeak, batez ere suertatu zen egoeran (ikastolen hazkunde azkarra eta egoera sozio-politiko nahasia), eragin zuzenak izan zituen, bai pedagogia mailan baita eraketa mailan ere.

Pedagogia mailakoa ondo laburtuta gelditzen da ondoko testimonioan: "Guri orduan iruditu zitzaigun Elbirarena pittin bat osatu zitekeela ezta? Eta hasi ginen hango Freineten teknika batzu eta sartzen, baina gero ez zuen funtzionatu. Hori, urte horietan gertatu zen, izugarri haunditzea ere iada guk egin behar genuen bezala, lehenengo karrera gero oposaketak eta gero praktikak, egite hori inork ez (...). Guk ez dugu ezer prestatu, guk jaso egin genuen hori, guk ez dugu asmatu, kondizioak ez ziren egokiak izango, bueno, iada gero sartzen hasi ziren apaiztegietatik atera zirenak eta praideak zirenak eta horrelako abar, *barra-barra*, haiek dena zekiten! haiek denetan jakinak ziren! e? Eta etorri ziren, pentsa, horiek dena zekiten! dena zekiten, eta pentsa zenbateraino urratu zituzten bestearen arrotik genuen arrasto guztiak e?"[330] Praktika pedagogikoaren analisian ikusiko dugun bezala, andereñoen bilatze horrek ikastolak pedagogia kritiko eta alternatibora (Freinet eta Freire) hurbildu bazituen ere, instituzionaltzearen epean pedagogia konstruktibistarako norabide aldaketa antzeman daiteke (pentsa

urtuta agertzen direla aipatzen du, honek soziologikoki eta psikologikoki dakartzan ondorio guztiekin.

329 6. elkarrizketa.

330 4. elkarrizketa.

dezagun Saioka esperientzian, adibidez), nolabait eskola kutsu "akademizista" haundia inposatuz.

Eraketa mailan ere, ikastoletako irakaslegoaren aldaketa soziologikoak bere eragina eduki zuen, eta batzuen ustez ez da gehiegi urruntzen gatazkaren gakoetatik: "...baina neretzako ikastolak okertzen hasi ziren, bueno, okertu, istiluak hasi ziren sartu zirenean intelektualak. Irakaskintza maisuaren artean zegoen bitartean ba bueno, ez genuen problemarik izango, baina iada hasten dira pedagogoak, filosofia eta letrako lizentziatuak sartzen eta abar, eta horiekin sartzen da beste nortasun bat, hasten dira okertzen harremanak guraso eta irakasle..."[331]; "Eta gero gertatu zen orduan seminariotik ateratako jende asko nola zegoen, nik esango nuke pixka bat enpatxatuta seminarioarekin edo, bai, nahiko iguinduta, ba harek kontra jarri ziren eta orduan gure sofrimendua batzu alde batetik eta beste bestetik, ba asko sofritu genuen e?, asko, orduko sofrimendua, momentu hartan asko"[332].

3.5.2. Andereñoen mugimendua eta prozesu baten bi aldeak: etengabeko formazioa eta eredu pedagogikoaren eraikuntza

Ikastolagintzaren hasieretan jeneroak jokatutako papera argitu ondoren, andereñoen mugimenduaren antolakuntzari eta esanahiari hurbilduko gatzaizkie, eskolaren muina diren partaideen harremanak eta diskurtso pedagogikoaren edukiak hobeto ulertu nahirik.

Aurreko atal batetan, ikastolek herri mugimendu bat osatzen zutela baieztatu dugu, eta oraingoan andereñoetaz hitz egiterakoan mugimendua ere aipatzen dugu. Andereñoen mugimenduaren aipamena Jaxinto F. Setienek egiten digu "Gordailu eta euskal pedagogia" artikuluan: " Eta gauza jakina, ikastola berriak han hemenka sortu ahala, hasi zirela ere elkarren berri jakin, elkar babestu eta koordinatzeko herri bakoitzeko ordezkarien bilkurak antolatzen. Fenomeno honen parean, oroit baita, nola sortzen den andereñoen mugimendua: ikastola barneko lanaren esperientziak elkarrekin trukatzeko eta ikastaldi zenbait antolatuaz beren burua egokiago prestatzeko"[333]. Andereñoen artean sortu zen elkarlanari mugimendua deitzeari guztiz egoki deritzogu, zeren nortasun osoko iharduera izan zela uste baitugu, hau da, gizartean eta hezkuntza sistemaren barruan ezarrita zegoen eskola eredua errotik aldatzera abiatu baitziren eta eraldaketa honetarako tresnak sistematik at, eta batzutan horren indarraren kontra ere, sortu eta finkatu baitziren.

---

331 5. elkarrizketa.
332 6. elkarrizketa.
333 SETIEN, J. F. (1979): *Gordailu eta euskal pedagogia*. **Jakin**, 11. 106. orri.

Beraz, herriz herriko juntak eratzen ziren batera, eta bertako partaideak izan arren, ikastoletako irakasleei zegokien lanari aurre egiteko harreman sare haundia ere hasi zen martxan jartzen, denboraz egitura finkatuagoan zehaztuko zena. Halere, abiapuntua ezer baino sinpleagoa izan zen: esistitzen zen eskola ez bezalakoa gauzatzea, euskal umeen hezkuntza beharrei zuzen eta kalitatez erantzungo ziena. Noski, herri bakoitzeko ikastolan isolaturik, andereñoak bakarrik ezin zion helburuari erantzun egokirik eman, eta horretaz ohartun, elkarren berri jakiteari eta esperientzien trukaketari ekin zioten. Beraz, ez dago sorrera honetan ere proiektu konkretua eratzeko aldez aurreko antolamendurik edo antzekorik, era naturalaz eta *behar gorriak* eraginda sortzen den elkarlana baizik. Baina zeintzu dira andereño hauek aurkitzen dituzten gainditu beharreko oztopoak, elkarren behar haundi hori eragiten diena? Gure ustez, bi oztopo mota bereiz ditzakegu: gizarte eta gurasoei begira sortu zirenak, eta, eskola berri baten eraikuntzan sortutakoak.

Gizarte eta gurasoen aurrean, andereñoek tinko erroturiko hezkuntza mitoak ezabatu behar izan zituztela esango genuke, Moyano Legetik abiatuta Estatu Espainolak legez eta indarrez ezarritako eskolari buruzko siniskeriak eta topikoak. L. Mujikak honelaxe isladatzen zuen Zeruko Argian: "Gaur egun euskaldun askori, gurasoei batez ere, problema bat aurreratzen zaie euskerari dagokionez. *Semeari euskera erakutsiko ote diogu, Euskerarekin ez ote zaigu semea baldartuko ikasketetarako, batxillerrerako* ", lerro batzu aurrerago honi buruzko bere eritzia botatzen zuela: "Ala ere, esan dezagun bestaldetik, euskerak ez duala beti baldartzen edo edozertarako baldartzen; experientziz dakigu euskera jakiteak beraldiko aberastasuna ematen duela ainbat liburu eta ikasketa ikasteko, ta izkuntzen ikaskizunean batez ere"[334]. Euskararen inguruko aurreritzi hauek zama haundia suposatu zuten ikastolen abiapuntu honetan, eta andereñoen lehenengo lana euskarak zerbaiterako balio zuela sinistaraztea izan zen, hau da, guztiz baliogabetatuta zegoen hizkuntzaren bitartez eskola, gainera kalitatezko eskola, eraiki zitekeela sinistaraztea. Gurasoen aldetik, salbuespenak salbu, umeei euskaraz ikasteak ez ote zien kalterik egingo uste zen, eta zalantzaren zama astuna astunago bihurtzen zen hezkuntza arrakasta soziala eta ekonomikoarekin lotuta zegoela (eta dagoela) ohartun bagaude.

Bigarren oztopoa proposamen pedagogikoan zetzan. Andereño hauek, Europan zehar zebilen Eskola Tradizionala *versus* Eskola Berria eztabaidan, azkenengo honen aldeko apostua egin zuten, baita ikastolagintzarentzako eredu bila bide hauek jorratu ere, baina hori ez zen erreza. Gurasoak eskola tradizionalean hezituak izan ziren heinean, eskolarengandik zituzten esperoak eredu tradizionaletik hurbilago zeuden eredu berritik baino; haientzat ikastea geletan formal, isilik eta eduki kuantitatiboak buruz ikasiz egotea zen.

---

334 MUJIKA, L. (1965): *Euskera eta prejuizioak*. **Zeruko Argia**, 112.

Andereñoentzat berriz, umeengan jolasteak duen balio hezitzaileari eta sormenari[335] buruzko kezkak azaltzen ziren. Pedagogia berriaren mezu askatzaile eta paidozentrikoak, euskararen "balio gutxi" horrekin batera, guztiz finkatuta zeuden eskola tradizionalaren arauen aurrean zaku beltzean jausten ziren, eta ondorioz, "ikastolan ez zela ezer ikasten esaten zuten"[336] .

Aurreritzi hauen aurrean andereñoen lanak txinaurri lanaren itxura hartzen du, alegia, gurasoen beldurrak uxatu, hezkuntzari buruzko mitoak dekodatu eta pedagogia berria ezagutaraziz eta azalduz, haien lanarekiko konfidantza sortu: "Aspaldi konturatu ginen, ikastolako lanak loturik daramala eguneroko preparazio sakon bat. Eta ez dela nahiko, urteetan zehar berritze sakon bat egin gabe, pedagogi lan bat aurrera eramatea. Hezierak berekin dakar guraso eta irakasleen artean etengabeko harremanak atxikitzea eta jendearen sentipena xurgatzea"[337]. Elkarrizketetan andereño batek ikastolak "gurasoen eskolak" izan zirela aipatzen duenean, egoeraren definizio zuzena egiten dela uste dugu. Ikastolen azpiegitura eta defentsarako eskolako partaide guztien lan berdindua eta interesbakoa oinarrizkoa izanda ere, ikastolak izan zituen asmo berritzaileen funtsa andereñoek gurasoekin burutu zuten lan ideologikoa izan zela pentsatzen dugu (lan ideologikoa esaten dugunean, eskola "ona" eskola ofiziala ez bezelakoa izateaz ari gara). "Los nuevos planteamientos iniciados por el profesorado ponían en entredicho los valores generales de nuestra sociedad, valores tan cariñosamente cultivados por la escuela tradicional y oficial. Este nuevo empeño requería un trabajo masivo y activo con los padres y los sectores interesados en el devenir de las ikastolas. En este trabajo resultaba indispensable el buen acuerdo entre el profesorado y las juntas directivas. Durante los años en que la ikastola se abría camino con dificultad, este acuerdo existía, pero posteriormente se encuentran elementos que lo dificultan"[338].

Honaino gizarte eta gurasoei begira sortutako oztopoak, baina zailtasunak ez ziren hor bukatzen. Eskola tradizionalaren errefuxa agerikoa zen, baina eskola berriaren abiapuntua nahiko makala ere. Eredu pedagogikoaren eraikuntzari ekiterakoan, andereñoen mugimendua hutsetik irteten zen; eredu bakarra Zipitriarengandik ikasitakoa (ikasteko aukera izan zutenena behintzat) izan zen, zeren, baieztatu ahal izan dugun bezala, ez baitzegoen gerraurreko eskola saiakeren berririk Zipitriaren bitartez hartutakoa baino. Alde guztietako gabeziak zeuden: irakasleen formazio pedagogikoa, hizkuntz prestakuntza (euskaldunak ziren,

---

335 BASTERRA, J. (1989/12/15): *Andereñoen Erresidentzia, eredu pedagogiko berri baten iturburua*. **EGIN.**

336 SAIZAR, J. (1992/5/24): *Begoña Arrate: "ikastolan ez zela ezer ikasten esaten zuten gure etsaiek"*. **EGUNKARIA.**

337 GOIHERRITARRA (1973): *Irakasle eta guraso*. **Anaitasuna**, 255.

338 BERASAIN, M. eta HARANBURU, L. (1975) *Ikastola. Colegio de pago o escuela popular*. **Triunfo**, 665.

baina gazteleraz alfabetatuak), euskarazko material idatzirik ez ("Xabiertxo" eta "Martin Txilibitu" ziren erabiltzen ziren bakarrak)...

Material ezak eta eskolarekiko kezkak bultzaturik, herri desberdinetako andereñoak biltzen hasi ziren euren artean erantzunak bilatzeko eta arazoak konpontzeko, testuinguru berdinean formazioa ere zertzen hasi zelarik (lehenengo epe honetan ikastoletarako eremu pedagogiko-didaktikoaren bilatzea eta irakaslegoaren formazioa bereiz ezinak direla esango genuke, batera doazen eta nahastatzen diren iharduerak). Denborarekin, komunikazioaren ondorioz gauzatzen den esperientzien trukaketa hau forma hartzen joan zen, zentrua-bailara-herrialdea sekuentziari jarraiki. Andereñoen bilerak, bai materialen sorkuntzarako, zein metodologia konkretuen kontrasterako zein formaziorako, ikastola bakoitzean burutu, eta handik herri desberdinekoekin bailarara eramaten zen, azkenez Donostian egiten ziren batzar zabalagoetan bukatzeko. Gainontzeko herrialdeetan antzeko zerbait gertatzen ari zela esan dezakegu, beti ere ikastolen zabalkundearen ezaugarrien arabera. Hasiera hauetatik urte batzuetara, funtzionaketa honen gakoak jarraitzen duela frogatu dezakegu: "Maila berdineko haurrak dituzten irakasleak, hamabostean behin biltzen dira. Adin honek dituen arazoak aztertzeko, eta pedagogi eta psikologi aldetik dugun ikasi eta sakondu beharra zuzentzeko; dagoen materiala aztertu eta bereizteko eta, aurrera begira, eskola molde berriak dituen behar guztietan sakontzeko"[339]. Hau dena antolatzen ari zen bitarte honetan, noski, irakaslegaiek andereño arituekiko praktikak egiten segitzen zuten, baita Erresidentzian ikasten ere, handik gertatutako andereñoak irakaskun-tza beharrak betetzera zuzentzen zirelarik.

Andereñoen mugimenduak burutu zituen lanaren bi atalak, hau da, eskola eredu baten eraikuntza eta irakaslegoaren formazioa, bilatze lan haundia izan zela uste dugu. Euskal Herrian aurkitu ez zutenak, mugaz bestaldera joatera bultzatu zituen, kanpoan herriak eta euskal umeek behar zuten proposamen pedagogikoaren iturri nagusiak aurkituz, alegia, Frantzialdean oso hedatuta zegoen Freineten eskola, eta Kataluniako Rosa Sensaten ekarpena. Era honetara, Zipitriak eginikoari osagai berriak lotzen dizkiote, hezkuntza proposamena gaurkotuz eta garatuz.

Dudarik gabe, andereñoen formazioaren zati haundia eskola hauek eskeintzen zuten horretaz jabetzea eta sakontzea izan zen arren, badago formazioari dagokion beste atal nagusi bat hemen aipatu behar duguna, hau da, euskal hizkuntza eta kulturarekin lotutakoa. Hizkuntzaren modernatze prozesua hain momentu erabakikorrean zegoenean (batasunaren bidetik azkenengo ikutuak ematen ari zirela, eta alfabetatzearen beharrak berebiziko tokia hartzen zuenean) andereñoen formazioak ezin zion horri lepoa eman; euskal hezkun-

339 GOIHERRITARRA (1973): *Irakasle eta guraso*. **Anaitasuna**, 255.

tzaren giro honetan beste inon baino biziago zegoen euskara gaurkotu beharra eta beste hizkuntza normalizatuen mailan ezarri beharra. Bestela, nola irakatsi Bizkaiko zein Iparraldeko haurrei, nola idatzi testuliburuak, nola erabili eskola hizkuntza (kultur hizkuntza ere deitu omen zaiona) ez badago aldez aurretik arautegirik eta sistematizaziorik? Agian, euskaraz eskolatzearen planteamentu zabal eta hedakor honek inposatutako hizkuntz beharraren ondorioz sortu zen alfabetatzearen eta euskaraz erreziklatzearen konzientzia argi hau, zeinen bitartez andereñoak hizkuntzaren modernatze eta normaltze prozesuetan partaide eta eragile bihurtu baitziren.

Era honetara, eta R. Arregiren iniziatibaz Euskaltzaindiak 1967.eko "Alfabetatze Kanpaina" bera eratu aurretik, zenbait aldetan egin ziren alfabetaze saioak ikastolagintzarekin harremanduta agertzen zaizkigu, hain zuzen ikastolak sortzen hasi ziren eskualdeetako batetan: "Lazkaon, 1966an, hiru alfabetatze ikastaro eman ziren. Lehenengoa, Oargui-k antolatuta, Joxe M. Aranburu eta Jaxinto F. Setienek eman zuten euskal aditzari buruz, antolakuntza aldetik Joxe Manuel Irizar eta beste batzuen laguntza izan zutelarik. (...) Bigarrena Domarka Elkartean eman zen, gaueskola gisa; hirugarrena, berriz, Elizkristoan, azken hau ikastolako hainbat gurasori. (...) Ikastaroen esparrua, 1966-67 ikasturtean zehar, irakaskuntzako mundura ere zabaldu zen, bereziki Ikastoletako andereñoentzat emandako ikastaroetan. Eginkizun honetan aipatzekoa da Jaxinto F. Setienen lana, Joxe M. Aranburu laguntzaile zuela"[340].

Paulo Iztuetak Goierri aldean agertzen den alfabetaze joera goiztiar honen zergaitiak Lazkaoko beneditarren monastegiak izandako euskararekiko jarrera positiboan bilatzen ditu; "Lazkaoko beneditarren kanpo-eskola: alfabetatzea gizarteratzearen zimentarri" izeneko atalean monastegi honetan, besteetan ez bezala, gerraondoko urte ilunetan bertako bizikide guztiek euskara bazekitela eta gainera eguneroko bizitzan erabiltzen zutela aipatzen du, baina benetan beste erlijio-etxeekiko zerbaitetan bereizi baziren honexegatik izan zen: "konbentutik kanpora begira euskalduntze eta alfabetatzearen lehen oinarriak botatzen dituztelako"[341]. Iztuetaren esanetan, alfabetatzearen oinarri hauek Zipitriarengan bilatu beharko genituzke zeren berak eman baitzuen Lazkaon 1952-53.ean alfabetatze ikastaro bat, geroago bertan alfabetatutakoek herriari begirako hainbat alfabetatze saio antolatu zutelarik.

Honela argi agertzen zaiguna zera da: Euskal Herriko historian alfabetatzea eta eskolagintza sarritan elkar osatu eta gurutzatzen direla, prozesu bietan Lazkao herria eta Goierri aldea gune garrantzitsu bezala agertzen direla, eta ikastolen

---

340 ARREGI, P. (biltz.). (1992): **Euskal Alfabetatzearen azterketarako lehen urratsak. 1960-1990**. argit. gabe. 157. orri.

341 Lan bera 123. orri.

kasuan, nolabaiteko giltzarria Jaxinto F. Setien dela (lan honetan zehar, ikastolen mugimenduaren sorreran eta lehenengo zabalkundean zein andereñoen mugimenduaren eraketan, zein beranduago Gordailun, behin eta berriro agertuko zaigun pertsona izango da). Elkarrizketetan berak eginiko lana maiz agertzen zaigu: "Bueno, Setien zen *la sombra*, Setien atzetik ibiltzen zen", "Aurretik honek, Jaxinto Setienek egin zuen lan asko ikastolan, eta bazeuden orduan, ordurako ikastolak zabaldu ziren, nik uste dut Euskadi guztian, eta Jaxinto zen horren buru bezala azaltzen zena, gertatzen zena zen guk ez genuela igertzen."[342].

Esan bezala, andereñoen formazioaren atal garrantzitsua alfabetatzean zehaztu zen, baita euskal kultura, geografia, historia eta literaturan sakontzea ere. Formazio hau Erresidentzian hasten bazen ere, behin ikastolan lanean egon ondoren jarraitzen zuen, batzutan ikastaro puntualak zirela medio eta beste batzutan andereñoek euren formaziorako osatutako taldeak zirela medio (irakaslegoaren formazioan joera autodidakta oso azpimarragarria da). Formazio honek titulu batetan islada izatearen proposamena bera ikastoletako irakasleen aldizkarian agertzea ez da, gure ustez, kasualitaterik: "Horregatik, frantses titulu bat duen irakasle bat erdaldun haurrei beren kultura emateko egoki ez den bezalaxe, ez dira halaber egoki, bestegabe, legea gora behera, euskal haurrentzat erdel tituludu-nak. Andereñoek haurrei euskal kultura bat irakatsi behar badiete, aldez aurretik berek eduki beharko lukete kultura hori, eta kultura hori egiazki nola duten frogatzeko, zertifikatu bat lortu beharko lukete, hots, euskal estudioen titulu bat (...) Ez dugu dudarik egiten Euskal Kultur tituluak euskaldun arduratu guztiok, eta bereziki anderino maisuek, bihotzez eta konzientziaz hartuko dugun helburu bat izanen direlakoan"[343]. 1968.etik aurrera, Euskaltzaindiak hartutako Euskara Batuerarako erabakiek hizkuntzaren formalizazioan suposatzen zuten konpromisoari aurre eginez ikastoletako irakaslegoa, oro har, onartu eta berziklatu zela esan dezakegu, ikasi ondoren geletan praktikara eramanez. Batueraren onespenaren ildo honetatik, Euskaltzaindiak hizkuntzaren ezagupen eta gaitasun maila frogatzeko ezarri zuen D Titulua irakasleentzat helburu bihurtu zen lehenego titulua izan zela azpimarratu behar dugu, hizkuntzan errezikatzeak zeukan garrantziaren adibide gisa (kontutan har dezagun, D titulua dela ikastoletan aritzeko ontzat eman zen eta euskal komunitate eskolarrak bere egin zuen lehengo titulazio ofiziala).

Zalantzarik gabe, euskararen modernatzean hizkuntzalaritza mailan euskara batua arautzeko egin ziren lanak hizkuntzaren biziraupenerako ezinbestekoak

---

342 3. eta 6. elkarrizketa.

343 KINTANA, X. (1972/4/10): *Euskal Kultur Tituluei buruz*. **Gordailuko irakasleen aldizkaria**: 29-32. orri. Kintanak artikulu honetan egiten zuen edukien proposamena, hain zuen, D Titulua hornituko zuen antzekoa da: literatura, historia, geografia eta hizkuntza; baita agirien emalearena ere, hau da, Euskaltzaindia.

izan ziren arren, goi-mailako iniziatiba instituzional hau herriratu, zabaldu, erabili eta gizartearen sinisgarritasuna eskuratzeko izan zuen bide nagusienetako bat ikastola izan zela azpimarratu behar dugu, baita horretan irakaslegoak jokatutako funtsezko papera ere.

3.5.3. Irakasleen mugimenduaren jorraketa pedagogikoa

Ikusi dugun bezala, ikastolen mugimenduak pedagogia mailan eskuratu zuen eredua Zipitriarena izan zen, bai era zuzenean berarekin eginiko praktiken bitartez, baita zeharka berarekin aritutako andereñoen irakasbidearen bitartez ere. Hala ere, andereño gazte zenbaitek, Zipitriaren pedagogia guztiz mirestu eta bere egin arren, ez zuten honetan bere bilatze pedagogikoa bukatutzat eman. Pedagogia bilatze honetan tinko aritu eta Zipitriarekin praktikak eginiko andereño batek adierazten zuen bezala, Zipitriak umeen eguneroko esperientziatik zuzentzen zuen ikasbidea eta umeengandik gertu zeuden gauzetatik bizierazteko benetako trebetasuna eta errekurtsoak zituen baina, beraren ustez, dena gelditzen zen berarengan, bera zen egile, gunea eta eragile bakarra ia ia; umeek ez zuten parte hartzen, ez zuten adierazteko askatasunik andereñoak berak dena betetzen baitzuen, dena girotzen baitzuen. Zipitriaren ekarpena guztiz aberasgarriak izanda ere, zerbait gehiago falta zen, "ezin zukeen Elbiraren pedagogiarekin soilik gelditu".

Ez dakigu gainontzeko andereñoak eritzi berdinekoak izango ote ziren, baina nabaria dena zera da, Zipitriaren praktika pedagogikoa hartu eta aurrerago ere joan zirela, aipatzen genuen bilatze hortan bide berriak jorratuz. Andereñoen mugimenduak, oro har, bi iturri teoriko nagusi bereganatu zituela labur genezake, Estatu Frantsesean zein Katalunian gertatzen ari ziren berrikuntzekin lotuz.

A. Escolanok deitutako "Erresistentziaren Pedagogia", frankismoak ezartzen zuen sistema ofizialistari erantzunez sortutako korronte desberdinez osatu eta berrikuntza pedagogikorako mugimenduaren itxura hartu zuen, indar osoz 70.eko hamarkadan azalerazi zelarik: "Estos movimientos de renovación se asocian a todos los grupos de oposición al régimen, incorporando en una especie de convengencia por el progreso pedagógico, a las tradiciones del republicanismo que habían logrado sobrevivir, a los nacionalismos, a las pedagogías de izquierda e incluso a colectivos innovadores y críticos procedentes del catolicismo social"[344]. Berrikuntza pedagogikorako mugimendu hauen agerpena oso berandukoa izateko arrazoiak erregimenak ezarritako "disidentzia guztiaren deseustaketa"n oinarrituz, salbuespena aipatzen du Escolanok, hain zuzen ere Kataluniako kasua.

---

[344] ESCOLANO, A. (1989): Discurso pedagógico, modernización técnica y pedagogía crítica durante el franquismo. **Historia de la Educación**, 8. Salamanca. 23. orri.

Katalunian pedagogia mailan eman zen egoerak, Euskal Herrikoarekiko antzekotasun aipagarri batzu dituela uste dugu. Gerra ondoren, gerraurreko katalandar erakundeek bultzatutako iniziatibei nolabaiteko jarraipena emateko joera sortu eta posible zen esparruan (pribatuan) ekin zioten: "Diversas innovaciones se registraban en el área de Barcelona a partir de los años cincuenta. La influencia de pedagogos como A. Galí, P. Vergés y A. Martorell, la pervivencia de parvularios montessorianos, del Instituto-Escuela de Barcelona y de centros inspirados en la metodología Decroly, el despegue de otras iniciativas católicas y liberales, entre otros factores, permiten a Cataluña mantener un cierto nivel renovador"[345]. Ingurune honetan, Kataluniako Elizak (zeinek, Montserraten kasuan bezala, katalandar kultura babestu eta defendatu zuen) jokatutako paper zabal eta kalatalanzalea, eta kultur zapaldu eta minorizatuei II. Kontzilioak eman zien legitimitatea izan ziren berrikuntza pedagogikoaren zabalkunde eta indartzeari oso lagungarri gertatu zitzaizkion egoerak.

Gertakari guzti hauen lehenengo ondorio formalak, 1959.ean A. Galik zuzendutako emanaldiak eta 1960.etik aurrera Marta Matak eratutako udako ikastaroak izan ziren, 1965.ean aski ezaguna izan zen Rosa Sensat Institutuan gauzatuz. *Escola d´estui* izenekoak eskolari buruzko punta puntako eztabaidarako guneak bihurtu ziren 60.eko eta 70.eko hamarkadaren zehar, Euskal Herriko irakasleentzat sarri askotan iparra bilakatuz: "La escola d´estiu ha constituído una plataforma de debate y difusión de los métodos de la escuela activa (Montessori, Decroly, Freinet), de las innovaciones curriculares y didácticas más significativas (gramática estructural, nueva matemática, ciencias sociales, educación sexual, cooperativismo y autogestión escolar, avaces psicopedagógicos...) y del estatuto socio-profesional de los docentes"[346].

Ikastolen mugimendua eta Kataluniako pedagogiaren arteko harremanak oso goiztiarrak izan ziren, Rosa Sensat Institutuaren sorrerakoak hain zuzen. Jaxinto F. Setienek eginiko Bartzelonarako bidai batetan kontaktatu eta Marta Mata eta M. Antonia Canalsekiko harremanak hasi ziren, urte askotan zehar trukaketak eta handik honako eta hemendik harako txango ugari egin zirelarik[347]. Gordailuk egin zuen lanean harreman hauen emaitzak ikusi ahal izango ditugu (ikastaroak, liburuak...) zeren irakaslegoaren kooperatibismoa eta zenbait ideia nahiko eraginkorrak izan baitziren hemengo irakasleen artean. Baina dudarik gabe, eraginik haundiena izan zuen ekarpena erlijioaren ingurukoa izan zen; alegia, euskal eskolan, Zipitriaren bidez ikusi ahal izan dugun bezala,

---

345 Lan bera 24. orri.

346 Lan bera 24. orri.

347 MONES i PUJOL-BUSQUETS, J. (1981): **L´escola a Catalunya sota el franquisme**. Rosa Sensat Edicions. Bartzelona. "Els primers contactes de Rosa Sensat amb els mestres d´Euskadi va tenir lloc els dies 7 i 8 de setembre de 1966 a Guetaria, on es reuniren els mestres de les ikastolak que funcionaven des de feia uns deu anys" (370. orri.).

erlijioa eta euskalduntasuna nekez bereiz zitezkeen kontzeptuak ziren, baina denborak aldatu ahala hezkuntzan erlijioaren tratamenduaren inguruko eztabaida zabaldu zen irakasleen artean. Gakoa ez zen, ordea, erlijioa bai ala ez, baizik eta heziketa erlijiosoaren ardura nori zegokion. Rosa Sensat Institutuko partaideen aldetik irakaslea eta katekistaren artean bereizketa egin beharra azpimarratzen zen (gogora dezagun Kataluniako burgesiak, Euskal Herrikoak ez bezala, bultzatzen zuen eskola laikoa zela, pedagogiaren erizpideetan oinarrituta nolabaiteko bokazio "europeista" baitzuten), J. Setienek berak horrelaxe laburtzen digula: "Irakasleok, aspaldidanik genituen gure bilkura edo ikastaldietan erlijioaren irakaskuntzaz kriterioak argiturik: andereñoa ez da katekista, izpiritu-baloreetan finkatu behar da haurraren hezketa, baina fedearen lantzea kristau komunitatearen baitan datza..."[348]. Erlijioari buruzko erabaki hauek, hurrengo kapituluan ikusiko dugun bezala, ikastolen mugimenduan eman zen gatazkaren argudio nagusietako bat bihurtu ziren, bueltaezinezko ondorioak ekarriz.

Kataluniako eskolarekin harremanetan sartzeko arrazoi kulturalak, linguistikoak eta historikoak ere (jakina da mendearen lehenengo laurdenean bi nazio hauen artean egon ziren harreman politiko zein kulturalak oso tinkoak izan zirela) baldin baziren, honek ez omen zuen bilatze lanaren gosea behar adina ase edo, eta Frantzialdean guztiz indartsu ari zen Freinet mugimenduarekin ere harremandu ziren. Hautaketa honetarako ere soberako arrazoiak topa genitzake. Batetik, Ipar Euskal Herria Estatu Frantsesaren menpe egoteak hango kulturarekiko komunikazioa erreztu izan baitzuen, baita Gerra Zibiletik aurrera erbestearen halabeharrez areagotu ere; horrela mugan dauden herrialdeak bestaldeari begira eta etengabeko harremanetan egon direla esango genuke, eta Estatu Frantsesean Freinet mugimenduak eskuratuta zeukan ospea ezin zitzaien pedagogia mailan bilatze horretan zeuden andereñoei oharkabean igaro. Bestetik, Kataluniako eskolak zeukan sustrai montessoritarrak ez baitzion behar bezala erantzuten ikastolagintzak eskatzen zuen problematizazio sozialari eta eskola-gizartea bikotearen beharrei.

Freineten ustez, Montessoriren eta Eskola Berriaren beste teorialarien ekarpenek, eskolatik kanpo eginikoak izan ziren neurrian, ez zieten maisu maistrek zituzten egoera konkretu eta errealei erantzuten, beraz, hemen dugu proposamen hauen porrotaren lehenengo arrazoia. Baina, pedagogo frantziarraren aburuz hau ez da nagusiena, zeren porrotaren zergatia gizarte kapitalistan baitatza. Jesus Palaciosek, Freineten pasarte batzu eskuratuz horrela azaltzen du: "Pero la causa fundamental hay que buscarla fuera de la escuela, en el terreno en que ella crece: la sociedad capitalista. El trabajo exclavizante, la avaricia y el desorden capitalista matan a la escuela y la llevan al tipo de decadencia tan familiar al capitalismo: *La decadencia y la muerte de la escuela son el resultado del*

348 SETIEN, J. F. (1979): *Gordailu eta euskal pedagogia*. **Jakin**, 11. 106. orri.

formidable desarollo del capitalismo. A un nuevo orden debe, necesariamente, corresponder una nueva orientación de la escuela proletaria."[349].

Freineten proposamenean, eraldaketak eta herriarekiko loturak berebiziko tokia hartzen dute, ikastolagintzan aldarrikatzen zen herrikoitasunaren ezaugarriarekin bat eginez: "Hace falta realizar una renovación profunda y eficaz de la formación de las nuevas generaciones... Se puede decir que a pesar de la tenaz persistencia de la tradición secular, la escolástica ha terminado su reinado. Lo cual no quiere decir que no exista el peligro de que se prolongue su agonía. Sin tardanza, debemos sustituírla por una formación que tenga sus raíces en el pueblo, en sus necesidades, en sus modos de vida, en sus modos de actuar, de trabajar, de pensar; raices vivas que aseguren la potencia de su savia"[350].

Freinetek eskolari ematen dion dimentsioa maila politikora iristen da, ez baita posible ekintza sozialari eta politikoari muzin egitea. Puntu honetan, Freinetek ikastolagintzari nabarmenki eragingo zion, Freireren ekarpenak bildu egiten direla esango genuke, diskurtso pedagogikoari bere alde kritiko eta askatzailea atxekiz.

Irakasleen mugimenduaren barnean, korronte pedagogiko batek edo besteak ekar litzakeen teknikak eta metodoak aparte, hezkuntza sistema eta heziketari buruzko funtsezko galderak aurkitzen ditugula azpimarratu behar dugu. "Irakaskintza eraketari kritika anitz egiten zaiola gauza jakina da. Pedagogiko mugimendu oro, guti edo gehiago, kritika honi lotua dago. Egungo kritika berezia da ordea, ez baita pedagogiko mailan geratzen. Heziketan agertzen diren hutsuneak zentzu politiko bat dutela uste du. Irakaskintzaren kritika ez dela ekonomia kritikatik, ez burokraziatik, ez eta gizarte eraketatik berez ahal. Bestela esan: heziketa alorrean nabari diren makurrak, politika nahiz ekonomia mailan egindako aukera berezien ondorio direla, dio egungo kritikak (...). Gizarte honek irakatsi dauzkigun baloreetan oinarriturik gure arteko desberdintasunak sortu eta kontserbatu egiten ditugu. Gizarte honek aldezten dituen baloreetara makurtu eta balore hauek gaitzetsi beharrean gara. Herri berri baten batasuna aldezten badugu bere oinarriak jartzea guri dagokigu. Eta hara gaurko egoerak balore berri hauk finkatzen hasteko egokiera sortu"[351].

Herri berriaren eraikuntza pedagogia askatzailearen iturrietatik ideiak jaso zituela nabari da, artikuluen bitartez zenbaitek teorizatzen zutenagatik behintzat.

---

349 PALACIOS, J. (1978): **La cuestión escolar**. Laia. Bartzelona. 92. orri.

350 FREINET, C. (1982): **Por una escuela del pueblo**. Laia. Bartzelona. 11. orri. Gai honetaz ikus: MOVIMIENTO COOPERATIVO DE EDUCACION POPULAR, M. C. E. P. (1979): **La escuela moderna en España**. Zero Zyx. Bilbo.

351 XABIER, L. (1971/12/3): *Ikastola eta pedagogia*. **Gordailuko irakasleen aldizkaria**, 3-14. orri.

Besteak beste, Luis Haranburu Altunaren "Pedagogia askatzailea" (1971/12/3), Paki Arregiren "Kontzientziarazteaz" (1972/5/6), X. L.ren "Herri kultura" (1972/6/10) eta Eusebio Osaren "Pedagogia eta Gizartea" liburua (1972). "Gu ihardun gara lanean zenbait metodo desberdinekin eta ezin dugu aitortu gaur egun metodo berezi bat erabiltzen dugunik, baizik eta nahasian, batzuetan Freinet erabiliko dugu eta honek ikasleengan dauden hainbat gauza baloratzen erakutsiko dauku, besteetan Clapareden antzera interesak bilatuaz sahiatuko gara, beste batzutan beste bide bat hartuko dugu ikasleen beren dinamikak hala agertzen badu, baina gaur agertu nahi nuena beste zerbait zen eta nolabait aipatu ditudan metodo horiek bere orokor ikuspegian kontuan hartzen dituena. Gure ustez metodo honen baliorik handiena esperientzia baloratzean datza, gure akatsik haundieneteraiko bat hau da, hutsetik hasi behar dugula uste izatea..."[352]. Honi jarraituz metodo guztien gainetik dagoen ikuspegi orokor horren lau fase bereiziko liratekeelarik: "Kontzientzia kritiko bat hartzea; askatasun aukera; ekintza eta azterketa kritikoa".

Freinet eta Freireren eskola eta errealitate sozialerako tresna kritiko hauek arrakastatsuak bilakatu ziren herrigintzan eta hezkuntza sistemaren eraldaketan ahalegintzen ziren irakasleentzat, hauekin batera, ikastolak momentu hartan gorpuztu zuen diskurtso pedagogikoa eta ideologikoa perfilaturik agertzen zaigularik. Metodologikoki, halaber, irakaslegoa ez zaie atxikituko metodo bakar batez aritzen diren joera pedagogikoei. Oro har, ezin baitira aplikatu estrategia berdinak hezkuntza ingurune desberdinetan, baizik eta, azken hauek aztertu ondoren, aldaketa errezten dizkiguten estrategiak aztertu eta martxan jarri. Beraz, maila metodologikoan aniztasun haundia agertzen zaigun bitartean, maila orokorrago batetan irakasleen artean ikuspegi kritikoa zabaltzen dela esango genuke.

Kataluniako eskolarekiko harremana nola gauzatu zen aipatu ondoren, Freinetekikoa nola abiatu zen galde dezakegu. Honi buruz, Andereñoen Erresidentzian 1965.erako pedagogo honen berri bazegoela jakin ahal izan dugun arren, 1967.ean Nekane Auzmendi eta Arantxa Mendizabal andereñoek Montabanen izandako ikastaro batetan Buzet Sur Baise eskolako Delbasy Jaunarekin harremanetan sartu zirenekoa da lehenengo kontaktua. Elkar ezagutze honen emaitzez, 1968.eko martxoan abiatu ziren Delbasyren eskolara andereño bi hauek, Arantxa Idiazabal eta Mikel Erriondo (Errenderiko ikastolako juntakidea), bidai honetaz eginiko informe batetan adierazten den bezala[353]. Buzet Sur Baise herria Agen Departamentuan kokatzen da, Delbasy Jauna bertako Eskola Nazionaleko maisua zelarik. Informe txiki honetan bidaiaren helburua honelaxe aipatzen da: "Conocer en la práctica la realización de dicho sistema y

352 ARREGI, P. (1972/5/6): *Kontzientziarazteaz*. **Gordailuko irakasleen aldizkaria**.
353 Mikel Erriondo Jaunari esker eskuratu ahal izan dugu bidai honi buruzko informea.

recurrir a la amplia experiencia de Mr. Delbasy para resolver las dudas que en el transcurso de estos años se les han ido presentando a nuestras andereños, así como buscar en la práctica y el cambio de impresiones con el pedagogo citado más amplias perspectivas y orientaciones para la acción futura.". Bisitariek, bere informean, eskolaren espazio fisikoen deskribaketa zehatz bat (altzariak, lehioak, patioak...), ikastaldi baten kontakizuna, eta Freneten pedagogiaren oinarrizko ideia batzuren laburpena egiten dituzte.

Freineten esperientzia honen ezagutzak, batzurentzat, Zipitriaren lanari falta zitzaion aurkikuntza suposatuko zuen: "*Pedagogikoki ondo osatuta gelditu nintzen Elbiraren lanari Freineten askatasuna gehitu nionean*", bai maila teorikoan baita maila praktikoan (testu librea, prentsa, liburutegiak, marrazki librea ...) ere. Ekarpen teoriko hauekin, ikastoletako andereñoen arteko elkarlana sakondu eta eztabaida tinkotu zen. Euren esanetan, marko pedagogikoan Zipitriaren "*zurruntasuna*"ren ordez Freineten askatasuna integratu zuten bitartean, metodologikoki Zipitriaren kantak, matematika (berea baino hobeagorik ez baitzuten ikusi) eta "Xabiertxo" liburua (ordura arte testu bakarra zen, eta gurasoei nolabaiteko seguritatea ematen zien) mantendu zituzten. Erlijioa, berriz, baztertu egin zuten "*garai hartan ez genuen bizitzen erlijiorik, beraz, bizitzen ez duzuna ezin da ikas elkarketa batetan sartu"* , beti ere erlijio kantak edota erritoak mantenduz. Sekuentzia metodologikoa Freineten ekarpenarekin osatu zuten, batez ere testu eta marrazki librearen bidez[354].

Freineten pedagogiaren zabalkunde norainokoa izan zen ez dakigun arren, irakasleen mugimenduaren inguruan berebiziko pisua izan zuela azpimarratu behar dugu, besteak beste, liburugintzan autore honen itzulpenek eta egokipenek adierazten diguten bezala[355].

3.5.4. Gordailu eta euskal pedagogia

Andereñoen elkarlanak, ikastolak ugaritu ahala eta praktikak irakasten zuenaren ondorioz, aurrepausu batzu eskatzen zituen 60.eko hamarkadaren bukaerarako; ikastolagintza gertakizun murriztu eta isolatua izatetik 1969.ean 8.247 ume (171 Araban, 5.770 Gipuzkoan, 348 Nafarroan eta 1.958 Bizkaian)

---

354 Grabaketa egin nahi izan ez zuen elkarrizketatu batekin jasotako informazioa dugu azkenengo hau; grabatzerik ez zuela nahi baina elkarrizketa bai egin nahi izan zuen, baita egin ahala apunteak hartzen joan ere (*kakotzen* artekoa hitzez hitzekoa da).

355 Gordailuk argitara eman zuen “Irakasleen Liburutegia” izeneko sailean ondokoak izan ziren lehenego bost aleak: HARANBURU, L. (1972). **Eskoletako aldizkariak.** Donostia: Gordailu; FREINET, C. (1972). **Berezko irakurpidea**. Donostia: Gordailu. PORQUET, M., & ICEM (1972). **Freinet Teknikak Lilitegian**. Donostia: Gordailu. FREINET, C. (1972). **Zenbait aholku gazteentzako.** Donostia: Gordailu. ELKARLANEAN (1972). **Zientzien erakaskuntza. Eskola-Berriko erakasle talde batek, C. FREINETen zuzendaritzapean prestatua**. Donostia: Gordailu.

eskolaratzen zuen eskola izatera iritsi zen, irakasle kopurua ere, datua oso zehatza ez izan arren, 300 ingurukoa zelarik. Testuinguru honetan, eta ikastolen errealitateak eskatzen zuen lan antolamendu zehatz, finko eta egokituago bati jarraiki eratu zen Gordailu. Irakaslegoaren elkarlangintzaren beste urrats bat izan zela esango genuke.

Baina, ikastolek kuantitatiboki hartzen zihoazen pisuaren garrantzia inolaz ere baztertu gabe, badaude ere garai honetan Gordailu bezalako elkartearen sorrera esplikatzen duten beste eragile garrantzitsu batzu. Izan ere, ikastolagintza, eta era orokorrago batetan alfabetatze prozesuak, kultur prozesu baten barruan eraikitzen dela esan behar dugu, eta kasu honetan euskararen modernatze joera kulturgintza guztiak zeharkatzen dituen ezaugarria dela kontutan hartu behar dugu, baita modernatze prozesu horretan kultur ekintza guztiak, nahiz eta esparru desberdinetan aritu, nolabaiteko harreman eta elkarren osaketan garatzen direla.

Atal honen lehenengo partean aztertu dugun bezala, 60.eko hamarkadan azaleratu zen modernatze epean, ezinbesteko pisua hartu zuen pentsalaria Rikardo Arregi izan zen. Bere ustez, 1960. urtera arte Euskal Herrian hedatuta zegoen kulturgintza "ruralismoa"n sustraituta eta industrialtzean bete betean ari zen gizarte batetan erantzunik ez zuen eredua zen eta, ondorioz, euskal kulturaren egokitze erraldoi bati ekin behar zitzaion. "Gaurko munduaren martxa laisterrean, bizi nahi badu, euskal kulturak ez du geldi egoterik. Hil-ala-biziko dilema planteatzen zaio hementxe. Eskilera automatiko horietan geldi zaudela esaterik ba ahal dago? Zu mugitu ez arren, eskilareraren martxa jarraituko duzu. Euskal kultura gelditzen bada, kultura haundi horiek markatutako bidea jarraitu beharko du. Eta hor galduko da"[356]. Kulturaren biziraupenerako Arregik bide batzu proposatu zituen: euskal idaleen elkartea sortzea eta dinamizatzea, euskal liburugintza bultzatzea eta euskal alfabetatzea gauzatzea (berreskurapenaren ildotik).

Alfabetatzea eta euskal liburugintza, lehen aipatzen genuen kultur prozesu zabal baten osagarriak diren heinean, ikastolagintzarekin ere estu harremanduta agertzen zaizkigu Gordailuren bitartez, eta ez bakarrik maila ideologiko edo teoriko batetan, leku fisikoa bera konpartitu behar izan baitzuten. Izan ere, Gordailuk pare-parean izan zuen esperientzia Alfabetatze Taldeena izan zen, zeren lokal berdina erabiltzen baitzuten eta Arregiren asmoekin eguneroko harremana baitzuten. Gordailuk, euskararen modernitzatze horretan funtsezkotzat jotzen zen liburugintzan irakurle potentzialekin zuzeneko harremana zuela dudarik ez dago, zeren euskaraz irakurri behar haundiagorik nork ote zuen ikastolagintzan ari zirenek baino? Beraz, euskara modernoa behar zen, Euskaltzaindiak hizkuntzaren

---

356 TORREALDAI, J. M. (1971): *Kulturgintza eta Rikardo*. in TORREALDAI, J. M. (arg.): **Rikardo Arregi**. Jakin Sorta, 3. 26. orri.

batasunerako erizpideak emanak zituen, eta alfabetatze prozesuak irakurleak metatuko zituen liburugintza euskaldun eta erabilkor batez elikatu behar ziren; betebehar honetan, Gordailuren egokitasuna nabaria da, Euskal Herri osoan zehar zabaltzen zen ikastolen mugimenduaren magalean sortua zen neurrian.

Beraz, Gordailuren sorreran, ikastolen mugimenduaren tokiz tokiko beharrak aparte, kultur prozesu oso baten adierazle zuzenak aurkitzen ditugu, elkar osatu eta eragin diotenak. Batek baino gehiagok galde dezake norainoko asmo jakina edo planifikazioa egon zen iharduera hauetan, baina erantzun argirik ez dago, Paulo Iztuetak adierazten digun bezala: "Lehen eginkizun honetan (argitalgintzan) benetako jauzi kualitatiboa eman zen 1969.ean, orduakoak baitira Donostian sortutako Gordailu, Lur eta Irakur Sail argitaletxeak. Ez dakigu planteamendu horren ondorioz sortu ziren ala bestela. Dena dela, ez genuke asko huts egingo, bagenio Alfabetatze Kanpainaren oso hurbilean agertutakoak direla, argitaletxe horien atzean, sustatzaile gisa, Jaxinto F. Setien, Rikardo Arregi eta Iñaki Beobide aurkitzen baititugu"[357].

Alfabetatze Taldea eta R. Arregiri buruzko hausnarketa txiki hau eginda, irakasleei gordinean zegokien arazoari ekingo diogu. Esan bezala, ikastolen hazkunde haundi baten ondorioz, eraketa maila altuago baten beharra igertzen hasi zen. Andereñoen mugimenduak bazuen, baina, ikastoletara iristen zirenentzako zer eskeini, azken batez urteetan zehar herri bakoitzean, eskualdeetan eta maila orokorretan eginiko lana hezkuntza filosofia eta esperientzien metaketa interesantea baitzen: "Heziketa ekintza muga gabeko lan bat dela ikusten dugu, eta honek egunero prestatzen joatea eskatzen digu. Behin edo behin ikasiarekin ez daiteke irakaskintza lan jator bat eraman. Teknika berri batzuek ikasi eta horiekin ibiltzea ez da nahikoa. Egun, heziketak duen garrantziaz konturatzeko eta prestatzeko geldi gabeko ikasketa lanean jardutea beharrezkoa da"[358].

Etengabeko heziketa lan honetarako eta andereñoen elkarlanak hala eskatuta, gelaz kanpoko ekintzei azpiegitura sendoago bat eman beharra sortu eta Gordailu eratu zen, irakasle elkarte baten formarekin. 1968-69 ikasturtea zen. Izan ere, andereñoen arteko koordinazioa eta informazio trukaketa burutzeko norbait liberatzeko beharra ikusi eta, momentuz momentukoari erantzun behar, Feli Etxeberria prestatu zen horretarako. Hemendik sortzen da pausuz pausu, eta aurreko urteetan eginiko lanean oinarrituta, elkartearen irudia eta errealitatea.

---

357 ARREGI, P. (biltz.). (1992): **Euskal Alfabetatzearen azterketarako lehen urratsak. 1960-1990**. argit. gabe. 147-150. orri.

358 ALLUR, A. (1972): *Ikastolak eta irakasleak.* in Jakin (arg.): **Gure Ikastola**. Jakin Sorta, 6. Oñati. 50. orri.

Gordailuk, 1974.ean egin ziren estatutuetan adierazten zen bezala, helburu desberdin batzurekin abiatu zen:

"- Gordailuren egitekorik nagusiena hezketa arazoa da.
- Euskal Herriaren esperientzia konkretuan txertaturiko hezketa: gure kultura ezagutu, landu eta baloratuaz.
- Haurrak askatasun aldera eramango dituena, norbere jokabideak autokritikatuaz, eta sozial berdintasun batek dituen alde onak erakutsiko diena.
- Irakasleen prestakuntza bilatu behar du Gordailuk bakoitzaren lana gero eta jatorrago gerta dadin.
- Geure materialgintza bultzatu: liburu, liburuxka, fitxa...
- Irakaslearen eskubideak nahiz ekonomiaren aldetik, nahiz lanbidearen aldetik begiratzeko eta zaintzeko ardura"[359].

Helburu orokor hauek dituztelarik, ekintza eta asmo konkretuagoak ere azaltzen dira Gordailuren sorrera honetan, alegia, koordinatzeko toki fisiko bat izatea (biltokia), irakasleentzako ikastaroak antolatzea, materialeak biltzea eta zabaltzea Euskal Herri osoan zehar (bai irakasleek beraiek sortutakoak, baita formazio ikastaroetan edota hitzaldietan egon zitezkeenak ere), Kataluniako eta Freineten Eskolako materialeak euskaratu eta egokitzea, manipulaziorako eta psikomotrizitaterako materialeak ekarri eta ezagutaraztea, eskolako hiztegigintzari hasiera ematea ... eta abar. Oro har, bi lerro nagusiz osatuta zegoela esan genezake, hezkuntza zerbitzu zentrua eta irakaslegoaren formaziorako egitura, baina oinarrian ideia autogestionario eta dinamikoekin (ez zen planteatzen kanpoko zerbitzu bat bezala, besterik gabe, baizik eta elkarlangintzan eta irakaslegoaren neurrira beraiek egin neurriko bezala).

Ideia honen adierazgarri gisa ikastaroaz egiten zen planteamentua plazaragarria dela uste dugu: "Ikastaldiaren programa gure beharrei erantzuteko eraturikoa izanen da, eta ez gure partizipaziorik gabe goitik behera eraturikoa. Ematen diren gaiak oso jakingarriak izan arren, lanean ari den jendeak parte bizirik hartzen ez badu benetako heziketaren aurka doa. Hitzaldi eder batzu eman ondoan urte guziko bakea eginik delakoan gelditzerik ez dugu onartzen, eta goitik eratzeak hori dakar berarekin. Zenbait gurasoren aurrean garrantzia izanen zuen titulu bat ateratzeagatik joatea eta gure eginkizuna hontan bukatzerik ez dugu nahi. Ez eta ikastalde batera edo bestera joatea inork behartzerik"[360].

Asmo partehartzaile eta "behetik gorako" hau Gordailuk bere funtzionaketarako hautatu zuen bazkidetzan ere isladatu zen; andereñoak bazkide egin eta, kuotekin eta materialen salmentatik finantziatzen zen. Elkartearen izakera irekia

---

359 GORDAILU ARDURADUN TALDEA. (1978): *Gordailu.* **Urrats, euskal pedagogia aldizkaria**, 0.

360 ALLUR, A. (1972): *Ikastolak eta irakasleak.* in Jakin (arg.): **Gure Ikastola**. Jakin Sorta, 6. Oñati. 52. orri.

zen, eta nazio mailako esparrua zuen. Puntu honetaz Iparraldeko andereñoekiko lotura aipatu behar dugu, zeren kasu batzutan Iparraldean hastapenetan zeuden ikastoletarako andereñoak ere gertatu baitziren Hegoaldekoekiko praktiken bitartez. Gordailuk ateratzen zuen aldizkarian I. Aramendi izeneko andereñoaren esperientziaren azalpena topa dezakegu[361].

Irakasleen antolamendu honek oso harrera ona izan zuela zalantzarik ez dago, zeren 1970.eko hasieran 300[362] bazkide izatera iritsi baitziren, eta Hegoaldeko herrialde guztietan liberatuak izan baitzituzten (Arantza Allur Gipuzkoan, Arantza Santamaria Bizkaian, Eusebio Osa Araban eta Kontxita Zabaleta Nafarroan), irakaslegoaren problematikari ikuspegi bateratua eman eta ikastolen maila pedagogikoa garatzeko tresna eraginkorra izan zelarik.

3.5.4.1. Gordailuren ekarpena

Baina, zeintzu dira irakasle elkarte honek jorratu zituen bideak? Gaia oso interesgarria delakoan banan banan aztertuko ditugu.

a) Ikastaldiak. Andereñoen Erresidentziak ezarritako formazio ikastaroen abiapuntuarekin, 1966.tik aurrera udako ikastaldiak antolatu izan ziren ikastolen munduan. Denborarekin, eta formazioa etengabeko prozesu bat delakoan, oporraldietan eta data berezietan eginiko saioak bihurtu ziren. Ikastaldiak, irakasleen behar errealei egokitu nahiez eta irakasle beraiek antolatzaile bihurtuz, urtez urte eta sarritan arazo haundiekin burutuak izan ziren, geletan egiten zen lana jaso, zabaldu eta guztiak aberasteko asmo tinkoarekin: "Gure ikastaldiak urte guztiko lanaren fruitua edo ondorioa behar du izan. Ikastaro osoan zehar egin diren talde-lan eta esperientziak azaldu eta bilduaz programa berdin batera hel gaitezke. Bestalde, gure beharrak agintzen diguten arabera teoriazko ikasketak ere eman behar dira. Honela prestatzen diren ikastaldiak, alegia lanean ari den jendeak eskatzen duen arabera benetako interesa izanen dute"[363].

Antolatu ziren ikastaldien zerrenda osoa ematea ezinezkoa dugu, baina bai zenbait datu bildu. Ikastaroak, zenbaitetan Rosa Sensat eta Freineten Eskolakoek emandakoak izan ziren, beste batzutan, berriz, hemengo irakasleek emanikoak.

---

361 ARAMENDI, I. (1972/6/10): *Andereñogai Iparraldetik.* **Gordailuko irakasleen aldizkaria**, 35.orri.

362 Datu hau Jaxinto F. Setienek eta Jon Barriolak eman digute. Gordailuk ikastolen barruan zeukan pisuaren ideia bat egiteko, esan dezagun, Siadecoren datuen arabera 1970-71 ikasturtean ikastoletan 11.885 ikasle zeudela kontutan hartzen badugu 39 ikasleko Gordailuko irakasle bazkide bat zegoela. Proportzioa nahiko adierazgarria iruditzen zaigu.

363 ALLUR, A. (1972): *Ikastolak eta irakasleak.* in Jakin (arg.): **Gure Ikastola**. Jakin Sorta, 6. Oñati. 52. orri.

UZEIk eginiko "Ikastoletarako textuliburuak"[364] izeneko lanean honako ikastaro zerrenda azaltzen da:

1970.eko udan, Beasainen: Eusebio Osak emandako "Teoría de la Educación" eta "Educación liberadora".

1971.eko udan, Donostian: Pepa Odenak emandako "Psicomotricidad"; Sexualitateaz taldean; Andoni Sagarnak, Carlos Santamariak eta Koro Zumalabek "Matematica"; Eusebio Osak "Dinámica de Grupos", eta, Umeen Psikologia azkenez.

1972.eko udan, Hazparnen:[365] Sei urte baino gutxiagoko umeen psikologiaz eta garapenaz; irakurketa metodoak; Mayans Irakasleak emaniko "Gorputza espresio bezala" eta Riudor Irakasleak "Ingurua aztertzeko metodologiaz" (geografiaren, soziologiaren eta zientzien didaktika).

1974.eko udan Donostian: Gilen Zalbunbidek emaniko "Psicomotricidad" ikastaroa; Jone Errazkinek "Métodos de lectura", eta, Feli Etxeberriak eta Jon Barriolak "Matematica".

1974.eko Gabonetan Donostian: Felix Etxeberriak eta Pedro Hernándezek emaniko "Psicología", eta Natividad Gastesik "Dislexia" izenekoak.

Ikastaro hauek ez dira antolatutako hainbat eta hainbaten adierazpen bat baino, Irakasleen aldizkarian agertzen diren berri, ohar eta deialdiek susmaerazten digutenaren arabera. Aldizkarian, Gordailuko partaide ziren andereño eta irakasleen "ikasteko mugikortasuna" aurkitzen dugu, baita Estatu Espainiar eta Frantziarren berrikuntza pedagogiko mugimenduarekin zituzten ezagupena eta komunikazioa[366]. Honek, hasieran aipatzen genuen pedagogia mailako "bilatze lan" horrek iraupen luzea izan zuela eta heziketari buruzko kezka bizia mantentzen zela pentsatzera bultzatzen gaitu. Honetaz aparte, ikastaldiak 60.eko hamarkan zehar ikastolek indar gehien zuten Gipuzkoatik eratu ziren arren, 1972.ean Bizkaiko eta Nafarroakoak batera elkartu eta lehenengo ikastaldia

364 UZEI (1979): **Ikastoletarako textuliburuak**. argit. gabe. 22. orri.

365 UZEIren lanean ez dira azaltzen 1972.ean eta 1973.ean eginiko saioak. 1972.ean egin zena Hazparnen burutu zen, elkarrizketetan aipatu digutenez. Hazparneko ikastaldiaz ematen ditugun datuak ikus: ERRIALDE (1973): *Irakasleen udako ikastaldiak*. **Zeruko Argia**, 551.

366 MIREN (1972/9/15): *Bartzelonatik Donostiara*. **Gordailuko irakasleen aldizkaria.** HAN ZEN, (1972/9/15): *Freineten ikastaldia Bazasen*. **Gordailuko irakasleen aldizkaria**.

antolatu zuten, Abarzuzan OHOko irakasleentzat eta Durangon ttipien mailan aritzen zirenentzat[367].

Gordailuk, bere bidean, Pedagogia ekintzailea eraiki behar hari jendeak eman zizkion ongietorria eta hedapena ezagutu zituen, ez baina oztopo eta zailtasunik gabe. Geroago aztertuko ditugun arazoaz gain, 1972.etik aurrera Gordailutik aldendutako irakasle multzo batek "Loiolako Taldea" lehenen eta hura itzali zenean "Irakasle Elkartea" sortu zuen, ikastoletako irakaslego gehiena bilduz. Irakasle Elkartea irakaslegoaren alde sindikala eta eskubideak zaintzeaz arduratzen hasi zen, irakasleen aseguruak, lan kontratuak eta abar[368]. Irakasleen Elkartea sindikalgintzari zegokion esparrua jorratzen hasi bitartean, Gordailu maila pedagogikoa eta argitaratze lanetan gehiago zentratu zela esango genuke, beste elkarte batzurekin batera eratu zituen ekitaldien zabalkundeak adierazten digun bezala: "Besteak beste, Euskadiko Pedagogi Ihardunaldiak deitu udako ikastaldien bitartez, Adarra-Bide-Gordailu elkarrekin lankidetzan, pentsa ere ezinezko hedadura hartzen ari da euskal irakaskuntzaren planteamendua bizpairu urteotan. Bilbon, Lejonako Unibertsitatean muntatu ziren 77ko udan lehen ihardunaldiak (1.200 irakasle); Gasteizko Seminarioan iaz (2.000 irakasle) eta Irunean izanen dira heldu den udan"[369].

Honetaz aparte, eta geroago aztertuko ditugun botere borroken testuinguruan, Elizak ikastolen ardura ezarri zion Jose Lasa Kalongearen eskutik ere beste ikastaldiak ere antolatu ziren. Fenomeno honen sakonera eta esanahi sozio-historikoa, ikastolak kontrolatu eta itxura instituzionaldu eta normalduago bat agindu nahi izatetik sortu zirela esango genuke, ez urruti transizio politikorako prestatzen ari ziren indar politiko zenbatetik. Elizaren eskuhartzen honetan antolatu ziren ikastaldiak, irakasleen mugimenduak herri lanean ateratako emaitzez baliatuz (pedagogia mailako jorraketa teorikoa, kontaktuak, lan ohiturak, metatutako materialeak..), zailtasun ekonomikorik gabe abiatu ziren, indar kontrajarrien norgehiago itxura hartuz. Barruko planteamenduak, ordea, pedagogia kritikotik arras aldendurik zeuden eta, prestatzen ari zen egoera sozio-

---

367 URI (1972/9/15): *Bizkaian eta Nafarroan eginiko ikastaldiez*. **Gordailuko irakasleen aldizkaria.**

368 Honetaz, 1972.ean Bartzelonan Estatu mailan egin ziren ikastaroetako erreferentzi bat azaltzeari azpimarragarria deritzogu: "Ikastaldi honetan sei ordu terdiko lanaren ondoren beste bilera sail bat izan genituen, programatik kanpora. Politika mailatik hasi eta irakasle langileen eskubideetara irixteraino. Lan kontratuak, segurantziak eta abar. Lege berriaren aurrean izan ditugun burrukak, ikastetxetik kanpora botatzeak, ideologi desberdinetako eztabaidak, titulurik ezak, eta abar..." MIREN (1972/9/15): *Bartzelonatik Donostiara*. **Gordailuko irakasleen aldizkaria.**
Ikastaldi honetan Estatu Espainiarreko leku askotako irakasleak bildu zirela kontutan hartzen badugu, 1970.eko Ley General de Educación delakoak, ordura arteko hezkuntza sisteman sortarazi zituen kontraesan eta disfuntzio ugarietaz ohar gaitezke.

369 SETIEN, J. F. (1979): *Gordailu eta euskal pedagogia*. **Jakin**, 11. 109. orri.

-politiko berriari so eginez, ikastolen autogestioa eta herrikoitasuna indargabetzea zuten gogoan[370].

b) "Haurride" eta materiale didaktikorako saiakera. Gordailuk, sortzez lortu nahi zuen pedagogia ekintzailearen xederako, bide eta proposamen desberdinak martxan jarri zituen, haietako bat "Haurride" izeneko denda izan zelarik. Kataluniako materiale eskolarren kooperatibak ezagututa, eta, haiekiko harremanen bitartez materiale desberdinak eskuratzeko lehenengo aukera erreala baloratuz, Euskal Herrian antzeko esperientzia gauzatzeari ekin eta handik jaio zen Haurride, 1968. urtean. Bertan, urteetan zehar andereñoek Baionako Bourneng kaleko liburudendan, Bartzelonan eta gainontzekoetan erosi behar izan zituzten materia-leak bilduta eta edozeinek erosteko moduan aurkeztu ziren, besteak beste, eskulanetarakoak, egurrezko jostailuak, joko didaktikoak, umeentzako liburu eta ipuinak...

Haurridek, ikastoletako heziketa ideiari jarraiki, irakasleen lanen mugaketa ere egiten du: "Heziketan ari garenok, ondo ikusi ahal izan dugu, ikusi ere, haurrez osaturiko talde batekin lan egitea ez dela horiek gela batean edukiaz zenbait lege bete eta denbora pasatuaz, baizik, sortze, ekite eta askatasun ahalmenak landuaz hezitzea. Honek, esku artean beharrezkoen dugun materialearen premia du sortu (...) Haurridek bere eginkizun jotzen du, bai irakasle eta gurasoekin ere ahal den heinean pedagogia lan bat egitea, alegia, ikastoletako eta etxeko heziketa lana batuz"[371]. Artikulu horretan, umeei beti egia esan behar zaiela eta "ezin inola ere onar jostailuak erregeek ekarri dituztela esaterik, baizik, egibide bat bilatu eta aurkitu behar dugu", beraz, gabonetako kanpainian, propagandaren eragina neutralizatuz, umeen beharrei egokitutako jostailuak aukeratu beharra azpimarratzen dute. Kanpainia hauetan, gurasoekin egin beharreko lana azpimarratzen da, berriro ere lankidetzaren asmo horrekin[372].

---

370 Ildo honetatik antolatu zen lehenego saioa ume txikien andereñoei zuzendutakoa izan zen. Honetaz, horrela hitz egiten zuten antolatzaileek:
"- Nortzuk antolatua izan da ikastaro hau?
"- Aurten bertan sortua dan *Grupo de Trabajo Vasco-Navarro*-k. Izan ere, Madrid-go Ministerio de Educación y Cienciaren adar bat bezala azaldu berria da ofizialki *Gabinete de Evaluación* deritzaion lan taldea. Talde berri onen elburua Galizian, Catalunyan eta Euskalerrian jatorrizko izkuntzaren ikaskuntzak antolatzea da. Ain zuzen ere *Grupo de Trabajo Vasco-Navarro* orren gain gertatu da gure erriko tipien-eskoletan eman bear dan irakastea. Jon Oñatibia Jauna degu zuzendari, Jose Lasa Gipuzkoa aldetik izendaturik" AZURTZA, M. J. (1969): *Tipien-eskoletako andereñoentzat ikastaro berezia*. **Zeruko Argia**, 339.
Honetaz aparte, geroago egin ziren ikastaldien deialdi eta programa bat ikus: "Udako III Kursiloa, Loyolan" Zeruko Argia, 435. zbk. 1971.

371 HAURRIDE (1971): *Hezi jostailuak*. **Zeruko Argia**, 459.

372 HAURRIDE (1971/12/3): *Errege kanpaina*. **Gordailuko irakasleen aldizkaria.**

Haurrideren ahaleginari jarraiki, eta Gordailu irakasle elkarte bezala hartzen zihoan zabalkundearen seinale, Kide izeneko beste denda bat zabaldu zen Iruñean 1972.ean, aipatutako asmo eta xede berdinekin.

d) Aldizkaria. 1971-73 bitarte horretan, Gordailun bildutako irakasleen aldizkaria argitaratu egin zen. Izenik gabe, eta zentsurak ezartzen zituen traba guztiak gaindituz (ez baitzuen argitaratzeko baimenik), 400 ale[373] banatzen omen zituzten. Aldizkaria, irakasleen esperientziekin eta eritziekin abiatuta baseko lanean oinarritu zen, irakaslegoaren etengabeko formazio prozesu horretako beste katemaila izaki, eta haien artean kezka, asmo eta burutapenak komunikatzeko tresna arras eraginkorra.

Aldizkaria gain gainetik aztertuaz, Freinet, Freire eta Rosa Sensaten eskoletako ekarpenak eta kritikak, irakurketa metodoei buruzko esperientzien balorazioak, erlijioaren arazoa eskolan, hezkuntza legearen eragina, matematikaren didaktika, gurasoekiko harremanari buruzko proposamenak eta oztopoak, antzerkia eskolan, ikastaldien informazioa eta balorazioak... eta zerrenda luze bateko gaiak aurkitzen ditugu, gure aburuz, orduko irakaslerik aurreratuen eta dinamikoen egoeraren azterketarako oso kontutan hartzeko informazioa ematen digun dokumentua. Gainera, ez dago soberan aipatzea, berrikuntza pedagogiko guztia jasotzeko gunerik ez zenez egon (egoera sozio-politikoak galerazita baitzegoen, eta, irakasleak adiago baitzeuden errealitatea eraikitzeari horri buruzko informazioa gordetzeari baino), aldizkariak historiarako ekartzen dizkigun datu eta ikuspegiak beste inon ezin ditugula aurkitu.

e) Liburugintza. Gordailuren abiapuntua, irakasleen lan pedagogikoan oso zehaztuta egon arren, lan hauei ikastolagintzan hain beharrezkoak ziren euskarazko liburuetan isladatu beharraz arduratu eta argitaratzen hasi ziren: "Alferreko gauza da ikasle-irakasleen egun oroko lana nahiz esperientzia, eta berebat, ikastaldi eta mintegien emaitza, ez bada liburu eta material egoki batetan gauzatzen"[374].

Honetaz aparte, hizkuntzaren bilakaerari dagokionez, Gordailu oso momentu erabakikorrean sortu zen, alegia, 1968.ean Arantzazuko Batzarrean Euskararen Batasunerako Erabakiak hartu zirenean. Euskara batua, inongo zalantzarik gabe, gerora begira euskal liburugintza eta alfabetatze erreal bat hurbiltzen zuen erabakia zen, baina sektore batzuren artean errezeloz eta begi txarrez hartua izan zen. Ikastoletan, tirabira hauek somatu ziren arren, irakaslegoaren artean proposamenari baietz borobila eman zitzaion: "Makina bat eztabaida eta eten sortu zuen arazo honek garai haietan, eta geroztik irakasleen postura garbia izan zen: bide

---

373 BARKAIZTEGI (1973): *Ikastoletako aldizkaria galbidean*. **Zeruko Argia**, 254.
374 UZEI (1979): **Ikastoletarako textuliburuak**. argit. gabe, 28. orri.

hura ikusten zen egokiena eta horrela erabaki zuten, poliki poliki ikastoletan sartzea"[375].

Gauzak horrela, eta denboran bat egin zuten neurrian, ikastoletarako liburuen argitarapena euskara batuaz hasiko da, Euskaltzaindiaren proposamen berri honi berebiziko kemena eta irakurle "potentzialei" zuzenduz. Daturik adierazgarriena zera dugu, Gordailuren lehenego argitarapena "Ikastola hiztegia" (1969) izatea, hain zuzen eskola gaietarako behar ziren hitzak bildu eta batasun batean emateko.

Argitaratu ziren liburuak asko izan ziren, besteak beste, hiztegigintzan "Ikastola Hiztegia", "Idazketa Hiztegia", "Nire lehen hitzak"; eskolaurrerako "Mintza", "Lehen irudi-Lehen hitzak" (irakurketa eta idazketarako metodo globala, jendearen artean oso arrakastatsua izan zena), "Matematika hastapenak"; O.H.O.rako liburu desberdinak (matematika, hizkuntza, esperientziak..); kontsulta liburuen artean "Ikastola Liburutegia" izenekoa argitaratu zuten, lau sailetan banatutako lan monografikoak: Natur Zientziak (Onddoak, Erleak, Ogia, Edariak, Janaria, Narraztiak eta Urlurtarrak, Ugaztunak, Arrainak..), Gizarte Zientziak (Olentzaro, Artzantza, Lanborantza, Arrantza, Industria, Lehen gizona, Burdina eta Altzairua), Geografia (Durangaldea, Goierri, Baztan-Bidasoa, Gasteiz, Lapurdi Itsasegia) eta Historia (Iparragirre, Ulibarri, Orreagako Guda, Euskal Herriaren Historia I...); mapagintza: Eskualdeak, Mendi eta Hibaiak, Komunikabideak.

Orain arte ikusi dugun liburu zerrenda hau ikasleei begira eta ikastaldietan erabiltzekoa izan da; ez da hemen agortzen, ordea, Gordailuk eginikoa, zeren irakasleei begirakoa ere argitara eman baitzuen. Ikastaroetako materialea batzutan: adibidez Larresorok euskaratutako "Pedagogia Ikastaroa"[376], baina zabalduena "Irakasleen liburutegia" izeneko saila izan zen, bertan, besteak beste, ondoko liburuak argitaratu zirelarik: L. Haranburu Altunaren "Eskoletako Aldiz-kariak" eta "Gizartearen Eskola", Larresorok euskaratutako C. Freineten "Berezko Irakurpidea", "Freinet-Teknikak lilitegian", "Zenbait aholku gazteentzako" eta "Zientzien Erakaskuntza".

Argitarapen guzti hauek, erreferente bezala ikastoletan erabilitako "Xabiertxo" liburua hartzen badugu, jauzi kualitatiboa inposatu zutela argi dago, garai berriei zuzenago egokitu eta asmo zabalago batez hornituta baitzeuden. Ez hori bakarrik, zeren liburugintza honek lan pedagogikoari buruzko kontzepzio

---

375 GORDAILU ARDURADUN TALDEA (1978): *Gordailu.* **Urrats, euskal pedagogia aldiz-karia**, 0, 87. orri.

376 "Pedagogi Ikastaroa" Larresorok euskaratua, "ROSA SENSAT" a.a.p.s.a. Paris, (ez du datarik). Liburuxka honetan Lilitegiko eta Lehenengo mailako eskola gaiei buruzko ikastaroen edukiak azaltzen dira, Katalunyako Jordi Cots, M. Antonia Pujol eta Isidre Creus irakasleek emana.

osoa barruratzen baitzuen, ikaskuntza memoristiko eta enziklopedikotik ihesi ikasleari begirako eskeintza desberdin eta anitzak bezala agertzen zirelarik. Testu liburuek ezarri ohi duten aprendizaiaren gidaritza labur eta antzutik, umea lan pertsonalizatu batetara bideratzeko tresna izan behar zuten argiratutako liburuxkek; horretarako, liburuxka guzti hauek gela bakoitzean, ume guztien eskura egotea zen asmoa, euren beharren araberako gelako liburutegi koxkor eta erakargarria. Jaxinto F. Setienek honelaxe laburbiltzen du: "Ekintza bikoitza (*ikastaldiak eta editoriala*), eta helburu bakarraren zerbitzutan, pedagogia ekintzailearen eragile izateko asmotan alegia. Lan-sail bizkor batzuetan irakasleen gaitasuna segurtatzea, eta liburu nahiz material egokiren bat argitara ematea, litzateke momentu honetan gure xedea, beti ere haurra lan pertsonalizatu batetara laguntzeko, haurra bera ikertzaile koxkor bat bilakatzen delarik. Eta honetan garbiro adierazi nahi dugu: gure bidea ez dela material entziklopediko bat sortzea haurrak jakintza kaskoan mekanikoki metatu eta sar dezan, baizik-eta mailaz maila lanerako irakurgai eta kontsulta liburutegi txukun bat etorkizuneko ikastola eta eskolentzat moldatzea nahiz eragitea. Horretan da dena. Eta jakina, euskaraz eta Euskal Herrairen ikuspegitik emana"[377].

3.5.4.2. Arazo nagusiak eta jarraibideak

Ikastoletako andereñoek urteetan zehar metatutako lan esperientziak Gordailun adierazpen berezi eta emankorra aurkitu zuen, baina bertan bildu ziren asmo eta proposamenek oso ibilbide oztopotsua aurkituko zuten hasiera hasieratik. Oztopo hauek aipatzerakoan, euskal gizartean zegoen giroa interpretapenarako ardatz hartu behar dugulakoan gaude, izan ere, giro nahasi eta istilutsua nagusitu zen diktaduraren azkenengo garai hauetan, kaleko errepresioa eta Burgoseko Epaiketako heriotz penak aski adierazgarriak izan zirela.

Gordailuk Gobernutik zetorren zapalkuntza eta mozketak biziki jasan zituen, besteak beste, etxe mihaketak (egoitza hiru edo lau aldiz poliziak arakatua izan zen), argitaratzeko zentsurak ezartzen zuen inposaketa (sarri askotan beste argitaletxeren laguntzaz ibili behar izan zuten), eta hainbeste irakasle biltzen zituen ikastaroak ospatzeko toki eza edota debekuak. Hauek, nolabait, Estatutik eta botere gunetik zetorren indarketaren ondoriozko oztopoak.

Gordailuk, aipatutako ikastaroak egiteko toki eza arintzeko, Elizaren babesa eskatu zuen behin baino gehiagotan, zeren erakunde erlijosoek, tradizioz euskararen babesleak izanik, eta azpiegituraz inor baino hobeki hornituta zeudenez, zailtasun horretan laguntza eman zezaketen bakarrak baitziren, baina horretan ere ez zuten zorte haundirik izan: "Zenbait elizgizonen oztopoak ez ziren batere arinago izan. Nahiko tristea izan zen, adibidez, 1971. urtearen Udako

---

377 SETIEN, J. F. (1979): *Gordailu eta euskal pedagogia*. **Jakin**, 11: 110. orri.

Ikastaldietaz Loiolako buruzagiak hartutako erabakia: *Jakinaratzen dizuegu zuen ikastaroak Elizaren Ikastola Elkartearekin zer ikusirik ez duenez, ez dezuela Loiolan tokirik izango*. Eta Iruineko Seminarioan gertatua gero: gipuzkoar elizgizon batzuen eraginez 300 irakaslerentzat ikastaldia hastera gindoazelarik, Nafarroako gobernadorearen debekua heldu zitzaigunean. Eta denok etxera, beste erremediorik gabe"[378].

Elizaren aldetiko mozketa hauek oihartzun haundia izan zuten irakasleen artean, eta ez ziren erabaki isolatu edo noraezekoen seinale; atzean, legearen babesean sartzeko joera eta egoera hartan jarraitzerik ez zegoela pentsatzen zutenekoa zegoen, baina garratzena ez da zein arrazoi zegoen edo ez zegoen, baizik eta instituzionaltze joerak inposatu zuen jarrera bortitza eta ezleiala. Zeruko Argiaren editorialetik bertatik batasun falta horri buruz mingostasunaz hitz egiten zen: "Gure irakasle talde aundi bati ateak itxi zaizkio. Bai au da egi garratza: Euskalerriko berrehun eta larogei irakaslek ez dutela aurten tokirik izan beren ikastaroa egiteko. Au da eskaskeria: arrazoiz geureganatzen ez ditugunak indarrez menderatu ditugu. Elkartzeko eta biltzeko eskubidea ukatu zaio irakasle talde oni. Zeren eta zeiñen izenean? Ori da geuk ezin onartu dezakeguna. Badakigu Elizaren aldetik, gurasoen aldetik, zenbait euskaldunen aldetik eztabaidatu ditezkela irakasle batzuen iritzi eta jokabideak. Berauek eztabaidatu dezazketen bezelaxe beste oien zenbait eritzi eta jokabide (...). Baiña au al da biderik egokiena auziak garbitzeko? Neurtu al duzute ongi zenbaiteraiño biurritu, txartu eta zapuztu ditezkean ikastolako arazoak? Pentsatu al duzute noraiño erori gindezkean etsaiaren jokoan?"[379].

Izan ere, Gipuzkoako ikastolak Elizaren babesera sartu eta federazioaren antolakuntza mugimenduaren aldaketa sakona izan zela aitortu behar dugu. Elizak seguritatea eta laguntza eskeini zizkien gurasoei, ikastolak oso egoera sozio-politiko nahasi baten erdian inongo babes legalik eta atxikimendurik ez zutenean. Baina, noski, ikastolen mugimenduak Elizarengan zeri heldu aurkitu bazuen ere, bere alde negatiboak ere ekarri zizkion: hierarkizazioa eta kontrol ideologikoa. Honek arazoak sortarazi zituen, diferentziak maila ideologikoan eta politikoan nabarmenduz. Horrela Gordailu inguruan zeudenei "marxistak zirela" eta horrelako "tituluak" ezarri eta harekin jokatzen zen.

Esandakoa, dagoenekoz, nahiko zamatsua ez bailitzan, pedagogi mailako diferentziak ere agertu ziren. Gordailutik, bere sustraietan militantzia zuen irakasle mugimendu autogestionario, herrikoia (behetik gorakoa) eta pedagogikoki ekintzailea eta kritikoa aldarrikatzen bazen, ikastolen mugimenduaren masifikazioak eta hezkuntza lege berriak, eskola mailan

---

378 SETIEN, J. F. (1979): *Gordailu eta euskal pedagogia*. **Jakin**, 11: 107. orri.
379 ARGIA, Z. (1971): *Andereñoak*. **Zeruko Argia**, 431.

behintzat, beste parametro batzu erabiltzeari atea zabaldu zioten. Ez dugu ahaztu behar, masifikazioarekin batera pedagogiarekin zerikusirik ez zuten gizonezkoen uholdea sartu zela ikastolan, baita mugimenduak hartuta zuen heldutasun pedagogikoa ez zutenak ere. Eraldaketa guzti hauek, eskola "normalago" bat egiteko joera sortu zuten, bide eta erizpide "normalagoekin" jokatzeko joera.

Normalizatze saikera hau maila guztietan isladatu zen, baina, argitaratzeaz ari garenez, 1972.ean sortu zen Saioka taldea da adibide zuzena. Bertan ikastoletan lanean ari zen irakasle talde bat bildu eta lanerako "materiale falta izugarria" somatzen zutenez Gordailu bezala, liburuxka batzu kaleratzen hasi ziren: "Hala eta guztiz ere, ez genion bide honi behar bezalako tinkotasuna nabaritzen eta beste zenbaiten bila aritu ginen"[380]. Irakasle hauek, bildu eta eztabaidatu ondoren, pedagogikoki hautaketa bat egin zuten testu liburugintzari eutsiz: "Batzarre hauetan pedagogia bateratzaile eta aktiboaren aldeko agertu ginen eta ideia horien inguru pertsona batzu elkartzen. Ikastoletako testuak ildo hauetatik abiatu behar zutela pentsatu genuen. Ildo teoriko hauek ikastoletarako materialetan konkretatu behar genuela erabaki genuen"[381]. Saioka argitaratzen zuen IKER taldeko Paulo Agirreren hitzak ezin argigarriagoak dira: "Duela laupabost urtetako euskal liburugintzaren mundua azterturik idealkeria asko nabari zen, borondate ona ugari agertzen zen baina fruituak eskas eta urri. Gure ustez, IKER eratu genuenon iritziz, derrigorrezkoa zen euskal kulturgintzaren alorrean benetako profesionalismo bideak urratzea, talde tekniko iraunkorrak sortu eta luzerako plangintza baten barruan helburuak eta finkatzen hastea. Honetxek eta ez bestek bultzatu gintuen IKER heziera zerbitzu eta kultur eragintzarako taldea sortzera"(...) "Euskal kulturaren etorkizunerako ikastolak duen garrantzi ukaezina ikusirik eta bertan nabari zen pedagogiazko orientabide egoki baten hutsune larriaz jabeturik, testugintzari lotzea erabaki genuen, batipat. Horretarako, teknikari talde bat eratu genuen, euskal pedagogia bat mamitzen eta gure egoerari dagozkion testu orijinalak sotzen saia zedin"[382].

Kasu honetan, talde eragilearen hautaketa, Piageten psikologian oinarrituz, ikastolari O.H.O. osoa hartzen zuen eredu metodologiko zehatz batetan zetzan, mailaz mailako eta gaiz gaiko programazioa testu liburu desberdinetan gauzatuz. Proposamen honen funtsean aktibitate printzipioa aldarrikatuko da, beti ere eskola tradizionalari kritika eginez: "Guk, ostera, Psikologia eta Pedagogia berriarekin hauxe baieztatzen dugu: haurraren motibazio bakarra aktibitaterakoa edo aktibitatearen bidezkoa da. Aktibitatea izango da gero, informazio

380 UZEI (1979): **Ikastoletarako textuliburuak**. Argit. gabe, 29. orri.
381 Lan bera, 29. orri.
382 ERRIALDE (1975): Saioka 2 eta Saioka 3. Euskarazko lehen saria Durangoko azokan. **Zeruko Argia**, 663.

beharrizana ekarriko duena, asimilazio eta adaptazio berriak bultzatuz eta hazkunde orokorra bultzatuz"[383].

Hitz hauetan, Piageten psikologia aparte, pedagogiaren ikuspegitik aldaketa haundia dagoela aipatu dezakegu, zeren honekin ikastolen mugimenduak beste norabide bat hartzen baitu. Andereñoen eguneroko praktika eta bilatze lanetik forma hartzen doan eredu pedagogiko batetatik, ikuspegi tekniko batek gidatuta sortzen den eredura igarotzen da. Materiale pedagogikoaren ekoizpena tokiz tokiko beharretik eta elkarlanetik urrundu eta erizpide tekniko-profesionaletan zehazten hasten da. Ez dugu honekin, baten zein bestearen alde onak zalantzan jarri nahi, bai azpimarratu, ostera, Gordailutik edo Saioka Taldetik bultzatzen ari diren pedagogia ereduak erabat desberdinak direla eta bigarrenak, lehenengoarekin konparatuz, eskolari funtzionamendu formalduago eta neurtuagoa ematen diola, federazioaren asmo instituzionalizatzaileen eremuetan sartuz[384]. Masifikatzearen ondorioz, egoera sozio-politikoaren eraginez eta 1970.eko Ley General de Educación delakoak hezkuntza sistemaren eguneratze eta normaltzearen aldetik suposatu zuenagatik, ikastolen izaera pedagogiko eta hezitzailearen erraietako aldaketa sakon baten aurrean gaudela nabaria da.

Gertakari hau ez da, ordea, ikastoletan bakarrik gertatzen den zerbait, zeren estatu mailan 60.eko eta 70.eko hamarkadetan eman zen berrikuntza pedagogikoaren ekarpenak egoera politikoaren aldaketarekin batera asimilatu eta moteldu egin baitziren, ondorioz psikologiak arautzen duen eskola bat sortuz. Gure aburuz, pedagogiaren ikusmoldetik galera haundia izan zen, agian oraindik berreskuratu ez den, baina inoiz beharko den, teorizazio funtsezko esparrua.

3.6. IKASTOLA GIZARTEAREN ISPILUAN

Irakasleen mugimenduaren azterketak eman digun aukeraren bitartez, 70. hamarkadan ikastolen baitan gorabehera haundiak suertatzen hasi zirela somatzen hasi ahal izan dugu. Izan ere, Zipitriaren esperientziaren abiapuntutik ikastolen sorrerak ezaugarri berri batzu eskuratzen dituen euskal eskola mugimendu bezala aztertu badugu ere, eskola nortasun honek errealitate sozio-politikoaren argitan eta bere barruko bilakaerak berak eranginda, beste eraldaketa haundi bat jasan zuen 70. hamarkadaren hasieratik aurrera, legeztatzearen prozesu gorabeheratsuari hasiera emanez.

---

383 SAIOKA TALDEA (1978): Haurra aktibitatean hazi eta hezi egiten da (II). **Anaitasuna**, 356. Artikulu honen lehenengo partea: SAIOKA TALDEA (1978): Haurra aktibitatean hazi eta hezi egiten da (I). **Anaitasuna**, 355.

384 ERRIALDE (1975): Ikastolen elkartea. Euskal testoak kalean. **Zeruko Argia**, 655.

Baina legeztatzea eta beronekin batera sortu zen instituzionaltze a aztertu baino lehenago, eta ikastolen mugimenduaren lehenengo garaiari hurbilketa burutu ondoren, ikastolak bere hastapenetan izan ziren saio isolatu eta ezlotu horiek gizartean izan zituzten islada eta eraginaz pentsatzeko geldiunea egingo dugu.

Izan ere, 60.eko hamarkadaren zehar ikastolen mugimenduak orain arte deskribatu ditugun ezaugarriak hartu eta forma eman aparte, gizartean gero eta zabalkunde haundiagoa zuen gertakizuna bihurtu zen, indar biderkatzaileaz, Gipuzkoaz gain, Euskal Herriko beste herrialdeetara ere hedatuz. Ikastola, euskalduntasunaren ikurra eta talde nortasunaren ekoizle bihurturik, herri bakoitzaren dinamika kultural eta politikoaren topagunea[385] bilakatu zen, frankismoaren azken urte hauetako egoerari izakera salatari eta errebindikatzailea emanez. Era honetara, ikastolak erresistentziaren militantziaz jantzi zituen bere partaideak, "ikastolako gurasoa" edo "ikastolako andereñoa" izatea esanguraz betez: "La renovada sensibilización pedagógica, correlativa a la aplicación de la Ley General de Educación y a la afirmación del movimiento, por la propia excitación política y cultural vasca en la primera mitad de los setenta, daba a la ikastola dimensión emblemática: ser "andereño", ser "padre de ikastola", apoyar solidariamente a la ikastola, era un paradigma de integridad euskaldun"[386]. Ikastolaren bitarteko identifikatze honek mugimendua indartu eta ugaritu egin zuen, sorrerako gune geografikoak eta sozioekonomikoak gaindituz.

1969. urtean zabalkundearen azkenengo muga ere urratu egiten da, Iparraldeko lehenengo ikastola sortzen den unean. Esan bezala, Gipuzkoan eta Bizkaian, lehenengoan arinago eta motelago bestean, hamarkada osoan ikastolak herriz herri zabaltzen joan baziren, Nafarroan eta Araban hiriburuetara mugatuta zeuden, data hauetatik aurrera hirietatik herrietara ugari hedatzen hasi zirelarik. Nafarroan, Iruñako ikastola izan zen lehenegoa baina 1969-70 ikasturtean gertatu ziren istiluak zirela medio, ikastola bitan banandu eta "San Fermin" eta "Paz de Ziganda" izenekoak agertu ziren, 1972.ean biren artean 500 ume inguru eskolaratzen zituztelarik. Urte berdinean, sortu berriak ziren Altsasu, Etxarri Aranaz, Elizondo, Lakuntza, Lekunberri, Leitze, Olazti, Aoitze, Lizarra eta Tafalla herrietakoak[387]. Antzeko zerbait gertatzen da Araban; Izaskun Arruek Gasteizen 1964.ean hasitako lana Olabide ikastola bihurtu zen, ikasle kopurua etengabe

---

385 Adierazgarria deritzogu ikastoletako partaide batek honetaz egiten zigun esanari, alegia, herri txikietako bizitza eta ekimenak "Cáritas"en biltzetik ikastolan biltzera igaro zirela.

386 ARPAL, J., ASUA, B. eta DAVILA, P. (1983): Ikastolas: un fenómeno social, un problema educativo, una cuestión política. **Cuadernos de Pedagogía**, 101.: 54-55. orri.

387 SATRUSTEGI, J. M. (1972): Nafarroako ikastolen jokabidea. in (arg.): **Gure ikastola**. Jakin Sorta, 6. 32. orri. Nahiz eta ikastola guzti hauen artetik lehenengo mailan sartzen ziren bakarrak Iruñakoak, Olazti, Etxarri eta Leitzekoak izan, gainontzeko herrietan gertakizun hau agertzea oso datu garrantzitsua dela kontutan hartu behar dugu.

gora zihoala (1967/68.ean 85 ikasle, 1968/69.ean 171, 1969/70.ean 245 eta 1970/71.ean 334)[388] eta 1971.etik aurrera hiritik herrietarako joera azaltzen hasi zelarik (1971.ean Laudiotik hasita, beranduago Aramaio eta Agurain, eta 1975.erako Arabako lau eskualde iparraldekoenetan, hots, Bizkaia eta Gipuzkoaren mugakide direnetan ikastolak ditugu).

Beraz, horra hor zabalkundearen lehenengo datu garrantzitsu bat, Nafarroan lehenbiziz eta Araban beranduxeago, hiriburuetako ikastoletatik herrietarakoetara egiten den jauzia. Nolabait, herrialde hauetako euskal hezkuntza hirietako giro konzentratu baina, era berean, anonimoagoetatik herrietan ezartzeak ekartzen zuen ageritasuna eta herritar sektore haundi baten partaidetza eta elkartasuna gauzatzera pasatzen dela esango genuke. Ikastolak, zalantzarik gabe, herrietan agertzean, esanahi soziokultural berri baten dinamikan sartzen direla uste dugu, zeren maila honetan proiektuaren biziraupenak berak ezartzen zituen baldintzak gainditzeko herrian zeudenen babesa derrigorrekoa zen neurrian, euskararekiko eta euskal kulturarekiko partaidetza sozial berezi eta zabala ahalbideratzen baitzen, identifikazioa ekoiztuz eta partaidetza biderkatuz.

Araban eta Nafarroan gertatzen ari ziren hirietatik herrietarako aldaketa eta hazkunde hauez gain, ikastola euskaltzaletasuna hedatzen zen guztira ere hedatzen zela esango genuke. 1969. urte horretan ere, Ameriketako lehenengo ikastolaren berri dugu Zeruko Argian agertzen den ohar baten bitartez. Bertan, 1968.ean Karakaseko Euskal Etxeak antolaturiko ikastolan 120 ume eta bost andereño aritzen zirela esaten da, hurrengo urtean, eta eskaera goraka omen zihoalarik, euskal apaiz bat eta beste andereño baten laguntzarekin ere kontatu zuten bitartean (beraz, apaiza eta sei andereño)[389]. Tamalez, ez dugu esperientzia honen inguruan beste berririk; badakigu, jakin, euskal kolonietan umeen euskal hezkuntza zaindu eta landua izan zela, datu soberako ulergarria, gerraosteak ekarri zuen Ameriketarako erbestea oso haundia izanik, tartean EAB-ko partaide asko bertaratu zirela kontutan hartzen badugu[390]. Hona hemen, berriz ere, ikerketa zehatzago bat eskatzen digun gaia, batez ere zera kontutan hartzen badugu, ingurune hauek emakume lanaren ezaugarria eta hezkuntzaren ideologia, talde itxi eta murriztuan birsortu ziren neurrian, hobeto gordeta eta Euskal Herrian eman ziren aldaketen eraginetik urrun egon zirela.

---

388 ZUBIAUR, J. (1981): Arabako ikastolen bilakaera. **Jakin**, 17/18.

389 ZERUKO ARGIA (1969): 346. zbk.

390 LARRAÑAGA, P. d. (1978): **Emakume Abertzale Batza**. **III**. Auñamendi. Donostia. 91-113. orri. Larrañagak, EAB-k Ameriketan antolatutako talde eta ekintzen berri ematen digu tarte honetan; ez da eskola saioren berririk ematen, baina bai festetan ume dantzarien erakustaldiak eta abarrak, horrek hezkuntza ez formalaren arloa gutxienez zaintzen zela pentsarazten digularik.

Baina, goian aipatu bezala, Iparraldera ere zabaltzen den hedapenari deritzogu benetan garrantzitsu ikastolen mugimenduaren azterketa honetan, zeren historian lehenbizikoz gertakizun eskolar batek euskal nazioaren esparru guztiari egokitu baitzitzaion, erizpide orokor eta batuekin. 1969.era arte, euskara eta hezkuntza bildu nahi izan zituzten ahalegin guztiak tokiz tokikoak eta oso eragin murritzekoak izan baziren, ikastola izan zen data honetatik aurrera Euskal Herri osoari, legeen bestalde, hezkuntza proiektu euskaldun eta batua eskeiniko dion lehenengoa. Batasun honek ez du, bestetik, inolaz ere ukatzen herrialde bakoitzak izan lezakeen berezitasunik, ez da eskola eredu estu eta uniformea zehazten, bai ordea euskaldun guztien batasuna eta berezitasunak biltzen dituen proiektu eskolarra.

Iparraldeko ikastolen sorrerak ez du diferentzia haundirik Hegoaldekoarekiko. 1969.eko martxoan, Baionan Claire Nobliaren etxean eta bere bi umeak ikasle zirela, Lazkaoko Libe Salaberria andereñoaren eskutik eman zitzaion hasiera ikastolari. Libe Salaberriarentzat Donostiako etxe eskola ezaguna zen, bere ama den Miren Garatek lagun harreman haundia baitzuen Zipitriarekin eta, alaba, maisuntza ikasketak bukatutakoan, berarekin ikastera bialdu baitzuen. Han, Libe Salaberriak Gipuzkoan bilakatzen hasi zen ikastola mugimendua hurbiletik ezagutu zuen Iparraldean herbesteratu zen arte. Honela, Iparraldeko lehenengo andereñoa Donostiako andereño gazteekin harremanduta agertzen zaigu, bi herrialdetako komunikazio sarearen lehenengo jostura erraztuz. Ikastolaren agerpen hau ez da, haatik, Hegoaldetik besterik gabe "esportatu egiten den gauza bat" zeren hango gizartean ere baziren ikastola bezalako gertakizuna errealitate bihurtzen laguntzen zutenak, besteak beste eta adierazgarriena Enbata mugimendua biltzen zituen indar eta asmoak[391].

Baionako ikastola honen finkapena oso azkarra izan zen. "Un mois plus tard, le 30 avril, avez deux amis, Manex Pagola et Ramontxo Camblong, elle (Claire Noblia) déclare l´association Seaska selon la loi 1901 à la sous-préfecture de Bayonne et déménage l´ikastola de chez elle au 14, rue des Cordeliers, toujours à Bayonne, dans le local du mouviment politique Enbata"[392]. Legeztapena eta ikasleen ugalketa batera etorri ziren, zeren hurrengo urtean 19 ikasle baitzeuden eta beste herrietan ere zabaltzen hasi baitziren (1970ean: Donibane Loitzunen eta

---

391 Ez gara Iparraldeko egoera sozio-politiko eta ekonomikoaren azterketara sartuko, gure helburua ikastolaren sorreraren hurbilketa txiki bat egitea baino ez baita. Azterketa sakontzeko ikus: MALHERBE, J. P. (1980): *Le nationalisme basque et les transformations socio-politiques en Pays Basque Nord.* in BIDART, P. (arg.): **La nouvelle société basque. Ruptures et changements**. Editions l´Harmattan. Paris. 51-85. orri. Eta autore berdinaren tesi doktorala: "Le nationalisme basque en Pays Basque Francais de 1936 à nos jours" Toulouseko Unibertsitatea, 1977. Bai eta GOIENETXE, M. (1974): *Ikastolak Ipar Aldean*. **Zabal**, 5.

392 SEILIEZ, J. P. (1981): *Langue basque et enseignement*. **Bulletin du Musée Basque**, 92. 90. orri.

beste bat Baionan; 1971.ean Donepaleun, Senperen, Hendaia eta Ziburun; 1972.ean Askain, Ustaritz, Maule, Hazparren eta Donibane Garazin...). Ikasle kopuruak gora egin zuen, 1970.ean 19 izatetik, 1975.ean 305 ziren eta 1980.ean 502[393]. Iparraldeko ikastolen ugalketa honek, guraso eta andereñoen arteko koordinazioa zehaztera bultzatu zituen partaideak, baita planteamentu pedagogikoetan berezko eskola bat eraiki behar izatera eta Hegoaldekoekin lan egitera: "Ez dugu haur hibridorik nahi; erderaren gainetik (esateko era bat da) euskara ezarri eta gure eginbeharra egina dela ez dugu uste. Honetan ari diren hegoaldeko taldeekin hartu-eman hestuetan derrigor behar dugu lan egin, gure artean ez baitugu inor honetarako eratu eta euskal ikastolak batasun batean eraman behar direla sinetsita baikara"[394].

Beraz, ikastolen hazkunde eta zabalkundeari dagokionez, Gipuzkoa eta Bizkaian 1970.erako oso finkatuta eta hedatuta zeudela kontutan hartuta, badago beste hazkunde epe bat, kopuruz hain ikusgarria ez dena, baina kualitatiboki bestea bezain esanguratsua dena, hain zuzen, 70.hamarkada osoan zehar Nafarroak, Arabak eta Iparraldeak jasotzen dutena, sakonago SIADECOk eginiko azterketan ikusi ahal izango dugunez.

3.6.1. GAUR Informea

Luze mintzatu gara Euskal Herrian 60.eko hamarkada horretan euskal hezkuntzan gertatzen ari ziren funtsezko aldaketetaz, baita euren zergatietaz ere; motibazioen alor hartan euskararen zapalkuntza eta eskolaren izaera aipatzen genituen ikastolen eragile gisa, baina azkenengo honetaz elkarrizketatuek esaten zigutena baino ez dugu ekarri gure hausnarketara. Izan ere, hezkuntza sistemaren nortasunaz gain, badago ikastolak sortzeko honekin lotutako beste maila desberdinetako arrazoiak, oro har, "hezkuntzaren kalitatea" izenpean bil genitzakeenak.

Nolako eskolak zeuden, non, zein baldintzatan, noren esku eta abarrekoak dira, kontrol ideologikoa eta hizkuntzaren tratamenduaz gain, oso garrantzitsuak diren gaiak, baina zoritxarrez, eta hezkuntza sistemak Marshall Plana ezarri arte izan ez zuen ekonomiaren aipuaren islada gisa, ez zen honetaz azterketa soziologiko eta enpirikorik egiten. Hezkuntzari buruzko informazioak, jende askoren buruan ongi sustraiturik dauden arren, urriak dira, eta hezkuntza sistemak azkenengo hogei urteetan izan duen aldaketa izugarriak hain garai hurbilen dugun eskolaren "argazkia" egitea oztopatzen digu. Euskal Herriari dagokionez,

---

393 Lan bera, 91. orri.

394 IPARRALDEKO ANDEREÑO BATEK(1972): *Ipar-aldeko ikastola*. in (arg.): **Gure Ikastola**. Jakin Sorta, 6. 41.orri. Honetaz aparte ikus: LANTZIRI, G. (1985): *Ipar Euskal Herriko ikastola, herri eskola*. **Larrun**, 1. 45-48 orri.

1970.eko Ley General de Educación izenekoa indarrean jarri baino lehentxoago Gipuzkoako lehen mailako irakaskuntzaren deskribapen zehatza egiten digun Gaur Informeak betetzen du informazio hutsune hau, eta beste herrialdeetan egin ez zen arren hurbilketa fidagarri bat egiteko bide aberatsa ematen digula azpimarratu behar dugu.

"Así está la enseñanza primaria. Hablan los maestros" izena duen Gaur Informearen ondorioak puntu batzutan laburbiltzen saiatuko gara, hurrengo hauek azpimarragarrienak direlarik:

a) Gipuzkoan eskolatze prozesua Eliza eta Estatuaren eskoletan erdi bana burutzen zen, Estatu Espainolean harek laurden bat bakarrik eskolaratzen zuen bitartean. Elizaren eragina hirietan gauzatzen zen, nekazal aldeetan "eskola unitarien" kopurua oso haundia izanik (hauetan, baldintza txarrengatik irakaskuntzaren kalitatea arras txikiagoa zen)[395].

b) Eskola eraikuntzen egoera tamalgarria zen: "A juicio de los propios maestros, el 23,6% de las escuelas estatales están en tan mal estado que debería de dejar de ser escuelas, y otro 36,5% pueden seguir siéndolo siempre que en ellos se efectúen reformas". Honetaz aparte, eskola hauetako %27ak ez du jolastokirik, eta %34ak eznahikoa du; kirolerako toki falta zegoen, erdiak ez zeukan komuna aproposik, ez eta berogailurik, altzari eta materiale pedagogiko egokirik[396].

d) Eskola estataleko maisuek oso soldata baxuak zituzten, eta gizartean irudi txarra zuten: ".. tienen, como es sabido, un sueldo bajísimo, lo que determina una relativa pobreza intelectual y una consideración social realmente escasa, obligándoles al mismo tiempo a recurrir a mil ocupaciones para obtener un complemento en sus ingresos" (gogora dezagun, gerraurrean maisu tituluak unibertsitate mailakoak zirela baina gerraostean oinarrizko batxillergoa nahikoa zela maisua izateko). Gipuzkoako maisuen jatorriaz, %53a Euskal Herritik kanpokoa zen, eta %70ak ez zekien euskararik[397]. Oro har, euskara eta euskal kulturarekiko arrotzak zirelako aipamenak berretsita agertzen zaizkigu datu hauen argitan.

e) Gaur Informean, hezkuntza legeak ezartzen zituen arau eta praktika batzuren kritika zorrotza kaleratzen zituen, batez ere egituraz diskriminatzailea izateagatik, hezikidetasuna ez zuelako kontutan hartzen eta kalitatez eskasa izateagatik (Gipuzkoan ratioak 1/41ekoak ziren, eta gela askotan 50, 60 eta

---

395 AGIRRE ELUSTONDO, J. A. (1969): **Así está la enseñanza primaria. Hablan los maestros**. GAUR, s.c.i. Donostia. 11. orri.

396 Lan bera, 11. orri.

397 Lan bera, 12. orri., eta 101-125 orri.

batzutan 90 ikasle aurki zitezkeen). Honetaz aparte, euskara ez zela errespetatzen eta elebitasunaren aldeko proposamenak kaleratzen zituen.

f) Eskolatze indizeaz, 1966-67 ikasturteko datuak[398] erabiliz:

- 6-9 urte bitartean %92a eskolarizaturik, 3.500 ume eskola gabe.
-10-13 urtekoak %87a eskolarizaturik, 5.000 ume eskola gabe.

Beraz, orokorrean 8.500 ikasle zeuden eskolaratu gabe, 6-14 urte bitartean; honetan ez ziren sartzen 3-5 urte bitarteko eskolaratu gabeko 20.000 haur.

Gaur Informearen arabera, aipatutako hutsune guzti hauei aurre egiteko, Gipuzkoan 1966-67 ikasturte hartan 6-14 urte bitartekoentzako 867 gela berri, eta 3-5 urte bitartekoentzat beste 787 sortu beharra zegoen, hain zuzen, hezkuntza mailako gabezia norainokoa zen ongi adierazten digun datu interesgarria.

Baina, Gaur Informearen ekarpenak ez dira eskolaren egoeraren azterketara soilik mugatzen, zeren horretaz aparte, populazioak euskararekiko zituen eritziak ere ikertu izan baitzituzten, berriz ere gizartean zeuden gogoek eta nahiek errealitateari aurre egiten ziotela frogatuz. Abiapuntua Gipuzkoan zegoen euskaldunen kopurua aztertuz zehaztu zen, handik ama hizkuntza ez erabiltzearen arriskuak eta itzulezinezko kalte psikologikoak eta sozialak azpimarratuz. Politika elebidun baten aldeko argudioak, Estatuan zein Euskal Herrian kaleratzen ari ziren abots desberdinen banan banako aipamena[399] izan zuten informean,

---

398 AGIRRE ELUSTONDO, J. A. (1969): **Así está la enseñanza primaria. Hablan los maestros**. GAUR, s.c.i. Donostia. 223-236. orri. Lehenengo irakaskuntzan, Gipuzkoan eskolaraturik zeuden ume kopuruak ondoko hauek ziren:

Ikasturtea	Estatala	Ez Estatala	Orotara
1965-66	38.318	34.332	72.650
1966-67	40.407	35.529	75.936
1967-68	40.000	35.905	75.905


399 Elebitasuna argudiatzeko Gaur Informeak ondoko agiri eta artikuluak taularatu zituen, nolabait hizkuntz minorizatuei aurre egin asmoz esparru bat zabalduz.

- Azpeitiako apaiz talde batek MEC-ri eginiko hezkuntza elebidunaren aldeko eskaera (1967/2/22), ildo beretik Euskaltzaindiak aldez aurretik igorritako antzeko eskaera berretsiz.
- MIGUEL, C ETA ZURRIAGA, F. "La lengua valenciana en la escuela", Cuad. para el Diálogo, 1967.eko uztailean.
- FULLAT, O. "Escuela e idioma materno", Cuad. para el Diálogo, 1967.eko uztailean.
- "El catalán en la Enseñanza Primaria", Unidad (1967/5/29) eta El Diario Vasco (1967/9/15).
- MIGUEZ, A. "Bilingüísmo para Galicia", "Galicia: éxodo y desarrollo" izeneko liburuaren atala.

erregimenaren "aperturismoa" eta hezkuntza sistemaren modernatze joerak isladatzen hasten ziren momentu batetan.

Bigarren puntu honetan datza, gure aburuz, Gaur Informearen ekarpen garrantzitsuenetakoa, alegia, erdal hiztungoak euskararekiko zituen jarrerak eta asmoak lehenbizikoz aztertu eta kuantifikatu egin zirela, euskararen berreskurapenak gizartean zuen harrera ona eta balioa argitzen zirelarik: "A nuestro modo de ver, este dato es contundente. La población hispano-parlante de Guipúzcoa desea conocer el vascuence, desea que lo hablen sus hijos y desea para ello que se enseñe en las escuelas"[400]. Euskarak, euskaldungoaren ama hizkuntza izan aparte, gizartean balioa eskuratuta zeukala eta berreskuratze prozesua sustraitzen ari zela adierazten digute ikerketa honen dat**uek. Era honetara, Gipukoako ehun langile etorkinen artean** eginiko inkestan ondokoak adierazten dira:


Zure seme alabek euskaraz hitz egin dezaten nahi duzu?
(langile etorkinak)



- "Enseñanza del castellano en las escuelas públicas norteamericanas", El Diario Vasco, 1967/7/22, eta, 1968/1/5.
- "Los otros analfabetos", Cuad. para el Diálogo, 1967.eko abuztu-irailean.
- DIAZ PLAJA, G. "Biligüismo y biculturalismo en Canadá", Cuad. para el Diálogo, 1966.eko abenduan.

400 AGIRRE ELUSTONDO, J. A. (1969): **Así está la enseñanza primaria. Hablan los maestros**. GAUR, s.c.i. Donostia. 206. orri.

Eskoletan euskara irakatsi behar dela uste duzu?
(langile etorkinak)




Datu guzti hauek aparte, **maisu maistren eritziak ere** aztertu ziren. Hauekikoetan, analisiak atal nagusi bi ditu, alde batetik eskola elebiduna ez izateak ikasle euskaldunei denbora galerak ekartzen dizkiela frogatzera doana, eta bestetik, euskara eta hezkuntza nola harremandu ikertu nahi duena. Azkenengo honetan, "Oinarrizko hezkuntzan euskara irakatsi behar da?" galderari, irakaslegoaren %62,8ak baietz erantzuten du, %37,2ak ezetz esaten duen bitartean. Baietz erantzuten dutenen artean, %42,3ak euskarak eskolako ordutegiaren barruan izan behar duela adierazten duen bitartean, %20,5ak, eskolak tokia bai, baina ordutegiz kanpo egon behar duela erantzuten du. Datu hauek oso kontutan hartzekoak dira, zeren erantzun hauek ematen dituzten maisu maistra gehienek ez baitzuten euskara ezagutzen (%70ak ez daki euskara bat ere edo oso gutxi[401]) baina eritziok euren interes propioen kontra zihoazen arren, euskararen aldeko jarrera azaltzen dute: "Tengamos siempre muy en cuenta (...) que el Magisterio desconoce en buena parte el vascuence, con lo que su opinión de darle cabida en la enseñanza es anticorporativa, lesiona sus intereses materiales como clase profesional. Por eso las respuestas partidarias del vascuence no sólo nos parecen elevadísimas en su proporción, sino además muy dignas de merito"[402].

401 Lan bera, 110.orri.

402 GAUR (1968): *El vascuence en los actuales niños de Guipúzcoa*. **Euskera**, XIII. 62. orri. Artikulu honetan, Gaur Informearen euskararen ingurukoa azterketa espezifikoa egiten da, elebitasuna eta eskola gaietan sakonduz.

Oinarrizko hezkuntzan euskara irakatsi behar da? Baiezkotan, nola?
(Gipuzkoako maisu maistrak)



Datuok euskararekiko egoera berri baten adierazle fidagarriak direla uste dugu, hau da, euskara nahiz eta ikuspegi legal eta politiko batetatik zapuztuta eta isilduta egon, herri mugimendu edo erresistentzi mugimendu deitu ohi den horretatik bultzatutako eraberritze prozesu orokor eta zabal batetan murgilduta dagoela eta tradizionalki hizkuntzari eman zitzaion biziraupenerako funtzioa gaindituz berreskuratze epe dinamiko eta hedakor batetan aurkitzen dela. Hizkuntzaren une honen nolakotasuna, alfabetatzearekin lotuta dagoen neurrian, esparru desberdinetan adierazten da, euren artean harreman zuzenak eta elkar osaketak gauzatuz eta eragina gizartearen sektore desberdinetan biderkatuz. Hizkuntzaren berreskurapen gogoa zabaldu egiten da, historikoki nazionalismoarekin lotura zuzenik ez zeukaten etorkinengana ere, euskara bere oinarrian zuen ideologia berriak "euskaldun"tzeko aukera ematen baitie eta nazioaren eraikuntzaren partaide izateko atea zabaltzen baitie.

Momentu hauetatik aurrera, ikastolaz gain, helduen alfabetatze eta euskalduntze prozesuak indarrez eratzen ari dira. Lehenengoari dagokionez, 1970.ean Valladolid, Madril eta Salamankako Unibertsitateetan euskal alfabetatze lanetan ziharduten, orotara kurtso hartan 170 unibertsitarik parte hartu zutelarik (Madrilen 35 ikasle, Valladoliden 100tik gora, eta Salamankan 40 ikasle[403]. Estatuan horrelako talde mardulak alfabetatzen ari baziren, zer esanik ere Euskal Herrian bertan gertatzen ari zenaz. Alfabetatzearen hedakortasun hau, ikastoletan zein helduen taldeetan, oso bapatekoa eta ustekabekoa izan zen, espero zitezkeen guztiak txiki gelditu zirela, Euskal Herri osoa ikas eta irakastegi, ikasle eta irakasle bilakatuz.

403 TORREALDAI, J. M. (1970): *Euskal Alfabetatzea Unibertsidadeetan*. **Zeruko Argia**, 379.

Patxi Altunak ongi adierazten du 1970.ean euskal irakaskuntzaren egoera: "Honen urte gutxiren buruan euskal irakaskintzak –ez naiz ikastoletako haurrei ematen zaienaz ari (honek bai urratu dituela lehengo marka guztiak!), euskaraz ikastera datorkigun jende larriaz baizik– honenbesteko goraldia eta arrakasta izango zuenik nekez zezakean inork, guztiz baikorra izanik ere, duela zazpi edo hamar urte itxaro eta uste. Nik bederen ez nuen uste(...) Gaur gauzak arras aldatu dira. Beste non edo non idatzia dut baina berriro esateak ez dio, nik uste, inori minik emango: egunean baino egunean jende gehiago ari da euskaraz ikasten, nahiz neska nahiz mutil. Areago, gazte jende ikasia, edo ikasten eta bere burua jazten ari dena, urtean baino urtean ugariago ari da euskararekin bakezkoak egiten –nik bakezkoak egitea deitzen diot gaurdaino zabarkeriaz (bereaz edo besterenaz), nahiz gutxiestez, nahiz axolagabekeriaz bazterturik zedukaten hizkuntzarengana hurbildu eta ikasten hasteari–"[404].

3.6.2. Ikastolen mugimendua zenbakitan

Gaur Informean arras jasota, eta gizartean han hemenka gauzatzen ari zen euskararen aldeko jarrerak, ikastola kopuruaren ugalketan ere isladatzen dira. Gorago aipatzen genuen bezala, 70.eko hamarkadaren hasierarako ikastola Euskal Herri osoan zehar hedaturiko fenomenoa zen, joeraz gainera gora zihoana.

Siadecok, 1978.ean kaleratutako "Estudio Socio-lingüístico del euskara" izenekoan, ikastolei dedikatutako azterketa soziologikoa aurkitzen dugu, bertan ikastolen mugimenduaren tamaina eta ezaugarriak lehenbiziz jasotzen direlarik. Datu taula ugari hauetaz zera esan nahi genuke, azterketa 1975-76 ikasturtean eginikoa dela, beraz, ikastolen mugimenduak ordurako bazeukan historia luze samar bat baita hezkuntza legediaren aldaketak (1970.eko legea) sortutako egokipenak eta eraldaketak. Hau dela eta, ikastolen hastapenetako datuek (batez ere lehenego urteetakoak) ikastolek benetan izan zuten hedapena bere osotasunean ez dutela isladatzen eta hemen agertutakoa baino ugariagoak zirela azpimarratu behar dugu. Ikerketaren muga hauek, ostera, guztiz ulergarriak dira, batez ere ikerketarako tresna 1975-76 ikasturtean esistitzen ziren ikastolei eginiko inkesta zela kontutan hartzen badugu, eta honen ondorioz orduan esistitu ez baino lehenago esistitu ziren ikastola txikiak eta inkestari erantzun ez zioten ikastolak ez dira datu bilketa honetan agertzen.


Beraz, hemen emango ditugun datuak errealitateari hurbilketa gisa hartzen ditugu, beti ere kontutan hartuta mugimenduaren perfil kuantitatibo honek, lehenengo urteei dagokionez behintzat, euskaraz egiten ziren eskola saio guztiak ez dituela jasotzen. Testuinguru honetan ulertu behar dira Siadecok ematen

---


404 ALTUNA, P. (1970): *Euskal irakaskuntza gaur*. **Zeruko Argia**, 400.

dituen eta guk orain arte eman ditugun datuen arteko balizko ezadostasunak. Halan eta guztiz ere, ikastola guztien sorrera data eta ikasle eta irakasle kopuruen kuantifikazio zehatzago bat egin ezean (honek ikastolen azpiko komunikazio sarearen tokiz tokiko kanpo lan zabal eta sakon bat esijitzen baitu), Siadecok eta 1976.tik aurrera Ikastolen Federakuntzek emaniko datuekin jokatuko dugu. Gure lanaren muga kronologikoa frankismoaren bukaeran jarri dugun arren, hemen azalduko ditugun datuak 1981. era artekoak izango dira, zeren hazkundearen erritmoak eta bolumena ikusteko baliogarriak direlakoan baikaude.

Ikastola kopuruaren bilakaera



Ikastoletako ikasle kopuruaren bilakaera



Ikastola kopuruaren bilakaera

	Gipuzkoa	Bizkaia	Araba	Nafarroa	Iparraldea	Euskal Herria
1960	3					3
1961	3					3
1962	5					5
1963	8	2	1			11
1964	12	6	1			19
1965	17	10	1	1		29
1966	28	11	1	1		41
1967	37	16	1	2		56
1968	43	21	1	2		67
1969	53	27	1	4	1	86
1970	61	31	1	7	3	103
1971	68	33	2	9	7	119
1972	70	37	2	13	12	134
1973	71	45	4	14	13	147
1974	71	45	4	19	15	154
1975	71	45	6	22	16	160
1976	71	45	8	22	16	162
1977	71	54	16	31	17	189
1978	71	66	20	39	19	215
1979	71	71	28	41	20	231
1980	77	73	29	42	22	243
1981	77	70	29	42	24	242

Ikastoletako ikasle kopuruaren bilakaera

	Gipuzkoa	Bizkaia	Nafarroa	Araba	Iparraldea	Euskal Herria
64/65	520	54		22		596
69/70	5.770	1.958	348	171	8	8.255
70/71	8.181	2.591	765	334	14	11.885
71/72	10.673	3.157	950	376	47	15.203
72/73	13.245	3.755	1.377	486	101	18.964
73/74	15.272	4.938	1.631	677	175	22.693
74/75	17.971	5.822	1.892	1.026	225	26.936
75/76	21.325	8.634	2.158	1.429	305	33.851
76/77	25.314	10.977	2.621	1.812	341	41.065
77/78	29.652	13.422	3.094	2.654	382	49.204
78/79	31.423	14.875	3.744	3.293	390	53.725
79/80	34.733	16.136	4.909	4.277	474	60.529
80/81	37.145	17.157	5.369	5.086	516	65.273
81/82	39.128	19.107	5.727	5.509	564	70.035

Goiko taula eta grafikoetan ongi zehaztuta agertzen diren ikastola eta ikasle kopuruek mugimenduak izan zuen zabalkunde eta herrialdez herrialdeko banaketa ongi azaldu ondoren, Siadecoren lanak azterketaren beste alor garrantzitsu batzu ere ikutu zituen, haien tartean ondoko hauek azpimarratzen ditugula:

a) 1976.erako, Gipuzkoa zen ikastolak ongi finkatuta zituen herrialdea, zeren ikastoletan eskolaratutako ikasle kopuruaren %61a zurgatzen baitzuen, mugimenduak historia luzeen zuen herrialdea izanik, hazkunde naturalak sortutako ikasketa mailen finkapenik zabalena baitzuen (eskolaurrea, O.H.O. eta Zarauz, Beasain, Errenderi, Irun-Hondarribia eta Santo Tomas Lizeoak, eskaeraren arabera, BBB emateko prest), eta, azkenez, aurreko arrazoi berberagatik, ikastola haundi gehien zegoen herrialdea baitzen (16 ikastolek 500na baino ikasle gehiago zeukaten).

b) Beste muturrean, Nafarroa, Araba eta Iparraldeko ikastolak zeuden. Hazkunde eta zabalkunde uneak orduantxe gertatzen ari zirenez, ikastola gehienek eskolaurreari soilik erantzuten zioten, tamainaz txikiak ziren (100 ikasletik beherakoak gehien gehienak) eta finkatzear zeudela esango genuke. Tarteko egoera batean Bizkaia zegoen, eskualdetik eskualdera desberdintasun haundiekin. Ikastola gehienak eskolaurreak edo O.H.O. zentru elkartuak ziren eta zentruen %50a ez zen 100 ikasle kopurura iristen, baina toki batzutan (Bilbo eta bere inguruetan) ikastola haundiak aurki zitezkeen.

d) Ikastoletako partaideen jatorri sozio-kulturalaz eta ekonomikoaz ezaugarri batzu bereizi zituzten ikerketa honetan. Ikastoletako ikasleak, hein haundi batetan, bertakoen seme alabak ziren, baina jatorri honetan Araba bereizten zen zeren ikasleen %18aren gurasoak etorkinak baitziren[405].

Gurasoen euskararen ezagutzaz, indizerik altuena Gipuzkoan eta Bizkaiko eskualde batzutan (Arratia, Butroe, Busturia, Durangaldea eta Lea-Artibai) biltzen zen, gehiengoa euskalduna zelarik; Bizkaiko beste batzutan (Bilbo, Enkarterriak, Uribe-Txorierri), Nafarroan eta Araban, berriz, gurasoek neurri haundi batetan ez zuten euskara ezagutzen (%60tik gora).

Azalpen txiki honetan, ikastolek euskararekiko betetzen dituzten funtzio nagusi biak aurkitzen ditugu, geografikoki eta sozialki era desberdinez kokaturik. Alegia, Gipuzkoan, eta Bizkaian ere baina ez era homogeneoz, ikastolak bertako jendearen euskal eskola beharra aretzeko sortu zen, euren ama hizkuntza zen euskararen biziraupena bera arriskutan zegoelarik; funtzioa, kasu honetan, gordetze edo kontserbatzea da, euskal hiztunek ama hizkuntza gal ez zezaten egiten zen ahalegin bat. Hizkuntzaren modernatze prozesuan, berriz, euskal hiztungoa, ez mantendu bakarrik, baizik eta haunditu beharra ere azpimarratzen da, euskalduntze prozesua sortuz. Euskalduntzeak indarra hartu zuen tokiak alde erdaldunak izan ziren eta batzutan etorkinen onespenean oinarriturik (Araba, Nafarroa eta Bizkaiko alde batzu); ikastolak, kasu honetan, betetzen zuen funtzioa hizkuntza berreskuratzean zetzan.

Ikasleen jatorri sozialaz, Siadecok gurasoen maila profesionalak aztertzerakoan, gehien agertzen zen maila langile kualifikatuena zen; hauek, langile ez kualifikatuekin batera, Gipuzkoa eta Arabako gurasoen %40tik gora ziren, eta hein txikiagoan baina %30tik gorakoan Bizkaian eta Nafarroan. Bestalde, langile kualifikatuek, enplegatuekin batera gurasoen %51 ordezkatzen zuten.

Gutxien isladatzen ziren mailak baxuenak izan ziren, langile ez kualifikatuak eta oro har arrantzaleak eta nekazariak. Azken hauek, euskaldunak izanda

---

405 SIADECO (1980): **Estudio Socio-linguístico del euskera. VII: Las Ikastolas**. Argit. gabe. 59. orri.

ere, hizkuntzarengatiko estigmatizazioa euren seme alabei ekiditzearen helburuz eskola "nazionala" aukeratzen zuten hezibide. Klase altuei zegokionez (entrepresariak, jabeak, komertziariak eta profesio liberalak), %10ean agertzen zaizkigu gurasoen artean.

Orokorrean, 1976.ean eginiko azterketa honetan (gaur egun konposaketa hau dexente aldatuta egon daitekeela susmatzen dugu eta), ikastolak klase ertainetan (zentzu zabal batetan, eta eskualdez eskualde egon zitezkeen, eta zeuden desberdintasunak oso haintzakotzat hartuta) kokatuta aurkitzen ditugu, baina maila guztiak zeharkatuz. Honen ondorioz, ikerketak, ikastolen egitura soziala "nagusiki herrikoi"tzat jotzen du[406].

e) Ikastola, herrikoi edo klaseartekoa, nonbait ere auzo lankidetza aipatua izan da; egia esan, ikastolek 1976.ean bertan (ordurako hainbat jabego propioa edukitzen ahalegindutakoak ere bazeudela) jabetzaren eta diru sarreren atalean agertzen ziren datu batzu, elkar lan erraldoi honen adierazle direlakoan, agertuko ditugu. Hala nola, jabegoari zegokionez ikastoletako geletako %34a gela propioak ziren, %30a alokatutakoak eta %35,9 utzitakoak[407] ziren; ikastolek jasotzen zituzten diru laguntzen atalean, %36,9a "partikularrengandik" jasotakoa zen eta %24,4a "entrepresengandik"[408]. Honetaz aparte, eta beti gogoratuz ematen ari garen datuak osatu gabe zeudela, 1974-75 ikasturtean Gipuzkoako ikastolen diru sarrerak horrela banatzen ziren: bazkideen kuotak % 6,25a, ikasleen kuotak %57,5a, Estatuaren diru laguntzak %22,35 a, diru laguntza ez estatalak %2,6a, eta beste sarrerak %11,17a[409]. Ez dugu uste komentariorik egiteak merezi duenik.

f) Ezin diogu atal honi bukaerarik eman irakaslegoari buruzko aipamen batzu egin gabe. Lan honetan zehar, ikastoletako irakaslegoak proiektu honetan hartutako erantzunkizun, konpromezu eta ardura azpimarratu ditugu: soldata eskasak, asegururik gabe, etengabeko prestakuntza baten dinamikan eta ikastolari lan militantea eskeiniz. Ikastolen hazkunde azkarrarekin eta legearen bidezko baldintza berriekin batera, irakaslegoaren eraldaketa ere inposatu izan zen, hastapenetako moldeak eta ezaugarriak zapuztuz.

Irakasleei dagokionez, egoera berriak aldaketa nagusi bi sortarazi zituela uste dugu: irakaslegoa emakumezkoa izatetik mixtoa izatera igaro zela eta, andereño enpirikoen formula baliogabetu izan zela titulazio ofizialak derrigorrez-

---

406 Lan bera 155. orri.

407 SIADECO (1980): **Estudio Socio-linguístico del euskera. VII: Las Ikastolas**. argit. gabe. 41tik aurrerako orri.


408 Kopuru hauetatik gehien gehiena Gipuzkoan jasotzen zen, entrepresen kasuan kooperatibak ziren: SIADECO (1980): **Estudio Socio-linguístico del euskera. VII: Las Ikastolas**. Argit. gabe. 124. orri.

409 Lan bera 134. orri. (ikerketako datu zuzenak portzentaitan aurkeztu ditugu).

ko bihurtzearen eraginez. Honek, dudarik gabe, jauzi kualitatiboa suposatu zuen bai ideologikoki, bai soziologikoki baita pedagogikoki ere, euskal hezkuntza sistemaren modernatzea baina, era berean, besteekiko homogeneizatzea ondorio ekarri zituelarik.

Lehenengoan, Gipuzkoako datuak erabiltzen dira kuantitatiboki esanguratsuak direlako eta herrialde honetan irakaslegoaren "mixtotzea" askoz ere nabariago eta bortitzagoa izan zelako. Datu hauen argitan, agian, elkarrizketetan zehar agertu eta ikastoletan emakumearen paperaz esan ditugunak ulergarriagoak egiten zaizkigu. Bigarren taulako datuek ere honekin nolabait lotuta daude, edo behintzat aldaketa orokorraren beste ondorio gisa azter genezake, hau da, 1970.eko legeak zentruak legeztatzeko derrigortzen ziren titulazioak behar izan zirenean, ikastoletan historikoki aritu izan ziren andereño asko eta asko titulurik gabe aurkitu ziren (gainera, titulazioek, ikastola zentru bezala irauteko suposatzen zuten guztiarekin). Honek istilu eta desegokitzeak ekarri zituen, batzutan oso ondorio mingotsekin.

Gipuzkoako ikastoletako O.H.O.ko irakaslegoaren bilakaera[410]



Ikastoletako irakaslegoaren titulazioa Eskolaurrean eta O.H.O.n. 1975/76 ikasturtea*

	Gipuzkoa	Araba	Nafarroa	Bizkaia
Tituludunak	380	40	52	231
Enpirikoak	228 (207 eskolaurrean)	13 (13 eskolaurrean)	48 (46 eskolaurrean)	51 (49 eskolaurrean)

** Gipuzkoako datuak 1974/75 ikasturtekoak dira*

Hala eta guztiz ere, O.H.O.rako gero eta maisu eta lizentziatu gehiago sartu ziren arren, andereño enpirikoek ikastolagintzan eraman zuten zama, 1975-76. ikasturtean oraindik ere, oso astuna zela esan behar dugu, nahiz eta gehiengoa legez derrigorrezkoa ez zen eskolaurrean aritu.

IV. ATALA

IKASTOLAK ETA INSTITUZIONALTZE PROZESUAK

Adela,
gure
arabar lorea,
giputz arroka,
hi,
Bizkaiko burdina.

Orain,
batere zaratarik gabe
joan hatzaigu,
eskoletan ere,
euskal eskoletan ere,
klaseen arteko burruka
gogorkien
lehertzen zenean,
zeinean
gizonak
gizonaren kontra,
eta euskaldunek
euskaldunen kontra
dihardukaten.

Azken agurra
erran
deraunagunean,
gogorrenari ere
pausatu ziaion
elur maluta bat
begiaren ertzean
eta
gure amorruagatik
gure gorrotoagatik
egin dinagu
zin finko bat:

azken kolpea eman arte
iruango dugula
gure burruka honetan
hire memorian
hire memorian
hire memorian!

Hain sinple sinpleki
joan hatzaigu hi,
Adela geurea,
Adela herria,
Adela berria,
gure
Adela gorria.

Hil haiz
lanik eta soldatarik gabe,
esplotadoreek
zerua goian eta lurra behean utzia;
hil haiz
esplotadoreek
azpian lur hotza gainean harria jarria,
baina hire erraiek
esperantza hobeko fruituak
sortuko zitinate,
hire bularretako
esne biziaz
helduko
direnak.

g. aresti
"Adela"

IV. ATALA

IKASTOLAK ETA INSTITUZIONALTZE PROZESUAK

60.eko hamarkadaren etorrera euskal hezkuntzaren data garrantzitsua izan bazen, 70.ekoak ikastolen mugimenduari bere ekimenak eta praktikak "normaldu" eta arautu beharra ekarriko dio. Izan ere, aurreko kapituluan aztertutako mugimenduaren hastapenaren ezaugarri "eznormalduak" (irakaslegoaren prestakuntza paraleloa, zentruen izaera legalaren falta, maila pedagogikoan eginiko planteamendu berriak...), eman ziren derrigortasun batzu zirela medio, bide normalduagoetan sartzeko epeari hasiera eman zitzaiola esango genuke.

Gure ustez, bi dira normaldu behar hau inposatzen dituzten indarrak. Batetik, Estatuaren hezkuntza sistemaren barruan 1970.eko "Ley General de Educación" delakoak suposatu zuen aldaketa kualitatiboa, eta bestetik, mugimenduaren barrutik, hazkundearen ondorio zuzen gisa, baina baita klabe politikoetan irakur daitekeen egoera baten ondorioz ere, zenbait sektorek markatutako egituratze eta legeztatze dinamika. Ikastoletan artez eragiten zuten aldagai hauek mugimenduaren ezaugarriak eraldatuko zituzten, barruan zeuden interes desberdinak polarizatuz eta gatazka azaleraziz. Krisi honetatik, ikastolak indarberrituta irten zirela dudarik ez dago, bistan ditugun emaitzekin, baina honek ez dio gertakizun honi garrantzirik kentzen, alderantziz baizik.

Felix Basurko irakasleak[411] proposatzen digun ikastolen bi momentuok desberdintzeko ondoko konparaketa ekarritzen dugu hona, etxe eskola eta ikastolen artean egiten genuenean bezala ezaugarri klabe batzurekin laburbiltzeko.

411 BASURKO, F. (1989): *La normalización de la ikastola: breve historia y estado de la cuestión de la escuela pública vasca*. **Historia de la Educación**, 8. Salamanca. 139-168 orri.

Ikastolaren ezaugarrien bilakaera.

1960-70	1970-78
Manifestación pública	Cobertura jurídica-legal
Precariedad e improvisación	Expansión y autoorganización
Protección eclesial o semi-clandestina	Emancipación y legalidad
Autogestión	Autogestión
Autofinanciación	Autofinanciación y primeras subvenciones
Locales precarios	Nuevas construcciones
Profesorado sin titulación	Profesorado titulado
Escuela alternativa	Escuela alternativa
Autoabastecimiento pedagógico improvisación	Elaboración de materiales específicos y traducciones
Federación de Gipuzkoa	Federación por Herrialdes
Conciencia de ikastola	Conciencia de ikastola

Basurko, F. "La normalización de la ikastola: breve historia y estado de la cuestión de la escuela pública vasca".

Konparaketan ikus dezakegunez, legearen bidezko aldaketa datorkio ikastolari 70.eko hamarkada honetan. Izaera legala eskuratzeak egitura finko eta sendoagoa ahalbideratuko dio ikastolari, bai azpiegiturari dagokionean (eraikin berriak...) baita eskola antolamenduari dagokionean (titulazioak, funtzioen banaketa...) ere. Egituraketa honek badu maila pedagogikoan ere bere islada; izan ere, 1970.era arte ikastolen mugimenduak bere behar zuzenei erantzuten zieten mekanismo paraleloak sortu bazituen (euskara eta euskal kulturari egokitutako eredu pedagogikoa, irakaslegoaren formazio bideak...), data honetatik aurrera instituzio eta eskaera ofizialetara hurbilduz joan zela esango genuke, ikastolari izaera normalduagoa ezarriz. Aldaketa hauek, ordea, ez dute mugimendua esanahiez husten, "ikastola konzientzia"ren izenpean izkutatzen den guztiak (mugimenduaren izaera nazionala, kudeaketa eta finantziaketa, eskola kulturaren kodeak eta bilakaera propioa...) bere horretan baitirau. Guzti honengatik, mugimenduaren garai berri baten atarian gaudela pentsatu behar dugu, kanpo eta barneko aldagaiek sortzen duten krisi baten ondorioz agertutako epe berria.

Azterketa honetan, etengabeki azpimarratu bezala, egoera sozio-politikoaren erreferentzia derrigorrezkoa zaigu, ikastolek erresistentzi mugimenduan jokatzen zuten funtsezko paperari jarriki. Izan ere, frankismoaren azkenengo urte hauetan erregimenaren kontrako borroka areagotu eta ageriago agertu zela esango genuke, baita berarekin batera sortzen ziren kontraesan guztiak ere. Europaldean,

1968.eko Pariseko Maiatzak eta Pragako Udaberriak maila politiko, sozial eta ideologikoan astindura sakonak eragiten zituzten bitartean, euskal mugimenduaren kontrako zapalkuntzak erbestera eta espetxera eramaten zituen ehundaka euskaldun. ETA erankundea, 1967.etik aurrera "Ekintza-Erreakzioa" formula erabiltzen hasi zen eta emaitzak berehalaxe antzeman ziren, 1968. urtea erabat bortitza eta istilutsua agertzen zaigularik: Txabi Etxebarrietaren hilketak sortutako ETAren aldeko eta frankismoaren kontrako herriz herriko erantzunak, eta Gipuzkoa salbuespen egoerara eramango zuen Merliton Manzanasen kontrako atentatua. Urte honetan zehar 434 atxiloketa, 189 gartzelaratu, 75 deportatu eta 38 erbesteratu suertatu ziren[412], komisaldegietan eta goardia zibilaren kuarteliloetan eguneroko ogia zen torturaz gain. A. Gurrutxagak[413] ematen dituen datuen arabera, ETA sortu zenetik Franco hil arte 15.000 atxiloketa inguru egon ziren, eta 1975.ean 739 preso politiko zeuden Estatuko gartzeletan: "El incremento de la violencia en sus acciones –bombas, atracos, etc.– que culminaron con la ejecución del comisario Manzanas en agosto de 1968, desata el deseo popular de información sobre ETA; a la que no sólo responde con una gran campaña informativa y explicativa, sino hasta que la propia prensa legal se vé obligada –con, por supuesto, la correspondiente manipulación y censura– a dar cuenta de su existencia. Paralelamente, el fuerte caracter simbólico de los objetivos militares (Manzanas era un "genuino" representante de la represión franquista) ayuda a alimentar el efecto radicalizador"[414]. Errepresioaren aurreko erreakzioak herri mobilizazioaren eta frankismoaren kontrako konzientziaren areagotzea ekarri zuen, 1970.eko abenduan Burgoseko Auzia zela-eta egin zen greba orokorrak adierazi zuen bezala.

ETAren barneko bilakaera ere kontutan hartzekoa dela uste dugu. Izan ere, 60.eko hamarkadaren barnean sarturik, ETA bere ildo ideologiko nagusiak definitzen hasiko zen, horretan, dudarik ez, gizartean bertan zeuden eragileez gain, F. Krutwigen "Vasconia" (1962) eta "La Cuestión Vasca"(1965) izeneko lanek pisu berezia hartu zutelarik. Eragin teoriko ideologiko zein soziohistoriko hauek independentismoa eta marxismoa uztartu eta diskurtso politiko berria sortzeko parada ekarri zuten, PNVren nazionalismo tradizionaletik EKINek hasitako bereizketa erabat gauzatuz.

ETAren historian garrantzi aparta bereganatu zuen V. Asanblada ere 60.eko hamarkada honi dagokio. Bertan, aipatu diskurtso ideologikoan beste urrats bat emango zen, Fronte Nazionala *versus* Klase Frontea eztabaidan

412 IZENIK-GABE (1975): **La otra Euskadi. El infierno de los vascos**. Euskal Elkargoa. Donibane Lohitzune.

413 GURRUTXAGA, A. (1985): **El código nacionalista vasco durante el franquismo**. Anthropos. Bartzelona. 307. orri.

414 IBARRA, P. (1987): **La evolución estratégica de ETA (1963-1987)**. Kriselu. Donostia. 74. orri.

lehenengoa nagusitu zenean. Honela, 1966.era arte "Komunistak" eta M.C.E.ren esku zegoen ETAren zuzendaritza (P. Iturrioz buru zelarik) erakundetik kanpo geratuko zen, 1970.ean L.C.R.rekin beste horrenbeste gertatuko zelarik. Klase Fronteari berebiziko garrantzia ematen zioten talde hauez gain, F.L.P. (Frente de Liberación Popular) eta bere bertoko ordezkariaren E.S.B.A. (Euskadiko Sozialisten Batasuna) aipatu behar ditugu. Taldeok azpimarragarriak dira zeren, "felipe" ezizenaz ezaguturik, gatazkaren barruan ikastolei burgeskeria leporatzen zieten artean nabarmendu baitziren[415].

V. Asanbladaren testuinguruan, ETAk handik aurrerako Euskal Fronte Nazionalaren estrategiaren profila markatu zuen, zeinaren arabera euskal herriaren borrokak lau frontetan azalerazten zen, alegia, fronte kultural, politiko, sozio-ekonomiko eta militarra. Fronte hauek errealitate bakarraren atalak izango lirateke eta elkarren eraginean ariko lirateke: "...que son partes mutuamente interaccionadas dentro de un único y mismo proceso revolucionario"[416]. Aztertzen ari garen arlotik, ordea, gehien interesatzen zaiguna fronte kulturalari dagokiona da, zeren bertan, behin euskal nazioa hizkuntzan oinarritu eta gero, euskalduntzeari ezinbesteko funtzio politikoa ezartzen baitzaio. Honengatik euskararen inguruko ekintzak bultzatu behar dira ETAren aburuz:

"La euskerización como primer paso para la revolución cultural vasca debe ser:
- A escala de ETA: total, como ejemplo y efectividad.
- A escala popular: devolver el euskara al Pueblo Vasco es devolverle sus propios esquemas mentales nacionales.

Para desarrollar este Frente Cultural:
- Controlar ikastolas, etc...
- Unificación del euskara (euskaldun berris).
- Traducciones de otros idiomas (ni español ni francés) como inglés, alemán, etc.

---

415 Gai honi buruz ikus: JAUREGI, G. (1981). **Ideología y estrategia política de ETA.** Siglo XXI. Madrid. ELKARLANEAN (1993). **Euskadi eta Askatasuna.** II. Liburukia. Txalaparta. Tafalla. Azken lan honetan "felipe"ei buruzko taxuzko interpretapena egiten dela uste dugu, zeren, ikastolen auzian antzemango den legez, identifikazio politiko zehatzaz gain beste esanahi asko izkutatzen omen zen "felipe" txartel horren azpian. "Pero felipes serían llamados -según quien emplease el término- los militantes del PCE, del propio FLP o incluso las personas que habían abandonado ETA en los prolegómenos de la V. Asamblea"(59. orri.). FLPren estrategiak ETAren barruan zuen errefusaz bestaldeko interesak ere arituko ziren inguruan: "La palabra felipe adquirió entonces un significado peyorativo. Y el hecho tuvo mucho de paradójico, porque mientras el FLP propugnaba un Frente de Clase, como alianza diferente al Frente Naciona al que *Branka* aspiraba, las satanizaciones de las corrientes coyunturales estaban en otras historias. Así el PNV, uno de los actores principales en las campañas *antifelipes* rechazaba sistemáticamente el proyecto de Frente Nacional, manteniendo una alianza ya clásica con el PSOE, con quien había hecho un llamamiento conjunto al Aberri-Eguna de Gasteiz"(61. orri.).

416 V. Asanbladaren Biltzar Ttipiak onartutako estrategiarako txostena. Ikus "Documentos" in ELKARLANEAN (1993). **Euskadi eta Askatasuna**. II. Liburukia. Txalaparta. Tafalla. 260-261. orri.

- Desarrollar actividades marginales tales como grupos folklorikos, teatrales, etc... ena las que se tenderá a presentar cosas modernas, progresistas, que aumenten la combatividad popular"[417].

Maila politikoan gertatzen ari zenaz aparte, elizaren barruan ere aldaketa nabariak eman ziren, hain zuzen ere ikastolagintzan hain eraginkorra izan zen euskal apezgoaren sekulartzea, zeinaren bitartez seminarioak hustu egin baitziren, apezgaiak eta apezak sarri askotan militantzia politikoaren ikurra bihurtu eta irakasle falta haundia zuten ikastoletara abiatuz[418]. Sekulartutako gizon hauek ikastolagintzari, jeneroaren zein pedagogiaren ikuspegitik, ezaugarri berriak ezarriko dizkiote, eredu tradizionaleko emakume sarearen antolaketa behin betiko desagertaraziz. Aipatu ere, sekulartutakoak, ikastoletan aparte, helduen alfabetatze eta kulturgintzaren beste esparru batzuetan ere sartu zirela, bultzada garrantzitsua gauzatuz.

Testuinguru honetan, eta euskal kulturgintzak zeukan esanahi politikoa kontutan hartuta, euskararen modernatze eta berreskuratze prozesuek goruntzko joera hartu zuten "alfabetatze hedakorra"[419] deitutako epeari hasiera emanez. Lehenego alfabetatzeari buruz ikastoletako ikasleen kopurua emanak ditugu, helduen alfabetatzean ere mugimenduak hartutako kemena honako datuetan adieraz genezakeela: Araban 1.547 ikasle, Bizkaian 12.144, Gipuzkoan 11.454 eta Nafarroan 3.338 (1976-77. ikasturtean)[420]. Honekin lotuta, 1965.tik eratzen ari zen Durangoko euskal liburu eta diska azokan, 1972.ean, 43 argitaletxe bildu ziren, bi egunetan 1.186 liburu eta 264 diska saldu zirelarik[421], eta, 1973.ean Udako Euskal Unibertsitatearen lehenego saioa ospatu zen. Hedakortasun hau, berriz, politikoki eta beste mailetan ere gero eta ideologizatuago eta taldekatuago zegoen giro batetan eman zen, ikastoletan islatuko zirenak marko orokorragoan zeudenen izpi bat baino ez zirelarik.

---

417 Lan bera, 260. orri.

418 Euskal Elizari buruz ikus: IZTUETA, P. (1981): **Sociología del fenómeno contestatario del clero vasco. 1940-1975**. Elkar. Donostia; BERRIAK (1976): *Herri Gaztedia, zer?. Sakonarekin hizketan*. **Berriak**, 7; BERRIAK (1976): *La iglesia en Euskadi*. **Berriak**, 8.

419 ARREGI, P. (biltz.) (1992): **Euskal Alfabetatzearen azterketarako lehen urratsak. 1960-1990**. argit. gabe.

420 LEGARRETA, P. M. (1977): *Alfabetaze Euskalduntze Mugimenduaren orainaz... eta geroaz*. **Jakin**, 4. 103. orri.

421 TORREALDAI, J. M. (1977): **Euskal idazleak gaur. Historia social de la lengua y literatura vascas**. Jakin. Oñati.

4.1. IKASTOLEN LEGEZ KANPOKO IZAERA ETA LEGEZTATZEAREN ARAZOA

Ikusi izan dugunez, hirietako zein herrietako ikastolak inongo baimenik edo izaera legalik gabe eratu ziren, baita egoera horretan urteetan zehar iraun ere; Estatuak, eskaera eskolar osoari erantzuna eman ezina, bederatzi urtera arte etxe eskola modukoetan hezitzeko aukera, eta, haurrak oso adin goiztiarretik eskolatzea izan ziren, besteak beste, ikastolen hasiera hauetan lagundu zuten aldagai batzu. Egoera honek, baina, ez zuen luze iraungo.

Erregimen frankista, garapen ekonomikoaren eskaeraz, hezkuntza sistema aurreratuago, eta, autarkia utzita eredu teknokratikoaren beharrei hobekien erantzungo zien eskola bat eraiki beharrean aurkitu zen. Ondorioz, Estatua, gero eta finkatuago[422] dagoen hezkuntza sistema bat osatuz joango da, urratsez urrats ezalfabetatze indizeak ezabatuz eta eskolatze prozesua orokortuz. Nolabait, Europan zebilen *boom eskolarra*ren izpiak Estatu frankista itxi eta atzerakoi horretara heldu eta hezkuntza sistema erreformatzea inposatu zuen. Honetarako Espainiko Hezkuntza Ministeritzatik arau desberdinak ebatzi ziren, azkenik neurri guztion gailurra izan zen 1970.eko "Ley General de Educación" indarrean jarri zen arte.

Lehenengo neurri bateratzaile eta derrigorrezkoa "Libro de Escolaridad"[423] izenekoaren ezarpena izan zen; honen arabera, eskolatutako ikasle orok, mailaz mailako notak eta bestelako datuak jasotzen zituen kartila pertsonal bat eduki behar zuen, eskolatik eskolara edo institutora pasatzeko derrigorreko baldintza. Kartila hau izan zen, dudarik gabe, ikastoletan izan zuten legealdetiko lehenengo neke eta buruhaustea, zeren batxilergoan sartzeko pasaportea bihurtu baitzen.

---

422 1962 eta 1967 bitartean, derrigorrezko eskolatzea hamabi urtetatik hamalaura igo zuten. Luzapen honek dakarren eskola postuen igoerari, populazioaren hazkunde naturalaren ondoriozkoa eta barne migrazioek sortutakoak, gehitzen badizkiogu, Estatu Espainolean 1967.ean (nahiz eta 1957-1961 urteetako Plan de Construcciones Escolares izenekoa burututa egon) 700.000 eskola postu falta zirela ikusten dugu; ikus NAVARRO, R. (1989): *El franquismo, la escuela y el maestro. 1936-1975*. **Historia de la Educación**, 8. Salamanca. 167-180. orri.

Estatu mailako bilakaera honako hau izan zen:

Urtea	Eskola postuen kopurua (defizita)
1931	1.500.000
1939	282.000
1957	720.000
1962	250.000
1967	700.000
1970	666.000
1972	416.000
1973	210.000
1975	praktikan ezabatuta

423 Ley de 21 de Diciembre de 1965; Decreto del 17 de Noviembre de 1966. Instrucción Primaria. Libro de Escolaridad y Certificado de Estudios Primarios (B.O.E. 5/12/1966)

Konponbidea, ikastola bakoitzak aurkitu behar izan zuen, baina gehienetan eskola estataletan zebiltzan zenbait maisu maistren elkartasunari esker bideratu zen: irakasle horiek kartilak euren zentruetan, bertakoak bailiran egin, sinatu eta lege baldintza betetzeko moduan agertuz.

Dena den, horrelako konponbideak, momentuko arazoari aurre egiteko baino balio ez zutela denen gogoetan zegoen susmoa zen; legea eta erregimenaren mehatxua, eta gurasoen artean euren seme alabak hezkuntza sistemaren barruan trabak edo kalteak jasatearen mamua behin eta berriz azaltzen zirelarik: "Eta gu hasi ginenean ez zegoen "cartilla de escolaridad", EGB, eta horrelako sistemarik ez zegoen, eta hamar urterekin orduan ingreso egiten zuten ez?, eta noski hamar urtera arte jendeari ez zitzaion ajola non zeuden ume haiek, ingresoa egiten zen institutoan..., orduan aurreko umeei horrelaxe, lasai geunden, baina berehalaxe hasi zen EGB sistema hau, kartila behar zala sei urtetatik aurrera; klaro, gure lanak, gure aldetatik ez genuen eta kartilarik ez noski, eta ume horiek legeak ez zituen hartzen (...). Eta orduan legalizatu egin behar zen ikastola bezala, colegio, baina legalizazioa etorri arte ume horiek ez zeuden, noski, ez ziren inon azaltzen, eta orduan pentsatu genuen ba eskola nazionalen batetan ba inork ezagutzen zuen hango maistra, maisu edo norbait, eta harek bere eskoletan hartu izen horiek, baina kostatu zitzaigun ederki e?, jendea bildurtu egiten zen"[424].

60 hamarkadaren bigarren erdi honetarako, Gipuzkoan eta Bizkaian gehien bat, ikastolen mugimenduak bazituen bere identitatea, ospea eta indarra, eta erregimenak ixtearen agindu zuzena ematearen aukera gero eta zailagoa zen. Hala ere, arriskuak bere hortan zirauen eta sektore batzuen aldetik legez bermatu beharra, alegia, zentruak legalizatu beharra azaldu zen. Elkarrizketetan zehar gai honen inguruan agertu zaizkigun beldurren aipamena egitea garrantzitsua iruditzen zaigu. Izan ere, ikastolak antolatzea Estatuari aurrez aurreko desafioa egiteak suposatzen zuen arrisku guztiaz gain (errepresio polizialak, fitxaketak, atxiloketak..), familia bakoitzean seme alaben etorkizuna ikutzen zuen arriskua ere somatzen zen (sistema ofizialean sartzerakoan ikastolako ikasleak ondo presta-tuta egongo ote ziren, edota, euskaraz ikastean erderaz ikasten zutenek baino gutxiago ez ote zuten jakingo...). Gurasoen artean zalantza guzti hauek sarri askotan angustia haundiz bizi ziren (zenbatek ez ote zuten ikastola utzi beldur horien eraginez!), eta legearen babesak zama astun hau arintzen zuen irtenbidea zen. Honekin ez dugu esan nahi ikastolak legeztatu ala ez legeztatzearen eztabaida aldagai subjetibo hauekin soilik esplikatzen denik, badaude, egon, arrazoi politiko ideologikoak, baita koiunturalak ere auzia ulertzen laguntzen dutenak, baina gurasoen artean, irakasleen artean ez bezala, beldur hauek berebiziko garrantzia izan zutela uste dugu.

424 9. elkarrizketa.

Legeztatzearen inguruko eztabaida, 1968.ean Gipuzkoan ezarri zen salbuespen egoera zela medio areagotu eta bere goia jo zuen arren, baziren aldez aurretik legearen bidetik sartzeko saio isolatu batzu. Testuinguru zehatz honetatik kanpo baina era berean estu loturik, legeztatu izan zen lehenengo zentrua Santo Tomas Lizeoa izan zela esan behar dugu, 1963.ean. Kasu honetan, eta batxilergoa irakasteko zentrua zela kontutan hartuta, legepean egotea martxan jartzeko lehenego baldintza izan zen.

Legeztatzearen bidetik egin zen bigarren saioa Bizkaian dugu, Bilbokoan hain zuzen. Donostian ez bezala, Bilboko ikastolak bere hasieratik izan zuen bide oztopotsua azpimarratu nahi dugu lehenbizi; ikastola hau 1957.ean hasi zenetik, boterearen kolpe gogorrak jasan zituen (salatua izan ondoren, andereñoak atxilotu zituzten eta epaituak izan ziren[425]). Eraso hauen ondorioz, 1960-1965 urte bitartean etxe partikularretan babestera behartuta ikusi zuten beren burua. Haatik, etxeetan funtzionatu arren, Bilboko ikastola Donostiako etxe eskolen desberdina zen, gurasoen partaidetzak eta talde desberdinen arteko lankidetzak proeiktuari batasuna eta nortasuna ematen baitzizkioten. 1965.tik aurrera, lege baldintzak zirela medio, euskarazko irakaskuntzaren agerpen publiko eta legala izan omen zen Julia Berrojalbizek eta bertoko guraso batzuk ikusi zuten bizirauteko modu bakarra, gainera legeztatze honen inguruan erabateko adostasuna ez zegoelarik: "no todos los que trabajaban entonces en ese mundo de las ikastolas quería pasar por la legalización, ni estaban dispuestos a aceptar, sin más, las condiciones a que se obligaba al solicitar una autorización oficial. Como se sabe, el que quería entrar por ese camino se obligaba a aceptar ciertos requisitos legales, además de colocar en el aula símbolos, emblemas y retratos propios del régimen en el poder"[426].

---

425 "Hacia finales de curso, en el año 1959 nos denunciaron. Vino un inspector de escuela que no recuerdo su nombre, y lo denunció a la policía porque encontraron en un cuaderno de un niño una ikurriña pintada y a mí un libro que hablaba de la Geografía Vasca.
Vino la policía a nuestra clase de mayorcitos, nos llevaron en un jeep a mi y a la otra, M. Carmen Gangoiti, y nos metieron en la cárcel entre barrotes, sin cama, ni silla, haste que vino mi hermano Xabier y nos trajo un colchón. Todo esto porque no nos dejaron avisar a casa que nos detenían y los niños fueron los que dijeron a las otras dos andereños cómo la policía nos detuvo(...).
Yo tuve que hablar ante un tribunal policial para hacer declaración de lo que hacía. Esto me impuso mucho miedo y respeto pues no sabía las consecuencias que tendría lugar todo aquello.
Al fín nos sacaron, y a Sabin Zubiri le pidieron una multa de 25.000 pesetas. A mí y a M. Carmen Gangoiti 10.000 pesetas cada una y a las otras dos andereños, M. Rosario Alberdi y a Severina Mardaras 5.000 pesetas cada una. Se cerró la ikastola de Iralabarri y quedamos fichadas en la lista negra. Quisieron defendernos ante la policía el Padre Justo Anasagasti y el Padre Andrés Intxaurbe, ambos franciscanos, pero nada pudieron hacer. Yo poseo el documento del Gobierno Civil con la fecha 20 de Noviembre de 1959, en la que consta todo lo que digo" (Estibaliz L. de Gereño andereñoak, 1989.ean eginiko autoinformea; Julia Berrojalbizek emanda).

426 ARRIEN, G. (1987): *La ikastola Azkue, la primera en ser legalizada en Vizcaya en 1966*. **Eusko Ikaskuntza. Cuadernos de Sección: Educación**, 2. Donostia. 9. orri. Ikus ere:

Legeztatzeko, Julia Berrojalbizek pisuzko babesle bat bilatu zuen, Euskaltzaindia, eta Alfonso Irigoienen izenean egin zen eskaera, eskola elebidunaren itxura emanez. 1966.eko ekainean egin zen inagurazio ofiziala eta Gurpide gotzai frankista eta Inspektore nagusia egon ziren, baita prentsa ere (La Gaceta del Norte egunkarian, M.A. Astizek eginiko komentarioa agertu zen 1966/6/9 datan). Ohar gisa esan dezagun, Zipitriak Julia Berrojalbizekiko harremanak moztu zituela legeztaze hau zela medio, argitzeko asmotan Xabier Peñak ondoko hitzak idatzi zizkiolarik Zipitriari: "Ira, aserre zaitugu, noski, Bilbo´ko ikastolak artu duten bide berria dela-ta. Benetan gogor eta latz egiten zaigu geroni ere, baña... ongi ote dakizu emen gertatzen dana? Egoki litzakigu bilera bat, auzi onen alde bietako iritziak agertzeko. Oroz gain, auxe nai nuke: orretan ari diran andereñoen zintzotasuna agirian ipiñi"[427]. Ez zen konpontzerik egon, baina Julia Berrojalbizek hartutako erabaki ausart honek finkatzeko ate berri bat zabaldu zion jarraian legeztatuko ziren hainbat ikastolari, ibilbidearen latza horretan bukatu ez zen arren.

Baina Bizkaia ez zen izan legeztatzearen arazoaren aurrean egon zen herrialdea. Kronologikoki jarraian gertatu ez zen arren, Iparraldeko ikastolaren kasua dugu, zeinean ikastola eratu eta batera, legeztatu egin zen, legez kanpo inoiz egon ez zelarik[428]. Hauez gain, jarraian aztertuko dugun Gipuzkoako legeztatze prozesuak, mugimenduak herrialde honetan zeukan garapen maila altuagatik, berebiziko garrantzia izan zuen eta tokiz tokiko irtenbideen bitartez bideratu zen, hau da, legeztatze prozesuak ez zion jarraitu eredu bakar bati ikastola bakoitzak aurkitzen zuen irtenbideari baizik. Ikastoletako harreman sareen informazioa prentsa idatzira ere heldu zen, bilatzen zuenari eskeiniz[429].

Gipuzkoan, legeztatzearen inguruko lehenengo eztabaidaren berri 1967. urteko udaberrian aurkitzen dugu, Loiolan ikastoletako ordezkarien bilera ospatu zenean. Bertan, eztabaida piztu eta adostasun osorik ez egotean, legetatzearen aldeko proposamena egiten zuen Errenderiko ikastola legeztatzea erabaki zen, beste ikastolek, esperientzia hori egin ondoren bere hautapena egin zezaten. Errenderikoek ikastola legeztatzeko hartu zuten bidea 1964.ko Abenduaren 24ko "Ley de Asociaciones" izenekoan ebazten zen "Agrupación cultural" zelakoan oinarritzen zen. Estatutuen proiektuan, bere 2. artikuluan horrelaxe definitzen zituzten elkartearen izaera eta egitasmoa: "La AGRUPACION CULTURAL

ARRIEN, G. (1993). *Las ikastolas de Bizkaia, 1957-1972*. **Eusko Ikaskuntza. Cuadernos de Sección: Educación**, 6. Donostia.

427 Hemen erabiltzen ari garen dokumentazio guztia Julia Berrojalbiz Andrearen esker onari zor diogu, baita hau dena ulertzeko bere harrera atseginari ere.

428 Claire Nobliak 1969.eko martxoan zabaldu zuen Iparraldeko lehenengo ikastola, eta hilabete bat beranduago, 1901.eko Legeari jarraiki, Seaska Elkartea eratu zen. Ikus: SEILIEZ, J. P. (1981): *Langue basque et enseignement.* **Bulletin du Musée Basque**, 92.

429 Honen adibide gisa ikus: EUSKERAZALEAK, B. (1969): *Aukera eta irtenbideak.* **Zeruko Argia**, 321.

ORERETA es una entidad creada con el fin de coordinar y fomentar toda clase de actividades culturales, docentes y artísticas, prestando particular atención al mantenimiento y cultivo de las manifestaciones folklóricas y culturales del País, especialmente a su lengua. Para cumplir sus fines, se propone la Agrupación crear y mantener un centro docente para la enseñanza en todos sus grados, donde asímismo pueden celebrarse actos culturales y recreativos". Gipuzkoako Gobernadore Zibilak 1968.eko Urtarrilaren 22ko datarekin baimendu zuen elkartearen eskaera.

Oreretak erabilitako formula legala hainbat ikastoletan aurki dezakegu Euskal Herri osoan zehar, alegia, elkarte kultural baten itxurarekin euskal eskola martxan jarri, berarekin batera beste ekintza gehiago eratzen zirelarik (euskal dantzak, txistua, mendi taldeak...). Era honetara argiro agertzen zaigu berriro ikastolen mugimenduaren barruko informazio hedapena eta ezagupide azkarra, zeinen bitartez egoerak inposatzen zituen oztopoei erantzuteko ikastola asko eta asko baliatzen baitziren. Ikastoletako ordezkarien bilerak zirela medio, proiektuan ari zirenen arteko elkartasun sare hauek izan ziren, gure ustez, ikastolen mugimenduaren biziraupena ziurtatu zuten tresnak, erantzun puntual amankomunak eta eranginkorrak hartu eta ikastola guztietara hedatzeko lortu zuten gaitasunari esker.

Poliki poliki hasten ari zen ikastolen legeztatze prozesu hau, berriz, Gipuzkoako kasuan erabat azkartuta suertatu zen Errenderiko ikastola legeztatu eta hilabete batzu beranduago. 1968.eko Ekainaren 15ean (Boletin Oficial de Guipúzcoa 1968/7/19) Gipuzkoako Gobernadore Zibila zen Enrique Oltra Moltok herrialde horretako egoera eskolarra kontrolatu nahiean, legeztatu gabeko eskolen egoeraren bukaera agindu zuen, agiri baten bitartez:

> "Varios son los miles de niños que asisten a centros que escapan a todo control. Centros instalados, muchos de ellos en locales cuyas condiciones higiénico-pedagógicas y cuya solidez y seguridad dejan mucho que desear, que se hallan regentados por personal carente no ya del correspondiente título académico, sino de la más mínima preparación pedagógica y de la indispensable garantía sanitaria; centros que, por hallarse incapacitados para expedir el Libro de Escolaridad, cierran a sus alumnos las vías de acceso a la enseñanza media y a la obtención del Certificado de Estudios Primarios; centros, en una palabra, que, por no ofrecer ni garantía ni solvencia alguna, no tienen razón de existir en estos tiempos en que las exigencias de tipo médico, sanitario y pedagógico son cada vez mayores.
>
> Interesa, por tanto, en bien de la enseñanza y, en definitiva, de los niños, en primer lugar, evitar que este estado de cosas se agrave con la apertura ilegal de nuevos centros y, en segundo lugar, tratar de encuadrar dentro de la Ley a los que, amparados en una benévola tolerancia, han venido funcionando de manera irregular, para lo cual se concede un plazo prudencial a fin de que se legalice su situación. Esto nos permitirá conservar los que se encuentren en condiciones de cumplir correctamente su finalidad y hacer desaparecer aquellos que, por no poderse legalizar, no tienen razón de existir"[430].

---

430 Boletín Oficial de Guipúzcoa. 1968/7/19.

Agiri honetan legeztatu gabe zeuden ikastolen erreferentzia eta normaltzearen derrigortasuna agertzen zaigu, baina euskal gizartean *in crescendo* ari zen giro sozio-politikoaren ondorioz 1968.eko abuztuaren 11an Oltra Moltok berak ezarri zuen salbuespen egoerak, erabat zorroztu zituen lehenengo agiriaren larritasunak. Egoera nahasi honetan, Gipuzkoako ikastolen sektore haundi batek Elizaren babesa eskatu zuen, "parrokia ikastolak" bihurtu ezkero 1945.eko Azaroaren 15.eko legeak ezartzen zituen baldintzak beteta gelditzen baitziren. Era honetara, eliz bakoitzeko parrokoak parrokia ikastola zabaltzeko baimena eskatzen zuen, behar ziren unitateak zehaztuz eta ikastolak debeku eta zigorrengandik babestuz.

Gipuzkoako ikastolen gehiengo batek Elizarekin izandako harremanak eduki zuen eraginagatik, azterketan prozedura bera zorrotzago hausnartzeari interesgarri deritzogu. Dokumentazio idatziaren artean badaude, gure aburuz, momentu horretan azaldu ziren bi tendentzien interpretazioaren adibideak; alde batetik Jose Lasa Kalongearen "Euskal Erria eta Ikastola" liburua, eta bestetik Jakin Sortaren Iñaki Aizpuruaren "Ikastolen historiarako ikusbide bat (1960--1972)" eta Imanol Laspiurren "Ikastola eta gurasoak" izeneko artikuluak. Lehenengoan, Elizak ikastolekiko harremanarako ezarri zuen pertsonak idatzia zenez gero, instituzio honetako sektore baten eritzia topatzen dugu, alegia, nazionalismo tradizionalari jarraiki euskalduntasunak erlijiotasunarekin bat eginda etorri behar zuelako pentsakera ordezkatzen duena; bigarrenean, berriz, ikastolen mugimenduan garai hartan bilakatzen ari zen nazionalismo berriaren ikuspegia antzeman dezakegu. Bereizketa hau egiterakoan, ez dugu arrazoi politikoetaz soilik hitz egiten, baizik eta oso epe laburrean, eta azken batez aldaketa makroestrukturalak zirela medio, eraldatzen ari zen gizarte batetan eman ziren tirabira ideologiko sakonetaz ere. Haranburu Altunak honelako aipamena egiten zuen honetaz (Rikardo Arregik berak urte batzu lehenago egiten zuen eritziari eutsiz):

> "Euskal kulturaz arduratu direnak apezak izan dira gehien batean. Euskal kulturaren indar dominantea erlijioa izan da bai gizonei eta bai ideologiari begiratuz gero. Eta gauza frogatua da erlijioa izan dela feudalismoaren kultura moldeen bereizgarririk nabarmenena, eta feudal produkzio moldeen euskarririk tinkoena.
>
> Bestalde, Euskal Kultura nekazari gizarte moldeetan finkatua datza, gehien batean. "Gehien batean" diot zeren, egun bada Euskal Herrian zenbait kultura mota desberdin. Batera bizi dira, bai, borrokan bederen.
>
> Ikastoletan, bi kultura molde hauek ausnar daitezke, hain nabarmen ere, azken urte bi hauetan berezi dira, kultura molde desberdin hauk, erlijio arazoa dela ta.
>
> Kontradikzioak nagusiak eta tipiagoak dira. Eta beraz ikastoletan, bi kontraesan gisa hauk nabari dira. Batetik kultura euskaldun eta deseuskaldunaren artekoa (kontraesan nagusi eta dominantea), eta bestetik nekazari-klerikal kultura eta industri kulturaren artekoa (bigarren mailako kotraesana)"[431].

---

431 HARANBURU, L. (1972): *Ikastola, geroaren habe*. in JAKIN (arg.): **Gure ikastola**. Jakin Sorta, 6. Oñati. 170-171. orri.

Euskal gizarteak ekoiztu zituen bi jarrerok erregimen frankistak ezarritako egoera baten ondorioz elkartu egin ziren, hain zuzen ere ikastolek Elizari laguntza eskatu behar izan ziotenean. 1945.eko Hezkuntza Legeak Elizari eskolak zabaltzeko ahalbideratzen zizkion eskubideak gogora ekarriz, eta, Vaticano II-ak eta "Pacem in Terris" enziklikak herri nortasunen defentsaren aldarrikapenean oinarrituz, idatzi bat zuzendu zioten honako eskaera luzatuz: "Gure ikastolak legez Elizaren eskolatzat geldi daitezen eskatzen dugu. Ez da soilki lege babesa baizik eskatzen dena, eta halere, Ikastolen martxan ez doakio Elizari ez ekonomiaren zamarik ez-eta pedagogiaren edo organizazioaren ardurarik; beti ere politika arazoez kanpo iraungo duten ziurtasunarekin. Hau da soilki eskatzen duguna, guti-asko Elizaren erakundeek sekularrei Bigarren Errepublika garaian eskatu ziena: lege babesa. Eta sekularrek ez zioten ukatu Elizari. Ez diogu deus esijitzen. Bere laguntza eskatzen da, eta... itxaro dugu zinez"[432].

Eliza ikastolei laguntzeko prest agertu zela ez dago ukatzerik, eta legeztatze prozesuari Parrokia Ikastola gisa eman zitzaion hasiera. Hala ere, erregimenak ikastolei ezarri nahi zien jarraipena ez zen horretan bukatu, eta 1969.eko udan ugalduta zeuden eskolaurreak ere legeztatzeko baldintza agindu zuen Gobernadore Zibilak. Kasu honetan ere, Elizaren laguntzaz baliatuz Euskal Katekesiaren ("Katekesia eta aurren kultura" izenaz bataiatu ziren) itxura hartzea erabaki zen. Honela, urte bateko epean Gipuzkoakoako ikastola gehienak (27 ikastola, Jose Lasaren esanetan), Parrokia Ikastola eta Euskal Katekesiaren tankeraz hornituta agertzen zaizkigu.

Elizaren aldetiko laguntza hau, baina, ez zen musu truke etorri. Ikastolek nazio eraikuntzan eta Estatuaren kontrako erresistentzia mugimenduan jokatzen zuten paper garrantzitsua, ikastoletako irakaslegoak soziologikoki biltzen zituen ezaugarriak eta gizartean ematen ari zen baloreen aldaketa izan ziren, besteak beste, ikastolen inguruan biltzen ziren osagai "iraultzaileak", Elizaren erizpideetatik kontrolatu beharrekoak. Honetarako, lehenengo eta behin, Gotzaiak parrokia ikastoletako ordezkari bat izendatu zuen, Elizaren eskutik zeuden ikastolekiko arazoetaz arduratzeko; lan hau Jose Lasa Kalongearen eskupean gelditu zen. Baina, beronen esanetara mugatuz: "Elizak ere batzuan zer esatekorik eta aski kezkatua zegoan. Aalegiñak egitera prest zegoan, baina etzuan *bere izen eta babesean* edozein ikastola artu nai. Parroki Ikastolaren aiurra eta izatea, Elizaren erantzunkizuna eta gurasoen egitekoak *definitzea* eta mugatzea bearrezkoa zan, elkar izketa iriki eta jator batean"[433]. Elkarrizketa behar horri erantzun nahiez,

---

432 AIZPURUA, I. (1972): *Ikastolen historiarako ikusbide bat (1960-1972)*. in JAKIN (arg.): **Gure Ikastola**. Jakin Sorta, 6. 26. orri.

433 LASA, J. (1971): **Euskal erria eta ikastola (una polémica en torno a la ikastola)**. Edili. Donostia. 39. orri.

1969.eko ekainaren 7an Donostiako Apaiztegian Elizaren eta ikastolen ordezkarien arteko Batzar Nagusia ospatu zen, bertan Lasak berak laburbiltzen dituen ondoko erabakiak hartu zirelarik:

"1º.- Parroki-Ikastola kristau konfesionala izango da.
2º.- Ikastolak garai garaiko legeari dagokion eran moldatuak egongo dira.
3º.- Ikastolak apolitikuak izango dira, ez alde batera eta ez bestera inolaz ere makurtuaz.
4º.- Ikastoletako dirutza osotoro gurasoen gain joango da, aske eta libro geraturik Parrokia.
5º.- Legearen aurrez, azken erantzule Eliza izango da"

Iñaki Aizpuruak, bere artikuluan, hitzarmen honen azkenengo puntuari buruzko beste testu hau eskeintzen digu: "Halaz ere, Erretore Jauna Parroki--Ikastolako Batzarkide izango da "iure pleno" eta berebat, Parroki-Ikastola Elizaren mendean dagoen neurrian eta mailan, azken erantzun beharra duena ere bai"[434]. Hitzartutakoari dagokionez, behintzat, horretan zehaztu ziren Elizak ikastolekiko zituen eskubideak.

Hitzarmen hau egin zenetik aurrera gertatutako istilu zakarrak ikastolen mugimenduaren kontrol ideologikoa eskuratzeko borroka baten argitan irakurri beharra dagoela uste dugu. Elizak konfesionaltasunaren baldintza ezartzea erabat "normala" dirudi, baina baldintza honekin ikastoletako idearioan ezer berririk sartzen ez zela azpimarratu beharko genuke. Izan ere, ikusi dugun bezala, erlijioa irakasteari ez baitzitzaion uko egiten, erlijio klaseak nork eman behar zituenari baizik. Kataluniako ereduari jarraiki, ikastoletako andereñoek maistra eta katekistaren irudiak bereiztearen hautaketa egin zuten, formazio mota hori apaiza edo horretarako propio legokeen pertsona jarri beharra eskatzen zutelarik. Hala ere, hau bezalako ezadostasun xume baten ondorioz ezin dira ulertu egon ziren eztabaida garratzak, irakasleen despidoak eta ikastola batzuen erdibiketak.

Gure hipotesia irakurketa politiko ideologikotik pasatzen dela esan behar dugu. Ikastolek, 60.eko hamarkadaren zehar hartu zituzten ezaugarriak nazio eraikuntzaren momentu desberdinen klabeetan interpretatu behar direlakoan gaude. Hizkuntza eta euskal kulturaren ukazio eta zapalkuntza egoera batetan, hil ala biziko momentuan sortu zen ikastola nazionalismo berriaren iturrietatik elikatu zen, euskalduntasuna, herrikoitasuna, partaidetza eta pedagogia berrien ekarpenetan oinarritu zelarik. Baina ikastola, gertakari sozial bezala, ez zen hutsean sortzen; bere inguruan, Estatuaren kontrako borroka goruntz zihoan urte hauetan nazionalismo berria, nazioaren formulaziorako planteamentu etno-linguistikoak erabiltzeaz gain, sozialismo eta iraultzaren planteamentuetara ere hulbildu zela gogoratu behar dugu. Haranburu Altunak maila orokor batetik azaltzen zuen

434 AIZPURUA, I. (1972): *Ikastolen historiarako ikusbide bat (1960-1972).* in JAKIN (arg.): **Gure Ikastola**. Jakin Sorta, 6. Oñati. 27. orri.

nekazal gizarte batetatik gizarte industrial batetarako igarotze honetaz aparte, maila zehatzago batetan horren islada zen nazionalismo tradizional eta berriaren arteko lehia ere ikus genezake, are gehiago, bi ideologiok ordezkatzen zituzten PNV eta ETAren inguruko tendentzia guztiak (60.eko hamarkadaren bukaeran ezkerreko nazionalismoaren indarrak oso banatuta zeuden arren, nazionalismo tradizionalaren baloreen aurrean ideologia orokor bat bezala har genezake).

Elizarekiko hitzarmenaren bidez, ikastolen mugimenduaren baloreak eta norabidea kontrolatzeko ate bat ireki zitzaion nazionalismo tradizionalari, gerraurrean euskal hezkuntzaren esparru horretan zeukan toki aparta eskuratzeko bidea. 1970.eko Martxoaren 3ko data duen "artzaintza arazoetarako Arzipreste" eta Gotzaiaren arteko bileraren agirian zera irakur daiteke:

> "Un capítulo especial –no por ponerlo el último es el menos importante– de nuestra pastoral escolar es el planteamiento serio de los centros escolares bilingües. Creemos que, a causa de suspicacias políticas, dificultades legales, etc., hemos abandonado un terreno importante de acción eclesial, que está siendo ocupado por otros. Aunque sea función subsidiaria, el fomento de la lengua y cultura del pueblo vasco corresponde a la Iglesia con toda urgencia. Consideramos pastoralmente necesario el apoyo a todas las iniciativas culturales en este punto y la promoción de centros donde se vea conveniente; se trataría principalmente de amparar el derecho de los padres de familia que acuden a la Iglesia en busca de auxilio. Podría pensarse en algo semejante a la Federación de Ikastolas de Guipúzcoa, aunque respetando la peculiaridad de nuestra diócesis. Este apoyo debe basarse en cuatro condiciones indispensables: confesionalidad de los centros, legalización, apoliticidad absoluta y autonomía económica y administrativa de los mismos.
>
> Este empeño exige un esfuerzo de preparación de maestros o de recuperación de otros vocacionados para esta tarea. La escuela de Magisterio de la Iglesia debe contribuir a la preparación de personal idóneo. Hay que pensar en alguna residencia para chicas en Bilbao, residencia que podría ser centro de irradiación de tales esfuerzos."[435]

Agiriaren atal labur honetan borrokaren gako batzu agertzen zaizkigu, alegia, seme alaben heziketa dela-eta, gurasoen eskubidea eta Elizaren erantzunkizuna. Eta, printzipio hau operatibizatzeko proposatzen diren bideak (Federazioa, Erresidentzia, oinarrizko baldintzak...). Ez dugu gai honetan gehiago luzatu nahi, geroago sakonago aztertuko baitugu, baina airean gelditzen diren galderak zerak dira: euskal elizaren sektore batzu eta nazionalismo tradizionalaren artean historikoki zeuden harreman estuak ezagututa, noraino ez ote den zilegia pentsatzea argudio guzti horien atzetik frankismoaren bukaeraren eskenatoki politikoan azaldu nahi zuen PNVren maniobra baten aurrean gaudela? Gerraoste osoan zehar mugikortasun ezagatik ezaugarritu zen partidua, noraino ez ote zegoen nazionalismo berriaren indarra eta hegemoniaren aurrean erreakzionatzen, azken hauek metatutako kapital sinboliko, kultural eta sozio-politikoa kapitalizatu nahiz? Frankismoaren bukaera bistan zegoelarik eta monarkiarako transizio

---

435 ANAITASUNA (1970): *Eliza eta ikastolak*. **Anaitasuna**, 186.

iragarri baten aurrean, ikastolen mugimenduan sortu zen astindura nazionalismo autonomistaren lema kolpe bat noraino ez ote zen izango?

4.2. GIPUZKOAKO IKASTOLEN FEDERAZIOAREN SORRERA

Elizaren babesari esker, legearen bidetik sartzen hasi orduko, badago ikastolen mugimenduan guztiz garrantzitsua den beste gertakari bat, federazioaren sorrera hain zuzen. Federazioak, ikastolen gaineko lehenengo egituraketa ekarri zuen, ordura arteko funtzionamendu guztia eraldatuko zuen kontzeptu berria.

Badaude, gure ustez, federazioaren sorreraren azterketan kontutan hartu behar diren aldagai bi. Batetik, orain arte deskribatu dugun egoera sozio-politikoak ikastolen mugimenduan zeukan pisua, ETAren borroka armatua eta ekintza-errepresioa-ekintza espirala martxan zeuden maila guztietan mobilizazio haundiak suertatu zirelarik. Honen aurrean, erregimenaren erantzuna maila guztietan somatu zen, eta ikastolak, erresistentzi mugimenduaren ikurra ziren neurrian, ikusmiran zeuden. Pentsa dezagun ikastolak Gipuzkoa eta Bizkaiko herri gehienetatik zabalduta zeudela, egoitzak (onak edo txarrak) zituztela, eta euskaltzale eta abertzaleen bilguneak zirela. Erregimenak ikastolak "inguratu" zituen, sarri askotan presio polizial garrantzitsu batez (oso ugariak izan ziren ikastolen barruko mihaketak, goardia zibilak metrailetak eskuan ume ikaratuen aurrean, edota atxiloketak...), eta gurasoentzat zama astun hura arintzea gero eta beharrezkoa zen. Legeztatzeak ziurtasun bat ekarri bazien, ikastolen arteko egitura zabalago bat sortzea momentuari ondo zegokion erantzuntzat hartu zen.

Bigarren aldagaia, ikastolen hazkundea[436] izan zen. 60.eko hamarkadan zehar, ikastolek beraien biziraupenerako funtzionamendu, antolamendu eta formazio mekanismo egokiak sortu bazituzten, hamarkadaren azkenengo urteetako hazkundearen abiadarekin autogestio oinarrizko tresna hauek gainezkatuta gelditu zirela har dezagun kontutan. Hazkundearen ondorioak, besteak beste, hauexek ditugu:

a) Irakaslegoa. Umeak matrikulatzeko eskaera haundia zela eta, mugimenduaren betiko gabezia ohi zen irakasle falta areagotu egin zen. Hazkundeari erantzutearen poderioz, ordura arte ikastoletan hain garrantzitsua ziren formazioa eta praktikak, neurri batetan behintzat, baztertu behar izan ziren (ez zegoen ez denborarik, ezta gaitasun nahikorik ikastoletan sartzen ziren irakasle guztien berziklaia zehatz hura gauzatzeko).

---

436 Ikastolen mugimenduaren hazkundeaz ikus aurreko ataleko 3.6 azpiatala.

Honetaz aparte, legeztatze prozesuek ezarritako irakasle titulazioaren baldintzak irakaslego enpirikoaren ekoizpena moztu zuen, eta pedagogian formatuta ez baina unibertsitate tituluak zituzten irakasleen sarrera ahalbidetu zuen. Ikastolek irakasle tituludunak behar zituzten heinean, eta euskal gizartean bizi bizian gertatzen ari zen sekulartzearen ondorioz, apaiztegietatik zetozen hainbatek eta hainbatek bete zuten irakasle hutsune hori. Era honetara, ikastoletako irakaslegoa euskal pedagogian (maila teoriko zein praktikoan) tinko formatutako andereñoak izatetik, unibertsitate tituluak zituzten irakasleak izatera igaro zen. Soziologikoki irakaslegoaren konposaketa zeharo aldatu zen, eta horren eraginez, ikastoletako ibilbide didaktiko pedagogikoa, eta gurasoekiko harremanak ikututa gertatu ziren.

b) Gurasoak. Ikastolen mugimenduari hasiera eman zioten gurasoen motibazioak eta hautatze mekanismoak aurrekoetan aztertu ditugu. Ez daukagu datu nahikorik hasierako momentuetako motibazioak eta esperientziak hazkundearekin nola bilakatu ziren jakiteko, baina begi bistakoa da ikastolak finkatu ahala, gurasoen partaidetzaren ezaugarriak eta inplikazio mailak ere aldatuz joan zirela, baita hasierako momentuetan andereño eta gurasoen artean zegoen sinbiosi hura ere (irakaslegoaren ezaugarriak aldatzean, gurasoekiko elkarrekintzak ere aldatu ziren, beste forma batzu hartuz).

d) Eskola antolamendua. Hazkundeak beste behar batzu derrigortu zizkion ikastolaren bizimoduari: egoitza gehiago, irakasle gehiago, materiale pedagogikoak, finantziabide berriak, agerpen publiko argia...

Beraz, zailtasun guzti hauek kontutan hartuta, herriz herri eta bailaraka zegoen koordinaketa formula autogestionario hari eraginkortasun eta arintasun haundiagoa emango zion antolamenduaz hornitzea beharrei zegokien aukera zen: "Beraz, sortzaileek, egia esan, ideia eta mementoaren egokitasuna ikusteko aski adimen argia ukan zuten. Halaber, Elizaren babesera bildu eta Ikastolek lehendanik zuten organizazioa bazterreratzeko. Hau guztia ez zen orduan hain gaizki ikusia izan, zeren-eta ikastolak, esaterako, ur aparra bezala etorri zirenez, ez baitzen lan erreza guziak taxuz koordinatzea, eta beraz, aski nekaturik ziren lehengo arduradunak"[437].

Egoera eta behar berriei erantzungo zien egitura baten beharraz ez omen zegoen, beraz, zalantzarik. Gauzak horrela, eta urtebetez bilerak egiten egon ondoren, Loiolan 1969.eko Azaroaren 9.an eratu zen Gipuzkoako Elizbarrutiaren

437 AIZPURUA, I. (1972): *Ikastolen historiarako ikusbide bat (1960-1972).* in JAKIN (arg.): **Gure Ikastola**. Jakin Sorta, 6. Oñati. 24. orri.

Ikastolen Federazioa[438], Jose Lasak berak azaltzen dituen ondoko lau alderdi nagusi zituelarik: "1.- Federazioa lanerako sortu dan tresna bat da; 2.- Federazioa gurasoak osatzen dute soil soilki; 3.- Ikastolak konfesionalak izango dira; 4.- Federazioa demokratikoa da"[439]. Federazioaren sorrerak, ordea, ez zuen ikastolen indarrak eta asmoak batzeko balio izan, eta tamalez, kontrakoa lortu zuen. Gerraurreko Euzko Ikastolen Batzaren organigrama eta asmoak berreskuratzen zituen federazioak, 60.eko ikastolen magalean hazitako herrikoitasuna eta elkartasuna kontzeptuei, ekar zezaketen mezu iraultzailea eragozteko, frenoa ezarri nahi izan zien, tendentzia biren arteko gatazka piztuz.

Federazioaren sorreraren prozedurak berak, ordura arte ikastolen partaidea ez zen Elizaren eskusartze erabakikorrarekin, kritikak sortarazi zituen, mugimenduaren izaeraren kontra zihoan neurrian. Aizpuruak honako kritika hauek seinalatzen zituen:

"- Batzorde Nagusiak zuen herri giro eta ordezkotasunik eza.
- Federazioa sortu zuen taldearen burokrazi eta legalismokeriak.
- Gehiegizko zentralismoa: aurreko organizazioekin kontatzeke aurrez pentsaturiko plan teoriko bat ezarri nahirik azaldu omen ziren, eginik zegoena kontuan harturik gabe eta bailarek zuten nortasuna gutxituaz.
- Irakasle taldearen garrantziaz ez ohartzea edo gutxiestea. Hain zuzen ere hemen ikusi nahi da irakasle eta Federazioaren artean izan zen etendura"[440].

Momentu honetara arte, ikastolen funtzionamendua "auzolan" bat bezala ezaugarritu badugu, federazioaren sorrerarekin ikastoletan parte hartzen zuten estamentuen artean haustura bat agertzen zaigu, mugimenduaren barruko giroa eta aurrerako funtzionamendu mugatuko zituen haustura. Eliza eta gurasoak, egituraz bat eginda agertzean, irakaslegoaren eragina baztertzen saiatzen hasi ziren, umeen hezkuntza eskubidea beraiei –eta ez beste inori– zegokiela aldarrikatuz. Zergatik aldaketa hau, galde genezake; hazkundeari erantzuteko antolamendu batez jabetu beharrez, zergatik guraso elkarte bat soilik, eta ez ikastoletako partaide guztiez osatutako elkartea? Honelako galdera berdinak egiten zituen Imanol Laspiurrek, aburu desberdinak tartekatuz: "Elkarte hau, edo gurasoena da edo ikastolena, baina erabaki beharra dago. Ez gaitezke kontradizoetan eror, ezta ere hitz jokoetan ari izan. Irakasle eta guraso federatu hauen artean etena dago. Eta irakasleek ez dute Elkarte horretan parte hartu nahi, edo ta gurasoek ez dute beren artean federaturik irakasleak hartu nahi, federaturik

---

438 Gipuzkoako Ikastolen Elkarteari buruz ikus: AIZPURUA, I. (1972): *Ikastolen historiarako ikusbide bat (1960-1972).* in JAKIN (arg.): **Gure Ikastola**. Jakin Sorta, 6. Oñati. Lan honen helburua gehien batez zabalkundezkoa bada ere, federazioari buruzko datu ugari agertzen ditu.

439 LASA, J. (1971): **Euskal erria eta ikastola (una polémica en torno a la ikastola)**. Edili. Donostia. 49-54. orri.

440 AIZPURUA, I. (1972): *Ikastolen historiarako ikusbide bat (1960-1972).* in JAKIN (arg.): **Gure Ikastola**. Jakin Sorta, 6. Oñati. 24-25. orri.

esatean zerbait eskubidez adierazi nahi dut noski. Baina *pribatu eskolak* gurasoenak badira, eta Elkarte honek horrela izan behar badu, orduan zuzenketa egin beharra dago araudian eta garbi jarri *gurasoen elkartea* dela. Orduan bi elkarte garbi izango genituzke: alde batetik gurasoena eta bestetik irakasleena"[441].

Beraz, osagai berriak agertzen zaizkigu ikastolen munduan, zeren inongo bitartekorik gabe, beldurrez, eta partaide guztien borondatez egunez egun aurrera ateratzen ziren ikastola haietaz inori ez baitzitzaion bururatuko *pribatuak* zirela esatea, ezta norenak ziren galdetzea ere. Termino hauek agertzean, jabegoaren kontzeptua soma dezakegu, eta, hondasun ekonomikoen ezean, ikastolek beren ibilbidean metatutako kapital sinboliko eta sozio-politikoaz jabetu nahia ez ote zegoen galdetzen diogu buruari. Honexegatik uste dugu, federazioaren sorreraren azpian kapital horren kontrola eskuratzeko borroka izkutatzen zela, aldaketa politiko batetarako prestatzen ari den gizarte batetan.

Ikastolen kapital horren kontrola ez zen, ordea, mugimenduaren egituratzeak beteko zuen funtzio bakarra. Berarekin batera, taldearen barruko harremanek beste norabide bat hartu zuten; egiturak hierarkizazio eta goitik beherako funtzionamendu eta lanaren banaketa eta espezializazioa ezarri baitzituen, funtzionamendu amankomun eta partehartzailea bere adierazpenik txikienetara mugatuz. Era honetara, mugimenduaren erabaki ahalmena piramidearen postu batzutan bilduko zen, berauek eskuratzea borrokagai bihurtu zelarik.

Gatazkaren gorabehera, aurrerago hobeto aztertuko dugula eta, alde batera utziko dugu. Baina bai esan nahi genuke denborarekin, krisialdi gogor guztien ostean bezala "urak arrastora sartuz" joan zirela, beti ere mugimenduari ezaugarri berriak ezarriz.

4.3. 1970.eko "LEY GENERAL DE EDUCACIÓN" ETA ESKOLA SISTEMAREN FINKAKETA

Ikastolen barneko legeztatzearen inguruko eztabaida eta gorabehera guztiak, hezkuntza sistematik bertatik zetorren beste erreforma haundi batek eranginda gertatu ziren, mugimenduari biziraupenerako beste egokitze berri bat derrigortuz eta proiektuari behin behineko finkotasuna emanez.

Erregimen frankistak, gerra hotzaren hasierak erreztu zion desblokeo politikoaren bitartez, garapen ekonomikorako abiada bereganatu zuen, Estatuaren antolakuntza eredu autarkikotik teknokratikora igaroz; "El modelo tecnocrático

441 LASPIUR, I. (1972): *Ikastola eta gurasoak*. in JAKIN (arg.): **Gure Ikastola**. Jakin Sorta, 6. Oñati. 81. orri.

suponía, de una parte, un intento de modernización del Estado, trasladando al sector público los criterios propios de la empresa privada –racionalidad y eficacia–; de otra un intento de eludir las consecuencias derivadas de la libertad política, implantando en su lugar la libertad económica"[442]. Makroegituraren aldaketa hauek gizarteko egituran beste aldaketa batzu eraginda, gizarte osoaren itxuraldaketa bideratu zuten, hezkuntza sistemari ere zegokion egokiera ezarri zitzaiolarik. Izan ere, Europan zehar, Bigarren Gerrate Haundiaren ostean eta Marshall Planen laguntzaren ondorioz heziketa oinarrizko eskubide bezala aldarrikatu eta garapen ekonomikoaren sinonimoa bihurtu bazen, fenomeno berdina suertatu zen Estatu Espainolean, 50.eko hamarkadan izan beharrean 60.eko hamarkadaren erdialdetik aurrera izanagatik. Ehun urte lehenago ezarritako Moyano Legearen mamiak oraindik arautzen zuen Estatu Espainoleko hezkuntza sistemaren hezurdura, eta ez zion inolaz ere erantzuten garapen ekonomikoaren epeari, hagitz diskriminatzailea eta sistema ekonomikoak behar zituen koadro teknikoen ekoizpenerako zeharo eznahikoa suertatzen baitzen. 1969.eko Liburu Zuriak grafikoki laburtzen zuen: "En resumen: de cada 100 alumnos que iniciaron la enseñanza primaria en 1951, llegaron a ingresar 27 en enseñanza media; aprobaron la reválida en bachillerato elemental 18, y 10 en el bachillerato superior; aprobaron el preuniversitario 5 y culminaron estudios universitarios 3 alumnos en 1967"[443].

Hezkuntza sistemak arrastaka zeramatzan zama guzti hauek goitik beherako berrantolaketa bat eskatzen zuten, eta 1970.eko "Ley General de Educación", hain zuzen ere, hutsune hori betetzeko ebatzi zen. Oro har, eta neurri konkretuei dagokienez, ondoko ezaugarri batzu azpimarratuko genituzke lege berri honetan:

a) Oinarrizko Heziketa Orokorra (O.H.O.) hamalau urtera arte derrigorrezko eta dohaineko ezartzen du legeak, ordura arteko eskola adina luzatuz eta heziketa lehenbizikoz dohaineko zerbitzu bezala hartuz. Honekin, Estatuak neurri hau gauzatzeko ahalegin ekonomiko guztien erantzunkizuna hartu behar zuen bere gain, legeak eskatzen zituen baldintzak bete ezkero zentruei finantziaketa politika indartsu batez erantzunez. Honek, berriz, badu bere beste aldea, zeren Estatuak bide ekonomikoak errezten zituenean, eskolen gaineko kontrol ideologikoa ere zorroztu egiten baitzuen (ikasketa plan bateratuak, irakaslegoaren baldintzak, testu liburugintza, eskolaren barne antolamenduen ezaugarriak...).

b) Eskola adina hamalau urtera arte luzatzean, hezkuntza sistemaren mailaketa ere aldatu zen. 1945.eko legeak, batxilergoa egiten zuten eta ez zutenen

---

442 PUELLES, M. (1980): **Educación e ideología en la España contemporánea (1767-1975)**. Labor. Bartzelona. 399. orri.

443 MEC: **La educación en España. Bases para una política educativa**, M. Puellesek aipatua, 416. orri.

arteko eskolatze urte kopuruen bereizketa ezabatuz, oinarrizko heziketa ziklo bakar bati eman zitzaion bidea, heziketa eskubidea aukera berdinetan zehaztu behar zelako printzipioa oinarri harturik. Puntu honetan, legeak heziketa eskubidea berdintzeko ahalegin nabaria egiten bazuen ere, ikasleak hautatzekoa ere egiten zuen, O.H.O. bukatutakoan ertainen eta lan heziketaren arteko bereizketaren bitartez.

d) Legeak, aurreko aldaketa mamitsu hauek aparte, hezkuntzaren edukiak eta planteamentu pedagogikoak ere aldatu zituen, sistema ekonomikoaren eraldaketak eskolan nolabaiteko liberalismoa sartzea eskatzen baitzuen. Honetarako, legea erredaktatu zituzten teknokratak estatuan gerraurretik zegoen tradizio pedagogiarekin bat egiten saiatu ziren, beti ere erregimenak ezartzen zituen muga guztiekin [444].

Lege honek Estatuaren osakuntzan zekartzan berrikuntzok, Euskal Herriko egoeratik nola irakurri behar ditugun galde genezake jarraian. Izan ere, Estatuaren eta periferiaren interesak kontrajarriak edo gutxienez desberdinak diren neurrian, gertakizun berdinak eragin desberdinak sortzen ditu, irakurle desberdinen arabera. Eta kasu hau ez da salbuespena. Gurera etorriz, lan honetan zehar azaldu ditugun hizkuntz eta hezkuntza zapalkuntzak jasaten zituen Euskal Herriari lege honek zeintzu ondorio zekarzkion erantzuteko, 1972.ean egindako "Irakaskintza sistema eta ikastolak" izeneko lana hartuko dugu[445].

Lan honetan, 1945.eko eta 1970.eko hezkuntza legeen azterketa sakona burutu ondoren, epe teknokratikoaren berrikuntzekiko lerro kritiko bi laburtzen ditu.

a) Batetik, Estatu Espainolak hezkuntzaren antolamenduan ezarritako zentralkeria: "Herri batetako zain kulturalak behin betikoz suntsitzeko taktikarik habilena zentralkeriaren politika praktikatzean datza"[446]. Egileek, estatuaren zentralkeria (geografikoki zein ikas-zentruen monopolioan iger dezakeguna) argudiatzeko, ikas barrutien banaketari baino ez zaiola so egin behar seinalatzen dute; esate baterako, unibertsitateari zegokionean euskal ikasleak Zaragoza eta Valladolideko barrutietan banatzen ziren eta Instituto Laboralei zegokienean

---

444 Puellesek bere azterketan, 1970.eko legearen eta "Instituto-Escuela" sortzen zuen 1918.eko maiatzearen 10eko Errege Dekretuaren arteko antzekotasunak eta berdintasunak taularatzen ditu, legean isladatzen zen izpiritu liberal hura Ginerren instituzionismoan oinarritzen zela argudiatuz. Ikus: PUELLES, M. (1980): **Educación e ideología en la España contemporánea (1767-1975)**. Labor. Bartzelona. 427. orri.

445 APALATEGI, J., ARISTEGI, L. M. eta IZTUETA, P. (1972): **Le système scolaire et les ikastolas**. argit. gabe. P. de Gaudemarrek zuzendutakoa. Paris. ("Espainiko irakaskintza eta Euskadiko ikastolak" izenarekin egileek beraiek euskaratuta).

446 Lan bera, 46. orri.

Kantauriko eta Ebroko bailaretan. Zentralkeriaren eskutik etorritako sakabanaketa politika hauetatik ondorio bi ateratzen ditu Iztuetak: batetik "Hego Euskadiri bere nortasuna kendu nahi zaio, Herria osatzen duten eskualdeen artean separakuntza bat ezarriaz"; eta, bestetik, "Hego Euskadi bere Herriko lurraldean ez baizik-eta Penintsulako mapan lekutzen da"[447]. Alegia, hezkuntza sistematik bertatik, orain arte taularatu ditugun deseuskalduntze eta nolabait naziogabetze estrategia guztiaz gain, bazegoen lurraldearen printzipioa zapuztera zuzendutako ikas barrutien banaketa, zeinaren bitartez euskal ikasleek diaspora bat osatzen baitzuten[448].

b) Bigarren kritika, legean antzeman daitekeen euskal kultura urtzeko joera batetan zehazten dute. Alegia, 1970. urterako estatuan zeuden errealitate periferikoen bultzada eta presentzia ukaezina izaki, hizkuntz aniztasuna teknokraten aldetik ere begi bistakotzat hartua izango da baina baita eraldatua ere. Lege berrian, "herritasunaren" kontzepturen arrastorik ere ez da aurkitzen, onartzen den herri bakarra Espainia baita, baina nazioen eta beroien hizkuntzen arazoari kale egiteko, "herri-hizkuntza"ren aukera zabaltzen da: "Beraz, "auniztasunaren" konplexotasuna Espainia-ko *errealitate sozialaren* kakoan zintzilikatzen da. Teknokratek ezin ukatu duten auniztasun hori nolabait politikoki gainditzeko, "herri-hizkuntza" izeneko formulari ematen diote leku Lege Berrian. Honela ofizialtasuna eman zaio herri hizkuntzari gai *hautagarri* bezala, edota gai ez debekatua bezala"[449]. Izan ere, Estatuak herri nortasuna eta lurraldetasuna (beraz,

---

447 Lan bera, 52-53. orri.

448 "Hori dela-ta, euskal estudianteak, ez baitaude bere lurraldean ikas zentrurik, han hemenka sakabanaturik dabiltza, herri girotik urrun, bakantzetan bakarrik inguratzen direla. Diasporako egoerak arras problematiko bilakatzen du herririk gabeko estudiante-multzoaren iraultza-indarra." APALATEGI, J., ARISTEGI, L. M. eta IZTUETA, P. (1972): **Le système scolaire et les ikastolas**. argit. gabe. P. de Gaudemarrek zuzendutakoa. Paris. ("Espainiko irakaskintza eta Euskadiko ikastolak" izenarekin egileek beraiek euskaratuta), 53. orri.
Estudianteen urruntze hau, euskal poemagintza sozialaren aintzindaria izan zen Gabriel Arestiren "Maldizio Betikoa" antzematen dugu: "Zuei/ Bartzelonako euskaldun/ unibersidade mutilok,/ egian dioxuet, / zuen artetik batek/ baldin eta esplotacen badu,/ hemendik hamar edo hiru urtera,/ beraren anaia/ obrero/ edo kontadorea,/ hori/ zuen arteko/ hori,/ nire maldiziorik borobilena-rekin/ hornituko dudala,/ sipula-sipulorum,/ mundu honetako/ puta/ semerik/ semeena/ bezala.

449 APALATEGI, J., ARISTEGI, L. M. eta IZTUETA, P. (1972): **Le système scolaire et les ikastolas**. argit. gabe. P. de Gaudemarrek zuzendutakoa. Paris. (azpimarratutakoa sorrerako testukoa da).
Legeak hizkuntzekin duen jokaeraren azterketaz jabetzeko ikus: URRUTIA, J. (1972): *Hizkuntzabitasuna legedi positibuetan*. in JAKIN (arg.): **Jakin Sorta 6**. Oñati. 139-160. orri. Adibide gisa, horra hor Legeak hizkuntzei buruz egiten dituen zenbait aipamen.
"La educación Preescolar comprende juegos, actividades de lenguaje, incluídas en su caso las lenguas nativas, expresión rítmica y plástica, observaciones de la naturaleza, ejercicios lógicos y prenuméricos, desarrollo del sentido comunitario, principios relijiosos y actitudes morales (II. Kap.,14. artk.).
"Las áreas de actividad educativa en este nivel comprenderán: el dominio del lenguaje mediante el estudio de la lengua nacional, el aprendizaje de una lengua extranjera y el cultivo, en su caso, de la lengua nativa; los fundamentos de la cultura religiosa; el conocimiento de la realidad del

herri eskubideak) aipatu gabe hizkuntz periferikoei irtenbidea ematen die norbanakoek, nahi balute, ikasteko daukaten eskubidean oinarriturik. Era honetara, elebitasunaren planteamentuarekin ikastolak bezalako gertakari sozialak neutralizatzen saiatzen dira, edo egileen hitzetan "asimilazionismoaren politika zuhurraren zepoa axaleko liberalismoaren aitzakitan"[450].

Testuinguru honetan bakarrik uler daiteke oligarkia españolzalea eta frankistaren "El Correo Español. El Pueblo Vasco" egunkarian "El Euskera Hoy"[451] izeneko monografiko bat argitaratzea, beti ere Bilboko alkatesa zen Pilar Careagak egiten zituen zehaztasunen ildotik:

> "El regionalismo es un tema muy importante. Todos somos amantes de nuestra región, siempre bien entendido dentro del marco de la inquebrantable Unidad Nacional a la que pertenecemos.
>
> Soy partidaria de una enseñanza bilingüe, allí donde sea necesaria, pero siempre como conservación de una riqueza cultural que no debe perderse, sin que se mezclen ni infiltren posibles planteamientos políticos. Hay que distinguir entre conservación de la lengua vascuence, y el montaje político con que a veces se pretende rodearla"[452].

Artikulu hauek, gure ustez, frankismoa hizkuntzaz egiten hasi zen planteamentuen argibide baliotsua da: "El vascuence es una perla preciosa, única en su especie", "Ha habido y hay fenómenos muy raros, sobre todo en los pueblos primitivos. Me refiero concretamente al bersolarismo vasco" "El bersolari de la taberna, de la plaza ha saltado a los teatros (...). He aquí dos versolaris, uno vizcaíno y otro francés, en el encuentro Vizcaya-Francia el año pasado en la villa foral"..... Juan de Arosteguiren artikuluan euskararen desagerketaren arrazoiak ere azaltzen ditu: " Quizá una de las causas sea la cortesía y buena voluntad del

---

mundo social y cultural especialmente referido a España; las nociones acerca del mundo físico, mecánico y matemático; las actividades domésticas y cuantas otras permitan el paso al bachillerato" (II. Kap., 17. artk.).

450 APALATEGI, J., ARISTEGI, L. M. eta IZTUETA, P. (1970): **L´enseignement en langue basque**. argit. gabe. P. de Gaudemarrek zuzendutakoa. Paris. 55. orri. Egileak, zorroztasunez, urte batzu geroago gertatuko zenaren salatari agertzen dira lan honen bukaeran. Alegia, estatuaren aldetik fenomeno herrikoiak ziren ikastolak berengatzeko saioa, elebitasunezko planteamentuak zirela medio. Gai honek berebiziko gaurkotasuna duela uste dugu, batez ere elebitasunezko hezkuntza ereduek, hamar urte eta gero, euskalduntzeko balio dutelako baieztapena kinka larrian dagoenean, eta, arrazoi psikolinguistiko batetatik abiatu zena Estatuaren funtzio ideologikoa betetzeko ez ote zen ezarri zabaldutako susmoa denean.

451 ELKARLANEAN (1971): *El Euskera hoy*. El Correo Español. El Pueblo Vasco, 1971/9/12. Gehigarri honetan ondoko artikuluok aurki ditzakegu: ZARATE, M. *Literatura euskerica*; BARAYAZARRA, L. *El vascuence en la comarca de Marquina*; ONAINDIA, S. *El fenómeno del bersolarismo vasco*; MUÑOYERRO, J.L. *La Academia de la Lengua Vasca*; ZAVALA, B. *Extensión y situación del vascuence*; MERINO, J.B. *El vascuence en la Rioja y Burgos*; AROSTEGUI, J. *El vascuence, aquí y allá*; ARTECHE, J. *El euskera y nuestros hombres universales*; ARENAZA, J.M. *Problemas del euskera, unificación y enseñanza*; MUNITIBAR *Euskerazaleak, Asociación para fomento del vascuence.*

452 GOENAGA, P. (1975): *Bilinguismoa dela eta zenbait gogoeta*. **Zeruko Argia**, 630-31.

vasco. En cuanto en un grupo hay una persona que no lo sepa, se habla el común de todos y así incluso los vasco parlantes lo vamos olvidando. (...). Los dialectos que enriquecen una lengua quizá sea en el euskera una de las causas que influyan en su práctica nula. En Las Arenas, las añas vascongadas en el paseo de Zugazarte tenían que hablar castellano para entenderse, no se arreglaban en euskera". Buru arina benetan Arosteguirena, berak ordezkatzen zuen errejimenaren legeen aipamena ere egiten ez duenean!.

4.3.1. 1970.eko Legearen eraginak ikastolen mugimenduan

Zalantzarik gabe, derrigorrezko heziketa hamalau urtera arte hedatzeak inbertsio haundiak eskatzen zituen neurria zen, baita zeuden zentru guztien birmoldaketa eta berrantolakuntza ere, eta honek bete betean harrapatu zituen legez bestaldeko hamar urteko ibilbidea zuten ikastolak. 1970.eko legeak gainontzeko zentru guztientzat aldaketa haundia suposatu bazuen, zer esanik ez lege baldintza minimoak ozta ozta eskuratzen hasten ari ziren ikastolentzat.

Legearen indartzearekin, ikastola gehienak agindutako baldintzetatik kanpo gelditzen zirela ikusirik, ikastolen mugimenduaren antolamenduan jauzi kualitatibo haundi bat eman beharra planteaitu zen: "Problema latza zetorrela ikusiaz, Ikastolen Elkartea ahal zuen argia eskaintzen arduratu zen. Ikastolen eginbeharra, seitik hamalau urte bitarteko horretan ikusten da, batez ere: hau da, Ikastolak Oinarri Hezibidea emateko antolatu behar dira"[453]. Honetarako, eta oso epe laburrean, zentruen kalifikazioa lortu beharrean aurkitu ziren ikastolak, hau da, Oinarrizko Heziketarako Zentru bezala sailkatuta agertzea. Legeak, kalifikazio hau eskuratzeko ezartzen zituen baldintzak, egia esan, nahiko gogorrak ziren ikastola txikientzat (ikasle bakoitzeko 4,3 metro karratu, eta urteroko matrikulazioa 35-40 ikaslekoa izatea, besteak beste), eta federaziotik gutxienekoa ez zeukaten ikastolak batzeko plan oso bat burutzearen proposamena irten zen. Ordutik aurrera, legeak agintzen zuenera egokitzera bideratu ziren ahalegin guztiak, horretan ikusten baitzen ekinbide posible bakarra.

Oro har, 1970.eko legearekiko egokipenek ekarri zituzten aldaketa kualitatiboak atal desberdinetan bereiz genitzake: azpiegituran, eta irakaslegoan.

---

453 ANSA, J. (1972): *Ikastolak eta Espainiako Irakaskintza Legea.* in JAKIN (arg.): **Gure Ikastola**. Jakin Sorta, 6. 162. orri. Artikulu honetan, legearen eraskinen berri ematen zaigu: B.O.E., 1971/2/20: ikastetxe berrien baldintzak; B.O.E., 1971/7/1: O.H.O.ko zentru bezala kalifikatzeko baldintzak; B.O.E.,1971/7/19: O.H.O.ko zentru berriak zabaltzeko baldintzak; B.O.E., 1972/1/12: O.H.O.ko zentrua bihurtzeko baldintzak;

4.3.1.1. Azpiegitura

Legeak eskatzen zuena betetzeko, ikastoletan azpiegitura moldatzea zen lehenengo urratsa, hau da, ordura arte zeuzkaten utzitako edota alokatutako egoitzak eraikin berrietan bihurtzeko derrigortasuna. Honetarako, informazioa zabaldu, ikastolak elkartzeko aukerak neurtu eta "klasifikazioa eskatzerakoan eta etxe berriak antolatzerakoan behar ziren diruak osatzeko bide egokienak bilatzeko"[454] batzorde berezi bat izendatu zen.

Une honetatik aurrera, eraikin berrien eraikuntza epe bati ematen zaio hasiera ikastolen mugimenduan. Finantziaketa zamatsu bati aurre egin behar eta, ikastolek, federaziotik operatibizatzen zenaz lagunduta, Lankide Aurrezki Kutxarekiko harremanetan hasi ziren, legeak eskatzen zituen baldintzak betetzen zituzten eraikinak eraiki nahiean. Lankide Aurrezkiak 1972.etik aurrera ikastolen inguruan sortzen ziren arazoak bideratzeko sail bat eratu zuen: "Lan Kide Aurrezkia ohartu da, euskalgintzak orokorki eta ikastolak bereziki, departamentu propio batentzat hainako nahiko zeregin ematen dutela, eta are gehiago eman dezaketela baldin aukerako bideak eskaintzen bazaizkie. Honelatsu, Ikastolen Departamendu delako bat sortu berri da..."[455], bertan lau atal nagusi bereizi zirela:

a) Kudeaketa Zerbitzuak. "Behar hainbat informazioa eskaintzeaz gainera, gestiolari bati dagozkiokeen arazo guztien laguntza eman, baimenak lortarazi, aholku lana, norabideak, tokian tokiko jokaerak eta ahalmenak.."

b) Administrazioa. "Ikastola barruko egitura batzu moldatu. Elkar tipifikazio bat aztertu. Kontabilitate plangintza bat burutu..."

d) Pedagogia saila.

e) Testugintza

Lankide Aurrezkiko sail hau Xabier Pagaldai eta Mikel Lasaren ardurapean egon zen, eta bertatik ikastolek aurkezten zituzten eraikuntza asmoak aztertu, bideragarritasun plana zehaztu, Madrilen 1970.eko legera egokituz gero ematen ziren diru laguntzak eta maileguak ziurtatzen saiatu eta proeiktuak martxan jartzen ziren.

---

454 ANSA, J. (1972): *Ikastolak eta Espainiako Irakaskintza Legea.* in JAKIN (arg.): **Gure Ikastola**. Jakin Sorta, 6. 164. orri. Ildo beretik ikus: AURTIZ (1972): *Ikastolei buruz hitz bi (I eta II)*. **Zeruko Argia**, 476-478. Artikuluen egileak, ikastoletan ordura arte zegoen boluntarismoa "jadanik ez da aski" eta planifikazioaren beharra azpimarratzen du: "Laguntza planifikatu, batzorde baten bidez. Batzorde honek premia gorrienak non diren, lehenengo eskema piramidal bat kontuan harturik nora eraman behar diren eta abar inork baino mila bider hobeki jakinen bailuke".

455 ARANBERRI, L. A. (1975): *Euskalgintzaren gestio orokorra*. **Zeruko Argia**, 665.

Eraikuntza politika honen bidez, ikastolak irakaskuntz kooperatibaren figura legala bereganatu zuten, hezkuntza proiektu soila zena jabego materialez hornitu, eta baldintza ekonomiko eta legalei erantzun ahal izateko beste herrialdeetako federazio berriak sortu ziren. Aldaketa hauek era berean egituraketan bere eragina izan zuten, hau da, ordura arte ikastolek "egitura sinpleekin" funtzionatu bazuten, momentu honetatik aurrera eginkizunek lanaren banaketa, espezializazioa eta profesionalizatzea indartu zituzten, ikastoletako egile sozialeen partaidetza gehiago zatikatuz eta hierarkizatuz. Gauzak horrela, Gipuzkoako federazioaren eredua besteetara zabaldu eta, guztien gaineko beste egitura bat sortu beharrez, Euskal Herriko Ikastolen Konfederazioa ere eratu zen.

Mugimenduaren barruko egituraketa eta instituzionaltzea ematen ari zen bitartean, herriarekiko bultzada haundi bat ere suertatzen hasi zen, zeren, eraikuntza berriek eskatzen zuten diru kopuruaren zati bat bankuetako maileguen bitartez lortuagatik, beste zati bat gurasoek lortu behar baitzuten. Dirua lortzeko mobilizazioak ugaritu eta "ikastolen aldeko egun" zehatzak jarri ziren (Kilometroak, Araban euskaraz, Nafarroa Oinez, Ibilaldia eta Herri Urrats), bertan milaka pertsonak parte hartu eta oraindio hartzen dutelarik. Beraz, mugimenduaren finkaketa eta normaltzea bideratutako eraikuntza epe honek ikastolei egituraketa, instituzionaltzea eta hierarkia ekarri bazizkien ere, egia da izaera hori eskuratzeko oinarri garrantzitsuenetako bat garatutako herriarekiko "sintonia" eta adostasuna izan zirela. Alegia, ez dago ikastolen finkaketa ulertzerik euskal gizartean irabazitako begirunea eta laguntzarik kontutan hartu gabe, mugimenduak behar beharrezkoak zituen elkartasun afektibo eta ekonomikoa milaka eta milaka pertsona anonimoengandik eskuratu baitzituen.

Beraz, epe berri honetan legeak ezarritako baldintzak betetzeak mugimenduari azpiegitura sendo batez janztea eskatzen zion heinean, desafioari aurre egin eta bilakatze haundi bati ekin zitzaion, non gurasoen partaidetza eta herri ekinema funtsezkoak izan baitziren.

4.3.1.2. Irakaslegoa

Ikastolen normaltze epe honek irakaslegoari eragin ziona ulertu ahal izateko, aurrerago aztertuko dugun gatazkaren giltzak ezagutzea derrigorrezkoa dugu, krisi honek sorturiko egoera berriak zeharo mugatu baitzuen handik aurrerako partaidetza eredua. Federazioa eratu osteko guraso eta irakasleen arteko hausturari 1970.eko legeak agintzen zituen baldintzen ondorioak gehitu behar dizkiogu, normaltze prozesua irakaslegoarengan nola gauzatu zen ulertzeko.

Lehenengo eta behin, legearen araberako zentruetan irakasleek tituludonak izan behar zuten, titulogabeak eskolaurrean irakasten gelditzen zirelarik: "Las

nuevas exigencias legales de los años 70, así como el auge de los estudios de Magisterio en nuestro país hace que el nuevo profesorado contratado para dar clases en EGB-OHO, sea profesorado titulado y sin experiencia que ha realizado sus estudios en castellano, quedando el profesorado sin titulación en el Preescolar-EA"[456]. Konponketa hau, baina, behin behinekoa zen, urte batzu beranduago, 1980.ean, titulogabeko irakaslegoari behin betiko irtenbidea emateko neurri batzu hartu baitziren (tituluak lortzeko plan bereziak Bergarako UNEDen eta Eskoriatzako Maisukuntza Eskolan, E.A.rako diplomaturak...)[457].

Beraz, ikastolaren normaltze honetan, irakaslegoari dagokion lehenengo aldaketa titulatze prozesu luze bat izan zen, haren eraginez estamentu bezala gero eta profesionaltze joera haundiago batez agertuz. Gurasoak, ikastoletako jabegoa, kudeaketa eta kontrolaren erantzule bihurtzen joan ziren heinean (eta horretarako propio sortutako erakundeak zeuzkaten, federazioak), irakaslegoa profesionaldu eta bere beharrei erantzuten zien egituraz ere baliatzen hasi zen (Irakasleen Elkartea –1976– eta lehenengo sindikatuak[458]). Gainera kontutan har dezagun irakaslegoari egoera berri honetan lan baldintzak hobetzeko beharra ere sortu eta lehenego istiluak azaldu zirela[459]. Beste era batez esanda, eskolaren barruko funtzioak espezializatu eta zatikatu egin ziren, antolamenduz egitura piramidalago bat ezarriz. "Lo que en un comienzo fué el fruto del esfuerzo de amplios sectores populares, va adquiriendo entidad jurídica en forma de cooperativa, de S.A., o de otro tipo, dependiendo cada vez más del estatuto de la enseñanza privada. El profesorado deja de ser la persona voluntariosa, sacrificada, abnegada, nada

---

456 BASURKO, F. (1989): La normalización de la ikastola: breve historia y estado de la cuestión de la escuela pública vasca. **Historia de la Educación**, 8. Salamanca. 145. orri.

457 Felix Basurkok, aipatutako artikuluko 146. orrialdean ondoko neurriak seinalatzen ditu:
"1.- La provisión del nuevo profesorado se realizará mediante concurso-oposición público a instancias de las ikastolas y a convocatoria del Gobierno Vasco.
2.- Se inicia a través de la UNED de Vergara y de la ikastola de Eskoriatza un Plan de Emergencia dirigido a tales irakasles y andereños con el fin de lograr intensivamente el Acceso a la Universidad y la Diplomatura de Magisterio.
3.- Ante la dificultad de reciclar por cuestiones de edad u otros motivos a un elevado número de andereños que venían ejerciendo en la ikastola, se realiza un nuevo plan para dotarles de un Diploma que les permita ejercer en Preescolar-EA.
4.- Todo viene a completar la iniciación de las enseñanzas de Magisterio en Euskara en las EEUU que permite la selección de profesorado titulado que ha realizado sus estudios en euskara"

458 UGALDE, M. (1976): Irakasleen Elkartea. **Zeruko Argia**, 677. ; OLAZABAL, K. (1976): Euskal Herriko Irakasleen Sindikatu baten atarian. **Zeruko Argia**, 686.

459 Ikastolen normaltze dinamika horretan, lan baldintzak hobetzearen eskakizunak (ordura arte irakaslegoaren lan baldintzak militantismoaren esparruan sar genitzake eta) agertu ziren lehenbizikoz, mugimenduaren barruan kontraesan haundiak azaleraziz. Izan ere, irakasleak langile sentitzen hasi ziren, baina era berean, soldaten igoera eta aseguratzea eskatzean, diruz soberan inoiz ez zebilen herri proiektuari eskatzen ziotela ikusten zuten.
Langile kontzientziaren garapenaren inguruan ikus: UGALDE, M. (1975): *Irakasleak morroi*. **Zeruko Argia**, 628, UGALDE, M. (1975): *Ikastolak non?*. **Zeruko Argia**, 629, eta UGALDE, M. (1976): *Irakasleen eskubideak*. **Zeruko Argia**, 675. Baita ere, ARGIA, Z. (1975): *Irakasleak ere tirabiran*. **Zeruko Argia**, 628.

exigente en lo que a sus derechos se refiere, y comienza a tomar conciencia de su condición de trabajador de la enseñanza, cada vez más sujeto a la normativa vigente en la enseñanza privada"[460].

Sindikalgintza eta langile kontzientziaren sorrera da, gure ustez, ikastolen antolamenduaren aldaketaren seinale esanguratsu bat, gurasoen eta irakasleen arteko muga eta erabateko bereizketa adierazten duen datua hain zuzen. Ikastolak estamentu baten hondasun gisa agertzen zaizkigu, bertan planteatzen den asmoa gauzatzen duten profesionalak entrepresa batetako langileak direlarik; sindikalgintzaren zergatiak horretan aurkitu behar ditugu, langile eskubideen defentsaren isladan, baina langilea lan indarra saltzen duen pertsona bezala definitu ezkero saltzeko inor ere behar dugu, eta gure kasuan gurasoak dira erosleak.

Aldaketa honekin batera ikastolen federazioari behin baino gehiagotan atxiki zaion kritika aurkitzen dugu, alegia, ikastoletan ikuspegi ekonomizista nagusitzearen erantzunkizuna:

> "Badirudi nolabait ikuspegi ekonomizista bat indartzen ari dela ikastolen mugimenduan. Ikuspegi honen arabera, inplizituki bederen, ikastolen funtzio ekonomiko--teknikoari ematen diote lehentasun osoa.
>
> Beren diskurtso ideologikoa apur bat edo asko sinplifikatuz, ikastolak lan indarra birproduzitzeko lirateke. Lan indarraren birproduzio honetarako beharrezko dira gero eta etxe hobeagoak, liburutegi, laboratorio eta deporte leku ederragoak. Irakasleek, beren lan indarra, beren irakasteko ahalmena dute soilik, kooperatiba edo enpresa batetan tornero batek duen bezala. Eta lan merkatuko legeen arabera soldata bat jasoko du ordainetan"[461].

Ez da garraztasunik falta lerro hauetan, ez. Normaltze eta instituzionaltze prozesuek ekarritako zabalkunde eta finkotasuna ez zen mosu truke izan, ordain altukoak baizik.

4.4 . IKASTOLAK ETA GATAZKA IDEOLOGIKOA

Dokumentu urritasuna dela medio, ikastolen mugimenduaren historia ezagutzeko, ahozko metodologia erabiltzera jo behar izan genuen arren, badago ibilbide honetan dokumentazio idatzi ugari duen garai bat. Hain zuzen ere, ikastolen barruan gatazka ideologikoa nabarmenki hasten denean. Garai honetako euskal aldizkarietan (Zeruko Argia, Anaitasuna, Agur, Goiz Argi..), ikastolen helburu eta izaerari buruzko artikulu polemiko eta kontrajarriak agertzen zaizkigu, nonbait mugimenduaren barruan kontrola eskuratzeko lehian

---

460 GARIN (1978): *Las ikastolas como indicador de un pueblo*. **Cuadernos de Pedagogía**, 46. 54. orri.

461 AGIRRE, J. A. (1977): *Ikastolak enpresa ote?*. **Zehatz**, 2.

zeuden indarren ispilu gisa har ditzakegunak. Honengatik, iturri hauek erabilita, gatazkaren ildo nagusiak jorratzen saiatuko gara hausnarketaren azkenengo atal honetan, gure ustez, krisi hau ulerturik, ikastolen instituzionaltzearen abiapuntuaren nolakotasunean ere sakonduko dugulakoan baikaude.

Dena den, jarraitu baino lehen zera azpimarratu nahi genuke: lortu dugun dokumentazioan sektore batek plazaratutako eritzien kopurua (Elizaren, edota esparru tradizionalena) oso ugaria zen bitartean, bestelakoena nahiko urria izen zela. Arrazoia nahiko sinplea da; 70.eko hamarkadaren hasiera honetan ezkerreko adierazpen guztiak, debekatuta zeuden neurrian, zigorraren mehatxupean zeuden eta komunikabide batetan agertzea zaila eta arriskutsua zen. Honengatik, klandestinitatean zeuden sektore hauen ekarpena, gure susmoen arabera nahiko aberatsa izan arren, ez da bere osotasunean isladatzen testu idatzietan eta tratamentu berezituago beharko luke.

4.4.1. Ikastolen borroka eremu nagusia: Estatuarekiko gatazka

Dudarik gabe, ikastolek jasan duten presiorik haundiena Erregimen frankistatik etorritakoa izan zen, hau da, lehenengo kontraesana Estatu eta periferiaren artean kokatu beharrean gaude. Izan ere, Estatu Espainolak bere finkapenerako tresna batzu –tartean hezkuntzarekin lotutako tresnak– erabili zituen heinean, periferiak ere erresistentziarako erantzun desberdinak sortu zituen, frankismoaren garaian eta hezkuntzaren esparruan, nagusiena ikastola dugularik. Euskal hezkuntzan azaleratutako kontrola eta gatazkaren binomioa, ordea, ez da berria: "La observación del problema educativo vasco en una perspectiva histórica y sociológica, nos permite detectar la permanencia de un conflicto y de los juegos de poder actuantes para controlar los diferentes niveles de enseñanza. Cuando hablamos de problema vasco en educación nos estamos refiriendo a la existencia de un conflicto, a través del cual se expresan las características diferenciales del País Vasco en puntos referentes a la lengua y a la cultura, con sus correlatos sociales y educativos en cuanto a los enfrentamientos, resistencias, crisis y luchas que, la defensa de dichos aspectos fundamentales de un pueblo, ha encontrado en instancias ajenas y exteriores o interiores al País Vasco"[462].

Beraz, ikastolak Estatuarekin dauka lehenengo gatazka maila, eta honek baldintzatuko ditu barne zein inguruan azalerazten diren beste gatazkak. Honexegatik, gure gaiari gagozkiola, lehenengo eta behin Estatuarekiko harremanaren ibilbidea aztertuko dugu, baita frankismoaren garai honetan harreman honek ezarri zituen aldaketak eta baldintza berriak ere.

---

462 DAVILA, P. (1988): El "Problema Vasco" en educación: conflicto y control en la enseñanza en el Pais Vasco. **Control y Poder**, 1.

Frankismoren lehenengo garai autarkikoa, ikusi dugun bezala, euskara eta euskal kulturaren adierazpen guztien ukazio eta errepresioaz (Estatuaren aparailu ideologiko zein errepresiboen bidez) ezaugarritu bagenuen ere, garapen ekonomikoak bideratutako epe teknokratikoak maila batzutan itxurazko irekitasuna emateko beharra inposatu zuen, Euskal Herriak koiuntura hori adierazpen kulturalak bilakatzeko erabili zuelarik. Estatuaren diskurtsoak, ordea, ez zuen euskal errealitatea ontzat hartzen, baizik eta errealitate horiek itxuraz aldatzera abiatzen zela esango genuke. Era honetara, Estatu barruan zeuden nazio desberdinen adierazpen kulturalak "Espainiaren altxor kulturalaren" seinaletzat hartu ziren, horiekiko jarrera kontserbatzaile eta sasipaternalista burutzen zutelarik (gogora dezagun El Correo Español egunkariak plazaratutako "El vascuence hoy" delakoaz esandakoa).

Hala ere, irekitasun hau ez zen inolaz ere borondatearen ondorioa, Estatuaren legitimaziorako tresna bat baizik, eta azaleko diskurtso zabalagoarekin batera azpiko errepresio sistematikoa (irakasleen fitxak, mihaketak...) aplikatzen zela azpimarratu behar dugu. Izan ere, Estatua ikastolekin etengabeko kontraesan baten aurrean aurkitzen zela esango genuke. Batetik, fenomeno kultural horiek onartu eta nolabaiteko ekintza esparrua eman behar zien, epe teknokratikoa itxuratzeko; baina bestetik, irekitasun horretatik Estatua bera kolokan jartzen zen. Beraz, Estatuak periferiaren adierazpen diferentziala bere legitimaziorako behar zuen, era berean erreprimitu eta kontrolatu beharra zuelarik. Ikastolek kontraesan hori bere alde erabili zuten, gero eta finkotasun haundiago bat eskuratzen zuten bitartean: "Le régime se trouve ainsi pris dans la contradiction qu´enferme sa prope position, puisque d´une part il doit réprimir tout dévelopement de la culture basque, mais il ne peut pas utiliser les mémes méthodes brutales qu´avec les organitations politiques et syndicales clandestines, parce que cela équivaut à mettre en évidence devant tout le peuple la fausseté de ses déclarations de bonne volonté en vers la langue et la cultura basques"[463].

Estatuak euskal kultura eta euskararen esparruan zeukan kontraesan honen gerizpean hazi eta hedatu egin ziren ikastolak. Elkarrizketetan zehar, Estatuaren zirrikitu guztiak aprobetxatuz lortu zen tamaina aipatzen da, zabalkunde honek nolabait ikastolen mugimenduaren "segurua" suposatu zuelarik. Egia esan, gobernuak bapatean agertu zitzaion mugimendua eragozteko, ezin zuen indarra erabili, ezin zituen milaka ume eskolaratzen zituen zentru haiek besterik gabe itxi, baina bai zeukan, nabarmenki, kontrolatzeko gero eta behar haundiagoa.

Une honetan markatu zen, agian, ikastolekiko jarrera aldaketa, erregimenak ezin baitzuen onartu eskola hauek hezkuntza sistema ofizialetik kanpo hazten

463 APALATEGI, J., ARISTEGI, L. M. eta IZTUETA, P. (1970): **L´enseignement en langue basque**. Argit. gabe. P. de Gaudemarrek zuzendutakoa. Paris. 9. orri.

jarraitzea, eta kontrolatzeko estrategiari ekin zion legeztatze prozesuak, bide desberdinetatik, derrigortuz. Era honetara, Estatuak eskua sartu zuen ikastolen esparru ideologiko zabalean, irakaslegoaren titulazioa eta ikasketa plan konkretuak ezarriz. Bertan dugu, beraz, urtze saio nabaria, euskarazko irakaskuntza onartuagatik Villalongak gerraurrean salatzen zuen "naziotasunez hustutako" irakaskuntza bideratzeko saiakerari aukera eman baitzitzaion. Hemen dugu sare paraleloa kontrolatzeko lehenengo urrats garrantzitsua, alegia, proiektua aurrera ateratzeko mekanismo propioak "ofizialtzeko" ahalegina, boterearen bideetatik sartzeak zekarren zama ideologiko guztiarekin.

Legeztatzeak ikastolei ezarritako egoera berriaz gain, badaude proiektu honen kontra antolatzen diren beste era batetako ekimenak, tartean propaganda plazaratu nahi dugularik. 70.eko hamarkadaren erdialdean kaleratu eta zabaldu zen "Ikastolak. Todo sobre las ikastolas"[464] izeneko koadernotxoak frogatzen digun bezala, egitura desberdinetatik zetozen neurri mugatzaile eta kontrolatzaileaz gain, badaude ikastolen "propaganda txarra" egin nahi dutenak ere:

> "Las ikastolas se han multiplicado en los últimos años en la Región Vasco-Navarra. Nos parece muy bien la difusión de nuestra lengua, pero lo que ya no nos parece tan bien y lo reprobamos con toda la fuerza de que somos capaces, como vascos amantes de nuestra tierra, es que bajo el pretexto de la enseñanza del euskera se les inculque a los niños el odio y la aversión a todo lo relacionado con el resto de la nación" (3. orri.).
>
> "Como denominador común de todas las ikastolas se puede citar, la falta de titulación pedagógica del profesorado en general, control del mismo por elementos de ideología marxista y como consecuencia de ello la baja calidad de la enseñanza que se imparte en estos centros"(5. orri.).
>
> "Teniendo en cuenta que la subversión es toda acción encaminada a destruir la Unidad de la Patria, subversivas son todas aquellas ikastolas en las que se les enseña a los niños el odio a todo lo español, bien sea impregnado de un cariz ateo, apolítico, separatista, marxista o terrorista" (6. orri.).

Koadernotxoaren sorburua ezagutzen ez dugun arren, Bizkaia eta Gipuzkoako ikastoletako partaideen artean oso ezaguna izan omen zela ohartu gara. Orrialdeotan zehar sartu nahi den mezua, labur labur, zera izango litzateke: ikastoletan Espainiaren batasunaren kontra ari diren indarren bilgune bat izanik, horren kaltea jasaten dutenak ezjakinean dauden irakasleak, defentsa gabeko ikasleak eta dirua inozoki ematen duen Estatua direla, eta etsaiak "PNV-EGI (separatistas), ETA (Marxistas-ateos) y Clero separatista vasco" direla. Argi somatzen da, ostera, Estatuaren kontroletik ihes egiten zuen gertakari sozial hau sektore atzerakoien ikusmiran zegoela, eta gizartean haren kalterako irudi txar bat zabaldu nahi zela.

---

464 IZENIK-GABE *Ikastolak. Todo sobre las ikastolas*. izeneko argitalpena 39. orrialdetako koadernotxo bat da, egilerik eta datarik gabekoa, baina nahiko ezaguna izan zena (batez ere ikastoletan mugitzen zirenen artean).

Laburbilduz, ikastolek historian zehar Estatuarekiko kontraesan eta gatazka dinamika batetan bizi behar izan dute, hauxe bere ezaugarri nagusietako bat izanik. Hala ere, Estatuarekiko etengabeko gatazka honek beren baitako kontraesanak ere areagotu egin zituen, une konkretu batzutan barruko tirabirak azaleratuz, horietatik zakarrenetako bat legeztatze eta instituzionaltze prozesuen eskutik etorritakoa izan zelarik.

4.4.2. Ikastolen barruko gatazka

Gaiarekin jarraitu baino lehen ñabardura bat egin nahi genuke, alegia, ikastolen barruko gatazkak gure lanean tratamendu espezifikoa eta zabala izateak ez du inolaz ere esan nahi mugimenduaren barruan egondako kontraesanik garrantzitsuena horixe denik. Are gehiago esango dugu, ikastolek historikoki izan duten kontraesan eta indar tentsio gunerik garrantzitsuena Estatuarekiko harremanetan kokatu behar dugu, eta bertatik etorri zaizkio oztopoak, debekuak, eragozpenak[465] eta gatazka nagusia. Hauxe da, eta ez bestea, ikastolen benetako gatazka eremua eta beraien sorreraren arrazoi nagusia, Estatuarekiko gatazkarik gabe ez baitzitezkeen ikastolak sortuko. Hau oso kontutan edukitzekoa dela uste dugu, gatazkaz hitz egitean ez baitugu begirada inondik ere desbideratu nahi.

Ikastolen gaian, komunikabide idatziei dagokienez, aldaketa haundi bat somatzen dugu 1969.etik aurrera. 60.eko hamarkada osoko euskal prentsa aztertu arren, data honetara arte ikastolek, nahiz eta gizartean goruntzko joera eduki, prentsa idatzian toki berezirik ez zeukatela ikusi dugu. Are gehiago, gelditzen den dokumentazio idatziak ematen digunari soilik jarraituz oso zaila litzaiguke ikastolek gizartean zuten benetako pisua taxuz ebaluatzea.

1969.ean, eta batez ere 1970.ean zehar ikastolak komunikabide idatzietara taularatzen dira, eztabaida bizi, tirabiratsu eta, momentu batzutan, zakar baten ikusmiran agertuz. Hastapenetan zegoen legeztatze prozesuak zer esan asko ekarri omen zuen euskal gizartean, Zeruko Argian bertan 1970.ean gai honetaz argitaratu ziren 43 artikuluek adierazten diguten bezala. Giro nahasia, beraz, ikastoletan loratzen hasi zena: "Aspaldi hontan artikulu ugari irakurri dugu ikastolei buruz; ahopeko mintzaldietan ere ez dator antzuago gai hori. Problema latza eta adar askotakoa benetan, bere mamia lerro batzuetan eman nahi izateko, nahiz bat uste handikoena izan. (...). Aski dugu artikuluren batzuk irakurtzea edo ikastolen bideak "zuzentzen" hasi direnen jokabideari begiratzea"[466].

---

465 1975.eko Udaberrian oraindik, El Correo Español egunkarian honelako izenburuko berriak aurki daitezke: "Cinco detenciones en Guernica por propaganda ilegal y enseñanza separatista-marxista".

466 AMUNDARAIN, D. (1970): *Ikastolak, prolema latza (I)*. **Zeruko Argia**, 370.

Ahopeka eta mahai gainean ere zebilen gaia, ordea, argudio desberdinekin jantzita agertzen zen. Baina, gure aburuz, abiapuntua eta beste guztien hezurdura izan zena, Ugartek Anaitasuna aldizkarian azaldutako "Ikastolak norenak diren" galderan laburbil daiteke. Izan ere, Gipuzkoako ikastolak legeztatzeko Elizaren babesean sartu eta Gipuzkoako Ikastolen Federazioa eratu zen momentutik, funtzionamendurako alderdi nagusi batzu ezarri ziren, hauetako batek horrela zioela: "Federazioa gurasoek osatzen dute soil soilki". Ikastolen "erakunde" bat sortu zen unean partaidetza gurasoengana mugatzeak gerraurreko euskal eskolaren ereduaren ezaugarri nagusia berreskuratzea suposatu zuen, eta ikastolen mugimenduak 60.eko hamarkadan bilakatutako partaidetza ereduarekiko "handicap" nabari bat. Gurasoen erabateko eskubideen bozeramaletako batek, era berean Elizak ezarritako ikastolen ardurarako Lasa Kalongeak horrela esplikatzen zuen:

> "Argi! Jakina. Nolaz ez bada? Ala izan behar. Ikastolak, 'pribatu eskolak', gurasoenak diranez, nola ez da izango Federazioa gurasoena?
>
> Baina orrek ez du esan nai beste inork parterik ez duanik Federazioaren barnean, edo gurasoak bere laguntzailetarako norbait aukeratzea pentsatu dutelarik, edo beren ordezkaritza norbaiten gain jarri dutelako, edo onelako beste zerbaitgaitik.
>
> Beti, ordea, irakasleak ontzat emango dituzte gurasoak arturiko 'goiko balore ta lerroak' ikastolari buruz.
>
> Ori mugitu ezineko printzipioa da."[467]

Hitzok ikastolen mugimenduaren elkarlanaren etena baieztatzen dute. Ikastolak pribatuak direla esatean, kontzeptu berria sartzen da diskurtsoan: pribatuak zeinen edo noren arabera?, galde genezake..., eta hau gutxi balitz, jabego honek zentruaren erizpideak ezartzeko eskubidea ematen diela azpimarratzen da, eta ez edonola alajaina! Hemen esaten denaren arabera, jabegoa eta kontrola gurasoei dagozkien bitartean irakaslegoari beroiek markatzen dituzten bideei jarraitzea baino ez litzaioke egokituko[468].

Gipuzkoako ikastoletako Elizaren ordezkariaren burutazio hauek, gainera, ez ziren zaku beltzean erori, eta aldizkarietan ikusi ahal dugun bezala, bere posturaren beste defendatzaile ugari agertu ziren, arrazoi desberdinak argudiatuz. Batzuk, nazionalismo tradizionalaren "familia haundia eta txikiaren" eredua ekartzen digute gogora, arrazaren defentsa sostengutzen zuen lotura biologikoa nagusitzen delarik: "Gurasoen eskubideetan ezetzik, gurasoen eginkizunetan ere sartzen da Euskeraren arazoa. Gurasoek ez baldin badute ardurarik beren izkuntzari eusteko; ez baldin badute gogorik eta ajolarik beren seme-alabei erakusteko

---

467 LASA, J. (1971): Euskal erria eta ikastola (una polémica en torno a la ikastola). Edili. Donostia. 52. orri.

468 Hau ikusirik, ez da hain harrigarria egoera honetan irakaslegoa gurasoak entrepresari gisa ikusten hastea, gainera gizartean zebilen Klase Frontearen ekarpen marxista guztia kontutan hartzen badugu.

zer egin diteke?. Gurasoengandik ezik, nondik etorri diteke Euskeraren iraupena? Nondik? Irakasleengandik? Etorkin arrotzengandik? Goikoengandik? Aberats diru-zaleengandik? Latinoetatik? Nondik?"[469]. Egia esan, eginbehar horretan gurasoek duten erantzunkizuna inondik ere ukatu gabe, Ertziñapek aipatutako gainontzeko guztiak maila berdinean jartzea gogor samarra iruditzen zaigu, batez ere ikastolen eraketan andereñoek jokatutako funtsezko papera partaide guztiek onartutako gauza izanik.

Baina, hau ez zen gurasoen eskubidea oinarritzeko arrazoi bakarra, zeren taularatzen baitira, besteak beste, arrazoi legalak edo nazioarteko araudiak: "Gurasoak dira ume oien jabe oso, legeari dagokion arazoetan. Berak erabaki bear dute aurrak zer bizimodu, lan eta jokaera eramango duten, erlijioari, legeri eta beste erakundeari buruz"[470]. Ildo beretik, gurasoen eskubide hori hobeto gauzatzeko, Elizatik gurasoen elkarteak ugaritzera ere deitzen zen, nonbait ordura arte egiten ziren ikastolagintzaren funtzio guztiak euren eginkizun esklusiboa bailitzan[471].

Lerro hauetan plazaratutako eritziek, ordea, erreakzioak sortarazi zituzten zenbait esparrutan. Samindura izpi batez laburbiltzen du Ugartek: "Ikastolak gurasoenak direla diotenak, honela egiten dute planteamentua: Haurrak gurasoenak dira; beraz, haur hoik doazen ikastolak ere gurasoena izan behar du. Ondorenez, batzorde eta ikastoletako Batzar Nagusietan gurasoek bakarrik parte hartuko dute hitzez eta hautarkiz. Laguntzaileak, diru edo limosna eskale besterik ez dira. Eta irakasleak gurasoen menpean gelditzen dira, hitzik eta nortasunik gabe"[472].

Noski, Elizaren itzalean izkutatzen zen proposamen horren aurrean, beste-lakoa ere bazegoen, alegia, mugimenduak ordura arte garatu ohi zuen elkartasuna zimentarri hartu eta ikastola guztien partaidetzarekin funtzionatu zezan: "... guraso, laguntzaile eta irakasle, denek parte hartu behar dute, bai ikastolako batzordean, bai Batzar Nagusian. Denen artean elkartasun bat sortu behar da, ikastola aurrera ateratzeko"[473]; "Hezierak, gertu gertutik harturik –zabalagoan, gizarte osoaren egin-beharra izan behar bailuke– gurasoen eta irakasleen arteko arazoa izan beharko luke"[474]. Edota, Zaloñak honen inguruan eginiko bereizketa xelebreari, alegia, irakasleei *nola* irakatsi dagokiela eta gurasoei *zer*, Goierriko

---

469 ERTZIÑAPE (1969): *Erakusketa, euskera eta gurasoak*. Zeruko Argia, 334.

470 LASA, J. (1969): *Eliza eta ttipien eziketa*. Zeruko Argia, 334. TXALINTXO (1970): *Aurtxoen eta gurasoen eskubideak. 1970: ezieraren mundu guztiko urtea (I, II eta III)*. Zeruko Argia, 387, 389 eta 390-91.

471 LATXAGA (1971): *Ikastol-aurren guraso ta laguntzaille elkarteak osatu*. Zeruko Argia, 419.

472 UGARTE (1973): *Ikastolak norenak diren*. **Anaitasuna**, 257.

473 UGARTE (1973): *Ikastolak norenak diren*. **Anaitasuna**, 257.

474 AMUNDARAIN, D. (1970): *Ikastolak, prolema latza (II)*. **Zeruko Argia**, 377.

andereño talde batek ematen zion erantzuna: "Ez ahal da mila bider egokiago bai zer irakatsi eta bai nola, guraso eta andereñoek elkarrekin erabakitzea? Ez ahal dugu, bada, haurraren heziketa helburu eta familia-ikastola osagai? Gure ustez, azken batean, edo eztabaida gori-gori batean, haria norbaitek eten beharrean gertatuz gero, orduantxe soilki, balio lezake zure eritzi horrek. Horregatik esaten dizugu legekeria baizik ez dela"[475].

Hau dena ikusita, mugimenduaren norabidea aldatu nahi zuten indar hauek ikastolak noruntz bideratu nahi zituzten galde genezake, zein ikastola mota egin nahi zuten, ordura arteko ereduaren ezaugarri batzu zuzendu nahi zituztela ageri agerian baitago. Zaloñak berak zenbatzen ditu ezaugarriok: "a) irakaskuntza, gure euskalkian; b) euskal girokoak; d) erlijioan ezituak; e) politikarik gabekoak; f) demokratikoak"[476]. Jarraian aztertuko ditugu, ez autoreak ezarritako ordenean, baizik eta bakoitzak kaleratutako eztabaideen garrantziaren kariaz.

4.4.2.1. Ikastolak eta erlijioaren arazoa

Aurreko paragrafoetan azaldu dugun gurasoen eskubideen aldarrikapen sutsu hau, noski, ez zetorren bakarrik, eta helburu zein ideologia oso bat osatzen duten arrazoi multzoa zuen bere baitan. Gizartean ematen ari ziren aldaketek (sekularizazioa eta erlijioaren baztertzea, borroka armatuaren indartzea, euskal kulturaren modernizatzea eta hedapen azkarra, eta eremu zabalago batetan, giro sozial erantzule eta kritikoaren adierazleak ziren Pariseko Maiatza, Pragako Udaberria eta Viet Namgo gerraren aurkako mugimendua, besteak beste) baloreen eraldaketa bat ekarri zuten, eta 70.eko hamarkadaren hasiera honetan bere goia jotzen ari zen. Euskal Herrian, aldaketa hauen eraginik haundiena jasan zutenak karlismoaren eta PNVren inguruko nazionalismo tradizionalaren baloreak izan ziren, eta gure kasuan, nahiz eta ikastolagintzak berak gerraurreko eskola ereduetatik jasotako baloreak garai honetarako nahiko iraulita eduki (gogora dezagun Zipitriarekiko mozketa), estatu kolpe antzeko batekin galbidean zeuden balore eta ideologia horiek berrindartzen, eta maila konkretuago batetan, indartsuen zegoen herri mugimenduaren kontrola eskuratzen saiatu ziren. Artikuluotan agertzen den lehia, eztabaida ideologiko baten adierazle argia dela uste dugu, baina irakurketa politikoago bat egin daitekeela dudarik ez dugu.

Ikastolak gurasoenak zirela esaten zenean, irakasleenak ez zirela esan nahi zen (logika hutsez), soziologikoki kolektibo hau dinamika sozial bizi eta berritzaile baten osagaia zelako eta *euskaldun-fededun*aren kosmobisioaren

---

475 GOIERRIKO ANDEREÑO TALDE BATEK (1970): *Ikastola eta erlijio arazoa*. **Zeruko Argia**, 375.

476 ZALOÑA (1970): *Ikastolak eta irakasleak*. **Zeruko Argia**, 365.

apurketaren eragile posiblea gainera[477]. Izan ere, sektore tradizionalista hauen aldetik euskalduntasuna erlijiotasunarengandik bereiztea jasanezina izaki, euskal gazteriarengan, eta konkretuki andereñoengan, ematen ari zen erlijio bazterketa ezin onartu zuten, eta umeei ematen zitzaien heziketan erlijiotasun hori ziurta beharra piztu zitzaien. Honetarako, eurentzat jotzen zituzten ikastola haietako irakaslegoak gurasoen ideologia berdinekoak izan behar zuen (euskaldun fededun), eta hau honela ez izatekotan neurri gogorrak hartzearen aldeko jarrerak hasi ziren agertzen.

Diskurtsoarekin jarraituz: ikastolak gurasoenak dira eta guraso guztiak kristauak direnez, ikastolan irakasten dena ikasleak kristauak izatera bideratu behar da. J.M. Satrustegi euskaltzainak idatzitako "Aingeru Txuriak" izeneko artikuluan, andereñoen zuritasun horren atzean iztutatzen zen erlijio eza eta "gaurko munduaren aize berriak" hitz zakarrez salatzen zituen:

> "Ezagutzen ditut haurrari **gurutze** eta **Aita gurea** erakutsi ez dieten kristauak (…). Baiño gaurko egoeran, gezurrezko jokabidea da gure aingeru txuri horiena. Gurasoak bakarrik dira haurren ezieraren aukeratzaileak (...). Euskaldun, fededun, izan da guraso hoien barne muina; eta era hortan nahi lituzkete beren haurrak altxatu.
>
> Etorri da, beraz, aurpegia agertzeko garaia. Haurrak nora bialtzen dituzten jakiteko eskubidea badute gurasoek. Ez al dira konturatzen andereñoak, beren asmo berritxu guziak baño zaharrago dela mundua!. Ez da gaurkoa gizonak daraman Jainkoaren aurkako borroka. Beti izango dituzte ikasleak. Adieraz bezate beren asmoa, aukerabidearen askatasuna izan dezaten gurasoak. Piperrak erostean bezala."[478]

Euskalduntasuna eta erlijiotasunaren arteko sinbiosi hori baieztatzeagatik, euskal eskolaren posibilitatea bera ukatzera edota ikastola mota bi, hau da erlijiosoak eta ez erlijiosoak, egiteko proposamena bera egitera heldu zen zenbait jende. Beraz, erlijioa bai ala ez ardatz horren inguruan bueltaka arituko da eztabaida, gaur egungo argitan neurrigakeritzat jo genezakeen punturaino.

> "Euskaldun eta fededun guraso bat bezala nai naiz mintzatu (...). Nere umeari biotzean sartzen saiatu naizen Jainkoaganako eta gure erriganako maitasuna indartuko duen eskola aukeratu dut (...).
>
> bere babesean artutako ikastoletan arkituko balitz andereño bat esanaz: *Nik ez dut erakusten ez otoitzik eta ez dotriñarik: ikastola neutrala bear du, Jainko gabekoa, naiz ez aurkakoa: au da Kontzilioak erakusten duen askatasuna erlijioari buruz.* Ez al litzateke egoki orrelako andereñoa ikastolatik bialtzea leenbaileen. Poliki-poliki, jakiña, ez ostikoka, baiña leenbaileen.(...)

---

477 Jarraian aztertuko dugun erlijioari buruzko eztabaida honetaz artikulu ugari aurki daitezke. Erabiliko ditugunaz gain ikus: OSA, E. (1972): *Ikastola eta erlijioa.* in JAKIN (arg.): **Gure Ikastola**. Jakin Sorta, 6. 185-201. orri. GARITANO, F. (1972): *Ikastolako erlijio arazoaz.* in JAKIN (arg.): **Gure Ikastola**. Jakin Sorta, 6. 203-217. orri. HARANBURU, L. (1972): *Ikastola, geroaren habe.* in JAKIN (arg.): **Gure ikastola**. Jakin Sorta, 6. 167-184. orri.

478 SATRUSTEGI, J. M. (1969): *Aingeru zuriak*. **Zeruko Argia**, 354.

> Baiña, zoritxarrez, jakingo banu andereiño orrek ez diola nere neskatoari Jainkoaz itz egin nai, bereala aterako nuke umea ikastolatik monjatxoen eskuetan jartzeko. Zeruko aberria leenagokoa dalako mundu ontakoa baiño. Euskarari eusteko ta euskal oiturak zaintzeko, gaurko egunez, ikastola bezalakorik ez daukagu. Emen ere sartu zaigu etsaia: danetan okerrena, etxekoa!!"[479].

Eztabaida honetan, noski, Elizaren partaidetza oso nabaria izan zen. Ez zituzten alferrik galduko erlijioaren krisialdi erdian euskal hezkuntzan historikoki izandako lehentasuna eta eskuhartze zuzena (gogora dezagun, Errepublika garaiko EIB, Estatuak Elizari irakaskuntzaren monopolioa kentzearen erabakiaren aurrean erreakzionatuz sortu zirela). Elizaren argudioak, "gurasoei laguntzea"ren bidetik etorri ziren, hots, sentitzen zuten arrotzen aldetiko eraso ideologiko horren aurrean, defentsa gabe zeuden gurasoen laguntzaile gisa[480]. Latxagak honelaxe azaltzen zuen:

> "Nere lan onen irakusleak, berealaxe esango dirate: 'Ikastol guraso eta laguntzalle elkartze oietan zerikusirik ba al dute elizgizonak?'. Emen dezute nere erantzuna. Apaizak dira euskalzale onenetakoak ta gure sendi eta gizon ezagutzaille onak. Apaizak gañera kultura gizonak dira ta gurasoak elkartzeko ondo jarriak. Apaizak ez ba lira Euskaljakintzaren alde, lan asko atzeratuta egongo litzateke. Apaizen laguntza ongarria da. Agertu ditugun gai guzti oietan legamiaren antzekoak izanen dira. Ez dira nagusi bezala agertu bear, ori ez, ortarako daude gurasoak, bañan bai laguntzalle egokiak bezala. Badakit jendetxo berri oietakoak esango diratela, ori inperilaismo klerikala dala edo apaizen magalpean bizitzea. Nik ere ez det ori nai, bañan ikusten det apaiz sail aundi bat Euskal kulturaren langille porrokatuak bezala agertzen direla, euskaldun eta elizgizon diralako ta bi bide oietatik ematen diotela Euskal kulturari indar sakona, beste oso gutxik ematen diotena. Elizgizonak duten indarrakin Euskal kultura aberastuko dute, emanez beardun jatortasuna eta zuzentasuna"[481].

Oso bitxia iruditzen zaigu artikulu hauetan argitzen zaiguna. Izan ere, ikastolen mugimenduak Elizaren babesa hartu orduko, funtzionamendu modu batzu, azpiegitura eraginkor bat eta "estilo" berezi bat baldin bazituen, lerro hauetatik isilarazita eta egitura berritik urtuta aurkitzen baitugu. Erlijioaren apologia, idazki hauetan, errepikatzaile eta etengabea zen: "Eliz-gizon guztien irrintzi bakarra, auxe izan bear luke, ikastola bat Eliz-kanpai-dorre bakoitzaren itzalean"[482], ikastoletako hastapen neketsu eta ilunen herentzia zerraldo lurperaturik omen zegoen bitartean.

---

479 ELEIZALDE, M. (1970): *Ikastolak: Jainkoakin ala Jainko gabe?*. **Zeruko Argia**, 374.

480 Kasu honetan ere, nazionalismo tradizionalaren "sentimiento agonico"a eta berorrek dakarren defendatu beharra agertzen zaizkigu, baina ez Estatuaren aldetiko erasoaren aurrean erreakzionatuz, gizartearen sektore euskaltzale berrien aurrean baizik. Ideologia tradizionalaren biziraupen grinak, tamalez, Estatuaren posizioetara hurbiltzera eta legitimatzera eraman zituen, belaunaldi barriarekiko kontrajartze dinamika zoro horretan.

481 LATXAGA (1971): *Ikastol-aurren guraso ta laguntzaille elkarteak osatu*. **Zeruko Argia**, 419.

482 LATXAGA (1971): *Eliz-kanpai-dorren itzalean ikastola*. **Zeruko Argia**, 417.

Sokatira honen beste muturrean zeudenek erantzun ugari ematen zioten arazoari, eta bertan soma dezakeguna ez da horrenbestez erlijioaren kontrako jarrera bat, baizik eta erlijioaren irakaskuntzak irakasleei zekarkien zailtasuna baizik. Goierriko andereñoen artikuluan, erlijioa nola ulertu batetik, eta gero nola irakatsi galdetzen dute; eta lehenengoari buruz, Kontzilioak markatutako konpromezuzko jarrera plazaratzen dute, erlijio praktiken hustasunaren kaltez: "Alferreko litzake axaleko aitorpen bat, alferrik bideetako gurutzeei mun ematea eta mila bider zeinatzea edo ahozko errezatze hutsean galtzea, inguruko arazo eta gertakizunei begiak hersten badiegu, eta justizi edo egi-burrukan konpromisorik ez bagenu. Eta zoritxarrez, Zaloña jauna, hona hemen gaur egun gerta diteken eta gertatzen den gauzarik garratz eta mingarriena: alegia, gehienetan oinarri hori ahaztu eta erlijio faltsu bat bizi ohi dela"[483]. Xabier Kintana, Kataluniako mugimendu pedagogikoaren hautaketarekin bat eginez, gurasoek gogoko izan ezkero erlijioa ikastoletan egotearen aldeko azaltzen da baina horren irakaskintzarako irakasle espezifikoak eskatuz: "Nik uste dut ikastoletan doktrina aparte irakatsi beharko litzatekeala, eta gainera ez andereñoen bitartez, pedagogian ondo aditurik dagoen edo dakien elizgizon eta monja euskaldun baten bitartez"[484]; era honetara, andereñoen formazio taldeetan egondako "katekista eta andereñoa" bereiztu beharraren inguruko eztabaida berretsita gelditzen da.

Egia esan, alde honetatik plazaratzen ziren arrazoiei ez zitzaien erantzuten, erlijioari buruzko eztabaida asko luzatu zen arren. Bai agertzen zaigu, ordea, ikastolen barruko tirabira hauetan ondorio txar eta zatikatzaileak ekarriko zituen lehenengo susmoa. Izan ere, sektore tradizionalen aldetik planteatzen zen "erlijoa bai ala ez" hagitz faltsua izan zela iruditzen zaigun arren, –erlijioaren inguruko zalantzak ez baitziren termino hauetan planteatu, erlijioa irakastea nori zegokion baizik–, berori esijitzea gurasoen eskubide sakratua zelakoan, bere azken muturretaraino eramana izan zen, eta erlijioa nahi ez zutenek bere ikastolak eratu zitzaten entzuten hasi zen. "Sinismendunok eta ateoak ezin gindezke berdindu, iñolaz ere, arazo ontan (...). Eramazue erlijioz kutsutu gabeko ikastetxera. Ez dagola dirurik alako "ikastola" sortzeko? Ez det sinisten. Asko omen zerate eta diruz ere txarto ez det uste zabiltzatenik"[485]; "Kristautasunik nai ez daben euskaldunak (izango dira, zergatik ez?) bildu beitez eta lortu euren ikastolak, baina ez eleizaren aterpeakin baliatu oni barrutik sua emoteko; gitxiago askatasunaren eta zabaltasunaren izenean, apur batzuk mindu ez daitezan, beste guztiak bear daben eziketa barik itzi"[486].

---

483 GOIERRIKO ANDEREÑO TALDE BATEK. (1970): *Ikastola eta erlijio arazoa*. **Zeruko Argia**, 375.

484 KINTANA, X. (1970): *Elizaren irakaskintza: Eliza eta haurrak*. **Zeruko Argia**, 382.

485 AGIRRETXE, A. (1970): *Gure ume-ikastetxetan erlijiorik bai ala ez?*. **Zeruko Argia**, 389.

486 ARENAZA, J. (1971.eko Azilla 15): *Gu, ikastolaren alde*. **Agur**.

Ez ziren falta, ikastolen munduaren zatiketa posible baten zentzugabekeria eta bideragarritasun eza erakusten saiatu zirenak, zentzuz jokatzea eskatzen zen bitartean. Baina agian, honek hautsak gehiago harrotzeko baino ez zuen balio izan. Hona hemen Arestiren hitzak: "Gauden egoeran ezin manten litezke bi ikastola-mota, bata konfesionala eta bestea akonfesionala. Bata integristentzat eta bestea demokratentzat. Beraz, danontzako eskolak egoteko dira, euskaldun hume guztiontzat edukazio bakar bat emanen dutenak. Gainerakoa lujo bat da, gainera ezin paga dezakeguna(...). Bestela, argi eta garbi dago, zer gertatuko den gure Euskalerrian, elkarrekin bizi izaten ikasten ez badugu, lagun hurkoaren ideiak eta sentimentuak errespetatzen eta toleratzen ikasten ez badugu"[487].

Zorigaitzez hitzok hutsean gelditu ziren, Euskal Herri osoan zehar zatiketaren mamua zabaldu baitzen. Zenbait tokitan eztabaida maila gogorretara heldu zen, eta ikastola erdibitu egin zen. Lehenengo kasua, Iruñean dugu, baina bere atzetik etorriko ziren hainbat: Hernani, Urretxu, Ondarru, Bilbo, Gernika. Erdibiketa hauetan, ideologia elizkoi erradikal baten presentzia aurkitzen dugu; gauza guztien aurrean erlijioa ezarri eta bestelakoetan erreakzio bortitzak sortarazten dizkien doktrina marxista, maoistak eta abarrak ikusten dituztenak. Gorka Trintxerperen izenpean, "Agindu nahiak dakarrena" delako artikuluan, D. Amundarainek aipatzen zuen erlijioaren aldeko "kruzada"ren ideia berretsi eta sorgin ehiza horren salaketa egiten zuen, Iruñean gertatutakoaz:

> "Azkeneko egun hauetan, lehen baino amorru beroagoz, ahal bada, hor dabiltza "jauntxo" mordoska bat (JAUN nahi luketenak) gaizto bila, komunista bila, felipe bila, anti-klerikal bila, ez dakit zeren bila.
>
> Ez adiskide, ez da par egitekoa, ibilera trakets, makur eta ahul hori. Gure herria ez dute atzerritarrek galdu izandu; dogmatikokeriak baizik.
>
> Batengatik, euskera, bere "ideiak" hobeki sartzeko darabilela diote. Bestearengatik euskal-giroaren bitartez komunismoaren oinarriak ezarri nahi dituela. Eleizara itxurak egitera joaten dela. Euskal Herriak axolarik ez diola eta marxismoa Euskal Herriaz baliatuta ipini nahi digula.
>
> Eta horrelako hamaika argalkeri; Inkisizioaren garaieko diruditen hamaika argalkeri."[488]

Baina harrigarriena Marcelino Garderen erantzunaren tonua da, bere abizenaren esanahiaz ("garde eta makilla, orobat") baliaturik honelakoak esaten baitizkio: "Aita zenagandik ikasia dut Jainkoa eta Euskalerria maite izaten. Eta

---

487 ARESTI, G. (1970): *Jainkoa eta haurrak*. **Zeruko Argia**, 378. Arestik idatzitako artikulu honekin polemika haundi hau areagotu egin zen, eta berari emandako erantzunak ez ziren falta, ikus: LASA, J. (1970): *Jainkoa eta haurrak. Arestiri erantzunez*. **Zeruko Argia**, 380. TALINTXO (1970): *Aresti Jaunari erantzuna*. **Zeruko Argia**, 382.

488 TRINTXERPE, G. (1970): *Agindu nahiak dakarrena*. **Zeruko Argia**, 374.

zatorrak ehizten, ez atxurka, bai zirika: nere abizenez. Badakit ez dela zurea bezain zabala; bainan luzeago bai: lan hortarako egokia"[489].

Zatiketa hauetatik sortu ziren bi ikastola motaren bereizgarria erlijioari ematen zitzaion garrantzian koka genezake, beste ezaugarri bereizgarri batzu ere ematen ziren arren. Izan ere, ikastola mota bat Zaloñak aipatzen zuen ereduari jarraitzen zion (konfesionala, gurasoena, euskal girokoa, euskalkietan...); besteak, berriz, ordura arte ikastolen mugimenduak zuen eredu, edo hobeto esanda, dinamikari jarraitzen zion. Azken kasu honetan, herrikoitasunari ematen zaio berebiziko garrantzia, baita euskal kulturaren modernizatzearen ezaugarriei ere: "Ondarruan Elizaren beste ikastola bat ere badela gogoan har dezagun. Baina guk gure ikastola Herri ikastola bezala ulertzen dugu. Herriari erantzun nahi diogu, herria egin nahi dugu, euskal kulturan gure haurrak heziz. Herriak berak erakutsi digu zein jokabide hartu. Era desberdineko, pentsakera eta jokabide askotako jendea da herrian. Guk herria den bezala onartzen dugu eta den bezalako herri horri erantzun nahi genioke. Elizak bere interesak zaindu nahi izatea konprenitzen dugu. Baita zenbait jendek Elizaren ikastola nahi izatea ere. Baina guk beste bide bat aukeratu dugu. Elizak, ez dugu uste ezeren oztoporik jarri behar liokeenik bide honi"[490].

4.4.2.2. Euskara batua eta euskalkiak: "h"aren gerra

Ikastolek, beren ibilbide horretan zailtasun eta arazo asko aurkitu zutela argi dago, baina praktika pedagogikoan eta eskolarrean larrienetako bat hizkuntzaren egoerak berak markatu zuen. Izan ere, ikastolek, beste eskola guztiek bezelaxe, hizkuntzaz baliatu beharra zuten eta irakasleen artean, hizkuntzaren batasunarena arazo sentitua izan zen: materialeak sortu behar ziren, testu liburuak, fitxak... baina normaldu eta batu gabeko hizkuntzaz nola baliatu? Rikardo Arregik proposatzen zuen euskararen modernatze horretarako funtsezko tresnaren hutsunea gero eta nabariagoa zen.

Euskararen batasunak, ordea, ez zuen bide errezik jarraitu, "erri euskara"ren defendatzaileak nonnahi agertu baitziren proposatutako euskara batuaren aurrean erreakzionatuz: "Harrigarria da, beraz, azkenengo hilabeteetan gertatzen ari den fenomenoa. Alegia, euskera folklore-jazkera gisa erabiltzetik ateratzen jakin ez dutenek, eman diren pausu guztiak (Baionakoak, Arantzazukoak berak) kondenatzen dituztela. Eta erderaz kondenatu! Zer

---

489 GARDE, M. (1970): *Zer gerta Iruñen?*. **Zeruko Argia**, 378.

490 ERRIALDE (1975): *Ondarruko herri ikastola*. **Zeruko Argia**, 632. Zatitutako ikastolen berri desberdinak, ikus: BATZORDEAK (1970): *Ziganda´tar Paz-en ikastetxea*. **Zeruko Argia**, 384; ERRIALDE (1974): *Iruineko San Fermin ikastola*. **Zeruko Argia**, 608; URTIAGA, P. (1973): *Gernikako ikastola berria*. **Anaitasuna**, 263; ALTUBE, G. S. (1973): *Gernikako Seber Altube ikastola*. **Anaitasuna**, 264.

proposatzen digute egindakoaren ordez? Egonean egotea. Politikan egonean egotea orain dela 34 urte proposatzen diguten bezala"[491].

Euskaltzaindian bertan eta euskal kulturaren munduan eman ziren eztabaidak eta ezadostasunak, ikastoletan ere isladatu ziren, aurretik sortuta zegoen gatazka horretan, ihesi doan txakurrari buztanean sua ematea bezalakoa gertatuz. Kasu honetan, eta ikastolen gatazka guztian bezelaxe tokiz tokiko desberdintasunak oso nabariak zirela, irakaslegoak batasunarekin bat egin zuen, agian eguneroko lanaren premiak zeharo bultzaturik, gurasoen sektore batzuk euskalkien alde jokatu zuten artean. Deskalifikazioak ez ziren, gainera, makalak izan; horrela, euskara batuari mespresuz "euskaranto" deitzen zitzaion, eta batuak ezarri zuen "h"-ari, marxista zela leporatzen zitzaion: "Hemos mantenido la tesis de que la ortografía achista no es más que un intento de politizar el euskera, rompiendo los moldes tradicionales, como una rama más de lo que se intenta romper: la familia, el derecho a la educación cristiana, nuestras costumbres peculiares, nuestra personalidad, etc., como medio para conseguir una juventud sin moral, sin sentimientos, ni conciencia de pertenecer a un pueblo con unas costumbres discutibles pero indudablemente mejores de las que nos proponen a juzgar por las muestras que vemos"[492]. Bestetik, batueraren behar gorria azpimarratzen zen: "Batasunaren arazoa ez da, ez, "H" batzuen gora-behera huts bat. Goitik behera dugun behar gorri bat da; hizkuntza ez baita folklore-jazkera bitxi bat, turisten aurrean igande arratsaldeetan erabiltzekoa; herri baten mintzabidea baizik. Eta hau denean, batasunaren beharra gauza agiria da"[493].

"H"a eta euskara batuera, ordea, ez ziren beste diferentzia ideologiko haundiago batzuren adierazleak baino. Carlos Santamariak, "La cuestión de la haches" izenekoan esaten zuen legez: "Cuando las gentes se acaloran y se apasionan por cosas que parecen tan nimias, puede asegurarse que, tras la aparente trivialidad de las mismas, se ocultan problemas y cuestiones mucho más vitales e importantes. Y expresaba yo la posibilidad de que por debajo de esas cuestiones, aparentemente nimias, funcionasen posturas ideológicas mucho más graves y profundas"[494]. Ezarritako euskal ordenaren apurketa suposatzen zuen guztiaren aurrean erreakzionatuz, ikusmira erromantikotiko baserri giroko mintzaira gorde beharra aldarrikatzen zen gauza guztien gainean, beti baloreen

---

491 TXILLARDEGI (1970): Euskararen arazoa beste hizkuntza-pizkunderen argitan. **Branka**.

492 ARENAZA, J. (1974): **Tus hijos y el euskera (El mito del batua)**. Bilbo. 93. orri. Ildo beretik doazen argumentazioak ezagutzeko, aldizkaritzari dagokionean Agur, Goiz Argi, Karmel eta Principe de Viana, eta liburugintzan ikus: LABAYEN, A. M. (1972): **Sasi-batasuna**. Lopez Mendizabal. Tolosa; LASA, J. (1973): **Ensayos críticos sobre la unificación literaria del vascuence**. Itxaropena. Donostia; MOCOROA, J. M. (1971): **Lengua vasca de hoy y de mañana**. Auñamendi. Donostia.

493 LARRESORO (1970): Euskalkietatik euskerara. **Zeruko Argia**, 375.

494 SANTAMARIA, C. (1979): El euskera como lengua escolar. **Euskera**, XXIV.

kontserbatzea buru belarriz defendatuz. Tradizioa ez zen guztia arrotzatzat eta, ondorioz, etsaitzat hartuz, euskarari gizarte hiritar eta modernu batetan sartzeko bideak ukatzen zitzaizkion.

Baina ikus dezagun ikastoletan barne zein terminotan ari zen eztabaidatzen. Polemika Zaloñaren eskutik azaltzen da, berriro. Diskurtsoa, beste zenbaitetan bezala, honela labur genezake: ikastoletan, gurasoen neke eta diru bitartez sortu ostean, nahi ez den "izkelki naasketa" bat sartu da (sartu den hori arrotza da, beraz, errefusagarria), eta gaineratzen du: "Iñork eta serioski "izkelki naasketa" ori amaren izkuntza dala baieztatu aal lezake? Beste aldetik, nik dakidanez, ez da gurasoen gogoa ikastolak euskera erakusteko sortzea izan, baizik eta, Mitxelena jaunak zion bezala, euskeraz erakusteko. Eta jakiña, euskera bateratuan egin nai bada, ikastolak, gurasoen gogo aurka, isil ostuka, euskera irakasteko izango dira. Eta ori ez!"[495]. Azpian datzan ideologiaren izpia berriro loratzen dela uste dugu; gorde behar dena ama hizkuntza da, hori bera eta ez beste era batekoa, eta noski, gaztelera ama hizkuntza duenak ezin du euskara ikasi. Zentzu honetan erantzuten zioten Goierriko andereñoek, izan ere, esperientziaren euskalduntzea erreibindika-tzeaz gain, hizkuntza etengabeko aprendizaia dela eta heziketa osoan zehar garatzen joaten dela: "Gainera, euskera lantzea, ikastolako lehen-urteetan haurrak duen eginkizunik borobilena izateaz aparte, premiazkoena ere badugu. Ez dugu aski haur euskaldunak hartzea, soilki, gure ikastoletan. Beharrezko dugu baita bat-banaka ez ezik, multzoka eta sailean ere haur esperientziaei ateak irekitzea"[496].

Hizkuntzaren kasuan, baina, Elizaren sektore konserbatzaileek izan zuten jarrera nahiko kontraesantsua izan zela nabarmendu beharko genuke, ama hizkuntza gordetzearen defentsa sutsu eta istilutsua egiten ari ziren bitartean elebitasunezko jarrerak ere azaltzen baitzituzten. Jose Lasak horrela zioen: "Adibidez, guk, euskaldunok bi kultura ditugu, izatez ez ba da bizitzez, bi izkuntza, bi pentsakera edo mentalidade. Derrigorrez, eskolak ere bi kultura eta bi izkuntza ibilli bear ditu, bere barnean, ez, noski naastuak eta denbora berean, bata bestearen ondoren baizik. Lenengo ama-izkuntza osoki jasoaz, gero gaur ofizial izkuntza dana irakasiaz"[497]. Hitz hauek, hizkuntzarekiko eta Euskal Herriarekiko jarrera soberan adierazita uzten zutela uste dugu. Alegia, Estatuak 1970.etik aurrera ikastolak asimilatzeko egiten duen saiakera horretan badago sektore bat erregelak onartzeko prest agertzen dena; euren ideologia nazionalismo tradizionalean kokatuta dagoen arren, honek ez ditu zentruaren hizkuntza eta kultura ukatzen, euskal gizartean eraikitzen ari den modernizatze horrekin bat egin beharrean, asimilazioaren hautaketa egiten baitu.

---

495 ZALOÑA (1970): *Euskera bateratua eta ikastolak*. **Zeruko Argia**, 364.

496 GOIERRIKO ANDEREÑOAK.(1970): *Euskera batua eta ikastolak*. **Zeruko Argia**, 374.

497 LASA, J. (1970): *Ikastolak*. **Zeruko Argia**, 357.

4.4.2.3. Euskal giroko, apolitiko eta demokratikoak

Ikastolei 70.ean nazio eraikuntzaren giltzarri izatea eta osagai iraultzaileaz horniturik egotea aitortu behar zaizkie. Ez baita nolanahikoa herriz herriko antolamendu zabala eta partaidetzazkoa, euskal identitatearen birsortzailea, euskal kulturaren bilgunea eta berreuskalduntzearen zutabea izatea. Gainera ikastoletako esparrurik dinamikoenak, irakasleak gehien batez, pedagogia kritikoaren barrenean sartuta zeuden, eskola eta gizartearen arteko zubi eta elkar eraginkortasunerako urratsak eginez.

Ezaugarri guzti hauek, nazionalismo tradizionalaren oinarriak desorekatzen zituzten, eta handik politikarik gabeko ikastolak egitearen asmoa zabaldu zen. Indar hauen helburua, gauzak bere egonean egon zitezen zen, eta ikastolen esanahi sozio-politikoak eta gizarte kokapenak mehatxu bat suposatzen zuten. "Gaurkoz, zenbait jenderen artean nahiko zabaldua ikusten dugun joera bat aztertu nahi genduke: Hauentzat ikastolen egiteko nagusia euskera salbatzea litzake eta hori lortzeko biderik ziurrena berriz, ikastolek "konplikazioak" sortu lezaizkieken guztitik ondo aislatzea, hots, herri baten bizitza osatzen duten beste alderdi edo eskualde guztiekin (kultura, ideologia,..), zer ikusirik ez duan errealitate bat konsideratzea. Hortarako ikastolak ondo itxitako kristalezko kutxa batetan bezala ipini behar dira, inguruko giro nahastuak ezertan kutsatu ez ditzan eta inguru hortan sortu ditezkean gora-behera eta istilu guztietatik salbo, kutxa barreneko giro epelean euskera gorde dezaten."[498] Apolitizazioaren amua arras arriskutsua zen, zalantzarik gabe. Ikastola bezalako eraikuntza sozial batetan politika ukatzea, jarrera politiko guztiak maila berdinean jartzearen sinonimoa zen, eta jarrerok ezin dira berdin epaitu (batzuk ikastolaren alde egiten zuten bitartean, beste batzuk kontra egiten baitzuten). Zabal aldizkarian esaten zen bezala:

> "Ikastoletan ez dago neutraltasun politikorik, bizi garen gizartean neutraltasun politikorik ez dagoen bezelaxe. Eta ikastoletaz arduratzen den edonori beharrezko zaio ikastola barneko joera edo tendentzi desberdinak ezagutzen saiatzea eta hoiei buruz definitzea.
>
> Horren beste iskanbilekin aspertuta eta nazkatuta egotea konprenigarria da, bainan zuzen dabiltzanak eta oker dabiltzanak, guztiak batera gaitzetziak ez da ezer konpontzen. Ezer ez jakin nahia, norbera ez definitu nahia, oso patxarakoa izan daiteke, bainan agian modurik zihurrena izango da edozein joera, nahiz kaltegarriena izan, ikastola barnean nagusi dadin. "Mayoria silenciosa" delakoaren pasibitateak beti ondoren kaltegarriak ekarri ditu, eta bildur gara ikastoletan ere horrelako zerbait ez ote den gertatzen. Hau da, talde haundi bat apolitizazioaren mitoaren aitzakian lotan dagoen bitartean, beste talde batzuek helburu politiko oso konkretuekin nahi duten guztia egitea ikastolen kaltetan"[499].

---

498 OLARRU (1970): *Ikastolak eta herria*. **Zeruko Argia**, 399. Apolitizismoaren kritika eta herrikoitasunaren ezaugarria azpimarratzen duten beste zenbait, ikus: ABARKA (1973): *Gure ikastolez zerbait*. **Anaitasuna**, 247; URRUJULEGI, J. (1975): *Ikastolak herri girotik aparte?* **Zeruko Argia**, 635.

499 ERREZABAL (1974): *Ikastolak Hego Aldean*. **Zabal**, 5.

Apolitizazioaren mitoa elikatu nahi zuten sektore hauetatik, ikastola bere indar sozio-politiko guztiaz hustu nahi zen, itxurazko neutraltasun bat ezarriz; irauli eta kritikatu, ez ziren euren gustoko aditzak, kutsu politikoa hartzen baitzieten. Eta horrela, andereño eta irakasleei "txartela" ezarriz, ikastola giroa zuritu eta garbitu nahi zuten. Erlijioa eta hizkuntzaren eztabaidetan bezala, berritasunaren aurreko erreakzioa antzematen dugu berriro. Europan zehar zebilen giro ezkertiar eta kritikoak Euskal Herrian ere izan zuen bere eragina; gazteen artean liburuak irakurtzeko eta formazio politikoa egiteko ohitura haundia zebilen, eta klandestinitatearen esparru politikoan ere ezkerraren ezadostasun eta zatiketa politikoa nabari zen. Gizartean hedatu zen politizazioa ikastoletara polarizatzea nahiko erreza zen, sarritan egiten ziren salaketek inongo oinarririk ez zuten arren.

Puntu honetan nazionalismo tradizionaletik zetorren ereduaren bi ezaugarriak nahastatzen zaizkigu. Ikastolak apolitikoak eta euskal girokoak izan behar zutela aldarrikatzen zutenean, politika horiek euskal girokoak ez zirela, beraz, arrotzak eta etsaiak zirela, esan nahi zen: "Eusko-giro bete-betean azi eta ezi bear dira aurrak. Iñork ezin lezake Marx edo Leninen ideekin euren adimena zikindu. Jokaera orrekin, aurrak euren nortasunaz ez dira osatzen eta bestetik, politika egiten da; politika txar bat. Eta gurasoek ikastoletan inongo politikarik ez dute nai. (5garren araua)"[500]. Noski, umeen buruetan *zikinkeri politikoak* sartzen zizkietenak irakasleak zirenez, irakasle horiek zigortu egin behar ziren ikastoletatik urrunduz. Marxek esandako "Komunismoaren mamua Europan zehar hedatzen ari da" esaldi harek indar berezia hartzen zuen garai hauetan, batez ere komunistak akatzeko prest zeuden haientzat.

Giro horretan eman zen ikastoletako beste istilu haundi bat, hain zuzen irakasleen kaleratzeak. Ezin dugu baieztatu herri guztietako istiluek jatorri berdina izan zutenik, baina maila orokor batetan, kaleratzeen auzia deskribatzen ari garen tirabira ideologikoaren beste ondorio bat izan zela uste dugu, zenbaitetan aurrerago aztertuko dugun ezkerreko jarrerekin ere lotuta egon zitekeen arren. Honi buruzko informazio zehatzagoa eta fidagarriagoa izateko, gaia espezifikoki aztertzea ezinbestekoa dela uste badugu ere (gure historiaren atal hau ezagutzea gaurko eskolan dauden ideologia batzu hobeto ulertzeko funtsezkoa delakoan gaude, gainera), jasotako artikuluetan argi batzu eskuratzen saiatuko gara.

Aldizkarietan agertzen den irakasleen kontrako kanpaina haundi honek, zenbait ikastoletako giroa kutsatu eta pozoitu egin zuela ikusten da, tirabirak areagotuz eta eztanda eraziz. "Sorgin ehiza" bat zabaltzen dela esatea, ez dugu uste gehiegi esatea denik. Amundarainek, besteak beste, zera leporatzen zien

---

500 ZALOÑA (1970): *Ikastolak eta irakasleak*. **Zeruko Argia**, 365.

ikastolak "zuzendu" nahi zituztenei: "Eta zer nabari da? Hauxe: Andereiño nahiz maisu batzuei, lepazintzailu, Maoren irudia ezarri eta kitto; horiek ez dira euskal-irakasle izateko gauza.. Eta kanpora hortik!!! Gurasoek dute hitza ikastoletan"[501]. Irakas-legoaren satanizatze orokorra hedatzen da, propaganda eta artikuluen bitartez irakasleak Euskal Herriaren kaltearen eramaile bezala agertaraziz. Irakasleekiko istilu hau euskal lurralde guztietako gertakaria izan zela azpimarratu nahi dugu; Iruñean, Gasteizen, zein Iparraldean[502] ere, zer esanik ez Bizkaian eta Gipuzkoan.

Zergatik inguratze hori, zergatik irakasleen kontrako eraso hori? Iztuetak, Aristegik eta Apalategik, garai honetan egindako lan batek ematen digun argi bereziaz honela esplikatzen zuten: "La radicalisation ininterrompue de la lutte pendant ces dernières années et l´encadrement de la lutte dans le front culturel comme partie de la lutte de libération nationale, ont eu sans doute un écho très grand parmi un largue secteur des enseignants, conscients du róle politique que les ikastollas doivent avoir dans cette lutte. Mais cette conscience se reflète, non dans les polémiques des publications, mais dans le practique quotidienne que ces enseignants ont dans leurs ikastolas. Et la virulence de la campagne menée par les éléments conservateurs refète a notre avis, leur inquiètude vis-à-vis d´un secteur d´enseignants qu´ils n´arrivent pas à contróler, et qui essaient de mantenir les ikastolas dans les coordenées du développement dialectique de la révolution basque"[503].

Testuinguru honetan gaudela, ez dugu bazterrean utzi nahi, besteekin batera sektore kontserbatzaile hauek erabilitako beste argudioa, nolabait definitzeagatik emakumearen askapenak ekarri zituen ondorioekin lotutakoa. Erregimenaren teknokraziak eta erlijioaren garrantziaren erlatibizatzeak emakumearen egoeraren aldaketak erreztu zituzten. Europa mailan, emakumeek lortutako hobekuntzak nabariak ziren bai sexualitatearen askapenean (pilula, jaiotze kontrolaren zabalkundea..), baita gizartean eta lan munduan ere. Hondasun ekonomikoak ekarritako haize liberalek jotzen zuten, eta Euskal Herrira ere hurbildu ziren. Horrelako aldaketak haintzakotzat hartzeko esparrurik sensibleena gazteria zen, eta euskal munduaren barruan horietako batzu andereñoak ziren. Euren jarrera berritzaileen aurrean Elizak ere erreakzionatu zuen: "Amodio askatasunaren hitzak merke saltzen asiak dira gure artean. Aragikeriaren eta lizunkeriaren ikusketa (feria) egin berri da Copenhague-n. Hauek dira gaurko munduaren aizeak. Jainkoa saltzea asiera besterik ez da. Jainkoaren eriotza nahi luke gaur munduak; eta huste gabe. Euskalherriko aingeru txuriak bide hortan sartuak dira.

---

501 AMUNDARAIN, D. (1970): *Ikastolak, prolema latza (II)*. **Zeruko Argia**, 377.

502 Iparraldeko kasuari buruz, ikus: GOIENETXE, M. (1974): *Ikastolak Ipar Aldean*. **Zabal**, 5.

503 APALATEGI, J., ARISTEGI, L. M. eta IZTUETA, P. (1970): **L´enseignement en langue basque**. argit. gabe. P. de Gaudemarrek zuzendutakoa. Paris. 34. orri.

Asko beintzat."[504]. Pedagogia berriak ekartzen zituen kalte haietako bat: "ARAGIZKOA. *"Bere illeko aldia ezagun bear du neskattoak, 'amodio askatua' arriskurik gabe bizitzeko."*. *"Asieratik, ikastolak –Pedagogi 'berriak' legez– erabakia du onen beharra: neska-mutilen arteko naste-aztea"*. Eta 'aragizkoaren irakaspena'; sines-gabeko Lafora jaunaren liburuz, ezta?"[505].

Andereñoaren eredu ideal hura erabat etenda gelditu zen. Garai berriei beste andereño, edo hobeto esanda, beste irakasle mota zegokien, eta ez ziren horretan atzera gelditu. Emakumearen askapenaren ingurukoek, euskal eskolaren munduan izan zuten eraginaren garrantziaren froga euskal kulturaren beste esparru batzutan isladatzea izan zen. G. Arestik[506], poesia sozialaren adierazlerik inportanteenak, idatzi eta Oskorrik herriz herri kantatutako "Adela"-z ari gara, jakina. Poema honetan, euskal eskoletan bilakatzen ari zen gatazkaren erreferentziaz gain, andereñoa den emakume berriaz ari zaigu Aresti. Adelari eginiko poeman, hizkuntz poetikoaren bitartez bada ere, emakumearen, eta zehazkiago andereñoen gaurkotzearen gakoak aurkitzen direla uste dugu. Lehenik, euskal eskoletako gatazka eta klaseen arteko borrokaren aipamena dugu, gaiari plazaratze sozio-politiko sendoa ematen zaiolarik. Arestik, hau abiapuntu hartuta, Adela beraren definizioari ekiten dio: "Hain sinple sinpleki/ joan hatzaigu hi/ Adela geuria/ Adela herria/ Adela berria/ gure Adela gorria". Arestiren begietan andereñoa den emakume hau "geuria", "herria", "berria" eta "gorria" bezala deskribatzean, emakume askoren irudia antzematen dugu, Zipitriaren eredutik erabat bereizitako andereñoa. Euskalduna, kolektiboa, berria eta ezkertiarra, beraz, konpromezuzko kokapena duen emakumea.

Honen aurrean ere, ideologia tradizionalaren erreakzioa etorri zen, nekazal munduaren emakumearekiko ikuspegia guztiz urratzen baitzuen. Bertan ez zegoen ama funtziotik at zebilen emakumerik, horixe baitzen egile sozial bezala zegokion eginkizuna. Emakumeak ama funtzioa ez den beste funtzio soziala eskuratzen duen neurrian familiaren ideologia apurtzen da, eta nazionalismo tradizionalaren zutabea arriskuan jartzen da. Beraz, badugu gatazkaren beste arrazoi garrantzitsu bat.

Eztabaida hauek ez ziren, tamalez, besterik gabe desagertu. Elizaren eta gurasoen sektore batzuk lehenengo pausua eman zuten, giroaren txarragotze horretan Urretxun hamar irakasle kaleratuz. Ordutik aurrera kaleratzeak polbora bailiran azkartu ziren handik eta hemendik: "Siguiendo los pasos de la ikastola de Urretxua, también empiezan a darse despidos en otras: Andoain, Mondragón, Oñate, Deustu, Ondarroa, Lejona, Baracaldo, Lauro, Algorta, etc.. Las razones

504 SATRUSTEGI, J. M. (1969): *Aingeru zuriak*. **Zeruko Argia**, 354..
505 GARDE, M. (1970): *Zer gerta Iruñen?*. **Zeruko Argia**, 378.
506 Adela Arrasateko andereñoa izan zen, aborto klandestino baten ondorioz hil zena.

alegadas en todos los sitios no son las mismas, pero siempre aparecen la cuestión relijiosa, la cuestión política, la vida privada de los profesores y en algún caso la cuestión pedagógica"[507]. Kaleratze hauek puntu kritikoetara eraman zituzten ikastolen barruko kotraesanak, irakaslegoa defentsa gabeko egoera batetan jarriz, langile bezala ezin baitzuten euren eskubideen alde borrokatu (nola salatu, lan magistratura batetan, ikastolek buruturiko kaleratzea frankismo garai gordinetan?).

Lan mailako eraso guztiez gain, 1971.eko udan Gordailuk eratutako formazio ikastaroak egiteko lekua eta baimenaren ukapena gertatu zen. Iruñean[508] burutu behar zen ikastarora berrehun eta larogei irakasle matrikulatuta egonik, Elizaren sektore batzuen trikimailuari esker eta Gobernadore Zibilari eskatutako laguntzaz, debekua ezarri eta oztopatu egin zen.

Talde hauen atzerakoikeria nabaria zen, gero eta nabariagoa, eta burutu zituzten ekintzen ordaina euskararen aldeko borrokaren kaltez joan ziren, askoren aburuz. Joera hau, gogor salatuta agertzen zaigu 1973.ean Zeruko Argiaren editorial batetan, euskal munduan suertatzen ari zen zatikeriari aurre egin nahiez. Azurmendik, sektore hauek "arrazoizkotasun kategoria guztietatik kanpo" zeudela esaten zuen bitartean, Zeruko Argikoak haruntzago joaten ziren ondoko hitzekin:

> "Ezin dute irentsi euskaldun abertzale aurrerakoi eta ireki samarrik. 36.an geratu zitzaien erlojua. Urte batzu lehenagotik asi eta ordura arte egindakoa bakarrik da ona eta jatorra. Orduan sartu ziren iritziak, jokabideak eta aldaketak utsezinak eta behin betirakoak dira. Hauentzat ez da mundurik aldatu. Euskal Erriak behintzat ez du aldatu behar. Hauentzat 1865garrenean asi zen Euskal Erria eta 1936garrenean osatu. Tarte horretako Euskal Erriari eutsi behar zaio. Eta berauk bakarrik dira tarte hortako Euskal Erria nolakoa zen esan behar dutenak Alderdiko beste askoren gainetik.
>
> Jakina, badirudi, hauentzat etsairik aundiena, Euskal Erria berjabetuz, osatuz eta gaurkotuz aurreratu nahi dutenak direla. Eta ekin diote borroka bizian ezker-abertzaleari eta eskuin eta zentzuzkoari"[509].

Despido eta irakasleen kontrako eraso hauek, ordea, ez zuten bat egiten euskal gizartean zegoen erradikaltze eta politizatze dinamikarekin. Agerian kontraesan baten aurrean gaudela pentsa dezakegu. Alegia, ikastolak, lan honetan deskribatu dugun karakterizazioari jarraiki, frankismoaren garaiko erresistentzi mugimenduaren aintzindari berritzaile eta sortzaileak izan baziren nola uler

---

507 GARIN (1978): *Las ikastolas como indicador de un pueblo*. **Cuadernos de Pedagogía**, 46.

508 ELKARTEA, I. (1971): *Iruineko gertakarien harira*. **Anaitasuna**, 219. Ikastoletako istiluei buruz gehiago jakiteko, ikus: PASIOTAR BATEK (1972): *Deustuko ikastolari buruz gehiago*. **Anaitasuna**, 246; AXPE, J. (1972): *Arrasateko gertakarien historia laburra*. **Anaitasuna**, 246; JUNTAK, A. I. (1972): *Batzar nagusien ondorioz*. **Anaitasuna**, 246; HOLTZ (1973): *"Batzar nagusien ondorioak" komentatuz*. **Anaitasuna**, 247; IMAZ (1972): *Zer, zergatik,... eta beste zenbait puntu*. **Zeruko Argia**, 509.

509 ARGIA, Z. (1973): *Zer zabiltzate*. **Zeruko Argia**, 554.

daitezke bere barruan sortutako jarrera autoritario hauek, nola zen posible, euskal gizartearen esparru zabal batzutan erradikaltze prozesu haundi bat ematen ari zen bitartean, borroka inguru batetan sortutako ikastolak bere eduki kontestatarioa galtzeko eta sistemaren aldetik asimilatzeko arriskuan egotea? Apalategi, Aristegi eta Iztuetak arrazoi batzu taularatzen dituzte kontraesan hau argitzeko:

a) Ikastolen egoera ekonomikoa. 1970.eko legeak eskolari ezarritako baldintzak ekonomikoki eraman ezinezkoak suertatzean, dirua zuten beste sektoren laguntza beharrezkoa egin zen; "Ces gents qui ont la posibilité de donner une aide économique d´une certain importance appartiennent à la bourgeoisie basque, qui a pu ainsi introduire ses représentants dans les postes décisifs de la structure des ikastolas et imposer sous prétexte d´aide "desintéressée" ses propres orientations politiques de classe"[510].

b) Estatuak ikastolei ezarri zien legeztapenak, Elizaren babesaren bidez gauzatzean, erakunde horren ordezkariak mugimenduaren egituraren postu erabakikorretan egotea erreztu zuen, euskal burgesia eta elizgizon hauen ideologia deitu dugun nazionalismo tradizionalean koka genezakeelarik.

d) Ikastolak, hazkunde arinaren ondorioz euskal gertakari orokor eta haundia bihurtu ziren neurrian, hasierako homogeneitatea eta motibazioak galduz joan ziren, gizartean eskuratutako izena gurasoen hautaketaren motibazioa bilakatu zelarik. Euskararen zapalketaren eta nazio konzientzia (hau da, politikotzat jo genitzakeen motibazioak) hain agerian ez egoteak, ikastolak erresistentzi eremutik urruntzea laguntzen zuen, burgesiaren ideologiaren tinkotzearen alde.

e) Hazkundeak sortutako egoera berdinengatik, irakaslegoaren motibazioak eta izaera ere aldatzen dira, ikastolak borrokagune baino lantoki bat bihurtuz. Honen ondorioz, irakaslegoaren batasun ideologikoa (euskaren defentsa militantea eta nazio eraikuntzaren kontzientzia) hausteko arriskua agertzen da, ikastolen kontrola eskuratu nahi dutenen ideologia horretan lagungarri bilakatzen delarik.

f) Orain arte aipatutako arrazoiak, gure lan honetan zehar era batez edo beste batez azalduta agertu zaizkigun arren, badago egileek plazaratzen duten beste arrazoi bat, gure ustez oso interesgarria, hau da, ezkerraren jarreraren eragina. Ezkerreko taldeen atzetik etengabe ari zen erregimenaren errepresio polizialak, talde hauen eraginari indarra kentzen zien, burgesiaren hegemoniari bide emanez. Ezker inguratu eta kolpatu honek, kulturatik kanpoko sektoreei lehentasuna eman behar izan zien, ikastolek behar zuten arretaren kaltez. "Les groupes revolutionnaires avec une position théorique juste au sujet du róle des

---

510 APALATEGI, J., ARISTEGI, L. M. eta IZTUETA, P. (1970): **L´enseignement en langue basque**. argit. gabe. P. de Gaudemarrek zuzendutakoa. Paris: 28. orri.

ikastolas au sein du front culturel basque, peut-étre n´ont pas accordé dans la practique toute l´attention necessaire à la lutte dans ce domaine, parce que ces groupes ont été absorbés par la lutte purement politique ou syndicale"[511].

Oro har, ikastolen mugimenduak dinamika sozialarekin harreman zuzena izan arren, bere garapenaldi desberdinek eraginda aurkitu zela gogoan izan behar dugu, definitze momentu garratzitsuenetako bat instituzionaltzea izan zelarik. Orain arte deskribatu ditugun puntuak krisi honen definigarritzat hartzen ditugu, eta euskal munduan suertatzen ari zen belaunaldien arteko edo nazionalismoaren ideologiaren joera nagusi biren arteko adierazleak izan zirela esango genuke.

4.4.2.4. Ikastolak burgesak?

Euskal gizarte hautsiaz hitz egiten zuen Joxe Azurmendik 1973.ean. Bi belaunaldiren arteko borrokak hautsitako gizartea batetaz; kutsu politikodun, baina politika bera baino haruntzago zihoan ezin ulertze garratza:

> "Gurasoen eta umeen belaunaldi biak oso diferenteak direla, eta elkarri begiz-begi jarririk daudela, esaten nuen. Noizpaiteko diferentziak, beren arteko kontradizio bihurtu direla. Eta kontradikzio hauen erdian, haserreturik, elkarren kontra burrukan hasiak ditugula, jadanik.
>
> Burruka hau, hazaldien arteko burruka normal bat baino gehiago da. Bai bere funtsagatik eta bai bere moduagatik. Burruka honetan politikak dadukan inportantzia ikusteko (agiriko nahiz izkutuko politikak), ez dago teoria konplikatuak ikasten ibili beharrik.
>
> Baina ez politika programatu batek –Euskal Herrian oraingoz inork ez daki, ez zahar ez gaztek, gerorako politika garbi samar nola programatu litekeen– ezpata bai, sentiera eta jite sozial eta politiko jeneralek. Belaunaldi biotan, batean eguzki denan, bestean beti euri da, eta aldrebes. Honela gabiltza 1960 aldera hasi eta gaur arte"[512].

Azurmendik aipatzen digun ezin ulertze hau, gizartean bezalaxe, ikastoletan ageri agerian zegoen; ez hori bakarrik, baizik eta ezin ulertze guztiek dakartzatzen polarizazio gordinak ere. Enfrentamentu honen kalteaz eta gazteleraren aldekoen irabazietaz altxatu ziren abotsak zenbait aldizkaritan, Zeruko Argiako "Zer zabiltzate" izeneko editorialean bezala: "Bada gure artean ezker euskaltzalerik. Baita eskuin euskaltzalerik ere. Baina abertzale zen zenbait ezker erdaltzale bihurtzen ari da, eta, abertzale den zenbait eskuin erdaltzale bilakatzen ari da"[513]. Alegia, bata bestearen kontra egiteak, eta ezertan ere amore ez emateak inposatzen zien dinamikak, ikastolaren azken helburu eta zentzua ziren euskaren gordeketa eta berreskuraketa, kolokan ezartzera eraman zituen, areriokeriak eta zatiketak gaztelazko eskolaren posizioa berrindartzera bideratuz. Azurmendik honi buruz egindako hausnarketan, gaitz hori euskal gizartearen

---

511 Lan bera, 31. orri.

512 AZURMENDI, J. (1973): *Ideologikeriak eta norkeriak*. **Zeruko Argia**, 527.

513 ARGIA, Z. (1973): *Zer zabiltzate*. **Zeruko Argia**, 554.

ideologikeria eta subjetibizatzeko joerari leporatzen zien, bai alde batetan tiraka zeudenei baita besteei ere: "Beraz, problemak pertsonalizatzeko eta sikologizatzeko joera gogorra dago, horrela problemak bestelakotuz eta faltseatuz. Hau ez da harrigarria: hain zuzen gure egoera sozialean inguratzen gaituzten kondizio sikologikoengatik berengatik. Persegizio giroak, klandestinitateak eta klandestinismoak, informazio agiririk ezak, lanaren gehiegiak eta segurantzarik ezak, ditugun medioen eskasiak bezalaxe, horixe errazten baitigute. Gainera, gauzaren beraren edo problemaren beraren azterketa sakonagoak zailak dira, sustraiak argitu nahi izanez gero, sustraiok ia beti lurpean izkutatzen dira-ta: eta euskal "lurpe soziologikoa" konplikatu bezain misteriotsua eta korapilatua da"[514].

Gatazka ideologikoaren aurreko puntuetan, testuetan "eskuineko" joeraren edo nazionalismo tradizionalaren izenburuaren azpian sartu badugu ere, termino politikoetan (eskuina-ezkerra..) definitzeak ezartzen digun mugaketak fenomenoa bere zabaltasun guztian ez duela hartzen azpimarratu nahi dugu; hau da, eskuineko edo ezkerreko jarrerak aipatzean, esanahi politiko konkretuaz aparte, eremu zabalago batetan irakur daitezkeen esanahi soziokultural, historiko eta soziologikoen eraginaz ere ari gara, bakoitzaren nolakotasuna aztertzen sartuko ez garen arren. Zehaztasun hau kontutan hartuta, gizartean zein ikastolen mugimenduan, jarrera polarizatu bi agertzen zaizkigu. Batetik orain arte aztertu ditugun argudioak defenditzen zituena, eta bestetik, ezkerreko joera, edota batzuk "ezkertikerizkoa" deitzen dutena.

Izan ere, euskal ezkerraren politikagintzan egon den nazio eta sozialismoaren eztabaida horretan zeri eman lehentasuna, edo hobeto esanda, nola konbinatu bi ideiok, izan da urteetan zehar gako garrantzitsu bat. 60.eko hamarkadaren bukaeran, ETAren zatiketa desberdinen ondorioz, joera politiko desberdinak gauzatu ziren, joera bakoitzak atal bakoitzari pisu espezifikoa ematen ziolarik. "Gure artean nabarmena da "nazioartekotasunak" eraginik zenbait ezker usteko edo ezker txangoren buru-bihotzak, elburuak eta jokabideak noruntz begira dauden. Nahi gabe ala jakinaren gainean, ezarria dagoen nazio jakinari laguntzen diote, nazio hortako ezkerrari lagundu nahirik. Bi ahoko labana da, ordea, hau. Ongarri auzorako, kaltegarri etxerako. Gure erriko ezkerra zatitzen du, gure erri borroka saihesten, eskuin zentzuduna ikaratzen eta erri indarra sakabanatzen"[515].

Zeruko Argiaren editorialeko hitzok bere itzulpena dute Euskal Herrian agertutako zenbait talde politikotan. Besteak beste, E.S.B.A.ren sorrera (F.P.L. barruko frente bezala), nazio borroka eta klase borroka horrela definitzen zutelarik:

---

514 AZURMENDI, J. (1973): *Ideologikeriak eta norkeriak*. **Zeruko Argia**, 527.
515 ARGIA, Z. (1973): *Zer zabiltzate*. **Zeruko Argia**, 554.

"Por eso entiende E.S.B.A. que el planteamiento nacional debe de ser comprendido en estrecha relación con el problema de clase. Quiere decir esto que solo nos interesa el planteamiento nacional que la concreta clase trabajadora presenta, en lucha por la supresión de la explotación del hombre por el hombre. (...).

La construcción del socialismo no es, entonces, ni anterior ni posterior a la creación del nacionalismo. El nacionalismo socialista es una faceta que toma –que necesariamente ha de tomar– el socialismo. Porque la tarea de liberación de los hombres que el nacionalismo ha emprendido sólo puede comprenderse como la liberación de los hombres concretos en su trabajo, en sus aspiraciones, en su cultura.

E.S.B.A. es entonces un movimiento socialista autónomo del país que, porque así entiende que es la realidad, se federa en una lucha política común a otros movimientos, para construir entre todos un Frente de Liberación en la península, que logre la implantación del socialismo en sus distintas nacionalidades"[516].

E.S.B.A.k, nazio eraikuntzak iraultza sozialistaren eskutik etorri behar zuenez eta, azken hau Euskal Herrian soilik egin ezin zitekeenez, Estatuko beste herrialdeekin batera egin beharra azpimarratzen zuen, frente "vasco-español" baten aldeko apostua eginez. Horrelako planteamentuen aurreko ezadostasunak, ordea, segituan agertu ziren, aldizkari horretan bertan ikusi ahal dugun bezala. Usakok euskal historian egondako politika frentistaren balantze negatiboa (karlismoa, errepublika garaia..) egin ondoren, erizpide nazionalari jarraitu beharra gaineratzen zuen:

"Sucesivamente, por tanto, se ha tratado de solucionar el problema vasco, que es un problema nacional, a base de pactos antinacionales, en los que por principio el pueblo vasco queda unido estratégicamente a un bando político español determinado (...).

Todo Frente Vasco-Español (o Vasco-Francés) es fundamentalmente anti-nacional, pues refuerza en el fondo la legalidad española en Euzkadi. Nuestra decadencia es una decadencia nacional. Nuestro renacimiento solo es posible en un cuadro nacional; es decir, en una Euzkadi libre, federada libremente a otros países europeos (...).

Seguir creyedo que la solución del problema vasco solo podrá lograrse apoyándose en el ala política española, es confesar que nuestro problema no es un problema nacional, sino un problema político interno español.

Tanto la evolución de nuestro pueblo como las consideraciones de puro sentido común político que acabamos de hacer exigen así la constitución de un Frente Nacional Vasco"[517].

Testuinguru honetan, ikastolen munduan zabaldu zen beste kritika bat "ikastolak burgesak zirela" esatearena izan zen. Nazionalismo tradizionala burutzen ari zen kanpaina guzti horren ondoren, ikastolen mugimendua "burgesiaren" eskuetan erorita zegoela aldarrikatzen zen, ezkerraren zenbait posiziotatik: "Egunetik egunera ikusten ari gara, nola ikastolak, abertzale aurrerakoi eta sozialista euskaltzale eskuetatik ihes egiten ari dirazela, eta kontserbatzaile eskuetan

516 E.S.B.A. (1968): *La acción del frente popular en Euzkadi (F.L.P.)*. **Branka**, 6.

517 USAKO (1968): *Del frente español al frente nacional vasco*. **Branka**, 7. Euskal Frente Nazional baten alde ere, ikus: ZABALA (1969): *Frente Vasco ¿para qué?*. **Branka**, 9.

erortzen"[518]. Horrelako esaldien azpiko esanahia aztertu behar dugula uste dugu. Alegia, ikastolak sortzez herri ekimen bezala definitu izan ditugu eta, honekin, klase desberdinen partaidetzaren bitartez eratu zirela esan nahi genuen. Nazionalismo kontserbatzaileak, 60.eko hamarkadaren bukaeran, gizartearen politizazioak ikastoletan izan zezakeen joera eragotzi nahiean bere neurriak hartu eta aztertu dugun erreakzioa azalerazi zuen; gertakari hau, era berean, ezkerreko indar batzuk ikastolak eskuinaren eskuetan erortzen ari zirela interpretatu zuten, eta hortik "burgesak" zirelako etiketa ezartzearena. Etiketaren salakuntza honelako irakurketa omen zuen, Akaitzen hitzetan:

> "A! bai, beste batzuentzat zer da ikastola, burgesiak bere interesak babesteko bihar edo etzi behar izango dituen pertsonak (robotak) hezitzeko (prestatzeko) toki aukerakoak bakar bakarrik. Hontaz, honelako ikastolak edukitzekotan, hobe omen da bat ere ez edukitzea. Horatz, ikastolak suntsitzea hobe. (...).
>
> Zenbait buru injeniosorentzat ez da falta, gainera, metodo egokirik: ikastoletan bilinguismoa sartu behar omen da, demokratak baldin bagera. Ikastoletan, euskerak eta gaztelerak eskubide berdinak behar omen dituzte, gaurko Euskal Herriari erantzun jator bat emango bazaio. Ikastoletan erdera sartzeak (eta horrek bakarrik) burgesiaren hezi-toki bilaka ez daitezen lortuko liguke"[519].

Kuotak guraso askorentzat ordainezinak zirela, ikastolak ez zirela popularrak, eskola estatalekiko segregazio bide bat suposatzen zutela, klase konkretu baten interesen zerbitzuan ari zela.... bezelako argudioak agertzen zaizkigu, aldizkarietako artikuluen azterketak egiterakoan. Oro har, ikastolak burgesak zirela. Azurmendik, lehen aipatzen genuen artikuluan, argudio hauen azpian antzematen zuen sujetibizatzeko joera gogor kritikatzen zuen, arrazoiak itxura objetibo batez jantzi nahi baina funtsean arrazoi subjetiboak erabili: "Modan dagoen zenbait ideologiak berak ere horixe errazten du. Alegia, hitzetik hortzera esango dizute, problemak objetiboki aztertu behar direla, ez dela sujetibizatu behar, etabar. Baina gero esplikazio guztiak "burgeskerian" akabatzen dira (...). Burgesok beti erreakzionarioak dira, beti autoritarioak, eta beti mamutzar gaiztoak. Egia da, hitz horrek Euskal Herrian hartu duen usadioarekin, ez dela posible burges bat pertsona dezentea izatea"[520].

Egia esan, burgesiari buruzko baieztapen guzti hauek ikastolaren funtsa eta jatorria ahazten dutela ematen du, ikastoletan klase bat baino gehiago egonda, erreza baitzen klase interes desberdinak egotea eta euren artean tirabirak egotea. Baina arazoak aurrerago jo zuen, Errezabalek ohartarazten digu honetaz: "Beraz, gauza bat da gure artean ditugun kontraesanetaz konsziente izatea eta beste bat, oso diferentea gainera, ondoren ikusiko dugun bezala, kontraesan horiek absolu-

---

518 Ikus; Berriak aldizkaria, 13. zbk. in ERREZABAL (1974): *Ikastolak Hego Aldean*. **Zabal**, 5.
519 AKAITZ (1973): *Ikastolaren etsaiak*. **Zeruko Argia**, 554..
520 AZURMENDI, J. (1973): *Ideologikeriak eta norkeriak*. **Zeruko Argia**, 527.

tizatu eta gure burrukaren funtsa eta helburu nagusi nahi izatea"[521]. Edo Akaitzek zorroztasunez gaineratzen zuena "Euskal Herrian ez dela sozialismoa arriskuan dagoena, euskaltasuna baizik"[522].

Ezkerreko talde hauetatik ikastolekiko eman zen irtenbidea, eskola estatalaren eta elebitasunezko planteamentuen bidetik etorri zen. Errezabalek Berriak aldizkarian agertutakoa hitzez hitz taularatzen zuen: "Gure ustez premia gehiago dauka bide hortan (eskola nazionaletan) lan egiteak (nahiz eta nekea eta luzea izan), ikastola kontserbadoreetan denbora galtzeak baino", baita hausnartu ere: "Irakaskintza ofizialarekin batera burruka berdinean integratzeko ematen diren arrazoiak ez dira oso garbi azaltzen. Batzuetan langileen semerik gehienak eskola horietara doazela aipatzen da. Hurrengoan, berriz, eskola horietako maisuak ere irakaskintza burgesaren aurka borrokatzen ari direla, edo euskeraren aldeko interesak izan ditzazketela, esaten zaigu. Eta beti ere, hizkuntz-bitasuna irakaskintza guztian sartzea jartzen da helbururik nagusinetako bat bezala"[523].

Artikulu berdinetik, lau kritika nagusi jaurtiki zioten horrelako pentsakerari:

a) Ezin pareka daitezkeela estatutik ezarritako eskolak eta Euskal Herriak estatuaren zapalkuntzari aurre eginez sortutako ikastolak (ezkerreko joera honetan, lehen aipatzen genuen absolutizazioa agertzen zaigu, ikastoletan egon zitekeen osagai burgesa absolutizatu egiten baita, beste klase osagaien kaltez, eta erreakzioz Estatuaren bidezko alternatiba proposatzen da, baina azken honi inongo kritikarik egin gabe).

b) Mehatxupean bizi diren ikastolak zorrotz epaituak dira, eskola estatalari inongo kritikarik gabe. "Zalantzarik gabe esan ditekeala uste dut, azken urteotako lanik inportanteenetako bat ikastolen bidez egiten ari dela. Ba dakit, eta ba dakigu denok, ikastola horietan akats asko dagoela. Euskeraren egoera eta mugak ongi ezagutzen ditugunok, inork baino hobeki neurtzen dugu, nik uste, andereñoen lana zein den zaila, eta merezimendua zein duten haundia. Orain dela urte batzuk, Ikastola horiek "burgesak" zirela esaten zen, eta gotik behera desegin behar zirela (...). Noizko gogorkeria hauek ERDELDUN ESKOLEKIKO?"[524].

d) "Eskola nazionalen izakera eta eginkizun zapaltzailea ez da batere aldatzen eskola horietara langileen seme asko doalako. Izan ere, eskola horiek

---

521 ERREZABAL (1974): *Ikastolak Hego Aldean*. **Zabal**, 5. 3. orri.
522 AKAITZ (1973): *Ikastolaren etsaiak*. **Zeruko Argia**, 554.
523 ERREZABAL (1974): *Ikastolak Hego Aldean*. **Zabal**, 5. 4. orri.
524 TXILLARDEGI (1970): *Euskararen arazoa beste hizkuntza-pizkunderen argitan*. **Branka**.

langileriarentzako eskolak dira, baina ez ahatik *langileriaren* eskolak. Bereizketa hau funtsezkoa jotzen dugu gauzak alferrik nahasten ibil ez gaitezen"[525].

e) Azken kritika lerroa hizkuntzaren trataerari zuzentzen diote, hau da, elebitasuna eskola guztietara zabaltzea oso onuragarria litekeen arren, ikastolaren eginkizunak bere horretan dirauela. Hizkuntzaren egoera kontutan hartzen badugu (gazteleraren nagusitasuna, eta euskararen diskriminazioa), elebitasunezko helburua erdizkako helburu baino ez dela, eta hizkuntzaren "status quo"a legitimatzeko baino balio ez duela. "Bainan herri konzientzian oinarrituta hizkuntzaren aldeko burruka une eta leku guztietan gogor planteatu beharrean, zapaltzaileei bilinguismoa eskatzen jardutea, hori hizkuntza mailan dugun helburu guztia balitz bezala, azken finean erdirakoikeriak bortxaz lortu dituen posizioak onartzea besterik ez da"[526].

Aipatu ditugun iskanbila guzti hauen ondorioz, ikastolen munduan hainbat astindura eta konponezin egon zirela zalantzarik ez dago. Ikastolen mugimenduaren fase berria, ordea, bazegoen neurri batetan bideratuta. Instituzionaltze eta legeztatze prozesuek aurreko epealdiaren ezaugarri batzuren itxuraldaketa ekarri bazioten, bada egia ere garai eta derrigortasun berriei egokipenaren ondorioak izan zirela. Polarizatutako jarrera hauek ikastolen eskenatokitik dasagertu ziren; batzuk belaunaldien arteko txandaketa bukatutzat emanik, eskuin nazionalistak garai berriei ere bere egokipenak egin behar izan baitzizkien, eta, besteak, eskola estataletara abiatu baitziren, eskola frankistaren eredua berritzen ahaleginduko zen irakaslego multzo batetan berrezagut genezakeelarik. Artikuluetako lerro desber-dinetatik agertzen ziren pluralismoaren aldeko eta ideologikeriak baztertzeko aldarrikapenak ez ziren zaku beltzean erori: "Ikastolak ez dira sortu talde baten ideologia gordetzeko. Ikastolak herriarenak dira eta Euskaldunen artean talde guztiek dute bere eskabidea. Hori bai, talde batek ez du eskubiderik bestekoak kalera botatzeko, ezta ikastolak erretzeko ere. Ikastolaren etsairik aundienak bertan ideologia desberdintasun bat onartzen ez dutenak dira (...). Maila honetan pluralismo bat onartu beharrean gaude. Bestela, ikastolak, urte gutxi barru, estaduaren eskolen antzeko gertatuko dira"[527]. Eta agian zabaltasun honi esker bizi ahal izan du ezaugarri bereizgarriak eta izakera euskalduna eta nazionala dituen ikastola mugimenduak.

---

525 ERREZABAL (1974): *Ikastolak Hego Aldean*. **Zabal**, 5. 5.orri. (azpimarratutakoa jatorrizko testuaren ñabardura da).

526 Lan bera,7. orri.

527 AITZKOATE (1973): *Umearen eziketarako beharrezko baldintzak*. **Zeruko Argia**, 517.

ONDORIOAK

I. EUSKAL ESKOLA ETA IDEOLOGIA NAGUSIAK

Ikastolen mugimenduari buruzko lan hau egin ondoren, euskal eskolaren historiak bere baitan bildu dituen aberastasun eta gizartearekiko harreman zuzena agerian gelditu zaizkigu. Mende honetan zehar, euskal hezkuntzaren eraikuntza talde sozial desberdinen borondatea eta helburua izan direla eta badirela ikusi ahal izan dugun arren, helburu honek denbora eta aldaketa ekonomiko, sozio-politiko eta kultural desberdinen arabera forma anitzak hartzen dituela frogatu ahal izan dugu, garaian garaiko eskola saio guztion artean hari jarrai bat errez antzeman dezakegularik.

Ikastolaren azterketa honetan, 36ko gerrak erdibitzen dituen bi epe nagusien arteko batasuna eta bereiztasuna aztertzea izan zen lehenengo helburu bat, eta epe bakoitzari euskal eskola mota bat zegokiola pentsatzea izan zen gure hipotesia. Gauzak honela, gerrara arteko epeari, oro har, euskal eskola mota bat legokiokeen bitartean gerraosteari beste bat letorkioke, nahiz eta bion artean harreman estuak egon behar izan. Errealitatearen azterketak, ordea, gure hasierako planteamentu honen sinplekeria erakutsi zigun baita interpretapenerako argibide batzu erreztu ere. Honela, orokorrean, gerrak euskal eskolaren eraikuntza sozialean indarrezko etendura sakon bat ezarri zuela ukatzerik ez dagoen arren, haustura hau gerraurreko eskola ideologia eta esanahia aldatzeko heinekoa ez zela izan ikusi ahal izan dugu. Era honetara, gerra ondoren euskal eskolaren lehenengo adierazpena gauzatzen denean, Donostiako Elbira Zipitriaren saioa dela medio, gerrara arte egondako eskola ideologiaren birsorkuntza zehatza azaltzen zaigula baiezta dezakegu, frankismoaren menpe bizirauteko antolakuntza mailako egokitze batzu (esparru pribatuan soilik aritzearena) eginagatik. Beraz, gure lanean Donostiako etxe eskola deitzen duguna, nahiz eta frankismoan agertu, gerrara arteko eskola ideologiaren adierazpen ahuldu gisa hartu behar izan dugu, birsortu, neurri txiki batetan garatu baina beheruntzko joera aurkeztu zuen euskal eskola saioa dugularik.

Elbira Zipitriaren biografiaren datu nagusi batzuri jarraiki eta elkarrizketetatik ateratako informazioarekin kontrastatuz, etxe eskola eta bere sortzailearen nortasun eta ideologiaren arteko sinbiosia azaldu zaigu, nazionalismo tradizionalaren familiaren ideologia laburbiltzen digun ekinbidea hain zuzen. Elbira Zipitria bere garaiaren ekarpenen arrago, bilgune eta sintesiaren eragile ikusten dugu, frankismoaren urte ilunetan euskal eskola saioari birsortzeko aukera zabaltzen dion emakume militantea, eta belaunaldi berriarekiko ezinbesteko katemaila.

Elbira Zipitriak gerraurreko metaketa teoriko pedagogiko eta ideologikoa etxe eskolan gauzatu zuenean, gerrak sortutako euskal gizartearen komunikazio haustura gainditzeko tresna bat, heziketari zegokion tresna bat, finkatu zuen, belaunaldi berriek iraganaren herentziaz balia zitezen. Puntu hau oso garrantzitsua dela uste dugu, zeren ikertzen hasi ginenean gerraurreko euskal eskola eta ikastolaren artean lotura zuzenak egon behar zirelakoan bila ibili eta aurkitu ez baikenituen. Elkarrizketetan 1960.etik aurrerako ikastoletako andereño eta guraso aintzindariei galdetzerakoan, gerraurreko esperientzietaz zuten ezagutza oso txikia zela konturatu ginen, Zipitriaren etxe eskola erreferentzi nagusia eta, kasu askotan, bakarra bilakatuz. Honek, ordea, ez du esan nahi Zipitria etxe eskolako ideologia, eredu eta pedagogiaren sortzailea zenik, baina belaunaldi berrien aurrean, beste erreferentziarik ezean, horrela agertzen zen. Gure uste apalez, puntu honetan isladatzen da ikastolen historiaren irakurketa motzegi baten ondorioa, alegia, gerraosteko euskal eskola esperientziak (etxe eskola eta ikastola) gertakari bakar bat bezala hartzea, eta ez eskola ideologia eta eredu desberdin biri erantzuten dieten ereduak. Beste era batez esanda, askoz ere antzekotasun eta bateratasun haundiagoa aurki daitekeela gerraurreko hezkuntza esperientzia eta etxe eskolen artean, etxe eskola eta ikastolaren artean baino, nahiz eta azkenengo bi hauek, besteak ez bezala, garai berdinean suertatu.

Gauzak horrela, euskal eskolaren bilakaera gizartean dirauten joera ideologikoek zeharkatuta dagoen neurrian, eskola ideologia nagusi bi (euren barruan eskola saio desberdinak egon daitezkeen arren) agertzen zaizkigu. Bata, gerrara arte bizi bizian zeuden ideologiei (nazionalismo tradizionala eta karlismoa) zegokiena, eta bestea, frankismoan nazionalismo berria eta modernizatzeari zegokien eskola, alegia, ikastola. Maila ideologiko orokorrean eta beroni dagokion prozesu historikoan bi joeren arteko trukaketa eta elkarren eragina egon zen bezala, eskola ideologia mailan eta beroni dagozkion eskola eredu desberdinen artean (etxe eskola eta ikastola) ere komunikazioa, elkar trukaketa eta gatazka eman ziren. Baina etxe eskolaren ideologiak eta egiturak ez zioten 60. hamarkadako gizarteari behar bezala erantzuten, ez zieten Europan zehar egondako aldaketa ekonomiko, ideologiko eta eskolarrei egoki erantzuten eta eredu zaharkitua bilakatu zen.

Etxe eskolaren erantzun ezin honekin aldaketarako baldintzak ezarrita zeuden, eta gertatu ere gertatu ziren. Familiaren ideologia, emakume sare hezitzaileak, hizkuntzaren gordeketa funtzio soila, erlijiotasun errotua, lehenengo alfabetatzeari soilik erantzuten zion eskolaratzea (bederatzi urtera arte baino ez), andereñoaren "bigarren ama" funtzioa... izan ziren, besteak beste, Zipitriaren ereduan oso funtsezkoak baina ikastolen mugimenduarentzat hastapenetatik batzutan, apur apurka besteetan, alboratu ziren ezaugarriak. Pedagogia ekintzailearen printzi-pioak, eskolarako materialeak eta planteamentuak, euskaltzaletasuna (euskara hutsezko eredu hezitzailea) eta irakaslegoaren formazioaren garrantzia eta derrigorrezkotasuna bezalako osagaiak, ordea, ikastolek Zipitriaren eredutik hartu eta bere eginez Euskal Herri osoan zehar eraberritu eta zabaldu zituen ezaugarriak izan ziren.

Beraz, eta lehenengo ondorio orokor gisa zera esan daiteke: frankismoaren garaian euskal eskola saio bati hasiera eman zion Zipitriaren etxe eskola, ikuspegi ideologiko batetatik, gerraurreko ideologietan kokatu beharrean gaudela, garai berrian ekinbide honen emaitzik aberatsena, agian, gerrak indarrez ezarritako belaunaldien arteko komunikazioaren haustura gainditzea posible egitea izanik. Euskal Herrian 1960.tik bilakatzen hasi zen eraikuntza nazionalaren dinamikan –politikan, alfabetatzean, literatuta sozialean, kantagintzan, arte adierazpenean, antzerkigintzan... isladatutako horretan– txertatu zuten gerra jasan ez zuten belaunaldi berriek euskal eskola proiektua, eta Zipitriaren ekarpena eskuratuz beste eskola saio bat ekoiztu zuten: ikastola.

II. EUSKAL HEZKUNTZA ETA MODERNITATEA

Etxe eskolarekiko apurketa eta ikastolaren sorrera euskal hezkuntzaren historian jauzi kualitatiboa suposatu zuela zalantzarik ez dugu. Bere ulermenerako testuinguruaren azterketa egin beharra dugu. Batetik, II. Gerra Haundiaren osteko Mendebaldearen egoera dugu, non ekonomia mailako eraldaketek eta beraiek ekarritako abiada eta hazkunde ekonomikoek aldaketa ideologiko zorrotzak erreztu zituzten. Hauen eraginez, hezkuntza sistemaren birformulaketa eta indarketa, emakumearen askapen mugimendua, marxismoaren zabalkundea, erlijioaren indar galtzea eta antzeko gertakariak suertatzen ari ziren. Beste alde batetik, frankismoaren esanahia bera dugu, Euskal Herrian edozein adierazpen politiko, kultural edota linguistiko deseustatzera zuzentzen den erregimena, Estatu Espainola nazio bezala kontsolidatzeko joera sutsu eta menperatzaile horretan. Frankismoaren tresna ideologiko politikoek eta militarrek euskararen biziraupena bera jarri zuten kolokan, benetako desagertze arriskua gero eta nabariagoa izaki. Beraz, Europan ondasun, irekitasun eta sormen epe bat

hazten ari zen bitartean, Estatu Españolak aldaketon aurrean itxita eta periferiaren kontrako erasoa eta txikitze politika azken muturretaraino eramaten zuen.

Kanpoko egoera guztien aurrean, eta 60. hamarkadaren abiada ekonomikoak ekarritako irekitasun haundiagoaren uhinaz baliatuz, Euskal Herrian erreakzio orokor bat gauzatzen hasi zen. Zenbait taldek nazionalismo tradizionalak, Esilioko Euskal Gobernuaren politikaren porrotaren ondoren, erregimenari erantzuteko ahalmenik ezta Europaldeko aldaketen ekarpenak bere egiteko gaitasunik ere ez zutela ikusirik, gizartean zerbait aldatzeari ekin zioten, horren ondorioz, maila politiko zein ideologikoan birformulazio prozesu bat zabaldu zelarik. Erreakzio honetan, nazionalismoaren zutabeak beraiek aldatzen dira, nazioa koordenada biologiko eta genetiko hereditarietan eraikitzetik kooordenada linguistiko kulturaletan eraikitzera igarotzen delarik.

Momentu honetatik aurrera, hizkuntza herrigintzaren muina bihurtzen da, baita nazioaren zutabe nagusia ere (euskararik gabe ez dago Euskal Herririk). Grina berri honek kultura eta hizkuntzaren hiritartzea eskatuko du eta euskarak beste hizkuntzek daukaten statusa eta bilakaera eskura ditzan ekintza ugari burutuko dira: alfabetatze kanpainak, argitalgintza, ikastolak, Udako Euskal Unibertsitatea... Nazioaren kontzeptu honek gainera, arrazaren muga gainditzean, eraikuntza prozesu dinamiko batetan sartzeko aukera eskeintzen du, euskal nazioaren partaide izan nahi duen edonori, euskalduntzearen bitartez, atea irekiz.

Maila ideologikoan nazionalismo berriaren sorrera, maila politikoan ETAren borroka eta zabalkundea, eta maila soziokulturalean, euskal kulturaren erresistentzi mugimenduaren antolaketa, euskara kultur idatzien zirkuituetan sartu eta normaldu beharra, alfabetatze eta euskalduntze prozesuak dira, besteak beste, euskal gizartearen barnean eraldatzen ari ziren arloak. Euskal eskola, ez zen atzera gelditu. Gure ikerketan ikastolak 60. hamarkadan hartu zituen nortasunak eta norabideak euskal gizartearen eraldaketekin harremanduta eta elkarren eraginean zegoela ikusi ahal izan dugu, eta beste esparru guztietan gertatu bezala, euskal hezkuntzara ere modernitatea heldu zen. J.M. Torrealdaik Rikardo Arregik kulturari atxikitzen zionaz esaten zuen bezala: "Gaurko munduaren martxa laisterrean, bizi nahi badu, euskal kulturak ez du geldi egoterik. Hil-ala-biziko dilema planteatzen zaio hementxe. Eskailera automatiko horietan geldi zaudela esaterik ba ahal dago? Zu mugitu ez arren, eskaileraren martxa jarraituko duzu. Euskal kultura, gelditzen bada, kultura haundi horiak markatutako bidea segitu beharko du. Eta hor galduko da. Horregatik euskal kultura ez zaio kontserbatzeari lotuko. Ez du hortik etorkizunik. Lortzera jo behar du. Egoera berriei planteamendu berriak: hori da efikaziaren legea. Eta gaur lortzea da batez ere gure eginkizuna. Zer lortu? Mila gauza, baina batipat bi, alegia, *euskaldunak*

alfabetatzea (hizatren zentzurik sakonenean) eta *erdeldunak euskalduntzea*"[528]. Euskal eskola ere eskilera mekaniko horretan zihoan eta etxe eskolaren ereduarekin jarraitu izatekotan eskola atzeratu eta desegoki bihur zitekeen.

Era honetara, frankismoan Donostian Elbira Zipitriak eratutako etxe eskolen multzoan lehenengo tirabirak sortu eta gero, badaude elkar urruntzearen hasiera markatu zuten bi gertakari: batetik, Santo Tomas Lizeoaren sorrera, eta bestetik eskola saioa Donostiatik beste eskualde edo herrialdeetarako zabalkundea. Bi urrats hauen atzetik, Andereñoen Erresidentziaren eraketak eta ikastolen mugimenduaren hedapenaren egokipenek erabateko mozketa erreztu zuten. Donostiako etxe eskolek 1969.ra arte iraun zuten arren, Zipitriak ezarritako moldeetatik ez ziren aldendu, eta geldotasun honek bere beruntzko joera akabora eraman zuen.

Ikastolen mugimendua eta Zipitriaren arteko tirabirak nazionalismoaren bi ikusmolderen islada bezala interpretatzen baditugu ere, ez da bi jarreron gatazka gune bakarra izango. Etxe eskola eta ikastolaren lehenengo tirabira hau, 70. hamarkadaren hasi hasieran berpizten da, alegia, ikastolen instituzionaltze prozesuaren kokapenean. Bigarren momentu horretan, maila haundiko gatazka eman zela azpimarratu nahi genuke, eta eztabaidagai nagusiak nazionalismo tradizionalaren eta berriaren esparruetan interpretatu ditugu, aurrerago laburbilduko dugun bezalaxe.

III. IKASTOLEN MUGIMENDUAREN SORRERA ETA LEHENENGO ZABALKUNDEA

1960. urteak ezartzen duen muga horretatik aurrera hizkuntza, hezkuntza, modernitatea eta hiriratzearen osagaiak biltzen dituen eskola saioa ikastola dugu. Lan honetan, euskaltasunetik industrializatutako gizarte bati erantzuten saiatzen den ikastola honen sorrera eta ezaugarriak aztertu ditugu, baita bilakaeran zehar egin daitezkeen bereizketak eta epeketak ere.

Frankismoan bi epe nagusi bereiztu ditugu ikastolen historia honetan: alde batetik mugimenduaren sorrera eta lehenengo zabalkundea dei genezakeena, non ikastolek bere eskola ereduari forma ematen dioten; eta beste alde batetik, aldaketa batzu direla medio eta gatazka gogor baten ondoren, 70. hamarkadan hasten diren instituzionaltze prozesuak ("prozesuak" diogu zeren frankismoaren bukaerak ezarritako banaketa administratibo politikoaren ondorioz Iparralde eta

---

528 TORREALDAI, J. M. (1971): *Kulturgintza eta Rikardo*. in TORREALDAI, J. M. (arg.): **Rikardo Arregi**. Jakin Sorta, 3: 26. orri.

Hegoaldeko bereizketa bikoitza hirukoizten baita, eta Nafarroako, Euskal Elkarte Autonomoko eta Iparraldeko erritmo eta modu anitzeko instituzionaltze prozesuak agertzen baitzaizkigu). Epe bi hauetan, zirkuito ofizialetatik kanpo egotetik poterearekiko harremanen hasierara igaro zen, mugimenduaren barruan lehenbizikoz egituraketa, legeztapena eta funtzionamendu arautua agertuz. Aldaketa hauek ez ziren edozelakoak, eta 60. hamarkadan zehar eraikitako eskola ereduan egokipen desberdinak suertatu ziren, nahiz eta ikastola kontzientzia mantendu.

Lehenengo epearen azterketari ekin genionean, gure abiapuntu nagusia motibazioetan kokatu genuen, oro har bi motibazio lerro nagusi aurkitu genituelarik. Batetik, euskararen atzerakada eta egoera larriaren ohartzea, zeinaren bitartez frankismoak ezarritako hizkuntz erasoaren zama igarri eta gaztelera nagusitzen ari zela estu sentitzen hasi zen. Bigarrenik, akulturatze horretan eskolak jokatzen zuen funtsezko papera, euskararen erabilera zigortuz eta hizkuntza bera mesprezatuz eta ukatuz. Bi motibaziook oso bizirik omen zeuden euskaldunen artean, bi erreakzio mota kontrajarri azalduz: batetik, euskalduna izateak zekarren estigmazio horretatik babestu nahiean seme alabek gazteleraz ikas zezaten nahi zuten guraso euskaldunak (beraz, hizkuntz eta kultur asimilazioaren bidea); eta bestetik, euskararen defentsaren bidetik seme alabei euskal eskola bat eskeini nahi zieten gurasoak (alegia, berezko kultur eta hizkuntza gordetzearen bidea). Azkenengo multzo honetan aurkitzen ditugu ikastoletako partaideak, erasoaren aurrean norberaren kultur eta hizkuntz baieztapenean oinarritzen ziren gizarte taldeak.

Motibazio hauen esangura azpimarratzea derrigorrezkoa iruditzen zaigu, soziolinguistikoki edota politikoki dituen ondorio guztiez aparte balore afektibo haundiko argudioak dira. Elkarrizketetan, hasierako ikastoletako partaideentzat euskararen egoera hau guztiz itogarria bihurtu zen, larritasunezko mutur batetaraino; hizkuntzaren egoerak sortarazten zizkien sentimentuak guztiz sakonak zirenez, eragin zituzten erreakziorako motibazioak ere berrindartu zituzten, kasu askotan ikastolagintza euren bizitzaren ardatza bihurtuz. Ikastola ez zen seme alaben eskola soila, hizkuntzaren gordetze eta berreskuratzerako gunea, talde bezala Estatuaren erasoaren aurrean aritzeko tokia, talde identifikapena bultzatzen eta birsortzen zuen eremua, seme alabengandik “hurbilago” sentiarazten zizkien ekintza, eta oro har, egun bakoitzean ordu batzu eskatzen zituen apostua baizik. Dudarik gabe, behin motibazioek erreakziorako bultzada piztu ondoren, ikastolagintzaren esanahiak ugaldu egiten ziren, eguneroko eraikuntza horretan motibazio berriak sortzen zirelarik.

Baina motibazioak hauek izanda ere, ikastolen mugimenduaren iharduera amankomuna esplikatzeko analisi gehiago behar dugu, eta tarteko urratsa falta

zaigula dirudi. Gure lanean, bitarteko hori "proiektua martxan jartzeko mekanismo"en azterketekin betetzen saiatu gara, alegia, pertsona horiek horrelako motibazioak eta zerbait egin beharra izatea uler daiteke, baina errepresio garai batetan maila pertsonal horretatik maila kolektibo batetara iristea zail samarra iruditu ahal zaigu. Elkarrizketetan gako horien bila aritu gara, baita ondorio batzu atera ere. Motibazioak *euskalzaletasunean* laburbiltzea onartzen badugu, bertan giro abertzale edo nazionalisten helburuak eta horretan koka ezin baina euskal kultura eta euskara (nazioarekin duen harremana aldarrikatu gabe) defendatu nahi zuten beste talde batzuren xedeak biltzen dira. Azterketa soziologikoek euskal nazionalismoaren ezaugarri nabarienetako bat komunikazio sareen dentsitatea dela adierazten diguten neurrian, ikastolak eratzeko motibazioak zituztenak sare horietako partaideak izango zirela pentsatzera bultzatzen gaituzte, hau da, euskaltzaletasun horrek ezaugarritzen zuen gizarteko esparrua, neurri haundi batetan behintzat, komunikazio sare horien barruan zegoela. Horrela bakarrik uler daiteke hainbat iturrik, ahokari zein idatziek, adierazitako *ikastolen ezagupidea*. Hau da, Zipitriaren etxe eskolan, nahiz eta hogei ume baino ez mugitu, gurasoak giro nazionalistetako partaideak izatean euren komunikazio sareetan ezagutarazteko aukera zuten, eta egia esan ezaguna zen. Zipitriaren esperientzia bezala, Karmele Esnal edo beste herrietako esperientziekin berdin gertatzen da, saioaren ezagupidea olio ttantta bat balitzan zabaltzen zelarik.

50. hamarkadan Donostian eratutako etxe eskolak lehenen, eta herrietan zabaltzen joan ziren ikastolak geroago izan ziren, inongo dudarik gabe, ikastola berriak sortzeko ezinbesteko erreferenteak, zeinen bitartez antolatzaileek eredua, informazioa eta laguntasuna bereganatzen baitzituzten. Ezagupideak eta erreferentziek garrantzia bazuten, zer esanik ez herri asko eta askotan eratuta zeuden alfabetatze ez formaleko saioak (euskal katekesiak, *Umeen Deia* bezalako ekinbideak, umeentzako euskarazko lehiaketak edo euskarazko klaseak) eta euskal kulturaren inguruko saioak (euskal dantzak, musika, mendi taldeak, antzerkia...). Elkarrizketetan zehar, hasiera hauetan herrietan zeuden horrelako elkarguneak partaideak biltzeko eta babesteko baliogarriak izan zirela ikusi dugu. Oro har, martxan jartzeko mekanismoak komunikazio sareekin eta ahoz ahoko zabalbidee-kin lotuta egon zirela gaineratu behar dugu, sarri askotan aurrekari gisa euskara eta euskal kultura bultzatzeko ekintzak egon zirelarik. Halere aldez aurretikako inongo planifikaziorik ez zela egon eta herri bakoitzean erabat autonomoki sortutako eskolak izan zirela azpimarratu behar dugu, nahiz eta behin eratu ondoren euren arteko harremana eta koordinaketa berehalaxe gauzatuko ziren.

Ikastolen arteko koordinaketan, hain zuzen, aurkitzen dugu mugimenduaren eratze prozesuaren oinarria. Giro sozio-politiko eraikitzaile eta erresistentziazko bat zegoela eta euskararen egoerak eragindako motibazio sakonak zeudela

azpimarratu arren, ikastolagintzan ari zirenen arteko elkartasuna eta prestutasuna beste datu nabariak ziren. Ikastola bakoitzaren biziraupena bera guztiekiko elkartasunean oinarrituta egotea denek batera ulertu izan balute bezala, ikastolagintzako partaideen arteko enpatia eta elkarrekintza positiboak aurkitzen ditugu. Gipuzkoan lehenengo ikastolak 1960.ean hasi baziren, 1963.ekoa da elkarren arteko lehenengo bileren berri; beraz hasi eta batera koordinatzen hasi zirela esan daiteke. Elkarlankidetza honen bitartez amankomunak ziren arazoak, beldurrak eta oztopoak gainditzen ziren, ikastola bakoitzaren problematika konkretua herrian bertan konpontzen zen bitartean.

Gauzak horrela, funtzionamendu amankomun eta deszentralizatu batez hitz egin genezake, non motibazioak, partaidetza berdindua eta unez unezko egoerei erantzutea oinarrizko ezaugarriak baitziren. Era honetara, ikastolak, hasi ahala eta elkarlankidetza horretan, beren eskola ereduari forma ematen joan ziren, 60. hamarkada horretan ondoko ezaugarri hauek azpimarra genitzakeelarik:

1. Ikastolen hastapen hauetan agertzen zaizkigun ezaugarri sozio-afektiboak: motibazioen izaera tinko eta afektiboa, elkartasun jarrera orokorrak, besteekiko irekitasun eta komunikazio maila altua, elkarlankidetza, talde identifikaziorako balioa, dedikazioa (denbora aldetik zein baliabideen aldetik), seme alaben heziketaren partaide eta erantzulea izatearen ardura (beldurra, harrotasuna...).

2. Hizkuntzari ematen zaion funtsezko garrantzia, ez bakarrik euskal hiztungoaren tamaina kontserbatzearen ikuspegitik, baizik eta gazteleradunak euskalduntzearen ikuspuntutik ere (Gipuzkoan agian ez hain nabarmenki, baina Bizkaian eratzen hasi ziren ikastoletan erdeldunen kopurua nahiko altua zen). Atal honetan hizkuntzaren aldeko borrokak zuen esanahi politikoa azpimarratu behar dugu, baita nazioaren ikuspegitik betetzen zuen funtsezko papera ere. Beraz, euskalduntzea gertakari politiko-kultural bezala hartu behar dugu.

3. Ikastolak hezkuntza sistema ofizialetik kanpo eratu ziren, eta ez zeukaten erakunde ofizialen aldetik inongo laguntza ekonomikorik, ezta bestelako babesik ere.

4. Ikastolaren izaera herrikoia, inongo nortasun eta babes ofizialik ez zuen neurrian herri partaidetza bihurtu baitzen benetako oinarria. Era honetara, diru laguntzak, egoitzak, irakasleak, laguntzaileak, konponketak egiteko materialeak eta lan indarra... herriko jendeak betetzen zituen beharrak ziren. Gainera herrikoitasun honek ikastolari gizarte dinamikan leku propio bat izateko aukera zabaldu zion, ikastola sozialki eragindua eta eraginkorra zen eskola saio kokatua izan zelarik. Eskola kokatua izatearen garrantzia ez genuke arinki aipatu nahi,

pedagogian hainbestetan tratatutako eskola eta gizartearen arteko harremanak zuzenak, aberatsak eta komunikatiboak izan behar direla esaten denean praktikan islada haundirik ez duen zerbaitetaz ari garela ematen baitu. Ikastola, gure ustez, tamaina haundiko gertakari eskolarra izanda ere, gizartean kokapen esanguratsu bat izatearen ezaugarria izan zuela eta oraindik duela ez dugu ahantzi behar.

5. Hamarkada honetan zehar ikastolen barruan partaidetza oinarrizko kontzeptua izan zen. Era honetara, ez zen estamentuen artean bereizketarik egiten (nahiz eta irakasleek arazo pedagogikoetarako lan espezifikoa egin), ezta egitura hierarkizaturik zehazten ere. Ikastolari buruzko erabakiak eta erantzunkizunak era amankomun batez eta egitura sinpleen bitartez bideratzen ziren. Informazioa eta kontrola oso banatuta zeudela esan genezake, antolaketa eredua autogestionario eta partehartzailea zelarik.

6. Aurreko ezaugarriok agertzea errezten zuen aldagai bat hamarkada honetan zehar ikastolen mugimenduaren tamaina eskuragarria izan zen. 1960.etik aurrera urtez urte ematen hasi zen hazkunde erritmikoa ez zen oraindik funtzionamendu eredu hau gainezkatzeko heinekoa, eratutako ikastolak bailaran sortzen zen berria berenganatzeko eta dinamikan sartzeko gai ziren. Egoera hau urte batzutan mantendu zen, baina hamarkadaren bukaeran hazkundea azkartu zenean eredua beharrei erantzuteko modukoa ez zela ikus dezakegu, eta beste antolaketa mota agertu zen.

Mugimenduaren tamainaren eskuragarritasunarekin batera bere baitako mugikortasuna ere aitortu nahiko genuke. Izan ere, ikastoletako partaideak helburu desberdinekin toki askotatik mugitzen direla ikusi dugu: andereñoak bilatzera, bileretara, praktikak egitera, beste herrietako esperientziak ezagutzera, udalekuak antolatzera, ikastaroak egitera, ikastola ez zuten herrietara hitzaldiak eta umeen erakustaldiak egitera, atzerriko eskola saioekin kontaktuak egitera... Ikastolagintzan sortzen eta birsortzen ziren harremanak mugikortasun honekin elikatu eta operatibizatu egiten ziren, informazioaren elkar trukaketa aberastuz eta azkartuz. Etengabeko bilaketa horretan, eremu publiko eta ofizalen ezean, elkarrekintzarako eremu kolektibo bat eraikitzen dela dirudi, harreman sareek eta motibazioek lagunduta.

7. Maila pedagogiko batetik epe honek ematen dizkigun berrikuntzak ere garrantzizkoak dira, batez ere inguruan dauden ereduak eskola frankistarenak direla kontutan hartzen badugu. Puntu honetan Zipitriaren ekarpena azpimarratu nahi dugu, lehenengo garai hauetako irakaslegoa pedagogia berriaren eta ekintzailearen aukeran prestatu zuen, nahiz eta indarrean zegoen joera erabat desberdina izan. Zipitriak, Irakaslego Eskoletan ikasitakoaren aurrean beste

jarraibide bat eskeini zien andereño berriei, eskola euskaldun, bizi eta kalitatezkoa osatzeko.

Zipitriak erabiltzen zuen planteamentu pedagogikoaz aparte, euskal irakaslegoaren prestakuntza berezituaren garrantzia helerazi zuen, baita andereñoen praktikekin gauzatu ere. Prestakuntza bereizitu honek ikastolari benetako nortasuna eman ziola uste dugu, garai haietako eskolaren muga estuetatik aldenduz. Andereño berriek, noski, Zipitriaren irakaspenetatik hobekien juzgatu zutena hartu eta egokitu zuten, beste batzu baztertuz, baina oinarrizko estilo bat eman ziela ziurta genezake. Elkarrizketa batetan esaten den eran: "Elbira izan ez balitz nik uste dut sortuko zirela ikastolak (...). Sortuko ziren orduan ezagutzen genuen eskolaren imitazioa euskeraz, holako itzulpen txar bat", baina ez zen horrela gertatu andereño zaharrak gazteei eman zien irakaspenagatik.

Oro har, ikastolek garai haietako hezkuntza esparruan burutu zituzten berrikuntzak hauexek izan litezke:

a) 3. urtetatik aurrerako umeen eskolaratzea, haur txikien heziketari benetazko garrantzia ematen zitzaiolarik.

b) Irakaslegoaren formazio paraleloa eta andereño enpirikoen prestakuntza. Irakasleen etengabeko formazioa da ikastoletako ezaugarri nagusienetako bat. Irakasle tituludunen prestakuntza euskal eskolarako egokia ez zelakoan eta gainera behar zen heinekorik ez zegoelakoan, prestakuntza bide paraleloak bultzatu ziren, andereño arituekiko praktika, Andereñoen Erresidentzia, ikastaro berezi eta bilera pedagogikoen bitartez. Era honetara euskal irakaskuntzan aritzeko, berziklaia eta andereño enpirikoen prestakuntza burutu ziren. Irakaslegoaren prestakuntza paralelo honetan, andereñoek euskal eskolaren kalitateak zeukan garrantzia bere egitea eta honi jarrera ekintzaile eta zabal batez heltzea ezinbesteko baldintzak izan ziren. Andereñoak, haien prestakuntza pertsonala beraiek ekoiztutako baliabideekin burutu bitartean eskola eredu euskaldun eta berritzailea gauzatzen saiatu ziren, bere gain zuten erantzunkizuna oso haundia zela jakinik.

d) Beste ezaugarri bat ikastola bakoitzean berrikuntza pedagogikoa ahalbideratzeko andereñoek gurasoekin mantentzen zuten harreman zabal eta dinamikoa izan zen. Izan ere, gurasoek eskoletaz zeuzkaten esperoak eta ideiak eskola eredu tradizionalean mugatuta zeudenez eskola berriaren printzipioak sartzeak beldurrak eta zalantzak sortarazten zizkien. Egoera hau gainditzeko, planteamentu pedagogikoak era amankomun batez tratatzen ziren, gurasoek uler eta barnera zezaten. Elkarrizketetan esaten den bezala *benetako guraso eskolak* ziren.

e) Ikastolen planteamentuetan, hezkuntzaren arlo ez formalak hartu zuen garrantzia ezohizkoa zen garaiotan. Izan ere, Zipitriaren eredutik eta hezkuntzaren kontzeptu zabal eta dinamiko batetatik, ikastoletan arlo ez formalak zuen tokia burutzen ziren ekintza desberdinetan isladatzen zaigu: ibilaldiak, udalekuak..

f) Joera pedagogiko berritzaileekiko lotura, besteak beste, Kataluniako Rosa Sensat eskolarekin eta Freinet mugimenduarekin. Maila apalago batetan Freireren pedagogia askatzailearen eragina antzeman dezakegu.

IV. EMAKUMEA ETA EUSKAL HEZKUNTZA

Ondorioen sail honetan emakumeek euskal hezkuntzan jokatutako paperaz gure hausnarketaren laburpena aurkeztu nahi genuke. Hasterakoan gai honetaz maneiatzen genuen datu bakarra ikastoletan 60. hamarkadan zehar emakumezko irakaslegoa zegoela izan zen, eta egia esan irakaskuntzan egondako ohizko joeraren ondorio baino ez zela pentsatu genuen. Elkarrizketetan zehar, ordea, hasierako ikastoletako andereñoen izaera eta lana ezagutzerakoan, jeneroaren azterketaz baliatu ezkero gai honen esanahia eta aldaketak ulertzea posible izango zela pentsatu genuen, eta sakontzeari ekin genion.

Lan honen diskurtso osoan zehar bezala, eskolan nabaritzen ditugun bi ideologiak jeneroaren ikuspegitik ere antzeman ditzakegu, eredu bakoitzean emakumeekin lotutako funtzioak, antolamenduak eta esanahiak desberdinak direlarik. Berriro ere Zipitriarengan eta etxe eskolan agertutako emakumeari buruzko ideologia gerraurrekoaren adierazpen ahuldua da, ondoan Europaldeko aldaketak xurgatu dituen beste eredu bat goruntzko joeran eraikitzen ari den bitartean.

Nazionalismo tradizionalean, nekazal giroko ideologia zen neurrian, emakumeari leporatzen zitzaion iharduera zen heziketa. Emakumeak, ama bezala, seme alaben lehenengo sozializazioaz arduratzen ziren, eskola adinetan andereñoek bigarren sozializazioaren ardura betetzen zuten artean. XX. mendearen lehenengo herenean, nazionalismoa forma eta pisua hartzen joan ahala belaunaldi berrien bigarren sozializazioa antolatu eta egituratu beharra nabarmenduz joan zen, eta euskal eskolekin batera heziketa lanen erantzunkizun zuzena hartu zuen emakume antolamendu bat, Emakume Abertzale Batza, sortu zen.

EAB emakumez soilik osatutako erakunde nazionalista izan zen eta bere historia laburrean 28.500 afiliatu izatera iritsi zen. EABren lanik

garrantzitsuenetako bat, propagandarekin batera, heziketa lana izan zen eta praktikan, batzokien inguruan bultzatzen ziren hezkuntza ez formaleko saio guztiez gain auzo eta nekazal eskoletako irakasleak eta Euzko Ikastola Batzaren sortzaileak, antolatzaileak eta irakasleak izan ziren. Eskolak emakumeei eskeini zien eremu publikoan aritzeko aukera honek, baina, ez zeukan esanahi iraultzaile edo askatzailerik emakumearen askapena nazionalismoaren sorrera eragin zuen liberalismoaren ezaugarri horietakoa zen eta, ondorioz, ikuspegi kontserbatzaile batetatik aztertu behar dugu. Izan ere, nazionalismoren familia ideologiari jarraituz, emakumearen eginkizuna ama funtzioan zetzan; amatasunean esanahi mistikoak eta kanpoko erasotik defendatzeko kontserbatzearen gako biologikoak eta kulturalak biltzen ziren: ama Ama Birgina, Aberria, arrazaren ziurtatzailea (euskaldunen arteko ezkontzaz birsorkuntza arraziala ziurtatzen zuena) eta hizkuntza, kultura eta ohituren igorlea.

Amak familian funtzio hau betetzen bazuen, familia haundian (familia nazionalistan), horren jarraipena zen bigarren sozializazioa beste emakume batek –andereñoak– betetzen zuen. Familia haundiaren kontzeptu hau oso garrantzitsua zela azpimarratu behar dugu, bere bitartez nazionalismo bera kontzeptualizatzen zen, eta hainbat ekintza hori bera birsortzera abiatzen ziren. Familia haundi honetan heziketaren ardura, familia txikian bezelaxe, emakumeei zegokien, eta honetarako irakas funtzioa andereñoek betetzen zuten bitartean hezkuntzaren antolaketa eta ardura orokorra emakume sareei zegokien (kasu honetan EABk artikulatzen zituen emakume sareak). Soziologia eta antropologiaren ikuspegitik nekazal gizartearen ama ideologia hau Elisabeth Botten ikerketekin frogatuta geldi-tu zen, eta euskal nazionalismoaren funtzionamendua esplikatzeko baliogarria izan zitzaigula gaineratu behar dugu.

Gurera hurbilduz, agian daturik garrantzitsuena ideologia eta emakume sareen funtzionamendu eredu hau Zipitriaren etxe eskolan birsortzen zela ikustea izan da. Izan ere, etxe eskolen antolaketaren oinarrian gerraurreko EABko emakume sareen aztarnak ditugu; emakume hauek, seme alabentzako euskal eskola bat behar zela ohartuta, tradizionalki zegokien eginkizunari ekin zioten, eta andereñoak bilatu, etxeak lortu, dirua bildu eta bitarteko guztiak jarri zituzten. Emakume sare hauek dira etxe eskolaren sostengua, bere bitartez elikatzen baitzen eskola, bai irakaslegoaren aldetik baita ikaslegoaren aldetik ere.

Egitura birsortzen bazen, ideologiaz zer esanik ez. Etxe eskola familia giroak zeharkatuta zegoen, senideartekotasuna, hurbiltasuna, klase giroa, amen eta andereñoen lotura estuak. Gure aurrean bigarren sozializazioaren ama funtzioaren luzapena dagoela uste dugu, euskal emakume batek bete zezakeen hirugarren eginkizuna, andereñoetara, ezkontzetara edo monjetara abiatzen ez bazen.

Honetaz aparte, elkarrizketetan zehar andereño izate honek ezaugarri batzu biltzen zituela frogatu ahal izan dugu, eta egia esan andereño lanaren funtsezkotasuna ikusita guztiz ulergarria da. Zipitriaren ereduan andereñoek ezkongabeak, irakaskuntzari zeharo (era mistiko batez esango genuke) dedikatutakoak, sinismen erlijioso haundikoak, serioak baina era berean gozoak, kanpoko ohiturak errefusatzen zituztenak (pintatzea, lotuta dantzatzea...) eta eredugarriak izan behar zuten; elkarrizketa batetan esaten ziguten legez *serora batzu* izan behar zuten.

Dena den, emakumeari buruzko pentsakera hauek apurtzen joango ziren. Etxe eskoletako andereñoen artean bertan belaunaldi txandaketaren lehenengo tirabirak agertzen zaizkigun arren, ikastoletan emakumearen diskurtsoa erabat desberdina zela esan behar dugu. Zentzu honen aldaketa ulertzeko hiru arrazoi multzo bereiztu behar ditugula uste dugu:

a) Europako II. Gerra Haundiaren ostean, eraldaketa ekonomikoaren eraginez hezkuntza sistemari ezarri zitzaizkion garrantzi eta esanahi berriak, zeinen arabera eskolaratzea arrakasta sozialaren ezinbesteko baldintza bihurtu zen. Baloratze ekonomiko honek ondorio zuzen bat ekarri zuen, alegia, ordura arte balore gabeko eskolaratze hori emakumearen ardura izatetik gurasoen ardura izatera igaro zela (honetan industrialdutako gizartearen familiaren ezaugarriek ere berebiziko garrantzia dutela azpimarratu nahi genuke).

b) Europan emakumearen askapen mugimenduek esparru publikoetan eskuratutako espazioaren garrantzia: boto eskubidea, lan munduaren sarrera, berdintasunearen ideologia, harreman sexualen birplanteamendua... Honen ondorioz, emakumeak amak aparte gizonen berdinak zirela eta hainbat funtzioetarako gai zirela aldarrikatzen eta frogatzen hasi zen.

d) Ikastolek 60. hamarkada honetan hartu zuten esanahi sozio-politikoa. Esan dugun bezala, ikastolak aldaketa sozialetako eskenatokiak, herrigintzaren gunea eta espazio sozial bizi eta dinamikoak bihurtu ziren, eta ondorioz, lan egiteko leku desiragarriak bilakatu ziren.

Hiru maila desberdin hauetan dauden egoerek ikastoletan egituraren mixtotzea ekarri zuten. Lehenengo, etxe eskoletan agertzen zitzaizkigun emakume sareak guraso sareak bihurtzen zaizkigu ikastolen hastapenetan, hiriratutako familiaren errolen banaketa desberdina delako eta umeen heziketa ardura haundiko funtzioa bihurtzen delako. Mixtotzearen bigarren urratsa ikastoletan andereñoak bakarrik egotetik gizonezkoak ere sartzera suertatu zen. Kasu honetan, arrazoi desberdinak aurkitzen ditugu: eskolaren esanahi berria, Euskal Herriko sekulartutakoentzat ikastolak hartu zuen erakargarritasuna...

Mixtotzearekin batera, eta batez ere emakumearen askapenarekin lortutakoaren ondorioz, ikastoletan sartzen ziren emakumeak beste andereño eredu berri bat eraikitzen joan ziren. Azken batez erlijiotasuna baztertuz joan zen neurrian ama funtzioa ere ezabatzen zen, eta are gehiago persegizio egoera batetan eremu publiko eta sozial batetan ausartzen ziren emakume gazteen artean. Emakume hauek berrikuntzaren eramaleak bihurtu ziren, eragileak, konprometituak, berdinduak. Ez dugu uste euskal emakume modernoaren eraikuntza martxan zegoela esatea gehiegikeria denik.

V. INSTITUZIONALTZE PROZESUAK

Ikastolen mugimenduak 60. hamarkadan zehar eginiko lanak, zalantzarik gabe, oso arrakasta haundia jaso zuen gizartean, eta gertakari moduan zuen presentziaz gain ikastoletan umeak sartzeko eskariak gero eta ugariagoak eta sarri askotan erantzun ezinak bihurtu ziren. Hazkunde azkarrak eta goruntzko eskaerak ikastolek beren sostengurako finkaturiko antolamendu paraleloa gainez egin zuten, Estatutik kontrolerako lehenengo neurriak ezartzen hasi ziren bitartean.

Ikastolen tamaina eta hazkundea gertatu ahala izaera legala hartzearen aldeko jarrera agertu zen, horrela ikastolentzat nolabaiteko ziurtasuna lortuko zelakoan. Legerantzko hurbilketa hau, ordea, ez zegoen ikastolen munduan aho batez onarturik, eta erabaki orokorrik ez zen hartzen. Era honetara, toki batzutan legeztapenak hasi ziren bitartean (Santo Tomas Lizeoa 1963.ean, Bilbon 1966.ean, eta jarraian Bizkaiko ikastola batzu, Errenderian 1968.ean eta Iparraldean 1969.ean), ikastola gehienek legez kanpo jarraitzen zuten. Hala ere, Estatuaren aldetik ikastolak kontrolpean jartzeko joera gero eta nabariagoa zen, ez bakarrik euskal gertakari indartsu bat zelako, baizik eta Estatua momentu horretan hezkuntza sistema finkatzearen ahalegin garrantzitsu bat martxan jartzen hasten zelako ere. Neurri polizialen mailan, Gipuzkoan 1969.ean Gobernadore Zibilak ezarritako salbuespen egoera zela medio ikastolak Elizaren babesean sartu beharrak persegizio egoeraren eraginkortasuna oraindik oso haundia zela adierazten digu.

Dena den, gure ustez, une horretan gertatu zen aldaketarik nabarmenena 1970.eko Hezkuntza Legea izan zen. Bere bitartez, Estatu Espainola Europako beste herrialdeekiko hezkuntza mailan zeraman atzerakuntza gainditzen saiatu zen, horretarako zentruei baldintza zehatzak eskatu eta inbertsio haundiak eskeintzen zitzaizkielarik. Lege honek benetako muga ezartzen zien bide ofizialetatik kanpo edota era desorekatu batetan zeuden ikastolei, gobernuak agintzen zuena behar zen epean ez betetzekotan zentruak itxi beharrean aurkituko ziren.

Urrats hau ematea, baina, ez zen erreza. Ideologia desberdinen eskenatokia bihurtzen ari zen Euskal Herri honetan, ikastola bezalako mugimendua interes desberdinen ikusmiran zegoen, eta gatazka sortu zen. Gure ustez, esanahi politiko ideologikoak dituen gatazka bat, non lehenago aipatutako nazionalismo tradizionala eta berria lehian agertzen baitira. Gatazka honetan tirabirak oso maila serioetara heldu zirela esan behar dugu, ikastola batzuren erdibiketek (Bilbon, Iruñean, Hernanin, Ondarrun, Gernikan...) eta irakasleen kaleratze masiboek adierazten diguten bezala. Krisialdi hau gainditzean, legearen ikuspegitik ikastolak bide normalduagoetan (irakaslegoaren titulazioa, ikasketa planak...) sartzen hasi ziren, baina normaltze hau ez da gaur egun oraindik errealitatea. Gure lanean instituzionaltzearen ezaugarriak ez ditugu aztergai, frankismoa gainditzen duen epe batetan sartzea suposatuko bailuke eta prozesu hauek herrialdez herrialdeko azterketa espezifikoak derrigortzen baitituzte.

Iturri idatzietaz baliatuz, prentsan agertutako artikuluen bidez hain zuzen, ikastolen barruko gatazkaren ezaugarriak aztertzen saiatu gara, eta oro har, lau ardatz nagusiren inguruan eman zela ikusi ahal izan dugu: ikastolen konfesionaltasuna eta gurasoen eskubideak, euskara batua ala euskalkiak, ikastolen izaera apolitikoa ala kokatua eta ikastolen burgeskeria. Oro har, behintzat erabili izan ditugun iturriekin gatazka honetan nazionalismo ahulduaren azkenengo aztarnak agertzen zaizkigula esango genuke, sarri askotan Elizaren esparru batzu korronte horren buru agertzen zaikigularik.

Krisialdi honetatik ikastolen mugimendua indarberriturik irten zela argi dago, hurrengo urteetako emaitzak bistan ditugula. Agian, ezkerraren esparru batzurekiko apurketa hura izan zen euskal eskolarentzat galerarik garrantzitsuena, nahiz eta beste ikuspegitik begiratuta zaharkitutako eskola estatalari bizitasun eta euskaltasun izpi bat emateko baliogarria izan. Ez dakigu.

Baina gaur egun, hogeitabi urte geroago, eskolan berriro ere egitura arautu, goitik beherako, estatiko eta itxiak gero eta esparru haundiagoak eskuratzen dituela ematen duenean, pedagogia mailan dena esanda dagoela iruditzen zaigunean, hezkuntza sistemaren makroegiturak determinismora eta ezkortasunera eramaten gaituela pentsatzen hasi garenean, iraganaren irakurketa itxaropenerako aitxaki ona bihur daiteke. Hala bedi.

BIBLIOGRAFIA

ABANDA, G. (1990): *Nekane Azurmendi: "La experiencia de la primera colonia en el monasterio de Barria es irrepetible"*. **Diario Vasco**, (1990/12/2).

ABARKA (1973): *Gure ikastolez zerbait*. **Anaitasuna**, 247.

AGIRRE ELUSTONDO, J. A. (1969): **Así está la enseñanza primaria. Hablan los maestros**. GAUR, s.c.i. Donostia.

AGIRRE, J. (1974): *Baserria, euskara eta euskaldun berriak*. **Zeruko Argia**, 615.

AGIRRE, J. (1990): *La primera colonia clandestina de las ikastolas vuelve a Barria*. **EGIN**, 1990/11/22 .

AGIRRE, J. A. (1977): *Ikastolak enpresa ote?* **Zehatz**, 2.

AGIRRETXE, A. (1970): *Gure ume-ikastetxetan erlijiorik bai ala ez?* **Zeruko Argia**, 389.

AITZKOATE (1973): *Umearen eziketarako beharrezko baldintzak*. **Zeruko Argia**, 517.

AITZOL (1930): *Eusko Ikaskuntza eta Euskaltzaleak*. **BSEV**, 45.

AIZPURUA, I. (1972): *Ikastolen historiarako ikusbide bat (1960-1972)*. in JAKIN (arg.): **Gure Ikastola**. Jakin Sorta, 6. Oñati.

AKAITZ (1973): *Ikastolaren etsaiak*. **Zeruko Argia**, 554.

ALTUBE, G. S. (1973): *Gernikako Seber Altube ikastola*. **Anaitasuna**, 264.

ALTUNA, P. (1970): *Euskal irakaskuntza gaur*. **Zeruko Argia**, 400.

ALLUR, A. (1972): *Ikastolak eta irakasleak.* in Jakin (arg.): **Gure Ikastola**. Jakin Sorta, 6. Oñati.

AMELANG, J. eta NASH, M. (1990): **Historia y género: las mujeres en la Europa Moderna y Contemporánea**. Alfons el Magnanim. Valencia.

AMUNDARAIN, D. (1970): *Ikastolak, prolema latza (I).***Zeruko Argia**, 370.

AMUNDARAIN, D. (1970): *Ikastolak, prolema latza (II).***Zeruko Argia**, 377.

ANAITASUNA (1970): *Eliza eta ikastolak*. **Anaitasuna**, 186.

ANDEREÑOAK, G. (1970): *Euskera batua eta ikastolak.* **Zeruko Argia**, 374.

ANSA, J. (1972): *Ikastolak eta Espainiako Irakaskintza Legea*. in JAKIN (arg.): **Gure Ikastola**. Jakin Sorta, 6. Oñati.

APALATEGI, J., ARISTEGI, L. M. eta IZTUETA, P. (1970): **L´enseignement en langue basque**. Argit. gabe. P. de Gaudemarrek zuzendutakoa. Paris.

APALATEGI, J., ARISTEGI, L. M. eta IZTUETA, P. (1972): **Le système scolaire et les ikastolas**. Argit. gabe. P. de Gaudemarrek zuzendutakoa. Paris.

APALATEGI, J. M. (1980): **Historia gabeko historia. Entsaio etnologiko historikoa**. Sociedad de Estudios Vascos. Donostia.

ARAMENDI, I. (1972/6/10): *Andereñogai Iparraldetik.* **Gordailuko irakasleen aldizkaria**.

ARANA, J. I. (1875): *Reglamento provisional de las escuelas de instrucción primaria de la M.N. y M.L. Provincia de Guipuzcoa.* Azpeitia.

ARANBERRI, L. A. (1975): *Euskalgintzaren gestio orokorra*. **Zeruko Argia**, 665.

ARANBURU, X. (1990): *Hezkuntzaren historia Euskal Herrian: Ikastola. Maria Dolores Goya (Groseko ikastola)*. **Eusko Ikaskuntza. Cuadernos de Sección: Educación**, 3. Donostia.

ARANBURU, X. (1991): *Hezkuntzaren historia Euskal Herrian: Ikastola. Elbira Zipitriaren biografiarako jakingaiak: Ikastola Donostian 1942-1969 urte bitartean.* **Eusko Ikaskuntza. Cuadernos de Sección: Educación**, 4. Donostia.

ARENAZA, J. (1971.eko Azilla 15): *Gu, ikastolaren alde*. **Agur**.

ARENAZA, J. (1974): **Tus hijos y el euskera (El mito del batua)**. Bilbo.

ARENAZA, J. (1975): *Bilbo´ko ikastolak*. **Agur**, 171.

ARENAZA, J. M. (1971): *Problemas del euskera, unificación y enseñanza*. in Correo Español (arg.): **El Euskera Hoy**.

ARESTI, G. (1970): *Jainkoa eta haurrak*. **Zeruko Argia**, 378.

ARGIA, Z. (1971): *Andereñoak*. **Zeruko Argia**, 431.

ARGIA, Z. (1973): *Zer zabiltzate*? **Zeruko Argia**, 554.

ARGIA, Z. (1975): *Irakasleak ere tirabiran*. **Zeruko Argia**, 628.

AROSTEGI, J. (1971): *El vascuence aquí y allá*. in Correo Español (arg.): **El Euskera Hoy**.

ARPAL, J., ASUA, B. eta DAVILA, P. (1982): **Educación y sociedad en al País Vasco**. Txertoa. Donostia.

ARPAL, J., ASUA, B. eta DAVILA, P. (1983): *Ikastolas: un fenómeno social, un problema educativo, una cuestión política* . **Cuadernos de Pedagogía**, 101.

ARPAL, J., DAVILA, P. eta RODRIGUEZ, A. (1986): **Guía temática y bibliografía de historia de la educación en el País Vasco**. Aurrezki Kutxa Munizipala. Donostia.

ARREGI, P. (1972/5/6): *Kontzientziarazteaz*. **Gordailuko irakasleen aldizkaria.**

ARREGI, P. (biltz.). (1992): **Euskal Alfabetatzearen azterketarako lehen urratsak. 1960-1990**. Argit. gabe.

ARREGI, R. (1971): *Euskaltzaleen Jainkoa hil behar dugu*. in TORREALDAI, J. M. (arg.): **Rikardo Arregi**. Jakin Sorta, 3. Oñati.

ARREGI, R. (1972): *Amorrazioa*. in TORREALDAI, J. M. (arg.): **Herriaren lekuko**. Jakin Liburu Sorta, 6.

ARREGI, R. (1972): *Euskal Kultura*. in TORREALDAI, J. M. (arg.): **Herriaren lekuko**. Jakin Liburu Sorta, 6.

ARRIEN, G. (1983): **La generación del exilio. Génesis de las escuelas vascas y las colonias escolares**. Onura. Bilbo.

ARRIEN, G. (1987): **Educación y escuelas de barriada en Bizkaia**. Bizkaiko Foru Aldundia. Bilbo.

ARRIEN, G. (1987): *La ikastola Azkue, la primera en ser legalizada en Vizcaya en 1966*. **Eusko Ikaskuntza. Cuadernos de Sección: Educación**, 2. Donostia.

ARRIEN, G. (1993). *Las ikastolas de Bizkaia, 1957-1972*. **Eusko Ikaskuntza. Cuadernos de Sección: Educación**, 6. Donostia

ARRONDO, A. eta ZUBIZARRETA, M. D. (1984): **Elbira Zipitriaren bizitza eta lanari buruzko ikerketa**. Argitaratu gabe. Donostia.

ARTECHE, J. (1971): *El euskera y nuestros hombres universales*. in Correo Español (arg.): **El Euskera Hoy**.

ARTETXE, J. d. (1933): *Nacionalismo Donostiarra*. **Euzkadi**, 1933/12/1 .

ARZELUS, A. (1985): *Ira´ren omenez*. in Euskerazaintza (arg.): **Zipitria´tar Elbire Andereñoa. Omenaldia**. Lopez Mendizabal. Tolosa.

AURTIZ (1972): *Ikastolei buruz hitz bi (I eta II)*. **Zeruko Argia**, 476-478.

AXPE, J. (1972): *Arrasateko gertakarien historia laburra*. **Anaitasuna**, 246.

AYERBE (1965): *Euskeraren alde zer egingo zenduke bost milloi bazenitu?* **Zeruko Argia**, 100.

AZURMENDI, J. (1973): *Ideologikeriak eta norkeriak*. **Zeruko Argia**, 527.

AZURMENDI, J. (1977): *"Euskaldunari"*. in TORREALDAI, J. M. (arg.): **Euskal idazleak gaur. Historia social de la lengua y literatua vascas**. Jakin.

AZURTZA, M. J. (1969): *Tipien-eskoletako andereñoentzat ikastaro berezia*. **Zeruko Argia**, 339.

BARAYAZARRA, L. (1971): *El vascuence en la comarca de Marquina*. in Correo Español (arg.): **El Euskera Hoy**.

BARKAIZTEGI (1973): *Ikastoletako aldizkaria galbidean*. **Zeruko Argia**, 254.

BASTERRA, J. (1989/12/15): *Andereñoen Erresidentzia, eredu pedagogiko berri baten iturburua*. **EGIN**.

BASURKO, F. (1989): *La normalización de la ikastola: breve historia y estado de la cuestión de la escuela pública vasca*. **Historia de la Educación**, 8. Salamanca.

BATEK, G. A. T. (1970): *Ikastola eta erlijio arazoa*. **Zeruko Argia**, 375.

BATEK, I. A. (1972): *Ipar-aldeko ikastola*. in JAKIN (arg.): **Gure Ikastola**. Jakin Sorta, 6.

BATEK, P. (1972): *Deustuko ikastolari buruz gehiago*. **Anaitasuna**, 246.

BATZORDEAK (1970): *Ziganda´tar Paz-en ikastetxea*. **Zeruko Argia**, 384.

BELTZA (1977): **El nacionalismo vasco en el exilio (1937-1960)**. Txertoa. Donostia.

BENET, J. (1979): **Cataluña bajo el régimen franquista. Informe sobre la persecución de la lengua y la cultura catalana por el régimen de Franco**. Bartzelona.

BENITO, J. (1990): **La enseñanza de las primeras letras en Guipuzcoa durante el primer tercio del siglo XIX**. Zaragozako Unibertsitatea (argitaratu gabeko tesi doktorala).

BERASAIN, M. eta HARANBURU, L. (1975): *Ikastola. Colegio de pago o escuela popular*. **Triunfo**, 665.

BERRIAK (1976): *Herri Gaztedia, zer? Sakonarekin hizketan*. **Berriak**, 7.

BERRIAK (1976): *La iglesia en Euskadi*. **Berriak**, 8.

BIDART, P. (biltz.). (1980): **La nouvelle société basque. Ruptures et changemets**. Editions l´Harmattan. Paris.

BOTT, E. (1990): **Familia y Red Social**. Taurus. Madrid.

BSEV (1932): *Exhibiciones de la escuela de Muñoa*. **BSEV**, 55.

CAMARA, G. (1984): **Nacional-Catolicismo y Escuela. La socializacióon política franquista**. Hesperia.

CLAVERIA, C. (1964): *Umeen Deiaren sortzailea izketan gurekin*. **Zeruko Argia**, 71.

DASSANCE, L. (1959): *Journées Pédagogiques de Bayonne. Avant-propos et programme.* **Gure Herria**.

DAVILA, P. (1988): *El "Problema Vasco" en educación: conflicto y control en la enseñanza en el Pais Vasco*. **Control y Poder**, 1.

DAVILA, P. (1992): **Política educativa y enseñanza en el Pais Vasco**. Promociones y Publicaciones Universitarias (prentsan). Bartzelona.

DAVILA, P., EIZAGIRRE, A. eta FERNANDEZ, I. (1992): *Elementos para la elaboración de un modelo de alfabetización vasco*. **X Congreso Nacional de Pedagogia**, Salamanca.

DAVILA, P., EIZAGIRRE, A. eta FERNANDEZ, I. (1992): *Los procesos de alfabetización y escolarización en Euskal Herria, 1860-1990*. **Euskal Herriko Unibertsitateak finantziatutako ikerketa.** Argitaratu gabe.

DAVILA, P. eta ZABALETA, I. (1990): *Euskal eskolaren lehen urratsak*. **Tantak**, 4. Bilbo.

E.H.I.K. (1988): **Gipuzkoako Ikastolen Elkartea: 20 urte**. Euskal Herriko Ikastolen Konfederazioa.

E.H.I.K. (1988): **Txingudi ikastola**. Euskal Herriko Ikastolen Konfederazioa.

E.I.B. (1933): *Informe de la gestión del primer ejercicio presentado por la Junta de Gobierno del Euzko Ikastola Batza. 1932-33* .

E.S.B.A. (1968): *La acción del frente popular en Euzkadi (F.L.P.)*. **Branka**, 6.

EKIN (1956): *Informe acerca de la situación de la juventud vasca*. **Congreso Mundial Vasco**, Paris,

ELEIZALDE, L. (1918): *El problema de la enseñanza en el País Vasco*. **Eusko Ikaskuntzaren I. Biltzarra**, Eusko Ikaskuntza, Oñati.

ELEIZALDE, M. (1970): *Ikastolak: Jainkoakin ala Jainko gabe?* .**Zeruko Argia**, 374.

ELKARLANEAN (1927): *Euskeraren aldezko Bazkunen Batasuna*. **BSEV**, 36.

ELKARLANEAN (1928): *La Federación de Acción Popular Vasca*. **BSEV**, 39.

ELKARLANEAN (1971): *El Euskera hoy*. **El Correo Español. El Pueblo Vasco**, 1971/9/12.

ELKARLANEAN (1980): *En torno al nacimiento de ETA* . **Muga**, 3.

ELKARLANEAN (1985): **Zipitria´tar Elbire Andereñoa. Omenaldia**. Lopez Mendizabal. Tolosa.

ELKARLANEAN (1988): **Julene Azpeitia, ehun urte mugan (1888-1988)**. Zumaiako Udala.

ELKARLANEAN (1972). **Zientzien erakaskuntza. Eskola-Berriko irakasle talde batek, C. FREINETen zuzendaritzapean prestatua**. Donostia: Gordailu.

ELKARLANEAN (1993). **Euskadi eta Askatasuna.** Txalaparta, Tafalla.

ELKARTEA, I. (1971): *Iruineko gertakarien harira*. **Anaitasuna**, 219.

ELORZA, A. (1978): **Ideologías del nacionalismo vasco**. L. Haranburu. Donostia.

ELORZA, A. (1978): *La mujer en el nacionalismo vasco*. **Tiempo de Historia**, 38.

ERREZABAL (1974): *Ikastolak Hego Aldean*. **Zabal**, 5.

ERREZOLA, M. (1972): *1937 aurreko ikastolen edestirako jakingarriak.* in JAKIN (arg.): **Gure Ikastola**. Jakin Sorta, 6. Oñati.

ERRIALDE (1973): *Irakasleen udako ikastaldiak*. **Zeruko Argia**, 551.

ERRIALDE (1974): *Euskal udalekuak. Izerdi askoren uzta*. **Zeruko Argia**, 598-99.

ERRIALDE (1974): *Iruineko San Fermin ikastola*. **Zeruko Argia**, 608.

ERRIALDE (1975): *Ikastolen elkartea. Euskal testoak kalean*. **Zeruko Argia**, 655.

ERRIALDE (1975): *Ondarruko herri ikastola*. **Zeruko Argia**, 632.

ERRIALDE (1975): *Saioka 2 eta Saioka 3. Euskarazko lehen saria Durangoko azokan*. **Zeruko Argia**, 663.

ERTZIÑAPE (1969): *Erakusketa, euskera eta gurasoak*. **Zeruko Argia**, 334.

ESCOLANO, A. (1989): *Discurso pedagógico, modernización técnica y pedagogía crítica durante el franquismo*. **Historia de la Educación**, 8. Salamanca.

ESTORNES, I. (1983): **La Sociedad de Estudios Vascos. Aportación de Eusko Ikaskuntza a la cultura vasca, 1918-1936**. Eusko Ikaskuntza. Donostia.

ETXANIZ, N. (1964): *Euskal eskolak*. **Zeruko Argia**, 84.

ETXANIZ, N. (1964): *Kristau ikasbidea bertsotan*. **Zeruko Argia**, 85.

ETXEBARRIA, J. A. (1970): *Amoroto´ko maixua*. **Zeruko Argia**, 382.

ETXEBARRIA, J. A. (1970): *Euskalerrian euskera debekatua! Esanak ederrak eta eginak pobreak*. **Zeruko Argia**, 377.

EUSKALTZAINDIA (1978): **Euskararen Liburu Zuria**. Euskaltzaindia. Bilbo.

EUSKALZALEAK (1935): **Lucha de idiomas en Euzkadi y Europa**. Euskaltzaleak. Donostia.

EUSKERAZALEAK, B. (1969): *Aukera eta irtenbideak*. **Zeruko Argia**, 321.

FERRER i GIRONES, J. (1985): **La persecusió política de la llengua catalana**. Edicions 62. Bartzelona.

FREINET, C. (1972). **Berezko irakurpidea**. Donostia: Gordailu.

FREINET, C. (1982): **Por una escuela del pueblo**. Laia. Bartzelona.

FREINET, C. (1972). **Zenbait aholku gazteentzako.** Donostia: Gordailu.

GARAIA (1976): *Jose Luis Alvarez Enparanza, Txillardegi*. **Garaia**, 1.

GARATE, J. (1975): *El anillo escolar en la proscripción del euskara*. **BIAEV**, XXVI.

GARATE, J. (1985): *Elbira Zipitria Irastorza*. in Euskerazaintza (arg.): **Zipitria´tar Elbire Andereñoa**. Lopez Mendizabal. Tolosa.

GARCIA GARRIDO, J. L. (1990): *Las políticas educativas en transición.* in SANTILLANA (arg.): **Prospectiva, reformas y planificación de la educación. Documentos de un debate**. Santillana. Madrid.

GARDE, M. (1970): *Zer gerta Iruñen?* **Zeruko Argia**, 378.

GARIN (1978): *Las ikastolas como indicador de un pueblo*. **Cuadernos de Pedagogía**, 46.

GARITANO, F. (1972): *Ikastolako erlijio arazoaz*. in JAKIN (arg.): **Gure Ikastola**. Jakin Sorta, 6. Oñati.

GARMENDIA, M. C. (1972): *Ikastola*. in ESTORNES LASA, B. (arg.): **Enciclopedia General Ilustrada del País Vasco. XIX. tomoa**. Auñamendi. Donostia.

GARMENDIA, M. C. (1985): **Les ikastolas en Pays Basque D´Espagne. La question du bilinguisme scolaire**. Argitaratu gabeko tesia. Estrasburgo.

GAUR (1968): *El vascuence en los actuales niños de Guipúzcoa*. **Euskera**, XIII.

GERRIKAGOITIA, E. (1970): *Amorotokoari jarraituz*. **Zeruko Argia**, 382.

GERVILLA, E. (1990): **La escuela del Nacional-Catolicismo. Ideología y educación religiosa**. Impredisur.

GOENAGA, P. (1975): *Bilinguismoa dela eta zenbait gogoeta*. **Zeruko Argia**, 630-31.

GOIENETXE, M. (1974): *Ikastolak Ipar Aldean*. **Zabal**, 5.

GOIHERRITARRA (1973): *Irakasle eta guraso*. **Anaitasuna**, 255.

GOIKOETXEA, B. eta DRABASA, I. (1985): *Tolosa: gerra aurreko ikastola (1922-1936)* **Eusko Ikaskuntza. Cuadernos de Sección: Educación**, 1. Donostia.

GOYHENECHE, E. (1959): *L´enseignement de l´histoire et de la géographie locales*. **Gure Herria**.

GUEZALA, L. (1991): **Dindirri: Resistencia cultural durante el franquismo**. Sabino Arana Kultur Elkargoa. Bilbo.

GURRUTXAGA, A. (1985): **El código nacionalista vasco durante el franquismo**. Anthropos. Bartzelona.

HALLAK, J. (1990): *El planeamiento de la educación: algunas reflexiones retrospectivas y perspectivas.* in SANTILLANA (arg.): **Prospectiva, reformas y planificación de la educación. Documentos de un debate**. Santillana. Madrid.

HAMMER, D. eta WILDAVSKY, A. (1990): *La entrevista semi-estructurada de final abierto*. **Historia y fuente oral**, 4. Bartzelona.

HARANBURU, L. (1972). **Eskoletako aldizkariak.** Donostia: Gordailu.

HARANBURU, L. (1972). **Gizartearen eskola.** Donostia: Gordailu.

HARANBURU, L. (1972): *Ikastola, geroaren habe.* in JAKIN (arg.): **Gure ikastola**. Jakin Sorta, 6. Oñati.

HARANBURU ALTUNA, L. (1971/5/6): *Pedagogia askatzailea*. **Gordailuko irakasleen aldizkaria**.

HAURRIDE (1971): *Hezi jostailuak*. **Zeruko Argia**, 459.

HAURRIDE (1971/12/3): *Errege kanpaina*. **Gordailuko irakasleen aldizkaria**.

HERRIALDE (1976): *Euskal udalekuak*. **Zeruko Argia**, 691.

HOLTZ (1973): *"Batzar nagusien ondorioak" komentatuz*. **Anaitasuna**, 247.

HOURMAT, P. (1973): **L´enseignement primaire dans les Basses-Pyrénées au temps de la Monarchie Constitutionnelle 1815-1848**. I.P.S.O. Anglet.

IBARRA, P. (1987): **La evolución estratégica de ETA (1963-1987)**. Kriselu. Donostia.

IBARZABAL, E. (1978): **50 años de Nacionalismo Vasco. 1928-1978**. Ediciones Vascas. Donostia.

IBARZABAL, E. (1979): *Así nació ETA*. **Muga**, 1.

IBARZABAL, E. (1980): *En torno al nacimiento de ETA*. **Muga**, 2.

IKAS (1959): *Création de l´Association IKAS*. **Gure Herria**.

IMAZ (1972): *Zer, zergatik,... eta beste zenbait puntu*. **Zeruko Argia**, 509.

INTXAUSTI, J. (1991). **Euskal Eskolaren iraganaz. Historia baten bila. EHIHren proiektua.** Bergara: Irargi. Eusko Jaurlaritzako Kultur Saila.

IZENIK-GABE *Ikastolak. Todo sobre las ikastolas*.

IZENIK-GABE(1933/9/27): *Los primeros colegios vascos*. **Euzkadi**, 1933/9/27.

IZENIK-GABE (1975): **La otra Euskadi. El infierno de los vascos**. Euskal Elkargoa. Donibane Lohitzune.

IZTUETA, P. (1981): **Sociología del fenómeno contestatario del clero vasco. 1940-1975**. Elkar. Zarautz.

IZTUETA, P. (1993). **Orixe eta bere garaia.** Etor, Donostia.

JAUREGI, G. (1981): **Ideología y estrategia política de ETA**. Siglo XXI. Madrid.

JAUREGI, M. (1985): *Eskola biziz eta Elbire*. in Euskerazaintza (arg.): **Zipitria´tar Elbire Andereñoa. Omenaldia**. Lopez Mendizabal. Tolosa.

JAUREGUIBERRY, M. (1959): *Le disque au service de l énseignement du basque*. **Gure Herria**.

JOUTARD, P. (1984): *El tratamiento del documento oral*. **Debats**, 10.

JOUTARD, P. (1986): **Esas voces que nos llegan del pasado**. Fondo de cultura económica. Mexico.

JUNTAK, A. I. (1972): *Batzar nagusien ondorioz*. **Anaitasuna**, 246.

KINTANA, X. (1970): *Elizaren irakaskintza: Eliza eta haurrak*. **Zeruko Argia**, 382.

KINTANA, X. (1972/4/10): *Euskal Kultur Tituluei buruz*. **Gordailuko irakasleen aldizkaria**.

LABAYEN, A. M. (1971): *Euskal ikastetxe eta ikastolak*. **Aranzazu.**

LABAYEN, A. M. (1972): **Sasi-batasuna**. Lopez Mendizabal. Tolosa.

LABEGUERIE, M. (1959): *De l´intérét psychopédagogique du bilinguisme*. **Gure Herria**.

LANDETA, E. (1918): *Estado actual de la escuela en el País Vasco: sus remedios inmediatos y organización dela escuela vasca de conformidad con las condiciones locales*. **Eusko Ikaskuntzaren I. Biltzarra**, Oñati.

LANDETA, E. (1923): *Proyecto de Escuela Primaria Elemental*. **BSEV**, 17.

LANTZIRI, G. (1985): *Ipar Euskal Herriko ikastola, herri eskola*. **Larrun**, 1.

LARRAÑAGA, P. d. (1978): **Emakume Abertzale Batza**. Auñamendi.

LARRESORO (1970): *Euskalkietatik euskerara*. **Zeruko Argia**, 375.

LARRION, P. eta ZUBIRIA, P. (1992): *Patxi Zabaleta. Elkarrizketa*. **Larrun**, 12.

LASA, J. (1969): *Eliza eta ttipien eziketa*. **Zeruko Argia**, 334.

LASA, J. (1970): *Ikastolak*. **Zeruko Argia**, 357.

LASA, J. (1970): *Jainkoa eta haurrak. Arestiri erantzunez*. **Zeruko Argia**, 380.

LASA, J. (1971): **Euskal erria eta ikastola (una polémica en torno a la ikastola)**. Edili. Donostia.

LASA, J. (1973): **Ensayos críticos sobre la unificación literaria del vascuence**. Itxaropena. Zarautz.

LASA, J. I. (1968): **Sobre la enseñanza primaria en el País Vasco**. Auñamendi. Donostia.

LASPIUR, I. (1972): *Ikastola eta gurasoak*. in JAKIN (arg.): **Gure Ikastola**. Jakin Sorta, 6.

LATXAGA (1971): *Eliz-kanpai-dorren itzalean ikastola*. **Zeruko Argia**, 417.

LATXAGA (1971): *Ikastol-aurren guraso ta laguntzaille elkarteak osatu*. **Zeruko Argia**, 419.

LEGARRETA, P. M. (1977): *Alfabetaze Euskalduntze Mugimenduaren orainaz... eta geroaz*. **Jakin**, 4.

LEKUONA, M. (1985): *Elbira Zipitria*. in Euskarazaintza (arg.): **Zipitria´tar Elbire Andereñoa. Omenaldia**. Lopez Mendizabal. Tolosa.

LETAMENDIA, J. A. (1974): *Euskaldun berria baserrian*. **Zeruko Argia**, 615.

LETAMENDIA, R. (1988): **Educación y sociedad en Alava en el siglo XIX (1833-1868)**. Oviedoko Unibertsitatea (argitaratu gabeko tesi doktorala).

LOPEZ MENDIZABAL, I. (1932): **Xabiertxo. Umiei euskeraz irakurtzen erakusteko idaztia**. Lopez Mendizabal. Tolosa. (1.arg.:1925).

LORENZO ESPINOSA, J. M. (1992): **Gudari, una pasión útil: vida y obra de Elias Gallastegi (1892-1974)**. Txalaparta. Tafalla.

MAEZTU, M. (1920): *Enseñanza Primaria. Conferencia general*. **Eusko Ikaskuntzaren II. Biltzarra**, Eusko Ikaskuntza, Iruña.

MALHARAIN, J. M. (1959): *Une expérience de bilinguisme à l´école primaire*. **Gure Herria**.

MALHARIN, J. M. (1961): *Eskuara eskoletan*. **Gure Herria**,

MALHERBE, J. P. (1980): *Le nationalisme basque et les transformations socio-politiques en Pays Basque Nord*. in BIDART, P. (arg.): **La nouvelle société basque. Ruptures et changements**. Editions l´Harmattan. Paris.

MARIEZKURRENA, M. (1985): *Zipitria´tar Elbire andereñoaren irakasbidea*. in Euskerazaintza (arg.): **Zipitria´tar Elbire Andereñoa. Omenaldia**. Lopez Mendizabal. Tolosa.

MARIEZKURRENA, P. (1985): *Txotxak erabiltzea, Elbire´ren irakasbidean*. in Euskerazaintza (arg.): **Zipitria´tar Elbire Andereñoa. Omenaldia**. Lopez Mendizabal. Tolosa.

MAYORDOMO, A. (arg.). (1990): **Historia de la Educación en España. Nacional Catolicismo y Educación en la posguerra**. Brevarios de Educación. M.E.C. Madrid.

MERINO, J. B. (1971): *El vascuence en la Rioja y Burgos.* in Correo Español (arg.): **El Euskera Hoy**.

MIREN (1972/9/15): *Bartzelonatik Donostiara*. **Gordailuko irakasleen aldizkaria**.

MOCOROA, J. M. (1971): **Lengua vasca de hoy y de mañana**. Auñamendi. Donostia.

MONES i PUJOL-BUSQUETS, J. (1981): **L´escola a Catalunya sota el franquisme**. Rosa Sensat Edicions. Bartzelona.

MOVIMIENTO COOPERATIVO DE EDUCACION POPULAR, M. C. E. P. (1979): **La escuela moderna en España**. Zero Zyx. Bilbo.

MUGA (1979): *Reportaje. Federico Krutwig*. **Muga**, 2.

MUJIKA, L. (1965): *Euskera eta prejuizioak*. **Zeruko Argia**, 112.

MUNITIBAR (1971): *Euskerazaleak, Asociación para fomento del vascuence.* in Correo Español (arg.): **El Euskera Hoy**.

MUÑOYERRO, J. L. (1971): *La Academia de la Lengua Vasca.* in Correo Español (arg.): **El Euskera Hoy**.

MUTIOZABAL (1975): *Maritxu Barriola*. **Zeruko Argia**, 630-31.

NARBAITS, S. (1959): *L´enseignement du basque à l´école*. **Gure Herria**.

NAVARRO, R. (1989): *El franquismo, la escuela y el maestro. 1936-1975*. **Historia de la Educación**, 8. Salamanca.

NAVARRO, R. (1990): **La enseñanza primaria durante el franquismo (1936-1975)**. PPU. Bartzelona.

OLARRU (1970): *Ikastolak eta herria*. **Zeruko Argia**, 399.

OLAZABAL, K. (1976): *Euskal Herriko Irakasleen Sindikatu baten atarian*. **Zeruko Argia**, 686.

ONAINDIA, S. (1971): *El fenómeno del bersolarismo vasco.* in Correo Español (arg.): **El Euskera Hoy**.

ORTZI (1975): **Historia de Euskadi: el nacionalismo vasco y ETA**. Ruedo Ibérico. Paris.

OSA, E. (1972): *Ikastola eta erlijioa.* in JAKIN (arg.): **Gure Ikastola**. Jakin Sorta, 6.

OSA, E. (1972): **Pedagogia eta gizartea**. Lur. Donostia.

OSTOLAZA, M. A. (1992): *La depuración del magisterio vasco. Estudio del proceso depurador en Guipuzcoa y Vizcaya (1936-1945).* Lizentziaturarako tesina. Madrilgo Unibertsitate Autonomoa.

PALACIOS, J. (1978): **La cuestión escolar**. Laia. Bartzelona.

PASCUAL BONIS, A. (1988): *La represión del Magisterio navarro durante la guerra civil (1936-1939)*. **II. Euskal Munduko Biltzarra.**, Donostia.

PEREZ GALAN, M. (1977): **La enseñanza en la Segunda República Española**. Cuadernos para el Diálogo. Madrid.

PEREZ-AGOTE, A. (1984): **La reproducción del nacionalismo. El caso vasco**. C.I.S. Madrid.

PERURENA, J. M. (1963): *Liceo Santo Tomas de Aquino ikastolako zuzendariarekin elkarrizketa*. **Zeruko Argia**, 21.

PORQUET, M., & ICEM (1972). **Freinet Teknikak Lilitegian**. Donostia: Gordailu.

PUELLES, M. (1980): **Educación e ideología en la España contemporánea (1767-1975)**. Labor. Bartzelona.

RODRIGUEZ BORNAETXEA, A. (1988): **Bertsolaritza, formarik gabeko heziketa**. Tesi Doktorala. Euskal Herriko Unibertsitatea.

SAGUES, M. (1977): *El euskara y la enseñanza en los estatutos de autonomía*. **Saioak**, 1.

SAIOKA (1978): *Haurra aktibitatean hazi eta hezi egiten da (I)*. **Anaitasuna**, 355.

SAIOKA (1978): *Haurra aktibitatean hazi eta hezi egiten da (II)*. **Anaitasuna**, 356.

SAIOKA (1978): *Haurren adimen aurrerapenerako pedagogia baten bila*. **Anaitasuna**, 361.

SAIZAR, J. (1992/5/24): *Begoña Arrate: "ikastolan ez zela ezer ikasten esaten zuten gure etsaiek"*. **EGUNKARIA**.

SALABERRY, E. (1967): *L´alienation basque*. **Gure Herria**.

SANCHEZ CARRION, J. M. (1987): **Un futuro para nuestro pasado**. Elkar. Donostia.

SANTAMARIA, C. (1979): *El euskera como lengua escolar*. **Euskera**, XXIV.

SANTIAGO, H. (1970): *Amorotoko maixua*. **Zeruko Argia**, 380.

SATRUSTEGI, J. M. (1969): *Aingeru zuriak*. **Zeruko Argia**, 354.

SATRUSTEGI, J. M. (1972): *Nafarroako ikastolen jokabidea*. in (arg.): **Gure ikastola**. Jakin Sorta, 6.

SCOTT, J. (1990): *El género: una categoría útil para el análisis histórico.* in AMELANG, J. eta NASH, M. (arg.): **Historia y género. Las mujeres en la Europa Moderna y Contemporánea**. Alfons el Magnanim. Valencia.

SEILIEZ, J. P. (1981): *Langue basque et enseignement*. **Bulletin du Musée Basque**, 92.

SENSAT, R. (1970?): **Pedagogi Ikastaroa**. Larresorok euskeratua. Paris.

SETIEN, J. F. (1979): *Gordailu eta euskal pedagogia*. **Jakin**, 11.

SIADECO (1980): **Estudio Socio-linguístico del euskera. VII: Las Ikastolas**. Argit. gabe.

TALDEA, G. A. (1978): *Gordailu* . **Urrats, euskal pedagogia aldizkaria**, 0.

TALINTXO (1970): *Aresti Jaunari erantzuna*. **Zeruko Argia**, 382.

THOMPSON, P. (1984): *La historia oral y el historiador* . **Debats**, 10.

THOMPSON, P. (1988): **La voz del pasado. La historia oral**. Edicions Alfons el Magnànim. Valencia.

TORREALDAI, J. J. (1982): *Euskararen zapalkuntza (1936-1939)*. **Jakin**, 24.

TORREALDAI, J. M. (1969): *Euskal pentsamenduaz inkesta bat*. **Jakin**, 34.

TORREALDAI, J. M. (1970): *Euskal Alfabetatzea Unibertsidadeetan*. **Zeruko Argia**, 379.

TORREALDAI, J. M. (1971): *Kulturgintza eta Rikardo.* in TORREALDAI, J. M. (arg.): **Rikardo Arregi**. Jakin Sorta, 3. Oñati.

TORREALDAI, J. M. (1977): **Euskal idazleak gaur. Historia social de la lengua y literatura vascas**. Jakin. Oñati.

TORREALDAI, J. M. (1981): *JAKINen historiaurrea: abertzaletasuna eta euskara*. **Jakin**, 21.

TORREALDAI, J. M. (arg.). (1972): **Herriaren lekuko**. Jakin Liburu Sorta, 6. Oñati.

TORRES, I. (1971): **Umeen Deia**. Claret. Bilbo.

TRILLA, J. (1987): *La educación no formal.* in Petrus, A. (arg.): **Introducción a la Pedagogia**. Barcanova. Bartzelona.

TRINTXERPE, G. (1970): *Agindu nahiak dakarrena*. **Zeruko Argia**, 374.

TXALINTXO (1970): *Aurtxoen eta gurasoen eskubideak. 1970: ezieraren mundu guztiko urtea (I, II eta III)*. **Zeruko Argia**, 387, 389 eta 390-91.

TXILLARDEGI (1966): *Hizkuntza eta Herri-kidetasuna*. **Branka**, 2.

TXILLARDEGI (1967): *Gure eginkizunaz*. **Jakin**, 24.

TXILLARDEGI (1970): *Euskararen arazoa beste hizkuntza-pizkunderen argitan*. **Branka.**

TXILLARDEGI (1984): **Euskal kulturaren zapalketa. 1956-1981**. Elkar-AEK.

UGALDE, M. (1975): *Ikastolak non?* **Zeruko Argia**, 629.

UGALDE, M. (1975): *Irakasleak morroi*. **Zeruko Argia**, 628.

UGALDE, M. (1976): *Irakasleen Elkartea*. **Zeruko Argia**, 677.

UGALDE, M. (1976): *Irakasleen eskubideak*. **Zeruko Argia**, 675.

UGALDE, M. (1992): *El movimiento de las mujeres en la Comunidad Nacionalista Vasca hasta la guerra civil*. **I. Congreso de Historia Contemporánea**, Salamanca.

UGALDE, M. (1992): *Identidad femenina y nacionalismo vasco*. **ISSEIren III. Konferentzia**, Dinamarka.

UGALDE, M. (1993). **Mujeres y nacionalimo vasco. Genesis y desarrollo del Emakume Abertzale Batza (1906-1936).** Euskal Herriko Unibertsitateko argitarapen zerbitzua. Bilbo.

UGALDE, M. d. (1974): **Hablando con los vascos**. Ariel. Bartzelona.

UGARTE (1973): *Ikastolak norenak diren*. **Anaitasuna**, 257.

URI (1972/9/15): *Bizkaian eta Nafarroan eginiko ikastaldiez*. **Gordailuko irakasleen aldizkaria**.

URRUJULEGI, J. (1975): *Ikastolak herri girotik aparte?* **Zeruko Argia**, 635.

URRUTIA, J. (1972): *Hizkuntzbitasuna legedi positibuetan.* in JAKIN (arg.): **Gure Ikastola**. Jakin Sorta, 6. Oñati.

URTIAGA, P. (1973): *Gernikako ikastola berria*. **Anaitasuna**, 263.

USAKO (1968): *Del frente español al frente nacional vasco*. **Branka**, 7.

UZEI (1979): **Ikastoletarako textuliburuak**. Argit. gabe.

VALLE, B. d. eta AGIRRE (1979): *ETA: historia e historias*. **Punto y Hora**, 134.

VALLE, T. d. (1985). **Mujer vasca, imagen y realidad.** Anthropos. Bartzelona.

VANSINA, J. (1967): **La tradición oral**. Nueva Colección Labor. Bartzelona.

VILANOVA, M. (arg.). (1986): **El poder en la sociedad**. Bosch. Bartzelona.

VILLASANTE, L. (1961): *Euskal eskola nola ematen dedan* . **Gure Herria**.

VIÑAO FRAGO, A. (1984): *Del analfabetismoa a la alfabetización. Análisis de una mutación antropológica e historiográfica.* **Historia de la Educación**, 3. Salamanca.

XABIER, L. (1971/12/3): *Ikastola eta pedagogia*. **Gordailuko irakasleen aldizkaria.**

X.L. (1972/6/10): *Herri kultura*. **Gordailuko irakasleen aldizkaria**.

ZABALA (1969): *Frente Vasco ¿para qué?* **Branka**, 9.

ZABALA, F. (1963): *Euskeraren galera*. **Zeruko Argia**, 23.

ZABALETA, I. (1990): *Mujer, educación y nacionalismo vasco: E.A.B*. **Mujer y Educación en España 1868-1975**, VI Coloquio de Historia de la Educación. Universidad de Santiago.

ZALBIDE, M. (1990). *Euskal eskola, asmo zahar bide berri*. **Euskal Eskola Publikoaren Lehen Kongresua.**
ZALOÑA (1970): *Euskera bateratua eta ikastolak*. **Zeruko Argia**, 364.

ZALOÑA (1970): *Ikastolak eta irakasleak*. **Zeruko Argia**, 365.

ZALOÑA (1970): *Ikastolak eta irakasleak*. **Zeruko Argia**, 365.

ZARATE, M. (1971): *Literatura euskérica*. in Correo Español (arg.): **El Euskera Hoy**.

ZAVALA, B. (1971): *Extensión y situación del vascuence.* in Correo Español (arg.): **El Euskera Hoy**.

ZEN, H. (1972/9/15): *Freineten ikastaldia Bazasen*. **Gordailuko irakasleen aldizkaria**.

ZENA, L. . (1959): *L´enseignement des langues régionales face à la legislation*. **Gure Herria**.


ZUBELDIA, J. A. (1983): *Elbira Zipitria itzali zaigu, baina... .* **Isilik**, 2.


ZUBIAUR, J. (1981): *Arabako ikastolen bilakaera*. **Jakin**, 17/18.

I. ERANSKINA

E. ZIPITRIAREN ESKOLA PROGRAMA*

* Arantza Mendizalek, praktiketan zebilelarik, jasotakoaren arabera.


IGANDE
JAI
SANTIAGO
CAMPUS


SAN FRANCISCO

II. ERANSKINA

ELKARRIZKETATUEN SOSLAIAK

1. Elkarrizketa. G. M. Eskola Estataleko maistra. Gaztetatik Elbira Zipitriaren lagun haundienetakoa.

2. Elkarrizketa. F. J. Maistra tituloduna. Elbira Zipitriarekin praktikak egin ondoren, etxe eskola bat zabaldu zuen Donostiako Alde Zaharrean (1951-1960).

3. Elkarrizketa. E. K. Maistra tituloduna. Elbira Zipitriarekin praktikak egin ondoren, etxe eskola bat zabaldu zuen Donostian 1953.ean. 70. hamarkadatik aurrera Sto. Tomas Lizeoan aritzen da lanean.

4. Elkarrizketa. A. N. Maistra tituloduna. Donostiako Andereñoen Erresidentzian ondotik gaur arte Gipuzkoako ikastola batetako andereñoa. Honetaz aparte ikastolen mugimenduaren lehenengo udalekuetako antolatzailea (1965-1973).

5. Elkarrizketa. E. M. Gizonezkoa. Gurasoa. Oreretako ikastolako partaidea 1964.etik 1981.era.

6. Elkarrizketa. E. F. Gizonezkoa. Gurasoa. Elgoibarko gau-eskola eta ikastolako sortzaileetakoa, iharduera hauetan 1958.etik 1975.era ibili zelarik.

7. Elkarrizketa. A. I. Andereño enpirikoa. Karmele Esnalekin praktikak egin ondoren Elgoibarko ikastolako lehenengo irakaslea izan zen, bertan 1962.etik 1987.era egon zelarik.

8. Elkarrizketa. P. X. Gizonezkoa. Arrasateko ikastolako gurasoa. Lankide Aurrezkian 1972.etik 1980.era funtzionatu zuen ikastolen eraikuntza berrietarako arduraduna (kudeaketa eta finantziaketa arloetan).

9. Elkarrizketa. A. I. Maistra tituloduna. Karmele Esnalekin praktikak egin ondoren, Gasteizko ikastolako lehenengo andereñoa izan zen. Bertan 1963.etik 1976.era egon zen, ikastolen barruko gatazkaren ondorioz lana utzi zuen arte.

10. Elkarrizketa. E. A. Gizonezkoa. Guraso erdelduna. Santurtziko ikastolako sortzaileetakoa.

11. Elkarrizketa. E. E. Euskaldunberria. Andereño enpirikoa, geroago magisterio ikasketak burutu arren. Sestaoko Simondrogas ikastolan lanean 1971.etik 1980.era.

12. Elkarrizketa. Z. P. Euskaltzaindiako partaidea. Iruñeako ikastolako idazkari izana.